Urteko kontu bateratuei buruzko auditoretza-txostena,
auditore independente batek egina

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO
Urteko kontu bateratuak
eta Kudeaketa Txosten bateratua,
2024ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoak

Ernst & Young, S.L.
Avda, Libertad 18, Pl 1
20004 San Sebastián
España

Tel.: 94 306 51 35
ey.com

Txosten honen bertsio hau jatorrizkoaren itzulpen librea da, gaztelaniaz egina. Ahalik eta arreta handiena jarri da itzulpena jatorrizkoaren irudikapen zehatza izan dadin. Hala ere, informazioaren interpretazioari, ikuspuntuei edo iritziei dagokionez, txostenaren jatorrizko hizkuntzako bertsioa lehentasuna izango du.

URTEKO KONTU BATERATUEI BURUZKO AUDITORETZA-TXOSTENA, AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINA

Caja Laboral Popular Coop. de Créditoko bazkideei:

Urteko kontu bateratuei buruzko txostena

Iritzia

Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren (Entitate Nagusia) eta haren mendeko sozietateen (Taldea) urteko kontu bateratuak ikuskatu ditugu; hauek hartzen dituzte barne: 2024ko abenduaren 31ko balantzea eta egun horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion emaitza-kontua, emaitza globalaren egoera-orria, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, diru-fluxuen egoera-orria eta txostena, guztiak ere bateratuak.

Gure ustez, Taldeak 2024ko abenduaren 31n dituen ondarearen eta egoera finantzarioaren eta egun horretan bukatutako ekitaldiko emaitzen eta diru-fluxuen —guztiak ere bateratuak— irudi fidela erakusten dute honekin batera doazen urteko kontu bateratuek, alderdi nabarmen guztietan. Guztiek ere bete egiten dituzte Europar Batasunak emandako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak (FINA-EB) eta Espainian aplikatzekoak diren finantza-informazioko arau-esparruko gainerako xedapenak.

Iritziaren oinarria

Gure auditoretza Espainian kontu-auditoretzako jarduera arautzeko indarrean dagoen araudiari jarraikiz egin dugu. Arau horien arabera dagozkigun erantzukizunak aurrerago deskribatu ditugu gure txostenean, *Auditorearen erantzukizunak urteko kontu bateratuen auditoretzari dagokionez* atalean.

Taldetik independenteak gara, eta, beraz, bete egiten ditugu Espainian urteko kontu bateratuen gure auditoretzari aplikatzekoak diren etika-eskakizunak, independentziarenak barne, kontu-auditoretzako jarduera erregulatzen duen araudiak eskatutakoaren arabera. Ildo horretan, ez dugu eskaini kontu-auditoretzako zerbitzuaz bestelako zerbitzurik eta ez da gertatu, araudi erregulatzaile horretan ezarritakoaren arabera, beharrezko independentzia hori kolokan jar zezakeen egoerarik edo gorabeherarik.

Gure ustez, auditoretzarekin lortu dugun ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du iritzia emateko.

Domicilio Social: Calle de Raimundo Fernández Villaverde, 65. 28003 Madrid - Inscrita en el Registro Mercantil de Madrid, tomo 9.364 general, 8.130 de la sección 3ª del Libro de Sociedades, folio 68, hoja nº 87.690-1, inscripción 1ª. C.I.F. B-78970506.

A member firm of Ernst & Young Global Limited.

Auditoretzaren funtsezko gaiak

Auditoretzaren funtsezko gaiak dira, gure judizio profesionalaren arabera, aldi honetako urteko kontu bateratuei buruz egin dugun auditoretzan adierazgarrienak. Gai horiek guztiak osotasunean aztertu ditugu gure urteko kontu bateratuen auditoretzan, eta osotasunean eman dugu, halaber, horiei buruzko iritzia; hau da, ez dugu gai horietako bakoitzari buruzko iritzi bereizirik adierazi.

Bezeroentzako mailegu eta aurrerakinen zorroa kostu amortizatuan ataleko kreditu-arriskuaren ondoriozko narriaduragatiko galeren zenbatespena

Deskribapena

Erantsitako urteko kontu bateratuei buruzko txostenaren 25.b.2) oharrean xehatu denez, Taldearen bezeroentzako mailegu eta aurrerakinen zorroak kostu amortizatuan atalak 15.124.003 mila euroko balioa du 2024ko abenduaren 31n, balorazio-doikuntzak kenduta; doikuntza horiek kreditu-arriskuaren ondoriozko zenbait narriaduragatiko balio-zuzenketa hartzen dituzte barne, 300.671 mila eurokoak, hain zuzen. Erantsitako urteko kontu bateratuen txosteneko 13.h) oharrean zehatz-mehatz zehaztu dira Taldeak narriaduragatiko gastu horiek zenbatesteko (banaka nahiz multzoan) erabiltzen dituen balorazio-printzipio eta -irizpideak.

Bezeroentzako mailegu eta aurrerakinen zorroa kostu amortizatuan ataleko kreditu-arriskuaren ondoriozko narriaduragatiko galeren zenbatespena esanguratsua eta konplexua da.

Narriaduragatiko galerak zenbatesteko erabilitako metodoak direla eta, judizio-osagai handi bat aplikatu behar da, eta, horretarako, elementu hauek erabili behar dira: eragiketen arriskuaren araberako sailkapena, narriatutako esposizioen edo arriskua nabarmen hazi zaien esposizioen identifikazioa eta sailkapena, horniduretan eragina duten hipotesien erabilera, kreditu-hartzaileei emandako finantzaketaren zenbateko berreskuragarrien zenbatespenak —horien narriadura banaka balioesten da, eskuragarri dagoen azken informazioaren arabera— eta emandako kreditu-eragiketei lotutako bermeen balio bihurgarria.

Testuinguru horretan, Taldeak analisi kolektiborako darabiltzan ereduek aukera ematen diote kreditu-arriskuagatiko hornidura kolektiboak kalkulatzeko, banku-sektorean duen esperientzian eta eskura duen informazioan oinarrituta eta etorkizuneko egoerari buruz egindako aurreikuspenak kontuan hartuta. Era berean, kalkulurako metodologia espezifikoak erabiltzen ditu, narriaduragatiko galerak zenbatesteko.

Horregatik guztiagatik, bezeroentzako mailegu eta aurrerakinen zorroa kostu amortizatuan ataleko kreditu-arriskuaren ondoriozko narriaduragatiko galeren zenbatespena ezinbesteko datua da gure auditoretzan.

Gure erantzuna

Zentzu horretan, hauek egin ditugu gure auditoretzarako: kreditu-arriskuaren ondoriozko narriaduragatiko galerak zenbatesteko prozesuekin lotutako barne-kontrolaren testuingurua aztertu eta ebaluatu, eta oinarrizko prozedurak egin, banaka nahiz multzoan zenbatetsitako kreditu-arriskuagatiko estalduretarako.

Barne-kontrolaren testuingurua aztertu eta ebaluatzeko, prozedura hauetan oinarritu gara, besteak beste:

- Politikak eta prozedurak arau-eskakizun aplikagarrietara egokitzen diren ebaluatzea.

- Eragiketak emateko prozesuan maileguen eta aurrerakinen kobragarritasuna ebaluatzeko ezarritako prozedurak berrikustea, zordunaren ordainketa-gaitasunean eta finantza-informazioan oinarrituta.
- Arriskuen aldizkako jarraipena egiteko ezarri diren prozedurak berrikustea, batez ere finantza-informazioa eguneratzearekin eta zordunaren espedientea aldizka berrikustearekin lotutakoak, eta Taldeak zaintza bereziko aktiboak edo aktibo narriatuak identifikatzeko ezarritako jarraipen-alertekin lotutakoak.
- Kreditu-eragiketekin lotutako bermeak kudeatzeko eta baloratzeko ezarritako kontrol garrantzitsuen diseinua ebaluatzea.

Bestalde, oinarrizko beste prozedura hauek egin ditugu, besteak beste:

- Banaka zehaztutako narriaduragatiko galeren zenbatespenari dagokionez, eragiketen lagin bat berrikusi dugu, behar bezala sailkatuta dauden ebaluatzeko, eta Zuzendaritzak narriaduragatiko galerak identifikatzeko eta kuantifikatzeko erabilitako hipotesiak ebaluatzeko, barne hartuta zordunaren finantza-egoera, etorkizuneko kutxako fluxuen aurreikuspenak eta, dagokionean, bermeen balorazioa.
- Multzoan zehaztutako narriaduragatiko galeren zenbatespenari dagokionez, eragiketen lagin bat berrikusi dugu, eragiketa horien segmentazioa eta sailkapena ebaluatzeko. Horretarako, datu-baseetan jasotako atributu batzuk egiaztatu ditugu euskarri-dokumentazioarekin, hala nola ez-ordaintzeen antzinatasuna, birfinantzamendurik badagoen eta bermeen balioa, besteak beste.
- Horrez gain, berriz kalkulatu dugu kreditu-arriskuagatiko galeren zenbatespen kolektiboa. Horretarako, estaldura-ehunekoak kontuan hartzen dituen eredua erreplikatu dugu, Sozietateak ezarritako eragiketen segmentazioaren eta sailkapenaren arabera, eta, zegokionean, baita lotutako bermeen balioari aplikatu beharreko deskontuak ere.

Azkenik, erantsitako urteko kontu bateratuen txostenean zehaztutako informazioa egokia den ebaluatu dugu, Taldeari aplikatzekoa den finantza-informazioaren arau-esparruan ezarritako irizpideak kontuan hartuta.

Aseguru-kontratuengatiko pasiboen balorazioa

Deskribapena Taldeak Seguros Lagun Aro SA eta Seguros Lagun Aro Vida SA filialen bidez gauzatzen du bere aseguru-jarduera, eta horien produktuak (aseguru-kontratuak) Taldearen banku-sukurtsalen sarean merkaturatzen dira funtsean.

Taldeak Finantza Informazioko Nazioarteko 17. Arauaren (FINA 17 «Aseguru-kontratuak») arabera kontabilizatzen ditu aseguru-kontratu horiei lotutako pasiboak. Aseguru-kontratuetatik eratorritako betebeharrak «Aseguru- edo berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak» epigrafean jasota daude balantze bateratuan. Epigrafe hori 459.452 mila eurokoa da 2024ko abenduaren 31n, eta horietatik 376.772 mila euro «Hondar-estalduragatiko pasiboak» atalari dagokie (ikusi erantsitako urteko kontu bateratuen txostenaren 29. oharra).

Erantsitako urteko kontu bateratuen txosteneko 13.t) oharrean xehatu denez, pasibo horiek baloratzeko neurketa-eredu konplexuak aplikatzen dira, kontratuen ezaugarrien arabera.

Taldeak aplikatutako neurketa-ereduetan —zehazki Metodo Orokorra (Building Block Approach – BBA) eta Metodo Sinplifikatua (Premium Allocation Approach – PAA)—, kalkulu konplexuak egin behar ditu Zuzendaritzak, hauek zehazteko: etorkizuneko diru-fluxuen egungo balioa, arrisku ez-finantzarioaren doikuntza eta, Metodo Orokorraren (Building Block Approach – BBA) neurketa-ereduaren kasuan, kontratu-zerbitzuaren marjina.

Etorkizuneko kutxa-fluxuen egungo balioa kalkulatu ahal izateko, balorazio-metodo aktuarialak erabili behar dira, eta, horretarako, banakako kalkulu ugari egin behar dira. Gainera, funtsezko hipotesi batzuk erabili behar dira, hondar-estalduragatiko pasiboak merkaturatutako produktu-motaren arabera proiektatzeko, honako hauek, esaterako: interes-tasa teknikoa, hilkortasun-taulak, aseguratuaren sexua eta adina, eta, gertatutako ezbeharren ondoriozko pasiboengatiko etorkizuneko diru-fluxuen kasuan, proiekzio aktuarialerako hipotesiak, informazio historikoan nahiz etorkizuneko bilakaeraren hipotesietan oinarrituak.

Zenbatespenen konplexutasun-maila eta judizio-maila kontuan hartuta, eta aseguru-pasiboek Taldearen balantze bateratuan duten garrantzia kontuan hartuta, uste dugu pasibo horien balorazioa auditoretzako funtsezko gaia dela.

Gure erantzuna

Gure auditoretzaren helburua izan da, besteak beste, aseguru-kontratuengatiko pasiboen balorazio-prozesua ulertzea, eta, horretan, gure espezialista aktuarialen inplikazioa izan dugu. Zentzu horretan, prozesuaren kontrol garrantzitsuen diseinua eta ezarpena ebaluatu dira, baita pasibo horien balorazioarekin eta erregistroarekin lotutako informazio-sistemen kontrolenak ere.

Horrez gain, oinarrizko auditoretza-prozedurak egin ditugu, besteak beste, jarduketa hauek barne hartuta:

- Taldeak FINA 17 arau aplikagarriaren arabera onartutako kontabilitate-politiken egokitasuna ebaluatzea.
- Taldeak etorkizuneko kutxa-fluxuen balioa zenbatesteko erabiltzen dituen funtsezko datuen osotasuna eta zehaztasuna ebaluatzea.
- BBA eta PAA balorazio-metodoak aplikatzean FINA 17 arauaren baldintzak betetzen direla berrikustea, eta kontratuak behar bezala bereizita daudela eta kontabilitate-ereduak koherentziaz aplikatzen direla ebaluatzea.
- Metodo Orokorraren (Building Block Approach – BBA) bidez baloratutako produktuen kasuan, erabilitako metodologia berrikusi dugu, eta Taldearen Zuzendaritzak etorkizuneko fluxuen gaur egungo balioa, kontratu-zerbitzuaren marjina eta arrisku ez-finantzarioaren doikuntza kalkulatzeko erabilitako hipotesi aktuarial garrantzitsuen arrazoizkotasuna aztertu dugu. Era berean, produktuen lagin baterako etorkizuneko diru-fluxuen gaur egungo balioaren birkalkulu independente bat egin dugu.
- Metodo Sinplifikatuaren (Premium Allocation Approach – PAA) bidez baloratutako produktuen kasuan, erabilitako metodologia berrikusi dugu, eta gertatutako ezbeharretatik eratorritako aseguru-kontratuengatiko pasiboen etorkizuneko fluxuen egungo balioa kalkulatzeko erabilitako hipotesi aktuarial garrantzitsuen arrazoizkotasuna aztertu dugu. Era berean, produktuen lagin baterako birkalkulu independente bat egin dugu, eta, zenbatespen hobeko tarte batean oinarrituz, arrazoizkotasuna ebaluatu.

Azkenik, erantsitako urteko kontu bateratuen txostenean zehaztutako informazioa egokia den ebaluatu dugu, Taldeari aplikatzekoa den finantza-informazioaren arau-esparruan ezarritako irizpideak kontuan hartuta.

Auzietarako eta beste kontingentzia batzuetarako aurreikuspenen ebaluazioa

Deskribapena

Erantsitako urteko kontu bateratuen txosteneko 13.u) oharrean adierazi denez, Taldeak zenbait hornidura ditu, bere jardueraren bilakaera arruntaren ondorioz sortzen diren administrazio-prozedurak edo auziak estaltzeko.

«Hornidurak – Gainerako hornidurak» epigrafeko saldoa 231.140 mila eurokoa da 2024ko abenduaren 31n. Beste kontzeptu batzuen artean, Taldeak zenbait hornidura ditu eratuta, abian diren erreklamazio eta auzietatik edo Taldearen jardueraren ondoriozko betebeharretatik datozen gastu, galera edo erantzukizun probable edo ziurrei aurre egiteko, erantsitako urteko kontu bateratuen txosteneko 36. oharrean jasotzen den moduan.

Hornidura horiek zenbatesteko, judizio-maila handia behar da Zuzendaritzaren aldetik, hainbat faktoreren inpaktua ebaluatu behar baita, honako hauek, adibidez:

- Abian diren auziek arrakasta izateko probabilitatea eta sortutako betebeharraren zenbatespena.
- Epai judizialetako irizpideak eta joerak, eta arau-aldaketa aplikagarriak.
- Egindako erreklamazioen eta ordainketen datu historikoak.

Taldearen Zuzendaritzak hornidura bat zenbatesten du kontzeptu horiengatik, Taldearen aurka jarrita dauden auzi eta erreklamazioen tipologiei buruz eskuragarri dagoen informazioa aintzat hartuta.

Zenbatespenak dakarren ziurgabetasuna eta Taldearen urteko kontu bateratuetan izan dezakeen eragina direla eta, uste dugu auditoretzan funtsezko alderdia dela auziengatiko eta bestelako kontingentziengatiko hornidurak ebaluatzea.

Gure erantzuna

Gure auditoretzaren helburua izan da, besteak beste, kontingentzia horiek zenbatesteko prozesua ulertzea. Prozesu horrek barne hartzen du Taldearen barne-kontrolen (auzietarako eta beste kontingentzia batzuetarako horniduren ebaluazioarekin zerikusia dutenen) diseinuaren ebaluazioa, bai eta indarrean dauden demanda, erreklamazio eta auzien tipologia nagusien eta lotutako kontabilitate-horniduren analisia ere.

Era berean, oinarrizko prozedura hauek egin ditugu, besteak beste:

- Taldeak epai judizialei buruz eta erregistratutako horniduren balorazioan eragin dezaketen erregulazio-aldaketei buruz egindako ebaluazioa aztertu.
- Hornidura horiek zehazteko erabilitako datu historikoak egokiak direla egiaztatu, eta zenbait eskari eta erreklamazio aztertu, betiere egiaztatuz kasuak tipologiaren arabera multzokatuta daudela, hornidurak kalkulatzeko.
- Horniduren zenbatekoa zenbatesteko kalkuluetan erabilitako suposizioen arrazoizkotasuna ebaluatu.

- Taldearekin diharduten abokatu eta aholkularien berrespen-gutunak lortu, demandarik dagoen egiaztatzeko eta erreklamazio eta auzietatik espero den emaitzaren ebaluazioa kontrastatzeko, eta alde batera utzitako pasiborik dagoen ebaluatu.
- Auditoretza-prozedura espezifikoak egin, ekitaldia itxi ondoren auziak eta erreklamazioak nola konpondu diren jakiteko, erabilitako zenbatespenek agian doikuntzak behar dituztela erakusten duten zantzuak identifikatzeko helburuarekin.

Azkenik, erantsitako urteko kontu bateratuen txostenean zehaztutako informazioa egokia den ebaluatu dugu, Taldeari aplikatzekoa den finantza-informazioaren arau-esparruan ezarritako irizpideak kontuan hartuta.

Informazio-sistemen segurtasuna

Deskribapena

Taldearen negozio-prozesuen jarraitutasunak mendekotasun handia du azpiegitura teknologikoarekin.

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da hainbat gai ebaluatzea, hala nola antolaketa eta gobernu-esparrua. Horrek aukera eman behar du informazio-sistemetan eta segurtasun fisiko eta logikoan eragin dezaketen arrisku teknologikoak behar bezala kudeatzeko, eta finantza-informazioa lantzeko prozesuetan erabilitako sistemak, datu-baseak eta aplikazioak mantentzeko, garatzeko eta ustiatzeko, aplikazioetan egindako aldaketen ondoriozko iruzur- edo akats-arriskua arintzeko. Horregatik, gure auditoretzaren funtsezko gaitzat hartu ditugu informazio-teknologiei atxikitako arriskuak.

Gure erantzuna

Gure auditoretzaren testuinguruan, eta informazio-teknologietan adituak diren gure espezialisten bitartez, Taldearen barne-kontroleko ingurunea ebaluatu dugu, finantza-informazioa sortzeko prozesuan esku hartzen duten sistema eragileei, datu-baseei eta funtsezko aplikazioei dagokienez. Zentzu horretan, zenbait arlo frogatzea izan da, funtsean, gure lana, hala nola sarbide-kontrolak; sistema eragileen, datu-baseen eta aplikazioen programetan eta segurtasun logikoan egindako aldaketak, eta finantza-informazioa lantzeko garrantzitsuak diren aplikazioen eta sistemen mantentze-, garapen- eta ustiapen-kontrolak.

Beste gai batzuk

2024ko martxoaren 15ean, beste auditore batzuek 2023ko ekitaldiko kontuen auditoretza-txostena egin zuten, eta aldeko iritzia eman zuten.

Bestelako informazioa: Kudeaketa Txosten bateratua

Bestelako informazioari buruzko atalean, 2024ko ekitaldiko Kudeaketa Txosten bateratua soilik jaso da. Entitate Nagusiaren administratzaileen erantzukizuna da hori formulatzea, eta ez da urteko kontu bateratuetan sartu.

Urteko kontu bateratuei buruz eman dugun auditoretza-iritziak ez du eraginik Kudeaketa Txosten bateratuan. Hauxe da Kudeaketa Txostenean dugun erantzukizuna, kontu-auditoretza arautzen duen araudiak galdatzen duenari jarraikiz:

a. Informazio ez-finantzarioaren egoera-orri bateratua araudi aplikagarrian aurreikusitako moduan eman dela egiaztatzea, eta, bestela, horren berri ematea.

b. Kudeaketa Txosten bateratuan jasotako informazioa urteko kontu bateratuekin bat datorren ebaluatu eta horren berri ematea. Horretarako, kontu bateratu horien auditoretzaren bidez lortutako entitatearen gaineko ezagutza hartzen da kontuan. Halaber, Kudeaketa Txosten bateratuaren zati horren edukia eta aurkezpena araudi aplikagarriarekin bat datorren ebaluatu eta horren berri eman behar da. Egin dugun lanean oinarrituta akats materialen bat dagoela ondorioztatzen badugu, behartuta gaude horren berri ematera.

Aurrez deskribatutakoaren arabera egindako lanean oinarriturik, egiaztatu dugu aurreko a) apartatuan aipatutako informazioa araudi aplikagarrian aurreikusitako moduan eman dela, Kudeaketa Txosten bateratuan dagoen gainerako informazioa bat datorrela 2024ko ekitaldiko urteko kontu bateratuetan dagoenarekin eta haren edukiak eta aurkezpenak bete egiten dituztela indarreko arauak.

Entitate Nagusiaren administratzaileen eta Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordearen erantzukizuna urteko kontu bateratuei dagokienez

Honekin batera doazen urteko kontu bateratuak formulatzea Entitate Nagusiaren administratzaileen ardura da, eta Taldearen ondare, finantza-egoera eta emaitza bateratuen irudi fidela islatu behar dute, Espainian Taldeari aplikatzekoak zaizkion FINA-EB arauak eta finantza-informaziorako arau-esparruko gainerako xedapenak betez eta urteko kontu bateratuak iruzur edo erroreen ondoriozko akats materialik gabe prestatzeko nahitaezkotzat jotzen duten barne-kontrolari jarraikiz.

Urteko kontu bateratuak prestatzeko orduan, Entitate Nagusiaren administratzaileak arduratu behar dira Taldeak jarduneko enpresa gisa jarraitzeko gaitasunik duen baloratzeaz. Gainera, jarduneko enpresarekin lotutako gaiak azaldu behar dituzte, eta jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa erabili, salbu eta administratzaileek Taldea likidatzeko edo eragiketak eteteko asmoa badute edo beste aukera errealistarik ez badago.

Entitate Nagusiaren Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordea arduratuko da urteko kontu bateratuak egin eta aurkezteko prozesua gainbegiratzeaz.

Auditorearen erantzukizunak urteko kontu bateratuen auditoretzari dagokionez

Hauek dira gure helburuak: arrazoizko segurtasun batekin esan ahal izatea urteko kontu bateratuek, oro har, ez dutela iruzur edo erroreen ondoriozko akats materialik, eta gure iritzia biltzen duen auditoretza-txostena egitea.

Arrazoizko segurtasunak segurtasun-maila handia ziurtatzen du, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-auditoretzaren jarduerari buruzko araudia betez egindako auditoretzek akats material guzti-guztiak detektatuko dituztenik beti. Iruzur edo erroreen eraginez gerta daitezke akatsak, eta materialtzat jotzen dira, baldin eta, banaka edo multzoka, arrazoizkoa bada aurreikustea eragina izango dutela urteko kontu bateratuetan oinarrituta erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan.

Espainian auditoretza-jarduera erregulatzeko indarrean dagoen araudia bete behar duen auditoretza den heinean, gure judizio profesionala ematen dugu, eta gure jarrera eszeptizismo profesionalean oinarritzen da auditoretza osoan. Horrez gain:

- Iruzur edo erroreen eraginez urteko kontu bateratuetan akats materialak izateko arriskuak identifikatzen eta baloratzen ditugu, arrisku horiei erantzuteko auditoretza-prozedurak diseinatu eta aplikatzen ditugu eta gure iritzia oinarritzeko moduko auditoretza-ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu. Iruzurraren ondorioz akats material bat ez detektatzeko arriskua handiagoa da errorearen ondorioz gertatutako akats materialen kasuan baino, iruzurrak kolusioa, faltsutzea, nahitako ez-egiteak, nahitako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea ekar ditzakeelako berekin.

- Auditoretzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren berri jasotzen dugu, zirkunstantzien arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko, ez Taldearen barne-kontrolaren eraginkortasunaren gaineko iritzia emateko.

- Erabilitako kontabilitate-politikak egokiak diren eta kontabilitate-estimazioak eta Entitate Nagusiaren administratzaileek emandako informazioa arrazoizkoak diren baloratzen dugu.

- Entitate Nagusiaren administratzaileek jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten erabakitzen dugu, eta, lortutako auditoria-ebidentzian oinarrituta, ondorioztatzen dugu gertaeretan edo baldintzetan ba ote dagoen ziurgabetasun materialik, Taldeak jarduneko enpresa izaten jarraitzeko duen gaitasunaren inguruan zalantza nabarmenak sortzeko modukorik. Ziurgabetasun materiala dagoela ondorioztatuz gero, urteko kontu bateratuetan emandako informazioari buruz ohartarazi behar dugu gure auditoretza-txostenean. Eta, informazio hori okerrekoa bada, iritzi aldatua eman behar dugu. Gure auditoretza-txostenean egun horretara arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira gure ondorioak. Alabaina, litekeena da etorkizuneko gertaera edo baldintzen ondorioz Taldeak jarduneko enpresa izateari uztea.

- Urteko kontu bateratuen (eta informazioaren) aurkezpen globala, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, baita urteko kontu bateratuek azpiko transakzio eta azpiko egitate guztien irudi fidela erakusten duten ere.

- Taldearen auditoretza planifikatzen eta betearazten dugu, Taldeko entitateen edo negozio-unitateen finantza-informazioari buruzko ebidentzia nahikoa eta egokia lortzeko, urteko kontu bateratuei buruzko iritzia emateko. Taldearen auditoretzarako egindako lana zuzendu, gainbegiratu eta berrikusteko ardura dugu. Gure auditoretza-iritziaren erantzule bakarrak gara.

Entitate Nagusiaren Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordearekin harremanetan egoten gara, besteak beste, auditoretza noiz egingo den eta zer irismen izango duen jakiteko, auditoretzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeko eta auditoretzan aurkitutako barne-kontroleko edozein urritasun nabarmenen berri emateko.

Halaber, adierazpen bat helarazten diogu Entitate Nagusiaren Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordeari, ziurtatzeko bete ditugula independentziari buruzko etika-eskakizunak eta harekin harremanetan jarri garela gure independentziarentzat mehatxagarri izan daitezkeen gaien berri emateko eta, zegokionean, mehatxua ezabatzeko edo murrizteko hartutako babes-neurrien berri emateko.

Entitate Nagusiaren Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordeari jakinarazi dizkiogun gaien artean, aldi honetako urteko kontu bateratuen auditoretzan guretzat adierazgarrienak zein izan diren erabakitzen dugu, eta horiexek izaten dira auditoretzaren funtsezkoak gaiak.

Gai horiek gure auditoretza-txostenean deskribatzen ditugu, non eta lege- edo arau-xedapenek gaia jendaurrean ezagutzera ematea debekatzen ez duten.

Beste lege- eta arau-errekerimendu batzuei buruzko txostena

Entitate Nagusiaren Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordearentzako txosten gehigarria

Txosten honetan emandako iritzia bat dator 2025eko martxoaren 14an Entitate Nagusiaren Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordearentzat egin dugun txosten gehigarrian adierazitakoarekin.

Kontratazioaren aldia

2023ko apirilaren 22an egindako Batzar Nagusian, Taldeko auditore izendatu gintuen 3 urteko eperako, hain zuzen ere 2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitalditik kontatzen hasita.

ERNST & YOUNG SL
(Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatua, S0530 zenbakiarekin)

_____

Jaume Pallerols Cat
(Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatua, 22702 zenbakiarekin)

2025eko martxoaren 14a

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

BALANTZE BATERATUA, 2024KO ABENDUAREN 31KOA
(Mila eurokotan adierazita)

AKTIBOA	Oharra	2024	2023 (*)
Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko bestelako gordailuak (**)	**22**	**2.963.600**	**1.417.707**
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak	**23**	**3.239**	**8.038**
Deribatuak		2.226	2.647
Ondare-tresnak		1.013	2.621
Zorra adierazten duten baloreak		-	2.770
Pro-memoria: saltzeko edo pignoratzeko eskubidearekin mailegatutakoak edo berme gisa emandakoak		-	-
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak	**26**	**22.357**	**12.391**
Ondare-tresnak		20.279	10.378
Zorra adierazten duten baloreak		2.078	2.013
Pro-memoria: saltzeko edo pignoratzeko eskubidearekin mailegatutakoak edo berme gisa emandakoak		-	-
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	**24**	**1.246.987**	**996.268**
Ondare-tresnak		201.852	162.657
Zorra adierazten duten baloreak		1.045.135	833.611
Pro-memoria: saltzeko edo pignoratzeko eskubidearekin mailegatutakoak edo berme gisa emandakoak		-	-
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan	**25**	**22.174.091**	**23.381.618**
Zorra adierazten duten baloreak		6.764.861	7.947.509
Maileguak eta aurrerakinak		15.409.230	15.434.109
Pro-memoria: saltzeko edo pignoratzeko eskubidearekin mailegatutakoak edo berme gisa emandakoak		*522.988*	*870.142*
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea	**27**	**47.571**	**57.411**
Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak	**28**	**371**	**381**
Elkartuak		371	381
Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktiboak	**29**	**24.012**	**25.011**
Aktibo ukigarriak	**30**	**413.692**	**393.005**
Ibilgetu materiala		363.448	340.009
Erabilera propiokoa		345.111	326.033
Errentamendu operatiboan lagatakoa		18.337	13.976
Higiezinetako inbertsioak		50.244	52.996
Horietatik: errentamendu operatiboan lagatakoa		*39.636*	*42.259*
Pro-memoria: finantza-errentamenduan eskuratutakoa		-	-
Aktibo ukiezinak	**31**	**33.868**	**33.559**
Merkataritzako funtsa		33.425	33.425
Bestelako aktibo ukiezinak		443	134
Zergengatiko aktiboak	**32**	**134.914**	**165.956**
Zerga korronteengatiko aktiboak		3.602	727
Zerga geroratuengatiko aktiboak		131.312	165.229
Bestelako aktiboak	**33**	**28.517**	**74.351**
Pentsioei lotutako aseguru-kontratuak		-	-
Izakinak		2.039	35.148
Bestelako gainerako aktiboak		26.478	39.203
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak	**34**	**14.036**	**23.795**
AKTIBOA GUZTIRA		**27.107.255**	**26.589.491**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 eta 3.c oharrak).
(**) Ikusi xehetasuna diru-fluxuen egoera-orri bateratuan.

1etik 69ra bitarteko oharrek eta I.etik III.era bitarteko eranskinek 2024ko abenduaren 31ko balantze bateratua osatzen dute.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

BALANTZE BATERATUA, 2024KO ABENDUAREN 31KOA
(Mila eurokotan adierazita)

PASIBOA	Oharra	2024	2023 (*)
Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak	**23**	**1.487**	**2.177**
Deribatuak		1.487	2.177
Finantza-pasiboak kostu amortizatuan	**35**	**23.575.743**	**23.034.073**
Gordailuak		23.294.136	22.748.782
Banku zentralak		-	184.265
Kreditu-erakundeak		2.467	1.552
Bezeroak		23.291.669	22.562.965
Zorra adierazten duten balore jaulkiak		-	-
Bestelako finantza-pasiboak		281.607	285.291
Pro-memoria: mendeko pasiboak		-	-
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea	**27**	**337.632**	**434.648**
Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak	**29**	**459.452**	**475.544**
Hornidurak	**36**	**257.354**	**153.795**
Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak		15.749	17.785
Langileen epe luzeko bestelako ordainsariak		-	-
Ordaintzeko dauden zergen prozesu-gaiak eta auziak		-	-
Emandako konpromisoak eta bermeak		10.465	14.392
Gainerako hornidurak		231.140	121.618
Zergengatiko pasiboak	**32**	**75.849**	**112.577**
Zerga korronteengatiko pasiboak		12.650	9.249
Zerga geroratuengatiko pasiboak		63.199	103.328
Ageriko kapital sozial itzulgarria		**695**	**-**
Bestelako pasiboak	**33**	**58.447**	**82.488**
Horietatik: Gizarte Ekintzako Funtsa		*20.030*	*15.109*
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren elementu-multzo besterengarrietako pasiboak		**-**	**-**
PASIBOA GUZTIRA		**24.766.659**	**24.295.302**

ONDARE GARBIA	Oharra	2024	2023 (*)
Funts propioak	**37**	**2.299.569**	**2.126.236**
Kapitala		850.841	818.761
Ordaindutako kapitala		850.841	818.761
Pro-memoria: kapital galdatu gabea		-	-
Metatutako irabaziak		-	-
Errebalorizazio-erreserbak		-	-
Bestelako erreserbak		1.196.693	1.101.895
Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetan metatutako erreserbak edo galerak		44	37
Bestelakoetan		1.196.649	1.101.858
(–) Akzio propioak		(3.291)	(2.864)
Entitate Nagusiko jabeei egozteko moduko emaitza		255.326	208.444
(–) Konturako dibidenduak		-	-
Bestelako emaitza global metatu bat	**38**	**40.701**	**167.837**
Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak		32.669	29.493
Emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak		8.032	138.344
Interes minoritarioak (nagusi ez diren partaidetzak)		**326**	**116**
Bestelako emaitza global metatu bat		-	-
Bestelako elementuak		326	116
ONDARE GARBIA GUZTIRA		**2.340.596**	**2.294.189**
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		**27.107.255**	**26.589.491**
Pro-memoria: balantzetik kanpoko esposizioak			
Emandako finantza-bermeak	**41**	**160.325**	**159.686**
Emandako maileguen konpromisoak	**42**	**1.307.860**	**1.180.033**
Emandako bestelako konpromisoak	**42**	**468.591**	**442.426**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 eta 3.c oharrak).
1etik 69ra bitarteko oharrek eta I.etik III.era bitarteko eranskinek 2024ko abenduaren 31ko balantze bateratua osatzen dute.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

GALDU-IRABAZIEN KONTU BATERATUA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

	Oharra	2024	2023 (*)
Interesen sarrerak	**43**	**826.614**	**652.083**
(Interesen gastuak)	**44**	**184.661**	**93.207**
INTERESEN MARJINA		**641.953**	**558.876**
Dibidenduen sarrerak	**45**	**4.123**	**3.661**
Partaidetzaren metodoaz baloratutako erakundeen emaitzak	**46**	**(7)**	**10**
Komisioen sarrerak	**47**	**148.722**	**141.921**
(Komisioen gastuak)	**48**	**11.525**	**10.732**
Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuetan baja emateagatiko irabazi edo (–) galera garbiak	**49**	**(77.432)**	**(118.356)**
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboen eta -pasiboen irabazi edo (–) galera garbiak	**50**	**1.395**	**(1)**
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboen irabazi edo (–) galera garbiak	**49**	**652**	**3.735**
Arrazoizko balioan izendatu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktibo eta -pasiboen irabazi edo (–) galera garbiak	**51**	**-**	**-**
Estaldura-kontabilitatearen irabazi edo (–) galera garbiak	**52**	**(1.628)**	**20**
Kanbio-diferentzia [irabazi edo (–) galera] garbiak	**53**	**745**	**329**
Ustiapeneko bestelako sarrerak	**54**	**15.140**	**15.042**
(Ustiapeneko bestelako gastuak)	**55**	**30.147**	**60.774**
Horietatik: gizarte-ekintzako funtsetarako nahitaezko zuzkidurak		*19.218*	*14.297*
Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktiboen sarrerak	**56**	**213.262**	**204.199**
(Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboen gastuak)	**56**	**170.997**	**152.800**
MARJINA GORDINA		**734.256**	**585.130**
(Administrazio-gastuak)	**57**	**283.438**	**249.945**
(Pertsonal-gastuak)		159.662	144.977
(Bestelako administrazio-gastuak)		123.776	104.968
(Amortizazioa)	**58**	**27.884**	**25.671**
(Hornidurak edo (–) horniduren itzulera)	**59**	**145.923**	**36.720**
Arrazoizko balioan baloratu ez diren, emaitzetan aldaketak eragiten dituzten eta aldaketaren ondorioz galera edo (–) irabazi garbiak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea	**60**	**(14.038)**	**29.011**
(Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan)		(463)	(1.321)
(Finantza-aktiboak kostu amortizatuan)		(13.575)	30.332
(Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea)	**61**	**-**	**-**
(Aktibo ez-finantzarioen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea)	**62**	**570**	**2.368**
(Aktibo ukigarriak)		575	1.237
(Bestelakoak)		(5)	1.131
Aktibo ez finantzarioei kontuan baja emateagatiko irabazi edo (–) galera garbiak	**63**	**8.527**	**5.563**
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen aktibo ez-korronteetatik eta elementu-multzo besterengarrietatik datozen irabaziak edo (–) galerak	**64**	**6.030**	**(3.999)**
JARDUERA ETENGABEETATIK DATOZEN ZERGA AURREKO IRABAZIAK EDO (–) GALERAK		**305.036**	**242.979**
(Jarduera etengabeen emaitzen gaineko zergen gastuak edo (–) sarrerak)	**39**	**49.697**	**34.538**
JARDUERA ETENGABEETATIK DATOZEN ZERGA ONDORENGO IRABAZIAK EDO (–) GALERAK		**255.339**	**208.441**
Jarduera etenetatik datozen zerga ondorengo irabaziak edo (–) galerak		**-**	**-**
EKITALDIKO EMAITZA		**255.339**	**208.441**
Interes minoritarioei (nagusi ez diren partaidetzei) egozteko modukoa		**13**	**(3)**
Entitate Nagusiko jabeei egozteko modukoa	**37**	**255.326**	**208.444**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 eta 3.c oharrak).

1etik 69ra bitarteko oharrek eta I.etik III.era bitarteko eranskinek 2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratua osatzen dute.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

KONTABILIZATUTAKO SARRERA ETA GASTUEN EGOERA-ORRI BATERATUA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

	Oharra	2024	2023 (*)
EKITALDIKO EMAITZA		**255.339**	**208.441**
BESTELAKO EMAITZA GLOBAL BAT		**(127.136)**	**58.971**
Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak		**3.176**	**823**
Arrazoizko balioan baloratu diren eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten ondare-tresnen arrazoizko balioaren aldaketak	**38**	4.356	1.113
Irabazien gaineko zerga, birsailkatuko ez diren elementuena		(1.180)	(290)
Emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak		**(130.312)**	**58.148**
Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldura (zati efektiboarena)		**-**	**-**
Dibisa-bihurketa		**-**	**-**
Diru-fluxuen estaldura (zati efektiboarena)	**38**	**(188.443)**	**(17.986)**
Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak		(188.443)	(17.986)
Emaitzetara transferitua		-	-
Bestelako birsailkapenak		-	-
Estaldura-tresnak (izendatu gabeko elementuak)		**-**	**-**
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten zor-tresnak arrazoizko balioan		**7.055**	**98.097**
Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak		(5.676)	26.588
Emaitzetara transferitua		12.731	71.509
Bestelako birsailkapenak			-
Saltzeko dauden aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak		**-**	**-**
Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetako kontabilizatutako bestelako sarrera eta gastuetan parte hartzea		**-**	**-**
Irabazien gaineko zerga, irabazietan edo (–) galeretan birsailka daitezkeen elementuena	**39**	**51.076**	**(21.963)**
EKITALDIKO GUZTIZKO EMAITZA GLOBALA		**128.203**	**267.412**
Interes minoritarioei (nagusi ez diren partaidetzei) egozteko modukoa		**13**	**(3)**
Entitate Nagusiko jabeei egozteko modukoa		**128.190**	**267.415**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 eta 3.c oharrak).

1etik 69ra bitarteko oharrek eta I.etik III.era bitarteko eranskinek 2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko sarrera eta gastu kontabilizatuen egoera-orri bateratua osatzen dute.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA-ORRI BATERATUA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

2024ko abenduaren 31n

Ondare garbiaren aldaketen iturriak	Kapitala	Bestelako erreserbak	(–) Akzio propioak	Entitate Nagusiko jabeei egozteko moduko emaitza	(–) Konturako dibidenduak	Bestelako emaitza global metatu bat	Interes minoritarioak	Guztira
2024ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa	**818.761**	**1.101.895**	**(2.864)**	**208.444**	**-**	**167.837**	**116**	**2.294.189**
Akatsen zuzenketaren eraginak	-	-	-	-	-	-	-	-
Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak (3. oharra)	-	-	-	-	-	-	-	-
2024ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa (*)	**818.761**	**1.101.895**	**(2.864)**	**208.444**	**-**	**167.837**	**116**	**2.294.189**
Ekitaldiko guztizko emaitza globala	**-**	**-**	**-**	**255.326**	**-**	**(127.136)**	**13**	**128.203**
Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	**32.080**	**94.798**	**(427)**	**(208.444)**	**-**	**-**	**197**	**(81.796)**
Akzio arrunten jaulkipena	36.830	290	-	-	-	-	-	37.120
Lehentasunezko akzioen jaulkipena	-	-	-	-	-	-	-	-
Bestelako ondare-tresnen jaulkipena	-	-	-	-	-	-	-	-
Jaulkitako bestelako ondare-tresnak erabiltzea edo mugaeguneratzea	-	-	-	-	-	-	-	-
Zorra ondare garbi bihurtzea	-	-	-	-	-	-	-	-
Kapital-murrizketa	(4.779)	-	-	-	-	-	-	(4.779)
Dibidenduak (edo bazkideei egindako ordainketak)	-	-	-	-	(57.539)	-	-	(57.539)
Akzio propioak erostea	-	-	(427)	-	-	-	-	(427)
Akzio propioak saltzea edo ezereztea	-	-	-	-	-	-	-	-
Ondare garbiko finantza-tresnak pasiboan birsailkatzea	(463)	-	-	-	-	-	-	(463)
Pasiboko finantza-tresnak ondare garbira birsailkatzea	492	-	-	-	-	-	-	492
Ondare garbiko osagaien arteko transferentziak	-	93.716	-	(151.255)	57.539	-	-	-
Negozio-konbinazioengatiko ondare garbiaren gehikuntza edo (–) murrizketa	-	-	-	-	-	-	-	-
Akzioetan oinarritutako ordainketak	-	-	-	-	-	-	-	-
Ondare garbiaren bestelako gehikuntzak edo (–) murrizketak	-	792	-	(57.189)	-	-	197	(56.200)
Horietatik: obra eta funts sozialetarako hautazko zuzkidura	-	-	-	-	-	-	-	-
2024ko abenduaren 31ko itxierako saldoa	**850.841**	**1.196.693**	**(3.291)**	**255.326**	**-**	**40.701**	**326**	**2.340.596**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 eta 3.c oharrak).

1etik 69ra bitarteko oharrek eta I.etik III.era bitarteko eranskinek 2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko ondare garbiaren aldaketen egoera-orri bateratua osatzen dute.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA-ORRI BATERATUA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

2023ko abenduaren 31n (*)

Ondare garbiaren aldaketen iturriak	Kapitala	Bestelako erreserbak	(–) Akzio propioak	Entitate Nagusiko jabeei egozteko moduko emaitza	(–) Konturako dibidenduak	Bestelako emaitza global metatu bat	Interes minoritarioak	Guztira
2023ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa	**797.870**	**1.072.721**	**(2.507)**	**139.060**	**-**	**77.405**	**-**	**2.084.549**
Akatsen zuzenketaren eraginak	-	-	-	-	-	-	-	-
Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak (3. oharra)	-	(25.030)	-	(4.522)	-	31.461	-	1.909
2023ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa (*)	**797.870**	**1.047.691**	**(2.507)**	**134.538**	**-**	**108.866**	**-**	**2.086.458**
Ekitaldiko guztizko emaitza globala	**-**	**-**	**-**	**208.444**	**-**	**58.971**	**(3)**	**267.412**
Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	**20.891**	**54.204**	**(357)**	**(134.538)**	**-**	**-**	**119**	**(59.681)**
Akzio arrunten jaulkipena	29.630	126	-	-	-	-	-	29.756
Lehentasunezko akzioen jaulkipena	-	-	-	-	-	-	-	-
Bestelako ondare-tresnen jaulkipena	-	-	-	-	-	-	-	-
Jaulkitako bestelako ondare-tresnak erabiltzea edo mugaeguneratzea	-	-	-	-	-	-	-	-
Zorra ondare garbi bihurtzea								
Kapital-murrizketa	(8.739)	-	-	-	-	-	-	(8.739)
Dibidenduak (edo bazkideei egindako ordainketak)	-	-	-	-	(36.064)	-	-	(36.064)
Akzio propioak erostea	-	-	(357)	-	-	-	-	(357)
Akzio propioak saltzea edo ezereztea	-	-	-	-	-	-	-	-
Ondare garbiko finantza-tresnak pasiboan birsailkatzea	-	-	-	-	-	-	-	-
Pasiboko finantza-tresnak ondare garbira birsailkatzea	-	-	-	-	-	-	-	-
Ondare garbiko osagaien arteko transferentziak	-	52.678	-	(88.742)	36.064	-	-	-
Negozio-konbinazioengatiko ondare garbiaren gehikuntza edo (–) murrizketa	-	-	-	-	-	-	-	-
Akzioetan oinarritutako ordainketak	-	-	-	-	-	-	-	-
Ondare garbiaren bestelako gehikuntzak edo (–) murrizketak	-	1.400	-	(45.796)	-	-	119	(44.277)
Horietatik: obra eta funts sozialetarako hautazko zuzkidura	-	-	-	-	-	-	-	-
2023ko abenduaren 31ko itxierako saldoa	**818.761**	**1.101.895**	**(2.864)**	**208.444**	**-**	**167.837**	**116**	**2.294.189**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 eta 3.c oharrak).

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

DIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRI BATERATUA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

	Oharra	2024	2023 (*)
A) USTIAPEN-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK		**1.658.772**	**159.443**
Ekitaldiko emaitza		**255.339**	**208.441**
Ustiapen-jardueretako diru-fluxuak lortzeko doikuntzak		**170.185**	**98.692**
Amortizazioa	**58**	27.884	25.671
Bestelako doikuntzak (a)		142.301	73.021
Ustiapen-aktiboen gehikuntza/murrizketa garbia		**848.271**	**1.362.115**
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak		4.799	1.504
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak		(9.966)	30.279
Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan		-	-
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan		(226.493)	(73.131)
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan		979.555	1.324.939
Ustiapeneko bestelako aktiboak		100.376	78.524
Ustiapen-pasiboen gehikuntza/murrizketa garbia		**385.144**	**(1.509.254)**
Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak		(690)	(1.507)
Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan		-	-
Finantza-pasiboak kostu amortizatuan		541.670	(1.436.617)
Ustiapeneko bestelako pasiboak		(155.836)	(71.130)
Irabazien gaineko zergengatiko kobrantzak/ordainketak		**(167)**	**(551)**
B) INBERTSIO-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK		**(31.054)**	**(30.933)**
Ordainketak		**(63.811)**	**(62.463)**
Aktibo ukigarriak	**30**	(63.502)	(62.329)
Aktibo ukiezinak		(309)	(134)
Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak		-	-
Mendeko erakundeak eta bestelako negozio-unitateak	**28**	-	-
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta pasiboak		-	-
Inbertsio-jarduerekin zerikusia duten bestelako ordainketak		-	-
Kobrantzak		**32.757**	**31.530**
Aktibo ukigarriak (b)	**30**	14.802	8.750
Aktibo ukiezinak		-	-
Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak	**28**	-	-
Mendeko erakundeak eta bestelako negozio-unitateak	**28**	-	-
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta pasiboak		17.955	22.780
Inbertsio-jarduerekin zerikusia duten bestelako kobrantzak		-	-
C) FINANTZAKETA-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK		**(81.825)**	**(61.201)**
Ordainketak		**(118.945)**	**(90.957)**
Dibidenduak	**37**	(57.539)	(36.064)
Mendeko pasiboak		-	-
Ondare propioko tresnak amortizatzea	**37**	(60.979)	(54.536)
Ondare propioko tresnak eskuratzea	**37**	(427)	(357)
Finantzaketa-jarduerekin zerikusia duten bestelako ordainketak	**4**	-	-
Kobrantzak		**37.120**	**29.756**
Mendeko pasiboak		-	-
Ondare propioko tresnen jaulkipena	**37**	37.120	29.756
Ondare propioko tresnak besterentzea		-	-
Finantzaketa-jarduerekin zerikusia duten bestelako kobrantzak		-	-
D) KANBIO-TASEN ALDAKETEN ERAGINA		**-**	**-**
E) ESKUDIRUAREN ETA BALIOKIDEEN GEHIKUNTZA/MURRIZKETA GARBIA (A+B+C+D)		**1.545.893**	**67.309**
F) ESKUDIRUA ETA BALIOKIDEAK EPEALDIAREN HASIERAN		**1.417.707**	**1.350.398**
G) ESKUDIRUA ETA BALIOKIDEAK EPEALDIAREN BUKAERAN		**2.963.600**	**1.417.707**
PRO-MEMORIA			
ESKUDIRUAREN ETA BALIOKIDEEN OSAGAIAK EPEALDIAREN BUKAERAN	**22**		
Horretatik: taldeko erakundeek dituztenak baina taldeak erabili ezin dituenak			
Eskudirua		102.895	94.534
Eskudiruaren pareko saldoak banku zentraletan		2.805.296	1.261.130
Bestelako finantza-aktiboak		55.409	62.043
Ken: ageriko banku-zorpeko itzulgarriak		-	-

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 eta 3.c oharrak).

(a) Batez ere funtsetarako zuzkidurak sartzen dira: narriaduragatiko zuzenketen ondoriozkoak eta eskudiru-irteerarik ekarri ez duten hornikuntzen ondoriozkoak.

(b) Salmentan sortutako irabazia edo galera dago zenbateko horietan sartuta.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

1. Entitatearen izaera

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito (aurrerantzean Entitate Nagusia, LABORAL Kutxa edo Caja Laborala), helbide soziala Arrasaten (Gipuzkoan) duen eta 2012ko azaroaren 2an eratu zen kreditu-kooperatiba da. Caja Laboral Popular Coop. de Créditok eta Ipar Kutxa Rural S. Coop. de Créditok bat eginez sortu zuten. Kooperatiba-izaera du Entitate Nagusi horrek.

Espainiako Bankuak gainbegiratzen du.

Entitate Nagusiaren kapitalak ez du burtsan kotizatzen.

1.1 Caja Laboralaren eta Ipar Kutxaren arteko bat-egitea

2012ko urtean, Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren eta Ipar Kutxa Rural, S. Coop. de Créditoren gobernu-organoen erabakiz, bi erakundeek bat egin eta Kreditu Kooperatiba Berria sortu zuten. Caja Laboral Popular Coop. de Crédito du izena eta estatutu sozialetan zehaztuta dauden helburua, helbidea, kapitala eta gainerako ezaugarriak ditu. Kreditu Kooperatiben 1989ko maiatzaren 26ko 13/1989 Legeak eta legezko gainerako xedapen aplikagarriek arautzen dute.

Bat-egite horren eraginez, bat egindako kreditu-kooperatiba biak desegin eta iraungi egin ziren, likidazio-aldirik ireki gabe. Kreditu Kooperatiba Berria 2012ko azaroaren 2an erregistratu zen Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan, eta data hori ezarri zen bat egindako entitateen eragiketak kontabilitateari begira Kreditu Kooperatiba Berriaren eragiketatzat hartzeko lehen eguntzat.

1.2 Estatutuak

Entitate Nagusiko estatutu sozialen arabera, haren jarduera ez dago inolako lurralde-eremutara mugatuta, eta bazkideen eta hirugarrenen finantza-beharrak kreditu-erakundeen berezko jardueren bidez asetzea du helburu. Xede horrekin, gainerako kreditu-erakundeek egin ditzaketen mota guztietako eragiketa aktibo, pasibo eta zerbitzuzkoak egin ahal izango ditu, bere helburu kooperatiboak sustatzeko eta ondoen betetzeko balio dutenak barne. Arreta berezia eskainiko die bere bazkideen finantza-beharrei, eta hirugarrenekiko eragiketa aktiboetarako legezko mugak errespetatuko ditu.

Kreditu-kooperatibei besteak beste hauek agintzen dizkie beren lege-araudiak:

a) Espainiako Bankuan aktibo likidoen gutxieneko ehuneko bat gordailututa izatea, gutxieneko erreserben koefizientea estaltzeko.

b) Gordailuak Bermatzeko Funtsera hainbateko bat bideratzea, gordailugileek euren gordailuen zenbateko jakin bat berreskuratu ahal izateko.

c) Ekitaldi bakoitzeko soberakin garbia Heziketako eta Sustapeneko Funtsera eta erreserbetara bideratzea.

d) Baliabide propioen gutxieneko bat gordetzea, egindako inbertsioen eta onartutako arriskuen arabera.

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito eta mendeko sozietateak

Caja Laboral Popular Taldeak eta haren partaidetzapeko erakundeek osatzen duten Partaidetzapeko Erakundeen Taldeko —aurrerantzean Taldea edo LABORAL Kutxa Taldea— Entitate Nagusia da Caja Laborala. Ondorioz, Entitate Nagusia behartuta dago, bere urteko kontu indibidualez gain —horiei ere nahitaezko auditoretza egiten zaie—, Taldearen urteko kontu bateratuak egitera. Kontuok barne hartzen dituzte, dagokionean, mendeko erakundeetako eta erakunde taldeaniztunetako partaidetzak eta erakunde elkartuetako inbertsioak. Taldeko erakundeek jarduera-esparru ugari ukitzen dituzte.

2024ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiaren guztizko aktiboek, ondare garbiak eta emaitza garbiak Taldearen kontzeptu bereko kopuruen % 97,97, % 96,24 eta % 92,78 osatzen dute, hurrenez hurren (% 97,98, % 97,27 eta % 89,34, hurrenez hurren, 2023ko abenduaren 31n).

Ondoren, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan Entitate Nagusiak zituen balantze indibiduala, galdu-irabazien kontu indibiduala, kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orri indibiduala, ondare garbiaren aldaketen egoera-orri indibiduala eta diru-fluxuen egoera-orri indibiduala aurkeztuko ditugu. Horiek guztiak Entitate Nagusiaren urteko kontu indibidualak egiteko erabili behar diren kontabilitate-printzipio eta -arau eta balorazio-irizpide berberak aplikatuz egin dira.

a) Balantze indibiduala, 2024ko abenduaren 31koa:

AKTIBOA	**2024**	**2023 (*)**
Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko bestelako gordailuak	2.933.711	1.398.014
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak	3.239	8.038
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak	19.863	9.994
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	751.282	525.353
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan	22.092.793	23.312.907
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea	47.571	57.411
Mendekoetako, baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak	155.021	160.786
Aktibo ukigarriak	391.859	371.116
Aktibo ukiezinak	-	-
Zergengatiko aktiboak	123.657	151.573
Bestelako aktiboak	24.212	34.334
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak	14.036	23.525
Aktiboa guztira	26.557.244	26.053.051

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

PASIBOA ETA ONDARE GARBIA	**2024**	**2023 (*)**
Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak	1.487	2.177
Finantza-pasiboak kostu amortizatuan	23.608.431	23.067.854
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea	337.632	434.648
Hornidurak	248.842	147.632
Zergengatiko pasiboak	52.958	90.790
Ageriko kapital itzulgarria	695	-
Bestelako pasiboak	54.579	78.442
Pasiboa guztira	24.304.624	23.821.543
Funts propioak:	2.233.822	2.079.353
Kapitala	850.841	818.761
Bestelako erreserbak	1.146.091	1.074.378
Ekitaldiko emaitza	236.890	186.214
(Konturako dibidenduak)		-
Bestelako emaitza global metatu bat	18.798	152.155
Ondare garbia guztira	2.252.620	2.231.508
Ondare garbia eta pasiboa guztira	26.557.244	26.053.051
PRO-MEMORIA		
Emandako finantza-bermeak	160.446	161.317
Emandako maileguen konpromisoak	1.298.870	1.177.723
Emandako bestelako konpromisoak	471.435	449.377

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

b) Galdu-irabazien kontu indibiduala, 2024ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

	2024	2023 (*)
Interesen sarrerak	808.021	640.528
(Interesen gastuak)	184.630	93.186
Interesen marjina	623.391	547.342
Dibidenduen sarrerak	3.705	9.813
Komisioen sarrerak	127.371	125.295
(Komisioen gastuak)	10.789	10.428
Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuetan baja emateagatiko irabazi edo (–) galera garbiak	(64.468)	(110.043)
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboen eta -pasiboen irabazi edo (–) galera garbiak	1.395	(1)
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboen irabazi edo (–) galera garbiak	554	807
Estaldura-kontabilitatearen irabazi edo (–) galera garbiak	(1.628)	20
Kanbio-diferentzia [irabazi edo (–) galera] garbiak	750	329
Ustiapeneko bestelako sarrerak	39.021	40.998
(Ustiapeneko bestelako gastuak)	30.146	60.624
Marjina gordina	689.156	543.508
(Administrazio-gastuak)	264.284	231.040
(Amortizazioa)	27.713	25.421
(Hornidurak edo (–) horniduren itzulera)	143.757	38.520
(Arrazoizko balioan baloratu ez diren, emaitzetan aldaketak eragiten dituzten eta aldaketaren ondorioz galera edo (–) irabazi garbiak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea)	(14.145)	30.160
(Mendekoetako, baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea)	(7.282)	(2.145)
(Aktibo ez-finantzarioen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea)	567	1.031
Aktibo ez finantzarioei eta partaidetzei kontuan baja emateagatiko irabazi edo (–) galera garbiak	(392)	448
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen aktibo ez-korronteetatik eta elementu-multzo besterengarrietatik datozen irabaziak edo (–) galerak	6.025	(7.767)
Jarduera etengabeetatik datozen zerga aurreko irabaziak edo (–) galerak	279.895	212.162
(Jarduera etengabeen emaitzen gaineko zergen gastuak edo (–) sarrerak)	43.005	25.948
Jarduera etengabeetatik datozen zerga ondorengo irabaziak edo (–) galerak	236.890	186.214
Jarduera etenetatik datozen zerga ondorengo irabaziak edo (–) galerak	-	-
Ekitaldiko emaitza	**236.890**	**186.214**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

c) Kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orri indibiduala, 2024ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

	2024	2023 (*)
EKITALDIKO EMAITZA	**236.890**	**186.214**
BESTELAKO EMAITZA GLOBAL BAT	**(133.357)**	**49.671**
Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak	**2.423**	**414**
Arrazoizko balioan baloratu diren eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten ondare-tresnen arrazoizko balioaren aldaketak	3.365	575
Irabazien gaineko zerga, birsailkatuko ez diren elementuena	(942)	(161)
Emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak	**(135.780)**	**49.257**
Diru-fluxuen estaldurak (zati eraginkorra)	**(188.443)**	**(17.986)**
Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak	**(188.443)**	(17.986)
Emaitzetara transferitua		-
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten zor-tresnak arrazoizko balioan	**(141)**	**86.398**
Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak	(221)	21.460
Emaitzetara transferitua	80	64.938
Bestelako birsailkapenak		
Irabazien gaineko zerga, irabazietan edo (–) galeretan birsailka daitezkeen elementuena	**52.804**	**(19.155)**
EKITALDIKO GUZTIZKO EMAITZA GLOBALA	**103.533**	**235.885**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

d) Ondare garbiaren aldaketen egoera-orri indibiduala, 2024ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

2024ko ekitaldiko aldakuntza

	Funts propioak	Bestelako emaitza global metatu bat	Ondare garbia guztira
2024ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa	**2.079.353**	**152.155**	**2.231.508**
Akatsen zuzenketaren eraginak	-	-	-
Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak	-	-	-
2024ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa	**2.079.353**	**152.155**	**2.231.508**
Ekitaldiko guztizko emaitza globala	**236.890**	**(133.357)**	**103.533**
Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	**(82.421)**	**-**	**(82.421)**
- Akzio arrunten jaulkipena	37.119	-	37.119
- Kapital-murrizketa	(4.779)	-	(4.779)
- Dibidenduak (edo bazkideei egindako ordainketak)	(57.251)	-	(57.251)
- Ondare garbiko osagaien arteko transferentziak	(57.539)	-	(57.539)
Finantza-tresnen birsailkapena	29	-	29
- Ondare garbiaren bestelako gehikuntzak edo (–) murrizketak	-	-	-
Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak guztira	**(82.421)**	**-**	**(82.421)**
2024ko abenduaren 31ko itxierako saldoa	**2.233.822**	**18.798**	**2.252.620**

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

2023ko ekitaldiko aldakuntza (*)

	Funts propioak	Bestelako emaitza global metatu bat	Ondare garbia guztira
2023ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa	**1.953.489**	**102.484**	**2.055.973**
Akatsen zuzenketaren eraginak	-	-	-
Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak	-	-	-
2023ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa	**1.953.489**	**102.484**	**2.055.973**
Ekitaldiko guztizko emaitza globala	**186.214**	**49.671**	**235.885**
Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak			
- Akzio arrunten jaulkipena	29.756	-	29.756
- Kapital-murrizketa	(8.739)	-	(8.739)
- Dibidenduak (edo bazkideei egindako ordainketak)	(36.064)	-	(36.064)
- Ondare garbiko osagaien arteko transferentziak	-	-	-
- Ondare garbiaren bestelako gehikuntzak edo (–) murrizketak	(45.303)	-	(45.303)
Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak guztira	**(60.350)**	**-**	**(60.350)**
2023ko abenduaren 31ko itxierako saldoa	**2.079.353**	**152.155**	**2.231.508**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

e) Diru-fluxuen egoera-orri indibiduala, 2024ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

	2024	2023 (*)
Ustiapen-jardueretako diru-fluxuak:	**1.631.774**	**174.452**
Ekitaldiko emaitza	236.890	186.214
Ustiapen-jardueretako diru-fluxuak lortzeko doikuntzak	(119.026)	104.200
Ustiapen-aktiboen gehikuntza/murrizketa garbia	1.098.443	1.335.387
Ustiapen-pasiboen gehikuntza/murrizketa garbia	415.634	(1.450.798)
Mozkinen gaineko zergen kobrantzak/(ordainketak)	(167)	(551)
Inbertsio-jardueretako diru-fluxuak:	**(13.627)**	**(55.161)**
Ordainketak	(100.933)	(98.946)
Kobrantzak	87.306	43.785
Finantzaketa-jardueren eskudiru-fluxuak	**(82.450)**	**(60.844)**
Kanbio-tasen aldaketen eragina	**-**	**-**
Eskudiruaren eta baliokideen gehikuntza/murrizketa garbia	**1.535.697**	**58.447**
Eskudirua eta baliokideak ekitaldiaren hasieran	**1.398.014**	**1.339.567**
Eskudirua eta baliokideak ekitaldiaren bukaeran	**2.933.711**	**1.398.014**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

2. Urteko kontu bateratuak aurkezteko oinarriak

2.1 Irudi fidela

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko uztailaren 19ko 1606/2002 EB Erregelamenduarekin bat, sozietate bat Europar Batasuneko estatu kideen zuzenbidearen pean arautzen bada eta beraren balore-tituluak estatu kideren bateko merkatu arautuan kotizatzen badira, Finantza Informazioko Nazioarteko Arauen —aurrerantzean, FINA— eta Europar Batasunak onartutako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauen —aurrerantzean, FINA-EB— arabera aurkeztu behar dituzte, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldi guztietako urteko kontu bateratuak. Hain zuzen ere, Espainiako kreditu-erakundeen kontabilitate-araubidea araudi horretara egokitzeko asmoz argitaratu zuen Espainiako Bankuak 2004ko abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularra, finantza-informazio publiko eta isilpekoari buruzko arauei eta finantzetako egoera-orrien ereduei buruzkoa, gerora, 2018ko urtarrilaren 1ean, indargabetuta gelditu zena, Espainiako Bankuaren 2017ko azaroaren 27ko 4/2017 Zirkularra indarrean jarri zenean.

2022ko ekitaldian indarrean sartu zen Espainiako Bankuaren 2022ko abenduaren 22ko 6/2021 Zirkularra, 2017ko azaroaren 27ko 4/2017 Zirkularra, kreditu-entitateentzakoa, finantza-informazio publiko eta erreserbatuari eta finantza-egoerei buruzkoa, eta 2019ko azaroaren 26ko 4/2019 Zirkularra, kredituko finantza-establezimenduentzakoa, finantza-informazio publiko eta erreserbatuaren arauei eta finantza-egoeren ereduei buruzkoa, indargabetu zituena.

Taldearen urteko kontu bateratu hauek aurkezteko, Europar Batasunak 2018ko abenduaren 31n onartutako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauek —aurrerantzean, FINA-EB— ezarritakoa hartu da oinarritzat. Bestalde, Espainiako Bankuaren 2017ko azaroaren 27ko 4/2017 Zirkularra, Espainiako Bankuaren 2004ko abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularra ordezkatzen duena, eta ondorengo aldaketak hartu dira aintzat. Zirkular horren bidez, Europar Batasunak onartutako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak (FINA) garatu egin dira eta Espainiako kreditu-erakundeen sektorera egokitu.

Txosten honetan KNA eta FINA laburdurak erabili dira Kontabilitateko Nazioarteko Arauei eta Finantza Informazioko Nazioarteko Arauei buruz hitz egiteko, eta FINAIB eta SIC laburdurak Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak Interpretatzeko Batzordearen eta aurretiko Interpretazio Batzordearen interpretazioei buruz hitz egiteko, hurrenez hurren. Horiek guztiak Europar Batasunak onartu ditu, eta urteko kontu bateratu hauek egiteko erabili dira.

Urteko kontu bateratuak egitean, beraietan eragin nabarmena duten kontabilitate-printzipio eta -arau guztiak eta nahitaez ezarri beharreko balorazio-irizpideak erabili ditugu. Horiek horrela, 2024ko abenduaren 31n Taldearen ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela ez ezik, egun horretan amaitutako urteko ekitaldian Taldean gertatu diren eragiketen, ondare garbiaren aldaketen eta diru-fluxuen emaitza bateratuen irudi fidela ere ematen dute.

Txostenaren 13. oharrean laburtu ditugu Taldearen 2024ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak egiteko erabilitako kontabilitate-printzipio eta -araurik eta balorazio-irizpiderik nabarmenenak.

Urteko kontu bateratuak egiteko, Entitatearen eta Taldeko gainerako entitateen kontabilitate-erregistroak hartu dira aintzat. Dena den, gerta liteke Taldearen 2024ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak egiteko aplikatu diren kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balorazio-irizpideak bat ez etortzea Taldeko zenbait erakundek erabilitakoekin. Hori dela eta, kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balorazio-irizpideak homogeneizatzeko eta Entitateak aplikatutako FINA-EB arauetara egokitzeko beharrezko doikuntza eta birsailkapenak egin ditugu baterakuntza-prozesuan.

Urteko kontu bateratu hauetan jaso den informazioa Taldeko Entitate Nagusiko kontseilarien erantzukizuna da.

Taldearen 2024ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak Kontseilu Errektorearen 2025eko otsailaren 28ko bileran formulatu dituzte Entitate Nagusiko kontseilariek. Orain, Batzar Nagusiaren onespenaren zain daude, eta espero da aldaketa nabarmenik egin gabe onetsiko dituela.

Urteko kontu bateratuok, kontrakorik esaten ez bada, mila eurokotan aurkeztu dira.

2.2 Bateratzeko printzipioak

Taldearen definizioa Europar Batasunak erabakitako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauetan (FINAetan) ezarritakoaren arabera egin da. Partaidetzapeko erakundeak dira mendeko erakunde, baterako negozio eta elkartu guztiak.

2.2.1) Mendeko erakundeak

Taldearen kontrolpean dauden erakundeak jotzen dira mendeko erakundetzat. Egoera hori gertatzen da Taldeak partaidetzapekoan duen inplikaziotik datozen etekin aldakorrak jasotzeko eskubidea badu eta partaidetzapekoaren gainean duen boterearen bidez etekin horietan eragiteko gaitasuna badu.

Kontrola dagoela onartzeko, bat etorri behar dute hauek:

- Botereak. Inbertitzaileak partaidetzapeko baten gaineko boterea duela esango dugu, baldin eta indarrean baditu jarduera garrantzitsuak, hau da, partaidetzapekoaren etekinetan nabarmen eragiten dutenak, zuzentzeko gaitasuna ematen dioten eskubideak.

- Etekinek. Inbertitzaileak partaidetzapekoan duen inplikazioagatik etekin aldakorrak jasotzeko eskubidea duela esango dugu, baldin eta inplikazio horregatik lortzen dituen etekinak aldatu egin badaitezke partaidetzapekoaren bilakaera ekonomikoaren arabera. Inbertitzailearen mozkinak positiboak soilik, negatiboak soilik edo aldi berean positiboak eta negatiboak izan daitezke.

- Boterearen eta etekinen arteko erlazioak. Inbertitzaileak partaidetzapekoa kontrolatzen duela esango dugu, baldin eta, partaidetzapekoaren gainean boterea izateaz gain, eskubidea badu partaidetzapekoan duen inplikazioagatik etekin aldakorrak jasotzeko eta partaidetzapekoan duen inplikazioagatiko etekinetan eragiteko erabil badezake botere hori.

Bestalde, kontrolik dagoen ala ez ebaluatzeko prozesuan eragin dezakeen edozein gertaera edo inguruabar kontuan hartzen du Taldeak, bai eta erreferentziazko araudiaren aplikazio-gidaliburuetan deskribatutako analisiak ere (adibidez, Taldeak boto-eskubideen % 50etik gorako zuzeneko edo zeharkako partaidetza duen, ebaluatzen ari den entitatean).

Mendeko erakundeetako partaidetzei buruzko 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko informazio garrantzitsua I. eranskinean jaso da.

Mendeko erakundeen urteko kontuak Entitatearenekin bateratzeko, integrazio globalaren metodoa erabiltzen da. Ondorioz, bateratutako erakundeen artean metodo honen bidez egindako transakzioetako saldo nabarmen guztiak kendu egin dira bateratze-prozesutik. Bestalde, hirugarrenen partaidetza honela aurkezten da hauetan:

- Taldearen ondare garbia, balantze bateratuko ondare garbiko «Interes minoritarioak (nagusi ez diren partaidetzak)» atalean.

- Ekitaldiko emaitza bateratuan, galdu-irabazien kontu bateratuko «Ekitaldiko emaitza – Interes minoritarioei (nagusi ez diren partaidetzei) egozteko modukoa» atalean.

Taldeak ekitaldian eskuratutako mendeko erakundeen emaitzak bateratzeko, eskurapen-egunetik ekitaldi-itxierara bitarteko epealdiko datuak bakarrik jasotzen dira. Bestalde, Taldeak ekitaldian besterendu dituen mendeko erakundeek sortutako emaitzak bateratzeko, ekitaldiaren hasieratik besterentze-egunera bitarteko epealdiko datuak bakarrik jasotzen dira.

Kendu egin dira konpainien arteko eragiketak, saldoak eta Taldeko erakundeen arteko transakzioetako sarrera-gastuak. Kendu egin dira, halaber, talde barruan egindako eta aktibo moduan kontabilizatutako transakzioen galdu-irabaziak ere. Mendeko erakundeen kontabilitate-politikak aldatu egin dira, Taldeak erabiltzen dituen politikekiko uniformetasuna bermatzeko beharrezkoa izan denean.

Negozio-konbinazioak kontabilizatzeko, eskurapen-metodoa aplikatzen du Taldeak. Mendeko erakunde bat erosteagatik transferitzen den kontraprestazioa honako hauei dagokie: transferitutako aktiboen arrazoizko balioari, erositako erakundearen aurreko jabeekin egindako pasiboei eta Taldeak jaulkitako ondareko partaidetzei. Transferitutako kontraprestazioan, kontraprestazio kontingenteko akordio batek eragindako edozein aktiboren edo pasiboren arrazoizko balioa sartzen da. Eskuratutako aktibo identifikagarriak eta negozio-konbinazio batean onartutako pasiboak eta pasibo kontingenteak, hasiera batean, arrazoizko balioan baloratzen dira, eskurapen-datan. Negozio-konbinazio bakoitzean, Taldeak arrazoizko balioaren arabera edo eskuratutako erakundearen aktibo garbien zenbateko kontabilizatuetan nagusi ez den partaidetzaren zati proportzionalaren arabera kontabiliza dezake eskuratutako erakundean nagusi ez den edozein partaidetza.

Eskurapenarekin zerikusia duten kostuak dagokien ekitaldiko gastu moduan kontabilizatzen dira.

Negozioen konbinazioa etapaka egiten bada, eskuratuaren ondare garbiko (aurretik eskuratzaileak zueneko) partaidetzaren eskurapen-datako arrazoizko balioa eskurapen-datako arrazoizko balioan baloratzen da berriro, ekitaldiko emaitzaren bidez.

Taldeak transferitu beharreko edozein kontraprestazio kontingente arrazoizko balioan kontabilizatzen da, eskurapen-datan. Aktibotzat edo pasibotzat hartzen den kontraprestazio kontingenteari ondoren arrazoizko balioan gertatzen zaizkion aldaketak, FINA 9 arauaren arabera, emaitzetan kontabilizatzen dira, edo ondare garbiaren aldaketatzat jo. Ondare garbi moduan sailkatzen den kontraprestazio kontingentea ez da berriro baloratzen, eta haren ondorengo likidazioa ondare garbian kontabilizatzen da.

Merkataritzako funtsa honela baloratzen da, hasiera batean: transferitutako kontraprestazioaren soberakin gisa eta nagusi ez den partaidetzak eskuratutako aktibo identifikagarrien eta onartutako pasiboen arabera duen arrazoizko balio gisa. Kontraprestazio hori erositako mendeko erakundearen aktibo garbien arrazoizko balioa baino txikiagoa bada, aldea emaitza bateratuetan kontabilizatzen da.

Taldeko aseguru-entitateak hainbat erakundek gainbegiratzen eta arautzen dituzte. Jurisdikzio bakoitzean indarrean dauden legeek eragina izan dezakete funtsak eskudirutan, dibidenduetan, maileguetan edo aurrerakinetan transferitzeko erakunde horiek duten gaitasunean, eta kapitalari eta ikuskaritza-jarduerari lotutako gutxieneko baldintzak betetzeko premiak ere bai.

2.2.2) Mendeko erakundeen jabetzako partaidetza-aldaketak, kontrol-aldaketarik gabekoak

Nagusi ez diren partaidetzekin egindako transakzioak, kontrolaren galera eragiten ez badute, ondareko transakziotzat kontabilizatzen dira, hau da, jabeekin egindako transakziotzat. Ordaindutako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren eta mendekoaren aktibo garbien liburuetako zenbatekoan eskuratutako ehunekoaren arteko aldea ondare garbian erregistratzen da. Nagusi ez diren partaidetzak besterentzeagatiko irabaziak edo galerak ere ondare garbian kontabilizatzen dira.

2.2.3) Mendeko erakundeak besterentzea

Taldeak kontrola izateari uzten dionean, Entitatean atxikitako edozein partaidetza arrazoizko balioan baloratzen da berriro, kontrola galtzen den datan, eta aldaketa emaitzetan kontabilizatzen da, liburuetako zenbatekoan. Arrazoizko balioa hauxe da: liburuetako hasierako zenbatekoa, aintzat hartzen dena elkartutakotzat, baterako negoziotzat edo finantza-aktibotzat gordetako partaidetza gerora kontabilizatzeko. Gainera, Taldeak aktibo edo pasiboak zuzenean saldu balitu bezala kontabilizatzen da erakunde horren inguruan aurretiaz ondare garbiko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafean kontabilizatzen den edozein zenbateko. Horrek esan nahiko du, agian, aurrez ondare garbian kontabilizatutako zenbatekoak emaitza-kontu bateratuan birsailkatuko direla.

2.2.4) Baterako negozioak – Erakunde taldeaniztunak

Baterako negozioak kontratu bidezko akordioak dira, eta, horien bitartez, bi erakundek edo gehiagok (partaide deritzenak) jarduera ekonomiko bati ekiten diote, elkarrekin kontrolatzeko. Hau da, kontratu horren pean, entitate edo jarduera ekonomiko baten finantzen eta ustiapenaren politikak zuzentzeko boterea partekatzen dute partaideek, egiten diren eragiketetatik mozkinak ateratzeko. Kontrola partekatzen duten partaide guztiek ados egon behar dute, eta aktibo garbien gaineko eskubideak dituzte, jarduera garrantzitsuen gaineko erabakiak hartu ahal izateko.

Baterako negoziotzat hartzen dira, halaber, mendekoak ez izan arren elkarren artean loturarik ez duten erakunde bik edo gehiagok kontrolatzen dituzten erakundeetako partaidetzak ere.

Bateratzeko prozesuan, partaidetzaren prozedura erabili dugu Baterako negozioen – Erakunde taldeaniztunen urteko kontuetarako, kontabilitate-arautegian ezarritakoari jarraikiz.

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n ez zegoen partaidetzarik erakunde taldeaniztunetan.

2.2.5) Erakunde elkartuak

Erakunde elkartuak partaidetzapeko sozietateak dira, eta Taldeak horietan eragin nabarmena izateko ahalmena du. Eragin horren erakusle dugu, baina ez bakarra, zuzenean edo zeharka, beste partaidetzapeko sozietate baten edo hainbaten bidez, partaidetzapeko sozietateko boto-eskubideen % 20ko edo gehiagoko partaidetza izatea.

Baterakuntza-prozesuan, partaidetzaren metodoa aplikatu da erakunde elkartuetan ere, KNA 28 arauan zehaztuta dagoen moduan. Hortaz, erakunde elkartuetako partaidetzak baloratzeko, Taldeak haren kapitalean duen partaidetzaren zatia hartzen da, baina jasotako dibidenduak eta beste ondare-ezabapen batzuk kontuan hartu ondoren. Erakunde elkartuekin egindako transakzioen emaitzak Taldearen partaidetzaren proportzioaren arabera kentzen dira. Erakunde elkartu batek galerak izaten baditu eta horren ondorioz kontabilitate-ondarea negatiboa bada, Taldearen balantze bateratuan balio nuluarekin agertuko da, baldin eta Taldeak hari estaldura finantzarioa emateko betebeharra ez badu.

Erakunde elkartuetako partaidetzei buruzko 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko informazio garrantzitsua I. eranskinean jaso da.

Gerta liteke Taldearen 2024ko eta 2023ko ekitaldietako urteko kontu bateratuak egiteko aplikatu diren kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balorazio-irizpideak bat ez etortzea Taldeko zenbait erakunde mendeko, taldeaniztun eta elkartuk erabilitakoekin. Hori dela eta, baterakuntza-prozesuan beharrezko doikuntza eta birsailkapenak egin dira, kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balorazio-irizpideak homogeneizatzeko.

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, Taldeko entitate batek ere ez zuen kapitalaren edo boto-eskubideen % 5eko edo gehiagoko partaidetza, Espainiako edo nazioarteko beste kreditu-erakunderen batean.

Orobat, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, Espainiako edo atzerriko kreditu-erakunde batek ere edo Espainiako edo atzerriko kreditu-erakunderen bat barne hartzen duen talde batek ere —Balore Merkatuari buruzko Legearen 4. artikuluan jasota dagoenaren arabera— ez zuen kapitalaren edo boto-eskubideen % 5eko edo gehiagoko partaidetza, Taldeko kreditu-erakunde batean.

2.2.6) Erakunde egituratuak

Taldeak erakunde batzuetan parte hartzen duenean edo erakundeak eratzen dituenean arriskua transmititzeko edo bestelako helbururen baterako, adibidez bezeroei inbertsio jakin batzuetara iristea ahalbidetzeko, arauetan ezarritakoa aintzat hartuta eta aurrez deskribatutakoari jarraikiz, kontrolik dagoen erabakitzen da, eta, beraz, bateratu behar diren ala ez. Zehazki, aintzat hartzen da ia Taldeak komisio arrakastatsuak sortzen dituen eta azpiko aktiboen kudeatzaileak baliogabetzeko aukerarik dagoen. Erakunde horien artean daude «Aktiboak titulizatzeko funtsak». Horiek bateratu egiten dira, aurreko analisiaren arabera Taldeak kontrolatu egin dituela erabakitzen denean.

Taldeak kudeatutako borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek eta inbertsio- eta pentsio-funtsek ez dituzte betetzen erakunde egituratutzat jotzeko arautegi-eskakizunak, eta gainerako mendeko erakundeen irizpide berberekin aztertzen dira. Esan beharra dago, kasurik gehienetan pertsonalitate juridikorik gabeko txikizkako funtsak izaten direla, eta, horien gainean, kudeatutako ondarearen jabetza ematen dieten unitate alikuotak eskuratzen dituzte inbertitzaileek.

Erakunde eta funts horiek autosufizienteak dira euren jardueretan; hau da, ez daude aparteko finantza-sostengurik gabe beren jarduerak aurrera eramatea eragotz diezaiekeen kapital-egitura baten mende. Galdu-irabazien kontu bateratuko «Komisioen sarrerak» epigrafean (47. oharra) daude erregistratuta Taldeak ekitaldian erakunde eta funts horiei emandako zerbitzuengatik (funtsean, ondareak kudeatzeko zerbitzuengatik eta zorroak gordailutzeagatik) sortutako komisioak, hirugarren batzuen zorroak gordailutzeagatik sortutako komisioekin batera.

2.2.7) Bateratze-perimetroko aldakuntzak

<u>Bateratze-perimetroko aldakuntzak</u>

2024ko ekitaldian ez da aldakuntzarik gertatu Caja Laboral Taldearen bateratze-perimetroan.

2023ko otsailaren 15ean, LagunKlik SL Sociedad Unipersonal sozietatea eratu zen, eta Caja Laboral Popular Coop. de Créditok bertan parte hartzen du, zeharka, Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU sozietatearen bitartez, horren % 100en titularra baita. Sozietate horren helburua da bitartekari jardutea, zerbitzuen bilaketan, partikularren eta profesionalen artean produktuak saltzen eta zerbitzuak bilatzea eta ematea erraztuko duten aplikazio informatikoak garatu eta ustiatzen.

Halaber, 2023ko maiatzaren 22an, egoitza soziala Luxenburgon duen Partners Group LAMIAK SCA, SICAV-RAIF sozietatea eratu zen. Inbertsio-funts alternatibo bat da, Caja Laboral Popular Coop. de Créditok % 99ko partaidetza duena.

2.3 Informazioaren alderagarritasuna

2024ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion kontabilitate-informazioa Europar Batasunaren Finantza Informazioko Nazioarteko Arauetako irizpideei jarraikiz jaso da, eta 2023koaren parean jarri da, alderatu ahal izateko. 2023ko ekitaldiko informazioa 2024koarekin alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu da, eta ez da 2024ko ekitaldiko Taldearen urteko kontu bateratuetan sartu.

2023ko ekitaldiko urteko kontuak onartu ondoren, Taldeak antzeman zuen zor-tresna jakin batzuen interes-sortzapenaren zati bat bereiz kontabilizatzen zela, zenbateko garbiarekin egin behar zenean. Ondorioz, zuzendu egin dira akats horrek eragindako partiden konparazio-zifrak (3.c oharra).

2.4 Transakzioen urtarokotasuna

Taldearen jarduerak direla eta, transakzioak ez dira ziklikoak edo urtaroaren araberakoak. Horregatik, ez da banakapen berezirik sartu 2024ko ekitaldiko urteko kontu bateratuen txostenean.

3. Aldaketak eta akatsak kontabilitate-irizpide eta -estimazioetan

a) Ziurgabetasuna baloratu eta estimatzearen alderdi kritikoak

Urteko kontu bateratu hauetan jaso den informazioa Entitate Nagusiko kontseilarien erantzukizuna da. Urteko kontu bateratu hauetan zenbait aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso baloratzeko dagokionean erabili diren estimazioak Entitate Nagusiko eta partaidetzapeko erakundeetako goi-zuzendaritzak egin ditu, eta kontseilariek berretsi dituzte. Honako hauek hartu dira kontuan estimazio horietan:

- Zenbait finantza-aktiboren narriaduragatiko galerak (13.h oharra).
- Aktibo ukigarriko eta aktibo ukiezineko elementuei aplikatutako balioa eta balio-bizitza (2, 13.q eta 13.r oharrak).
- Kotizatu gabeko zenbait finantza-aktiboren arrazoizko balioa (13.e oharra).
- Horniduretan eta pasibo kontingenteetan espero den kostua eta bilakaera (13.u oharra)
- Aseguruengatiko pasiboak kalkulatzeko erabilitako hipotesiak (13.t oharra).
- Aurretiko erretirorako planengatiko pasiboak eta konpromisoak kalkulatzeko erabilitako hipotesiak (13.o oharra).
- Kreditu fiskal aktibatuen berreskuragarritasunaren ebaluazioa (13.p oharra).
- Baterakuntzako merkataritzako funtsaren narriaduraren ebaluazioa (13.aa oharra).
- Sozietateen gaineko zergaren estimazioa (39. oharra).

Dagokien partidei buruz 2024ko abenduaren 31n zegoen informaziorik onenaren arabera egin dira zenbatespenak, kontuan harturik egungo testuinguru ekonomiko eta geopolitikoa eta etorkizunean izan dezakeen bilakaera. Agian aldatu egin beharko dira, hurrengo ekitaldietan, ekitaldi-amaierarako egindako zenbatespenak —edozein zentzutan—, etorkizunean jazo litezkeen gertakariak direla medio. Edozein modutan ere, aldaketa hori prospektiboa izango da, eta estimazio-aldaketaren eraginak dagokion galdu-irabazien kontu bateratuan kontabilizatuko dira.

b) Kontabilitate-irizpideen aldaketak

Transakzio edo jazoera jakin bat arautzen duen kontabilitate-arauren bat aldatzen denean edo Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreak, behar bezala justifikatutako arrazoiak tarteko, kontabilitate-irizpideak aldatzea erabakitzen duenean, aldaketok atzeraeraginez aplikatzen dira, baldin eta:

- Ezinezkoa bada lehenagoko ekitaldi batean alderatzeko emandako informazioaren gainean kontabilitate-irizpidea aldatzeak ekitaldi bakoitzean izango dituen eraginak zehaztea, kontabilitate-irizpide berria ezartzen da, hori egin daitekeen ekitaldirik zaharrenaren hasieran. Ezinezkoa bada aurreko ekitaldi guztiei kontabilitate-irizpide berria aplikatzeagatik uneko ekitaldian metatuko den eragina zehaztea; kasu horretan, aukera dagoen datarik urrunekoenetik aurrera aplikatuko da irizpide berria.

- Irizpidea aldatzen edo ezartzen duen kontabilitate-xedapenak edo -arauak ezartzea noiztik aplikatu behar den.

Taldeari aplikagarri zaion kontabilitate-araudian hainbat aldaketa izan dira 2024ko ekitaldian, aurreko ekitaldian aplikatuarekin alderatuta. Ondoren, aldaketarik nabarmenenen berri emango dugu:

a) Ekitaldi honetan lehen aldiz aplikatu diren Europar Batasunaren arau eta interpretazioak

Araua, interpretazioa edo aldaketa	IASBren aplikazio-data
Finantzetako egoera-orriak aurkeztea: Pasiboak korronte edo ez-korronte gisa sailkatzea (aldaketak KNA 1 arauan)	2024ko urtarrilaren 1a
Errentamenduengatiko pasiboa geroagoko errentamendua duen salmenta batean (aldaketak FINA 16 arauan)	2024ko urtarrilaren 1a
Hornitzaileak finantzatzeko akordioak (aldaketak KNA 7 eta FINA 7 arauetan)	2024ko urtarrilaren 1a

b) IASBk emandako arauak eta interpretazioak, ekitaldi honetan oraindik aplikatu ezin direnak

Araua, interpretazioa edo aldaketa	EBk hartu izanaren data	EBn aplikatzearen data	IASBren aplikazio-data
Bihurgarritasunik eza (aldaketak KNA 21 arauan)	2024ko azaroaren 13a	2025eko urtarrilaren 1a	2025eko urtarrilaren 1a
Finantza-tresnak sailkatzea eta neurtzea (aldaketak FINA 9 eta FINA 7 arauetan)	Bideratzeko	Bideratzeko	2026ko urtarrilaren 1a
Elektrizitate berriztagarriko kontratuak (aldaketak FINA 9 eta FINA 7 arauetan)	Bideratzeko	Bideratzeko	2026ko urtarrilaren 1a
FINA 18 – Finantzetako egoera-orrietan eman beharreko informazioa aurkeztea	Bideratzeko	Bideratzeko	2027ko urtarrilaren 1a

a) Ekitaldi honetan lehen aldiz aplikatu diren Europar Batasunaren arau eta interpretazioak

Aldaketak KNA 1 arauan. Finantzetako egoera-orriak aurkeztea: finantza-pasiboak korronte edo ez-korronte gisa sailkatzea

Pasiboak korronte edo ez-korronte gisa sailkatzeko aplikatu beharreko errekerimenduak argitzen dituzte. Zehazki, kontzeptu hauek argitzen dituzte aldaketok:

- Likidazioa geroratzeko eskubidea. Erakunde batek likidazioa geroratzeko eskubidea etorkizuneko *covenant*-en mende badago, erakundeak ordainketa geroratzeko eskubidea izango du, nahiz eta etorkizuneko *covenant* horiek ez bete; itxiera-datako informazioa erabiliko du kalkulua egiteko.
- Esperotako geroratzeak. Pasibo baten sailkapena ez da aldatzen, nahiz eta aukera egon erakundeak ekitaldia itxi ostean ordainketa 12 hilabetez geroratzeko eskubidea erabiltzeko.
- Ondare propioko tresnen bidezko likidazioa. Ondare propioko tresnen bidez pasiboak likidatzeko errekerimenduetan salbuespen bat dago, pasiboaren sailkapenean eragina duena.

Aldaketak FINA 16 arauan: Errentamenduengatiko pasiboa geroagoko errentamendua duen salmenta batean

- Aldaketa horren bidez, saltzaile-errentari batek salmentan eta ondorengo errentamenduan sortzen den errentamenduengatiko pasiboa kuantifikatzeko erabili behar dituen baldintzak finkatzen dira, saltzaile-errentariak irabazirik edo galerarik kontabiliza ez dezan atxikitzen duen erabilera-eskubidearekin lotuta.

Aldaketak KNA 7 eta FINA 7 arauetan: Hornitzaileak finantzatzeko akordioak

- KNA 7 arauko (Diru-fluxuen egoera-orria) eta FINA 7 arauko (Finantza-tresnak; eman beharreko informazioa) aldaketek finantzaketa-akordioen ezaugarriak argitzen dituzte, eta banakapen berriak sartzen, akordio horiek pasiboetan, diru-fluxuetan eta likidezia-arriskuarekiko esposizioan dituzten ondorioak ulertzen laguntzeko finantzetako egoera-orrien erabiltzaileei.

b) IASBk emandako arauak eta interpretazioak, ekitaldi honetan oraindik aplikatu ezin direnak edo EBk onartu ez dituenak

Aldaketak KNA 21 arauan: Bihurgarritasunik eza

Aldaketek argitzen dute entitateek nola ebaluatu behar duten dibisa bat bihurgarria den ala ez, eta nola zehaztu behar duten eskurako kanbio-tasa, bihurgarritasunik ez dagoenean. Bestalde, finantzetako egoera-orrien erabiltzaileek dibisa bat bihurgarria ez izateak duen eragina ulertzeko behar dituzten banakapenak eskatzen dituzte.

Aldaketa horiek 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren urtealdietan aplikatuko dira.

Aldaketak FINA 9 eta FINA 7 arauetan: Finantza-tresnak sailkatzea eta neurtzea

Aldaketen arabera, pasibo finantzarioei «likidazio-datan» ematen zaie baja. Halere, pasiboei baja emateko kontabilitate-politikako aukera bat sartu dute: ordainketa-sistema elektroniko baten bidez likida daitezela, likidazio-data baino lehen, betiere baldintza jakin batzuk betetzen badira.

Bestetik, aldaketetan, ESGari —ingurumena, gizartea eta gobernantza, ingelesezko siglen arabera— eta beste gertaera kontingente batzuei lotutako ezaugarriak dituzten finantza-aktiboen sailkapena argitu da, gida gehigarrien bidez. Era berean, baliabiderik gabeko maileguei eta kontratu bidez lotutako tresnei buruzko argibideak garatu dira. Azkenik, banakapen berriak sartu dira, ezaugarri jarraituak dituzten finantza-tresnentzat eta bestelako emaitza globalaren bidez arrazoizko balioan sailkatutako ondare-tresnentzat.

Aldaketak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren urtaldietan aplikatuko dira.

Aldaketak FINA 9 eta FINA 7 arauetan: Energia berriztagarrien kontratuak

Aldaketa horiei esker, energia berriztagarrien kontratuek kontabilitate-isla hobea dute finantzetako egoera-orrietan. Hauek dira FINA 9 eta FINA 7 arauetan egindako aldaketak:

- «Erabilera propioko» baldintzen aplikazioa argitzea.
- Estaldura-kontabilitatea baimentzea, kontratu horiek estaldura-tresna gisa erabiltzen badira.
- Banakapen berriak gehitzea, kontratu horiek finantza-errendimenduan eta diru-fluxuetan duten eragina ulertzeko.

Aldaketak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren urtaldietan aplikatuko dira.

FINA 18 – Finantzetako egoera-orrietan eman beharreko informazioa aurkeztea:

IFRS 18ak, beste aldaketa batzuen artean, hiru errekerimendu berri sartu ditu, nagusiki, enpresen finantza-errendimenduari buruzko informazioa hobetzeko eta inbertitzaileei enpresak aztertu eta alderatzeko oinarri hobea eskaintzeko:

- Finantza-errendimenduaren egoera-orriaren alderagarritasuna hobetzen du, hiru kategoria berri —operatiboa, inbertsioa eta finantzaketa— eta guztizko partzial berriak —emaitza operatiboa, eta finantzaketaren eta irabaziaren gaineko zergaren aurreko emaitza— sartuz.
- Zuzendaritzak zehaztutako errendimendu-neurketek gardentasun handiagoa dute, gida eta banakapen berriak sartzeari esker.
- Gidalerroak ematen ditu, finantzetako egoera-orrietan informazioa egokiago taldekatzeko.

Araua 2027ko urtarrilaren 1etik aurrera jarriko da indarrean.

c) Akatsak eta aldaketak kontabilitate-estimazioetan

Kontabilitate-akatsak

Urteko kontu bateratuak egitean aurreko ekitaldietan sortutako erroreak ez-egiteen edo zehaztasun-falten ondorio dira, eta horiek epealdi horietarako urteko kontu bateratuak egitean eskura zegoen eta Entitate Nagusiak egoera-orriok egitean erabili behar zukeen informazio fidagarria erabiltzean egindako hutsegiteenak.

Aurreko ekitaldietako erroreak horiek aurkitu ondorengo lehen urteko kontu bateratuetan zuzentzen dira atzeraeraginez, inoiz egin izan ez balira bezala, eta:

- erroreak ukitu dituen egoera-orri finantzario bateratuetako kontu-sailen zenbatekoak, txosten bateratuko oharrak barne, urteko kontu bateratuetan alderatzeko argitaratzen direnak eta errorea gertatu den ekitaldiari eta ondorengoetakoei dagozkienak, berriro ematen dira, eta, bidezkoa bada,

- informazioa dugun ekitaldirik zaharrenaren irekiera-balantze bateratua berriro ematen da, baldin eta alderatzeko aurkezten diren finantzetako lehen egoera-orri bateratuak baino lehenago gertatu bazen errorea.

Ezinezkoa denean lehenagoko ekitaldi batean alderatzeko emandako informazioaren gainean akats batek ekitaldi bakoitzean izango dituen eraginak zehaztea, hasierako saldoak berriro ematen dira, hori egin daitekeen ekitaldirik zaharrenetarako. Ezinezkoa denean aurreko ekitaldi guztietako akats batek uneko ekitaldiaren hasieran izango duen eragin metatua zehaztea, alderatzeko informazioa berriro ematen da, atzeraeraginez, aukera dagoen datarik urrunekoenetik.

Ondare garbi bateratuari eragiten dioten aurreko ekitaldietako erroreak aurkitzen diren ekitaldian zuzentzen dira, kasuan kasuko ondare garbiko kontu bateratua erabiliz. Aurreko ekitaldietako erroreak ez dira sekula horiek aurkitu direneko ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratua erabiliz zuzenduko. Bi salbuespen daude: garrantzi erlatiborik ez izatea eta, aurreko paragrafoan adierazitakoari jarraikiz, errorearen eragina zehaztea ezinezkoa izatea.

2024ko ekitaldian, Entitate Nagusiak antzeman zuen zor-tresna jakin batzuen interes-sortzapenaren zati bat bereiz kontabilizatzen zela, eta Interesen sarrerak epigrafean (43. oharra) gehikuntza bat eta Interesen gastua epigrafean (44. oharra) gehikuntza bera sortzen zirela, interes horien erregistroa modu garbian Interesen sarrerak epigrafean (43. oharra) aurkeztu beharrean.

Entitate Nagusiak atzeraeraginez zuzendu du akatsa, 2023ko ekitaldiko zifrak aldatuz; hala ere, kontu-sailen arteko birsailkapena denez, ez du eraginik izan ekitaldiko balantzean, ondare garbian eta emaitzan, ezta diru-fluxuen egoera-orrian ere.

Hauek dira 2023ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontuan konparaziozko zifretan egindako zuzenketak:

(Mila eurokotan)	Alderatzeko 2023ko ekitaldia	Zuzenketa	2023ko ekitaldia zuzenduta
Interesen sarrerak	692.655	(40.572)	652.083
(Interesen gastuak)	133.779	40.572	(93.207)
Interesen marjina	**558.876**	**-**	**558.876**

Aldaketak kontabilitate-estimazioetan

Kontabilitate-estimazio batean aldaketak egitea, doikuntzak egitea da; hain zuzen ere, aktibo edo pasibo baten kontabilitate-balioan edo aktibo baten aldizkako kontsumoan doikuntzak egitea. Horretarako, elementuaren egungo egoera, etorkizunean espero diren mozkinak eta kasuan kasuko aktibo eta pasiboei lotutako betebeharrak hartzen dira kontuan.

Kontabilitate-estimazioetan aldaketak egin ahal izateko, aparteko informazioa edo gertakari berriak lortu behar dira, eta, beraz, aldaketak ez dira akatsen zuzenketak. Aldaketok etorkizunera begira kontabilizatzen dira aldaketak eragindako ekitaldiko edo etorkizuneko ekitaldiko edo ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuan.

4. Ekitaldiko soberakinaren aplikazioa

Kreditu Kooperatibei buruzko 13/1989 Legearen arabera —Kooperatiben Erregimen Fiskalari buruzko 20/1990 Legeak aldatu zuen—, Nahitaezko Erreserba Funtsera eta Heziketako eta Sustapeneko Funtsera bideratzen ez diren zenbatekoak Batzar Nagusiaren esanera jarri behar dira. Batzarrak honela bana ditzake:

- Bazkideei banatu edo itzulita.
- Borondatezko Erreserba Funtsera bideratuta.

Entitate Nagusiaren estatutu sozialetan ezarrita dagoenez, soberakin erabilgarria honela banatuko da, nahitaezko kapitalari edo kaudimen-koefizienteari erantzuteko sortzen diren obligazioak betetakoan:

- % 50, gutxienez, Nahitaezko Erreserba Funtsera.
- % 25, gehienez, sozietatearen eta kooperatiben arteko sustapen-beharrei erantzuteko. Zehazki, % 10 gutxienez Heziketako eta Sustapeneko Funtsera bideratuko da eta % 15, gehienez, Kooperatiba arteko Funts Sozialera.
- Gainerakoa Batzar Nagusiaren esku geratuko da, eta hark honela banatu ahal izango du: bazkideentzako itzulkinetarako, Borondatezko Erreserba Funtsetarako edo antzekoetarako.

Kooperatiba-itzulkinetarako zenbatekoa erdibanatu egingo da lan-bazkideen eta gainerako bazkideen artean.

Entitate Nagusiaren estatutuen arabera, lan-bazkideek beren lan-aurrerakinen arabera jasoko dute bazkideentzako itzulkina, eta gainerako bazkideek Entitate Nagusiarekin egindako eragiketen arabera.

Hauxe da Entitate Nagusiaren 2024ko ekitaldiko emaitzen soberakina banatzeko proposamena, Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari onesteko aurkeztuko diona, eta 2023rako onetsita dagoena:

	2024	2023
Banaketa:		
- Kapital sozialerako ekarpenengatiko interes gordinak (37. oharra)	63.927	57.539
- Nahitaezko Erreserba Funtsa	96.091	71.486
- Heziketako eta Sustapeneko Funtsa (*)	-	-
- Itzulkin kooperatiboak	48.045	35.743
- Kooperatiba arteko Funts Soziala	28.827	21.446
Ekitaldiko emaitza	236.890	186.214

(*) Heziketako eta Sustapeneko Funtserako zenbatekoa nahitaezko minimoari dagokio, eta 2024an 19.218 mila eurokoa eta 2023an 14.297 mila eurokoa izan da (55. oharra).

5. Negozio-segmentuen araberako informazioa

FINA 8 araua aplikatuta, negozio-segmentuen finantza-betetzeari buruzko informazioa emango dugu jarraian, Entitate Nagusiaren Zuzendaritzak segmentu horien etekina ebaluatzeko barruan erabiltzen duen informazioa oinarri hartuta.

FINA 8aren arabera, segmentu operatiboen berri eman behar da, baldin eta haien sarrera arruntak segmentu operatibo guztien sarrera arrunt agregatuen % 10ekoak badira gutxienez edo haien emaitzak magnitude hauetako handienaren % 10ekoak badira behintzat: (i) galerarik aitortu ez duten segmentu operatibo guztien irabazien batura eta (ii) galerak aitortu dituzten segmentu operatibo guztien galera deklaratuen batura. Edo, bestela, haien aktiboak gutxienez segmentu operatibo guztien aktiboen baturaren % 10ekoak badira. Era berean, segmentu operatiboen berri eman behar da, tamaina edozein dutelarik ere modu agregatuan Taldearen sarrera arrunten % 75 behinik behin osatzen badute.

Negozio-segmentuen araberako informazioa oinarrizko tresna da LABORAL Kutxa Taldearen jardueren jarraipena eta gestioa egiteko:

a. Segmentazio-irizpideak

    - Negozioen araberako segmentazioa

Jarraian azaltzen diren negozio-unitateak LABORAL Kutxa Taldearen egiturak eta antolakuntzak ezarritako negozio-lerroen arabera ezarri dira:

- Txikizkako banku-jarduera

- Aseguruen negozioa

Txikizkako banku-jarduerak inbertsio-produktuak eta aurrezki-produktuak eskaintzen ditu. Inbertsioari dagokionez, hipoteka-produktuak, kontsumorako kreditua, zirkulatzailea eta enpresentzako finantzaketa merkaturatzen dira bereziki. Aurrezkiari dagokionez, berriz, gordailuak (agerikoak eta eperakoak), abalak, ordainbideak (kreditu- eta zordunketa-txartelak), inbertsio-funtsak, pentsio-funtsak eta BGAEak dira produktu nagusiak. Caja Laboral Popular Coop. de Créditok gauzatzen du, batik bat, negozio hori, bere bulego-sarearen bidez edo berorrek % 100ean mendean dituen sozietate batzuen bidez, Entitate Nagusiaren jardueraren luzapen zuzentzat hartzen baitira. Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren Kontseilu Errektoreari dagokio erabaki estrategikoak, gestioari buruzkoak eta operatiboak hartzea.

Aseguruen negozioaren barruan sartzen dira Taldeak Seguros Lagun Aro Vida SA eta Seguros Lagun Aro SA sozietateen bidez egiten dituen jarduerak. Taldeak bizitza arriskuko, bizitza aurrezkiko eta *unit linked* motako aseguruak merkaturatzen ditu bizitza-aseguruen jardueraren barruan. Horrez gain, bizitzakoak ez diren aseguruak merkaturatzen ditu, batik bat auto-aseguruak, erantzukizun zibilekoak eta arrisku anitzekoak, etxekoak batez ere. Bi sozietateon Administrazio Kontseiluei dagokie erabaki estrategikoak, gestioari buruzkoak eta operatiboak hartzea.

Hala ere, LABORAL Kutxa Taldearen barruan egoteagatik ezartzen zaien kontrolarekin hartzen dira Taldearen negozio guztietako erabakiak.

- Segmentazio geografikoa

Taldeak 284 bulegoko sarearen bidez gauzatzen du bere jarduera, 2024ko abenduaren 31ko datuetan. Horietatik 169 Euskal Autonomia Erkidegoan daude, 36 Nafarroan eta 79 Estatuko gainerako lurraldeetan (2023ko abenduaren 31n, 283 bulego ziren, horietatik 169 Euskal Autonomia Erkidegoan, 36 Nafarroan eta 78 Estatuko gainerako lurraldeetan).

Taldearen finantza-aktiboen eta maileguen eta kobratzeko partiden banaketa geografikoa urteko kontu bateratu hauetako 21. oharrean xehakatu dira. Taldearen diru-sarrerei dagokienez, gehientsuenak Espainian sortzen dira.

Beraz, esparru geografikoa segmentatzeko irizpideei dagokienez, ez da alderik ikusi Taldearen jarduera-eremuen artean (Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroaren eta Estatuko gainerako lurraldeen artean), eta, beraz, ez dago irizpide horren arabera informazioa bereizi eta zatikatu beharrik.

b. Informazio zatikatua lantzeko erabili diren oinarriak eta metodologia

Informazio hau osatzeko, LABORAL Kutxa Taldea osatzen duten sozietateen kontabilitate indibiduala hartu da kontuan, dagozkion baterakuntzako ezabapenak eta doikuntzak eginda.

Negozio-unitate bakoitza negozio independentetzat hartzen denez, negozioen artean diru-sarreren eta gastuen fluxuak gertatzen dira produktuak, zerbitzuak edo sistemak banatzeko zerbitzuak emateagatik. Ezabapenak eta doikuntzak segmentuen arteko barruko emaitzak ezabatzeari dagozkie funtsean. Horrek, azkenean, ez du eraginik Taldearen emaitza-kontuan.

c. Negozioen araberako segmentazioa

Jarraian, 2024ko eta 2023ko ekitaldietako balantze bateratura eta galdu-irabazien kontu bateratura egin diren ekarpen nagusiak azaltzen dira, kontuan hartu gabe taldeko entitateekin egindako transakzioen eragina:

	2024		
	Txikizkako banku-jarduera	**Aseguruen negozioa**	**Taldean guztira**
Galdu-irabazien kontu bateratua:			
Marjina gordinari ekarritakoa	720.904	13.352	734.256
Administrazio-gastuak	277.790	5.648	283.438
Ekitaldiko emaitza	248.584	6.755	255.339
Balantze bateratua:			
Aktiboak guztira	26.693.439	632.447	27.325.886

	2023		
	Txikizkako banku-jarduera	**Aseguruen negozioa**	**Taldean guztira**
Galdu-irabazien kontu bateratua:			
Marjina gordinari ekarritakoa	560.784	24.346	585.130
Administrazio-gastuak	243.470	6.475	249.945
Ekitaldiko emaitza	193.963	14.478	208.441
Balantze bateratua:			
Aktiboak guztira	25.957.120	632.371	26.589.491

6. Gutxieneko koefizienteak

6.1 Gutxieneko baliabide propioen koefizienteak

Basileako Banku Ikuskaritzako Batzordea arduratzen da nazioarteko finantza-arauketa bateratzeaz. 2010eko abenduan, arau-esparru berria onartu zuen Batzordeak: Basilea III, alegia. Kalitate handiagoko tresnen bidez, kapital-eskakizunak handitzen ditu, eta sendoa izatea eta erakundeetan eta herrialdeetan homogeneotasunez aplikatzea du xede. Kapital-ratioen gardentasuna eta alderagarritasuna hobetzen ditu kapitalari buruzko akordio berriak. Gainera, zuhurtziazko tresna berriak ere erantsi zituen, likideziaren eta palanka-efektuaren alorretan.

Europar Batasunak bere ordenamendu juridikora eraman zituen akordio horiek (Basilea III), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 2013/36/EB (CRD-IV) Zuzentarauaren bidez —kreditu-erakundeen jarduera eta kreditu-erakundeen eta inbertsio-enpresen zuhurtziazko gainbegiratzea arautzen du— eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 (EB) CRR Erregelamenduaren bidez —Europako Erkidegoen Egunkari Ofizialean kreditu-erakundeen eta inbertsio-enpresen zuhurtziazko betekizunak arautzen ditu eta 2014ko urtarrilaren 1etik da aplikatzekoa—.

Ordenamendu juridiko nazionala nazioartetik datozen araudi-aldaketetara egokitzeko asmoarekin, 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legea, kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoa, eta lege hori garatzen duen 2015eko otsailaren 13ko 84/2015 Errege Dekretua onetsi ziren, 2013ko azaroaren 29ko Errege Lege Dekretuak eta Espainiako Bankuaren 2/2014 Zirkularrak, trantsizio-epealdian aplikatzekoak diren errekerimenduetarako arautze-aukerak ezartzen dituenak, abiatutako transposizioari jarraikiz.

2015eko otsailaren 13ko 84/2015 Errege Dekretuak, 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legea, kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoa, garatzen duenak, Lege horren araudi-garapena osatzen du, eta testu bakar batean elkartzen ditu kreditu-erakundeen antolamenduari eta diziplinari buruzko erregelamendu-mailako arau guztiak, hura argitaratu arte eman zirenak.

Halaber, azpimarratzekoa da 2015-2019 epealdian CRR Erregelamendua osatzen duten arau berriak argitaratu zirela, funts propioei, likideziari, I. zutabeko arriskuei eta kapital-errekerimenduei dagozkien gaietan.

Horrela, bada, 2016ko otsailaren 2an, Espainiako Bankuak 2/2016 Zirkularra jaulki zuen, gainbegiraketari eta kaudimenari buruzkoa, Espainiako ordenamendu juridikoa 2013/36/EB Zuzentaraura eta 575/2016 (EB) Erregelamendura egokitzeko prozesua osatzearren.

Azkenik, 2019ko ekainean, kapitaleko arau-esparru berria sartu zen indarrean, Europako gobernu-organoek aurrekoa (CRR/CRD IV) aldatzekoa. Haren neurrien artean, erreforma-paketeak honako hauek jaso zituen: 1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/878 (EB) Zuzentaraua, 2019ko maiatzaren 20koa (aurrerantzean, CRD V), 2013/36/EB Zuzentaraua aldatzen duena, salbuetsitako erakundeei, zorroko finantza-sozietateei, zorroko finantza-sozietate mistoei, ordainsariei, gainbegiratzeko neurri eta ahalmenei eta kapitala kontserbatzeko neurriei dagokienez, eta 2) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/876 (EB) Erregelamendua, 2019ko maiatzaren 20koa (aurrerantzean, CRR II), 575/2013 (EB) Erregelamendua aldatzen duena, palanka-efektuaren ratioari, finantzaketa egonkor garbiaren ratioari, funts propioen eta pasibo onargarrien eskakizunei, kontrako alderdiaren kreditu-arriskuari, merkatu-arriskuari, kontrako alderdi zentralekiko esposizioei, inbertsio kolektiboko erakundeekiko esposizioei, esposizio handiei eta informazioa aurkezteko eta zabaltzeko eskakizunei dagokienez.

Aurreko paragrafoetan aipatutako araudia osatzeko, CRD V zuzentaraua Espainiako araudira eraman da hauen bidez: 7/2021 Errege Lege Dekretua, apirilaren 27an argitaratua; 970/2021 Errege Dekretua, azaroaren 9an argitaratua, 84/2015 Errege Dekretua aldatzen duena, eta Espainiako Bankuaren 5/2021 Zirkularra, abenduaren 23an argitaratua, Espainiako Bankuaren 2/2016 Zirkularra aldatzen duena. Horrela, amaitu egin da Europako araudian ezarritako kreditu-erakundeen gainbegiratze- eta kaudimen-eskakizunak Espainiako araudira egokitzeko prozesua.

CRR Erregelamenduan ezarritako errekerimenduei jarraikiz, kapitalaren % 8ko ratioa bete beharko dute, une oro, kreditu-erakundeek. Dena den, kontuan izan behar dugu arau-esparru berrian arautzaileek beren ahalmenak erabil ditzaketela, erakundeei aparteko kapital-maila bati eustea eskatzeko.

Zentzu horretan, Entitate Nagusiak Espainiako Bankuaren jakinarazpen bat jaso zuen 2024ko abenduaren 5ean, Entitateari aplikagarri zaizkion zuhurtziazko gutxieneko errekerimenduen inguruko erabakiari buruz. Horren arabera, LABORAL Kutxak arriskuarekiko esposizioaren guztizko zenbatekoaren % 9,125etik gorako guztizko kapitalaren (TSCR) ratioa izan behar du. Baldintza horrek barne hartzen ditu 575/2013 (EB) Erregelamenduak 92.1.c) artikuluan galdatzen duen % 8ko kapital osoaren gutxieneko ratioa eta 2. zutabeko baliabide propioen errekerimendua, % 1,125ekoa.

Era berean, Entitate Nagusia koltxoien errekerimendu konbinatuari lotuta dago, eta, beraz, kapitalari eusteko koltxoia % 2,5ekoa izanik, eskakizunak % 7,63ra iristen dira (1. mailako kapital arruntaren ratioari edo CET1ari dagokionez), eta % 11,625era (guztizko kaudimen-ratioari dagokionez).

Halaber, % 0,5eko kapital-koltxoi antiziklikoa ezarri da, Espainian kokatutako erakusketei aplikatzeko, eta 2025eko urriaren 1etik aurrera izango da galdagarria.

Hona hemen Taldearen Entitate Nagusiaren zuzendaritzak baliabide propioen kudeaketaren inguruan finkatutako helburu estrategikoak:

- Gutxieneko baliabide propioen inguruan aplikatzekoa den araudia une oro betetzea, bai banaka bai taldean.

- Baliabide propioen kudeaketan efizientziarik handiena bilatzea, errentagarritasuneko eta arriskuko beste aldagai batzuekin batera baliabide propioen kontsumoa funtsezko aldagaitzat har dadin, Taldeko inbertsio-erabakiak hartzeko egiten diren analisietan.

Helburu horiek betetzeko, baliabide propioak kudeatzeko hainbat politika eta prozesu ditu Taldeak ezarrita. Hauek dira horien jarraibideak:

- Taldeak jarraipeneko eta kontroleko unitate bat du, Entitatearen Arriskuen Zuzendaritzaren mendean. Espainiako Bankuak baliabide propioez ezarrita duen araudia zenbateraino ari den betetzen aztertzen du.

- Taldearen antolamendu estrategiko eta komertzialean, horiek Taldearen baliabide propio konputagarrietan duten eragina eta kontsumoaren, errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko erlazioa gakotzat hartzen dira erabakiak hartzeko orduan.

- Taldearen kaudimen-egoerari eta etorkizuneko plangintzari etengabeko jarraipena eginez monitorizatzea. Bi agertoki hartzen dira kontuan: nagusia, datozen hiru ekitaldietarako gertagarriena den hipotesiarekin, eta hainbat estres-agertoki, askotariko aurkako egoerak gainditzeko duen finantza-gaitasuna ebaluatzeko helburuarekin.

Aurrez azaldu dugun kaudimen-araudian xedatutakoari lotuz kudeatzen ditu Taldeak bere baliabideak, definizio kontzeptualei dagokienean.

	2024	2023
1. mailako kapital arrunta (CET1)		
Kapitala	850.709	818.210
Emaitza onargarriak	162.572	129.459
Erreserbak	1.196.693	1.101.896
Balorazio-doikuntzak	40.701	167.837
(–) Bestelako kenketak	(73.617)	(71.690)
(–) CET1 doikuntzak, zuhurtziazko iragazkiak direla eta	28.272	(106.714)
	2.205.330	2.038.998
1. mailako kapital gehigarria		
Kapital-tresna onargarriak	-	-
	-	-
2. mailako kapitala		
Kapital-tresnak eta mendeko maileguak	-	-
Kreditu-arriskuetarako estaldura osagarria metodo estandarraren bidez	-	-
Balorazio-doikuntzak	-	-
Heziketako eta Sustapeneko Funtsa	-	-
(–) Doikuntza iragankorrak	-	-
	-	-
Bestelako kontzeptu eta kenketak	-	-
Funts propio konputagarriak guztira	2.205.330	2.038.998
Funts propio minimoak guztira	710.059	684.057
Arriskuaren arabera haztatutako aktiboak	8.875.740	8.550.712

Hona hemen 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n Taldeak zituen gutxieneko baliabide propioen daturik garrantzitsuenak:

	2024	2023
1. mailako kapital arruntaren ratioa (CET1)	% 24,85	% 23,85
1. mailako kapitalaren ratioa	% 24,85	% 23,85
Kapital-ratioa guztira	% 24,85	% 23,85

Urteko kontu bateratu hauek formulatzeko egunean, Taldeak betetzen du araudi hori.

6.2 Gutxieneko erreserben koefizienteak

Europar Batasunaren 2011ko abenduaren 21eko egunkari ofizialak Europako Banku Zentralaren 2011ko abenduaren 14ko 1358/2011 EB Erregelamendua argitaratu zuen, Gutxieneko Erreserbak aplikatzeari buruzko 1745/2003 EB Erregelamendua aldatu zuena. Aldaketa honako hau izan zen: Europako Banku Zentralaren Gobernu Kontseiluak 2011ko abenduaren 8an erabakitako erreserba-koefizientearen murrizketa jasotzea. Erabaki horren arabera, erakunde lotuek 2012ko urtarrilaren 18tik aurrera eutsi beharreko gutxieneko erreserba-koefizientea % 2tik % 1era murriztu zen.

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, eta 2024ko eta 2023ko ekitaldietan, araudi aplikagarriak une bakoitzean koefiziente horretarako ezarritako gutxienekoak betetzen zituen Entitate Nagusiak.

2024ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak 2.805.296 mila euroko zenbatekoa du, helburu horrekin, Espainiako Bankuko kontuan (1.261.130 mila eurokoa 2023ko abenduaren 31n) (22. oharra). Dena den, mantentze-aldian kontu horretan dauden amaierako saldoen batezbestekoa hartzen da kontuan, araudi aplikagarriak gutxieneko erreserben koefiziente hori betetzeko eskatzen duen saldoa kalkulatzeko.

7. Entitate Nagusiko kontseilarien eta goi-zuzendarien ordainsariak

a) Kontseilu Errektorearen ordainsariak

2022ko maiatzetik aurrera, bertaratze-dieten bidez ordaintzen zaie Kontseilu Errektoreko kideei, presidenteari izan ezik. Karguak berekin dakartzan lana eta ardura konpentsatzeko ordaintzen dira dietak; 95 mila eurokoak izan dira 2024ko ekitaldian, eta 93 mila eurokoak 2023koan.

Hona hemen Kontseilu Errektoreko 4 lan-bazkideek beren lanpostuetan jaso dutena, 2024ko abenduaren 31n (4 lan-bazkidek 2023ko abenduaren 31n), presidenteak jasotakoa barne hartuta:

	Epe laburreko ordainsariak	
	2024	2023
Kontseilu Errektoreko kideak (*)	405	350
	405	350

Bestalde, 2023ko abenduaren 31n, 185 mila euroko ordainsariak zituen jasoak Kontseilu Errektoreko presidenteak.

(*) Caja Laboral Popularrek ordainsari finkoari buruz gainerako lan-bazkideei aplikatzen zaizkien irizpideekin konpentsatzen du lehendakariaren dedikazioa. Presidenteak ez du ordainketa aldakorrik jasotzen.

b) Goi-zuzendarien ordainsariak

Era berean, 10 lagun hartu dira Entitate Nagusiko goi-zuzendaritzako kidetzat, 2024ko abenduaren 31n Zuzendaritza Kontseilua osatzen dutenak alegia —2023ko abenduaren 31n 9 ziren—. Taula honetan bildu ditugu talde horrek aurrez zehaztu dugun eran jasotakoak:

	Epe laburreko ordainsariak	
	2024	2023
Goi-zuzendaritza	1.616	1.497
	1.616	1.497

Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideen alde ekitaldian adierazitako ordainsariez gain, beste sarrera eta gastu batzuk ere erregistratu dira 2024ko eta 2023ko galdu-irabazien kontuan, hain zuzen ere Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideekin egindako eragiketenak, eta horien xehetasunak aurkeztuko ditugu jarraian:

	Finantza-sarrerak		Finantza-gastuak		Komisioen sarrerak	
	2024	2023	2024	2023	2024	2023
Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideak	41	39	26	8	6	5

Taldeko partaidetzapeko erakundeen administrazio-kontseiluetan Entitate Nagusiaren izenean jarduten duten goi-zuzendariek ez dute, 2024an eta 2023an, inolako ordainsaririk jaso partaidetzapeko erakunde horietako kontseilari izateagatik.

c) Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideekiko mailegu, kreditu, eperako gordailu, abal eta konpromisoak

Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideekin egindako eragiketen ondorioz 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n balantzean erregistratu diren aktiboko eta pasiboko saldoen xehetasuna eskainiko dugu jarraian:

	Aktiboa - emandakoa (zenbateko gordina)		Pasiboa - ageriko eta eperako gordailuak		Abalak eta konpromisoak	
	2024	2023	2024	2023	2024	2023
Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideak	1.680	1.416	1.544	1.756	-	-

8. Agentziako kontratuak

2015eko otsailaren 13ko 84/2015 Errege Dekretuaren 21. artikuluarekin bat —2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legea, kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoa garatzen du—, kreditu-erakundeen jarduerako ohiko eragiketak Entitate Nagusiaren izenean eta kontura bezeroekin negoziatzeko edo formalizatzeko 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n ahalordeak emanda dauden pertsona fisiko eta juridikoen zerrenda dator, II. eranskinean.

Zerrenda hori behar bezala jakinarazi zaio Espainiako Bankuari, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n.

9. Ingurumenarekiko inpaktua

Taldearen eragiketa globaletan, besteak beste, ingurumena eta langileen segurtasuna eta osasuna babesteko legeak zaintzen dira. Taldeak uste du behar bezala betetzen dituela legeok, eta horiek betetzen direla bermatzeko diseinatutako prozedurak dituela ezarrita.

Entitate Nagusiak hainbat konpromiso ditu hartuak, bere ingurumen-inpaktua murrizteko eta neurtzeko, hala nola Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioen sinatzaile gisa hartutakoak eta 2024an Global Alliance for Banking on Values erakundean sartzea.

2024ko eta 2023ko ekitaldietan, Entitate Nagusiko Kontseilu Errektorearen iritziz, klima-arriskuek ez dute eragin nabarmenik 2024ko eta 2023ko ekitaldietako finantzetako egoera-orri bateratuetan, eta, beraz, ez da beharrezkotzat jo ingurumen-arloko arrisku eta gastuetarako hornidurarik erregistratzea, arrazoi horrengatik ez baitago urteko kontu hauetan eragin nabarmenik izan dezakeen kontingentziarik.

Taldearen eragiketa globaletan, besteak beste, ingurumena eta langileen segurtasuna eta osasuna babesteko legeak zaintzen dira. Taldeak uste du behar bezala betetzen dituela legeok, eta horiek betetzen direla bermatzeko diseinatutako prozedurak dituela ezarrita.

10. Suntsiarazpen Funts Bakarra eta Gordailuak Bermatzeko Funtsa

10.1 Suntsiarazpen Funts Bakarra

11/2015 Legeak eta 1012/2015 Errege Dekretuak 2014/59/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten dute, eta kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetako enpresak suntsiarazteko esparrua ezartzen dute, Suntsiarazpen Mekanismo Bakarraren eta haren Suntsiarazpen Funts Bakarraren testuinguruan.

Suntsiarazpen Funts Bakarra, 2016ko urtarrilaren 1etik dagoena indarrean, Suntsiarazpen Batzorde Bakarra finantzatzeko tresna bat da, kreditu-erakundeen eta inbertsio-zerbitzuen ekarpenez hornitua. Ekarpen horiek, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuak, erakunde bakoitzaren pasibo garbien proportzioaren arabera kalkulatzen dira, baliabide propioak eta gordailuen zenbateko bermatua kenduta eta arrisku-profilaren arabera doituta, 2015/63 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera. 2024ko abenduaren 31ra arteko trantsizio-epealdian, ekarpenak pixkanaka handituko dira, bermatutako gordailuen % 1era iritsi arte.

2024ko otsailaren 21ean, ekarpenen helburua lortu zuela jakinarazi zuen Suntsiarazpen Batzorde Bakarrak, eta, beraz, 2024an ez zen ekarpen horiekin lotutako gasturik egin (2023an, 4.339 mila euro kontabilizatu ziren; ikusi 55. oharra).

10.2 Gordailuak Bermatzeko Funtsa

Entitate Nagusia Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsean dago sartuta.

1996ko abenduaren 20ko 2606/1996 Errege Dekretuak, 2015eko azaroaren 6ko 1012/2015 Errege Dekretuak aldatu zuenak, hauxe ezartzen du: Gordailuak Bermatzeko Funtsaren Gestio Batzordeak finkatuko ditu Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsera atxikitako erakundeen urteko ekarpenak.

Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsaren Gestio Batzordeak urte bakoitzeko abenduaren 31n bermatutako gordailuen zenbatekoaren milako 1,75ean (milako 1,75ean 2022an) finkatu du gordailuak bermatzeko konpartimentuari atxikitako erakunde guztientzat egin beharreko ekarpena, 16/2011 Errege Lege Dekretuaren 6. artikuluan eta 2606/1996 Errege Dekretuaren 3. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, Entitate bakoitzaren ekarpena kalkulatzeko, bermatutako gordailuen zenbatekoa eta arrisku-profila hartzen dira aintzat, bai eta zenbait adierazle ere: kapitalaren egokitasuna, aktiboen kalitatea eta likidezia. Horiek Espainiako Bankuaren 2016ko maiatzaren 27ko 5/2016 Zirkularrak garatu ditu —2018ko urtarrilaren 31ko 1/2018 Zirkularrak aldatu zuen—. Era berean, urte bakoitzeko abenduaren 31n baloreen eta bestelako finantza-tresnen % 5en milako 2an finkatu da balore-bermeen konpartimentura egin beharreko ekarpena.

Ekarpen horiengatiko gastua, ordaintzeko betebeharra dagoen ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31n sortzen da, FINAIB 21en arabera.

Horrez gain, 2012ko uztailaren 30ean, Gestio Batzordeak aparteko derrama bat adostu zuen erakundeen kontura, urteko hamar kuota berdinetan ordaindu beharrekoa, eta guztira 35.227 mila eurokoa izango da Entitatearentzat. Azken ordainketa (3.523 mila eurokoa) 2022ko uztailaren 30ean egin zuen Entitateak, eta, beraz, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n ez zeukan erregistratuta ordaindu gabeko inongo zenbatekorik aipatutako konpromisoagatik.

Bestalde, salbuespen gisa eta behingoagatik, 6/2013 Errege Lege Dekretuak 2012ko abenduaren 31ko gordailuen beste milako 3an handitu zuen urteko ekarpena, eta sortu eta ordaindu egin zen.

2024ko ekitaldian, 16/2011 Errege Lege Dekretuaren 6. artikulua eta 2606/1996 Errege Dekretuaren 3. artikulua aplikatuz, Batzordeak erabaki zuen gordailuak bermatzeko konpartimentuan ez dela ekarpenik egingo, 2022ko abenduaren 31n bermatutako eta 2023an kontabilizatutako gordailuen milako 1,75aren aldean.

2024ko ekitaldian, erakunde horri egin beharreko ekarpen guztien gastu osoa 91 mila eurokoa izan da (31.354 mila eurokoa, 2023ko ekitaldian), eta honi atxikitako galdu-irabazien kontuan jaso ditugu, «Ustiapeneko bestelako kargak» epigrafean (55. oharra).

11. Ikuskaritzako zerbitzu-sariak

2024ko eta 2023ko ekitaldietan zerbitzu-sari hauek jaso dituzte Entitate Nagusiaren Ernst & Young SL auditoreak (PricewaterhouseCoopers Auditores SL auditoreak, 2023ko ekitaldian) eta kontrol, jabetza komun edo kudeaketa bidez auditoreari lotutako enpresek, Taldea osatzen duten sozietateen urteko kontu indibidual eta bateratuetako auditoretza-zerbitzuengatik eta Taldeko sozietateei emandako beste zerbitzu batzuengatik:

	Mila eurokotan	
	2024	**2023**
Ikuskaritzako zerbitzuak	548	631
Egiaztapeneko bestelako zerbitzuak	96	114
Ikuskaritzako zerbitzuak eta lotutakoak guztira	**644**	**745**
Zerga-aholkularitzako zerbitzuak	-	-
Bestelako zerbitzuak	80	173
Bestelako zerbitzu profesionalak guztira	**80**	**173**

Bestalde, 2024ko ekitaldian, Caja Laboral Taldeko sozietateek 58 mila euroko auditoretzako zerbitzu-sariak ordaindu dizkiete sozietate nagusiaren auditoreaz bestelako enpresei (39 mila eurokoak 2023ko ekitaldian).

12. Ondorengo gertakariak

2024ko abenduaren 31tik urteko kontu bateratu hauek egin bitarteko epealdian ez da jazo Taldeari nabarmen eragingo dion aparteko gertakaririk.

13. Aplikatutako kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balorazio-irizpideak

Urteko kontu hauek egiteko erabili ditugun kontabilitate-printzipio eta -araurik eta balorazio-irizpiderik nabarmenenak azalduko ditugu segidan:

a) Jarduneko enpresaren printzipioa

Urteko kontu bateratuak egitean, Taldeko erakundeen jarduerak etorkizunean ere jarraitu egingo duela hartu da kontuan. Hortaz, kontabilitate-arauak aplikatzearen helburua ez da ondare garbi oso bateratua edo horren zati bat transmititzeari begira berorren balioa ezartzea edo likidazioa eginez gero emango lukeen zenbatekoa finkatzea.

Era berean, urteko kontu hauek formulatzeko egunean, Entitatearen erreferentziazko adierazle nagusien kaudimen- eta likidezia-mailek ez dute arriskurik negozioaren jarraitutasunari begira.

b) Sortzapen-printzipioa

Urteko kontu bateratu hauek, diru-fluxuen egoera-orri bateratuekin zerikusia duten gaietan salbu, ondasun eta zerbitzuen korronte errealaren arabera prestatu dira, noiz ordaindu edo kobratu diren kontuan hartu gabe.

c) Bestelako printzipio orokorrak

Kostu historikoaren ikuspegiari jarraikiz egin dira urteko kontu bateratuak. Dena den, 2004ko urtarrilaren 1ean eta 13.q oharrean adierazitakoaren arabera lursailei eta eraikuntzei aplikatutako errebalorizazioa ere sartu da, eta arrazoizko balioko balorazioa ere bai, bai «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» atalarena, bai «Bestelako finantza-aktibo eta -pasiboak» atalarena (deribatuak barne hartuta).

Urteko kontu bateratuak egiteko, kontabilitateko zenbait estimazio erabili behar dira. Bestalde, Taldearen kontabilitate-politikak aplikatzeko prozesuan bere iritzia erabili behar du Zuzendaritzak. Estimazio horiek eragina izan dezakete, bai urteko kontu bateratuen eguneko aktiboen eta pasiboen zenbatekoan eta aktibo eta pasibo kontingenteen banakapenean, bai urteko kontu bateratuei dagokien aldiko sarreren eta gastuen zenbatekoan. Estimazioak Zuzendaritzaren egungo eta etorkizuneko gorabeheren ezagutzan oinarritzen badira ere, azken emaitzak bestelakoak izan daitezke.

d) Finantza-deribatuen izaera eta funtzionamendua

Finantza-deribatuak izeneko tresnek, galerak edo irabaziak ekartzeaz gain, saldoei eta transakzioei lotutako kreditu- edo merkatu-arrisku guztiak edo batzuk konpentsatzeko aukera eman dezakete, baldintza batzuk betetzen badira. Horretarako, azpiko elementu gisa erabiltzen dituzte interes-tasak, indize jakin batzuk, balore batzuen prezioak, zenbait dibisaren kanbio-tasa gurutzatuak eta antzeko beste erreferentzia batzuk. Taldeak merkatu antolatuetan negoziatutako finantza-tresna deribatuak erabiltzen ditu, edo, bestela, antolatutako merkatuetatik kanpo (OTC) kontrako alderdiarekin negoziatuak.

Eskatzen dituzten bezeroekin negoziatzeko erabiltzen dira finantza-tresna deribatuak, bai eta Taldearen posizioen arriskuak (estaldura-deribatuak) gestionatzeko eta horien salneurrien aldaketei onura ateratzeko ere. Estaldura-eragiketatzat hartu ezin diren finantza-tresna deribatuak negoziazio-deribatutzat hartzen dira. Hauek dira estaldura-kontabilitatea aplikatu ahal izateko baldintzak:

i) Finantza-tresna deribatuak arrisku hauek estali behar ditu: interes-tasak edo kanbio-tasak gorabeherak izatearen ondorioz aktiboen eta pasiboen balioan aldaketak izatekoa (arrazoizko balioen estaldura); jatorria finantza-aktibo eta -pasiboetan, konpromisoetan eta aurreikusitako transakzio oso probableetan duten diru-fluxu baloratuetan gorabeherak izatekoa (diru-fluxuen estaldura); eta atzerriko negozioetako inbertsio garbiarena (atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldura).

ii) Estaldura-epean zehar, finantza-tresna deribatuak eraginkortasunez deuseztatu behar du estalitako elementu edo posizioaren berezko arriskuren bat. Hortaz, eraginkortasuna izan behar du: prospektiboa, erretrospektiboa eta estaldura baldintza normaletan kontratatzen den unekoa. Bermatu behar du, estalitako elementu edo posizioaren bizitza osoan iraungo duela estaldurak.

iii) Egoki dokumentatu behar da, batetik, finantza-tresna deribatua saldo edo transferentzia jakin batzuk estaltzeko kontratatu zela berariaz eta, bestetik, estaldura eraginkor hori nola lortu eta neurtu nahi zen, betiere bat badator Taldeak arrisku propioak kudeatzeko duen moduarekin.

Elementu edo saldo indibidualak nahiz finantza-aktiboen eta -pasiboen zorroak estal daitezke. Azken kasu horretan, estaliko ditugun finantza-aktibo edo -pasiboek arrisku-tasa bera izan behar dute. Baldintza hori betetzeko, elementu indibidualetan estalitako arriskuak aldaketarekiko duen sentikortasuna antzekoa izan behar da.

Estaldurak gauzatzeko, hainbat izaeratako deribatuak erabiltzen ditu Entitate Nagusiak: interes-tasaren deribatuak, errenta aldakorrarenak, dibisarenak eta abarrenak, estali nahi den elementuaren azpiko arrisku-motaren arabera. Estaldura-tresna hauek erabil daitezke, nagusiki: Interes Rate Swap (IRS) izenekoak, Call Money Swap (CMS) deritzenak, FRAk, interes-tasen gaineko gerokoak, bonuen gaineko gerokoak, errenta aldakorreko interesen gaineko gerokoak, akzioen gaineko gerokoak, eperako dibisa-salerosketa, interes-tasen gaineko aukerak, errenta aldakorreko indizeen gaineko aukerak, akzioen gaineko aukerak, dibisaren gaineko aukerak, interes-tasen egituren gaineko aukerak, errenta aldakorreko egituren gaineko aukerak eta Equity Swapak.

Taldeak kontratatutako eta tresna deribatuekin egindako estaldura-eragiketak arrazoizko balioko estalduratzat hartzen dira, oro har. Estaltzen dute, batetik, Entitate Nagusiak jaulkitako zenbait pasiboren edo gordailuren arrazoizko balioak interes-tasen gorabeherengatik izan dezakeen aldaketa-arrisku osoa edo zati bat eta, bestetik, «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroko ondare-tresna eta zorra adierazten duten balore batzuen arrazoizko balioa.

Beste finantza-tresna batzuetan edo beste kontratu nagusi batzuetan sartzen diren finantza-tresna deribatuak bereizi erregistratzen dira deribatu gisa, horien arriskuak eta ezaugarriak kontratu nagusietakoekin estuki lotuta ez daudenean eta kontratu nagusi horiek «Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak» eta «Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktibo eta -pasiboak arrazoizko balioan» epigrafeetan sailkatuta ez daudenean.

Entitate Nagusiak kontrako alderdiekin sinatutako *netting*- eta *kolateral*-hitzarmenak erabiltzen ditu arriskuak arintzeko politika moduan; izan ere, kontrako alderdiaren balizko porrotarekiko esposizioa minimizatzen du horrela. 2024ko abenduaren 31n, berme kolateral gisa jasotako eta entregatutako gordailuak 690 eta 299.136 mila eurokoak dira, hurrenez hurren, eta «Finantza-pasiboak kostu amortizatuan – Bestelako finantza-pasiboak» eta «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan – Maileguak eta aurrerakinak» epigrafeetan daude erregistratuta (1.320 eta 398.873 mila euro, hurrenez hurren, 2023ko ekitaldian) (35. eta 25. oharrak).

Ohar horren beraren e) Finantza-aktiboak atalean deskribatzen dira finantza-deribatu horiek baloratzeko irizpideak.

e) Finantza-aktiboak

Finantza-aktiboak hauetako zorroren batean sartzen dira baloratzeko:

i) Finantza-aktiboak kostu amortizatuan

ii) Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan

iii) Nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak:

   a. Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak

   b. Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak

iv) Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan

Kategoria horiek sailkatzeko, bi elementu hauek hartzen dira aintzat:

- finantza-aktiboak gestionatzeko Taldearen negozio-eredua
- finantza-aktiboen kontratuzko diru-fluxuen ezaugarriak

<u>Negozio-eredua</u>

Diru-fluxuak sortzeko finantza-aktiboak gestionatzeko modua da negozio-eredua. Negozio-eredua zehaztu ahal izateko, helburu zehatz bat lortzearren finantza-aktiboen multzoak batera nola gestionatzen diren hartzen da aintzat. Beraz, negozio-eredua ez dago Taldeak tresna jakin baterako duen asmoaren mende; aitzitik, tresna-multzo baterako zehazten da.

Hona hemen Taldeak erabiltzen dituen negozio-ereduak:

- Finantza-aktiboei eustea, haien kontratuko diru-fluxuak jasotzeko. Eredu horren arabera, kontratuzko diru-fluxu zehatzak kobratzeko asmoz gestionatzen dira finantza-aktiboak, eta ez, ordea, errendimendu global bat eskuratzeko, aktibo horiek gordez eta salduz. Dena dela, egoera jakin batzuetan, aktiboak mugaeguneratu aurretik besterentzeko aukera dago. Aktiboak kontratuzko diru-fluxuak jasotzeko asmoz mantentzeko ereduarekin bateragarriak diren salmenten artean daude oso maiztasun urriko edo garrantzi txikiko salmentak, muga-egunetik gertu dauden aktiboen salmentak, kreditu-arriskua hazi delako egindako salmentak, eta kontzentrazio-arriskua gestionatzeko egiten direnak.

- Finantza-aktiboen salmenta.

- Aurreko bi negozio-ereduak (finantza-aktiboak mantentzea kontratuzko diru-fluxuak jasotzeko eta finantza-aktiboak saltzea) uztartzea. Negozio-eredu horretan, aktiboak maiztasun handiagoz eta zenbateko handiagoan saltzen dira, eta funtsezkoak izaten dira negozio-ereduan.

Finantza-aktiboen kontratuzko diru-fluxuen ezaugarriak

Bi kategoria hauetakoren bat aukeratuko da hasiera batean finantza-aktiboak sailkatzeko:

- Kontratuko baldintzen ondorioz data jakin batzuetan diru-fluxuak sorrarazten dituztenak, zor den kopuruaren printzipala eta interesak ordaintzean.

- Gainerako finantza-aktiboak.

Sailkapen horren ondoreetarako, hasierako kontabilizazioan duen arrazoizko balioa da finantza-aktiboaren printzipala, jakinik finantza-aktiboaren bizitzan aldaketak egon daitezkeela (adibidez, printzipala itzuliz gero). Era berean, interesa ateratzeko, hainbat arrazoiren ondorioz jasotako kontraprestazioak batzen ditugu; alegia, diruaren denbora-balioaren, finantzaketa- eta egitura-kostuen eta aldi zehatz batean kobratzeko dagoen printzipalaren zenbatekoari lotutako kreditu-arriskuagatiko kontraprestazioak, eta irabazi-marjina bat gehitzen zaio.

Zorroen sailkapena, balorazio-ondoreetarako

Taldeak honela sailkatzen ditu finantza-aktiboak, balorazio-ondoreetarako:

- «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan» zorroan, bi baldintza hauek betetzen direnean:

  a. Erabiltzen den negozio-ereduan finantza-aktiboei eustea, kontratuzko diru-fluxuak jasotzeko asmoz.

  b. Kontratuzko baldintzek diru-fluxuak sorraraztea data jakin batzuetan; zor den printzipalaren gaineko printzipalaren eta interesen ordainketak dira soilik (PIOS testa: printzipalaren eta interesen ordainketa soilik).

- «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan, bi baldintza hauek betetzen direnean:

  a. Erabiltzen den negozio-ereduak finantza-aktiboen kontratuzko diru-fluxuak jasotzea eta saltzea uztartzen ditu.

  b. Kontratuzko baldintzek diru-fluxuak sorraraztea data jakin batzuetan; zor den printzipalaren gaineko printzipalaren eta interesen ordainketak dira soilik (PIOS testa: printzipalaren eta interesen ordainketa soilik).

- «Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak» zorroan sartzen dira ezaugarri hauetakoren bat duten tresna guztiak:

  a. Epe laburrean gauzatzeko helburuarekin sortu edo eskuratzea.

  b. Batera identifikatu eta kudeatzen diren finantza-tresnen talde batekoak izatea eta ebidentziak egotea talde hori erabili egin dela arestian, epe laburrean irabaziak lortzeko.

  c. Finantza-bermeko kontratuaren definizioa betetzen ez duten tresna deribatuak izatea eta kontabilitate-estaldurako tresnaren izendapena ez izatea.

- «Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan: baldin eta Entitateak horiek kudeatzeko darabilen negozio-ereduagatik edo horien kontratuzko diru-fluxuen ezaugarriengatik ez bada komeni aurreko zorroetakoren batean sailkatzea.

Deskribatu berri ditugun balorazio-irizpide orokorretatik kanpo gelditzen dira (salbuespenak dira) ondare-tresnetako inbertsioak. Oro har, Taldeak hasierako kontabilizazioan eta era ezeztaezinean gauzatzen du aukera, «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan sartzen dituelako negoziatzeko dauden tresna moduan sailkatzen ez diren ondare-tresna garbietan egindako inbertsioak, aukera hori gauzatu ezean «Nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak» zorroan sailkatu beharko liratekeenak.

Negozio-ereduaren ebaluazioari dagokionez, eredu hori ez dago banakako tresna batentzako asmoen mende; aitzitik, tresna-multzo batentzat zehazten da, honako hauek kontuan hartuta: aurreko ekitaldietako salmenten maiztasuna, zenbatekoa eta egutegia; salmenta horien zergatiak, eta etorkizuneko salmentekiko aurreikuspenak. Kontratuzko diru-fluxuak jasotzeko aktiboei eustearen ereduarekin bateragarriak izan daitezke, besteak beste, oso gutxitan egiten diren edo oso garrantzi txikia duten salmentak, aktiboaren muga-egunetik hurbil daudenak eta finantza-aktiboen kreditu-arriskua handitu delako edo kontzentrazio-arriskua gestionatzeko egin direnak.

Finantza-aktibo baten kontratuko klausula batek egutegia edo kontratuzko diru-fluxuen zenbatekoa aldatzeko aukera ematen badu (adibidez, amortizazio aurreratuko klausulak edo iraupena luzatzeko klausulak), Entitateak erabakitzen du ea kontratuko klausula hori erabiliz tresnaren bizitzan sortzen diren diru-fluxuak zor den kopuruaren printzipalaren eta interesen ordainketak soilik diren. Horretarako, egutegia aldatu aurretik eta ondoren sor litezkeen kontratuzko diru-fluxuak edo kontratuzko diru-fluxuen zenbatekoa hartzen ditu aintzat.

Aldi berean, finantza-aktibo batek interes-tasa aldian behin doitzea jasotzen badu baina doikuntza horren maiztasuna ez badator bat erreferentziako interes-tasaren epearekin (adibidez, interes-tasa 3 hilean behin doitzen bada urtebeteko tasara), hasierako kontabilizazioa egiten duen unean ebaluatzen du Taldeak intereseko osagaien desdoikuntza, erabakitzeko ea kontratuzko diru-fluxuak zor den kopuruaren printzipalaren eta interesen ordainketak soilik diren.

Hasierako kontabilizazioa egiteko unean diru-fluxuen gainean oso eragin txikia duten edo gertatzeko oso zailak diren gorabehera berezien mende dauden kontratuko baldintzek (jaulkitzailearen likidazioak, adibidez) ez dute galarazten «Kostu amortizatuan» edo «Arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituztela» zorroetan sailkatzea.

v) Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea: Taldeak eskuratu edo jaulkitako finantza-tresna deribatuak hartzen ditu barne, kontabilitate-estaldurakotzat hartzeko kalifikatzen direnak alegia.

Gobernu-organoek 2023ko ekainaren 2an onartu zuten IFRS 9a ezartzea estaldura-kontabilitatean, eta erabakia 2023ko urtarrilaren 1eko datarekin sartu zen indarrean. LABORAL Kutxak araudi berriaren arabera egokitu ditu kontabilitate-politikak eta -prozesuak, Entitate Nagusiko gobernu-organoen onespenarekin.

Estaldura-kontabilitaterako kontabilitate-esparru berria ezartzeak ez du eragin aldaketa kuantitatibo handirik egoera-orrietan. Jarraian, aipatutako araudia betetzeko kontuan hartu beharreko gakoak azalduko ditugu.

Estaldura-erlazioek izendapen ofiziala eta dokumentazio formala izan behar dituzte. Dokumentazioan alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Arriskuen gestioaren helburua eta estrategia.
- Estalitako partidaren eta estaldura-tresnaren identifikazioa.
- Arriskuaren izaera.
- Eraginkortasuna neurtzeko metodologia, eraginkortasun-ezaren iturriak eta estaldura-ratioa zehazteko modua.

Atal horiei eraginkortasun-betebeharrak gehitu zaizkie:

- Estalitako partidaren eta estaldura-tresnaren arteko erlazio ekonomikoa frogatzea.
- Kreditu-arriskuak ez ditu menderatzen erlazio ekonomiko horren balio-aldaketak.
- Kontabilitateko estaldura-erlazioaren estaldura-ratioa betetzea; ratio hori estalitako partidaren kantitatearen eta estaldura-tresnaren kantitatearen arteko erlazioaren emaitza da.

Erlazio horrek berbera izan behar du kontabilitatean zein eragiketetan.

<u>Arrazoizko balioaren estaldurak</u>

Estaldura-mota horrek aktiboen edo pasiboen arrazoizko balioaren aldaketak estaltzen ditu, bai eta kontabilizatu gabeko konpromiso irmoen edo horien osagairen baten arrazoizko balioaren aldaketak ere, osagai hori arrisku jakin bati egotz badakioke eta emaitza-kontuari eragin badiezaioke.

Arrazoizko balioaren estalduretan balio-diferentziak kontabilizatuko dira, aukera hauen artean bereizketa eginez:

- Estalitako elementua arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituela baloratzen bada, estalitako partidaren estalduragatiko aldakuntza ekitaldiko emaitzan kontabilizatuko da.

- Ondare-tresna bat bada, estalduragatiko aldakuntzak bestelako emaitza global batean kontabilizatuko dira.

Diru-fluxuen estaldurak

Estaldura-mota horrek emaitza-kontuaren hegakortasuna estaltzen du; hain zuzen ere, finantza-tresna aktibo edo pasibo bati edo oso probablea den transakzio bati lotutako arrisku zehatzak eragindako diru-fluxuen aldaketengatiko hegakortasuna.

Estaldura eraginkortzat joko den estaldura-tresnaren aldakuntza-proportzioa bestelako emaitza global batean kontabilizatuko da. Halere, gainerako edozein aldakuntza ekitaldiko emaitzan kontabilizatuko da.

vi) Interes-tasaren arriskua estalita duen zorro bateko estalitako elementuen arrazoizko balioko aldaketak: galdu-irabazien kontu bateratuan ordaindutako zenbatekoen kontrapartida bateratuari dagokio, baldin eta zenbatekook finantza-tresnen zorroen balorazioan badute jatorria eta zorro horiek interes-tasaren arriskutik eraginkortasunez babestuta badaude arrazoizko balioa estaltzeko deribatuen bidez.

vii) Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak: erakunde taldeaniztunetako edo elkartuetako ondare-tresnak hartzen dituzte barne.

Erakunde taldeaniztunak dira Taldeak eta Taldearekin loturarik ez duen beste erakunde batek edo hainbatek elkarren artean kontrolatutako partaidetzapeko erakundeak eta baterako negozioak. Baterako negozioak dira, bi erakunde edo partaidek edo gehiagok eragiketak egiten badituzte edo aktiboak gordetzen badituzte, eta finantzei edo eragiketei lotutako edozein erabaki estrategiko bideratzeko, partaide guztien ahobatezko adostasuna behar bada, baina eragiketa edo aktibo horiek partaideen finantza-egituretan txertatuta egon gabe.

Erakunde elkartuak partaidetzapeko erakundeak dira, zeinetan Taldeak eragin handia duen. Eragin nabarmen horren erakusle dugu, baina ez bakarra, zuzenean edo zeharka beste partaidetzapeko erakunde baten edo hainbaten bidez partaidetzapeko entitateko boto-eskubideen % 20ko edo gehiagoko partaidetza izatea.

viii) Aseguru- edo berraseguru-kontratuen bidez babestutako aktiboak: aseguru-polizek Planaren aktibotzat hartzeko baldintzak betetzen ez dituztenean prestazio-betebeharra ezeztatzeko behar den diru guztia edo zati bat itzultzea eskatzeko aseguru-entitateei galda dakizkiekeen ordaintze-eskubideei dagozkie.

ix) Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarri finantzarioak: erabiltzeko talde batean sartuta edo besterendu nahi den negozio-unitate batean —etendako eragiketak— dauden partida indibidualen liburuetako zenbatekoei dagozkie, baldin eta gaur egungo baldintzetan eta urtebeteko epean (urteko kontuetan azaltzen den datatik aurrera) saltzeko probabilitate handia badute. Hortaz, besterentzen direnean jasotzen den diruarekin berreskuratuko da, seguruenik, finantza-izaerako partida horien kontabilitate-balioa. Badira finantza-izaerarik ez duten eta salgai dauden beste aktibo ez-korronte batzuk ere, eta horien kontabilitate-tratamendua 13.v oharrean jaso dugu.

Erregistroa eta balorazioa

Hasierako kontabilizazioa, finantza-tresna guztiak arrazoizko balioan erregistratzen dira. Ondoren, kontabilitate-itxiera bakoitzeko balorazioa egiteko, irizpide hauek hartzen dira kontuan:

i) Finantza-aktiboak arrazoizko balioan baloratzen dira. Salbuespenak: finantza-aktiboak kostu amortizatuan; baterako negozioetan eta elkartuetan egindako inbertsioak; ondare-tresna horiek azpiko aktibotzat dituzten eta beroriek emanez likidatzen diren finantza-tresna deribatuak.

ii) Finantza-aktibo batek egun jakin batean duen arrazoizko balioa da, egoki informatutako alderdi interesdunek independentziaz egindako transakzioan batak besteari emateko prezioa. Merkatu aktibo batean, hau da, merkatu antolatu, garden eta sakon batean, aktiboak duen kotizazio-balioa da arrazoizko balioa kalkulatzeko biderik garbiena.

Finantza-aktiboak merkatuko preziorik ez duenean, antzeko tresnekin egin diren transakzioetan erabilitakora jotzen da arrazoizko balioa kalkulatzeko, eta, bestela, behar bezala egiaztatutako balorazio-ereduetara. Orobat, baloratu nahi dugun aktiboaren bereizgarriak hartu behar dira kontuan, eragiten dioten arrisku-motak batik bat. Halere, garatutako balorazio-ereduen mugak eta eredu horiek eskatzen dituzten datuen zehaztasun-falta direla eta, gerta liteke modu horretan ateratako arrazoizko balioa bat ez etortzea balorazio-egunean erosi edo saltzeko izango lukeenarekin.

iii) Eguneroko kotizazio-prezioa da merkatu aktiboan kotizazio-balioa duten finantza-tresna deribatuen arrazoizko balioa; eta, ezohiko arrazoiengatik egun zehatz batean kotizazioa zehazterik ez badago, OTC finantza-deribatuak baloratzeko erabiltzen diren pareko bideak erabiltzen dira.

Merkaturik gabeko deribatuak edo oso aktiboa ez den merkatua duten deribatuak baloratzeko, metodologia ekonomikorik sendoenak eta egokienak erabiltzen dira, datu behagarrien erabilera maximizatuz eta merkatuko partaide batek baloratuko lituzkeen faktore guztiak aintzat hartuz; alegia: a) antzekotasun handiko beste tresna batzuen bidez egindako transakzioak, b) diru-fluxuen deskontua, c) aukerak baloratzeko merkatu-ereduak. Merkatuko partaideek lehenesten dituzten eta tresnaren prezioaren estimaziorik errealistena emateko gaitasuna erakutsi duten teknikak ezarriko dira.

Hasierako kontabilizazioan, finantza-deribatu guztiak arrazoizko balioan erregistratzen dira. Hasierako kontabilizazioan, transakzioaren prezioa izan ohi da finantza-tresna baten arrazoizko balioaren ebidentziarik onena. LABORAL Kutxa Taldeak ez du eragiketa garrantzitsurik egiten, hasierako kontabilizazioan transakzioaren prezioa ez den beste arrazoizko balio bat ezarria duten tresna deribatuekin.

iv) «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan» zorroa baloratzeko, kostu amortizatua baliatzen da, eta interes-tasa efektiboaren metodoa erabiltzen da berori finkatzeko. Kostu amortizatua finkatzeko, finantza-aktiboaren eskuratze-kostua hartzen da oinarri. Horri, baina, zuzenketa batzuk egiten zaizkio printzipaletik ateratako diru-kopuruekin eta galdu-irabazien kontu bateratuan sartutako zatiarekin, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz. Hasierako kostuaren eta muga-eguneko itzultze-balioaren arteko aldea ere hartzen da kontuan. Gero, zuzenean edo balioa zuzentzeko kontu baten bidez, aktiboaren zenbatekoa murriztu egin dela kontabilizatzen duen narriaduraren ondoriozko edozein balio-murrizketa kentzen zaio. Arrazoizko balioa estaltzeko eragiketetan estalitako «Maileguak eta kobratzeko partidak» epigrafearen kasuan, estaldura-eragiketa horietan estalitako arriskuaren edo arriskuen ondorioz arrazoizko balioan izaten dituzten aldakuntzak erregistratzen dira.

Interes-tasa efektiboa da finantza-tresna baten balioa tresna horri balio-bizitzan estimatu zaizkion diru-fluxuekin parekatzen duen eguneratze-tasa. Kontratuko baldintzak hartzen dira horretarako, amortizazio aurreraturako aukerak esaterako, baina etorkizuneko kreditu-arriskuengatiko galerak kontuan hartu gabe. Interes-tasa finkoa duten finantza-tresnetarako, eskuratu zirenean kontratuan ezarri zen interes-tasa da interes-tasa efektiboa, baina izaeragatik interes-tasen antzekoak diren komisioak eransten zaizkio, dagokionean. Interes-tasa aldakorreko finantza-tresnak, inflazioari indexatutako bonuak, interes-tasen mugimendua islatzeko kutxa-fluxuen aldizkako birzenbatespenak eta espero den inflazioa barne, interes-tasa efektiboa etorkizunera begira aldatzen dute.

Arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak eragiten dituztela erregistratzen ez diren finantza-tresnei dagokienez, erosteko edo jaulkitzeko zuzenean egotzi diren transakzio-kostuak gehituz edo kenduz doitzen da arrazoizko balioaren zenbatekoa. Arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-tresnei dagokienez, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak galdu-irabazien kontu bateratuan kontabilizatzen dira berehala.

Transakzio-kostuak honela definitzen dira: finantza-aktibo bat eskuratzeari edo erabiltzeari zuzenean egotz dakizkiokeen gastuak, edota Entitateak transakzioa burutu ez balu sortuko litzatekeen finantza-pasiboa jaulkitzeari edo onartzeari zuzenean egotz dakizkiokeenak.

Finantzaketa-izaera nabarmenik ez duten eragiketa komertzialengatik kobratu beharreko partidak eta hasieran transakzio-prezioan edo printzipalaren prezioan, hurrenez hurren, baloratu diren kreditu komertzialak eta epe laburreko zor-tresnak zenbateko horretan bertan baloratzen jarraituko dira, 13. ohar honen h) atalean deskribatzen den moduan estimatutako narriaduragatiko balio-doikuntza kenduta.

Taldeak barne-proiektu bat burutu zuen 2019an, kreditu-inbertsioko eragiketen transakzio-kostu zuzenak eta gehikuntzakoak identifikatzeko asmoz. Ondorioz, identifikatutako transakzio-kostu batzuk aktiboaren baliorik handienarekin kontabilizatzen dira hasiera batean, eta kontuan hartzen dira interes-tasa efektiboa zehazteko. Tasa hori txikitu egiten da finantza-aktiboetarako, eragiketaren iraunaldi osoan periodifikatuta (25.b.2 oharra).

Finantza-aktiboen liburuetako zenbatekoan gertatzen diren aldakuntzak, oro har, galdu-irabazien kontu bateratuan kontrapartida jasoz erregistratzen dira. Horretarako, bereizi egiten dira jatorria interesen sortzapenean eta antzeko kontzeptuetan dutenak eta beste arrazoi batzuk dituztenak. Lehenak «Interesen sarrerak» epigrafean jasotzen dira, eta bigarrenak galdu-irabazien kontu bateratuko «Negoziatzeko dauden finantza-aktibo eta -pasiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak», «Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboen irabazi edo (–) galera garbiak» edo «Arrazoizko balioan izendatu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten aktibo eta pasiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak» epigrafeetan, zenbateko garbian.

Halere, «Bestelako emaitza global metatu batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafeko tresnen liburuetako zenbatekoaren aldakuntzak ondare garbi bateratuko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafean jasotzen dira aldi baterako, baldin eta finantza-aktibo monetarioen kanbio-diferentzien ondoriozkoak ez badira. «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafeko zenbatekoek ondare garbi metatua osatzen dute, harik eta horien jatorri den aktiboari balantze bateratuan baja ematen zaion arte; une horretan, galdu-irabazien kontu bateratuaren kontra ezerezten dira, eta «Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuetan baja ematearen ondoriozko irabaziak edo galerak» epigrafean erregistratu (zor-tresnen kasuan) eta «Bestelako erreserbak» epigrafean (ondare-tresnen kasuan).

Estalitako eta kontabilitateko estaldurako partida gisa hartzen diren finantza-aktiboetan, irizpide hauek kontuan izanda erregistratzen dira balorazio-aldeak:

i) Arrazoizko balioaren estaldurak:

   a. Estalitako elementua arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituela baloratzen bada, estalitako partidaren estalduragatiko aldakuntza ekitaldiko emaitzan kontabilizatuko da.
   b. Ondare-tresna bat bada, estalduragatiko aldakuntzak bestelako emaitza global batean kontabilizatuko dira.

ii) Diru-fluxuen estaldura-eragiketetan eta atzerriko negozioetako inbertsio garbietan eraginkorra ez den zatiaren balorazio-aldeak galdu-irabazien kontu bateratuan sartzen dira zuzenean.

iii) Diru-fluxuen estalduretan, ondare garbi bateratuko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafean jasotzen dira, aldi baterako, estaldura-elementuen estalduran eraginkorra den zatiaren balorazio-aldeak.

iv) Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estalduretan, ondare garbi bateratuko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafean jasotzen dira, aldi baterako, estaldura-elementuen estalduran eraginkorra den zatiaren balorazio-aldeak.

Azken bi kasu horietan, balorazio-aldeak ez dira emaitza gisa jasotzen, harik eta estalitako elementuaren galerak edo irabaziak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen diren arte edo estalitako elementuaren muga-egunera arte.

Finantza-tresnen zorroen arteko birsailkapena

Taldeak finantza-aktiboak gestionatzeko negozio-eredua aldatzen duenean, eragindako finantza-aktibo guztiak atal hauen arabera birsailkatzen dira. Birsailkapenaren egunetik era prospektiboan burutzen da birsailkapena, baina ez da beharrezkoa aurretiaz kontabilizatutako irabaziak, galerak edo interesak berriro adieraztea. Oro har, oso gutxitan gertatzen da negozio-eredua aldatzea; supostu hauetan, hain zuzen:

i) Taldeak «kostu amortizatuan» zorrotik «arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak eragiten dituztela» zorrora birsailkatzen badu zor-tresnaren bat, birsailkatu den eguneko arrazoizko balioa estimatu beharko du. Aurretiko amortizazio-kostuaren eta arrazoizko balioaren artean aldea dagoelako galerarik edo irabazirik gertatzen bada, galdu-irabazien kontu bateratuan kontabilizatuko da.

ii) Taldeak «arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak eragiten dituztela» zorrotik «kostu amortizatuan» zorrora birsailkatzen badu zor-tresnaren bat, birsailkatu den egunean aktiboak duen arrazoizko balioa izango da bere liburuetako zenbateko gordin berria.

iii) Taldeak «kostu amortizatuan» zorrotik «arrazoizko balioan eta beste emaitza global batean aldaketak eragiten dituztela» zorrora birsailkatzen badu zor-tresnaren bat, birsailkatu den eguneko arrazoizko balioa estimatu beharko du Taldeak. Aurretiko amortizazio-kostuaren eta arrazoizko balioaren artean aldea dagoelako galerarik edo irabazirik gertatuz gero, bestelako emaitza global bateko epigrafean kontabilizatuko da. Birsailkapenaren ondorioz ez dira doitu behar izango interes-tasa efektiboa eta aurreikusten diren kreditu-galeren estimazioa.

iv) Zor-tresnaren bat «arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituztela» zorrotik «kostu amortizatuan» zorrora birsailkatzen bada, birsailkatu den eguneko arrazoizko balioaren arabera birsailkatuko da finantza-aktiboa. Ondare garbiko bestelako emaitza global metatu batean birsailkatu den eguneko galera edo irabazi metatua ezereztu egingo da. Horretarako, birsailkapenaren egunean aktiboak duen liburuetako zenbatekoa erabiliko da kontrapartida moduan. Hala, zor-tresna beti kostu amortizatuan baloratu balitz bezala baloratuko da, birsailkapenaren egunean. Birsailkapenaren ondorioz ez dira doitu behar izango interes-tasa efektiboa eta aurreikusten diren kreditu-galeren estimazioa.

v) Taldeak «arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak eragiten dituztela» zorrotik «arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituztela» zorrora birsailkatzen badu zor-tresnaren bat, finantza-aktiboa arrazoizko balioan baloratzen jarraituko da. Ez da aldatuko aurretiaz erregistratutako balio-aldaketak kontabilizatzeko modua.

vi) Taldeak «arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituztela» zorrotik «arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak eragiten dituztela» zorrora birsailkatzen badu zor-tresnaren bat, finantza-aktiboa arrazoizko balioan baloratzen jarraituko da. Aurretiaz ondare garbiko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafean jasotako galera edo irabazi metatua aldi horretako emaitzara intsuldatuko da, birsailkapenaren egunean.

vii) Mendeko erakunde batean, baterako negozio batean edo elkartu batean egindako inbertsioak halakotzat kalifikatzeari uzten dionean, mantendutako inbertsioa, dagokionean, birsailkatu den eguneko arrazoizko balioaren arabera neurtuko da, eta birsailkatu aurretik zeukan liburuetako zenbatekoaren eta arrazoizko balioaren artean aldea dagoelako sortzen den galera edo irabazia emaitzetan edo bestelako

emaitza global batean kontabilizatuko da, mantendutako inbertsioaren ondorengo balorazioaren arabera.

2024ko eta 2023ko ekitaldietan ez da finantza-tresnen zorroen arteko birsailkapenik egin. 2023ko ekitaldian, merkatuan dauden BETik altueneko inbertsio-aukerak —etorkizuneko galdu-irabazien kontuan jasangarritasun handiagoa ahalbidetuko dutenak— aprobetxatzeko helburuarekin, Entitateak finantza-aktiboak kostu amortizatuan / mugaegunera arte mantendutako inbertsioak saldu ditu, barne-politikan ezarrita dagoen gehieneko ehunekoaren barruan.

f) Finantza-pasiboak

Sailkapena

Finantza-pasiboak balantze bateratuan sailkatzeko, irizpide hauek erabiltzen dira:

i) Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak: epe laburrera berriro eskuratzeko jaulki diren finantza-aktiboak hartzen ditu barne. Elkarrekin kudeatzen diren eta epe laburrera irabaziak lortzeko eguneratu berri diren finantza-tresna identifikatuen zorroko zati bat dira, edo kontabilitateko estaldura-tresnatzat hartu ez diren tresna deribatuak, edo aldi baterako eskuratu edo mailegutan hartu diren finantza-aktiboen salmenta irmoak sortuak.

ii) Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan: Taldeak hasierako kontabilizazioan izendatutako finantza-pasiboak dira, edo horiek izendatzean informazio nabarmenagoa lortzen denean, arrazoi hauengatik:

- Galerak edo irabaziak irizpide desberdinekin kontabilizatzeagatik edo aktiboak edo pasiboak irizpide desberdinekin baloratzeagatik, kontabilizazioan edo balorazioan sortuko liratekeen inkoherentziak guztiz desagerrarazi edo nabarmen murrizteko.

- Finantza-pasiboen talde bat kudeatu eta errendimendua arrazoizko balioan oinarrituz ebaluatzeko, arriskua kudeatzeko edo inbertsioa dokumentatzeko estrategia erabiliz, eta talde horren informazioa Zuzendaritzako funtsezko langileei emateko, arrazoizko balioa oinarritzat harturik.

iii) Finantza-pasiboak kostu amortizatuan: balantze bateratuko gainerako ataletan sartu ezin direnak dira, finantza-erakundeen funts-bilketako ohiko jardueren ondoriozkoak, eta berdin dio nola gauzatzen diren eta zer muga-egun duten.

iv) Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea: Taldeak eskuratu edo jaulkitako finantza-deribatuak hartzen ditu barne, kontabilitate-estaldurakotzat hartzeko kalifikatzen direnak, alegia.

v) Interes-tasaren arriskua estalita duen zorro bateko estalitako elementuen arrazoizko balioko aldaketak: galdu-irabazien kontu bateratuan ordaindutako zenbatekoen kontrapartida bateratuari dagokio, baldin eta zenbatekook finantza-tresnen zorroen balorazioan badute jatorria eta zorro horiek interes-tasaren arriskutik eraginkortasunez babestuta badaude arrazoizko balioa estaltzeko deribatuen bidez.

vi) Ageriko kapital itzulgarria: Taldeak jaulkitako finantza-tresnen zenbatekoa hartzen du barne. Kapitalaren izaera juridikoa dute, baina ez dituzte betetzen ondare garbian sartzeko baldintzak. «Finantza-pasiboak kostu amortizatuan» zorrokoak moduan baloratzen dira, baldin eta Taldeak «Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan» zorroan sartu ez baditu, horretarako baldintzak bete eta gero.

Entitate Nagusiaren estatutuetan ezarri denez, bazkideen ekarpenak itzultzeko nahitaezkoa izango da Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektoreak aldeko erabakia hartzea eta itzulketa egin ondoren gutxieneko kapital soziala, baliabide propioak edo kaudimen-koefizientea behar adina estalita geratzea.

vii) Saltzeko daudenen artean sailkatu diren elementu-multzo besterengarrietako pasiboak: «Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» zorroan jatorria duten saldo hartzekodunei dagozkie.

Erregistroa eta balorazioa

Finantza-pasiboak kostu amortizatuan erregistratzen dira, hain zuzen ere, 13.e oharrean finantza-aktiboentzat zehaztu den eran. Dena den, badira salbuespenak:

i) «Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak» eta «Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan» epigrafeetako finantza-pasiboak arrazoizko balioan baloratzen dira, 13.e oharrean finantza-aktiboentzat zehaztu den eran. Arrazoizko balioa estaltzeko eragiketetan estalitako finantza-pasiboen kasuan, estaldura-eragiketa horietan estalita dagoen arriskuaren ondorioz arrazoizko balioan izaten dituzten aldaketak erregistratzen dira, finantza-pasibo horiei dagokien «Mikro-estaldurako eragiketak» atalean.

ii) Arrazoizko balioa behar bezalako objektibotasunez zehaztu ezin zaien ondare-tresnak azpian dituzten eta horiek entregatuz likidatzen diren finantza-deribatuak eskuratze-kostuan jasotzen dira.

Finantza-pasiboen liburuetako zenbatekoan gertatzen diren aldaketak, oro har, galdu-irabazien kontu bateratuan kontrapartida jasoz erregistratzen dira. Horretarako, bereizi egiten dira jatorria interesen sortzapenean eta antzeko kontzeptuetan dutenak eta beste arrazoi batzuk dituztenak. Lehenak «Interesen gastuak» epigrafean jasotzen dira eta bigarrenak galdu-irabazien kontu bateratuko «Negoziatzeko dauden finantza-aktiboen eta -pasiboengatiko irabazi edo (–) galera garbiak» edo «Arrazoizko balioan izendatu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten aktibo eta pasiboengatiko irabazi edo (–) galera garbiak» epigrafeetan, zenbateko garbian.

Estalitako kontu-sail eta kontabilitateko estaldurako kontu-sail gisa hartzen diren finantza-pasiboetan, 13.e oharrean finantza-aktiboetarako adierazitako irizpideak kontuan hartuta erregistratzen dira balorazio-aldeak.

g) Finantza-tresnak transferitzea eta balantze bateratutik baja ematea

Finantza-tresnen transferentziak kontabilizatzeko, transferitutako finantza-tresnei lotutako arriskuak eta irabaziak intsuldatzeko modua hartzen da aintzat, irizpide hauek kontuan izanda:

i) Arriskuen eta mozkinen funtsezko intsuldaketa egiten bazaie hirugarrenei, transferitutako finantza-tresnari baja ematen zaio balantze bateratuan, eta, aldi berean, transferentziaren ondorioz atxikitako edo sortutako edozein eskubide edo obligazio kontabilizatzen da. Eragiketa-mota horietan sartzen dira: baldintza gabeko salmentak; berrerosteko egunean arrazoizko balioan berrerosteko ituna duten salmentak; finantza-aktiboen salmentak, dirua alde batera utzita erosteko aukera eskuratua edo saltzeko aukera emana dutenak; aktiboen titulazioak, lagatzaileak ez duenean mendeko finantzaketarik atxikitzen eta titular berriei ez dienean kreditu-hobekuntzarik eskaintzen, eta abar.

ii) Transferitutako finantza-tresnari dagozkion arriskuen eta mozkinen funtsezko atxikipena egiten bada, transferitutako finantza-tresnari ez zaio baja ematen balantze bateratuan, eta transferentziaren aurretik erabiltzen ziren irizpide berberekin baloratzen jarraitzen da. Eragiketa-mota horietan sartzen dira: salneurri finkoarekin edo salmenta-prezioari interes bat erantsita berrerosteko ituna duten finantza-aktiboen salmentak; baloreak mailegatzeko kontratuak, mailegu-hartzaileak horiek edo antzeko aktiboak itzultzeko betebeharra duenean, eta abar. Halarik ere, finantza-pasiboa kontabilitatean kontabilizatzeko, jasotako kontraprestazioaren kopurua —kostu amortizatuan baloratzen da gero—, transferitu den baina baja eman ez zaion finantza-aktiboaren sarrerak eta finantza-pasibo berriaren gastuak hartzen dira kontuan.

iii) Transferitutako finantza-tresnari dagozkion arriskuak eta mozkinak ez badira transferitzen eta ez bazaie funtsezko atxikipena egiten, hainbat aukera daude; eragiketa-mota horietan sartzen dira: eskuratutako erosketa-aukera edo jaulkitako salmenta-aukera duten eta sakonean diruaren barruan nahiz kanpoan ez dauden finantza-aktiboen salmentak, titulizazioak (lagatzaileak mendeko finantzaketa hartzen duenean) eta transferitutako aktiboaren zati baten gaineko kreditu-hobekuntzak. Hauek dira aukerak:

- Taldeak ez badio transferitutako finantza-tresnaren kontrolari eusten, baja ematen zaio balantzean eta transferentziaren ondorioz atxikitako edo sortutako edozein eskubide edo obligazio kontabilizatzen da.

- Taldeak eutsi egiten badio transferitutako finantza-tresnaren kontrolari, balantzean kontabilizatzen jarraitzen du, balio-aldaketen eraginpean jartzeari dagokion zenbatekoan, eta jasotako kontraprestazioaren pareko kopuruko finantza-pasiboa kontabilizatzen da. Pasibo hori kostu amortizatuan baloratuko da gerora, salbu eta «Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan» atalean sailkatzeko baldintzak betetzen baditu. Gaur egun bete beharrekoa ez denez, finantza-pasibo horren zenbatekoa kalkulatzeko kendu egingo zaio bere jabetzako finantza-tresnen (hala nola titulizazio-bonuen eta maileguen) zenbatekoa, baldin eta finantza-aktiboak transferitu zaizkion entitatearentzat finantzaketa-iturri badira eta transferitutako aktiboak finantzatzen badituzte, bereziki, tresna horiek. Transferitutako aktiboaren eta lotutako pasiboaren zenbateko garbia hauxe izango da: atxikitako eskubide eta obligazioen kostu amortizatua, baldin eta transferitutako aktiboa kostu amortizatuan neurtzen bada, edota atxikitako eskubide eta obligazioen arrazoizko balioa, baldin eta transferitutako aktiboa arrazoizko balioan neurtzen bada.

Beraz, finantza-aktiboei bi kasutan bakarrik emango zaie baja balantze bateratutik: sortutako diru-fluxuak agortzen direnean edo berezkoak dituzten arrisku eta irabazi gehienak hirugarrenen esku uzten direnean. Halaber, finantza-pasiboei balantzetik baja emateko, sortzen dituzten obligazioak agortuta egon behar dira, edo, bestela, berriro kitatu edo birkokatzeko helburuarekin eskuratu behar dira.

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, Taldeak ez du 2004ko urtarrilaren 1aren aurretik aplikatzen zen araudiaren ondorioz balantzetik baja emandako finantza-aktiborik edo -pasiborik (25. eta 35. oharrak).

h) Finantza-aktiboen eta bestelako kreditu-esposizioen balioa narriatzea

Taldeak balio-narriaduraren inguruko eskakizunak aplikatzen dizkie bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten eta kostu amortizatuan eta arrazoizko balioan baloratzen diren zor-tresnei, bai eta kreditu-arriskua dakarten beste esposizio batzuei ere, hala nola emandako maileguen konpromisoei, emandako finantza-bermeei eta emandako beste konpromiso batzuei.

FINA 9ak balio-narriaduraren inguruan zehazten dituen eskakizunen helburua hauxe da: taldean edo banaka ebaluatutako eragiketetan espero diren kreditu-galerak kontabilizatzea, eskura dagoen arrazoizko eta zentzuzko informazio guztia, baita aurrera begirakoa ere, kontuan hartuta.

Epealdiko zor-tresnen narriaduragatiko galerak gastu moduan kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontu bateratuko «Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eta aldaketen ondorioz galerak edo irabaziak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea» epigrafean. Aktiboaren liburuetako zenbatekoa txikitzen duen hornidurak zuzentzeko kontu batean kontabilizatzen dira zor-tresnen narriaduragatiko galerak.

Zor-tresnak ez diren eta kreditu-arriskua dakarten esposizioetako narriaduragatiko galeren estaldurak horniduratzat erregistratzen dira balantzeko pasiboko «Hornidurak – Emandako konpromiso eta bermeak» epigrafean. Estaldura horien hornidurak eta itzulerak galdu-irabazien kontu bateratuko «Hornidurak edo (–) horniduren itzulerak» epigrafearen kargura erregistratzen dira.

Ondoren, narriadura-irizpideak laburtuko ditugu, tresna-motaren eta zorroaren arabera sailkatuta:

Kostu amortizatuan baloratutako zor-tresnak eta balantzetik kanpoko esposizioak

Narriaduragatiko galerak zehazteko asmoarekin, Taldeak zordunen banan-banako jarraipena egiten du, zordun garrantzitsuak izan daitezkeenen kasuan behintzat. Era berean, finantza-aktiboko taldeen jarraipen kolektiboa ere egiten du, zordunek zorrak ordaintzeko duten gaitasunari buruz aipatu dugun kreditu-arriskuaren antzeko ezaugarriak dituztenean. Arrisku-ezaugarri antzekoak dituzten aktiboen talde batean ere sartu ezin den tresna bere aldetik aztertuko da, narriatuta dagoen ikusteko eta narriaduragatiko galera baloratzeko.

Kreditu-arriskuen ondorioz izan ditzakeen galerak estimatzeko politikak, metodoak eta prozedurak ditu Taldeak, bai kontrako alderdiari egotz dakiokeen kaudimengabeziaren kasuetarako, bai herrialde-arriskuaren kasuetarako. Zor-tresnetako eragiketak eta balantzetik kanpoko esposizioak onartu, aldatu, ebaluatu, jarraitu eta kontrolatzen direnean ezartzen dira politika, metodo eta prozedura horiek, bai eta beraien narriadura posiblea identifikatzen denean eta, dagokionean, aurreikusitako galerak estaltzeko zenbatekoak kalkulatzen direnean ere.

Kaudimengabeziagatiko kreditu-arriskuaren araberako kontabilitate-sailkapena

Taldeak zenbait irizpide ezarri ditu, ahuleziak eta narriadura-ebidentzia objektiboak dituzten kreditu-hartzaileak identifikatu eta kreditu-arriskuaren arabera sailkatzeko.

Hurrengo ataletan, Taldeak erabiltzen dituen sailkapen-printzipioen eta -metodologiaren berri emango dugu.

1) Sailkapen-kategorien definizioa:

Negoziatzeko dauden finantza-aktiboen zorroan sartu ez diren zor-tresnak, balantzetik kanpoko esposizioak bezalaxe, kaudimengabeziagatiko kreditu-arriskuaren arabera sailkatzen dira, honela:

i) Arrisku normala:

a. Gainerako kategorietan sailkatzeko baldintzak betetzen ez dituzten eragiketa guztiak sartzen dira bertan (Stage 1).

b. Zaintza bereziko arrisku normala. Kategoria honetan sartzen dira zalantzazko arriskutzat edo kobraezintzat sailkatzeko irizpideak betetzen ez dituzten eta hasierako kontabilizaziotik kreditu-arriskuan gehikuntza nabarmenak (Stage 2) edo indarreko araudiak eta Taldearen kreditu-arriskua kudeatzeko barruko politikek adierazten dituzten beste irizpide kualitatibo batzuk dituzten eragiketak, besteak beste, 30 eta 90 egun bitarteko ez-ordaintzeak.

Taldeak ratio- eta adierazle-sistema bat du, pertsona juridikoekiko arriskuetan kreditu-arriskuak nabarmen handitzen diren ebaluatzeko. Bezeroaren ondare-egoerak, kutxa sortzeko gaitasunak eta kutxa sortzeko gaitasunaren eta banku-zorraren arteko erlazioak eragindako eragiketak antzematean eta horien jarraipenean oinarritzen da sistema hori. Entitateak zehaztutako adierazleetan atalase jakin batzuk gainditzen badira, kreditu-arriskua nabarmen handituko da.

ii) Zalantzazko arriskua (Stage 3)

a. Titularraren berankortasunagatiko zalantzazko arriskua. Kategoria horretan sartzen da zor-tresnen zenbatekoa, titularra eta bermea edozein direlarik ere, baldin eta 90 egunetik gorako antzinatasuneko zenbatekoren bat (printzipala, interesak edo kontratuz hitzartutako gastuak) mugaeguneratuta badute, salbu eta kobraezintzat sailkatzea badagokie. Emandako bermeak ere kategoria horretan sartuko dira, abalduna berandutzean erori bada abalatutako eragiketan.

Titular baten eragiketa guztiak kategoria horretan sartuko dira, muga-egunetik zenbatuta 90 egunetik gorako antzinatasuna duten eragiketak kobratzeko dagoen zenbatekoaren % 20 baino handiagoak direnean. Ehuneko hori zehazteko, zenbakitzailean jarriko da berankortasunagatik zalantzazkoak diren eta mugaeguneratutako zenbatekoak dituzten eragiketen liburuetako zenbateko gordina eta izendatzailean titularrari emandako zor-tresna guztien liburuetako zenbateko gordina. Horrela kalkulatutako ehunekoa % 20tik gorakoa bada, berankortasunagatiko zalantzazkoetara eramango dira titular horren zor-tresnak nahiz kreditu-arriskua dakarten balantzetik kanpoko esposizioak.

b. Titularraren berankortasuna ez beste arrazoiren batengatiko zalantzazko arriskua. Mugaeguneratuta nahiz mugaeguneratu gabe dauden zor-tresnak hartzen ditu barne, baldin eta, nahiz eta titularraren berankortasuna dela eta kobraezinen edo zalantzazkoen kategorietan sailkatzeko baldintza nahikorik ez egon, arrazoizko zalantzarik badago kontratuz hitzartutako terminoetan osorik (printzipala eta interesak) itzultzeko. Ildo beretik, hor sartzen dira balantzetik kanpoko esposizioak ere, baldin eta, nahiz eta titularraren berankortasuna dela eta zalantzazkoen artean sailkatuta ez egon, Taldeak ordainduko dituela probablea bada eta berreskuratzeko zalantzak badaude.

   Kategoria honetan sartuko dira, besteak beste, euren kaudimena narriatzea eragingo duten egoeran dauden titularren eragiketak. Entitateak ratio- eta adierazle-sistema bat du, pertsona juridikoekiko arriskuetan kreditu-arriskuak nabarmen handitzen diren identifikatzeko. Bezeroaren ondare-egoerak eta kutxa sortzeko gaitasunak eragindako eragiketak antzematean eta horien jarraipenean oinarritzen da sistema hori. Entitateak zehaztutako adierazleetan atalase jakin batzuk gainditzen badira, kaudimena narriatu egingo da eta, ondorioz, zalantzazko arrisku moduan sailkatuko da.

iii) Arrisku hutsegina. Kategoria horretan sartuko dira, mugaeguneratuta egon ala ez, banaka egindako azterketaren arabera berreskuratu ezinezkotzat jotzen diren zor-tresnak, eragiketaren edo titularraren kaudimenean ageriko narriadura berreskuraezina gertatu delako. Kategoria horretan sailkatuz gero, eragiketaren liburuetako zenbateko gordina oso-osorik saneatu beharko da eta aktibotik baja eman beharko zaio erabat.

2) Eragiketak sailkatzeko irizpideak:

Taldeak orotariko irizpideak erabiltzen ditu kreditu-hartzaileak nahiz eragiketak kategoria batean edo bestean sailkatzeko, kreditu-arriskuaren arabera. Horien artean daude hauek:

- irizpide automatikoak
- birfinantzamenduetarako berariazko irizpideak
- parametro jakin batzuen jarraipen-ereduetan oinarritutako irizpideak

Faktore automatikoak eta birfinantzamenduetarako berariazko sailkapen-irizpideak zorro osoaren gainean ezartzen diren sailkapen- eta saneamendu-prozesuak dira. Era berean, eragiketen ahuleziak eta narriadurak ahalik eta lasterren antzemateko asmoz, Taldeak zehaztuta duen jarraipen-ereduak tratamendu zehatz bat esleitzen dio eragiketa bakoitzari, ez ordaintzeko arrisku-mailen arabera.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Kreditu-hartzaile garrantzitsuen kasuan, ez-ordaintze posibleak iragartzeko eredu bat erabiltzen da. Aldagai- eta alerta-sistema baten bidez, bezeroen etorkizuneko ez-ordaintzeak antzematea, larritasuna neurtu eta kuantifikatzea eta ez ordaintzeko arrisku-aukerak mailakatzea du helburu. Arrisku-analista adituen talde batek aztertzen ditu alerta aktiboak dituzten kreditu-hartzaileak, ahuleziarik edo narriadura-ebidentzia objektiborik dagoen erabakitzeko eta, narriadura-ebidentziarik badago, galera eragin duen gertakariak finantza-aktiboaren edo taldearen etorkizuneko diru-fluxu estimatuen gainean inpakturik ba ote duen erabakitzeko.

Zalantzazko arrisku gisa sailkatzeko beste arrazoirik ez badago, berankortasun-arrazoien ondorioz zalantzazkoen kategorian sailkatutako eragiketak arrisku normalekoen multzoan sailkatu ahal izango dira berriro ere, baldin eta, mugaeguneratutako zenbatekoen zati bat kobratu ondoren, zalantzazko arrisku gisa sailkatzeko arrazoiak desagertzen badira eta eragiketa arrisku normalekoen multzoan sailkatzeko egunean titularrak ez badu 90 egun baino gehiagoko antzinatasuna duen beste eragiketarik. Berankortasuna ez den beste arrazoi batzuengatiko zalantzazkoei dagokienez, berriro ere arrisku normalekoen multzoan sailkatu ahal izango dira, baldin eta kontratuan hitzartutako baldintzetan erabat ordainduko duelako arrazoizko zalantzak desagertzen badira eta arrisku normalekoen multzoan sailkatzeko egunean titularrak ez badu 90 egun baino gehiagoko antzinatasuna duen beste eragiketarik.

Kreditu-narriadurarekin erosi edo sortutako eragiketak

Horrelako aktiboak erosi edo sortzean espero den kreditu-galera ez da sartuko estalduran, ez eta hasierako aitorpeneko liburuetako zenbateko gordinean ere. Eragiketa bat kreditu-narriadurarekin erosi edo sortzen denean, estaldura honako hau izango da: hasierako kontabilizazioaren ondoren eragiketen bizitzan zehar espero diren kreditu-galeren aldaketen zenbateko metatua. Aktibo horien interesen sarrerak, berriz, honela kalkulatuko dira: finantza-aktiboaren kostu amortizatuari interes-tasa efektiboa aplikatuta, interes-tasa hori kreditu-kalitatearen arabera doitu ondoren.

Birfinantzamendu- eta berregituratze-eragiketak

Taldeak kreditu-arriskuen kudeaketaren alorrean erabiltzen dituen politiken eta prozeduren bidez, bermatuta dago kreditu-hartzaileei jarraipen zehatza egitea; gainera, beraien kaudimenean narriadura-zantzuak egonez gero, zuzkidurak egiteko beharra azaleratzen dute. Horregatik, berregituratze- eta birfinantzamendu-eragiketetan kreditu-hartzailearen egoerak hala eskatzen badu, behar diren kaudimengabezia-zuzkidurak egiten ditu Taldeak. Hauek dira berregituratze- eta birfinantzamendu-eragiketak:

- Birfinantzamendu-eragiketak. Eragiketa horiek ematen edo erabiltzen dira, titularra eta bermeak edozein izanik ere, titularrak (edo titularrek) gaur egun ditu(zt)en edo etorkizunean aurreikusten zaizki(o/e)n zailtasun finantzarioekin lotutako arrazoi ekonomiko edo legezkoengatik, Entitateak berak nahiz taldeko beste erakunde batzuek titularrari (edo titularrei) nahiz talde ekonomikoko beste enpresa bati edo hainbati emandako eragiketa bat edo batzuk itzultzeko, edota eragiketa horien ordaintzeko betebeharra (osoa edo zati bat) egunean jartzeko, itzulitako edo birfinantzatutako eragiketen titularrei zorra (printzipala eta interesak) ordaintzen laguntzeko, egungo egoeran ezin du(t)enean ordainketa hitzartutako garaiz eta forman ordaindu, edo etorkizunean ezingo du(t)ela aurreikusten denean.

- Berregituratutako eragiketak. Eragiketa horietan, titularrak (edo titularrek) gaur egun ditu(zt)en edo etorkizunean aurreikusten zaizkio(e)n zailtasun finantzarioei lotutako arrazoi ekonomiko edo legezkoengatik, baldintza finantzarioak aldatu egiten dira zorra (printzipala eta interesak) ordaintzen laguntzeko, hain zuzen ere egungo egoeran ezin du(t)elako hitzartutako denboran eta moduan ordaindu, edo etorkizunean ezingo du(t)ela aurreikusten denean, nahiz eta aldaketa hori kontratuan aurreikusita egon. Nolanahi ere, berregituratutako eragiketatzat jotzen dira kita egiten zaien edo zorra murrizteko aktiboak jasotzen dituzten eragiketak, edota baldintzak aldatzen zaizkienak, muga-eguna luzatzeko, amortizazio-taula aldatzeko (epe laburrean kuoten zenbatekoa edo maiztasuna gutxitzeko) edo printzipalaren, interesen edo bien gabealdia ezarri edo luzatzeko; salbu eta frogatzen bada baldintzak aldatzeko arrazoia ez dela titularren finantza-arazoa eta aldaketa egiten den egunean merkatuan antzeko arrisku-profila duten erabiltzaileei ezarritako baldintza berberak ezartzen badira.

Eragiketa bat arrisku-kategoria jakin batean sailkatuta badago, birfinantzamendu-eragiketak ez du eragingo haren arrisku-maila hobetzea. Birfinantzatutako eragiketetan, hasierako sailkapena beraien ezaugarrien arabera zehazten da; batik bat, kreditu-hartzaileak finantza-arazoak izatea eta zenbait klausula (adibidez gabealdi luzeak) indarrean egotea hartzen dira aintzat.

Eragiketaren hasierako kalifikazioaren ondoren, arrisku txikiagoko beste kategoria bateko kalifikazioa justifikatuta egongo da agerikoa denean eragiketa berreskuratzeko aurreikuspenak hobetu egin direla, dela kreditu-hartzaileak denboraldi luzean etengabe bete dituelako ordaintzeko betebeharrak, dela hasierako zorra ehuneko handi nabarmen batean berrordaindu delako.

Birfinantzatutako edo berregituratutako eragiketa bat zalantzazkoen artean sailkatzearen data geroagokoa bada birfinantzatzeko edo berregituratzeko eragiketaren data baino, eragiketa zalantzazko arrisku gisa sailkatzen den egunetik urtebete igaro beharko da, eragiketa zalantzazko arriskuaren kategoriatik kanpo birsailkatu ahal izateko.

<u>Estaldurak estimatzeko irizpideak</u>

Kreditu-arriskuagatiko galeren estaldurak kalkulatzeko, aurrerago zehaztu ditugun irizpideak erabiltzen ditu Taldeak.

Arrisku hautemangarririk gabetzat sailkatutako eragiketei (funtsean banku zentralekin, administrazio eta enpresa publikoekin eta finantza-erakundeekin egindakoei eta Europar Batasunekoak edo arriskurik gabekotzat jotako beste herrialde batzuetakoak direnei) % 0ko estaldura-ehunekoa ezartzen zaie, baldin eta zalantzazko eragiketatzat sailkatuta ez badaude, kasu horretan banaka estimatzen baitzaie narriadura.

1) Estalduren banakako zenbatespenak

Hauek dira banakako zenbatespena egiten zaien estaldurak:

i) Banaka nabarmenak diren kreditu-hartzaileen zalantzazko eta zaintza bereziko eragiketen estaldurak. Taldeak 3 milioi euroko atalasea ezarri du arriskuarekiko guztizko esposizioan, kreditu-hartzaileak nabarmentzat hartzeko.

ii) Arrisku-talde homogeneo batekoak ez diren zalantzazko eragiketen estaldurak.

iii) Berankortasunaren ondorioz edo bestelako arrazoiren bategatik zalantzazkotzat sailkatutako eta arrisku hautemangarririk gabetzat identifikatutako eragiketen estaldurak.

Estaldura horien zenbatespena egiteko, analistek bezeroaren eta eragiketaren azterketa indibidualizatuaren arabera esleitzen dute hornidura-maila, honako hauetan oinarrituta:

i) Kutxa-fluxuen sorrera: zordunek beren negozioaren bidez etorkizunean kutxa-fluxuak sortzeko gaitasuna dutenean, eta, aukera dutenean beren jardueraren eta egitura ekonomiko-finantzarioaren bidez zorraren zati bat edo osotasuna ordaintzeko.

ii) Bermeen berreskurapena: zordunek beren negozioarekin kutxa-fluxuak sortzeko gaitasunik ez dutenean, bermeak exekutatzen dira zorra berreskuratzeko.

Era berean, hauek izango dira banakako zenbatespenerako aintzat hartu beharreko gutxieneko estaldurak: aztertuko diren arriskuen kasuan (kontabilitate-sailkapenaren arabera), zenbatespen kolektiborako irizpideak erabiliz aplikagarriak direnak, eta, sustatzaileen sektoreko eragiketen kasuan, 2012ko otsailaren 3ko 2/2012 Errege Lege Dekretuan zehaztutako irizpideen arabera aplikatzekoak direnak.

2) Estalduren zenbatespen kolektiboak

Hauek dira zenbatespen kolektiboa egiten zaien estaldurak:

i) Arrisku normalekoen multzoan sailkatutako esposizioak (zaintza berezikoen multzoan sailkatutakoak ere barne hartuta); ez dira sartzen Taldearen politikei jarraikiz banakako zenbatespena egingo zaien zaintza bereziko arrisku normalekoen multzoan sailkatutako esposizioak.

Nabarmen izatera heltzen ez diren eta, gainera, zalantzakotzat jo ez diren kreditu-hartzaileentzat parametro jakin batzuk finkatu ditu Taldeak. Horiek gainditzen badituzte, zaintza bereziko arrisku normalekotzat sailkatuko dira berehala. Oro har, ez-ordaintzeak 30 egun baino handiagoak eta 90 egun baino txikiagoak izango dira, eta mugaeguneratutako zenbatekoak 300 eurotik gorakoak.

ii) Zalantzazkotzat sailkatu diren eta estalduren banakako zenbatespenaren bidez ebaluatzen ez diren esposizioak.

Narriadura estimatzeko prozesuan, kreditu-esposizio guztiak hartzen dira aintzat, bai zor-tresnak eta bai balantzetik kanpoko esposizioak. Horrela, bada, indarreko FINA arauetan ezarritako parametroak eta metodologia (aurreikusitako galerarena) eta indarreko gainerako tokiko araudia erabili du Taldeak, eta, Espainiako banku-sektoreko erakundeen batez besteko portaerari buruzko datu eta eredu estatistikoak, FINA arauen esparruarekin erabat bateragarria den erakusten dutenak, oinarritzat harturik, Taldeak bezeroekin dituen balantzeko eta balantzetik kanpoko esposizioen narriaduraren sailkapena eta kalkulua zehazteko erabiltzen dira. Metodologiak, besteak beste, kontzeptu hauek hartzen ditu aintzat: eragiketari dagokion kreditu-arriskuaren segmentua, jasotako berme erreal eta pertsonal eraginkorrak, zordunaren egoera ekonomiko-finantzarioa eta, dagokionean, mugaeguneratutako zenbatekoen antzinatasuna.

Bestalde, egungo egoera geopolitikoa dela eta, egoera ekonomiko-finantzarioaren narriadurak bere finantza-aktiboei aurreikusten zaizkien galeretan izango duen eragina aztertu du Taldeak. Ebaluazio horren ondorioz, 2024ko eta 2023ko ekitaldietan indartu egin ditu normalen eta zaintza bereziko normalen artean sailkatutako zenbait esposizioren narriaduragatiko balio-zuzenketak. Zehazki, batez ere multzo hauei eragiten dieten balio-zuzenketak egin dira:

i) Zaintza bereziko arrisku normalekoen artean sailkatutako zenbait esposizio.
ii) Arrisku normalekotzat jotako esposizioak, kalteberatzat jotako jarduera ekonomikoko sektore batzuei dagozkienak.
iii) Arrisku-egoerak bultzatuta 15.c oharrean deskribatutako laguntza-neurriei atxikitako kreditu-hartzaileei onartutako zenbait eragiketa.
iv) 575/2013 EB Erregelamenduaren 178. artikuluaren eta Espainiako Bankuaren 3/2019 Zirkularraren arabera arrisku normalekoen baina ordaindu gabekoen artean sailkatutako esposizioak.
v) 2020ko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia 2022ko maiatzaren 31ra arte kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zuena, indarrean jarri ondoren zalantzazkoen artean sailkatu diren esposizioak.

Balio-zuzenketa horiek galdu-irabazien kontuan erregistratu dira, «Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eta aldaketen ondorioz galerak edo (–) irabaziak eragiten dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea» (60. oharra).

Kreditu-arriskuagatiko galeren estalduren estimazioetan, higiezin-bermeetatik berreskuratu beharreko zenbatekoa berme horien erreferentzia-balioa doitzearen emaitza izango da; hau da, honako hauek behar bezala jasotzeko doikuntzak eginda: estimazioaren ziurgabetasuna, bermeak exekutatu eta saldu arte izan litzakeen balio-galerak, exekuzio-kostuak, mantentze-kostuak eta salmenta-kostuak.

Berme erreal eraginkorretatik berreskuratu beharreko zenbatekoa zehazteko, Taldeak estimatutako deskontuak aplikatzen ditu horien erreferentziako balioaren gainean. Horretarako, Espainiako banku-sektoreari buruz duen esperientzia eta informazioa hartzen ditu oinarri, FINA arauek eta indarreko gainerako arauek eskatzen duten metodologiari jarraikiz.

<u>Herrialde-arriskuagatiko kreditu-arriskuaren araberako sailkapena eta estaldura</u>

Herrialde-arriskutzat hartzen da herrialde jakin batean bizi diren titularrekin egindako eragiketek ohiko merkataritza-arriskuaz bestelako arrazoiengatik izan lezaketen arriskua (arrisku subiranoa, transferentzia-arriskua edo nazioarteko finantza-jarduerak eragindako arriskua). Hirugarrenekin egiten dituen eragiketak taldeka banatzen ditu Taldeak, herrialdeetako hainbat elementu aintzat hartuta: bilakaera ekonomikoa, egoera politikoa, arau- eta erakunde-esparrua, ordainketak egiteko gaitasuna eta esperientzia. Hala, herrialde bakoitzari kaudimengabeziagatiko zuzkidurarako ehuneko jakin bat ezartzen dio, indarreko araudian finkatutakoarekin bat.

Herrialde-arriskuagatiko zalantzazko aktibotzat jotzen dira aldi luzez beren zorrari aurre egiteko zailtasunak dituzten herrialdeetan bizi diren azken obligaziodunekin egindako eragiketak, berreskuratzeko aukera zalantzazkoa denean. Ildo beretik, herrialdeari egotz dakizkiokeen gorabeheren ondorioz berreskuratzeko aukera urruna duten balantzetik kanpoko esposizioek ere kategoria bera izango dute.

2024ko eta 2023ko ekitaldien itxieran, Taldeak ez du inolako zuzkidura adierazgarririk kontzeptu horren pean.

Bermeak

Eraginkortzat jotzen dira Taldeak kreditu-arriskua arintzeko baliagarria dela frogatzeko balio duten berme errealak eta berme pertsonalak. Bermeen eraginkortasunaren analisiak kontuan hartzen ditu, besteak beste, bermeak gauzatzeko behar den denbora eta Taldeak horiek gauzatzeko duen gaitasuna, bai eta halakoak gauzatzeko duen esperientzia ere.

Ez dira inola ere berme eraginkortzat hartuko beren eraginkortasuna, funtsean, zordunaren kreditu-kalitatearen mende edo, dagokionean, zordunak parte hartzen duen talde ekonomikoaren mende dutenak.

Baldintza horiek betez gero, berme-mota hauek jo daitezke eraginkortzat:

i) Lehen kargako ondasun higiezinen hipoteka moduan eratutako higiezin-bermeak:

   a. Bukatutako eraikinak eta eraikinetako elementuak:
      - etxebizitzak
      - bulego eta lokal komertzialak, eta balio anitzeko pabiloiak
      - gainerako eraikinak, hala nola balio anitzekoak ez diren pabiloiak eta hotelak
   b. Hiri-lurzorua eta urbanizagarri antolatua.
   c. Gainerako ondasun higiezinak.

ii) Finantza-tresnen gaineko pignorazio-bermeak:

   - diru-gordailuak
   - kaudimen handiko jaulkitzaileen ondare-tresnak edo zorra adierazten duten baloreak

iii) Beste berme erreal batzuk:

   - bermean jasotako ondasun higigarriak
   - ondasun higiezinen gaineko bigarren eta hurrengo hipotekak

iv) Abal-emaile berrien bezeroarekiko erantzukizun zuzen eta mankomunatua dakarten berme pertsonalak, betiere pertsona edo entitate horien kaudimena nahikoa frogatuta badago, hitzartutako baldintzetan eragiketa osorik itzuliko dutela bermatzeko.

Espainian kokatutako aktiboetarako, indarreko araudiarekin bat datozen irizpideak erabiltzen ditu Taldeak, berme errealak baloratzeko. Zehazki, balorazioen hornitzaileak hautatu eta kontratatzeko Taldeak erabiltzen dituen irizpideen xedea da horien independentzia eta balorazioen kalitatea bermatzea. Guztiak ere Espainiako Bankuaren Tasazio Sozietateen Erregistro Berezian erregistratutako tasazio-sozietate eta -agentziak dira, eta balorazioak egiteko irizpideak ECO/805/2003 Aginduan, ondasun higiezinak eta eskubide jakin batzuk finantza-xede jakin batzuetarako baloratzeko arauen gainekoan, daude ezarrita.

Kreditu-eragiketen higiezin-bermeak eta ondasun higiezinak eurak eragiketa egiten denean tasatzen dira (azken horiek, erosketa, esleipen edo ordainean emate bidez), eta aktiboaren balioa nabarmen erortzen denean. Era berean, zenbait eguneratze-irizpide erabiltzen dira; horien artean nabarmentzen da urtean behin zalantzazko arriskuak eta esleitutakoak eguneratzea.

Arrazoizko balioan baloratutako zor-tresnak

«Bestelako emaitza global metatu batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafean sartutako zorra adierazten duten baloreen narriaduragatiko galerak honela kalkulatzen dira: eskuratze-kostuaren —printzipalaren edozein amortizazio kendu ostean— eta bere arrazoizko balioaren arteko alde positiboa ken galdu-irabazien kontu bateratuan aurrez kontabilizatutako narriaduragatiko edozein galera.

Ebidentzia objektiboak ditugunean arrazoizko balioa narriaduragatik txikitu dela, zuzenean ondare garbi bateratuko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafean kontabilizatutako ezkutuko minusbalioak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira berehala. Aurrerago narriaduraren ondoriozko galera batzuk edo guztiak berreskuratzen badira, kopuru hori berreskurapen-epeko galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen da.

«Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafean sailkatutako zorra adierazten duten baloreen kasuan, Entitate Nagusiaren ustez narriadura gertatzen da, baldin eta printzipalean edota kupoian 90 egunetik gorako ez-ordaintzea gertatu bada.

«Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» epigrafean sailkatuta dauden zor-tresnetan, aurrez ondare garbi bateratuan erregistratutako galerak egindakotzat jotzeko, galdu-irabazien kontu bateratuan kontabilizatzen dira, sailkapena egiten den egunean.

Ondare-tresnak

Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioen kasuan, narriaduragatiko galerak zenbatesteko, zenbateko berreskuragarria eta liburuetako zenbatekoa alderatzen ditu Taldeak. Narriaduragatiko galera horiek, gertatzen diren epealdiko galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira, eta ondorengo berreskurapenak, horiek gertatzen diren epeko galdu-irabazien kontu bateratuan.

Taldeak zantzu hauek hartzen ditu aintzat, besteak beste, narriadura-ebidentziarik dagoen zehazteko:

- Zailtasun finantzario nabarmenak.
- Zailtasun finantzarioen ondorioz kasuan kasuko tresnarentzat merkatu aktibo bat desagertzea.
- Emaitzetan aldaketa nabarmenak izatea, aurrekontuetan, negozio-planetan edo helburuetan jasotako datuekin alderatuta.
- Jaulkitzailearen ondare garbiko tresnen edo beraren produktu nahiz produktu posibleen merkatuan aldaketa nabarmenak izatea.
- Ekonomia globalean edo jaulkitzaileak jarduten duen inguruneko ekonomian aldaketa nabarmenak gertatzea.
- Jaulkitzaileak jarduten duen ingurune teknologiko edo legezkoan aldaketa nabarmenak gertatzea.

«Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak» epigrafean sartutako mendeko eta elkartutako entitateetako partaidetzen narriaduragatiko balio-zuzenketen zenbatekoa estimatzeko, haien zenbateko berreskuragarria eta kontabilitate-balioa alderatzen dira. Kontabilitate-balioa, berriz, bi zenbateko hauen artean handiena izango da: arrazoizko balioa ken salmenta-kostua eta erabilera-balioa.

Finantza-aktibo eta -pasiboen sarrerak eta gastuak

«Finantza-tresnen sarrerak eta gastuak kostu amortizatuan» zorroa kontabilizatzeko, irizpide hauek erabiltzen dira:

a) Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira, eragiketaren interes-tasa efektiboa eragiketaren liburuetako zenbatekoaren gainean aplikatuta (zalantzazko aktiboetan ez, halakoetan kontabilitate-balio garbiaren gainean aplikatzen baita).

b) Gainerako balio-aldaketak sarrera edo gastu moduan kontabilizatuko dira, finantza-tresnak balantzean baja hartzen duenean, birsailkatzen denean eta, finantza-aktiboei dagokienez, balio-narriaduragatiko galerak edo ondoren berreskuratzeagatiko irabaziak sortzen direnean.

«Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-tresnen sarrerak eta gastuak arrazoizko balioan» zorroa kontabilizatzeko, irizpide hauek erabiltzen dira:

a) Arrazoizko balioaren aldaketak galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira zuzenean. Deribatuak ez diren tresnak jasotzean, bereizi egin behar dira tresnatik sortutako etekinei egoztekoa den zatia —interes edo dibidendu gisa erregistratuko da, izaeraren arabera— eta gainerako zatia —finantza-eragiketen emaitzatzat erregistratuko da dagokion partidan—.

b) Zor-tresnen ondorioz sortutako interesak kalkulatzeko, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuko da.

Salbuespen moduan, Taldeak honela kontabilizatu beharko lituzke arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak eragiten dituztela baloratutako finantza-pasiboen balio-aldaketak, dagokionean:

a) Pasiboaren kreditu-arrisku propioaren aldaketei egotz dakiekeen finantza-pasiboaren arrazoizko balioko aldaketaren zenbatekoa bestelako emaitza global batean kontabilizatzen da, eta zuzenean erreserba-partida batera intsuldatuko litzateke, finantza-pasiboak baja hartuko balu.

b) Pasiboaren arrazoizko balioko aldakuntzaren gainerako zenbatekoa ekitaldiko emaitzan kontabilizatzen da.

«Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroko sarrerak eta gastuak kontabilizatzeko, irizpide hauek erabiltzen dira:

a) Sortutako interesak edota, dagokionean, sortutako dibidenduak galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira. Interesekin, kostu amortizatuko aktiboekin bezala jokatzen da.

b) Kanbio-diferentziak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, finantza-aktibo monetarioak direnean, eta bestelako emaitza global batean, finantza-aktibo ez-monetarioak direnean.

c) Zor-tresnei dagokienez, balio-narriaduragatiko galerak edo ondoren berreskuratzeagatiko irabaziak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira.

d) Gainerako balio-aldaketak bestelako emaitza global batean kontabilizatzen dira.

Hartara, zor-tresna bat arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituela baloratzen denean, kostu amortizatuan baloratuz gero kontabilizatuko liratekeen zenbatekoak kontabilizatuko dira ekitaldiko emaitzan.

Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituen arrazoizko baliodun zor-tresna bati balantzetik baja ematen zaionean, ekitaldiko emaitzan birsailkatzen da ondare garbian metatutako irabazia edo galera. Aitzitik, bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituen arrazoizko baliodun ondare garbiko tresna bati baja ematen zaionean, bestelako emaitza global batean erregistratutako irabaziaren edo galeraren zenbatekoa ez da birsailkatzen galdu-irabazien kontuan, erreserbetako partida batean baizik.

Aurreko zorroetako bakoitzean, kontabilizazioa aldatu egingo litzateke, tresnak estaldura-erlazio baten parte izanez gero.

i) Kontuak atzerri-dirutan baloratzea

Euroa da Taldeak bere jardunean darabilen dibisa. Beraz, eurotan ez dauden saldo eta transakzio guztiak atzerri-dirutan egindakotzat jotzen dira.

Hauxe da Taldeak 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n atzerri-dirutan guztira dituen aktiboen eta pasiboen kontrabalioa mila eurokotan:

	2024		2023	
	Aktiboak	Pasiboak	Aktiboak	Pasiboak
Dolar estatubatuarra	68.181	22.998	128.189	20.925
Libera esterlinak	4.540	972	3.589	945
Yen japoniarrak	7.839	1.521	8.277	262
Franko suitzarrak	3.183	195	3.055	355
Bestelakoak	1.083	3.183	1.873	5.334
	84.826	28.869	144.983	27.821

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Hona hemen Taldeak 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n atzerri-dirutan guztira dituen aktiboen eta pasiboen kontrabalioa mila eurokotan, izaeraren arabera sailkatuta:

	2024		2023	
	Aktiboak	Pasiboak	Aktiboak	Pasiboak
Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko bestelako gordailuak	18.116	-	22.566	-
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak	1.013	-	1.598	-
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak	5.116	-	4.888	-
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	48.310	-	34.946	-
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan	12.271	-	75.990	-
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea	-	-	4.995	-
Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak	-	-	-	-
Finantza-pasiboak kostu amortizatuan	-	28.695	-	26.555
Emandako konpromisoak eta bermeak	-	174	-	1.266
	84.826	28.869	144.983	27.821

Hasierako kontabilizazioan, diru funtzionalera bihurtzen dira atzerri-dirutan dauden saldo zordun eta hartzekodunak. Helburu horretarako, kontabilizazioaren eguneko eskurako kanbio-tasa erabiltzen da; hau da, berehala entregatzeko kanbio-tasa. Hasierako kontabilizazioaren ondoren, arau hauek erabiltzen dira atzerri-dirutan dauden saldoak diru funtzionalera bihurtzeko:

i) Izaera monetarioko aktibo eta pasiboak itxierako kanbio-tasara bihurtzen dira, hau da, finantzetako egoera-orrien eguneko eskurako batez besteko kanbio-tasara.

ii) Kostu historikoarekin baloratutako partida ez-monetarioak eskurapen-eguneko kanbio-tasara bihurtzen dira.

iii) Arrazoizko balioan baloratutako partida ez-monetarioak arrazoizko balio hori zehazten den eguneko kanbio-tasara bihurtzen dira.

iv) Sarrerak eta gastuak bihurtzeko, berriz, eragiketaren eguneko kanbio-tasa aplikatzen da. Dena den, epealdiko eragiketa guztietan batez besteko kanbio-tasa bera erabiltzen da, aldaketa nabarmenik izan ez badu, behinik behin. Amortizazioak dagokion aktiboari aplikatutako kanbio-tasara bihurtzen dira.

Atzerri-dirutan dauden saldo zordun eta hartzekodunak bihurtzean sortutako kanbio-diferentziak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira, oro har. Halarik ere, arrazoizko balioan baloratu diren, arrazoizko balio horretara egindako doikuntza ondare garbi bateratuko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafean jasotzen zaien eta monetarioak ez diren partidetako kanbio-diferentzien kasuan, kanbio-tasaren osagaia bereizi egiten da monetarioa ez den elementuaren errebalorizaziotik.

Diru funtzional moduan euroa erabiltzen ez duten partaidetzapeko erakundeetan, urteko kontuetako saldoak honela bihurtzen dira eurotara:

i) Aktiboak eta pasiboak bihurtzeko, ekitaldi-amaierako kanbio-tasa aplikatzen da.

ii) Sarrerak eta gastuak eta altxortegiko fluxuak bihurtzeko, ekitaldiko batez besteko kanbio-tasak aplikatzen dira.

iii) Ondare garbia kanbio-tasa historikoetara bihurtzen da.

Diru funtzional moduan euroa erabiltzen ez duten partaidetzapeko erakundeetako urteko kontuak bihurtzean sortutako kanbio-diferentziak ondare garbi bateratuko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafean jasotzen dira.

Partaidetzapeko erakundeek erabiltzen dituzten diru funtzionalen artean bat bera ere ez dagokio gai horren inguruan ezarrita dauden irizpideen arabera oso inflazionistatzat jotako ekonomia bati. Beraz, 2024ko eta 2023ko ekitaldien kontabilitate-itxieran ez da beharrezkoa izan partaidetzapeko erakundeetan finantzetako egoera-orriak doitzea, inflazioaren eraginak zuzentzeko.

j) Sarrerak eta gastuak kontabilizatzea

Interesen eta antzeko kontzeptuen sarrerak eta gastuak sortzapen-epearen arabera eta interes-tasa efektiboaren metodoaren bidez erregistratzen dira, oro har, kontabilitatean. Bestelako erakundeetatik jasotako dibidenduak sarrera moduan kontabilizatzen dira, horiek jasotzeko eskubidea sortzen den unean.

Finantza-zerbitzuengatik ordaindutako eta kobratutako komisioak, kontratuan duten izendapena gorabehera, honela sailkatzen dira, eta sailkapen horren arabera egozten dira galdu-irabazien kontu bateratuan:

a) Kreditu-komisioak. Finantzaketa-eragiketa baten etekina edo kostu efektiboa osatzen dutenak dira. Aurrez jasotzen dira komisio horiek, eta horrelakoak izan daitezke:

i) Arrazoizko balioan eta galdu-irabazietan aldaketak eragiten dituztela baloratu ez diren finantzaketa-jarduerak sortu edo eskuratzeagatik jasotako komisioak. Hainbat jarduera betetzeagatik jasotako ordainsariak har ditzakete barne, hala nola mailegu-hartzailearen finantza-egoeraren ebaluazioa, zenbait bermeren ebaluazioa eta erregistroa, eragiketa-baldintzen negoziazioa, dokumentazioaren prestaketa eta tratamendua, eta transakzioaren itxiera. Eragiketaren etekinari edo kostu efektiboari egindako doikuntza gisa bereizten eta kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontu bateratuan, eragiketaren bizitzan zehar. 2024an sortutako finantza-komisioak 8.882 mila eurokoak dira (5.087 mila eurokoak 2023an).

ii) Finantzaketa emateko konpromisoagatik adostutako komisioak, konpromiso hori arrazoizko balioan baloratzen ez denean, galdu-irabazien kontuak aldaketak dituenean eta Taldeak berariazko mailegu-akordioa egin dezakeenean. Komisio horien ondoriozko sarreren erregistroa atzeratu egiten da, eta eragiketaren doikuntzari edo kostu efektiboari egindako doikuntza gisa esleitzen da galdu-irabazien kontu bateratuan, finantzaketarentzat aurreikusitako bizitzan zehar. Konpromisoa Entitateak mailegua eman gabe iraungitzen bada, komisioa sarrera moduan kontabilizatzen da konpromisoa iraungitzeko unean.

iii) Kostu amortizatuan baloratutako finantza-pasiboen jaulkipenean ordaindutako komisioak. Finantza-pasiboaren liburuetako zenbatekoan izandako kostu zuzen lotuekin batera sartzen dira, eta eragiketaren kostu efektiboari egindako doikuntza gisa esleitzen dira galdu-irabazien kontu bateratuan.

b) Kredituzkoak ez diren komisioak. Finantzaketa-eragiketak ez diren finantza-zerbitzuak emateagatik ordaindutakoak dira, eta honelakoak izan daitezke:

i) Denboran zehar emandako zerbitzu batekin lotutakoak, hala nola kontuak administratzeagatiko komisioak eta kreditu-txartelak jaulki edo berritzeagatik aldez aurretik jasotakoak. Sarrerak galdu-irabazien kontu bateratuan jasoko dira denboran zehar, gauzatze-betebeharra erabat betetzeko aurrerapausoak neurtuz, hurrengo atalean zehaztutako irizpideen arabera. Hirugarrenek inbertsioak administratzeagatiko komisioak badira, betebeharra betetzeko aurrerapausoak neurtuz jasoko dira, eta kontratua lortu eta betetzearen kostuei sarrerak eta gastuak erregistratzeko irizpide orokorrak aplikatuko zaizkie.

ii) Une jakin batean ematen den zerbitzu bati lotutakoak. Bezeroak zerbitzuaren gaineko kontrola duenean sortzen dira komisio horiek, adibidez baloreak harpidetzean, dibisa trukatzean edo maileguen aholkularitza edo sindikazioa egitean (kasu horretan, Taldeak beretzat eragiketaren zatirik atxikitzen ez duenean edo gainerako parte-hartzaileen arrisku-baldintza beretan atxikitzen duenean). Kreditu-eragiketetan, kredituaren esku dagoenean funtsak erabili edo ez, erabili ez den kredituaren zatiari dagokion erabilgarritasun-komisioa sarrera gisa erregistratuko da galdu-irabazien kontu bateratuan, kobratzen den unean.

Aurreko irizpideen salbuespena dira arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-tresnak. Tresna horien komisioaren zenbatekoa berehala erregistratzen da galdu-irabazien kontu bateratuan. Finantza-jardueraren ohiko produktu edo zerbitzuen ondorioz sortutako komisioak bereizi egiten dira ohiko jarduerari ez dagozkion produktu eta zerbitzuengatiko komisioetatik, eta azken horiek galdu-irabazien kontu bateratuko «Ustiapeneko bestelako sarrerak» epigrafean sartzen dira.

k) Saldoak konpentsatzea

Kontratuaren edo lege-mailako arau baten ondorioz konpentsatzeko aukera duten transakzioen saldo zordun eta hartzekodunak zenbateko garbiarekin jasotzen dira balantze bateratuan, baldin eta horiek zenbateko garbiarekin likidatzeko edo aldi berean aktiboa egin eta pasiboa ordaintzeko asmoa badago.

l) Finantza-bermeak

Finantza-bermedun kontratuetan, jaulkitzaileak ordainketa espezifikoak egin behar dizkio hartzekodunari, baldin eta zordun jakin batek ez badu ordaintzeko betebeharra betetzen eta, ondorioz, hartzekodunak dirua galtzen badu, zor-tresna batean —berdin dio zer egitura juridiko duen: fidantza, finantza-abala, aseguru-kontratua edo kreditu-deribatua— hitzartutako baldintzen (jatorrizkoen nahiz aldatuen) arabera.

Finantza-bermedun kontratuen erakunde jaulkitzaileak «Finantza-pasiboak kostu amortizatuan – Bestelako finantza-pasiboak» partidan jasotzen ditu horrelakoak. Bertan, arrazoizko balioa gehi jaulkipenari zuzenean dagozkion transakzio-kostuak zehazten dira, aseguru-entitateek egindako kontratuetan izan ezik.

Hasieran, kontrako ebidentziarik ez badago, transakzio isolatuen bidez elkarrekiko independentzia-baldintzetan hirugarrenen alde egindako finantza-bermedun kontratuen arrazoizko baliotzat jasotako primaren zenbatekoa hartuko da. Eta zenbateko horri, dagokionean, jaso beharreko diru-fluxuen balio eguneratua gehituko zaio, Entitateak antzeko epean eta arriskuekin emandako finantza-aktiboen antzeko interes-tasa erabiliz. Era berean, aktiboko kreditu moduan kontabilizatuko da jasotzeko dauden etorkizuneko diru-fluxuen balio eguneratua, lehen aipatutako interes-tasa erabilita.

Hasierako kontabilizazioaren ondoren, kontratuak irizpide hauen arabera erregistratzen dira:

i) Finantza-bermeen ondorioz jaso beharreko komisio edo primen balioa eguneratzeko, aldeak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira finantza-sarrera gisa.

ii) Zalantzazkoen artean sailkatu ez diren finantza-bermedun kontratuen balioa honela kalkulatzen da: pasiboan hasieran kontabilizatutako zenbatekoa ken bermearentzat aurreikusitako bizitzan zehar galdu-irabazien kontu bateratuan linealki egotzitako zenbatekoa. Beste irizpide bat ere erabil daiteke, bermearen ekonomia-etekinak eta -arriskuak zehatzago islatzeko balio badu behintzat.

Emandako bermeak bezeroari edo eragiketari egoztekoa den kaudimengabezia-arriskuaren arabera sailkatzen dira, eta berme horientzat 13.h oharrean azaldu direnen antzeko irizpideak erabiliz hornidurak eratzeko beharra zenbatesten da.

Eragiketa horietarako eratutako hornidurak balantze bateratuaren pasiboko «Hornidurak – Emandako konpromisoak eta bermeak» epigrafean daude kontabilizatuta (36. oharra). Horidura horien zuzkidurak eta berreskurapenak galdu-irabazien kontu bateratuko «Hornidurak edo hornidura-itzulketak» epigrafean erregistratzen dira.

m) Errentamenduak

Eragiketaren ekonomia-funtsaren arabera aurkezten dira errentamendu-kontratuak, edozein egitura juridiko dutelarik ere, eta finantza- edo errentamendu operatibo gisa sailkatzen dira hasieratik.

i) Kontratuko aktiboaren jabetzari atxikitako arrisku eta mozkinen funtsezko transferentzia egiten denean hartzen dira errentamenduak finantza-errentamendutzat.

Taldeak ondasunak errentan ematen dituenean, errentariak emango dizkion zenbatekoen egungo balioen eta bermatutako hondar-balioaren arteko batura hirugarrenei emandako finantzaketa gisa erregistratzen da, eta, beraz, balantze bateratuko «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan» epigrafean sartzen da, errentariaren izaeraren arabera. Bermatutako hondar-balioa kontratua amaitzen denean errentariak erosteko aukera erabiltzearen prezioa izan ohi da.

Beste alde batetik, Taldeak errentari jarduten duenean, errentan emandako aktiboen kostua balantze bateratuan erregistratzen da, kontratuko ondasunaren izaeraren arabera, eta, aldi berean, zenbateko bereko pasibo bat ere bai. Pasibo hori kalkulatzeko, bi hauen arteko txikiena hartuko da: (1) errentan emandako ondasunaren arrazoizko balioa eta (2) errentatzaileari ordaindu beharreko kopuruen egungo balioak gehi, dagokionean, erosteko aukeraren ekitaldiko prezioa. Erabilera propioko aktibo materialetan aplikatzen direnen antzeko irizpideez amortizatzen dira aktibo horiek.

Jatorria kontratu horietan duten finantza-sarrerak eta -gastuak galdu-irabazien kontu bateratuan ordaindu eta kargatzen dira, hurrenez hurren, kontratuen bizitzan zehar errendimendua konstantea izateko moduan.

ii) Finantza-errentamendutzat hartzen ez diren errentamendu-kontratuak errentamendu operatibo gisa sailkatzen dira.

Taldea denean errentatzailea, errentan emandako ondasunen eskuratze-kostua «Aktibo ukigarriak – Ibilgetu materiala» epigrafean erregistratzen da. Erabilera propioko antzeko aktibo materialetan erabiltzen diren politiken arabera amortizatzen dira horiek, eta errentamendu-kontratuen sarrerak linealki kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontu bateratuan.

Bestalde, Taldeak errentari moduan jarduten duenean, aktibo ukigarriaren arauan jasotakoa aplikatzen da.

n) Kudeatutako ondareak

Taldeak kudeatzen dituen hirugarrenen jabetzako ondareak ez dira balantze bateratuan sartzen. Jarduera honek emandako komisioak galdu-irabazien kontu bateratuko «Komisioen sarrerak» epigrafean erregistratzen dira (47. oharra).

ñ) Taldeak kudeatutako inbertsio-funtsak eta pentsio-funtsak

Taldeak kudeatutako inbertsio-funtsak, pentsio-funtsak eta BGAEak ez dira balantze bateratuan aurkezten, horietako ondarea hirugarren batzuena delako (66. oharra). Taldeak funts horiei emandako zerbitzuengatiko —ondareak kudeatzeko zerbitzuak, zorroen gordailuak…— ekitaldiko komisioak galdu-irabazien kontu bateratuko «Komisioen sarrerak» epigrafean erregistratzen dira (47. oharra).

o) Pertsonal-gastuak eta enplegu ondoko ordainketak

Langileei emandako ordainsariak, enplegualdia amaitzen denean likidatzen direnak, enplegu ondoko ordainketatzat hartzen dira. Enplegu ondoko ordainketak —baita barneko edo kanpoko pentsio-funtsek estalitakoak ere— ekarpen definituko plan edo prestazio definituko plan gisa sailkatzen dira, obligazio horien baldintzen arabera, eta kontuan hartzen dira enplegatuekin formalki hitzartutako terminoen barruan zein kanpoan onartutako konpromisoak.

Enplegu ondoko ordainketak honela jasotzen dira:

i) Galdu-irabazien kontu bateratuan. Langileek emandako zerbitzuaren kostua (ekitaldi horretakoa nahiz aurreko ekitaldietakoa baina beraietan kontabilizatu gabea), horniduraren (aktiboaren) gaineko interes gordina eta likidatzeko unean gertatzen den irabazia edo galera.

ii) Ondare garbi bateratuko aldaketen egoera-orrian. Irabazi edo galera aktuarial bateratuen ondoriozko horniduraren (aktiboaren) balorazio berriak, horniduraren (aktiboaren) gaineko interes garbian sartu ez diren planeko aktiboen errendimenduaren balorazio berriak eta Taldearentzat erabilgarri dauden fluxuen balioan izandako aldaketen ondorioz balio eguneratuak izan dituen aldaketak, baldin eta horniduraren (aktiboaren) gaineko interes garbian sartuta ez badaude. Ondare garbi bateratuaren aldaketen egoera-orrian kontabilizatutako zenbatekoak ez dira birsailkatuko hurrengo ekitaldi bateko galdu-irabazien kontu bateratuan.

Horrela, prestazio-plan mugatuak galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen dira, irizpide hauei jarraikiz:

a) Indarrean dagoen aldiko zerbitzuen kostua, pertsonal-gastu moduan.
b) Horniduraren gaineko interes garbia, interesengatiko gastu moduan.
c) Aktiboaren gaineko interes garbia, interesen sarrera moduan.
d) Iragandako zerbitzuen kostua, hornidura edo (–) hornidura-itzulketa moduan.

Sare Berria

2016ko, 2017ko eta 2018ko ekitaldietan, baldintza laboral eta ekonomiko zehatz batzuk finkatu zituen Entitate Nagusiak, Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren bazkide-talde jakin bati begira. Plan horren barruan, zenbait bazkide lan-baldintza jakin batzuetara atxiki ziren, eta kontraprestazio ekonomiko bat jasoko zuten, zerbitzuak emateari uzten zioten egunera arte.

2024ko eta 2023ko ekitaldiak ixtean sortutako betebeharra data horretako balantzeko «Hornidurak – Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak» epigrafean dago jasota (36. oharra).

PD 61

Era berean, Entitate Nagusiak PD 61 izeneko plana formalizatu zuen 2020ko ekitaldian. Kontseilu Errektoreak onartu zuen, eta lan-bazkideen kolektibo zehatz bati zegoen zuzenduta. 2021eko urtarrilaren 1etik 2023ko ekainaren 30era arte egon zen indarrean. Aurreko planak bezala, berri hori ere borondatezkoa zen, eta helburu zuen taldean aplikatu zen soilik. Horretarako, bazkide langileak idatziz jakinarazi behar zuen planari atxikitzeko gogoa.

Hona hemen plan horren ezaugarri nagusia:

i) 1961ean jaiotako bazkideei aukera ematen zitzaien, 60 edo 61 urte betetakoan jarduera uzten zutenean kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, kontratua sinatzerakoan hautatu zuten aukeraren arabera.

2024ko eta 2023ko ekitaldiak ixtean sortutako betebeharra data horretako balantzeko «Hornidurak – Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak» epigrafean dago jasota (36. oharra).

PD 62

Era berean, Entitate Nagusiak PD 62 izeneko plana formalizatu zuen 2020ko ekitaldian. Kontseilu Errektoreak onartu zuen, eta lan-bazkideen kolektibo zehatz bati zegoen zuzenduta. 2021eko urtarrilaren 1etik 2024ko ekainaren 30era arte egon zen indarrean. Aurreko planak bezala, berri hori ere borondatezkoa da, eta helburu duen taldean aplikatu da soilik. Horretarako, bazkide langileak idatziz jakinarazi behar zuen planari atxikitzeko gogoa.

Hona hemen plan horren ezaugarri nagusia:

i) 1962an jaiotako bazkideei aukera ematen zitzaien, 60 edo 61 urte betetakoan jarduera uzten zutenean kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, kontratua sinatzerakoan hautatu zuten aukeraren arabera.

2023ko ekitaldiaren amaieran sortutako betebeharra balantzeko «Hornidurak – Pentsioak eta enplegu-ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak» epigrafean dago jasota (36. oharra).

PD 63

Era berean, Entitate Nagusiak PD 63 izeneko plana formalizatu zuen 2021eko ekitaldian. Kontseilu Errektoreak onartu zuen, eta lan-bazkideen kolektibo zehatz bati zegoen zuzenduta. 2022ko urtarrilaren 1etik 2025eko ekainaren 30era arte egongo da indarrean. Aurreko planak bezala, berri hori ere borondatezkoa da, eta helburu duen taldean aplikatu da soilik. Horretarako, bazkide langileak idatziz jakinarazi behar zuen planari atxikitzeko gogoa.

Hona hemen plan horren ezaugarri nagusia:

i) 1963an jaiotako bazkideei aukera ematen zaie, 60 edo 61 urte betetakoan jarduera uzten dutenean kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, kontratua sinatzerakoan hautatu zuten aukeraren arabera.

2024ko eta 2023ko ekitaldien amaieran sortutako betebeharra balantzeko «Hornidurak – Pentsioak eta enplegu-ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak» epigrafean dago jasota (36. oharra).

PACA 64 eta 65

Era berean, Entitateak PACA 64 eta 65 izeneko plana formalizatu zuen 2023ko ekitaldian. Kontseilu Errektoreak onartu zuen, eta lan-bazkideen kolektibo zehatz bati dago zuzenduta. 2024ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean. Aurreko planak bezala, hori ere borondatezkoa da, eta helburu duen taldean aplikatu da soilik. Horretarako, bazkide langileak idatziz jakinarazi behar zuen planari atxikitzeko gogoa.

Hona hemen plan horren ezaugarri nagusia:

i) 1964an eta 1965ean jaiotako bazkideei aukera ematen zaie, kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, jarduera 60 urte eta erretiroa hartzeko legezko adina ken 2 urte bitarteko adinarekin eteten den unean, kontratua sinatzerakoan hautatu duten aukeraren arabera. Gainera, 1964. urtea baino lehen jaiotako bazkideei Planera atxikitzeko beste aukera bat eskainiko zaie, bigarrena. Aurreko dinamizazio-planekin alderatuta, hau da alde nagusia: aisialdia kendu da, eta, ondorioz, dirulaguntza ordainketa bakarrean jasoko da jarduera eteten den unean.

2024ko eta 2023ko ekitaldien amaieran sortutako betebeharra balantzeko «Hornidurak – Pentsioak eta enplegu-ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak» epigrafean dago jasota (36. oharra).

PACA 66

Era berean, Entitate Nagusiak PACA 66 izeneko plana formalizatu du 2024ko ekitaldian. Kontseilu Errektoreak onartu du, eta lan-bazkideen kolektibo zehatz bati dago zuzenduta. 2025eko urtarrilaren 1ean sartu da indarrean. Aurreko planak bezala, hori ere borondatezkoa da, eta helburu duen taldean aplikatu da soilik. Horretarako, bazkide langileak idatziz jakinarazi behar zuen planari atxikitzeko gogoa.

Hona hemen plan horren ezaugarri nagusia:

i) 1966an jaiotako bazkideei aukera ematen zaie, kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, jarduera 60 urte eta erretiroa hartzeko legezko adina ken 2 urte bitarteko adinarekin eteten den unean, kontratua sinatzerakoan hautatu duten aukeraren arabera. Plan honek ez du aisialdiko epealdia barne hartzen; ondorioz, dirulaguntza ordainketa bakarrean jasoko da jarduera eteten den unean.

2024ko ekitaldiaren amaieran sortutako betebeharra balantzeko «Hornidurak – Pentsioak eta enplegu-ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak» epigrafean dago jasota (36. oharra).

Kaleratzearen kalte-ordainak

Indarrean dagoen legeriaren arabera, bidezko arrazoirik gabe kaleratzen diren enplegatuei kalte-ordaina eman behar die Taldeak. Langile-taldea murrizteko asmorik ez dagoenez, ez da beharrezkoa horretarako zuzkidurarik sortzea.

p) Jarduera etengabeengatiko irabazien gaineko zerga

Sozietateen gaineko zerga gastutzat hartzen da, eta galdu-irabazien kontu bateratuko «Jarduera etengabeen emaitzen gaineko zergen gastuak eta sarrerak» epigrafean erregistratzen da.

«Jarduera etengabeen emaitzen gaineko zergen gastuak eta sarrerak» epigrafeko gastua ordaindu beharreko zergak zehazten du. Zerga hori ekitaldiko zerga-oinarriaren gainean kalkulatzen da, denbora-aldeak, kenkari eta hobariengatiko kredituak eta zerga-oinarri negatiboak direla eta ekitaldian izandako aldaketak aintzat hartuta. Gerta liteke ekitaldiko zerga-oinarria ez bat etortzea galdu-irabazien kontu bateratuan aurkeztutako emaitza garbi bateratuarekin. Izan ere, beste ekitaldi batzuetan kargatzekoak edo deduzitzekoak diren partidak eta kargatzen eta deduzitzen ez diren partidak kanpoan uzten ditu.

Finantzetako egoera-orrietako aktiboen eta pasiboen liburuetako zenbatekoen eta horien zerga-oinarrien arteko aldeetatik ordaindu edo berreskuratzea espero diren zergak sartzen dira zerga geroratuengatiko aktiboetan eta pasiboetan. Balantze bateratuan kontabilizatzen dira pasiboaren metodoa erabiliz, eta berreskuratu edo likidatzea espero den karga-tasari dagokion denbora-aldea edo kreditua aplikatuz kuantifikatzen dira.

Zerga geroratuarengatiko aktiboa, hala nola aurreratutako zerga, dedukzioen eta hobarien ondoriozko kreditua eta zerga-oinarri negatiboengatiko kreditua, kontabilizatzeko, horiek efektibo egiteko adina irabazi fiskal lortzeko itxaropena izan behar du Taldeak. Kasu hauetan esan dezakegu Taldeak etorkizunean behar adina irabazi fiskal lortzeko itxaropena izango duela:

i) Zerga geroratuarengatiko aktiboa egin den ekitaldian bertan edota momentuan dagoen edo aurreratutako zenbatekoak sortu duen zerga-oinarri negatiboa konpentsa daitekeen geroagoko batean kita daitezkeen zerga geroratuengatiko pasiboak daudenean.

ii) Zerga-oinarri negatiboak sortu dituzten arrazoiak nekez errepikatzekoak direnean.

Aurrekoa gorabehera, erakunde mendeko, taldeaniztun eta elkartuetako inbertsioen kontabilitate-erregistroan sortzen den zerga geroratuarengatiko aktiboa kontabilizatuko da, baldin eta hori etorkizunean gauzatzeko asmoa badago, eta etorkizunean behar adina irabazi fiskal izateko itxaropena badago, aktibo hori efektibo egiteko. Hasieran negozio-konbinazioa ez den ondare-elementu bat erregistratzen denean ere ez da kontabilizatzen, baldin eta kontabilizazioaren unean kontabilitate-emaitzari eta emaitza fiskalari eragin ez badio.

Zerga geroratuengatiko pasiboak beti jasotzen dira kontabilitatean, salbu eta merkataritzako funts bat kontabilizatzen denean edo pasibook erakunde mendeko, taldeaniztun edo elkartuen inbertsioak kontabilizatzean sortzen direnean. Baldintza da, Taldea gai izatea denbora-aldea itzultzeko unea kontrolatzeko eta alde hori ez itzultzea aurreikusteko moduko etorkizunean. Hasieran negozio-konbinazioa ez den ondare-elementu bat erregistratzen denean ere ez da kontabilizatzen zerga geroratuarengatiko pasiboa, baldin eta kontabilizazioaren unean kontabilitate-emaitzari eta emaitza fiskalari eragin ez badio.

Kontabilitate-itxiera bakoitzean, erregistratutako zerga geroratuak berrikusten dira, bai aktiboak eta bai pasiboak, indarrean jarraitzen dutela egiaztatzeko, eta beharrezko zuzenketak egiten dira.

Deskribatutako azterketa egiteko, aldagai hauek hartzen dira aintzat:

- Entitate bakoitzaren emaitza-proiekzioak, erakunde horietako gobernu-organoek onartutako finantza-aurrekontuetan oinarritutakoak, zerga geroratuengatiko aktiboak erregistratzeko aukera sortu zutenak (zerga-bateratzeko talderik ez zegoelako), gerora entitate bakoitzeko zuzendaritzak estimatutako hazkunde-tasa iraunkorrak ezarrita.

- Denbora-aldeak itzultzearen estimazioa, izaeraren arabera.
- Indarreko legeriak zergengatiko aktiboak itzultzeko ezarritako epea edo muga.
- Europako Banku Zentralaren diru-politiken ondoriozko interes-tasen agertokia.

Egungo ingurune ekonomiko eta geopolitikoa eta horrek Entitate Nagusiaren eta Taldearen etorkizuneko emaitzetan izan ditzakeen eraginak aintzat hartuta, plangintza eta proiekzio horiek eguneratu egin dira, Zuzendaritzak zuen informaziorik onenenean oinarrituz.

Zuzenean ondare garbi bateratuan erregistratutako sarrerak edo gastuak, emaitza fiskalean edo alderantziz eraginik ez dutenak, denbora-alde moduan kontabilizatzen dira.

q) Aktibo ukigarriak

Aktibo ukigarrietan hauek sartzen dira: Taldeak gaur egun edo etorkizunean erabiltzeko duen eta ekitaldi batean baino gehiagotan erabiltzeko asmoa duen ibilgetu materiala, bezeroei errentamendu operatiboan lagatzen zaien ibilgetu materiala, gizarte-ekintzari atxikia eta ondasun higiezinetako inbertsioak, aktiboak barne hartzen dituztenak alokairu-erregimenean ustiatzeko. Aktibo ukigarriak eskuratze-kostuaren arabera baloratzen dira, baina metatutako amortizazioa kenduta eta, dagokionean, elementu bakoitzaren balio garbia eta zenbateko berreskuragarria alderatzetik ateratzen den narriaduragatiko edozein galera kenduta. Erabilera propioko eta libreko aktibo materialeko elementu batzuen eskuratze-kostua horiek 2004ko urtarrilaren 1ean arrazoizko balioan baloratuta ateratzen da, 4/2004 Zirkularraren Lehen Xedapen Iragankorrean ezarritakoari jarraikiz —4/2017 Zirkularrak indargabetu zuen zirkular hori—. 2004ko urtarrilaren 1eko arrazoizko balio hori aditu independenteek egindako tasazioetan oinarrituta lortu da.

Esleitutako aktiboen kasuan, bi zenbateko hauetatik txikiena da eskuratze-kostua: esleipenaren truke emandako finantza-aktiboen zenbateko garbia edo esleipenaren uneko arrazoizko balioa ken zenbatetsitako salmenta-kostuak.

Amortizazioak metodo lineala erabiliz kalkulatzen dira. Elementuei estimatutako balio-bizitzako urteak aktiboen eskuratze-kostuari aplikatzen zaizkio eta, gero, hondar-balioa kentzen da. Eraikinak eta bestelako eraikuntzak dauden lursailen kasuan, bizitza mugagabea dutela ulertzen da, eta, beraz, ez dira amortizatzen. Aktibo materiala amortizatzeagatiko urteko zuzkidurak galdu-irabazien kontu bateratuaren kargura erregistratzen dira, eta elementu guztiei batez beste estimatzen zaizkien balio-bizitzako urteen arabera kalkulatzen dira.

	Estimatutako balio-bizitzako urteak
Eraikinak eta urbanizazioak	24 - 50
Altzariak	5 - 10
Instalazioak	5 - 10
Makineria, ekipamendu elektronikoa eta bestelakoak	2 - 6

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Kontabilitate-itxiera bakoitzean, Taldeak aztertzen du ea barruan nahiz kanpoan zantzuren bat badagoen, aktibo materialeko elementuen balio garbia zenbateko berreskuragarria baino handiagoa dela erakusten duena. Kasu horretan, elementu horren liburuetako zenbatekoa kopuru berreskuragarriraino murrizten du Taldeak, eta etorkizuneko amortizazioagatiko karguak doitu egiten ditu, kontabilitate-balio doituaren eta geratzen zaion balio-bizitza berriaren arabera, baldin eta berriro kalkulatu beharra badago. Bestalde, elementu jakin baten balioa berreskuratu dela garbi dagoenean, aurreko epealdietan kontabilizatutako narriaduraren ondoriozko galeraren itzulketa erregistratzen du Taldeak, eta amortizazioagatik etorkizunean egin beharreko karguak doitzen ditu. Elementu baten narriaduragatiko galera itzultzeak ezin du inola ere eragin liburuetako zenbatekoa handitzea, aurreko ekitaldietan narriaduragatiko galerak kontabilizatu ez balitzaizkio izango zukeenetik gora.

Ekitaldi bakoitzaren amaieran behinik behin, erabilera propioko aktibo materialeko elementuen balio-bizitza estimatua berrikusten du Taldeak, horietan aldaketa nabarmenik dagoen ikusteko. Halako aldaketarik badago, doitu egiten ditu, dagozkion zuzenketak eginez balio-bizitza berriaren arabera amortizatu behar denaren zuzkidura etorkizuneko ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzean.

Erabilera propioko aktibo ukigarriak zaindu eta mantentzeagatiko gastuak, egiten diren ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira.

Aktibo ukigarrien ondasun higiezinetako inbertsioetan, Taldeak dituen lursail, eraikin eta bestelako eraikuntzen balio garbia sartzen da. Ondasun horiek alokairu bidez ustiatzeko edo salmentarekin (etorkizunean merkatuko prezioetan izaten diren igoeren ondorioz) gainbalioa lortzeko erabiltzen ditu Taldeak.

Taldeak erabilera propioko aktibo ukigarrietan erabiltzen dituen irizpide berberak aplikatzen ditu errentamendu operatiboan lagatako aktiboen eskuratze-kostua kontabilizatzeko, amortizatzeko, horien balio-bizitzak estimatzeko eta narriaduragatiko galerak erregistratzeko.

Kontabilitate-printzipio hauek erabiltzen dira errentariaren ikuspuntutik errentamenduen kontabilitatea egiteko:

- Errentamendu-epea. Errentamendu baten aldi errebokaezinaren parekoa da. Horri errentamendua luzatzeko aukerak estalitako epealdiak gehitu behar zaizkio, baldin eta seguru badakigu errentariak aukera hori erabiliko duela, eta, seguru bagaude errentariak ez duela aukera hori erabiliko, errentamendua hutsaltzeko aukerak estalitako epealdiak. Ildo horretan, irizpide hauek aplikatzen ditu Taldeak:

  a) Kontratuan adierazitakoa ez den beste data bat aurreikusita badago kontratua ezerezteko, azken data hori aplikatuko da erabilera-eskubidea ezerezteko.

  b) Kontratuaren muga-eguna 50 urtetik beherakoa bada, kontratuaren data aplikatuko da.

  c) Higiezinen errentamenduaren muga-eguna 50 urtetik gorakoa bada, 50 urtera mugatuko da muga-eguna, Taldeak aplikatutako higiezinen amortizazio-eperik handienarekin bat etorriko baita.

  d) Urtebetetik beherako muga-eguna duten errentamenduetan ez da batere aktibaziorik egingo, eta erregistroa emaitza-kontuaren bidez egiten jarraituko da. Izan ere, aukera handia dago kontratu hori ezereztu eta birnegoziatzeko; hau da, beste baldintza batzuk dituen kontratu berri bat egiteko.

- Errentamendu-kontratuetatik sortzen diren aktiboak eta pasiboak errentamenduaren hasierako datan kontabilizatzen dira. Errentatzaileak ondasuna errentariaren eskuetan erabiltzeko prest uzten duen egunekoa da data hori.

- Errentamenduengatiko pasiboaren hasierako balorazioa. Kontratua hasteko datan, Taldeak errentamenduagatiko pasibo bat kontabilizatzen du, data horretan ordainduta ez dauden errentamenduagatiko ordainketen egungo balioan.

  Ordainketa horien balio eguneratua kalkulatzeko, honako hau hartzen da deskontu-tasatzat: antzeko ingurune ekonomiko batean errentariak erabilera-eskubideagatiko aktiboaren antzeko balioa duen ondasun bat eskuratzeko behar dituen funtsak antzeko epearekin eta bermearekin maileguan hartzeko ordaindu beharko lukeen interes-tasa (finantzaketa-tasa gehigarria).

- Erabilera-eskubideagatiko aktiboaren hasierako balorazioa. Kontratuaren hasierako datan, Taldeak erabilera-eskubideagatiko aktibo bat kontabilizatzen du, eta kostu-prezioan baloratzen du, honako hauek barne hartuta:

  a) Errentamenduengatiko pasiboaren hasierako balorazioaren zenbatekoa, lehen azaldutakoaren arabera.

  b) Kontratuaren hasierako datan edo lehenago egindako errentamenduengatiko edozein ordainketa ken errentatzailearengandik jasotako edozein kobrantza (adibidez, kontratua sinatzeko jasotako hobariak).

  c) Errentariak jasandako hasierako kostu zuzenak. Horiek barne hartzen dituzte, besteak beste, ondasun ukigarri bat errentariak erabiltzeko moduko lekuan eta baldintzekin kokatzearekin zerikusi zuzena duten kostuak.

  d) Aurreikusten dituen kostuak, errentan hartutako ondasuna desegin edo kentzeko, ondasuna dagoen lekua birgaitzeko edo ondasuna kontratuan finkatutako egoeran itzultzeko, salbu eta kostu horiek izakinak sortzeko sortzen badira. Kostu horiek erabilera-eskubideagatiko aktiboaren kostuaren zati gisa kontabilizatzen dira, Taldeak horiek jasateko betebeharra hartzen duenean.

  Erabilera-eskubideagatiko aktiboak aurkezteko, ukigarriak eta ukiezinak bereizten dira, errentan emandako ondasunaren izaeraren arabera.

- Errentamenduengatiko pasiboaren ondorengo balorazioa. Hasierako kontabilizazioaren ondoren, errentamenduengatiko pasiboa baloratzen du Taldeak, helburu hauekin:

  a) Haien liburuetako zenbatekoa handitzea, sortutako interesak adieraziz. Interesak kalkulatzeko, hasierako balorazioan erabilitako interes-tasa aplikatzen da pasiboaren saldoaren gainean.

  b) Haien liburuetako zenbatekoa txikitzea, errentamenduengatik egindako ordainketak adieraziz.

c) Honako hauek eguneratuta adieraztea: (i) errentamendu-epea, kontratua luzatu edo hutsaltzeko aukeren ebaluazioa aldatu eta gero; (ii) errentamendu-epea eta errentamenduengatiko ordainketak, errentan hartutako ondasuna erosteko aukeraren ebaluazioa aldatu eta gero; (iii) errentamenduengatiko ordainketak, hondar-balioaren bermearen arabera ordaintzea espero den zenbatekoaren ebaluazioa aldatu eta gero, eta (iv) etorkizuneko errentamenduengatiko ordainketen zenbateko aldakorrak, indize edo tasa baten araberakoak direnean, azken horiek aldatu eta gero. (i) eta (ii) puntuetan aurreikusitako kasuetan, errentamendu-epea eguneratu egin denez, berrikusitako ordainketak hasierako balorazioan erabilitako deskontu-tasaren arabera deskontatuko dira, salbu eta ordainketen aldakuntza interes-tasa aldakorren aldaketaren ondorioa bada; kasu horretan, interes-tasaren aldaketa islatuko duen berrikusitako deskontu-tasa erabiliko da. Taldeak errentamendu-epea berrikusten du, hondar-balioaren bermearen arabera ordaintzea espero duen zenbatekoetan, kontratuan jasotako aukeren ebaluazioan egitate edo aldaketa garrantzitsu bat gertatzen denean. Era berean, Taldeak indize edo tasa bat erreferentziatzat hartzen duten ordainketak berrikusten ditu, baldin eta, kontratuzko baldintzetan finkatutakoaren arabera, ordainketa horien zenbatekoak eguneratu egin behar badira.

d) Errentamenduaren edozein aldaketa adieraztea.

e) Saihestezintzat hartu ez ziren errentamenduengatiko ordainketak adieraztea, hala nola lehenago guztiz gertagarritzat jotzen ez ziren gertaeren mende daudenak, baldin eta erreferentziazko datan gertaera horiek finkoak badira, saihestezinak direlako.

Errentamenduengatiko pasiboaren balorazioan sartu ez diren errentamenduengatiko ordainketa aldakorrak, berriz, ordainketa horiek eragin dituen egitatea edo inguruabarra gertatu den ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira.

Erabilera-eskubideagatiko aktiboaren ondorengo balorazioa. Hasierako kontabilizazioaren ondoren, erabilera-eskubideagatiko aktiboa kostu-prezioan baloratzen du Taldeak:

a) Metatutako amortizazioa eta narriaduragatiko galera metatuak kenduta. Erabilera-eskubideagatiko aktiboa errentan hartutako ondasunaren balio-bizitzan amortizatzen da, kontratua amaitzean errentan hartutako ondasunaren jabetza transferitzen bada edo erabilera-eskubideagatiko aktiboaren kostuaren hasierako balorazioak islatzen badu errentariak erosteko aukera erabiliko duela. Gainerako kasuetan, balio-bizitzaren edo errentamendu-epearen arabera amortizatzen da, txikiena zein den.

b) Doituta, lehen azaldutakoaren arabera egin beharreko errentamenduengatiko ordainketen balio eguneratuaren aldaketak islatzeko.

- Kontabilizaziorako eta baloraziorako tratamendu erraztua. Taldeak gastu gisa kontabilizatzen ditu errentamendu hauek direla eta egindako ordainketak:

a) Epe laburreko errentamenduak (hau da, hasierako datan 12 hilabeteko edo gutxiagoko epea dutenak), erosteko aukerarik jasotzen ez badute.

b) Errentan hartutako ondasuna balio txikikoa denean, betiere bestelako ondasunen mende egon gabe (edo haiekin lotura zuzenik izan gabe) erabili ahal bada ondasuna eta errentariak etekinak lortu ahal baditu ondasuna erabiliz (ondasuna bakarrik edo erraz eskura daitezkeen bestelako baliabideekin batera). Errentan hartutako ondasunaren balioaren ebaluazioa kopuru absolutuetan egiten da, berria zeneko balioa oinarri hartuta.

Bi kasuetan, linealki egozten da galdu-irabazien kontuan, errentamendu-epean zehar.

- Errentamendua aldatzea. Errentamendu baten aldaketa kontabilizatzeko, beste errentamendu bat erregistratzen du Taldeak, baldin eta aldaketa horrek kontratuaren eremua zabaltzen badu (errentan hartutako ondasun bat edo batzuk gehituta) kontraprestazioa handitzearen truke; hau da, kontratuari gehitutako ondasunen gaineko errentamendu-kontratu bereizia egingo balitz ordainduko litzatekeen prezioaren zenbatekoan handitzearen truke.

  Baldintza horiek betetzen badira, aldeek aldaketa adosten duten datan, Taldeak:

  (a) Aldatutako kontratuaren kontraprestazioa banatzen du, errentamenduko partaideen eta beste mota batekoen artean.

  (b) Aldatutako errentamendu-epea zehazten du.

  (c) Errentamenduengatiko pasiboa baloratzen du berriro, berrikusitako errentamenduengatiko ordainketak berrikusitako deskontu-tasaren arabera deskontatuta, eta errentamenduaren gainerako eperako eta aldaketa-datarako zehaztuta.

  (d) Errentamenduengatiko pasiboaren balorazio berria kontabilizatzen du.

r) Aktibo ukiezinak

Irudi fisikorik ez duten aktibo monetario identifikagarriak dira aktibo ukiezinak. Aktibo ukiezinak identifikagarritzat jotzen dira bestelako aktiboetatik bereiz daitezkeenean, dela besterendu, errentan hartu edo banaka erabili daitezkeelako, dela kontratu edo bestelako negozio juridiko baten ondorioz sortu direlako. Aktibo ukiezina kontabilizatzerakoan, aurreko definizioa betetzeaz gain, Taldeak horren ondorioz mozkin ekonomikoak lortzeko asmoa izan behar du, eta haren kostua modu fidagarrian kalkulatzeko aukera egon behar da.

Kostuaren arabera kontabilizatzen dira, hasieran, aktibo ukiezinak. Eskurapenekoa edo produkziokoa izan daiteke kostu hori. Aurrerantzean, kostu horri amortizazio metatua eta narriaduragatiko galerak kentzen zaizkio, dagokionean.

Merkataritzako funtsa

Merkataritzako funtsak hauxe adierazten du: Taldeak eskuratutako entitate baten aktiboengatiko etorkizuneko etekin ekonomikoen ordainketa aurreratua, aktibo horiek banaka eta bereizita identifikatzeko eta kontabilizatzeko modukoak ez badira. Negozio-konbinazio batean kostu bidez eskuratzen denean soilik kontabilizatzen da.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Erakunde taldeaniztun eta elkartuen kapitalerako partaidetzen kostuaren eta hartutako balio teoriko eta kontabilitatekoen arteko alde positiboak, lehen baterakuntza-egunean doituak, honela egozten dira.

i) Eskuratutako erakundeen ondare-elementu jakin batzuei badagozkie, aktiboen balioa handituz edo pasiboen balioa murriztuz egozten dira, kontuan hartuta haien merkatuko balioa hurrenez hurren handiagoa edo txikiagoa den dagozkien balantzeetan dituzten kontabilitate-balio garbiak baino, eta horien kontabilitate-tratamendua Taldeko aktiboek eta pasiboek dutenaren antzekoa den.

ii) Aktibo ukiezin zehatzei esleitzekoak badira, berariaz balantze bateratuan kontabilizatuz egozten dira, eskurapen-eguneko arrazoizko balioa fidagarritasunez finka badaiteke.

iii) Egotzi ezin diren gainerako aldeak merkataritzako funts gisa erregistratzen dira, eta unitate diru-sortzaile bati edo gehiagori esleitzen zaie.

Erakunde taldeaniztun eta elkartuen kapitalerako partaidetzen kostuaren eta hartutako balio teoriko eta kontabilitatekoen arteko alde negatiboak, berriz, lehen baterakuntza-egunean doituak, honela egozten dira:

i) Eskuratutako erakundeen ondare-elementu jakin batzuei badagozkie, aktiboen balioa handituz edo pasiboen balioa murriztuz egozten dira, kontuan hartuta haien merkatuko balioa hurrenez hurren handiagoa edo txikiagoa den dagozkien egoera-balantzeetan dituzten kontabilitate-balio garbiak baino, eta horien kontabilitate-tratamendua Taldeko pasiboek edo aktiboek dutenaren antzekoa den.

ii) Egotzi ezin diren gainerako kopuruak kapitala eskuratu den ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira.

Gainerako aktibo ukiezinak bizitza mugatukoak dira eta horren arabera amortizatzen dira, aktibo materialekoen antzerako irizpideak erabiliz.

Edozein modutan ere, aktibo horientzat erregistratu den balioan narriaduragatik gertatzen diren galerak galdu-irabazien kontu bateratuan kontrapartida eginez erregistratzen dira kontabilitatean. Aktibo horien narriaduragatiko galerak eta, dagokionean, aurreko ekitaldietan erregistratutako narriaduragatiko galeren berreskuratzeak kontabilizatzeko irizpideak aktibo ukigarrian erabilitakoen antzekoak dira.

s) Izakinak

Izakinak aktibo ez-finantzarioak dira, eta hiru egoeratan egon daitezke: Taldeak negozioaren ohiko jardunean saltzeko prest; produkzio-, eraikuntza- edo garapen-prozesuan (saltzeko asmoz) edo produkzio-prozesuan edo zerbitzuak ematean kontsumitzeko. Taldeak higiezinen sustapenaren jardueran saltzeko dituen lursail eta gainerako jabetzak dira, besteak beste, izakinak.

Izakinak baloratzeko, bi zenbateko hauetatik txikiena hartzen da aintzat: kostu-balioa (eskuratzeko eta eraldatzeko eragindako kostu guztiak eta egungo izaera eta kokapena emateko eragindako gainerako kostuak, zuzenak eta zeharkakoak) eta burutzapen-balio garbia. Burutzapen-balio garbitzat hartzen da izakinek negozioaren ohiko jardunean duten salmenta-prezio estimatua ken produkzioa amaitzeko eta salmenta burutzeko ordaindu behar diren kostuak.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Izakinen balorazioagatiko edozein doikuntzaren zenbatekoa, hala nola kalteen, zaharkitzearen eta salmenta-prezioa txikitzearen ondoriozkoa, burutzapen-balio garbia eta beste kontzeptu batzuengatiko galerak gastu moduan kontabilizatzen dira, narriadura edo galera gertatu den ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan. Ondorengo balio-berreskuratzeak, ostera, gertatzen diren ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan kontabilizatzen dira.

Izakinen kontabilitate-balioa, balantze bateratuan baja eman ondoren, gastu moduan erregistratzen da, salmentaren ondoriozko sarrera kontabilizatzen den ekitaldiko gastu-irabazien kontu bateratuan. Gastu hori galdu-irabazien kontu bateratuko «Ustiapeneko bestelako gastuak» epigrafean sartzen da.

t) Aseguru-eragiketak

Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktiboak eta pasiboak

Taldeak 2023ko urtarrilaren 1etik ezartzen du FINA 17 araua, aseguru-kontratuei buruzko FINA 4aren ordez. FINA 17a da aseguru- eta berraseguru-kontratuak kontabilizatzeko, neurtzeko eta aurkezteko kontabilitate-araua, eta atzeraeraginez aplikatzen da 2022ko urtarrilaren 1etik.

Definizioa, sailkapena eta multzokatzea

Taldeak ebaluatu egiten du hirugarren baten aseguru-arrisku esanguratsua onartu ala ez bere kontratuetan, eta adosten du aseguru-polizaren edukitzaileari konpentsatzea, etorkizunean gertaeraren baten ondorioz kalteak baditu. Modu horretan, FINA 17 arauaren eraginpean dauden aseguru-kontratuak identifikatzen ditu.

LABORAL Kutxa Taldeak honela multzokatzen ditu aseguru- eta berraseguru-kontratuak:

- Antzeko arriskuak dituztenak eta batera gestionatzen direnak, zuzeneko aseguruak eta berraseguruak bereizita.

- Aseguruaren errentagarritasuna edo kostubidezkotasuna aintzat hartuta (oro har, Taldeak bi multzotan sailkatzen du kontratuen errentagarritasuna: kostu bidezko kontratuak eta kostu bidezkoak ez direnak edo kostu bidezko bihurtzeko aukera handirik ez dutenak).

- Jaulkipen- edo kohorte-urtea kontuan hartuta. Azken irizpide horren arabera, urte naturalaren barruan jaulkitako kontratuak multzokatzen dira; hau da, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean jaulkitakoak.

Taldeak aukeratutako trantsizio-ikuspegia arrazoizko baliokoa denez, 2022ko urtarrilaren 1eko trantsizio-data baino lehen jaulkitako epe luzeko kontratuen kasuan (batez ere, bizitza arriskuko aseguruak eta bizitza aurrezkiko aseguruak), ez da beharrezkoa izan kontratuak aurreko taldeen arabera eranstea. Trantsizio-dataren ondoren jaulkitako kontratuak, berriz, jaulkipen-urtearen arabera sailkatzen ditu Taldeak.

Taldeak aseguru-izaerarik ez duten osagaiak bereizteko analisia egin du, FINA 17 arauaren eraginpean dauden aseguru-kontratuen kasuan bakarrik. Ondorioztatu duenez, aseguru-kontratuen barruan ez dago bereizi beharreko osagairik. Banaezinak diren inbertsio-osagaiak kontratu-aseguruengatiko pasiboaren barruan sartzen dira, bakoitzari dagokionaren arabera, baina emaitza-kontuan aseguruen diru-sarreretatik edo gastuetatik kanpo geratzen dira.

Balorazio-metodoak

FINA 17ak aseguru-kontratuak balioztatzeko hiru metodo sartzen ditu: Metodo Orokorra (Building Block Approach – BBA), Metodo Sinplifikatua (Premium Allocation Approach – PAA) eta Komisio Aldakorraren Metodoa (Variable Fee Approach – VFA). Metodo Orokorra lehenetsiko da, Metodo Sinplifikatua edo Komisio Aldakorraren Metodoa erabiliz baloratzeko aukera daitezkeenak izan ezik.

Metodo orokorra erabiltzeko, beharrezkoa da aseguru- eta berraseguru-kontratuen hasierako balorazioa guztizko hauen arabera egitea:

- Betetzetik datozen diru-fluxuak; honako hauek hartzen dituzte barne:

    i. Aseguru- eta berraseguru-kontratuekin lotutako etorkizuneko diru-fluxuen zenbatespenak, kontratuaren mugen barruan. Taldeak etorkizuneko eskudiru-irteeren aurreikusitako balioa zenbatesten du, kontratuaren mugen barruan dauden etorkizuneko eskudiru-sarreren aurreikusitako balioa kenduta. Diru-fluxuak aseguru-kontratuaren mugen barruan egongo dira, baldin eta Taldeak primak ordaintzera behartu badezake hartzailea edo aseguru-kontratuaren zerbitzuak hartzaileari ematea bada Taldearen funtsezko betebeharretako bat. Taldeak hartzailearen arriskuak berriro ebaluatzeko ahalmen praktikoa duenean —eta beraz, arrisku horiek islatuko dituen prezioa edo prestazio-maila finka dezakeenean— amaituko da betebehar hori. Oro har, kontratua indarrean dagoen aldia bukatzen den eguna izaten da kontratuaren muga; berritzeko aukera duten kontratuetan, berriz, Taldeak arriskuak berriro ebalua ditzakeen unea da, eta biziarteko produktuetan aseguratuaren heriotza-data.

    ii. Diruaren denbora-balioa eta etorkizuneko diru-fluxuekin lotutako finantza-arriskuak islatzeko doikuntza. Oro har, Taldeak deskontu-tasen *bottom-up* ikuspegia erabiltzen du, arrisku libreko kurba oinarritzat hartuta, zeinari pasiboen likidezia-falta adierazten duen *spread* bat gehitzen baitzaio. Era berean, Taldeak *top-down* ikuspegia erabiltzen du multzo batzuetan, kreditu-arriskua kentzen zaion aktibo-zorro baten erreferentzia-tasan oinarrituta.

    iii. Arrisku ez-finantzariorako arriskuaren doikuntzak (RA) etorkizuneko kutxa-fluxuen zenbatekoaren eta ordainketa-unearen ziurgabetasuna islatzen du. Taldeak *Value at Risk* (VaR) ikuspegia aplikatzea erabaki du. Ikuspegi horren bidez, arriskua doitzea lortzen da, aseguru-kontratuen bidez pasiboa banatzeko funtzioa ezagututa eta negozioaren ziurgabetasunaren eta kalkulu-unearen arabera finkatutako ehunekoa kontuan hartuta.

- Kontratu-zerbitzuaren marjina (CSM), jaulkitako aseguru-kontratuen etorkizuneko irabazia adierazten du. Zenbateko hori ez da hasierako kontabilizazioan kontabilizatzen emaitza-kontuan, kontratuaren zerbitzuak eskaintzen diren heinean baizik. Marjina hori negatiboa denean, aseguru-kontratua kostu bidezkoa da eta galera berehala kontabilizatu behar da emaitza-kontuan, kontratu-zerbitzuaren marjina balantzean kontabilizatu gabe.

Ondoren, informatzen den ekitaldi bakoitza ixtean, honako hauen batura izango da aseguru-kontratuen multzo baten liburuetan kontabilizatutako zenbatekoa:

- Gainerako estalduragatiko pasiboa; barne hartzen ditu data horretan esleitutako etorkizuneko zerbitzuei dagozkien diru-fluxuak, betetzetik datozenak, gehi kontratu-zerbitzuaren marjina.

- Ezbeharrengatiko pasiboa; barne hartzen ditu, batetik, gertatutako ezbeharrei dagozkien diru-fluxuak, betetzetik datozenak baina ordainduta ez daudenak, diruaren denbora-balioa islatzeko deskontatzen direnak, eta, bestetik, arrisku ez-finantzarioagatiko arrisku-doikuntza.

Aurrerago, diru-fluxuetan izandako egungo edo iraganeko zerbitzuarekin lotutako aldaketak emaitza-kontuan kontabilizatuko dira. Etorkizuneko zerbitzuarekin lotutako aldaketek, berriz, CSMa edo galera-osagaia doituko dute.

Ekitaldiko emaitzari dagokionez, aseguruengatiko jarduera arrunten diru-sarrera gisa kontabilizatuko da aldi horretako aseguru-kontratuaren zerbitzu-transferentzia. Zenbateko hori estaldura-unitateen bidez zehazten da. Aurreikusitako estaldura-aldian kontratuak betez emandako aseguru-kontratuen zerbitzu-kopurua dira estaldura-unitateak. Taldeak oinarritzat ditu, batez ere, bizitza arriskuko produktuetarako aseguratutako zenbatekoa eta bizitza aurrezkiko kontratuetarako aseguratutako prestazioak.

Metodo sinplifikatua urtebetetik beherako iraupena duten kontratuen gainerako estalduragatiko pasiboa baloratzeko erabiltzen da, bai eta iraupen luzeagoa izan arren arauan ezarritako baldintzak betetzen dituzten kontratuen kasuan ere. Metodo sinplifikatuan, honela osatuta dago gainerako estalduragatiko pasiboa: jasotako primak ken asegurua erosteagatiko diru-fluxuak. Emaitzetan linealki egozten da kontratuaren estaldura-aldian zehar. Bestalde, Taldeak ez du doitzen gainerako estalduragatiko pasiboa diruaren denbora-balioaren arabera; izan ere, aseguru-primak kontratuen estaldura-aldiaren barruan mugaeguneratzen dira, hau da, urtebetean, gutxi gorabehera. Metodo horrekin baloratutako kontratu-multzoek, berriz, metodo orokorraren arabera kalkulatutako ezbeharrengatiko pasiboa dute.

Bestalde, Taldeak ez du Komisio Aldakorraren Metodoaren arabera baloraturiko kontraturik.

Kostubidezkotasuna

Aseguru-kontratua kostu bidezkoa izango da, baldin eta kontratuaren esleipenaren betetzetik datozen diru-fluxuek, guztira, irteera garbia erakusten badute, hasierako kontabilizazioaren datan.

Taldeak kostu bidezko multzoetan sailkatu ditu metodo orokorraren bidez baloratutako kontratuak, kontuan hartuta betetze-fluxuak, erosketa-gastuak eta beste edozein fluxu egozgarri. Ebaluazioa, oro har, kontratuz kontratu egiten da.

Kontratua indarrean den bitartean, etorkizuneko kutxa-fluxuak aurreikusteko erabiltzen diren hipotesiak aldatu egin daitezke, eta, ondorioz, kontratu baten aurreikusitako errentagarritasuna handitu edo txikitu. Beraz, hasiera batean kostu bidezkotzat jo ez den kontratu-multzo bat kostu bidezko bilaka daiteke, edo alderantziz, hasieran kostu bidezkoa zen kontratuak izaera hori gal dezake eta aurretik kontabilizatutako galera leheneratu.

Metodo sinplifikatuaren bidez baloratutako kontratuen kasuan, kostu bidezkoak ez direla onartzen da, lehentasunez, hasierako kontabilizazioan, baldin eta aurkakoa adierazten duten egitateak eta egoerak ez badaude. Barneko txostenetako informazioa (ratioak eta adierazleak) erabiliz, Taldeak metodologia bat garatu du negozioaren etekina monitorizatzeko, FINA 17 arauaren irizpideen arabera. Ondorioztatu duenez, metodo sinplifikatuaren bidez baloratutako aseguru-kontratuen artean bat ere ez da kostu bidezkoa.

Aseguru- eta berraseguru-kontratuen sarrerak eta gastuak

Aseguru-zerbitzuaren sarrerek barne hartzen dituzte kontratu-zerbitzuaren marjina askatzea, arrisku-doikuntza askatzea, ezbeharrak eta aurreikusitako gastuak askatzea eta, metodo sinplifikatuaren kasuan, primak askatzea.

Aseguru-zerbitzuaren gastu gisa kontabilizatzen dira ezbeharren benetako zenbatekoak, aseguru-erosketaren eta -zerbitzuaren gastuak, iraganeko zerbitzuekin lotutako diru-fluxuen aldaketak eta kostu bidezko kontratuekin lotutako zenbatekoak.

Aseguruengatiko gastuetan edo finantza-sarreretan sartuta daude, batetik, diruaren denbora-balioaren eta horren aldaketen eraginez aseguru-kontratuen multzoaren liburuetako zenbatekoetan izandako aldaketa eta, bestetik, finantza-arriskuaren eragina eta aldaketak.

Oro har, metodo orokorraren arabera neurtutako kontratuen kasuan, diruaren denbora-balioaren eta finantza-arriskuaren eraginez deskontu-tasa aldatu izanaren ondoriozko aseguru-kontratuetatik datozen finantza-gastuak eta -sarrerak aurkezteko, Taldeak horiek desagregatzea erabaki du. Hala, kontabilitateko hautu politiko horren alde eginez, «Aseguru-kontratuengatiko finantza-gastuak» eta «Bestelako emaitza global bat» atalak bereizi ditu, gastuak eta sarrerak horietan erregistratzeko. Horren helburua da kontabilitate-asimetriak minimizatzea FINA 9 arauaren eraginpeko finantza-inbertsioen balorazioan eta kontabilizazioan, eta baita FINA 17 arauaren eraginpeko aseguru-kontratuetan ere.

u) Hornidurak eta pasibo kontingenteak

Iraganeko gertaeren ondorioz sortutako Taldearen egungo obligazioak hartzen dira horniduratzat. Horien izaera argi eta garbi zehaztuta dago finantzetako egoera-orrien egunean, baina zenbatekoa edo kitatzeko unea ez. Horiek kitatzeko, mozkin ekonomikoak ematen dituzten baliabideak besterendu beharko ditu muga-egunean Taldeak. Obligazio horiek iturri ugari izan ditzakete:

i) Lege- edo kontratu-xedapen bat.

ii) Obligazio inplizitu edo isilbidezkoa, hirugarrenen aurrean ardura batzuk hartzeari buruz Taldeak sortutako baliozko itxaropenean jatorria duena. Itxaropenok sortzen dira Taldeak jendaurrean hartzen dituenean ardurak, iraganeko portaeren ondorioz edo jabari publikoko enpresa-politiketan oinarrituta.

iii) Araudiek alderdi jakin batzuetan duten bilakaera ia segurua; zehazki, Taldeak nahitaez bete behar dituen arautze-proiektuak.

Iraganeko gertaeren ondorioz sortutako obligazio posibleak dira pasibo kontingenteak, eta Taldearen borondatearekin zerikusirik ez duten etorkizuneko gertaera bat edo gehiago gertatzearen edo ez gertatzearen mende egoten dira. Taldearen egungo obligazioak sartzen dira pasibo kontingenteetan; hain zuzen ere, kitatuz gero mozkin ekonomikoak ematen dituzten baliabideak murriztea ekarriko ez dutenak eta behar adinako fidagarritasunez zehazteko moduko zenbatekoa dutenak, kasu oso arraroetan izan ezik.

Hornidura eta pasibo kontingenteak honela sailkatzen dira: probableak, gertatzea errazagoa denean ez gertatzea baino; posibleak, gertatzea zailagoa denean ez gertatzea baino; eta gertagaitzak, gertatzea oso zaila denean.

Taldeak hornidura eta pasibo kontingente nabarmen guztiak sartzen ditu urteko kontu bateratuetan; alegia, obligazioari erantzun behar izateko aukera handiagoa denean ez erantzutekoa baino. Posibletzat jotako pasibo kontingenteak ez dira urteko kontu bateratuetan kontabilizatzen. Besterik gabe horien berri ematen da, baldin eta ez bada irabazi ekonomikoak ematen dituzten baliabideak galtzeko aukerarik ikusten.

Hornidurak kuantifikatzeko, sortu dituen gertaeraren ondorioei buruzko informaziorik onena hartzen da kontuan, eta kontabilitate-itxiera guztietan estimatzen dira. Dagozkien obligazioei aurre egiteko erabiltzen dira, eta, obligazio horiek desagertu edo txikitu egiten badira, kopuru osoa edo zati bat itzultzen da.

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, bere jardueren ohiko garapenean sortutako hainbat auziri, erantzukizuni eta obligaziori erantzun beharra izan dezake Taldeak. Kontzeptu horiengatik Taldearen finantzetako egoera-orrietan erregistratutako hornidurak ekitaldi-amaieran dauden kasuen arabera eta etorkizunean egon daitezkeen kasuen proiekzioen arabera kalkulatzen dira, Taldearen esperientzia historikoaren eta barruko eta kanpoko lege-aholkularien azterketari jarraikiz. Taldeko lege-aholkularien eta bertako Entitate Nagusiaren goi-zuzendaritzaren ustetan, prozedura eta erreklamazio horiek ez dute eragin handirik izango, ez, behintzat, egindako hornidura baino handiagoa, mugaeguneratzen diren ekitaldietako urteko kontuetan.

v) Saltzeko daudenen artean sailkatu diren elementu-multzo besterengarrietako aktibo ez-korronteak eta pasiboak

Balantze bateratuko «Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» epigrafean aktiboak sartzen dira, duten izaera gorabehera, ustiapen-jardueretatik kanpo daudelarik aurreikuspenen arabera urtebeteko gauzatze- edo berreskuratze-epea dutenak, epigrafe honetan sailkatu zirenetik.

Salbuespenez, salmenta urtebetetik gorako epean gertatzea aurreikusten denean, Taldeak salmenta-kostua balio eguneratuan balioztatzen du, eta denbora igaro ahalako balio-igoera erregistratzen du galdu-irabazien kontu bateratuko «Saltzeko mantendutakoen artean sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen aktibo ez-korronteen eta elementu-multzo besterengarrietatik datozen irabaziak edo (–) galerak» epigrafean.

Hortaz, besterentzen direnean jasotzen den diruarekin berreskuratuko da, seguruenik, kontu-sail horien liburuetako zenbatekoa. Kontu-sailok izaera finantzariokoak eta ez-finantzariokoak izan daitezke.

Beraz, zordunek Taldeari zor osoak edo zati bat ordaintzeko emandako aktibo higiezinak edo bestelako aktibo ez-korronteak, salgai dauden aktibo ez-korrontetzat hartzen dira, salbu eta Taldeak horiek etengabe erabiltzea erabaki badu.

Bestalde, «Saltzeko mantendutakoen artean sailkatu diren elementu-multzo besterengarrietako pasiboak» epigrafean, Taldeko erabilera-taldeekin edo etendako eragiketekin zerikusia duten saldo hartzekodunak sartzen dira.

«Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» partidan sailkatutako aktiboak baloratzeko, oro har, kopururik txikiena hartzen da, kontabilizatzen diren unean duten kontabilitate-balioaren eta arrazoizko balioaren artean; azken horri, baina, aktibooi estimatu zaizkien salmenta-kostuak kentzen zaizkio, finantza-izaerakoak salbu, horiek 13.e.ix oharrean ezarritakoaren arabera baloratzen dira eta. «Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» epigrafean sailkatuta dirauten bitartean, beren izaeragatik amortizagarriak diren aktibo ukigarri eta ukiezinak ez dira amortizatzen.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinak erregistratzeko, erabilitako forma juridikoa edozein dela ere, bi zenbateko hauetatik txikiena hartzen da aintzat, hasiera batean: aplikatutako finantza-aktiboen liburuetako zenbatekoa —hau da, kostu amortizatua, narriadura estimatua kontuan izanda— edo aktiboak esleitzeko edo hartzeko unean duen arrazoizko balioa ken salmenta-kostu estimatuak —hau da, banakako tasazio osoetan emandako merkatuko balioa, Espainiako Bankuak onetsitako araudian jasotako irizpideen arabera berriz zenbatua, ken salmenta-kostuak—.

Prozesuko gastu guztiak sortzen diren epealdiko galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira, berehala. Erregistro-gastuak eta likidatutako zergak hasieran kontabilizatu zaien balioaz jaso ahal izango dira, baldin eta horrela arrazoizko balioa gainditzen ez bada, estimatutako salmenta-kostuak kendu ondoren. Esleipen-egunetik salmenta-egunera arte aktiboa mantentzeko eta babesteko egiten diren kostu guztiak (aseguruak, segurtasun-zerbitzuak eta beste) sortu diren epealdiko galdu-irabazien kontu bateratuan kontabilizatuko dira.

Esleitu edo jaso ondoren, arrazoizko balioa zenbatesteko abiapuntutzat erabiltzen den erreferentziazko balioa eguneratzen da. Salmenta-kostuaren arrazoizko balio garbia zehazteko, Taldeak kontuan hartzen ditu sozietate tasatzaileek —guztiak ere Espainiako Bankuko Erregistro berezian daude erregistratuta— egindako balorazioak, bai eta Espainiako Bankuak, bere esperientzian eta Espainiako banku-sektorearen inguruan duen informazioan oinarrituta erreferentziazko balioaren gainean zenbatetsi dituen deskontuak ere. Era berean, higiezinak 300.000 euroko edo hortik beherako arrazoizko balioa badu, balioztapen-eredu automatizatuak erabiliz eguneratuko da. Dena dela, higiezinek balantzean 3 urte ematen dituztenean, tasazio osoa eginez eguneratuko dira. Era berean, balorazioaren eguneratzea egiten duen tasazio-sozietatea ez da izango aurreko tasazioa egin duen berbera.

Higiezinen merkatuko prezioen eta gainerako aldagai makroekonomikoen bilakaerak eragina izan dezake balorazio horietan, ingurune ekonomikoaren eta egungo egoera geopolitikoaren ondorioz. Honenbestez, zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinen gainean Entitateak 2024ko abenduaren 31n erregistratuta dauzkan narriaduragatiko balio-zuzenketak bat datoz urteko kontu hauek formulatu diren datan goi-zuzendaritzako kideek duten zenbatespenik onenarekin.

Liburuetako zenbatekoa handiagoa bada aktiboen arrazoizko balioa baino (salmenta-kostuak kendu ondoren), Taldeak doikuntza egiten du aktiboon kontabilitate-balioan. Horrela, bada, soberakin hori galdu-irabazien kontu bateratuko «Saltzeko mantendutakoen artean sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen aktibo ez-korronteetatik eta elementu-multzo besterengarrietatik datozen irabaziak edo (–) galerak» epigrafean kontrapartida eginez jasotzen da. Aktiboen arrazoizko balioa hazi egiten bada aurrerago, Taldeak itzuli egin ditzake aurrez kontabilizatuta dituen galerak, eta aktiboen kontabilitate-balioa handitu dezake, narriatu aurreko zenbatekoaren mugarekin eta galdu-irabazien kontu bateratuko «Saltzeko mantendutakoen artean sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen elementu-multzo besterengarrietatik eta aktibo ez-korronteetatik datozen irabaziak edo (–) galerak» epigrafean kontrapartida eginez.

Eragiketa etenak

Eragiketa edo jarduera etentzat hartzen da Taldean besterendu egin den, edo beste era batera erabili den, edo salgai dagoen aktibo ez-korronte moduan sailkatu den eta, gainera, hauetako baldintzaren bat betetzen duen osagaia:

- Nabarmena eta gainerakotik independentea den ustiapenaren negozio-ildoa edo eremu geografikoa adierazten du.

- Nabarmena eta gainerakoetatik independentea den ustiapenaren negozio-ildoa edo eremu geografikoa besterentzeko edo beste bide batzuetatik eskuratzeko plan indibidual eta koordinatu baten atala da.

- Saltzeko asmo hutsez eskuratu den mendeko erakundea da.

Etendako eragiketatzat hartzen diren Taldeko kideek ekitaldian sorrarazitako emaitzak galdu-irabazien kontu bateratuko «Jarduera etenetatik datozen zerga ondorengo irabaziak edo (–) galerak» epigrafean jasotzen dira, Taldeko kidea jadanik aktibotik kanpo egon ala ez (ekitaldiaren bukaeran bertan jarraitzen badu). Etendako eragiketatzat hartu ondoren eragiketa jarraitutzat hartzea erabakiz gero, horien sarrerak eta gastuak, unean uneko galdu-irabazien kontu bateratuan ez ezik, urteko kontu bateratuetan argitaratutako ekitaldi konparatiboan ere jasotzen dira, kasuan kasuko ezaugarrien arabera dagozkien partidetan.

w) Diru-fluxuen egoera-orri bateratua

Diru-fluxuen egoera-orri bateratuan erabiltzen diren kontzeptuak honela definitzen dira:

i) Eskudiru-fluxuak: eskudiruaren eta antzekoen sarrerak eta irteerak. Likidezia handia eta balio-aldaketak izateko arrisku txikia duten epe laburreko inbertsioak sartzen dira antzekoetan.

ii) Ustiapen-jarduerak. Taldearen ohiko jarduerak eta inbertsio edo finantzaketakotzat hartu ezin diren bestelako jarduerak, eta jasotako edozein finantzaketarengatik ordaindutako interesak, finantzaketa-jarduera moduan sailkatutako finantza-pasiboei egokitu arren.

iii) Inbertsio-jarduerak. Epe luzeko aktiboak eta eskudiruan edo antzekoetan sartuta ez dauden beste inbertsio hauek eskuratzeko, besterentzeko edo beste bide batzuk erabiliz erabiltzeko jarduerak dira: aktibo ukigarriak, aktibo ukiezinak, mendekoetako inbertsioak, baterako negozioak eta elkartuak, «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafean sailkatutako aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak, eta talde horietan sartutako pasiboak.

Negozio edo jarduera-lerro bat osatzen duten aktibo edo pasiboen multzoa eskuratzeak edo besterentzeak eragindako aldaketak «Bestelako negozio-unitateak» partidan sartuko dira, banakako finantzetako egoera-orrietan, eta «Mendeko erakundeak eta bestelako negozio-unitateak» partidan, finantzetako egoera-orri bateratuetan, haien zeinuaren arabera.

iv) Finantzaketa-jarduerak: ondare garbi bateratuaren eta ustiapen-jardueretan sartzen ez diren pasiboen tamainan eta osaeran aldaketak eragiten dituzten jarduerak.

Taldeak balantze bateratuetako «Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko bestelako gordailuak» epigrafean sartutako saldoak hartzen ditu eskudiru eta antzekotzat.

x) Heziketako, Prestakuntzako eta Kooperatiba Sustapeneko Funtsa (HSF)

Heziketako eta Sustapeneko Funtsa balantze bateratuko «Bestelako pasiboak» epigrafean erregistratzen da.

Kooperatiben Legearen eta Entitate Nagusiaren estatutuen arabera funts horretara nahitaez egiten diren zuzkidurak ekitaldiko gastu gisa jasotzen dira, nahiz eta kuantifikazioa egiteko ekitaldiko emaitza hartzen den oinarri. Zuzkitzen diren aparteko kopuruak ekitaldiko emaitzaren aplikazio moduan kontabilizatuko dira.

Legeari jarraikiz Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Funtsari lotuta dauden dirulaguntzak, dohaintzak eta gainerako laguntzak, eta kooperatibak bazkideei ezarritako zehapen ekonomikoen funtsak, arautegiaren arabera funts horri lotuta badaude, kooperatibaren sarrera moduan kontabilizatuko dira, eta funts horretan sartu.

Heziketako, Prestakuntzako eta Kooperatiba Sustapeneko Funtsa bere xederako aplikatzen denean, baja ematen zaio eta, normalean, altxortegiko kontuetan egiten da abonua. Bestalde, funtsaren aplikazioa kreditu-erakundeak berezkoak dituen jardueren bidez gauzatzen denean, Heziketako, Prestakuntzako eta Kooperatiba Sustapeneko Funtsaren zenbatekoa txikitu egiten da eta, aldi berean, sarrera bat erregistratzen da kreditu-kooperatibaren galdu-irabazien kontuan, horrelako jardueretarako merkatuan dauden baldintzen arabera.

y) Ondare garbiaren aldaketen egoera-orri bateratua eta kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orri bateratua

Urteko kontu bateratu hauetan aurkeztu ditugun egoera-orri horiek ekitaldian ondare garbi bateratuak izan dituen aldakuntzen berri ematen dute. Segidan, bi egoera-orriotako informazioaren ezaugarri nagusiak zehaztuko ditugu:

i) Kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orri bateratua

Egoera-orri horretan, Taldeak ekitaldian bere jarduerarekin sortutako sarrera eta gastuak aurkezten dira, baina bereizita: batetik, ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan emaitza moduan erregistratutakoak eta, bestetik, indarreko araudian xedatutakoari jarraikiz zuzenean ondare garbi bateratuan erregistratutako gainerako sarrera eta gastuak.

Hortaz, egoera-orri horretan hauek aurkeztu ditugu:

a) Ekitaldiko emaitza bateratua.

b) «Bestelako emaitza global bat» moduan kontabilizatu diren eta emaitzetan birsailkatuko ez diren sarrera eta gastuen zenbateko garbia.

c) «Bestelako emaitza global bat» moduan kontabilizatu diren eta emaitzetan birsailka daitezkeen sarrera eta gastuen zenbateko garbia.

d) «Ekitaldiko guztizko emaitza globala», aurreko hirurak batuta kalkulatua.

«Bestelako emaitza global bat» epigrafean «Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak» moduan kontabilizatutako sarrera eta gastuetan egondako aldakuntzak honela banakatzen dira:

a) Prestazio mugatuko pentsio-planetako irabazi edo galera aktuarialak. Epealdiko irabaziak edo galerak jasoko ditu, horien eragileak hauek direnean: obligazioen balorazioan izandako aldaketak, hipotesi aktuarialen aldaketen eta aldeen ondorioz; planari lotutako aktiboen etekin jakin batzuk, eta aktiboaren mugaren aldakuntzak.

b) Saltzeko dauden aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak. Epealdiko galerak eta irabaziak jasoko ditu, aktibo horien balorazioaren ondorioz bestelako emaitza global batean erregistratu behar direnean eta ondoren emaitzetan birsailkatuko ez direnean.

c) Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetako kontabilizatutako bestelako sarrera eta gastuetan parte hartzea. Partida hori kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orri bateratuan soilik ageriko da, eta partaidetzaren metodoaz baloratutako entitateen epealdiko galerak eta irabaziak jasoko ditu, baldin eta bestelako emaitza global batean erregistratu behar badira eta ondoren ez badira emaitzetan birsailkatuko.

d) Arrazoizko balioan baloratu diren eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten ondare-tresnen arrazoizko balioaren aldaketak. Ondare garbiko tresnetako inbertsioen arrazoizko balioaren aldaketek epealdian eragindako galerak eta irabaziak jasoko ditu, Entitateak bestelako emaitza global batean kontabilizatzeko erabaki errebokaezina hartu duenean.

e) Arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituztela baloratu diren ondare-tresnen estaldura-kontabilitatearen irabazi edo galera garbiak. Arrazoizko balioaren estalduretan metatutako estalduraren eraginkortasunik ezak epealdian izandako aldaketa irudikatzen du. Estalitako partida ondare garbiko tresna bat da, arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituela baloratuta. Bi hauen arteko aldea jasoko du: «Arrazoizko balioan baloratu diren eta bestelako emaitza global batean aldakuntzak dituzten ondare-tresnen arrazoizko balioaren aldaketak (elementu estalia)» partidan erregistratutako ondare garbiko inbertsioaren arrazoizko balioaren aldakuntzarena eta «Arrazoizko balioan baloratu diren eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten ondare-tresnen arrazoizko balioaren aldaketak (estaldura-tresna)» partidan erregistratutako estaldura-deribatuen arrazoizko balioaren aldakuntzarena.

f) Arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak eragiten dituztela izendatutako finantza-pasiboen arrazoizko balioaren aldaketak, kreditu-arriskuaren aldaketei egoztekoak direnak. Arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak eragiten dituztela izendatutako finantza-pasiboen epealdiko arrazoizko balioaren aldaketak jasoko ditu, kreditu-arrisku propioaren aldaketei egoztekoak direnak.

«Bestelako emaitza global bat» epigrafean «Emaitzetan birsailka daitezkeen elementu» moduan kontabilizatutako sarrera eta gastuetan egon diren aldakuntzak honela banakatuko dira:

a) Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldura (zati eraginkorrarena). Atzerriko negozioetako estalduren (iraunkorren nahiz etenen) zati efektiboko kanbio-tasaren aldakuntzen ondorioz metatutako emaitzek epealdian izandako aldaketa jasoko du.

b) Dibisa-bihurketa. Dibisa funtzionaleko partidak aurkezpen-dirutara bihurtzearen ondorioz epealdian sortutako aldeak jasoko ditu.

c) Diru-fluxuen estaldurak (zati eraginkorrarenak). Horrelako estaldura-erlazioetan, estaldura-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntzen zati eraginkorrak epealdian izandako galerak eta irabaziak jasoko ditu.

d) Estaldura-tresnak (izendatu gabeko elementuak). Ondorengo elementuen arrazoizko balioan metatutako aldaketek epealdian izan dituzten aldakuntzak jasoko ditu, baldin eta estalduren osagai izendatu ez badira: aukeren denbora-balioarena, gerokoen kontratuen etorkizuneko elementuena eta finantza-tresnen kanbio-diferentzien oinarrizko diferentzialarena.

e) Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten zor-tresnak arrazoizko balioan. Tresna horiek epealdian izandako galerak edo irabaziak jasoko ditu, ez badira narriaduraren edo kanbio-diferentzien ondorioz gertatu. Azken horiek galdu-irabazien kontuko epigrafe hauetan erregistratuko dira, hurrenez hurren: «Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea» eta «Kanbio-diferentzia (irabazi edo galera) garbiak».

f) Saltzeko dauden aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak. Horrelako aktiboen balorazioaren ondorioz bestelako emaitza global batean erregistratu behar diren eta, geroago, emaitzetan birsailka daitezkeen epealdiko galerak eta irabaziak jasoko ditu.

g) Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetako kontabilizatutako bestelako sarrera eta gastuetan parte hartzea. Partida hori kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orri bateratuan soilik azalduko da. Partaidetzaren metodoaz baloratutako erakundeetatik datozen ekitaldiko galdu-irabaziak jasoko ditu, bestelako emaitza global batean erregistratu eta, geroago, emaitzetan birsailka daitezkeenak.

Horrez gain, aurreko ataleko partida bakoitza honela banakatuko da:

a) Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak: zuzenean ondare garbian kontabilizatutako sarreren zenbatekoa bilduko du, baina ekitaldian sortutako gastuak kenduta. Ekitaldian ondare garbian kontabilizatutako zenbatekoak partida horretan mantenduko dira, nahiz eta ekitaldi berean galdu-irabazien kontura edo aktibo eta pasiboen hasierako liburuetako zenbatekora transferitu edo beste partida batean birsailkatu, b), c) eta d) letren arabera, hurrenez hurren. Banakapena aurreko ataleko b) letrari dagokionean, «Ondare garbian kontabilizatutako dibisa-trukeagatiko irabaziak edo galerak» izena hartuko du.

b) Emaitzetara transferitua. Aurretik —ekitaldian bertan izan daiteke— ondare garbian kontabilizatutako balorazioagatiko galdu-irabazien zenbatekoa biltzen du; horiek galdu-irabazien kontuan onartzen dira (batzuetan, aurkezpen horren ondorioari «sarrera eta gastuen birziklapena» esaten zaio, eta transferitutako zenbatekoari «birsailkapenagatiko doikuntza»).

c) Estalitako elementuen hasierako liburuetako zenbatekora transferitua. Banakapen hori aurreko ataleko c) letrako partidarako aurkeztuko da soilik, eta aurretik —ekitaldian bertan izan daiteke— ondare garbian kontabilizatutako balorazioagatiko irabazien edo galeren zenbatekoa bilduko du, baldin eta diru-fluxuen estalduraren ondorioz aktiboen edo pasiboen liburuetako zenbatekoan kontabilizatzen badira.

d) Bestelako birsailkapenak. Partiden artean ekitaldian egindako intsuldaketen zenbatekoa bilduko du, titulu honetako arauetan ezarritako irizpideei jarraikiz.

Egoera-orri horretako partiden zenbatekoak kopuru gordinetan erregistratuko dira, eta azkenean, dagokion irabazien gaineko zerga —emaitzetan birsailka daitezkeen elementuena zein sailkatu ezin direnena— partida bereizi batean sartuko da.

ii) Ondare garbi bateratuko aldaketen egoera-orria

Egoera-orri horretan, ondare garbi bateratuan izandako mugimendu guztiak aurkezten dira, kontabilitate-irizpideen aldaketetan eta akats-zuzenketetan jatorria dutenak barne hartuta. Hortaz, ekitaldiaren hasieran eta amaieran ondare garbi bateratua osatzen duten partida guztiek liburuetan duten zenbatekoaren berdinkatzea jaso da egoera-orri horretan. Mugimenduak izaeraren arabera multzokatu dira kontu-sail hauetan:

a) Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak eta Akatsen zuzenketaren eraginak. Kontabilitate-politiken aldaketetan eta akatsen zuzenketan jatorria duten finantzetako egoera-orrietako saldoak atzeraeraginez berriro ematearen ondorioz ondare garbi bateratuan gertatutako aldaketak hartzen ditu barne.

b) Ekitaldiko guztizko emaitza globala. Lehenago adierazi ditugun eta Kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orri bateratuan erregistratu diren partida guztiak biltzen ditu.

c) Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak. Ondare garbi bateratuan erregistratutako gainerako partidak biltzen ditu, hala nola kapitalaren gehikuntzak edo murrizketak, emaitzen banaketa, norberaren kapital-tresnez egindako eragiketak, kapital-tresnen bidezko ordainketak, ondare garbi bateratuko partiden arteko intsuldaketak eta ondare garbiko beste edozein gehikuntza edo murrizketa.

z) Negozio-konbinazioak

Entitate edo batasun ekonomiko bi edo gehiago entitate- edo sozietate-talde bakarrean bateratzen dituen eragiketari esaten zaio negozio-konbinazioa.

Negozio-konbinazioaren ondorioz entitate bakarra sortzen denean eta bateratutako entitate bi edo gehiagoren bazkideei partaidetzak jaulkitzen zaizkienean, aurretik zegoen entitateetako bat eskuratzaile moduan hartuko da eta entitate batek beste bat eskuratzen duenean moduan kontabilizatuko da transakzioa.

Negozio-konbinazioak kontabilizatzeko, eskurapen-metodoa aplikatzen du Taldeak. Beste erakunde bat eskuratzeagatik transferitzen den kontraprestazioa honako hauei dagokie: transferitutako aktiboen arrazoizko balioari, erositako erakundearen aurreko jabeekin egindako pasiboei eta Entitateak jaulkitako ondareko partaidetzei. Transferitutako kontraprestazioan, kontraprestazio kontingenteko akordio batek eragindako edozein aktiboren edo pasiboren arrazoizko balioa sartzen da. Eskuratutako aktibo identifikagarriak eta negozio-konbinazio batean onartutako pasiboak eta pasibo kontingenteak, hasiera batean, arrazoizko balioan baloratzen dira, eskurapen-datan. Negozio-konbinazio bakoitzean, Entitateak arrazoizko balioan edo eskuratutako erakundearen aktibo garbien zenbateko kontabilizatuetan nagusi ez den partaidetzaren zati proportzionalarekin kontabiliza dezake eskuratutako erakundean nagusi ez den edozein partaidetza.

Eskurapenarekin zerikusia duten kostuak dagokien ekitaldiko gastu moduan kontabilizatzen dira.

Entitateak transferitu beharreko edozein kontraprestazio kontingente arrazoizko balioan jasotzen da, eskurapen-datan. Aktibotzat edo pasibotzat hartzen den kontraprestazio kontingenteari ondoren arrazoizko balioan gertatzen zaizkion aldaketak, KNA 39 arauaren arabera, emaitzetan kontabilizatzen dira, edo ondare garbiaren aldaketatzat jo. Ondare garbi bateratu moduan sailkatzen den kontraprestazio kontingentea ez da berriro baloratzen, eta haren ondorengo likidazioa ondare garbian kontabilizatzen da.

Merkataritzako funtsa honela baloratzen da, hasiera batean: transferitutako kontraprestazioaren soberakin gisa eta nagusi ez den partaidetzak eskuratutako aktibo identifikagarrien eta onartutako pasiboen arabera duen arrazoizko balio gisa. Kontraprestazio hori erositako mendeko erakundearen aktibo garbien arrazoizko balioa baino txikiagoa bada, aldea emaitzetan kontabilizatzen da.

Negozio-konbinazioaren datatik aurrera, urtebeteko epea («neurketa-epea») ezartzen da, eskuratzaileak aukera izan dezan kontabilizatutako behin-behineko zenbatekoak doitzeko, negozio-konbinazioaren ondorengo lehen urteko kontu bateratuak formulatzeko unean beharrezkoak diren zenbatespenak egin ostean.

aa) Merkataritzako funtsa

Negozio-konbinazioen kostuaren eta arrazoizko balioari eskuratutako erakundeen aktibo eta pasibo kontingenteak kenduta ematen duen eskurapen-ehunekoaren arteko alde positiboak merkataritzako funts moduan erregistratzen dira balantze bateratuko aktiboan. Beraz, merkataritzako funtsak hauxe adierazten du: Taldeak eskuratutako entitate baten aktiboen ondoriozko etorkizuneko etekin ekonomikoen ordainketa aurreratua, aktibo horiek banaka eta bereizita identifikatu eta kontabilizatzeko modukoak ez badira. Negozio-konbinazio batean kostu bidez eskuratzen denean soilik kontabilizatzen da. Merkataritzako funts horiek ez dira amortizatzen. Aitzitik, horien arrazoizko balioa erregistratutako kostu garbitik behera murriztuko duen narriaduraren bat egon den baloratzen da kontabilitate-itxieretan. Baiezkoan, saneatu egiten dira, galdu-irabazien kontu bateratuaren kontra.

Merkataritzako funtsak narriadura-zantzurik duen ikusteko, balorazioak egiten dira, banatutako mozkinen deskontuaren metodoa erabiliz, batez ere. Balorazioetan, parametro hauek hartzen dira kontuan:

- Negozioaren funtsezko hipotesiak. Hipotesi horietan oinarritzen dira balorazioan jasotako diru-fluxuen proiekzioak. Finantza-jarduera duten negozioetan hainbat aldagai proiektatzen dira, hala nola: kredituaren, berankortasunaren, bezeroen gordailuen eta interes-tasen bilakaera, aurreikusitako agertoki makroekonomiko zehatz baten eta kapital-eskakizun zehatz baten arabera.

- Aldagai makroekonomikoen zenbatespena, eta beste balio finantzario batzuk.

- Proiekzioen epea. Eskuarki, 5 urteko proiekzio-epea erabiltzen da. Hortik aurrera, irabazia eta errentagarritasuna errepikari bihurtzen dira. Ondore horietarako, balorazioaren unean dagoen egoera ekonomikoa hartzen da aintzat.

- Deskontu-tasa. Etorkizuneko dibidenduen egungo balioa (erabilera-balioa lortzeko erabilia) kalkulatzeko, merkatuko partaide baten ikuspegitik Entitateak duen kapital-kostua (Ke) erabili da deskontu-tasatzat. Hori zehazteko, CAPM (Capital Asset Pricing Model) metodoa erabiltzen da, formula honen arabera: «Ke = Rf + β = sozietatearen arrisku sistemikoaren koefizientea, Rm = espero den merkatu-errentagarritasuna eta α = arrisku ez-sistemikoagatiko prima».

- Hazkunde-tasa hori erabiltzen da diru-fluxuen proiekzioak azken aurreikuspenen epealdiaz harago estrapolatzeko. Makroekonomia-magnitude nagusien eta negozioaren funtsezko aldagaien epe luzeko estimazioetan oinarritzen da, finantza-merkatuen egoera une oro kontuan izanda. Bada, % 1eko betiko hazkunde-tasa estimatzen da.

- Merkataritzako funtsaren narriadura ebaluatzeko estimazioan egungo egoera ekonomiko eta geopolitikoa hartu dugu kontuan.

Merkataritzako funtsen narriaduragatiko galerak ez dira geroago itzultzen.

14. Bezeroarentzako arreta

Zerbitzu honek bezeroen kontsulta, kexa eta erreklamazioei erantzutea du helburu; horretarako, hainbat bide dituzte bezeroek.

Idazkia jasotzen denetik 2 hilabeteko epe ofiziala dago erantzuteko (hilabetekoa, erreklamatzailea kontsumitzailea bada), baldin eta ordainketa-zerbitzuei buruzko erreklamazioak ez badira, horiek gehienez ere 15 egun baliodunetan ebatzi behar dira eta. Dena den, Entitateak ahalik eta bizkorren erantzuteko konpromisoa du hartuta; hau da, aipatutako epeak iragan baino lehen.

Entitate Nagusiaren, Caja Laboral Gestión SGIIC SA eta Caja Laboral Pensiones GFP SA sozietateen Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren jarduerari dagokionez, 2024an 52.241 espediente ireki dira guztira (2023an 24.167). Horietatik, 47.400 tramitatu eta erantzun dira (2023an 22.658). 4.511 espediente tramitatu gabe geratu dira (2023an 1.509), aurkeztutako kexak eta erreklamazioak baztertzeko Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren erregelamenduan jasota dauden zenbait arrazoi tarteko. 2024ko abenduaren 31n, 330 espediente geratu dira onartzeko.

	2024	2023
Irekitako espediente-kopurua		
- Idatziak: liburuxka/gutuna	44.347	18.978
- Internet bidezkoak	7.226	4.476
- Telefono bidezkoak	-	1
- Erakunde publikoak: KIUB/gobernu autonomikoak	668	712
	52.241	**24.167**
Tramitatutako espediente-kopurua	**47.400**	**22.658**
Espedienteen izaera		
- Kexak	4.336	3.328
- Erreklamazioak	47.443	20.722
- Kontsultak	79	11
- Iradokizunak	42	1
- Zorionak edo eskerrak emateko gutunak	6	4
- Hainbat eskaera	335	100
- Bestelakoak	-	1
	52.241	**24.167**

	2024	2023
Erreklamatutako kopuruak		
- Entitatearen alde ebatzitako espedienteen zenbatekoak	1.239	2.935
- Bezeroaren alde ebatzitako espedienteen zenbatekoak:	21.370	5.374
Entitateak kalte-ordainetan emandako kopuruak	21.370	5.374
	22.609	**8.309**

Espedienteak irekitzeko arrazoiari dagokionez, jarduera-esparru hauek bereiz daitezke:

	2024	2023
Baldintza ekonomikoak	% 0	% 1
Komisioak eta gastuak	% 95	% 89
Informazioa falta da edo okerra da	% 1	% 1
Bezeroentzako zerbitzu zentralizatuak	% 1	% 1
Bulegoak, elementu objektiboengatik	% 0	% 0
Beharren estaldura	% 0	% 0
Bezeroekin harremanak izateko elementuak	% 1	% 2
Bestelakoak	% 2	% 6
- Arintasuna eta eraginkortasuna kutxazainetan	*% 0*	% 2
- Hainbat	*% 2*	% 4
	% 100	% 100

Erreklamatutako zenbatekoen ehunekoak, berriz, hauek dira:

	2024	2023
= < 10 €	% 5,84	% 0,04
> 10 < = 60 €	% 0,95	% 0,16
> 60 < = 100 €	% 0,39	% 0,17
> 100 < = 250 €	% 3,78	% 1,21
> 250 < = 1.000 €	% 82,41	% 82,87
> 1.000 €	% 6,63	% 15,56

Seguros Lagun Aro Vida SA sozietatearen Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak, berriz, 172 kexa eta erreklamazio jaso ditu 2024ko ekitaldian (128 2023an), eta horietako 179 espediente bideratu dira (2023an 117). Hauek dira 2024ko eta 2023ko ekitaldietan tramitatzeko irekita dauden espedienteetatik bideratutakoen emaitzak:

	2024	2023
Bezeroaren aldekoak	46	39
Entitatearen aldekoak	107	62
Bestelakoak	26	16
	179	117

Bezeroen aldeko kexa eta erreklamazioek 50 mila euroko kostua eragin diote 2024an Entitateari —2023an 55 mila euro izan ziren—. 15,61 egunekoa izan da kexa eta erreklamazioei erantzuteko batez besteko epea (10,83 egunekoa 2023an).

Seguros Lagun Aro SA sozietatearen Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak, ostera, 968 kexa eta erreklamazio jaso ditu ekitaldian (824 2023an), eta horietako 961 espediente bideratu dira (795 2023an).

Hauek dira 2024ko eta 2023ko ekitaldietan tramitatzeko irekita dauden espedienteetatik bideratutakoen emaitzak:

	2024	2023
Bezeroaren aldekoak	444	361
Entitatearen aldekoak	452	416
Bestelakoak	65	18
	961	795

Bezeroen aldeko kexa eta erreklamazioek 84 mila euroko kostua eragin diote 2024an Taldeari (2023an 67 mila euro izan ziren). 2024an 14,89 egunekoa izan da erantzuteko batez besteko epea (13,71 egunekoa 2023an).

Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU sozietatearen Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak, bestalde, 4 kexa eta erreklamazio jaso ditu 2024ko ekitaldian (1 2023koan), eta 4 espediente bideratu dira (1 2023koan).

Hauek dira 2024ko eta 2023ko ekitaldietan tramitatzeko irekita dauden espedienteetatik bideratutakoen emaitzak:

	2024	2023
Bezeroaren aldekoak	-	1
Entitatearen aldekoak	1	-
Bestelakoak	3	1
	4	2

Guztira, bezeroaren aldeko kexa eta erreklamazioek 0 euroko gastua ekarri diote Taldeari 2024an (28,03 eurokoa 2023an). 2024an 7,66 egunekoa izan da erantzuteko batez besteko epea (13 egunekoa 2023an).

15. Kreditu-arriskua

Kontrako alderdiak Entitate Nagusiari zor dizkion kopuru guztiak edo batzuk ez ordaintzearen nahiz hitzartutako epeetatik kanpo ibiltzearen ondorioz egon daitekeen galera-arriskua da kreditu-arriskua. Gestioaren ikuspegitik, bi arrisku-mota bereizten ditugu Caja Laboral Popular Coop. de Créditon: altxortegiko eta kapital-merkatuko jardueraren ondoriozkoa —finantza-erakundeak eta errenta finko pribatua— eta bezeroekiko kreditu-arriskua, inbertsio-jarduera tradizionalaren ondoriozkoa.

Azken horien harira, Kontseilu Errektoreak Eragiketa Batzorde Nagusian eskuordetu ditu arriskuei lotutako zenbateko eta figura guztien eskumenak, bai eta zenbateko-mugarik gabeko kobraezinak baimentzea ere. Batzorde Nagusiak, bere aldetik, Batzorde Delegatuan eskuordetzen ditu eskumenak, eta horrek Kreditu Arriskuaren eta Merkataritza Sarearen departamentuan. Sareko berrespen-ahalmena arrisku-mailaren eta alerta-sistema baten araberakoa da; arriskuaren bolumena, produktu-mota eta eragiketaren marjina hartzen dira kontuan.

Arriskuen Area hori zuzendari nagusiaren mende dago, eta Kreditu Arriskuaren, Metodologien eta Kreditu Arriskuen Euskarriaren eta Aholkularitza Juridikoaren departamentuak biltzen ditu. Beraz, kreditu-arriskua modelizatu, onartu, jarraitu eta berreskuratzeko prozesuetan efizientzia handitzea ekarri du, bai eta Entitate Nagusiaren arriskuen kontrol integralean sakontzea ere.

Etxeko eta merkataritzako kreditu-arriskuari dagokionez, alderdi horiek guztiak Kontseilu Errektoreak azken eguneratzea 2025eko urtarrilaren 31n onetsi zion Arrisku-politikari buruzko eskuliburuan eta horri lotutako beste dokumentu batzuetan daude zehaztuta; hauek dira beste dokumentu horiek: Partikularren arriskua onartzeko politika, Berme-politika, Prezio-politika eta Berreskuratze-politika, bai eta prozeduren alorrean dagozkien dokumentu guztiak ere.

Dokumentu horietan, kreditu-arriskuak eman, kontrolatu eta jarraitzearen alorreko prozedurak zehazten dira, bai eta erabil daitezkeen eredu prediktiboen, horien aldagaien, haztapenen, arriskuak berresteko eskudantzia eta irizpideen, onarpen-prozesuaren eta arriskuak arindu eta murrizteko politiken azalpena ere.

Entitate Nagusiak politika, metodo eta prozedura horiei jarraipen eraginkorra egiteko ezarritako kontrol-mekanismoak Entitate Nagusian ezarri diren Arrisku Globalaren Kontrolerako Sistemetan euskarritzen dira eta Barne Ikuskaritzako Departamentuaren ikuskapen independentean oinarritu, arriskua onartzeko eta kudeatzeko sistemen kalitatea bermatuz.

2020ko ekitalditik, hasteko pandemiak eragindako egoeragatik eta, ostean, inflazioak eta interes-tasek izandako gorakada handia dela eta, Entitate Nagusiak indartu egin ditu familien, negozioen eta enpresen arriskuak kontrolatzeko metodologiak. Familietako arriskuari dagokionez, moratoria publiko zein pribatuak dituzten bezeroek zalantzagarritasunarekiko duten portaera berrikusten du Taldeak hainbatean behin. Negozio eta enpresen alorrean, jarraipen goiztiarra eta kalifikazio-sistema automatikoak sendotu ditu.

Kreditu Arriskuen Departamentua zorroan sartutako enpresak onartu eta horiei jarraipena egiteaz arduratzen da, Enpresa Handien Arriskuen Azterketa eta ETE-en Arriskuen Azterketa sekzioen bitartez. Negozioak eta Enpresa Txikiak sekzioak, berriz, segmentu horiek onartzearen ardura du, eta Partikularren sekzioak etxeko negozioaren arriskua onartzearena.

Adiskidantzako Berreskurapenaren eta Auzi-aurrearen sekzioak, ostera, berandutze aurreko alertei lotutako protokoloak kudeatzea eta adiskidantzako konponketaren faseko (< 60 eguneko ez-ordaintzeko) eta auzi-aurreko faseko (> 60 eguneko ez-ordaintzeko) eragiketetan ahalik eta berreskurapenik gehien lortzea du helburu.

Bukatzeko, Aholkularitza Juridikoa arrisku-eragiketetan aholkularitza eta estaldura dokumental juridikoa emateaz arduratzen da, hala hasierako eragiketetan, nola zorraren birfinantzamendu edo berregituratze posibleetan. Berreskuratzeko auzia kudeatzea eta bezeroen eta hirugarrenen erreklamazioen aurrean Taldeari defentsa juridikoa ematea ere haren ardura da.

Metodologien sekzioa arduratzen da eragiketen kreditu-arriskua ebaluatzeko barne-ereduak sortu eta mantentzeaz. Caja Laboral Popular Coop. de Créditok bere *rating*- eta *scoring*-ereduak garatu ditu, bezeroak (*rating*) eta eragiketak (*scoring*) bakoitzaren arrisku-mailaren arabera bereizteko. Horrela, arriskuaren onarpen erreaktiborako prozesuari *scoring* lotesleen bidez erantzuten zaio Partikularretan. Horrekin batera, gainera, *rating*ean oinarritutako aurrez emandako kontsumorako mailegu proaktiboak eskaintzen dira, eta bezeroak automatikoki beregana ditzake, eskura dituen kanalen bidez. Enpresen Arean, berriz, analista-gestorea binomioan oinarritutako eskemaren arabera funtzionatzen dute onarpen-prozesuek, eta bezeroak-analista binomioan oinarrituta zorroratzen dira. Erabakiak hartzeko, barne-ratinga eta berandutze aurreko alerta-eredua erabiltzen ditu analistak euskarritzat. Barneko ereduak, hortaz, oinarrizkoak dira arriskua emateari begira, eta, gainera, espero daitekeen galera eta eragiketa bakoitzari esleitutako kapital erregulatorioa kalkulatzeko aukera ematen diote Entitate Nagusiari.

Sistematikoki berrikusten diren barruko eredu horiek, beraz, erabakitze-prozesuetan ez ezik, datu-base integratuak eraiki eta garatzeko ere erabiltzen dira, CRR2aren kapital-eskakizunen barruan zorroztasunak, espero diren galerak, kapital kontsumoa... kalkulatzeko, alegia. Bestalde, bai *scoring*-ereduek bai *rating*-ereduek partikularren eta enpresaren areetako eragiketei lotutako kostuak kalkulatzeko eta *pricing*a ezartzeko aukera ematen diote Entitate Nagusiari.

Arriskua arintzeko eta murrizteko politikei dagokienez, helburu horrekin hainbat bide erabiltzen dira:

- Onarpen-prozesuan, onartzeko irizpideak mailegu-hartzaileen ordaintzeko gaitasunean oinarritzen badira ere —hori estimatzeko, funtsezkoak dira barne-ereduak—, bermeak dira zorrak berreskuratzeko bigarren bidea. Aintzat harturik inbertsio-jarduerarik handiena etxebizitzaren finantzaketara bideratuta dagoela, hipoteka-bermea da berme nagusia, eta eragiketen LTV erlazioa baloratzen da zehazki. Halaber, garrantzi handikoa da abal bidezko bermea; pisu espezifiko txikiagoa dute, berriz, diru-gordailuen bermeek eta finantza-aktiboenek.

- Jarraipen-prozesuan, berandutze aurreko barne-ereduak erabiltzen ditu Entitate Nagusiak. Horien bidez, ez-ordaintzeei aurrea hartzen zaie, eta ez-ordaintzeak gertatzeko aukera handiak proaktibotasunez kudeatzen dira.

- Berreskurapenen gestioari dagokionez, prozedura bat dago finkatuta; horren arabera, hainbat eragilek hartzen dute parte berandutzea berreskuratzen, bezero berankorra zer fasetan dagoen aintzat hartuta. Testuinguru horretan, berreskurapena kudeatzen barruko eragileek (bulegoak, Telebankak, auzi-aurreak eta auziak) eta kanpokoek (berreskuratze-agentziek) hartzen dute parte.

Entitate Nagusiak, oro har, berme errealak ondasun higiezin moduan baloratzen ditu, tasazio-balioan. Gainera, higiezinen balioa eguneratzeko politika finkatu du, Espainiako Bankuaren araudian ezarritako errekerimenduei jarraikiz.

Altxortegiaren eta Kapital-merkatuaren alorretan, finantza-erakundeekiko kreditu-arriskuari eta errenta finko pribatuari dagokienez, arrisku-politikaren azken eguneratzea 2024ko urtarrilaren 31ko Kontseilu Errektorean onetsi zen eta Entitateak kaudimenaren eta MREL ratioaren alorretan duen arriskuarekiko grinaren araberako muga globala ezartzen du Altxortegiaren jarduerarako. Bestalde, mugak finkatzen ditu kontrako alderdiaren arabera, erreferentziaren nahiz gestorearen ondoriozko kontzentrazioaren arabera eta herrialdearen arabera. Horretarako, mugak finkatzeko prozedura ezarri da, kanpoko *rating*ak eta alerta-sistema oinarri hartuta.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

Ondoren, Bezeroen maileguen eta aurrerakinen kontrako alderdiagatiko 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko banakapena aurkeztuko dugu, «Bestelako finantza-aktiboak» sartu gabe. Berme nagusietako bakoitzak estaltzen duen zenbatekoa zehazteaz gain, berme errealeko finantzaketen banaketaren berri ere ematen dugu, finantzaketen kontabilitate-balioak eskura dugun bermearen azken tasazioaren edo balorazioaren zenbatekoaren gainean duen ehunekoaren arabera.

2024

				Berme erreala duten maileguak. Eskura dagoen azken *loan to value* tasazioaren kopuruaren gaineko liburuetako zenbatekoa				
	Guztira	Horietatik: higiezin-bermea	Horietatik: gainerako berme errealak	% 40koa edo txikiagoa	% 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik.	% 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik.	% 80koa baino hand. eta % 100ekoa edo txik.	% 100ekoa baino handiagoa
Administrazio publikoak	1.066.872	2.160	3.234	2.160	-	-	-	3.234
Bestelako finantza-sozietateak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera finantzarioa)	76.650	47.251	238	40.958	5.489	666	89	286
Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera ez-finantzarioa) (helburuaren arabera banakatuta)	2.957.490	741.130	183.912	326.797	272.339	106.320	13.481	206.107
– Eraikuntza eta higiezinen sustapena (lurzorua barne)	26.677	25.418	-	2.550	7.817	7.935	463	6.653
– Obra zibileko eraikuntza	61.536	8.931	7.751	3.079	4.504	851	169	8.079
– Gainerako helburuak	2.869.277	706.781	176.161	321.168	260.018	97.534	12.849	191.375
Enpresa handiak	865.634	44.974	25.746	35.262	7.609	863	1.236	25.751
ETEak eta enpresaburu indibidualak	2.003.643	661.807	150.415	285.906	252.409	96.671	11.613	165.624
Gainerako etxeak (helburuaren arabera banakatuta)	10.880.903	9.927.550	11.140	2.644.259	2.917.508	3.529.754	460.646	386.524
– Etxebizitzak	10.053.687	9.806.215	9.527	2.576.204	2.882.664	3.515.899	458.716	382.260
– Kontsumoa	483.721	21.928	360	14.741	5.862	905	453	327
– Bestelako helburuak	343.495	99.407	1.253	53.314	28.982	12.950	1.477	3.937
GUZTIRA	14.981.916	10.718.091	198.524	3.014.174	3.195.336	3.636.740	474.216	596.151
PRO-MEMORIA Birfinantzatzeko, birfinantzatutako eta berregituratutako eragiketak	122.334	79.396	57	25.054	21.743	15.336	7.317	10.004

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

2023

				Berme erreala duten maileguak. Eskura dagoen azken *loan* to value tasazioaren kopuruaren gaineko liburuetako zenbatekoa				
	Guztira	Horietatik: higiezin-bermea	Horietatik: gainerako berme errealak	% 40koa edo txikiagoa	% 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik.	% 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik.	% 80koa baino hand. eta % 100koa edo txik.	% 100ekoa baino handiagoa
Administrazio publikoak	1.080.739	2.850	1.102	2.850	-	-	-	1.102
Bestelako finantza-sozietateak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera finantzarioa)	59.991	36.271	227	20.398	5.488	238	10.095	279
Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera ez-finantzarioa) (helburuaren arabera banakatuta)	2.797.156	705.242	151.880	312.616	243.867	105.748	15.139	179.752
– Eraikuntza eta higiezinen sustapena (lurzorua barne)	21.050	19.614	-	3.542	2.657	2.255	2.324	8.836
– Obra zibileko eraikuntza	61.467	11.065	7.043	4.093	3.208	3.228	105	7.474
– Gainerako helburuak	2.714.639	674.563	144.836	304.981	238.001	100.265	12.710	163.442
Enpresa handiak	771.606	30.107	18.242	21.447	6.264	1.687	573	18.378
ETEak eta enpresaburu indibidualak	1.943.033	644.456	126.594	283.534	231.738	98.577	12.138	145.063
Gainerako etxeak (helburuaren arabera banakatuta)	10.910.950	9.953.217	14.116	2.701.065	2.844.285	3.400.398	521.605	499.980
– Etxebizitzak	10.072.128	9.819.053	11.522	2.625.423	2.808.921	3.384.932	518.427	492.872
– Kontsumoa	487.291	31.077	396	20.819	6.915	1.895	1.203	641
– Bestelako helburuak	351.531	103.087	2.198	54.823	28.450	13.571	1.975	6.466
GUZTIRA	14.848.836	10.697.580	167.325	3.036.929	3.093.640	3.506.384	546.839	681.113
PRO-MEMORIA Birfinantzatzeko, birfinantzatutako eta berregituratutako eragiketak	141.476	87.582	85	27.569	19.155	16.943	10.145	13.855

Ondoren, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n berme nagusiek estalita dituzten Entitate Nagusiaren kreditu-arriskuen gehienezko zenbatekoaren xehetasuna emango dugu:

	2024							
	Higiezin-bermea	Pignorazio-bermea	Bestelako berme errealak	Abal edo asegurudun berme pertsonala	Abalik gabeko berme pertsonala	Sailkatu gabea	Balorazio-doikuntzak	Guztira
Bezeroen maileguak eta aurrerakinak								
Saldo erabilia	10.441.010	8.977	319.753	1.227.881	2.726.161	576.008	(213.354)	15.086.436
Bermearen balioa	26.209.590	15.325	1.340.173	1.106.955	24.221	-	-	28.696.264

	2023							
	Higiezin-bermea	Pignorazio-bermea	Bestelako berme errealak	Abal edo asegurudun berme pertsonala	Abalik gabeko berme pertsonala	Sailkatu gabea	Balorazio-doikuntzak	Guztira
Bezeroen maileguak eta aurrerakinak								
Saldo erabilia	10.459.274	11.086	303.791	1.303.270	2.700.659	442.370	(247.327)	14.973.123
Bermearen balioa	26.118.666	17.945	1.252.148	1.194.433	21.590	-	-	28.604.782

Hona hemen bezeroekiko eragiketak kobratzen direla bermatzeko jasotako bermeen balioa, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31koa, berme errealak eta bestelako bermeak bereizita:

Jasotako bermeen balioa	**2024**	**2023**
Berme errealen balioa	27.549.763	27.370.814
Horietatik: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu	*428.958*	*449.850*
Bestelako bermeen balioa	1.146.501	1.233.968
Horietatik: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu	*85.310*	*103.819*
Jasotako bermeen balioa guztira	**28.696.264**	**28.604.782**

Jarraian, 2024ko abenduaren 31n eta 2023ko abenduaren 31n emanda dauden finantza-bermeen balioari buruzko informazioa emango dugu:

	2024	**2023**
Emandako maileguen konpromisoak	1.307.860	1.180.033
Horietatik: zalantzazkoen artean sailkatutako zenbatekoa	*8.529*	*9.584*
Balantzeko pasiboan erregistratutako zenbatekoa	-	-
Emandako finantza-bermeak	160.325	159.686
Horietatik: zalantzazkoen artean sailkatutako zenbatekoa	*1.994*	*10.916*
Balantzeko pasiboan erregistratutako zenbatekoa	8.754	11.097
Emandako bestelako konpromisoak	468.591	442.426
Horietatik: zalantzazkoen artean sailkatutako zenbatekoa	*3.237*	*4.575*
Balantzeko pasiboan erregistratutako zenbatekoa	1.711	3.294

Taldeak argibide hauek eman ditu, eraikuntza eta higiezinen sustapena finantzatzen, etxebizitzaren erosketa eta zorrak ordaintzeko eskuratutako aktiboak finantzatzen eta merkatuetako finantzaketa-beharrak baloratzen erabili beharreko gardentasunaz Espainiako Bankuak emandako gomendioei jarraikiz eta eskatzen diren banakapen-ereduak aintzat hartuz:

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

a) Eraikuntzaren eta higiezinen sustapenaren sektorearekiko esposizioa

Eraikuntzari eta higiezinen sustapenari zuzendutako finantzaketa eta estaldura hauek dira, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n:

	2024		
	Liburuetako zenbateko gordina	**Berme erreal eraginkorren gehieneko zenbateko berreskuragarriaren gaineko esposizio gordinaren soberakina**	**Balio-narriadura metatua**
Eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne) (Espainiako negozioak)	**45.177**	**22.528**	**18.499**
Horietatik: ez-betetzedunak/zalantzazkoak	12.104	11.911	11.097
Pro-memoria:			
Aktibo kobraezinak	93.673		

Pro-memoria:	**Zenbatekoa**
- Administrazio publikoei ez beste bezeroei emandako maileguak (Espainiako negozioetan)	13.915.027
- Aktiboa guztira (negozio guztietan)	27.107.255
- Balio-narriadura eta ez-zalantzazkoen artean sailkatutako esposizioetarako hornidurak (negozio guztietan)	151.511

	2023		
	Liburuetako zenbateko gordina	**Berme erreal eraginkorren gehieneko zenbateko berreskuragarriaren gaineko esposizio gordinaren soberakina**	**Balio-narriadura metatua**
Eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne) (Espainiako negozioak)	**43.274**	**25.918**	**22.224**
Horietatik: ez-betetzedunak/zalantzazkoak	16.887	15.481	14.649
Pro-memoria:			
Aktibo kobraezinak	93.679		

Pro-memoria:	**Zenbatekoa**
- Administrazio publikoei ez beste bezeroei emandako maileguak (Espainiako negozioetan)	13.767.199
- Aktiboa guztira (negozio guztietan)	26.589.491
- Balio-narriadura eta ez-zalantzazkoen artean sailkatutako esposizioetarako hornidurak (negozio guztietan)	135.668

Jarraian, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n eraikuntzara, higiezinen sustapenera eta etxebizitza erostera bideratutako finantzaketaren banakapena aurkeztuko dugu:

	Eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa. Liburuetako zenbateko gordina	
	2024	**2023**
Ondasun higiezinen bermerik gabe	8.889	10.366
Ondasun higiezinen bermearekin	36.288	32.908
Eraikinak eta bukatutako bestelako eraikuntzak	14.966	18.816
Etxebizitza	13.149	16.166
Gainerakoetan	1.817	2.650
Eraikinak eta eraikitze-bidean dauden bestelako eraikuntzak	1.443	733
Etxebizitza	1.393	683
Gainerakoetan	50	50
Lurzorua	19.879	13.359
Hiri-lurzoru finkatua	19.665	13.140
Gainerako lurzorua	214	219
Guztira	**45.177**	**43.274**

Hauxe da familiei etxebizitza erosteko emandako kredituen xehakapena, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n:

	2024		2023	
	Liburuetako zenbateko gordina	Horietatik: zalantzazkoak	Liburuetako zenbateko gordina	Horietatik: zalantzazkoak
Etxebizitza eskuratzeko maileguak	**9.865.215**	**124.643**	**9.875.485**	**126.391**
Hipoteka-bermerik gabe	199.712	2.018	206.825	2.586
Hipoteka-bermearekin	9.665.503	122.625	9.668.660	123.805

Hauek dira familiei etxebizitza erosteko emandako hipoteka-bermedun kredituaren banakapenak, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n eskura dagoen azken tasazioaren gainean arrisku osoak duen ehunekoaren arabera:

	Azken *loan to value* tasazioaren zenbatekoaren gaineko liburuetako zenbateko gordina					
	2024					
	% 40koa edo txikiagoa	% 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik.	% 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik.	% 80koa baino hand. eta % 100ekoa edo txik.	% 100ekoa baino handiagoa	Guztira
Liburuetako zenbateko gordina	2.454.337	2.836.960	3.498.112	467.779	408.315	9.665.503
Horietatik: ez-betetzedunak/zalantzazkoak	19.234	32.832	27.485	15.418	27.656	122.625

	Azken *loan to value* tasazioaren zenbatekoaren gaineko liburuetako zenbateko gordina					
	2023					
	% 40koa edo txikiagoa	% 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik.	% 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik.	% 80koa baino hand. eta % 100ekoa edo txik.	% 100ekoa baino handiagoa	Guztira
Liburuetako zenbateko gordina	2.495.263	2.760.566	3.366.123	524.617	522.091	9.668.660
Horietatik: ez-betetzedunak/zalantzazkoak	14.995	22.376	28.298	19.162	38.974	123.805

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

Hona hemen zorrak ordaintzeko jasotako aktiboen xehetasuna, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n:

	2024		2023	
	Liburuetako zenbateko gordina	**Balio-narriadura metatua**	**Liburuetako zenbateko gordina**	**Balio-narriadura metatua**
Eraikuntzako eta higiezinen sustapeneko enpresetarako finantzaketetatik datozen aktibo higiezinak	328.751	327.477	376.811	343.243
Amaitutako eraikinak eta eraikuntzak	17.933	17.922	16.995	16.962
Etxebizitza	5.376	5.376	5.066	5.066
Gainerakoetan	12.557	12.546	11.929	11.896
Eraikinak eta eraikitze-bidean dauden bestelako eraikuntzak	12.103	10.840	53.596	20.061
Etxebizitza	8.459	8.212	49.694	17.078
Gainerakoetan	3.644	2.628	3.902	2.983
Lursailak	298.715	298.715	306.220	306.220
Hiri-lurzoru finkatua	117.057	117.057	121.041	121.041
Gainerako lurzorua	181.658	181.658	185.179	185.179
Familiei etxebizitza erosteko emandako hipoteka-finantzaketetatik datozen aktibo higiezinak	18.963	13.538	22.335	14.176
Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako gainerako aktibo higiezinak	13.773	10.885	26.024	21.851
Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako kapital-tresnak	-	-	-	-
Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinak dituzten erakundeen kapital-tresnak	-	-	-	-
Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinak dituzten erakundeentzako finantzaketa	-	-	-	-
Guztira	**361.487**	**351.900**	**425.170**	**379.270**

Segidan, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n eraikuntzarako eta higiezinen sustapenerako erabilitako finantzaketari lotutako bermeen balioa aurkeztuko dugu:

Jasotako bermeen balioa – Eraikuntza eta higiezinen sustapena	**2024**	**2023**
Berme errealen balioa	147.195	153.458
Horietatik: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu	*25.374*	*29.109*
Bestelako bermeen balioa	3.111	1.684
Horietatik: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu	-	-
Jasotako bermeen balioa guztira	**150.306**	**155.142**

Eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako eragiketei emandako berme finantzarioen balioa, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31koa, aurkeztuko dugu jarraian:

	2024	**2023**
Eraikuntzarako eta higiezinen sustapenerako emandako finantza-bermeak	35.162	23.709
Balantzeko pasiboan erregistratutako zenbatekoa	636	767

8/2012 Legeak xedatutakoa betez, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n Entitate Nagusiak aktiboak kudeatzeko sozietate batean ditu eraikuntza eta higiezinen sustapena finantzatzetik datozen aktibo higiezinak. Horien xehetasuna eta partaidetzaren ehunekoa urteko kontu bateratu hauen txostenaren I. eranskinean azaltzen da.

b) Birfinantzamendu-eragiketak

Entitate Nagusiak onartuta dauka arriskuak berrantolatzeko politika. Horren arabera, arriskuak kudeatzeko tresna da eragiketak berrantolatzea, eta adiskidantzako berreskurapenera zuzenduta dago. Hala, batetik birfinantzamendu-eragiketak eta bestetik berregituratutako edo berritutako eragiketak bereizten dira. Lehenengoetan, eragiketa berri bat ematen da aurretikoa kitatzeko; bigarrenetan, irekita dagoen eragiketa baten baldintza bat edo batzuk aldatu egiten dira.

Politika horretan, halaber, halako eragiketak berresteko ahalmenak ezarri dira, horiek ordaindu gabeko kuotak (berankorrak) izan ala ez. Ahalmen hori Arriskuen Gestioaren Departamentuak (eta bere sekzioek) izango du beti.

2020ko ekitaldian, 3/2020 Zirkularra sartu zen indarrean, birfinantzamendu eta berregituratze jakin batzuen kontabilitate-tratamendua aldatu zuena (2.3 oharra). Birfinantzamendu- edo berregituratze-eragiketak Stage 1 multzokoen artean sailkatzen ez direnean, honela sailkatuko dira:

b.1) Stage 2 - Zaintza bereziko arrisku normala

Zalantzazkoa eta kobraezina ez dena, baina ahuleziak dituena. Operatiboki, gainerakoak baztertu ondoren esleituko da tipologia hori: birfinantzatzeko edo berregituratzeko eragiketa geroago zerrendatuko diren tipologiaren batean sailkatzen ez bada, baina kreditu-arriskuan hazkunde nabarmena badu.

b.2) Stage 3 - Zalantzazkoa, berankortasunaren ondorioz

90 egunetik gorako ez-betetzeak dituzten birfinantzatutako edo berregituratutako eragiketak.

b.3) Stage 3 - Zalantzazkoa, berankortasuna ez den beste arrazoi batzuengatik

Osorik itzuliko den arrazoizko zalantzak daudenean. Egoera horren aztarnak edo adierazleak aztertuko dira.

Kreditu-arriskuagatiko galera (nahitaezko zuzkidura) zenbatespen kolektibo bidez estaliko da, salbu eta «garrantzizkotzat» jotzen direnak (3 milioi eurotik gorakoak, zalantzazko eragiketetan eta zaintza bereziko arrisku normalekoetan) edota faktore ez-automatikoengatik «Zalantzazkoa, berankortasuna ez den beste arrazoi batzuengatik» multzoan sailkatu direnak. Halakoetan, banaka aztertuz erabakiko da beharrezko zuzkidura.

Banakako zenbatespena egiteko, eredutik lortutako zuzkidura-proposamena izango du arrisku-analistak esku artean, eta, azkenean, ereduaren proposamena eta eragiketaz duen ezagutza aintzat hartuta erabakiko du beharrezko zuzkidura.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

FINA 9aren errekerimenduei jarraikiz; eragiketak birfinantzatzekoen, birfinantzatutakoen eta berregituratutakoen artean bereizteko irizpideak zehazten dituzten 2012ko irailaren 28ko 6/2012 Zirkularrak eta 2017ko azaroaren 27ko 4/2017 Zirkularrak egindako aldaketak betez, eta Entitate Nagusiak horren harira zehaztutako politiken arabera, birfinantzatzeko, birfinantzatutako eta berregituratutako eragiketen 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko xehetasunak azalduko ditugu jarraian.

2024ko ekitaldia

	GUZTIRA							Horietatik: ez-betetzedunak/zalantzazkoak						
	Berme errealik gabe		Berme errealarekin				Balio-narriadura metatua	Berme errealik gabe		Berme errealarekin				Balio-narriadura metatua
	Eragiketa-kopurua	Liburuetako zenbateko gordina	Eragiketa-kopurua	Liburuetako zenbateko gordina	Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa: Higiezin-bermea	Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa: Gainerako berme errealak		Eragiketa-kopurua	Liburuetako zenbateko gordina	Eragiketa-kopurua	Liburuetako zenbateko gordina	Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa: Higiezin-bermea	Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa: Gainerako berme errealak	
Kreditu-erakundeak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Administrazio publikoak	-	-	1	4.320	4.320	-	(2.160)	-	-	1	4.320	4.320	-	(2.160)
Bestelako finantza-sozietateak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera finantzarioa)	2	12	2	247	247	-	(8)	1	10	2	247	247	-	(7)
Finantzen alorrekoak ez diren sozietateak eta enpresaburu indibidualak (finantzen alorrekoa ez den enpresa-jarduera)	762	60.188	282	39.240	36.132	121	(37.256)	422	34.974	217	25.104	23.644	104	(25.953)
Horietatik: eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne)	4	8.475	20	9.245	7.686	-	(14.348)	3	4.292	16	3.547	3.500	-	(7.512)
Gainerako familiak	595	7.142	766	79.241	74.919	16	(28.632)	308	4.185	503	52.628	49.252	-	(25.570)
GUZTIRA	**1.359**	**67.342**	**1.051**	**123.048**	**115.618**	**137**	**(68.056)**	**731**	**39.169**	723	**82.299**	**77.463**	**104**	**(53.690)**
INFORMAZIO GEHIGARRIA														
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronte eta elementu-multzo besterengarri moduan sailkatutako finantzaketa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-

2023ko ekitaldia

	GUZTIRA							Horietatik: ez-betetzedunak/zalantzazkoak						
	Berme errealik gabe		Berme errealarekin				Balio-narriadura metatua	Berme errealik gabe		Berme errealarekin				Balio-narriadura metatua
	Eragiketa-kopurua	Liburuetako zenbateko gordina	Eragiketa-kopurua	Liburuetako zenbateko gordina	Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa: Higiezin-bermea	Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa: Gainerako berme errealak		Eragiketa-kopurua	Liburuetako zenbateko gordina	Eragiketa-kopurua	Liburuetako zenbateko gordina	Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa: Higiezin-bermea	Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa: Gainerako berme errealak	
Kreditu-erakundeak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Administrazio publikoak	-	-	1	5.700	5.700	-	(2.850)	-	-	1	5.700	5.700	-	(2.850)
Bestelako finantza-sozietateak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera finantzarioa)	5	33	2	255	255	-	(23)	4	33	2	255	255	-	(23)
Finantzen alorrekoak ez diren sozietateak eta enpresaburu indibidualak (finantzen alorrekoa ez den enpresa-jarduera)	971	100.532	308	47.978	44.134	171	(72.103)	539	59.050	245	33.396	31.143	107	(57.996)
Horietatik: eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne)	5	9.813	21	12.771	10.931	-	(18.216)	4	5.041	16	6.716	6.404	-	(10.816)
Gainerako familiak	647	7.464	854	87.097	80.188	15	(32.607)	348	4.498	548	58.331	53.352	-	(29.336)
GUZTIRA	**1.623**	**108.029**	**1.165**	**141.030**	**130.277**	**186**	**(107.583)**	**891**	**63.581**	**796**	**97.682**	**90.450**	**107**	**(90.205)**
INFORMAZIO GEHIGARRIA														
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronte eta elementu-multzo besterengarri moduan sailkatutako finantzaketa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Jarraian, birfinantzatu edo berregituratu ostean ekitaldian zaintza bereziko arrisku normalekoen eta zalantzazkoen artean sailkatutako eragiketen zenbateko gordin osoa (2024ko eta 2023ko abenduaren 31koa) dago xehatuta:

	2024		
	Zenbateko gordina		
	Higiezinen erabateko hipoteka-bermea	Gainerako berme errealak	Berme errealik gabe
Administrazio publikoak	-	-	-
Gainerako pertsona juridikoak eta enpresaburu indibidualak	5.670	56	24.020
Horietatik: eraikuntzari eta higiezinen sustapenari zuzendutako finantzaketa	*246*	-	-
Gainerako pertsona fisikoak	13.245	16	3.251
Horietatik: eraikuntzari eta higiezinen sustapenari zuzendutako finantzaketa	-	-	-

	2023		
	Zenbateko gordina		
	Higiezinen erabateko hipoteka-bermea	Gainerako berme errealak	Berme errealik gabe
Administrazio publikoak	-	-	-
Gainerako pertsona juridikoak eta enpresaburu indibidualak	6.319	172	50.847
Horietatik: eraikuntzari eta higiezinen sustapenari zuzendutako finantzaketa	*258*	-	-
Gainerako pertsona fisikoak	36.572	-	3.468
Horietatik: eraikuntzari eta higiezinen sustapenari zuzendutako finantzaketa	-	-	-

Hona hemen birfinantzamendu- eta berregituratze-eragiketak kobratzen direla bermatzeko jasotako bermeen balioa, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31koa, berme errealak eta bestelako bermeak bereizita:

Jasotako bermeen balioa – Birfinantzamenduak	**2024**	**2023**
Berme errealen balioa	371.242	328.604
Horietatik: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu	217.068	240.100
Bestelako bermeen balioa	50.265	89.930
Horietatik: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu	30.065	53.801
Jasotako bermeen balioa guztira	**421.507**	**418.534**

Hona hemen 2024ko eta 2023ko ekitaldietako birfinantzamenduen eta berregituratzeen saldoaren mugimendua, lotutako hornidurak kenduta:

	2024	**2023**
Irekierako saldoa	**141.476**	**129.375**
(+)/(–) Epealdiko birfinantzamenduen eta berregituratzeen sarrerak/irteerak	(9.062)	32.958
Pro-memoria: epealdiko galdu-irabazien kontuan erregistratutako eragina	*32.369*	*(5.755)*
(–) Zorraren amortizazioak	(15.476)	(13.611)
(–) Esleipenak	(218)	(621)
(–) Balantzeko baja (kobraezinetan birsailkatzea)	-	-
(+)/(–) Bestelako aldakuntzak	5.614	(6.625)
Ekitaldi-amaierako saldoa	**122.334**	**141.476**

16. Likidezia-arriskua

Likidezia-arriskuak bi definizio ditu:

- Funtsen likidezia-arriskua: Entitate Nagusia gai ez izatea egungo eta etorkizuneko aurreikusitako eta ezusteko kutxako fluxuei eta ordainketa-obligazioen ondoriozko berme-ekarpenei eraginkortasunez erantzuteko, eguneroko jardunari edo finantza-egoerari kalterik eragin gabe.

- Merkatuko likidezia-arriskua: merkatuan sakontasunik ez izatearen edo distortsioak egotearen ondorioz finantza-erakundeek posizio bat merkatuko prezioetan konpentsatu edo desegiteko gaitasunik ez izateari egiten dio erreferentzia.

Entitate Nagusiak helburu estrategikotzat jo izan du, beti, likidezia; ondorioz, sistematikoki kudeatu eta kontrolatu izan du, azken bi hamarkadetan. Testuinguru horretan, Likidezia-arriskuaren inguruko politika eta prozeduren eskuliburua du Caja Laboral Popular Coop. de Créditok, Kontseilu Errektoreak onartuta. Eskuliburu horrek, Basileako Banku Ikuskaritzako Batzordearen «Likidezia-arriskua egoki kudeatzeko eta gainbegiratzeko printzipioak» (2008ko iraileko dokumentua) betetzeaz gain, hainbat likidezia-helburu ez ezik, alerta-mailak eta jarduketa-protokoloak jasotzen dituen kontingentzia-plana ere finkatzen du. Egoera horretan, aipatzekoa da, halaber, Entitate Nagusiak Arriskuarekiko Grinaren Esparrua sortu zuela 2015ean. Baimentze- eta hobetze-prozesu sistematikoa ezartzen zaio, eta, bertan, likidezia-arriskuaren funtsezko adierazle batzuetarako grinaren eta tolerantziaren atalaseak jaso dira. Bestalde, Recovery Plana ere egin zuen, likidezia-krisietarako alerta-mailak eta jarduketa-protokoloak eguneratzeko.

Prozeduretan ezarritako eginkizunetan sakonduz, likideziaren kudeaketak kontrol-sistema bat du euskarri. Horren bidez, batetik, funtsezko zenbait adierazletarako mugak eta aurreko adierazleetarako edo aparteko beste batzuetarako epe ertainerako hileko likidezia-helburuak ezartzen dira eta, bestetik, muga eta helburu horiek zenbateraino bete diren sistematikoki kontrolatu. Muga eta helburu horiek hilean behin egiten den finantzaketa-plan baten bidez kontrolatzen dira. Inbertitzeko moduko baliabideen, kreditu-inbertsioaren eta handizkako finantzaketaren bilakaerari buruzko aurreikuspenak jasotzen ditu —aurreikuspenok mugen eta helburuen xede diren adierazleen bilakaera zehazten dute—. Horrela, Aktiboen eta Pasiboen Batzordeak (APBk) aukera du epe ertainean adierazle horiei eta likideziari aurreikusten zaien bilakaerari buruzko informazioa eguneratuta izateko etengabe. Horrela, agregatuen bilakaeran likidezian eragiten duten desorekak zuzentzeko ekintzak bidera ditzake APBk, behar adinako aurrerapenez. Likidezia-helburuen artean, aktibo likido erabilgarriak eta hainbat likidezia-ratio daude, LCR ratioa barne hartuta. 2024ko ekitaldia ixtean, Entitate Nagusiak maila oso altua du bertan, eta aise bete du arautzaileak ezarritako muga.

Zehazki, 2024ko itxieran honako hauek ditu Entitate Nagusiak:

- % 543ko LCR ratioa.

- Haircutak aplikatu ostean, 6.569 milioi euroko aktibo likido deskontagarriak (eta erabilgarriak) Europako Banku Zentralean (EBZn), ezusteko kontingentziei aurre egiteko. Zenbateko horretatik, 2.015 milioi euro EBZren polizan daude eskuragarri, eta 4.554 milioi euro EBZko aktibo hautagarriak dira, pignorazioaren bidez eskuratzeko modukoak. Entitateak likidezia-maila garbi positibo handiari eutsi dio urtean zehar.

- 2.805 milioi euroko saldoa, Espainiako Bankuko kontu korrontean; horietatik 230,3 milioi euro kutxa-koefizienteari dagozkio.

- % 64,2ko loan-to-deposit ratioa.

- Handizkako finantzaketa hutsala, Entitatearen politika zuhurraren ondorioz.

Entitate Nagusiaren finantzaketa-egitura honela dago banatuta:

	2024	
Finantzaketa-egitura	**Milioi eurokotan**	**%**
Bezeroen gordailuak	23.105	86,29
Aktiboa guztira	26.776	

(1) Autozorroa ez da sartzen.

Epe ertainerako likidezia-beharrak behar bezala estalita daude, finantzaketa-gaitasunen bidez. Horrela, bada, haircutak aplikatu ostean eskuragarri dauden aktibo likido garbiak eta Entitate Nagusiaren jaulkipen-gaitasuna aurkeztuko ditugu ondorengo tauletan:

	Milioi eurokotan	
	2024-12-31	
	Erabilia	**Erabilgarria**
Aktibo likido garbiak (2)	-	6.569

(2) Espainiako Bankuaren likideziaren egoera-orrietarako irizpideak (errenta aldakorra kanpo utzita).

Jaulkipen-gaitasuna	**Milioi eurokotan**
Hipoteka-zedulak jaulkitzeko gaitasuna	6.844
Lurralde-zedulak jaulkitzeko gaitasuna	606
	7.450

Bestalde, taula honetan Entitate Nagusiaren aktiboen eta pasiboen azterketa jaso da (milioi eurokotan), Espainiako Bankuak igorritako egoera-orrien likideziari buruzko irizpideei jarraikiz, hondar-epemuga kontuan hartuta —kanpo utzi dira mugaeguneratutako saldoak, zalantzazko kreditu-inbertsioa, esleituak eta kobraezinak—:

2024

AKTIBOEN ETA PASIBOEN BANAKETA MUGA-EGUNEKO TARTEEN ARABERA

	Milioi eurokotan							
	Saldoa guztira	Agerikoak	Hilabetera artekoak	1 eta 3 hilabete artekoak	3 eta 6 hilabete artekoak	6 hilabete eta urtebete artekoak	1 eta 5 urte artekoak	5 urtetik gorakoak
Sarrerak GUZTIRA	24.168	21	505	534	667	1.255	6.611	14.574
Irteerak GUZTIRA	(23.688)	(17.881)	(751)	(698)	(1.135)	(2.892)	(236)	(95)
Garbia	480	(17.860)	(246)	(164)	(468)	(1.637)	6.375	14.479

2023

AKTIBOEN ETA PASIBOEN BANAKETA MUGA-EGUNEKO TARTEEN ARABERA

	Milioi eurokotan							
	Saldoa guztira	Agerikoak	Hilabetera artekoak	1 eta 3 hilabete artekoak	3 eta 6 hilabete artekoak	6 hilabete eta urtebete artekoak	1 eta 5 urte artekoak	5 urtetik gorakoak
Sarrerak GUZTIRA	25.131	45	305	510	834	1.897	6.625	14.915
Irteerak GUZTIRA	(23.280)	(19.107)	(758)	(193)	(620)	(2.204)	(240)	(158)
Garbia	1.851	(19.062)	(453)	317	214	(307)	6.385	14.757

17. Interes-tasaren arriskua

Entitate Nagusiaren emaitza-kontuan eta ondare-balioan interes-tasen aurkako mugimendu batek eragin ditzakeen galerekin du zerikusia interes-tasaren arriskuak.

Kontseilu Errektoreak Aktiboen eta Pasiboen Batzordearen (APBren) eskutan du utzita arrisku hori kontrolatu eta kudeatzeko zeregina, eta Kontseilu Errektoreak finkatutako eta urtean behin berrikusitako mugen barruan jarduten du. Merkatuko eta kontrako egoera bateko interes-tasen artean gehienez onar daitekeen galeraren arabera ezartzen dira mugok.

APBk sistematikoki aztertzen du interes-tasaren arriskuaren eragina, eta, kudeaketa aktiboaren bidez, merkatuko interes-tasen bilakaera kaskarrek epe ertainera galdu-irabazien kontuan izan dezaketen eragin negatiboari aurrea hartzen saiatzen da. Erabaki bat edo beste bat hartzeko, APB simulazioetan oinarritzen da. Simulazioek balantzeko eta balantzetik kanpoko egiturazko posizioak aztertu eta interes-tasa ezberdinen aurrean Entitate Nagusiak epe luzera izango dituen emaitzak neurtzen dituzte.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

Interes-tasekiko sentikorrak diren partiden gap estatikoa bildu dugu ondoko taulan. Entitate Nagusiak interes-tasen gorabeheren aurrean duen arriskuarekiko lehen hurbilpena da. Halere, gaparen berezko supostuen mugak kontuan hartuta, ez da egokia Caja Laboralak arrisku hori neurtzeko erabili izan duen teknika, aurreko paragrafoan azaldu dena.

	Milioi eurokotan								
	Balantzeko saldoa 24-12-31n	**Hilabetera artekoak**	**1 eta 3 hilabete artekoak**	**3 hilabete eta urtebete artekoak**	**Urtebete eta 2 urte artekoak**	**2 eta 3 urte artekoak**	**3 eta 4 urte artekoak**	**4 eta 5 urte artekoak**	**5 urtetik gorakoak**
Aktibo sentikorrak	26.871	5.337	2.364	8.348	1.803	1.335	1.077	796	5.811
Diru-merkatua	3.162	3.107	-	55	-	-	-	-	-
Kreditu-merkatua	15.945	1.675	2.333	4.961	1.280	1.035	870	674	3.117
Balore-merkatua	7.764	555	31	3.332	523	300	207	122	2.694
Pasibo sentikorrak	23.390	18.149	840	4.325	75	1	-	-	-
Handizkako merkatua	3	1	-	2	-	-	-	-	-
Gainerako hartzekodunak	23.387	18.148	840	4.323	75	1	-	-	-
GAP arrunta		(12.812)	1.524	4.023	1.728	1.334	1.077	796	5.811
Pasibo Osoarekiko %-a		(% 48)	% 6	% 15	% 6	% 5	% 4	% 3	% 22
GAP metatua		(12.812)	(11.288)	(7.265)	(5.537)	(4.203)	(3.126)	(2.330)	3.481
Pasibo Osoarekiko %-a		(% 48)	(% 42)	(% 27)	(% 21)	(% 16)	(% 12)	(% 9)	(% 13)

	Milioi eurokotan								
	Balantzeko saldoa 23-12-31n	**Hilabetera artekoak**	**1 eta 3 hilabete artekoak**	**3 hilabete eta urtebete artekoak**	**Urtebete eta 2 urte artekoak**	**2 eta 3 urte artekoak**	**3 eta 4 urte artekoak**	**4 eta 5 urte artekoak**	**5 urtetik gorakoak**
Aktibo sentikorrak	26.011	4.123	2.473	9.190	1.619	1.159	821	876	5.750
Diru-merkatua	1.795	1.689	-	51	55	-	-	-	-
Kreditu-merkatua	16.341	2.045	2.395	5.158	866	1.122	623	819	3.312
Balore-merkatua	7.875	389	77	3.981	697	37	198	57	2.438
Pasibo sentikorrak	22.828	2.966	2.600	*9.394*	*33*	*20*	*20*	*30*	*7.763*
Handizkako merkatua	183	181	-	1	-	-	-	-	-
Gainerako hartzekodunak	22.645	2.785	2.600	9.393	33	20	20	30	7.763
GAP arrunta		1.156	(127)	(204)	1.585	1.139	801	846	(2.013)
Pasibo Osoarekiko %-a		% 4	(% 0)	(% 1)	% 6	% 4	% 3	% 3	(% 8)
GAP metatua		1.156	1.029	825	2.410	3.549	4.350	5.196	3.183
Pasibo Osoarekiko %-a		% 4	% 4	% 3	% 9	% 14	% 17	% 20	% 12

Kontratuan interes-tasa bat ezarrita duten partidak interes-tasekiko sentikorrak dira, eta, beraz, gapean jasotzen dira. Gainerakoak kanpoan geratzen dira; hau da, balorazioagatiko doikuntzak, kreditu sailkaezina, kutxa, ibilgetua (esleituak barne), deribatuak, hainbat kontu eta periodifikatze-kontuak, Gizarte Ekintzako Funtsa, funts bereziak, kapitala eta erreserbak, eta ekitaldiko emaitzak.

Gap horretan, sentikortzat jotako partidak dagokien denbora-tarteetan banatzen dira, ondoren adierazi ditugun irizpideei jarraikiz. Interes-tasa aldakorreko produktuak interes-tasa berrikusten (balioa handitzen) zaien denbora-tartean kokatzen dira. Bestalde, interes-tasa finkoko partidak hondar-epemugaren arabera banatzen dira. Ageriko produktuetarako, saldoen aldakortasun-estimazioak kontuan hartuta, haien portaerari buruzko hipotesiak eman ditu Entitate Nagusiak. Epemuga espliziturik gabeko kontu-mota bakoitzerako —ordainketarik gabeko kontuak, administratuak eta erreferentziatuak— analisi estatistikoak egin dira, kontu horien interes-tasaren eta merkatuaren interes-tasaren bilakaera aintzat hartuta.

Entitate Nagusiak gainbegiralearentzat egiten dituen inpaktu-azterketen arabera, interes-tasek oinarrizko 200 puntu behera eginez gero, marjina gordina baliabide propioen gainean % 1,95 inguru txikituko litzateke, lehen urtean. Gainbegiraleak azterketa horiek egiteko ezarritako irizpideak hauek dira: hasierako saldoei eta balantzearen egiturari eustea, interes-tasak merkatu-itxaropenen arabera garatzea, mugaegunik gabeko gordailuetarako 5 urteko iraupena finkatzea eta merkatuko interes-tasetarako –% 1,5 eta % 0 bitarteko zorua ezartzea, hurrenez hurren agerikoen eta 50 urtekoen artean dauden epeetarako.

Balio ekonomikoaren gaineko inpaktuari dagokionez, EBAk definitutako SOTerako ezarritako erregulazio-egoerarik okerrenak 86,9 milioi euroko jaitsiera eragingo luke Entitate Nagusiaren balio ekonomikoan, hau da, baliabide propioen % 3,94 ingurukoa. Ondare-balioa kalkulatzeko, interes-tasaren gaparen atalean aipatu diren irizpide berberak erabili dira.

18. Merkatuko bestelako arriskuak

2024an ez dira gauzatu hazkundeak behera eta inflazioak gora egiteko arriskuak, 2023an antzeman zirenak. Aitzitik, munduko ziklo ekonomikoa espero baino hobeto joan da, eta inflazioa moteldu egin da, aurreratutakoaren ildotik (nahiz eta udaberriaren amaierara arte ez zen prezioen indizeen urte arteko tasa aldatu). EBZk horren arabera jokatu du, eta oinarrizko 100 puntu murriztu ditu tasak (orain urtebete espero zena baino gutxiago), FEDek bezala.

Banku zentralen tasa-murrizketarekin, kurbaren tarte laburrek behera egin dute ekitaldian. Alemaniako 2 urterako bonuaren tasa oinarrizko 32 puntu jaitsi da (% 2,07ko tasaraino), eta Amerikakoa oinarrizko 1 puntu (% 4,24ko tasaraino). Bestalde, tarte luzeetako tasek gora egin dute, oinarrizko 69 puntu Amerikako 10 urterako TNoteak (% 4,57ko tasaraino) eta 34 puntu Alemaniako Bundak.

Kurben positibizazioarekin batera, aipatzekoa da 10 urterako Europako zor publikoaren eta Alemaniakoaren arteko diferentzialen dibergentzia. Espainian oinarrizko 27 puntuko (66rainoko) eta Italian oinarrizko 54 puntuko (109rainoko) jaitsierekin itxi da urtea; Frantzian, aldiz, oinarrizko 31 puntuko (83rainoko) igoerarekin.

Italiako, Espainiako, Alemaniako eta Frantziako Bloomberg indize subiranoek urtea % 5, % 3, % 0,6 eta –% 0,8 inguruko errentagarritasunekin itxi dute, hurrenez hurren. AEBkoak, berriz, % 0,6koa erregistratu du..

Errenta finko pribatuan, aldaketa garbi gutxi izan dira 2024an kreditu-diferentzialetan, enpresen ez-ordaintzeak txikiak izan direlako. Europako Bloomberg Investment Grade indizeak % 4,7 egin du gora, eta High Yieldarenak, berriz, % 8,1; bilakaera hobea izan du, beraz. Garatzeko bidean dauden herrialdeetako indizeak % 2,2ko igoera izan du.

Burtsa-merkatuan, S&P500 indizeak % 23,3ko balioa erregistratu du; Nasdaqak, berriz, % 28,6koa, Zazpi Handiei esker. Eurostoxx50 indizeak bilakaera okerragoa izan du urtean, baina positiboa: +% 8,3koa; azpimarratzekoak dira Alemaniako Daxaren (+% 18,8) eta Ibexaren (+% 14,8) bilakaerak. CAC frantziarrak behera egin du, % 2,2 urtean. Bestalde, Erresuma Batuak % 5,7ko igoerarekin itxi du 2024a. Japoniako indize nagusia % 28,2 hazi da urtean, eta Garatzeko bidean dauden herrialdeetako MSCI indizeak % 5,1eko errentagarritasun positiboa erregistratu du.

Dibisen bilakaerari dagokionez, euroak % 6,2 egin du behera dolarraren aurrean, eta % 4,5 libera esterlinaren aurrean. Aitzitik, Japoniako yenaren aldean, euroak ia % 4,5eko igoera izan du.

Beste aktibo batzuek, hala nola urreak edo bitcoinak, errebalorizazio handiekin itxi dute urtea. Petrolioaren prezioak, aldiz, behera egin du 2024an.

Kontuan izanik aktibo arriskutsuek inbertsio-zorroetan (errenta finko pribatuan eta errenta aldakorrean) duten esposizio-maila baxua, positiboa baina mugatua izan da bilakaera horren eragina.

Interes-tasa handiagoak diren ingurune honetan, estrategiak ezarri dira hurrengo ekitaldietan Entitatearen irabaziak hobetzeko eta, aldi berean, interes-tasen balizko jaitsieren aurrean arriskua murrizteko. Zehazki, minusbalioak izan dira —finantza-eragiketen emaitzan—, Finantza-aktiboak kostu amortizatuan saltzearen bidez, eta errentagarritasun handiagoa espero zaion zorro berri bat sortu da, etorkizuneko ekitaldietako interesen marjinan ekarpen positiboa izango duena.

19. Eragiketa-arriskua

Prozesuetan, pertsonalean nahiz barruko sistemetan gertatutako desegokitasun edo akatsen nahiz kanpoko faktoreen ondorioz Entitateak izan ditzakeen galerei buruzkoa da eragiketa-arriskua.

Caja Laboral Popular Coop. de Créditok metodo estandarra erabiliz informatzen du arautzailea, hain zuzen ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 Erregelamenduan deskribatutako metodologiaren arabera.

Ikuspegi kualitatiboari begira, departamentu guztien arrisku-mapak eta kontrolak ditu Taldeak. Arrisku horiek noizean behin ebaluatzen dira, eta, ondoren, arriskurik larrienak arintzeko ekintza-planak taxutzen dira.

Gaur egun, Taldeak 64 koordinatzaileko eta 30 balidatzaileko sarea du, sistemak eskatzen dituen zereginak (autoebaluazioak eta ekintza-planak) gauzatu ahal izateko.

Ikuspegi kuantitatibotik, eragiketetan galdutakoen barneko datu-basea du Taldeak 2002tik. Galera bakoitza Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 Erregelamenduak zehaztutako gertaera-mota eta negozio-linea bati dago esleituta.

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito CERO (Consorcio Español de Riesgo Operacional – Eragiketa Arriskuaren Espainiako Partzuergoa) taldeko partaide da. Bertan, estatuko finantza-erakunde nagusiak daude ordezkatuta, eta eragiketa-arriskuaren alorreko informazioa eta esperientziak partekatzen dira.

20. Aseguru-eragiketen arriskua

Hona hemen Taldeak aurre egin beharreko aseguru-eragiketen arrisku nagusiak:

- Hilkortasun-arriskua: hilkortasun-tasen mailan, joeran edo hegakortasunean gertatzen diren aldaketak, baldin eta hilkortasun-tasaren igoerak hartutako konpromisoen balioa handitzea badakar.

- Longebitate-tasa: longebitate-tasen mailan, joeran edo hegakortasunean gertatzen diren aldaketak, baldin eta hilkortasun-tasaren jaitsierak hartutako konpromisoen balioa handitzea badakar.

- Erorketa-arriskua: aseguru-kontratuen hartzaileek egindako ezerezte-, berritze- eta benetako erreskate-tasen mailan, joeran edo hegakortasunean gertatzen diren aldaketak, aplikatutako erorketa-hipotesien aldean.

- Gastu-arriskua: aseguru- edo berraseguru-kontratuak betetzeko gastuen mailan, joeran edo hegakortasunean gertatzen diren aldaketak, produktuen horniduren tarifikazioan eta eraketan aurreikusitako errekarguen aldean.

- Ezbehar-arriskua: aseguru- edo berraseguru-kontratuen ezbehar-maiztasunean gertatzen diren aldaketak, aurreikusitako ezbehar-tasaren aldean.

Taldeak aseguruen balorazio-hipotesiak, kaudimenari buruzko II. araudiko horniduren balorazio-mekanismoekin bat datozenak, erabiltzen ditu, arrisku horiek behar bezala neurtzeko eta haien jarraipena egiteko. Hipotesi horien oinarriak dira, alde batetik, ingurune ekonomikoko hilkortasunaren, longebitatearen, erorketen, gastuen eta ezbeharren inguruko estimaziorik onena eta, bestetik, Taldearen aseguru-kontratuen zorroaren portaerari buruzko estimaziorik onena.

Aseguruen Zuzendaritza Orokorrak zehaztutako araudiari jarraikiz, Taldea PASEM2020 eta PER2020 taula berrietara dago egokituta. Baliaezintasun-arriskuetarako, PEAIM-2007 taulak baliatzen ditu.

Espainiako legeria aplikatuz, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren mende dagoenak, bere egindako hondamen-arriskuen ondorioak estalita ditu Taldeak bere kontratuetan.

Beste alde batetik, kontratuetan ezbehar-tasaren arriskua murriztu ahal izateko, berraseguru-kontratuak erabiltzen ditu Taldeak. Ez da jotzen arrisku-metaketa nabarmenik dagoenik; izan ere, Taldearen aseguru-negozioa batez ere partikularren arrisku pertsonalak aseguratzean datzanez, oso arrisku-maila apala dauka, dagoeneko Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak estaltzen duen hondamendi-arriskuari dagokionez izan ezik.

Urteko kontu hauek formulatzeko egunean, Entitate Nagusiko kontseilariek berretsi dute arriskuen eta kaudimenaren barneko ebaluazioa egina dagoela eta Taldeko aseguru-erakundeek kaudimen-betebehar globalak betetzen dituztela, euren arrisku-profila, onartutako arrisku-tolerantziaren mugak eta negozio-estrategia kontuan hartuta.

Jarduerari lotutako arriskuen izaerari, bolumenari eta konplexutasunari egokitutako prozesuak ezarri dira eta, horiei esker, epe labur eta luzera Taldeko aseguru-erakundeek izan litzaketen eta aurre egin behar lieketen arriskuak egoki zehaztu eta ebaluatzeko aukera du.

Era berean, Entitate Nagusiko kontseilariek berretsi dutenez, Taldeko aseguru-erakundeek etengabe betetzen dituzte kapital-errekerimenduak eta aseguru-kontratuagatiko pasiboen arloko eskakizunak.

Taldeak sentikortasun-analisi bat egin du, jakiteko nolako eragina izan dezaketen harpidetza-arriskuen aldagaien inguruko aldaketek Taldearen aseguru-kontratuen pasiboetan, galdu-irabazien kontuan eta ondarean. Analisia hipotesien aldaketan oinarritzen da, gainerako supostuei konstante eutsita.

Bizitza-aseguruen negozioaren kasuan, estres-egoera hauek hartu dira aintzat etorkizuneko estimazioetan erabiltzen diren hipotesien gainean:

- Hilkortasun-tasaren % 15eko igoera iraunkorra.
- Hilkortasun-tasaren % 20ko jaitsiera iraunkorra.
- Erreskate-tasaren eta ezerezte aurreratuen tasaren % 50eko igoera iraunkorra.

Bizitzakoak ez diren aseguruen konpainiaren kasuan, estres-egoera hau hartu da aintzat:

- Ezbeharrengatiko prestazioen % 5eko igoera.

Bizitza-aseguruen negozioaren kasuan, egoerarik okerrenak ia ez luke eraginik izango aseguru-kontratuen pasiboetan; izan ere, BEL adierazleak milioi bat euro inguruko hazkundea izango luke, baina CSMak bereganatuko luke zenbateko horren zatirik handiena. CSMak bereganatuko ez lukeen galera-zatia, berriz, emaitza-kontuan erregistratuko litzateke. Beraz, kasu guztietan, milioi bat eurotik beherako inpaktua izango luke egoera horrek emaitza-kontuan eta ondarean.

Bizitzakoak ez diren aseguruen negozioaren kasuan, ezbehar-tasaren egoera horrek 2 milioi euro inguruko eragina izango luke ezbeharretarako pasiboetan. Ondorioz, 5 milioi euroko inpaktu negatiboa izango luke emaitzetan, eta 4 milioi euroko jaitsiera eragingo luke ondarean.

21. Arriskuen kontzentrazioa

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 575/2013 Erregelamenduaren eta kaudimen-errekerimenduen gainean ondoren egin diren aldaketen arabera, arrisku handietan —baliabide propioen % 10 gainditzen dutenak dira— pertsona edo talde batekin ezin da baliabide propioen % 25 baino gehiago arriskatu. Aparteko kasu batean, esposizioek muga hori gainditzen badute, Entitateak berehala jakinaraziko die esposizioaren balioa agintaritza eskudunei. Egoerak eskatzen badu, dagokion mugara itzultzeko denbora-epe mugatua aitor diezaiokete kreditu-erakundeari agintariek. Entitatearen arriskuak emateko politikak kontuan hartzen ditu muga eta irizpide horiek, eta eskakizunei dagozkien kontrako alderdiaren arrisku-mugak eta soberakoak kontrolatzeko prozedurak ezarri dira.

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n ez dago «esposizio handikotzat» hartzen den kreditu-hartzailerik, ez baitago baliabide propioen % 10 gainditzen duenik.

Taldearen arriskuen kontzentrazioak eta horien kontabilitate-balioak hauek izan dira, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, arriskuari dagokion geografia-sektorea eta kontrako alderdien motak kontuan hartuta:

2024

	Guztira (liburuetako zenbatekoa) (a)	Espainia	Europar Batasuneko gainerako herrialdeak	Amerika	Munduko gainerako lurraldeak
Banku zentralak eta kreditu-erakundeak	3.911.207	3.342.395	231.475	12.505	324.832
Administrazio publikoak	8.204.726	7.140.501	1.064.225	-	-
– Administrazio zentrala	6.523.251	5.987.193	536.058	-	-
– Bestelako administrazio publikoak	1.681.475	1.153.308	528.167	-	-
Bestelako finantza-sozietateak eta enpresaburu indibidualak	363.492	163.810	184.030	1.012	14.640
Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak	3.290.546	3.220.714	45.852	14.769	9.211
– Eraikuntza eta higiezinen sustapena	55.780	55.780	-	-	-
– Obra zibileko eraikuntza	153.751	153.751	-	-	-
– Gainerako helburuak	3.081.015	3.011.183	45.852	14.769	9.211
Enpresa handiak	971.794	911.330	37.210	14.485	8.769
ETEak eta enpresaburu indibidualak	2.109.221	2.099.853	8.642	284	442
Gainerako etxeak	10.924.766	10.898.802	19.160	2.481	4.323
– Etxebizitzak	10.053.687	10.028.450	18.681	2.339	4.217
– Kontsumoa	483.721	483.148	392	76	105
– Bestelako helburuak	387.358	387.204	87	66	1
GUZTIRA	26.694.737	24.766.222	1.544.742	30.767	353.006

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

2023

	Guztira (liburuetako zenbatekoa) (a)	Espainia	Europar Batasuneko gainerako herrialdeak	Amerika	Munduko gainerako lurraldeak
Banku zentralak eta kreditu-erakundeak	2.522.628	1.871.053	292.049	17.867	341.659
Administrazio publikoak	9.137.905	8.616.921	520.984	-	-
– Administrazio zentrala	7.500.730	7.307.279	193.451	-	-
– Bestelako administrazio publikoak	1.637.175	1.309.642	327.533	-	-
Bestelako finantza-sozietateak eta enpresaburu indibidualak	312.077	145.060	148.557	4.509	13.951
Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak	3.212.874	3.124.358	50.840	25.398	12.278
– Eraikuntza eta higiezinen sustapena	43.920	43.920	-	-	-
– Obra zibileko eraikuntza	148.901	148.830	71	-	-
– Gainerako helburuak	3.020.053	2.931.608	50.769	25.398	12.278
Enpresa handiak	910.145	831.587	42.838	23.924	11.796
ETEak eta enpresaburu indibidualak	2.109.908	2.100.021	7.931	1.474	482
Gainerako etxeak	10.919.656	10.898.230	16.097	2.224	3.105
– Etxebizitzak	10.072.128	10.051.315	15.687	2.094	3.032
– Kontsumoa	487.291	486.855	317	47	72
– Bestelako helburuak	360.237	360.060	93	83	1
GUZTIRA	26.105.140	24.655.622	1.028.527	49.998	370.993

(a) Esposizioen definizioak barruan hartzen ditu maileguak eta aurrerakinak; zorra adierazten duten baloreak; ondare-tresnak; deribatuak (negoziatzeko daudenak eta estaldurakoak); baterako negozioetan eta elkartuetan egindako inbertsioak, eta emandako bermeak, balantzean edozein partidatan sartuta daudela ere.

Mailegu-hartzaileen, balore-jaulkitzeen eta deribatuen eta emandako bermeen kontrako alderdiak zer herrialdetan edo autonomia-erkidegotan dauden kontuan hartuta banatuko da jarduera eremu geografikoetan.

2024

		AUTONOMIA-ERKIDEGOAK			
Espainiako jarduera	**Guztira (liburuetako zenbatekoa) (a)**	**EAE**	**Nafarroa**	**Madril**	**Gainerako lurraldeak**
Banku zentralak eta kreditu-erakundeak	3.342.395	72.627	-	3.093.941	175.827
Administrazio publikoak	7.140.501	523.301	109.643	117.916	6.389.641
– Administrazio zentrala	5.987.193	-	-	-	5.987.193
– Bestelako administrazio publikoak	1.153.308	523.301	109.643	117.916	402.448
Bestelako finantza-sozietateak eta enpresaburu indibidualak	163.810	51.169	925	98.917	12.799
Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak	3.220.714	1.721.030	298.558	493.766	707.360
– Eraikuntza eta higiezinen sustapena	55.781	40.960	7.640	-	7.181
– Obra zibileko eraikuntza	153.751	108.664	4.934	21.817	18.336
– Gainerako helburuak	3.011.182	1.571.406	285.984	471.949	681.843
Enpresa handiak	911.330	510.765	86.557	159.981	154.027
ETEak eta enpresaburu indibidualak	2.099.852	1.060.641	199.427	311.968	527.816
Gainerako etxeak	10.898.802	5.780.090	1.187.593	1.052.943	2.878.176
– Etxebizitzak	10.028.450	5.159.669	1.100.695	1.032.977	2.735.109
– Kontsumoa	483.148	298.333	61.851	12.755	110.209
– Bestelako helburuak	387.204	322.088	25.047	7.211	32.858
GUZTIRA	24.766.222	8.148.217	1.596.719	4.857.483	10.163.803

2023

Espainiako jarduera	Guztira (liburuetako zenbatekoa) (a)	AUTONOMIA-ERKIDEGOAK EAE	Nafarroa	Madril	Gainerako lurraldeak
Banku zentralak eta kreditu-erakundeak	1.871.053	54.146	-	1.597.771	219.136
Administrazio publikoak	8.616.921	476.172	108.860	210.711	7.821.278
– Administrazio zentrala	7.307.279	-	-	-	7.307.279
– Bestelako administrazio publikoak	1.309.642	476.172	108.860	210.711	513.899
Bestelako finantza-sozietateak eta enpresaburu indibidualak	145.060	38.091	1.068	94.375	11.526
Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak	3.124.358	1.718.776	281.677	448.485	675.420
– Eraikuntza eta higiezinen sustapena	43.920	35.217	2.169	-	6.534
– Obra zibileko eraikuntza	148.830	106.919	6.324	19.615	15.972
– Gainerako helburuak	2.931.608	1.576.641	273.184	428.485	652.913
Enpresa handiak	831.587	457.891	64.018	163.904	145.774
ETEak eta enpresaburu indibidualak	2.100.021	1.118.750	209.166	264.966	507.139
Gainerako etxeak	10.898.230	5.887.475	1.202.564	919.186	2.889.005
– Etxebizitzak	10.051.315	5.296.745	1.114.614	901.038	2.738.918
– Kontsumoa	486.855	297.358	62.158	11.438	115.901
– Bestelako helburuak	360.060	293.372	25.792	6.710	34.186
GUZTIRA	24.655.622	8.174.660	1.594.168	3.270.528	11.616.266

(a) Esposizioen definizioak barruan hartzen ditu maileguak eta aurrerakinak; zorra adierazten duten baloreak; ondare-tresnak; deribatuak (negoziatzeko daudenak eta estaldurakoak); baterako negozioetan eta elkartuetan egindako inbertsioak, eta emandako bermeak, balantzean edozein partidatan sartuta daudela ere.

Ondorengo oharretan, Taldearen arrisku-kontzentrazioaren xehetasunak bildu dira, eragiketa-motaren, jarduera- eta geografia-eremuaren, dibisaren, arrisku-kalitatearen eta abarren arabera.

22. Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko bestelako gordailuak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2024	2023
Eskudirua	102.895	94.534
Eskudirutako saldoak banku zentraletan	2.805.296	1.261.130
Ageriko bestelako gordailuak	55.409	62.043
	2.963.600	1.417.707
Dibisaren arabera:		
Eurotan	2.945.484	1.395.141
Dolar estatubatuarretan	7.972	11.044
Franko suitzarretan	547	431
Libera esterlinatan	1.341	1.708
Yen japoniarretan	7.825	8.253
Bestelakoetan	431	1.130
	2.963.600	1.417.707

Hurrenez hurren, % 3,239koa eta % 2,757koa izan da banku zentraletako eta ageriko bestelako gordailuetako eskudirutako saldoek 2024ko eta 2023ko ekitaldietan lortu duten urteko batez besteko interes-tasa.

Europako Banku Zentralaren 1745/2003 EE Erregelamenduaren arabera, Europar Batasuneko estatu kideetako kreditu-erakundeek araudi horretan zehaztutako pasibo konputagarrien % 1eko gutxieneko erreserba-koefizientea izan behar dute, hurrenez hurren, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n. 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, gutxieneko erreserben koefizientea bete behar du Espainiako Bankuko kontu korrontean eutsitako saldoaren zati batek. Entitate Nagusiak betetzen ditu indarrean dagoen araudiak koefiziente horretarako agintzen dituen gutxienekoak.

23. Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak eta -pasiboak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horiek 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n duten banakapena:

	Aktiboa		Pasiboa	
	2024	2023	2024	2023
Deribatuak	2.226	2.647	1.487	2.177
Ondare-tresnak	1.013	2.621	-	-
Zorra adierazten duten baloreak	-	2.770	-	-
	3.239	8.038	1.487	2.177

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n «Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak eta -pasiboak» epigrafean dauden elementuen arrazoizko balioa eta erabilitako balorazio-teknikak 40. oharrean sartu dira.

«Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak eta -pasiboak» multzoan sailkatutako elementuen arrazoizko balioan izandako aldaketek eragina izan dute 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuetan (50. oharra); hona hemen:

	Irabaziak		Galerak	
	2024	2023	2024	2023
Deribatuak	14.172	39.433	(13.287)	40.153
Ondare-tresnak	1.043	943	(883)	768
Zorra adierazten duten baloreak	10.362	2.285	(10.012)	1.741
	25.577	42.661	(24.182)	42.662

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Negoziatzeko dauden finantza-aktiboen eta -pasiboen zorroetako elementuen arrazoizko balioan izandako aldaketek 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuetan eragindakoa banakatu egin dugu, arrazoizko balioa zehazteko irizpidea erabiliz, eta hauxe da banakapena:

	Irabaziak		Galerak	
	2024	2023	2024	2023
Arrazoizko balioa honela ateratzen zaien elementuak:				
Kotizazioak erreferentziatzat harturik (1. maila)	12.965	4.389	13.202	3.943
Honako hauetan oinarritutako teknika baten bidez:				
Merkatutik datozen datuak (2. maila)	12.457	38.272	10.980	38.719
Merkatutik ez datozen datuak (3. maila)	155	-	-	-
	25.577	42.661	24.182	42.662

Hona hemen 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak» eta «Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak» epigrafeetako saldoen banakapena, dibisen eta muga-egunen arabera:

	Aktiboa		Pasiboa	
	2024	2023	2024	2023
Dibisaren arabera:				
Eurotan	2.226	6.440	1.487	2.177
Dolar estatubatuarretan	1.013	1.598	-	-
	3.239	8.038	1.487	2.177
Muga-egunaren arabera:				
Hilabetera artekoak	525	207	394	88
1 eta 3 hilabete artekoak	238	310	188	682
3 hilabete eta urtebete artekoak	703	537	229	654
1 eta 5 urte artekoak	255	3.936	211	371
5 urtetik gorakoak	505	427	465	382
Zehaztu gabeko muga-egunekoak	1.013	2.621	-	-
	3.239	8.038	1.487	2.177

a) Kreditu-arriskua

Arriskuen kontzentrazioaren eta egun jakin batzuetan horiek zuten liburuetako zenbatekoaren berri emango dugu jarraian, arriskuari dagokion geografia-sektorea, kontrako alderdien motak eta tresna-motak kontuan hartuta:

	2024		2023	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Geografia-sektorearen arabera:				
Estatua	2.226	% 68,72	6.293	% 78,29
Europar Batasuneko gainerako herrialdeak	-	-	114	% 1,42
Munduko gainerako lurraldeak	1.013	% 31,28	1.631	% 20,29
	3.239	% 100,00	8.038	% 100,00
Kontrako alderdien motaren arabera:				
Kreditu-erakundeak	429	% 13,24	2.100	% 26,13
Administrazio publiko egoiliarrak	-	-	2.770	% 34,46
Bestelako sektore egoiliarrak	1.797	% 55,48	1.570	% 19,53
Bestelako sektore ez-egoiliarrak	1.013	% 31,28	1.598	% 19,88
	3.239	% 100,00	8.038	% 100,00
Tresna-motaren arabera:				
Kotizatutako obligazioak eta bonuak	-	-	2.770	% 34,46
Errenta finkoko bestelako baloreak	-	-	-	-
Antolatutako merkatuetan negoziatu ez diren deribatuak	2.226	% 68,72	2.647	% 32,93
Akzio kotizatuak	1.013	% 31,28	2.621	% 32,61
	3.239	% 100,00	8.038	% 100,00

Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak banakatuko ditugu ondoren, kalifikazio-agentzia nagusiek emandako kanpoko kreditu-kalifikazioen arabera:

	2024		2023	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
A ratinga eman zaien arriskuak	-	-	4.688	% 45,60
B ratinga eman zaien arriskuak	-	-	181	% 2,25
Esleitu gabeko zenbatekoak	3.239	% 100,00	3.169	% 52,15
	3.239	% 100,00	8.038	% 100,00

b) Zorra adierazten duten baloreak

Segidan, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko balantze bateratuko aktiboko «Zorra adierazten duten baloreak» epigrafeko saldoaren banakapena azaltzen da:

	2024	2023
Europar Batasuneko gainerako herrialdeetako zor publikoa	-	-
Espainiako/autonomia-erkidegoko zor publikoa	-	2.770
Kreditu Ofizialeko Institutua	-	-
Errenta finkoko bestelako baloreak	-	-
	-	2.770

Hurrenez hurren, % 0,785ekoa eta % 0,929koa izan da banku-negozioko «Zorra adierazten duten baloreak» zorroak 2024ko eta 2023ko ekitaldietan lortutako urteko batez besteko interes-tasa.

c) Ondare-tresnak

Hauxe da 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako aktiboko «Ondare-tresnak» epigrafeko saldoaren banakapena:

	2024	2023
Espainiako erakundeetako partaidetzak	-	-
Atzerriko erakundeetako partaidetzak	-	-
Inbertsio-funtsetako partaidetzak	1.013	2.621
Bestelako partaidetzak	-	-
	1.013	2.621

d) Negoziatzeko dauden deribatuak

Hona hemen 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak» eta «Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak» epigrafeetako deribatuen saldoaren banakapena:

	2024		
	Balio nozionala	Arrazoizko balioa	
		Aktiboa	Pasiboa
Mugaeguneratu gabeko dibisen salerosketa	31.584	980	2
Erosketak	21.755	43	426
Salmentak			
Baloreen, indizeen eta interes-tasen gaineko gerokoak	-	-	-
Erositakoak	-	-	-
Saldutakoak			
Baloreen gaineko aukerak	-	-	-
Erositakoak	322.631	-	-
Saldutakoak			
Dibisen gaineko aukerak	-	-	-
Erositakoak	-	-	-
Saldutakoak			
Interes-tasen gaineko aukerak	18.600	369	-
Erositakoak	1.917	-	6
Saldutakoak			
Interes-tasen gaineko bestelako eragiketak	-	-	-
FRAk	58.430	834	1.053
Finantza-trukeak	-	-	-
Call Money Swapak (CMSak)			
Eperako bestelako eragiketak	-	-	-
Erositakoak	-	-	-
Saldutakoak			
		2.226	1.487

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

	2023		
	Balio nozionala	Arrazoizko balioa	
		Aktiboa	Pasiboa
Mugaeguneratu gabeko dibisen salerosketa			
Erosketak	38.012	124	790
Salmentak	53.851	806	630
Baloreen, indizeen eta interes-tasen gaineko gerokoak			
Erositakoak	-	-	-
Saldutakoak	2.140	-	-
Baloreen gaineko aukerak			
Erositakoak	17.950	115	-
Saldutakoak	454.597	-	-
Dibisen gaineko aukerak			
Erositakoak	-	-	-
Saldutakoak	-	-	-
Interes-tasen gaineko aukerak			
Erositakoak	18.600	720	-
Saldutakoak	-	-	-
Interes-tasen gaineko bestelako eragiketak			
FRAk	-	-	-
Finantza-trukeak	47.737	838	757
Call Money Swapak (CMSak)			
Eperako bestelako eragiketak			
Erositakoak	-	-	-
Saldutakoak	2.809	44	-
		2.647	2.177

Negoziatzeko dauden deribatuen kontratuetako zenbateko nozionalean edo kontratukoan ez da Taldeak bere gain hartutako arriskua kuantifikatzen, posizio garbia tresna horiek konpentsatu eta/edo konbinatzetik lortzen delako.

Taldeak inbertsio-funts, pentsio-funts eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde batzuei emandako bermeak —guztiak ere LABORAL Kutxa Taldeko sozietateek gestionatutakoak (ikusi I. eranskina)—, baloreen gainean jaulkitako aukera gisa erregistratzen dira. Eragiketa horien 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko balio nominala 322 eta 455 milioi eurokoa da, hurrenez hurren; arrazoizko balioa, berriz, 0 eurokoa bien kasuan.

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n negoziatzeko dauden deribatuen balorazioan kontrako alderdiaren arriskua nahiz arrisku propioa aintzat hartuta, eragina hutsala da.

Bezeroei erositako eta saldutako deribatuen balioak eta kontrako alderdien partidei erositako eta saldutako deribatuen balioak ez dute alde handirik (kasu batean eta bestean Taldearentzat marjina sortu dutenak kontuan hartuta).

24. Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2024	2023
Ondare-tresnak	201.852	162.657
Espainiako erakundeetako partaidetzak	28.076	21.283
Atzerriko erakundeetako partaidetzak	21.088	24.257
Inbertsio-funtsetako partaidetzak	-	-
Arrisku-kapitaleko erakundeekiko partaidetzak	151.876	116.305
Heziketako eta Sustapeneko Funtsari atxikitako baloreak	812	812
Zorra adierazten duten baloreak	1.045.135	833.611
Espainiako zor publikoa	701.178	610.364
Altxor-letrak	-	-
Estatuaren obligazioak eta bonuak	701.178	610.364
Bestelako zor anotatuak	-	-
Espainiako beste administrazio publiko batzuen zorra	9.143	16.726
Atzerriko zor publikoa	197.104	24.305
Kreditu-erakundeek jaulkitakoak	99.340	105.806
Egoiliarrak	24.541	18.809
Ez-egoiliarrak	74.799	86.997
Errenta finkoko bestelako baloreak	38.601	76.346
Bestelako egoiliarrek jaulkitakoak	9.557	22.522
Bestelako ez-egoiliarrek jaulkitakoak	29.044	53.824
Zalantzazko aktiboak	13.256	13.372
Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak	(13.487)	(13.308)
Mikro-estaldurako eragiketak	-	-
	1.246.987	996.268

«Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafeko elementuen 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko arrazoizko balioa eta erabilitako balorazio-teknikak 40. oharrean sartu dira.

38. oharrean, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko ondare garbi bateratuko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafeko saldoa banakatu dugu. Saldo hori «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafeko elementuen arrazoizko balioan gertatu diren aldaketek eragin dute.

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan, hurrenez hurren, 9.942 eta 52.702 mila eurori eman zaie baja ondare garbiko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafetik, eta, «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan sailkatutako finantza-tresnak saltzearen ondorioz, galdu-irabazien kontu bateratuan kontabilizatu dira; bi zenbatekooi kendu egin zaie zerga-eragina (38. oharra).

Era berean, 2024ko ekitaldian ondare garbiko «Bestelako emaitza global metatu bat – Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak» epigrafetik baja eman zaie, «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan sailkatutako errenta aldakorreko finantza-tresnak saldu direlako. Salmentaren zenbatekoa 138 mila eurokoa izan da, zergak kenduta, eta erreserbetan kargatu da (2023ko ekitaldian, 494 mila eurokoa izan zen, eta erreserbetan abonatu zen).

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Hona hemen 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafearen banakapena, dibisak eta muga-egunak kontuan hartuta:

	2024	2023
Dibisaren arabera:		
Eurotan	1.198.677	961.322
Dolar estatubatuarretan	43.564	29.825
Libera esterlinatan	1.460	1.797
Franko suitzarretan	2.634	2.580
Gainerakoetan	652	744
	1.246.987	996.268
Muga-egunaren arabera:		
Hilabetera artekoak	4.327	20.754
1 eta 3 hilabete artekoak	4.919	9.239
3 hilabete eta urtebete artekoak	39.389	25.937
1 eta 5 urte artekoak	335.017	223.857
5 urtetik gorakoak	671.710	567.493
Zehaztu gabeko muga-egunekoak	205.112	162.296
		-
Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak	(13.487)	(13.308)
	1.246.987	996.268

Ondoren, «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafean 2024ko eta 2023ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	2024	2023
Ekitaldi-hasierako saldoa	996.268	822.701
Gehikuntza/baja garbiak	226.493	73.035
Arrazoizko balioaren aldaketengatiko mugimenduak	17.640	99.211
Narriaduragatiko galerak (garbiak), emaitzetan kargatzekoak (60. oharra)	397	1.321
Bestelakoak	6.189	-
Ekitaldi-itxierako saldoa	1.246.987	996.268

Altzariak, ibilgailuak eta gainerako instalazioak	169.040	(125.331)	-	43.709
Eraikinak	375.546	(82.130)	(35.853)	257.563
Uneko obrak	25.587	-	-	25.587
Bestelakoak	842	(842)		
	646.539	(265.575)	(35.853)	345.111
2023ko abenduaren 31n				
Tresna informatikoak eta instalazioak	61.567	(46.893)	-	14.674
Altzariak, ibilgailuak eta gainerako instalazioak	168.939	(132.080)	-	36.859
Eraikinak	366.538	(76.053)	(35.864)	254.621
Uneko obrak	19.879	-	-	19.879
Bestelakoak	842	(842)	-	-
	617.765	(255.868)	(35.864)	326.033

«Erabilera propioko ibilgetu materiala» atalaren arrazoizko balioa txostenaren 40. oharrean agertzen da.

«Erabilera propioko ibilgetu materiala» atalaren 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko saldo garbian ez da sartzen erabiltzen ez den aktibo materialaren zenbatekorik.

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n erabiltzen diren eta erabat amortizatuta dauden Taldearen «Erabilera propioko ibilgetu materiala» ataleko elementuen balio gordina 137.973 mila eurokoa eta 143.833 mila eurokoa dira, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren.

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak ez du aktibo materialik, ez erabilera propiokorik ez eraikitze-bidean dagoenik, titulartasuna mugatuta duenik edo zorrak ordaintzeko bermetzat eman denik. 2024ko abenduaren 31n, 985 mila euroko hirugarrenekiko konpromisoa dago aktibo materiala eskuratzeko; 825 mila eurokoa 2023ko ekitaldian.

Egoera-balantzeetako «Higiezinetako inbertsioak» epigrafeko saldoa, 2024ko eta 2023ko 31koa, banakatuko dugu jarraian:

	Gordina	Metatutako amortizazioa	Narriaduraga-tiko zuzenketak	Garbia
2024ko abenduaren 31n				
Eraikinak	80.089	(18.257)	(12.007)	49.825
Landa-finkak, partzelak eta orubeak	419	-	-	419
	80.508	(18.257)	(12.007)	50.244
2023ko abenduaren 31n				
Eraikinak	84.201	(19.221)	(12.403)	52.577
Landa-finkak, partzelak eta orubeak	419	-	-	419
	84.620	(19.221)	(12.403)	52.996

«Higiezinetako inbertsioak» epigrafeko arrazoizko balioa txostenaren 40. oharrean agertzen da.

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n errentan hartuta eta erabat amortizatuta dauden Taldearen «Higiezinetako inbertsioak» ataleko elementuen balio gordina 1.989 eta 2.499 mila eurokoa da, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren.

2024ko eta 2023ko ekitaldietan, Taldearen «Higiezinetako inbertsioak» ataletik lortutako ustiapeneko sarrera garbiak 2.826 eta 2.572 mila eurokoak izan dira, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren.

Merkataritzarako lokalak edo antzekoak errentan hartzeko kontratuek zehaztuta dute muga-eguna, eta kasuaren araberakoa da iraupena.

Balantze bateratuetako «Errentamendu operatiboan lagatako aktiboak» epigrafeko saldoa, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31koa, banakatu dugu hemen:

	Gordina	Metatutako amortizazioa	Garbia
2024ko abenduaren 31n			
Makineria	14.100	(4.307)	9.793
Altzariak eta lanabesak	260	(98)	162
Informatika-ekipamenduak	12.961	(5.834)	7.127
Mediku-ekipamenduak	792	(416)	376
Bestelakoak	1.358	(479)	879
	29.471	(11.134)	18.337
2023ko abenduaren 31n			
Makineria	9.977	(4.216)	5.761
Altzariak eta lanabesak	459	(261)	198
Informatika-ekipamenduak	13.800	(6.697)	7.103
Mediku-ekipamenduak	1.088	(592)	496
Bestelakoak	805	(387)	418
	26.129	(12.153)	13.976

2024ko eta 2023ko ekitaldietan Taldeak «Errentamendu operatiboan lagatako aktiboak» ataleko errentetatik lortutako sarrerak 6.891 eta 6.708 mila eurokoak izan dira, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren. 2024ko eta 2023ko ekitaldietan, Taldeak «Errentamendu operatiboan lagatako aktiboak» epigrafeko kontzeptu guztien ustiapen-gastuak 536 eta 510 mila eurokoak izan dira, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren (54. oharra).

Taldeak errentamenduaren ondoriozko erabilera-eskubideak ditu, batez ere bulegotarako higiezinen gainean, bere jarduera gauzatzeko.

Segidan, errentamenduagatiko erabilera-eskubideen 2024ko banakapena eta mugimendua aurkeztuko ditugu:

	Lursailak eta eraikinak	Bestelakoak	Guztira
2023ko urtarrilaren 1eko saldoa	51.325	-	51.325
Gehikuntzak	8.371	-	8.371
Ateratzeak	(2.078)	-	(2.078)
Amortizazioa	(3.700)	-	(3.700)
Bestelako mugimenduak	-	-	-
2023ko abenduaren 31ko saldoa	53.918	-	53.918
Gehikuntzak	9.949	-	9.949
Ateratzeak	(3.002)	-	(3.002)
Amortizazioa	(5.198)	-	(5.198)
Bestelako mugimenduak	-	-	-
2024ko abenduaren 31ko saldoa	55.667	-	55.667

Ondoren, erabilera-eskubideei lotutako errentamenduengatiko pasiboen xehetasuna emango dugu; «Finantza-pasiboak kostu amortizatuan» epigrafean daude erregistratuta:

	2024	2023
Errentamenduengatiko pasiboa		
Errentamendu korronteena	57.959	55.019
Errentamendu ez-korronteena	-	-
	57.959	55.019

Entitateak 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n dituen errentamenduengatiko pasiboak honela daude banakatuta, muga-egunaren arabera:

	2024	2023
Urte 1era artekoak	8	72
1 eta 5 urte artekoak	3.074	4.100
5 urtetik gorakoak	54.877	50.847
	57.959	55.019

31. Aktibo ukiezinak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2024	2023
Merkataritzako funtsa	33.425	33.425
Bestelako aktibo ukiezina	443	134
	33.868	33.559

Balantze bateratuetako «Merkataritzako funtsa» epigrafeko saldoa, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31koa, banakatuko dugu jarraian:

	2024	2023
Seguros Lagun Aro SA		
Gordina	33.425	33.425
Narriaduragatiko zuzenketak	-	-
	33.425	33.425

2011ko abenduaren 20ra arte, Taldeak Seguros Lagun Aro SA sozietatearen kapital sozialaren % 36,05 izan zuen zuzenean eta % 4,94 zeharka. Data horretan, Taldeak Seguros Lagun Aro SA sozietatearen kapital sozialaren % 59,01 eskuratu zuen, eta, ondorioz, Seguros Lagun Aro SA sozietatearen kontrola bereganatu zuen. Aseguru-sozietate horrek bizitzakoak ez diren atal nagusietako arriskuak aseguratzen ditu, adar bakoitzerako lege-estaldura jakin batzuk finkatuta.

Eskurapenaren ondoriozko 33.425 mila euroko merkataritzako funtsa eskuratutako bezero-oinarriari dagokio, eta Taldearen eragiketak eta Seguros Lagun Aro SA sozietatearenak konbinatuta segur aski sortuko diren eskalako ekonomiei.

Entitate Nagusiko kontseilariek dituzten estimazioen eta proiekzioen arabera, merkataritzako funtsak sortzen dituzten partaidetzapeko erakundeei esker Taldeari egoztekoak diren sarreren aurreikuspenek egoki estaltzen dute erregistratutako horien balio garbia.

Ondoren, «Merkataritzako funtsa» atalak «Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak» aintzat hartu gabe 2024ko eta 2023ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	2024	2023
Ekitaldi-hasierako saldoa	33.425	33.425
Negozio-konbinazioaren ondorioz bateratze-perimetroa aldatzeagatiko sarrerak	-	-
	33.425	33.425

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuko «Aktibo ez-finantzarioen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea – Merkataritzako funtsa» epigrafean ez da narriaduragatiko balio-zuzenketarik egin.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Hauek dira merkataritzako funtsen narriadura ebaluatzeko erabilitako hipotesi makroekonomikoak eta interes-tasen ingurukoak:

Urtean behin, kontabilitate-arauetan finkatutako narriadura-azterketa egiten dio Entitate Nagusiak merkataritzako funtsari, Seguros Lagun Aro SA sozietateareN % 100 erostean bereganatutakoari, eta sentikortasuna ere aztertzen da. Azterketa hori egiteko, aipatutako merkataritzako funtsa esleitu zaion eskudirua sortzeko unitateareN (kasu honetan Seguros Lagun Aro SA sozietateareN) narriadura aztertzen da. Unitatea narriatuta legoke bere kontabilitate-balioa erabilera-balioaren gainetik balego. Erabilera-balioa da unitateareN zenbatetsitako diru-fluxuen gaur egungo balioa. Ez da horrelakorik gertatu eskuratu zenetik.

Estimatutako diru-fluxuak Seguros Lagun Aro SA sozietateareN negozio-planetik atera dira, hazkunde-tasa apaletan oinarrituta eta negozioaren edo haren eraginkortasunaren egiturazko aldaketen ondorioz sor litezkeen fluxu positibo garbiak bazterrean utzita. Zehazki, plangintzan sartu diren ekitaldietako emaitzen proiekzioa erabili da diru-fluxuen proiekzioak egiteko abiapuntuko hipotesitzat.

Seguros Lagun Aro SA sozietatetik datozen aktiboak eskuratu izanaren ondoriozko negozio-konbinazioan sortu den merkataritzako funtsari dagokionez, Seguros Lagun Aro SA sozietateareN merkataritzako funtsaren narriaduraren aztarnarik ote dagoen baloratu du Taldeak 2024ko eta 2023ko itxieran, eta zenbateko berreskuragarria zenbatetsi du. Zenbateko berreskuragarri horiek haien liburuetako zenbatekoak baino handiagoak direnez, ez da narriadurarik gertatu.

Baloratzeko, metodologia hau erabili du: aseguru-sozietateareN jarduerari lotutako etorkizuneko irabazi garbi banagarriak 5 urteko (2029ra arteko) proiekzioarekin deskontatzea, eta amaierako balioa kalkulatzea, % 1eko betiko hazkunde-tasa erabiliz. Tasa hori bat dator sozietateareN jarduera-eremua dagoen ingurune ekonomikoaren helburuko inflazioarekin. Aurreko esperientzia % 1 horretatik gorakoa da. Hauek dira finantza-proiekzioak eraikitzeko funtsezko aldagaiak: zuzeneko aseguruaren marjina gordinaren bilakaera —espero diren negozio-bolumenen eta interes-tasen menpe egongo da— eta emaitza-kontuko gainerako partiden eta kaudimen-mailaren bilakaera.

Banatuko diren fluxuen egungo balioa (erabilera-balioa lortzeko erabili dena) kalkulatzeko, merkatu-partaide baten ikuspegitik Seguros Lagun Aro SAk duen kapital-kostua (Ke) erabili da deskontu-tasatzat. Hori zehazteko, CAPM (Capital Asset Pricing Model) metodoa erabili da.

Metodo horren arabera, diru-fluxuen proiekzioei aplikatutako zerga aurreko deskontu-tasa % 6,22koa izan da, kapitalaren kostua barruan hartu baita kontuan. Kapitalaren kostuaren zenbatespena bat dator sektoreko analista independenteek aplikatutakoekin.

Proiektatutako aldian erabili diren urteko hazkunde-tasak (CAGRak) % 1 eta % 5,47 bitartekoak izan dira eskuratutako primetan, eta % 1 eta % 3,43 bitartekoak aseguruen gastu teknikoetan.

Batez ere, hipotesi hauek hartu dira aintzat 2024ko abenduaren 31ko analisia egiteko:

- Entitatean eta sektorean indarrean jarraitzen duen prezioen gorakada.
- Bezeroen kopurua handituko duten akzioak.
- Ezbeharren batez besteko kostuaren igoera (funtsean, inflazioak eragindakoa) eta haien maiztasunari eustea.

- Etorkizunean finantza-etekin handiagoa lortzea, aktiboen zorroetan egindako minusbalioen ondorioz.

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, balorazioaren funtsezko aldagaien sentsibilitate-azterketa egin da, eta hor ere ez da antzeman narriadura-aztarnarik.

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n indarrean dagoen zerga-araudiaren arabera, sortutako merkataritzako funtsa ez da kengarria zergetan.

2024ko abenduaren 31n, «Aktibo ukiezinak – Bestelako aktibo ukiezina» epigrafean erregistratutako 443 mila euroko zenbatekoa Lagun Klik SL sozietatearen jarduerak eragindako garapen informatiko eta patenteei dagokie (134 mila eurokoa 2023ko ekitaldian).

32. Zergengatiko aktiboak eta pasiboak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horiek 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n duten banakapena:

	Aktiboa		Pasiboa	
	2024	2023	2024	2023
Zerga korronteak:	3.602	727	12.650	9.249
Sozietateen gaineko zerga	-	129	5.998	4.516
BEZa	3.434	47	-	934
Ogasun publikoa zordun atxikipenengatik	168	551	-	-
Bestelakoak	-	-	6.652	3.799
Zerga geroratuak:	131.312	165.229	63.199	103.328
Finantza-tresnen balorazio-doikuntzak	15.796	15.098	33.888	75.560
Ibilgetua errebalorizatzea	-	-	27.318	27.768
Irekitze-komisioak	214	357	-	-
Kreditu fiskalak	40.626	109.099	1.925	-
Ibilgetua berrinbertitzea	-	-	-	-
Pentsioetarako eta antzeko obligazioetarako funtsak	4.056	4.980	-	-
Kaudimengabezietarako eta bestelako horniduretarako funtsa	62.687	32.313	-	-
Ibilgetuaren amortizazioa	-	-	-	-
Partaidetzen narriadura	-	-	-	-
Finantza-pasibo propioen errebalorizazioa	-	-	-	-
Gordailuak Bermatzeko Funtsa	-	-	-	-
Bestelako kontzeptuak	7.933	3.382	68	-
	134.914	165.956	75.849	112.577

2024ko eta 2023ko ekitaldietan, irizpide kontableen eta fiskalen artean aldeak sortu dira, Entitate Nagusiari eta partaidetzapeko erakundeei aplikatzekoa den sozietateen gaineko zergaren inguruan indarrean dagoen araudi fiskalaren ondorioz. Alde horiek aktiboko eta pasiboko «Zerga geroratuak» epigrafean erregistratu dira, jarduera etengabeen irabazien gaineko zerga kalkulatu eta erregistratzean.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

Aktiboko eta pasiboko «Zerga geroratuak» epigrafeko saldoek 2024ko eta 2023ko ekitaldietan izandako mugimenduak azalduko ditugu:

	Aktiboa		Pasiboa	
	2024	2023	2024	2023
Ekitaldi-hasierako saldoa	165.229	213.900	103.328	98.368
Gehikuntzak/(murrizketak)	(33.917)	(48.671)	(40.129)	4.960
Kaudimengabezietarako eta bestelako horniduretarako funtserako zuzkidura	30.374	4.865	-	-
Finantza-tresnen balorazio-doikuntzak	9.341	(21.973)	(40.570)	5.518
Ibilgetua errebalorizatzea	-	-	(450)	(558)
Irekitze-komisioak	(143)	(178)	-	-
Kreditu fiskalak	(69.518)	(31.230)	(195)	-
Pentsioetarako eta antzeko obligazioetarako funtsak	(924)	(130)	-	-
Finantza-pasiboen errebalorizazioa	-	-	-	-
Bestelakoak	(3.047)	(25)	1.086	-
Ekitaldi-itxierako saldoa	131.312	165.229	63.199	103.328

Ekitaldia itxi eta hurrengo 10 urteetako onura fiskalen bidez dagokion onura fiskala gauzatzea probablea dela egiaztatzen den heinean kontabilizatzen dira zerga-oinarri negatiboengatiko zerga geroratuengatiko aktiboak. 2024ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak 0 mila euroko eta 39.768 mila euroko zerga geroratuengatiko aktiboak kontabilizatu ditu, hurrenez hurren, zerga-oinarri negatiboengatik eta aplikatzeko dauden kenketengatik (70.785 mila eurokoak eta 38.314 mila eurokoak, hurrenez hurren, 2023ko abenduaren 31n). Horiek guztiak etorkizuneko ekitaldietan Entitate Nagusiak sortutako zerga-onuren kontra konpentsatzea espero da, Zuzendaritzak prestatutako urteko Gestio Planetan aurreikusi denez.

Entitate Nagusiak 2024ko abenduaren 31n erregistratuta dauden kreditu fiskalen zerga-oinarrien araberako berreskuragarritasuna ebaluatzen du urtero, etorkizunean izango dituen emaitzen proiekzioan oinarrituta —10 urtetik beherako berreskuragarritasuna hartzen da aintzat—.

2013ko azaroaren 29ko 14/2013 Errege Lege Dekretuak, Espainiako zuzenbidea Europar Batasuneko finantza-erakundeen gainbegiratzeari eta kaudimenari buruzko araudiaren arabera egokitzeko premiazko neurriak ezarri zituenak, Bigarren Azken Xedapenean finkatutakoarekin bat, eta Dekretu hori foru-araudian jasotzeko erabakia (Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2014ko abenduaren 16ko 17/2014 Foru Araua) betez, Taldeak ez du zerga-administrazioaren aurrean galdagarria den eta kreditu bihur daitekeen zerga geroratuengatiko aktiborik, 2024ko abenduaren 31n (71 milioi eurokoak 2023ko abenduaren 31n). Era berean, 2016ko ekitalditik aurrera, bihurtze hori efektiboa izan dadin % 1,5eko ondare-prestazioa eramango du lotuta, aktibo horien zenbatekoaren gainean (55. oharra).

39. oharrean jaso ditugu Taldearen egoera fiskalari buruzko xehetasunak.

33. Bestelako aktibo eta pasiboak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horiek 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n duten banakapena:

	Aktiboa		Pasiboa	
	2024	2023	2024	2023
Izakinak	2.039	35.148	-	-
Sortutako komisioen periodifikatzeak	26.433	39.180		-
Bestelako periodifikatzeak	-	-	36.529	66.034
Bideratzen ari diren eragiketak	45	23	38	63
Gizarte Ekintzako Funtsa	-	-	20.030	15.109
Bestelako kontzeptuak	-	-	1.850	1.282
	28.517	74.351	58.447	82.488

10. oharrean adierazi denez, ez dago 2012ko otsailaren 3ko 2/2012 Errege Lege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz Gordailuak Bermatzeko Funtsari egindako derramagatik ordaindu beharreko zenbatekorik, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n.

2024ko ekitaldian 46.586 mila euroko zenbateko gordina eta 38.075 mila euroko kontabilitate-balio garbia dituzten izakinak saldu dira, 46.995 mila euroko salmenta-prezioan. Izakin horiek saltzearen ondorioz, 8.920 mila euroko emaitza sortu da. 2023ko ekitaldian 17.121 mila euroko zenbateko gordina eta 13.424 mila euroko kontabilitate-balio garbia zituzten izakinak saldu ziren, 18.539 mila euroko salmenta-prezioan. Izakin horiek saltzearen ondorioz, 5.115 mila euroko emaitza sortu zen.

Gizarte Ekintzako Funtsa

Hona hemen 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko balantzeetako «Bestelako pasiboak» epigrafeko Gizarte Ekintzako Funtsa kapituluaren banakapena:

	2024	2023
Heziketako eta Sustapeneko Funtsa	20.030	15.109
Zuzkidura:	20.030	15.109
Aktibo materialari aplikatua	-	-
Beste inbertsio batzuei aplikatua – Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	812	812
Ekitaldian konprometitutako gastuak	14.297	11.449
Uneko ekitaldiko mantentze-gastuak	(14.297)	(11.449)
Konprometitu gabeko zenbatekoa	19.218	14.297
Errebalorizazio-erreserbak	-	-
	20.030	15.109

Gizarte Ekintzako Funtseko saldoak mugimendu hauek izan ditu 2024ko eta 2023ko ekitaldietan:

	2024	2023
Ekitaldi-hasierako saldoa	15.109	14.886
Ekitaldiko soberakinaren kargura egin beharreko nahitaezko zuzkidura (4. eta 55. oharrak)	19.218	14.297
Ekitaldiko mantentze-gastuak	(14.297)	(11.449)
Bestelakoak	-	(2.625)
Ekitaldi-amaierako saldoa	20.030	15.109

Kreditu-kooperatibei buruzko 13/1989 Legeak, Kooperatiben Erregimen Fiskalari buruzko 20/1990 Legeak aldatu zuenak, hauxe agintzen du, 1978ko azaroaren 3ko 2860/1978 Errege Dekretuan ezarritako banaketa-irizpideei eutsiz: gutxienez soberakin garbiaren % 10 Heziketako eta Sustapeneko Funtsera bideratuko da (4. oharra).

Funts horretara egiten diren zuzkidurak kooperatibismoa garatzera, komunitateko kultura- eta asistentzia-beharrei erantzutera eta helburu horietan lagunduko duen ibilgetua gauzatzera bideratuko dira, besteak beste. Ildo horretatik, 2024ko eta 2023ko ekitaldietako nahitaezko zuzkiduratik —19.218 eta 14.297 mila eurokoa izan zen, hurrenez hurren—, 6.148 mila euro MONDRAGON Taldeko korporazio-erakundeak finantzatzeko eta 3.027 mila euro Heziketako eta Kooperatiba arteko Sustapeneko Funtserako izan dira 2024an (4.923 eta 2.862 mila euro 2023an).

34. Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2024	2023
Erabilera propioko aktibo ukigarria	19.123	17.651
Higiezinetako inbertsioak	-	2.484
Esleitutako aktibo ukigarria	358.165	377.960
Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak	(363.252)	(374.300)
	14.036	23.795

Ondoren, «Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» epigrafeak 2024ko eta 2023ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	2024	2023
Banakako partidak:		
Ekitaldi-hasierako saldoa	23.795	53.482
Gehikuntzak	668	2.457
Salmentagatiko bajak	(3.277)	(5.938)
Narriaduragatiko zuzkidurak (64. oharra)	(8.918)	(23.298)
Aktibo ukigarrien intsuldaketak (30. oharra)	1.768	(2.908)
Aktibo kobraezinetara intsuldatzea	-	-
Izakinetara intsuldatzea (33. oharra)	-	-
Ekitaldi-itxierako saldoa	14.036	23.795

Segidan, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuko «Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» atalaren galderak edo narriaduragatiko itzulerak xehatuko ditugu (64. oharra):

	2024	2023
Aktibo ukigarriak	(8.856)	(15.613)
Bestelako aktiboak	(62)	(7.685)
	(8.918)	(23.298)
Emaitzetan kargatzeko zuzkidurak	(8.918)	(23.298)
	(8.918)	(23.298)

Hauxe da «Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» epigrafeko «Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak» ataleko saldoak 2024ko eta 2023ko ekitaldietan izandako mugimendua:

	2024	2023
Ekitaldi-hasierako saldoa	374.300	381.053
Emaitzetan kargatzeko zuzkidura garbiak	8.918	23.298
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan intsuldatzea (25. oharra)	-	-
Aktibo kobraezinetara intsuldatzea eratutako funtsen eta salmentengatiko bajen kargura	(20.621)	(29.143)
Izakinetara intsuldatzea (33. oharra)	-	-
Aktibo ukigarrien intsuldaketak (30. oharra)	655	(908)
	363.252	374.300

Hauxe da «Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» epigrafeko «Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak» ataleko saldoak 2024ko eta 2023ko ekitaldietan duen banakapena:

	2024	2023
Banakako partidak	363.252	374.300
	363.252	374.300

35. Finantza-pasiboak kostu amortizatuan

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2024	2023
Banku zentraletako gordailuak	-	184.265
Kreditu-erakundeen gordailuak	2.467	1.552
Bezeroen gordailuak	23.291.669	22.562.965
Zorra adierazten duten balore jaulkiak	-	-
Bestelako finantza-pasiboak	281.607	285.291
	23.575.743	23.034.073

Ondoren, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Finantza-pasiboak kostu amortizatuan» epigrafearen banakapena egingo dugu, diruaren eta mugaegunaren arabera:

	2024	2023
Dibisaren arabera:		
Eurotan	23.547.048	23.007.518
Dolar estatubatuarretan	22.840	19.680
Libera esterlinatan	972	945
Franko suitzarretan	189	344
Yen japoniarretan	1.511	252
Gainerakoetan	3.183	5.334
	23.575.743	23.034.073
Muga-egunaren arabera:		
Agerikoak	16.957.158	17.900.846
Hilabetera artekoak	1.017.356	826.574
1 eta 3 hilabete artekoak	867.212	418.325
3 hilabete eta urtebete artekoak	4.145.775	3.151.466
1 eta 5 urte artekoak	377.456	286.958
5 urtetik gorakoak	2.714	11.811
Zehaztu gabeko muga-egunekoak	144.974	412.077
Balorazio-doikuntzak	63.098	26.015
	23.575.743	23.034.073

a) Banku zentraletako gordailuak

Hauxe da 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Banku zentraletako gordailuak» epigrafeko saldoaren banakapena:

	2024	2023
Espainiako Bankua	-	180.000
Balorazio-doikuntzak	-	4.265
	-	184.265

16. oharrean adierazitakoari jarraikiz, Entitate Nagusiko finantzaketari eta likideziari jarraipena egiteko politika aktiboarekin bat, 2020ko ekainean Europako Banku Zentralak iragarritako berariazko helburuaz epe luzeagoan finantzatzeko eragiketen —TLTRO II— hirugarren sortara jo zen —1.680 milioi eurokoak izan ziren—. 2021ean, Entitateak 180 milioi euro erantsi zizkion finantzaketari, eta 1.860 milioi euroko kopurura iritsi da. 2023ko abenduan, 820 milioi euro amortizatu ziren; 180 milioi geratu ziren amortizatu gabe. Azkenean, 2024ko ekainaren 26an amortizatu zen jaulkipenetik amortizatzeko zegoen nominalaren zenbatekoa. Alde batetik, nominalaren 180 milioi euroak eta, bestetik, periodifikatutako interesen 7,79 MM euroak.

2023an eta 2024an eta jaulkipena mugaeguneratu arte, epealdiko gordailutze-erraztasunaren batez bestekoaren arabera sortu dira interesak.

Hurrenez hurren, % 4,08koa eta % 2,92koa izan dira, hurrenez hurren, banku zentraletako gordailuek 2024ko eta 2023ko ekitaldietan lortu dituzten urteko batez besteko interes-tasak.

2024ko abenduaren 31n, Espainiako Bankuak diru publikoen bermedun kredituen sisteman Entitate Nagusiari esleitutako muga 2.012.033 mila eurokoa da (2.873.729 mila eurokoa 2023ko abenduaren 31n).

b) Kreditu-erakundeen gordailuak

Hauxe da 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Kreditu-erakundeen gordailuak» epigrafeko saldoaren banakapena:

	2024	2023
Eperako kontuak	2.437	1.416
Berrerosteko ituna	-	-
Bestelako kontuak	-	117
Balorazio-doikuntzak	30	19
	2.467	1.552

Hurrenez hurren, % 3,69koa eta % 3,35ekoa izan dira «Kreditu-erakundeen gordailuak» atalak 2024ko eta 2023ko ekitaldietan lortu dituen urteko batez besteko interes-tasak.

c) Bezeroen gordailuak

Jarraian, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko balantze bateratuetan «Bezeroen gordailuak» epigrafeko saldoak duen banakapena emango dugu:

	2024	2023
Espainiako administrazio publikoak	763.057	699.102
Berrerosteko ituna kontrako alderdiekin	-	-
Bestelako sektore egoiliarrak:	22.469.519	21.816.359
Ageriko gordailuak:	16.528.773	17.566.644
Kontu korronteak	8.035.328	7.026.191
Aurrezki-kontuak	8.467.974	10.509.118
Bestelakoak	25.471	31.335
Eperako gordailuak:	5.728.123	3.607.043
Eperako ezarpenak	5.642.644	3.531.868
Bestelakoak	85.479	75.175
Berrerosteko ituna	153.970	625.230
Balorazio-doikuntzak	58.653	17.442
Sortutako interesak	57.836	16.662
Mikro-estaldurako eragiketak	817	780
Bestelako sektore ez-egoiliarrak	59.093	47.504
	23.291.669	22.562.965

Bezeroen gordailuek urteko batez besteko interes-tasa hau eman dute, 2024ko eta 2023ko ekitaldietan, produktuaren arabera:

	2024	2023
Ageriko gordailuak	% 0,05	% 0,02
Eperako gordailuak	% 2,24	% 0,79

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, ez dago hipoteka-zedula bizirik.

Jarraian, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko balantze bateratuetan «Bezeroen gordailuak» epigrafeko saldoak duen banakapena emango dugu, dibisen eta muga-egunen arabera:

	2024	2023
Dibisaren arabera:		
Eurotan	23.262.974	22.536.410
Dolar estatubatuarretan	22.840	19.680
Libera esterlinatan	972	945
Franko suitzarretan	189	344
Yen japoniarretan	1.511	252
Gainerakoetan	3.183	5.334
	23.291.669	22.562.965
Muga-egunaren arabera:		
Agerikoak	16.930.386	17.886.154
Hilabetera artekoak	769.351	826.531
1 eta 3 hilabete artekoak	865.660	418.223
3 hilabete eta urtebete artekoak	4.138.206	2.969.886
1 eta 5 urte artekoak	377.418	286.711
5 urtetik gorakoak	2.711	1.906
Zehaztu gabeko muga-egunekoak	144.839	151.823
	23.228.571	22.541.234
Balorazio-doikuntzak	63.098	21.731
	23.291.669	22.562.965

d) Bestelako finantza-pasiboak

Hona hemen 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko balantzeetako «Bestelako finantza-pasiboak» epigrafearen saldoak duen banakapena:

	2024	2023
Ordaindu beharreko obligazioak	26.239	18.049
Jasotako fidantzak	8.931	5.703
Konpentsazio-ganberak	2.142	36.831
Bilketa-kontuak	123.282	116.311
Kontu bereziak	854	1.399
Finantza-bermeen periodifikatzeak	2.194	2.040
Bestelako kontzeptuak	117.965	104.958
	281.607	285.291

«Bestelako kontzeptuak» epigrafearen barruan, Taldeak 57.959 mila euroko errentamenduengatiko pasiboa erregistratu du 2024ko abenduaren 31n (30. oharra) (55.019 mila eurokoa 2023ko abenduaren 31n).

36. Hornidurak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2024	2023
Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak	15.749	17.785
Langileen epe luzeko bestelako ordainsariak	-	-
Ordaintzeko dauden zergen prozesu-gaiak eta auziak	-	-
Emandako konpromisoak eta bermeak	10.465	14.392
Gainerako hornidurak	231.140	121.618
	257.354	153.795

Ondoren, «Hornidurak» epigrafean 2024ko eta 2023ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak	Langileen epe luzeko bestelako ordainsariak	Ordaintzeko dauden zergen prozesu-gaiak eta auziak	Emandako konpromisoak eta bermeak	Gainerako hornidurak	Guztira
2023ko abenduaren 31n						
Ekitaldi-hasierako saldoa	18.251	-	-	17.524	106.710	142.485
Gehikuntzak, dauden hornidurен igoerak barne	9.092	-	-	6.958	32.898	48.948
(–) Erabilitako zenbatekoak	(9.333)	-	-	-	(34.978)	(44.311)
(–) Erabili gabeko zenbatekoak, epealdian itzuliak	(225)	-	-	(10.033)	(1.970)	(12.228)
Bestelako mugimenduak	-	-	-	(57)	18.958	18.901
Ekitaldi-itxierako saldoa	17.785	-	-	14.392	121.618	153.795
2024ko abenduaren 31n						
Ekitaldi-hasierako saldoa	17.785	-	-	14.392	121.618	153.795
Gehikuntzak, dauden hornidurен igoerak barne	8.304	-	-	17.987	142.903	169.194
(–) Erabilitako zenbatekoak	(8.734)	-	-		(54.816)	(63.550)
(–) Erabili gabeko zenbatekoak, epealdian itzuliak	(1.606)	-	-	(21.515)	(150)	(23.271)
Bestelako mugimenduak	-	-	-	(399)	21.585	21.186
Ekitaldi-itxierako saldoa	15.749	-	-	10.465	231.140	257.354

a) Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak

2024ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak etorkizuneko konpromisoak ditu bazkide batzuekin hartuta, batez ere PD 63, Sare Berria, PACA 64, PACA 65 eta PACA 66 planetara atxikitzeko borondatezko erabakien ondorioz (2023ko abenduaren 31n, PD 61, PD 62, PD 63, Sare Berria, PACA 64 eta PACA 65 ziren planak). Horrela, bada, jarduneko langileen konpromisoei erantzuteko funtsak ditu eratuta Entitateak. Dinamizazio-planen kasuan, planok ezarri zirenetik bazkideek Entitateari zerbitzu emateari uzten dioten egunera bitartean sortutakoak izango dira konpromiso horiek. Benetan erretiratu bitartean bazkideek jasoko dituzten soldata-osagaien eta beste gizarte-karga batzuen ondoriozko konpromisoak dira. Lanbide-jarduera aldez aurretik uzteko laguntza-planen (PACAen) kasuan, aurreko dinamizazio-planekin alderatuta aisialdia kendu denez, prestazioaren zenbateko osoa plana ezartzen den egunean sortzen da.

Gainera, Taldeko beste entitate batek borondatezko akordio bat egin du langile aktiboen konpromisoetarako funts batean sartzeko. Kontratua sinatzen den egunetik planak ezarritako adinera arte sortuko den laguntza bat da plana. Entitateak enplegu ondoko ordainketetan hartutako konpromisoen balio eguneratua eta konpromiso horiek nola estaltzen ziren azalduko dugu jarraian:

	2024	2023
Hartutako konpromisoak	15.749	17.785
	15.749	17.785
Estaldurak		
Barruko funtsak	15.749	17.785
	15.749	17.785

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, enplegu-osteko ordainsarien konpromisoak estaltzeko etorkizuneko prestazio-fluxuak baloratu dira, eta, hori kalkulatzeko, aurreikusitako kreditu-unitatea aplikatu da, langile bakoitzaren erretiro-adin estimatutzat erretiratzeko eskubidea ematen dion lehenengoa hartuz.

Hona hemen balorazioan kontuan hartutako hipotesiak:

	2024	2023
Deskontu-tasa	% 0	% 0
Kontsumo-aurrerakin gordinaren etorkizunerako hazkundea	% 0	% 0
Prestazioen hazkundea	% 0	% 0
Erretiro-adina	Ahalik eta adinik txikiena	Ahalik eta adinik txikiena

Lanbide-jarduera aldez aurretik uzteko (PACA) 1964ko, 1965eko eta 1966ko laguntza-planei (eta Taldearen gainerako planei) dagokienez, hipotesi horiek aintzat hartu behar dira, horietan ez baitago aisialdirik (13.o oharra).

Zenbatespenean erabilitako KPIaren zenbatespena % 2,8koa da 2025eko urterako, % 2,1ekoa 2026rako, % 1,7koa 2027rako, % 1,8koa 2028rako eta % 2,0koa 2029rako eta ondorengoetarako. 2023ko abenduaren 31n, ekitaldi horietarako erabilitako zenbatespena % 2,9koa zen 2024rako, % 2,9koa 2025erako, % 2,9koa 2026rako eta % 2koa 2027rako eta ondorengoetarako.

b) Gainerako hornidurak

«Hornidurak – Gainerako hornidurak» epigrafeak gastu posibleei edo galerei aurre egiteko edo abian diren erreklamazio eta auzietatik datozen erantzukizun probable edo ziurrei edo Taldearen jardueraren ondoriozko betebeharrei erantzuteko hornidurak hartzen ditu, besteak beste, barne. Epigrafe horren saldoa zenbatesteko, kalkulu-prozedura zuhur eta sendoak erabili dira, estali behar dituzten betebeharrek dakarten zalantza kontuan hartuta.

Entitatearen politika orokorraren arabera, galtzeko arrisku probablea duten legezko prozesuetarako hornikuntzak erregistratzen dira; galtzeko arriskua posiblea edo urrunekoa bada, ordea, ez da hornikuntzarik erregistratzen. Hornitu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, dagokion erreklamazioa edo eskaria likidatzeko behar izango den zenbatekoa zenbatesten da ahalik eta doien. Horretarako, besteak beste, gertaeren banakako azterketa eta barneko eta kanpoko lege-aholkularien iritziak hartzen dira aintzat, antzeko erreklamazio edo eskarien ondoriozko galeren batez besteko historikoa ikusirik. Entitateari etekin ekonomikoak ekarriko dizkioten baliabideen behin betiko irteera-data betebehar bakoitzaren araberakoa izango da. Batzuetan, betebeharrek ez dute likidazio-epe finkorik eta, beste batzuetan, abian diren lege-prozesuen mende izaten dira.

2024ko abenduaren 31n, saldutako edo merkaturatutako produktuengatiko kontingentzietarako hornidurak handitu ditu Entitate Nagusiak: 142 milioi euro, guztira (32.898 mila euro 2023an); izan ere, ekitaldian auziek gora egin dute BAZen (Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuan) jarritako demanda eta erreklamazioen ondorioz, eta aurreikusten dugu joera horrek horrela jarraituko duela. Igoera horren arrazoi judizial nagusien artean, hipoteka formalizatzeko gastuei dagozkienak nabarmentzen dira batez ere, Auzitegi Gorenaren preskripzioari buruzko 2024ko ekainaren 14ko 857/2024 epaiaren ondorioz. Epai horrek Auzitegi Gorenaren hasierako irizpidea aldatu du, aurreikuspen juridikoak bestelakoak izan arren —horien arabera, 2024ko apirilean finkatuko zen kontsumitzaileek hipoteka-eraketako gastuak erreklamatzeko epea—. Beraz, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren doktrinari jarraituz, kontsumitzaile bakoitzaren klausula deuseza dela adierazten duen banakako epaiaren irmotasun-datan ezarri du Auzitegi Gorenak erreklamazio-ekintzaren preskripzio-epearen hasiera.

Taldeak erreklamazio edo lege-prozesu bakoitzari lotutako betebeharrak zenbatetsi ditu, eta, beharrezkoa izan denean, jasotako erreklamazioetatik edo legezko prozesu judizialetatik etor litezkeen pasiboak arrazoiz estaltzeko hornikuntza egokiak kontabilizatu ditu.

c) Espainiako hipoteketarako erreferentzia-tasa

Espainiako hipoteketarako erreferentzia-tasari dagokionez, zenbait prozedura judizial planteatu dira, hipoteka-maileguen zenbait kontratutan hipoteka-maileguen erreferentzia-indizea (IRPH) deritzon erreferentzia-tasa erabiltzeari buruz.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Hauxe da eztabaidagai dagoen gai juridikoa: 93/13 Zuzentarauaren 4.2 artikuluan oinarritutako gardentasun-kontrola, mailegu-hartzailea kontsumitzailea den kasuetan. IRPHa kontratuaren prezioa denez eta kontratuaren helburu nagusiaren definizioaren barruan dagoenez, modu argi eta ulergarrian idatzi behar da, kontsumitzailea gai izan dadin kontratuak eragindako ondorio ekonomikoak ebaluatzeko, irizpide argi eta ulergarrietan oinarrituta.

669/2017 epaian Auzitegi Gorenak berretsi zuenez, IRPHari (hipoteka-maileguen erreferentzia-indizeari) buruzko klausulak bete egiten zituen gardentasun-kontrolak. Ondoren, lehen auzialdiko epaitegi batek EBJAri eskatu zion klausula Europako Erkidegoko zuzenbidearen arabera interpretatzeko, eta 2020ko martxoaren 3ko epaiak hauxe finkatu zuen:

1. Epaiak ez ditu IRPH klausulak baliogabetzen; aitzitik, Auzitegi Nazionaletara igorri ditu, haien gardentasuna ebaluatzeko, ikuspegi formala ez ezik, batez besteko kontsumitzaileak kalkulu-metodoa eta haren inplikazio ekonomikoak ulertzeko duen gaitasuna ere ebaluatzeko.
2. IRPHa kalkulatzeko funtsezko elementuak eskuragarri daude, 8/1990 Zirkularrean eta BOEn argitaratuta baitaude, eta indizearen iraganeko bilakaerari buruzko informazioa garrantzitsua dela gardentasunerako.
3. IRPHa baliogabetzat jotzen bada, Auzitegiak 14/2013 Legearen ordezko indizeaz (Entitateen IRPHaz, hau da, Kutxen eta Bankuen IRPHen batezbestekoaz) ordezkatu ahal izango du.

2020ko azaroaren 12an, Auzitegi Gorenak lau epai eman zituen (595.etik 598.era bitartekoak), EBJAren jurisprudentzia aplikatzeko, eta ondorioztatu zuen, IRPHaren iraganeko bilakaerari buruzko informaziorik ez izateak gardentasun-kontrola urratzen duen arren, abusuzkoa izan den aztertzeko aukera ematen duela soilik, eta klausula, printzipioz, ez dela abusuzkoa.

EBJAren epai berri batek, 2024ko abenduaren 12an emandakoak, berresten duenez, gardentasun-kontrola gainditzeko nahikoa da IRPHaren funtzionamenduari eta bilakaerari buruzko informazio zehatza eranstea, dela BOEra eta Espainiako Bankuaren 5/1994 Zirkularrera igorriz, dela batez besteko UTBekin eratutako indizea eta Espainiako Bankuak hautemandako diferentzial negatiboa jasotzen dituen deskribapenaren bidez. Gainera, abusibitate-kontrola gainditzen ez badu soilik hartuko da klausula baliogabetzat. Horretarako, kalkulu-metodoaren eta aplikatutako diferentzialaren arabera ebaluatuko da, eta kontratatzeko unean merkatuko beste indize batzuekin alderatuko.

Baliorik gabe uzten bada, klausula ordezkatuz mailegua mantentzea erabaki ahal izango du epaitegiak; eta, kontratua baliogabetzen bada, kopuruak interesik gabe itzuliko dira, edo legezko interesarekin, bezeroak ekarpenak egin baditu.

Azkenik, azpimarratzen da IRPHaren klausula baliozkoa izango dela, baldin eta BOErako eta Espainiako Bankuaren 5/1994 Zirkularrerako igorpena barne hartzen badu; bestela, epaitegiari egokituko zaio abusuzko izaera duen erabakitzea.

Entitate Nagusiaren Goi Zuzendaritzaren ustez, txikia da Auzitegi Gorenak doktrina hori aldatzeko aukera, eta, horregatik, ez da hornidurarik eratu.

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, hurrenez hurren 86,5 eta 111,6 milioi euro ingurukoa da pertsona fisikoei IRPHari lotuta emandako hipoteka-maileguen zenbateko osoa (ordainketa egunean duena).

37. Funts propioak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2024	2023
Kapitala	850.841	818.761
Bestelako erreserbak	1.196.693	1.101.895
(Akzio propioak)	(3.291)	(2.864)
Entitate Nagusiko jabeei egozteko moduko emaitza	255.326	208.444
(Konturako dibidenduak)	-	-
	2.299.569	2.126.236

Kapitala

Entitate Nagusiaren kapital soziala lan-bazkideek, bazkide kolaboratzaileek eta elkartutako kooperatibek eginiko eta ordaindutako ekarpenez dago osatuta. Entitate Nagusiko estatutu sozialen arabera (1. oharra), bazkide bakoitzaren ekarpenen zenbateko osoak ezin izango du kapital sozialaren % 20 gainditu pertsona juridikoa denean eta % 2,5 pertsona fisikoa denean. Bazkideek zor sozialetan duten erantzukizuna beraien ekarpenetara mugatuko da.

Ekitaldi bakoitzean, ekarpenei aplikatuko zaien interes-tasa proposatzen dio Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari, horrek onespena eman diezaion. Kreditu Kooperatiben Legeak ezartzen duen araudiaren arabera, interes hori ezin da inoiz izan diruaren legezko interes-tasa baino 6 puntu handiagoa. 2024ko eta 2023ko ekitaldietan % 7,5ekoa eta % 7koa izan da, hurrenez hurren, kapital sozialerako ekarpenetarako aplikatutako urteko tasa. 2024ko ekitaldiari dagokion % 7,5a Batzar Nagusiak onesteko dago.

Ondoren, Entitate Nagusiaren «Kapitala» epigrafeko saldoan 2024ko eta 2023ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	2024	2023
Ekitaldi-hasierako saldoak	818.761	797.870
Aurreko ekitaldiko soberakinaren banaketatik sortutako kooperatiba-itzulkinak (4. oharra)	35.743	28.623
Uneko ekitaldiko kapital sozialari egindako ekarpenetatik kapitalizatutako ordainketak	-	-
Kapital sozialerako ekarpenak		
- Elkartutako kooperatibenak	359	304
- Bazkideenak eta bestelakoenak	728	703
Ken, bajengatiko ekarpenen likidazioa		
- Elkartutako kooperatibenak	(504)	(1.620)
- Bazkideenak eta bestelakoenak	(4.275)	(7.119)
Finantza-pasiboaren izaerako kapitalerako intsuldaketak	29	-
Ekitaldi-itxierako saldoak	850.841	818.761

2024ko abenduaren 31n, Lagun Aro Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea da zuzenean edo zeharka Entitatearen kapital sozialean % 10etik gorako partaidetza duen erakunde bakarra; % 14,62koa da partaidetza (2023an % 14,88koa).

2013ko eta 2012ko ekitaldietan, kapital-ekarpeneko 2 jaulkipen berri egin zituen Entitate Nagusiak:

i) Lehenengo jaulkipena lan-bazkideei, bazkide kolaboratzaileei eta elkartutako kooperatibei zuzendu zitzaien, eta 2012ko apiriletik urrira bitarteko harpidetze-aldia izan zuen. 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, lehen jaulkipen horretan harpidetutako zenbatekoa 34.221 eta 34.364 mila eurokoa izan da, hurrenez hurren. Lehen jaulkipen horretan, urtean % 7,5eko ordainketa finkoa lortu zen, 2015eko abenduaren 15era arte. Hortik aurrera, Entitateko Batzar Nagusiak gainerako ohiko ekarpenetarako onartu zuen tasaren pareko ordainketa ezarri zen.

ii) Bigarren jaulkipena 2012ko abenduan abiatu zen, eta Entitatearekin lotura zehatz bat duten bezeroei zuzendu zitzaien. 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, bigarren jaulkipen horretan harpidetutako zenbatekoa 52.612 eta 53.122 mila eurokoa izan da, hurrenez hurren. Bigarren jaulkipen horretarako, urtean % 6ko ordainketa finkoa zehaztu zen, 2014ko abenduaren 30era arte. Hortik aurrera, Entitate Nagusiko Batzar Nagusiak gainerako ohiko ekarpenetarako onartu zuen tasaren pareko ordainketa ezarri zen.

Ekarpenak (sozietate-zatiak) inter vivos eskualdagarriak dira, baina baldintza batekin: ekarpena jasotzen duena bazkide izatea edo bazkide bihurtzea, Entitate Nagusiaren estatutuetan ezarritako baldintzen arabera. Bestalde, heriotzaren ondoriozko oinordetza bidez ere transmiti daitezke, eskubidedunak bazkideak badira edo bazkide bihurtzen badira 6 hileko epean. Bazkideren batek baja hartuz gero, kapital sozialari egindako ekarpenak itzultzeko eska dezakete bazkide horrek edo dagozkion eskubidedunek. Kasu horretan, behin betiko baja-egunaren osteko lehen Batzar Nagusiak onartutako balantzearen arabera zehaztuko da ekarpenaren balioa, eta, bazkide izateari utzi izanaren arrazoiaren arabera, gerta daiteke zenbatekoa txikitzea Kontseilu Errektoreak erabakitako ehunekoa aplikatuz. Itzultzeko epea Kontseilu Errektoreak finkatuko du; baina, gehienez ere, 5 urtekoa izango da, baja-egunetik kontatzen hasita, edo urtebetekoa, gertaera eragiletik kontatzen hasita, bazkidea hilez gero.

2005eko azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren Seigarren Azken Xedapenak hainbat aldaketa ekarri zituen, Kreditu-kooperatiben Erregelamendua onartu zuen 84/1993 Errege Dekretuaren 10. artikuluan, eta, horien bidez, kreditu-kooperatibek aukera dute estatutuetan bazkideen kapitalerako ekarpenen itzulketa mugatzeko. Entitate Nagusiaren estatutu sozialetan ezarri denez, bazkideen ekarpenak itzultzeko nahitaezkoa izango da Kontseilu Errektoreak aldeko erabakia hartzea eta itzulketa egin ondoren gutxieneko kapital soziala, baliabide propioak edo kaudimen-koefizientea behar adina estalita geratzea.

Entitate Nagusiaren estatutuen arabera, 10.000 mila eurokoa da erabat ordaindu behar den gutxieneko kapital soziala.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, hauek dira Entitate Nagusiaren eta Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU sozietatearen esku dauden kapital-tresnak, horien balio nominala eta egun horietan egin gabe dauden ordainketak:

	2024			2023		
	Akzio-kop.	Balio nominala (eurotan)	Egiteko dauden ordainketak	Akzio-kop.	Balio nominala (eurotan)	Egiteko dauden ordainketak
Seguros Lagun Aro Vida SA	285.000	111,88	-	285.000	111,88	-
Seguros Lagun Aro SA	87.360	90,15	-	87.360	90,15	-
Caja Laboral Gestión SGIIC SA	1.045.000	6,01	-	1.045.000	6,01	-
Caja Laboral Pensiones GFP SA	250.000	10	-	250.000	10	-
Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU	1.237.500	6	-	1.237.500	6	-
Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU	10.000	1	-	10.000	1	-
ISGA Inmuebles SA	60.000	1	-	60.000	1	-
Lamiak SCA, SICAV-RAIF	31.384	1	-	29.700	1	-
LagunKlik SL	3.000	1	-	3.000	1	-

Bestelako erreserbak

Balantze bateratuetako «Bestelako erreserbak» epigrafeko saldoa, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31koa, banakatuko dugu jarraian:

	2024	2023
Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetan metatutako erreserbak edo galerak:	44	37
Erakunde elkartuak	44	37
Erakunde taldeaniztunak	-	-
Bestelakoak:	1.196.649	1.101.858
Entitate Nagusiari egotzitako erreserbak (galerak)	1.331.656	1.263.435
Mendeko erakundeei egotzitako erreserbak (galerak)	(135.007)	(161.577)
	1.196.693	1.101.895

Hona hemen «Bestelako erreserbak» epigrafearen saldoan 2024ko eta 2023ko ekitaldietan gertatutako mugimenduak:

	2024	2023
2023ko abenduaren 31ko saldoa	1.101.895	1.047.691
Aurreko ekitaldiko emaitzaren banaketa	93.716	52.678
IFRS 17ra egokitzearen erreserben gaineko eragina	-	-
Kapital-murrizketa	-	-
Bazkideen ekarpen garbiak	290	126
Dibidenduak (edo bazkideei egindako ordainketak)	-	-
Bestelakoak	792	1.400
2024ko abenduaren 31ko saldoa	1.196.693	1.101.895

1989ko maiatzaren 26ko Kreditu Kooperatiben 13/1989 Legeak, Kooperatiben zerga-erregimenari buruzko 1990eko abenduaren 19ko 20/1990 Legeak partzialki aldatu zuenak, kreditua antolatzeko oinarri berriak ezarri zizkien erakunde horiei. 1993ko ekitaldian, berriz, 1989ko maiatzaren 26ko Kreditu Kooperatiben 13/1989 Legearen garapenerako Erregelamendua onartu zen, 1993ko urtarrilaren 22ko 84/1993 Errege Dekretuaren bidez. Ekitaldian eskuragarri dagoen soberakina banatzeko irizpideak 4. oharrean jaso ditugu.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Hona hemen 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n mendeko erakundeei egotzitako «Bestelako erreserbak – Erreserbak/(galerak)» epigrafearen saldoa, erakundeen arabera banakatuta:

	2024	2023
Seguros Lagun Aro Vida SA (*)	(5.473)	(14.724)
Caja Laboral Gestión SGIIC SA	5.544	1.257
Caja Laboral Pensiones GFP SA	803	648
Seguros Lagun-Aro SA (*)	19.989	14.211
Caja Laboral Kutxa Cartera SLU	3.381	3.403
Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU	4.860	4.469
ISGA Inmuebles SA (*)	(163.717)	(170.841)
Lamiak SCA, SICAV-RAIF	(355)	-
LagunKlik SL	(39)	-
	(135.007)	(161.577)

(*) Barne hartzen du Seguros Lagun Aro 2003 AIE entitatearen baterako eragina.

Nahitaezko Erreserba Funtsa

«Bestelako erreserbak» epigrafeak Nahitaezko Erreserba Funtsaren 970.075 mila euroak eta 898.300 mila euroak biltzen ditu, hurrenez hurren, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n. 13/1989 Legearen arabera, Nahitaezko Erreserba Funtsera bideratu behar zen ekitaldiko soberakin erabilgarriaren % 50 gutxienez. 20/1990 Legeak aldatu egin zuen aurreko araua, ekitaldian Nahitaezko Erreserba Funtsera bideratu beharreko gutxienekoa % 20ra txikitzeko. Entitate Nagusiaren estatutuetan ezarrita dagoen banaketa ekitaldian erabilgarri dagoen soberakinaren % 50ekoa da gutxienez, eta 4. oharrean banakatu da.

Kaudimengabezia-arriskuak aurreikusteko erreserba

13/1989 Legea indarrean sartu arte, kreditu-kooperatiba kalifikatuek gutxienez ekitaldiko soberakinaren % 15 bideratu behar zuten erreserba horretara. 13/1989 Legeak eta 20/1990 Legeak, ordea, ez dute zehazten ekitaldiko soberakinaren banaketa egitean erreserbei ezer zuzkitu behar zaienik, kaudimengabezia-arriskuak aurreikusteko.

Hauxe da «Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetan metatutako erreserbak edo galerak» ataleko saldoak 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n zuen banakapena:

	2024	2023
Erakunde elkartuak:	44	37
Ategi Green Power SL	44	37
Erakunde taldeaniztunak:	-	-
	44	37

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n Taldeari egotzitako emaitzetarako ekarpena banakatuko dugu jarraian, erakundeen arabera:

	2024	2023
Entitate Nagusia	218.758	175.341
Mendeko erakundeak:	36.561	33.093
Caja Laboral Gestión SGIIC SA	12.716	9.717
Caja Laboral Pensiones GFP SA	176	155
Seguros Lagun Aro SA	2.121	5.340
Seguros Lagun Aro Vida SA	4.634	9.138
Seguros Lagun-Aro 2003 AIE	-	-
Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU	(17)	(22)
Caja Laboral BancaSeguros OBSV SLU	1.424	2.128
ISGA Inmuebles SA	14.380	7.049
Lamiak SCA, SICAV-RAIF	1.270	(342)
LagunKlik SL	(143)	(70)
Partaidetzaren metodoaz baloratutako erakundeak:	7	10
- Erakunde elkartuak:	7	10
Ategi Green Power SL	7	10
	255.326	208.444

38. Bestelako emaitza global metatu bat

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2024	2023
Emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak:	8.032	138.344
Estaldura-deribatuak. Diru-fluxuen estaldura (zati eraginkorra):	(32.532)	103.147
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak:	40.564	35.197
Zor-tresnak	40.564	35.197
Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak	32.669	29.493
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak:	32.669	29.493
Ondare-tresnak	32.669	29.493
	40.701	167.837

Ondare garbiko «Bestelako emaitza global metatu bat – Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak – Zor-tresnak» epigrafeko saldoan, Taldearen ondare garbiaren barruan sartu behar diren errenta finkoko finantza-tresna horien arrazoizko balioaren aldakuntzen zenbateko garbia biltzen da. Finantza-aktiboak saltzen direnean, aldeak galdu-irabazien kontuan jasotzen dira.

Ondare garbiko «Bestelako emaitza global metatu bat – Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak – Ondare-tresnak» epigrafeko saldoan, Taldearen ondare garbiaren barruan sartu behar diren ondare-tresna horien arrazoizko balioaren aldakuntzen zenbateko garbia biltzen da. Finantza-aktiboak saltzen direnean, aldakuntzak ondare garbiko «Bestelako erreserbak» epigrafean jasotzen dira (37. oharra).

Hona hemen 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko ondare garbiko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafearen banakapena:

	2024	2023
Ekitaldi-hasierako saldoa	167.837	108.866
Erreserbetan kargatuz egindako mugimendu garbia	138	(494)
Emaitzetan kargatzeko/(abonatzeko) mugimendu garbia	9.590	51.698
Salmentak eta amortizazioak (24. oharra)	9.942	52.702
Narriaduragatiko galerak (garbiak), emaitzetan kargatzekoak	(352)	(1.004)
Errebalorizazio/(Minusbalio) garbiak	(1.185)	20.717
Diru-fluxuen mikroestalduraren aldakuntzak (*)	(135.679)	(12.950)
	40.701	167.837

(*) Ikusi 43. oharra.

Epigrafe honen bilakaera egoki irakurtzeko, 2024ko eta 2023ko ekitaldietan finantza-merkatuetan gertatutako inguruabarrak hartu behar dira kontuan; 18. oharrean azaldu dira.

Hona hemen 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko ondare garbiko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafeko zenbatekoaren banakapena, erakundeen arabera:

	2024	2023
Entitate Nagusia	18.798	152.155
Mendeko erakundeak:	21.903	15.682
- Seguros Lagun-Aro Vida SA	23.497	19.269
- Seguros Lagun Aro SA	(1.594)	(3.587)
Erakunde elkartuak eta taldeaniztunak	-	-
	40.701	167.837

39. Egoera fiskala

Entitate Nagusiak eta partaidetzapeko erakundeek bakoitzaren arautegi fiskal aplikagarriaren arabera banaka aurkezten dituzte sozietateen gaineko zergaren aitorpenak.

Gipuzkoako Kooperatiben erregimen fiskalari buruzko 2/97 Foru Arauaren arabera, kreditu-kooperatibei aplikatu beharreko zerga-tasa bakarra da, hain zuzen, % 28koa. Mendeko gainerako sozietateei, berriz, % 24ko zerga-tasa aplikatzen zaie.

Partaidetzapeko erakunde nagusien 2024ko ekitaldiko sozietateen gaineko zerga likidatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2014ko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Araua aplikatu behar dira, partaidetzapekoak bere jarduera zer lurraldetan garatzen duen eta, beraz, sozietateen gaineko zergaren likidazioa non aurkezten duen.

2024ko ekitaldian zerga horri dagozkion zenbatekoak kalkulatu dituzte Entitate Nagusiko eta partaidetzapeko erakundeetako kontseilariek, baita ekitaldiaren itxieran indarrean dagoen foru-araudiaren arabera ikuskapena egiteko prest daudenak ere.

Zerga-oinarri negatiboek eta Gipuzkoako foru-araudiaren babesean sortutako kenketek 30 urteko aplikazio-muga dute.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

Hona hemen Entitate Nagusiaren 2024ko eta 2023ko ekitaldietako kontabilitate-emaitza indibidualaren eta sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarriaren berdinkatzeari buruzko informazioa:

	2024	2023
Ekitaldiko zerga aurreko kontabilitate-emaitza (*)	299.113	226.459
Diferentzia iraunkorrak		
Gehikuntzak		
- Kengarriak ez diren gastuak	257	245
- Bestelako kontzeptuak	-	-
- Ondare garbian kontabilizatutako gastuak	-	-
Murrizketak		
- Heziketako eta Sustapeneko Funtserako nahitaezko zuzkidura (55. oharra) (*)	(19.218)	(14.297)
- Kooperatiba arteko Funts Sozialerako zuzkidura	(21.446)	(17.174)
- Kapital sozialerako ekarpenengatik kontura ordaindutako interes gordin kengarriak	(47.388)	(43.154)
- Nahitaezko Erreserba Funtserako nahitaezko zuzkiduraren % 50	(48.045)	(35.743)
- Ustiapenari lotutako higiezinak saltzeagatik berrinbertitutako gainbalioak	(1.054)	(438)
- Ezarpen bikoitzagatiko kenkariak	(276)	(6.755)
- Sarrera ez-konputagarriak	-	(3)
- Bestelako kontzeptuak	-	-
Zergaren kontabilitate-oinarria	161.943	109.140
Denbora-aldeak		
- Uneko ekitaldian sortutakoak	94.022	18.862
- Dinamizazio Plana	(3.300)	(466)
- Bestelako horniduren zuzkidurak	108.480	17.375
- Irekitze-komisioak (FINA 9)	(510)	(637)
- Finantza-pasibo propioen eta hipoteka-zedulen errebalorizazioa	-	-
- Bestelakoak	1.430	2.590
Zorroaren balioaren doikuntza	(12.078)	-
Zerga-oinarri fiskala	255.965	128.002
Zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa	(252.803)	(128.002)
Likidazio-oinarria	3.162	-
Kuota osoa (% 28)	886	-
Kenketak eta hobariak	(886)	-
Kuota likidoa	-	-
Kontuko atxikipenak eta ordainketak	(167)	(551)
Sartu/(itzuli) beharreko sozietateen gaineko zerga	(167)	(551)

(*) Zerga aurreko emaitza, galdu-irabazien kontuko «Ustiapeneko bestelako gastuak» epigrafearen barruko gizarte-ekintzako funtsetarako nahitaezko zuzkidura aintzat hartu gabe (55. oharra).

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Hona hemen Entitate Nagusiaren galdu-irabazien kontuko «Jarduera etengabeen irabazien gaineko zergen gastuak edo (–) sarrerak» epigrafearen osaera, 2024ko eta 2023ko ekitaldietan:

	2024	2023
Kontabilitate-oinarria tasa aplikagarrian	42.535	30.559
Kenketak eta hobariak	1.151	(3.889)
Bestelako kontzeptuak	(681)	(722)
	43.005	25.948

Hona hemen galdu-irabazien kontuko «Jarduera etengabeen emaitzen gaineko zergen gastuak edo (–) sarrerak» epigrafearen osaera, 2024ko eta 2023ko ekitaldietan:

	2024	2023
Kontabilitate-oinarria tasa aplikagarrian	45.344	30.559
Kenketak eta hobariak	(2.809)	(3.889)
Bestelako kontzeptuak	470	(722)
Entitate Nagusiaren mozkinen gaineko zerga	43.005	25.948
Partaidetzapeko erakundeen mozkinen gaineko zerga:		
Kontabilitate-oinarria tasa aplikagarrian	6.692	8.590
Bestelako kontzeptuak	-	-
	49.697	34.538

2024ko eta 2023ko ekitaldietan, galdu-irabazien kontuko «Jarduera etengabeen emaitzen gaineko zergen gastuak edo (–) sarrerak» ez ezik, ondare garbiko «Bestelako emaitza global metatu bat» atalaren ondoriozko zerga geroratuak sortu edo itzuli dira, kontzeptu eta zenbateko hauen arabera:

	2024	2023
Estaldura-deribatuak. Diru-fluxuen estaldura (zati efektiboarena)	(52.764)	(5.036)
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	2.629	27.969
	(50.135)	22.933

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, hauexek dira etorkizuneko ekitaldietan konpentsatzeko dauden aurreko ekitaldietako Entitate Nagusiaren zerga-oinarri negatiboak:

	Konpentsazioaren azken ekitaldia	2024	2023
Zerga-oinarri negatiboak	2042	-	252.803
		-	252.803

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, hauxe da etorkizuneko ekitaldietan erabiltzeko dauden Entitate Nagusiaren sozietateen gaineko zergaren kuotaren kenkari eta hobarien xehetasuna:

	Erabileraren azken ekitaldia	2024	2023
Ezarpen bikoitzagatiko kenkariak	2041ekotik 2054kora	10.557	11.328
% 35eko kuotaren gaineko baterako mugadun kenkariak	2038kotik 2054kora	19.879	17.922
% 70eko kuotaren gaineko baterako mugadun kenkariak	2040kotik 2054kora	9.332	9.064
		39.768	38.314

% 70eko kuotaren gaineko baterako mugadun kenkariak Entitate Nagusiak I+G+i-an egindako inbertsioen ondoriozko kenkariei dagozkie, batez ere.

Entitate Nagusiko kontseilarien iritzian, aski litekeena da adierazi ditugun zenbatekoak aplikatzeko aukera emango duten onura fiskalak sortzea etorkizunean. Horregatik, kenkari, hobari eta zerga-oinarri negatibo horiek «Zerga geroratuengatiko aktiboak» atalean aktibatu dira (32. oharra).

Indarreko legeriaren arabera, zergak ezin dira behin betiko likidatutzat jo, harik eta aurkeztu diren aitorpenak aginte fiskalek ikuskatzen dituzten arte edo 4 urteko preskripzio-epea iragan arte.

2024ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak agintari fiskalek ikuskatzeko ditu azken 4 ekitaldietan aplikagarri zaizkion zerga nagusi guztiak.

Entitate Nagusiko kontseilarien aburuz, ikuskatzeko dauden eta preskribatu ez diren ekitaldietako pasiboek (baldin badaude) ez dute eragin handirik izango, 2024ko ekitaldiko urteko kontu bateratuetan. Halaber, Taldeak eginiko eragiketei aplikatzekoa den araudi fiskala modu askotara uler daitekeenez, zenbait pasibo fiskal kontingente sor litezke ikuskatzeko dauden urteetan. Hala eta guztiz ere, Entitate Nagusiko kontseilarien iritziz, oso zaila izango da pasibo kontingente horiek gauzatzea, eta, edozein modutan, sor lezaketen zerga-zorrak ez luke eragin handirik izango Taldearen urteko kontu bateratuetan.

40. Balantze bateratuko aktiboen eta pasiboen arrazoizko balioa

i) Finantza-aktibo eta -pasiboen arrazoizko balioa

13. oharrean adierazi denez, «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan» atala izan ezik, Taldearen finantza-aktiboak arrazoizko balioan daude erregistratuta honekin batera doan balantze bateratuan. Era berean, Taldearen finantza-pasiboak ere arrazoizko balioan daude jasota honekin batera doan egoera-balantze bateratuan, «Ageriko kapital itzulgarria» eta «Finantza-pasiboak kostu amortizatuan» atalak izan ezik.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

Taula honetan laburtu ditugu jarraian adierazten diren finantza-aktiboen eta -pasiboen 2024ko eta 2023ko ekitaldi-itxieretako arrazoizko balioak, Taldeak arrazoizko balioak zehazteko erabilitako balorazio-metodologien arabera sailkatuta:

2024

	Balantzea guztira	Arrazoizko balioa	Arrazoizko balioaren hierarkia		
			1. maila	2. maila	3. maila
Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko bestelako gordailuak	2.963.600	2.963.600	-	-	2.963.600
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak	3.239	3.239	1.013	2.226	-
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	1.246.987	1.246.987	1.069.767	-	177.220
Negoziatzeko helbururik ez duten eta nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren finantza-aktiboak	22.357	22.357	15.163	-	7.194
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan	22.174.091	22.155.369	6.746.139	-	15.409.230
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea	47.571	47.571	-	47.571	-
FINANTZA-AKTIBOAK GUZTIRA	**26.457.845**	**26.439.123**	**7.832.082**	**49.797**	**18.557.244**
Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak	1.487	1.487	6	1.481	-
Finantza-pasiboak kostu amortizatuan	23.575.743	23.575.743	-	-	23.575.743
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea	337.632	337.632	-	337.155	477
FINANTZA-PASIBOAK GUZTIRA	**23.914.862**	**23.914.862**	**6**	**338.636**	**23.576.220**

2023

	Balantzea guztira	Arrazoizko balioa	Arrazoizko balioaren hierarkia		
			1. maila	2. maila	3. maila
Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko bestelako gordailuak	1.417.707	1.417.707	-	-	1.417.707
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak	8.038	8.038	5.435	2.603	-
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	996.268	996.268	870.986	-	125.282
Negoziatzeko helbururik ez duten eta nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren finantza-aktiboak	12.391	12.391	5.490	2.013	4.888
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan	23.381.618	23.380.319	7.957.701	-	15.422.618
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea	57.411	57.411	-	57.411	-
FINANTZA-AKTIBOAK GUZTIRA	**25.873.433**	**25.872.134**	**8.839.612**	**62.027**	**16.970.495**
Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak	2.177	2.177	-	2.177	-
Finantza-pasiboak kostu amortizatuan	23.034.073	23.034.073	-	-	23.034.073
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea	434.648	434.648	-	433.838	810
FINANTZA-PASIBOAK GUZTIRA	**23.470.898**	**23.470.898**	**-**	**436.015**	**23.034.883**

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Hauek dira arrazoizko balioak zehazteko erabili diren irizpideak:

1. maila: finantza-tresna horientzat jarduneko merkatuetan kotizatutako prezioak erabiltzea.

2. maila: antzeko finantza-tresnentzat jarduneko merkatuetan kotizatutako prezioak edo bestelako balorazio-teknika batzuk erabiltzea (horietan, input garrantzitsu guztiak zuzenean edo zeharka behatzekoak diren merkatu-datuetan oinarritzen dira).

3. maila: merkatu-datu behagarrietan oinarrituta ez dagoen input garrantzitsuren bat duten balorazio-teknikak erabiltzea.

Zehazki, balorazio-teknika eta hipotesi hauek erabili dira arrazoizko balioak zehazteko:

- Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko bestelako gordailuak: Ageriko saldoak edo epe laburrera egitekoak direnez, ulertu da horien arrazoizko balioa bat datorrela liburuetan erregistratutako balioarekin.

- Zorra adierazten duten baloreak. Zor publikoko aktiboetarako eta kreditu-erakundeek jaulkitako errenta finkoko balore jakin batzuetarako, merkatu aktiboetan argitaratutako kotizazioa hartu da aintzat (1. maila).

- Ondare-tresnak. Jarduneko merkatuetan argitaratutako kotizazioa hartu da aintzat (1. maila), inbertsio-funts eta arrisku-kapitaleko funts jakin batzuetarako salbu, horietarako kanpoko balorazio-agente baimenduek kalkulatutako prezioak erabili baitira (2. eta 3. maila).

- Finantza-aktiboak kostu amortizatuan – Maileguak eta aurrerakinak – Bezeroak. Erabaki da ez dagoela alde handirik horien kontabilitate-balioaren eta arrazoizko balioaren artean. Izan ere, Caja Laboralak emandako mailegu gehienek interes-tasa aldakorra dute erreferentziatzat edo, bestela, haien muga-eguna 12 hiletik beherakoa da. Era berean, kreditu-arriskuaren zorroan dagoen kreditu-arriskuaren ondoriozko hornidura-maila kuantifikatu egin da, ezartzekoa zaion kontabilitate-araudiarekin bat, eta ikusi da nahikoa dela kreditu-arriskua estaltzeko.

  Dena dela, egungo ekonomia- eta finantza-ingurunea kontuan hartuta eta finantza-aktibo horientzako merkaturik ez dagoenez, litekeena da aktibo horiek alderdi interesdunen artean trukatuz gero har lezaketen zenbatekoa eta erregistratutako balio garbia desberdinak izatea. Izan ere, balizko erosleak galerak deskontatzeko aukera izango luke, bai kontabilitate-araudi aplikagarriari jarraikiz sortutako eta kontabilizatutako galerak, bai egungo egoera ekonomikoak, bere iraunaldia dela eta ezohikoak, etorkizunean jarraituz gero izan litzakeenak.

- Finantza-pasiboak kostu amortizatuan. Erabaki da ez dagoela alde handirik horien kontabilitate-balioaren eta arrazoizko balioaren artean. Izan ere, gehienek interes-tasa aldakorra dute erreferentziatzat edo, bestela, haien muga-eguna 12 hiletik beherakoa da.

Finantza-tresnen arrazoizko balioaren eta kontabilitate-balioaren artean aldea egotea hainbat arrazoiren ondorio izan daiteke:

- Tasa finkoarekin jaulkitako tresnetan, horien arrazoizko balioa merkatuko interes-tasen bilakaeraren arabera aldatzen da. Tresnaren hondar-bizitza zenbat eta handiagoa, orduan eta aldakuntza handiagoa.

- Tasa aldakorrarekin jaulkitako tresnetan, erreferentziazko interes-tasarekiko marjina aldatu egiten bada tresna jaulki zenetik, gerta liteke arrazoizko balioa eta kontabilitate-balioa desberdinak izatea. Marjinak aldatzen ez badira, arrazoizko balioa eta kontabilitate-balioa balio-handitzeen datetan bakarrik etorriko dira bat. Gainerako datetan, zehaztuta dauden fluxuak interes-tasaren arriskuaren menpe egongo dira.

Honekin batera doazen balantze bateratuetan 3. mailan sailkatu eta arrazoizko balioan erregistratu diren finantza-aktibo eta -pasiboen saldoen mugimendua azalduko dugu jarraian:

	Aktiboa	Pasiboa
2022ko abenduaren 31ko saldoak	**123.502**	**1.895**
Emaitzetan erregistratutako balorazio-doikuntzak	584	(1.085)
Emaitzetan erregistratu ez diren balorazio-doikuntzak	28.093	-
Erosketak, salmentak eta likidazioak	(22.009)	-
Sarrera/(irteera) garbiak 3. mailan	-	-
Kanbio-diferentziak eta bestelakoak	-	-
2023ko abenduaren 31ko saldoa	**130.170**	**810**
Emaitzetan erregistratutako balorazio-doikuntzak	1	(333)
Emaitzetan erregistratu ez diren balorazio-doikuntzak	4.317	-
Erosketak, salmentak eta likidazioak	49.926	-
Sarrera/(irteera) garbiak 3. mailan	-	-
Kanbio-diferentziak eta bestelakoak	-	-
2024ko abenduaren 31ko saldoa	**184.414**	**477**

2024ko eta 2023ko ekitaldietan zehar ez da finantza-aktiboen intsuldaketarik egin balorazio-maila ezberdinen artean.

ii) Aktibo ez-finantzarioen arrazoizko balioa

Arrazoizko balioa ez den beste irizpide batez baloratzen diren Taldeko aktibo ez-finantzarioek balantze bateratuan duten erregistro-balioaren eta arrazoizko balioaren arteko 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko konparazioa egingo dugu jarraian:

	2024		2023	
	Balio erregistratua	Arrazoizko balioa	Balio erregistratua	Arrazoizko balioa
Aktiboa				
Aktibo ukigarria:				
Erabilera propiokoa eta higiezinetako inbertsioak	395.355	446.408	379.029	424.652
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak	14.036	14.770	23.795	26.325
Izakinak	2.039	2.039	35.148	35.148

Honela zehaztu da aktibo horien arrazoizko balioa:

- Entitate Nagusiaren «Erabilera propioko ibilgetu materiala» eta «Higiezinetako inbertsioak» epigrafeetan dauden higiezinen arrazoizko balioak, Espainiako Bankuak ezarritako arauei jarraikiz erakunde independenteek epigrafe horietako kontabilitate-balioaren % 82 osatzen du, 2024ko abenduaren 31n (% 71, 2023ko abenduaren 31n). Gainerako higiezinetarako, 2012ko balorazioak (barruko tasazioak eta balorazioak) eguneratu egin dira. Horiei, uneko abagunea eta merkatu-itxaropenak aintzat hartuta, objektibotasunez estimatutako zuzenketa-faktore bat aplikatu die Entitate Nagusiak.

  Aktibo ukigarriko gainerako elementuetarako, kontabilitate-balio garbia hartu dugu, egun horietan merkatuan zuten balioaren estimaziorik fidagarriena delakoan.

- Estatuan dauden «Aktibo ez-korronteak salgai» atalekoen arrazoizko balioa zenbatesteko, horiek berreskuratzeko aukera hartu da kontuan, Espainiako Bankuak argitaratutako zirkularretan jasotako parametroak ezarriz esleitutako ondasunaren tipologiaren arabera. 2011ko abenduaren 31n higiezinen sustapenari lotuta zeuden aktiboen kasuan, berriz, 2012ko otsailaren 3ko 2/2012 Errege Lege Dekretuan zehaztutako irizpideak erabili dira. Ildo beretik, aipaturiko balioa zehazteko, Espainiako Bankuaren Erregistroan inskribatuta dauden tasazio-sozietateek egindako tasazioak hartu dira input osagarritzat, 2003ko martxoaren 27ko ECO/805/2003 Ministerio Aginduan xedatutakoa betez. Bestalde, higiezinen merkatuaren eta ziklo ekonomikoaren gaur egungo egoera ere hartu da aintzat.

Entitateak tasazio-sozietate hauek erabiltzen ditu, batez ere: Krata SA, Servicios Vascos de Tasaciones SA, Tinsa Tasaciones Inmobiliarias SA eta Balkide Balorazioak SA.

41. Emandako finantza-bermeak

Taldeak ohiko jardunean hartutako konpromisoen ondorioz ordaintzera behartuta daudenek ordaindu ezean, Taldeak berak ordaindu beharko du hirugarrenen kontura, eta, epigrafe honetan, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n Taldeak kontzeptu horregatik ordaindu beharreko zenbatekoak biltzen dira:

	2024	2023
Emandako finantza-bermeak	160.325	159.686
	160.325	159.686

42. Emandako maileguen konpromisoak eta emandako bestelako konpromisoak

Hona hemen epigrafe horren banaketa 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n:

	2024	2023
Emandako maileguen konpromisoak:	1.307.860	1.180.032
Hirugarrenek erabiltzeko modukoak:	1.307.860	1.180.032
Kreditu-erakundeek	832	252
Administrazio publikoen sektoreak	136.652	158.350
Bestelako sektore egoiliarrek	1.161.235	1.018.971
Ez-egoiliarrek	9.141	2.459
Emandako bestelako konpromisoak	468.591	442.426
Zor anotatua erostea		
Ordaintzeko dauden harpidetutako baloreak	115.415	91.693
Emandako bestelako abalak eta kauzioak	157.812	140.821
Dokumentu-kreditu ezeztaezinak	18.433	18.398
Bestelako konpromiso kontingenteak:	176.931	191.514
Konpentsazio-ganberei emandako dokumentuak	176.931	191.514
	1.776.451	1.622.459

43. Interesen sarrerak

Galdu-irabazien kontuko epigrafe horrek banakapen hau du 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan:

	2024	2023 (*)
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak	11	38
Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	-	-
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	34.415	17.794
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan (**)	453.196	636.646
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak	100	40
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea, interes-tasaren arriskua (**)	254.638	(46.082)
Bestelako aktiboak	71.622	34.117
Pasiboen interesen sarrerak	12.632	9.530
	826.614	652.083

(*) Berriro emandako datuak; ikusi 3.c oharra
(**) 2024ko abenduaren 31n, Entitateak zenbait bonuren liburu gordinen zenbatekoa doitu du, honetarako: Kontratuetako diru-fluxu zenbatetsiak islatzea, berrikusitako interes-tasa efektibora birkalkulatuta. espero den inflazioa kontuan hartuz (25. oharra). Bono horientzat, diru-fluxuen estaldura mantentzen da. (27. oharra). Beraz, emaitza-kontuko efektua estalita geratu da, eta ez du eraginik izan bera.

2024ko ekitaldian, hipoteka-bermedun eragiketei dagozkien 357.603 mila euro daude «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan» epigrafean (2023an 298.767 mila euro izan ziren).

Interesen sarrerarik gehienak Entitate Nagusiko finantza-aktiboek sortu dituzte, eta kostu amortizatuan edo arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituztela baloratzen dira.

Aurreko taulako Interesen sarrerarik gehienak, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz kalkulatu dira.

Estalduratik eratorrita sortutako zenbatekoak eta ondare garbian kontabilizatutakoak 2024ko eta 2023ko ekitaldietan, eta ondare garbian baja emandakoei. Ekitaldi horietako emaitzetan, “Beste emaitza bat” mugimenduan ageri dira global” (38. oharra).

Hona hemen Taldearen banku-bulegoek 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n duten kokapena lurraldeka:

	2024	2023
Bizkaia	79	79
Gipuzkoa	62	62
Araba	28	28
Nafarroa	36	36
Sare Berria	79	78
	284	283

44. Interesen gastuak

Galdu-irabazien kontuko epigrafe horrek banakapen hau du 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan:

	2024	2023 (*)
Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak	-	-
Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan	-	-
Finantza-pasiboak kostu amortizatuan	183.484	51.596
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea, interes-tasaren arriskua	(5)	(34)
Bestelako pasiboak	971	917
Aktiboen interesen gastuak	211	40.728
	184.661	93.207

(*) Berriro emandako datuak; ikusi 3.c oharra

Aurreko taulako Interesen sarrerarik gehienak, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz kalkulatu dira.

Estaldura-eragiketen gastuen zuzenketan, hipoteka-zedulen jaulkipen batzuen arrazoizko balioa estaltzeko kontratatutako finantza-trukeko eragiketak jasotzen dira, nagusiki (35. eta 27. oharrak).

45. Dibidenduen sarrerak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2024	2023
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak	26	29
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak	1.916	2.198
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	2.181	1.434
	4.123	3.661

46. Partaidetzaren metodoaz baloratutako erakundeen emaitzak

Galdu-irabazien kontu bateratuko epigrafe horrek banakapen hau du 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan (28. oharra):

	2024	2023
Erakunde elkartuak	(7)	10
Erakunde taldeaniztunak	-	-
	(7)	10

47. Komisioen sarrerak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2024	2023
Arrisku kontingenteengatik	3.360	3.306
Konpromiso kontingenteengatik	1.718	1.554
Dibisak eta bankuko atzerriko billeteak aldatzeagatik	54	60
Kobrantza- eta ordainketa-zerbitzuengatik	57.902	59.986
Balore-zerbitzuengatik:	75.352	67.249
Baloreak aseguratu eta kokatzea	-	-
Balore-salerosketa	1.054	918
Administrazioa eta zainketa	1.703	1.314
Ondarearen gestioa	72.595	65.017
Banku-jarduerakoak ez diren finantza-produktuen komertzializazioagatik:	6.380	5.618
Inbertsio-funtsak	3.963	3.263
Pentsio-funtsak	489	523
Aseguruak	1928	1.832
Bestelakoak	-	-
Bestelako komisioak	3.956	4.148
	148.722	141.921

48. Komisioen gastuak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2024	2023
Eragiketa aktibo eta pasiboetako artekari-sariak	7	9
Bestelako erakunde korrespontsalei lagatako komisioak	6.586	5.982
Efektuak kobratu edo itzultzeagatikoak	3	4
Bestelako arrazoiengatikoak	6.583	5.978
Balore-eragiketengatik ordaindutako komisioak	1.232	1.165
Bitartekari monetarioekin	1.077	1.083
Hirugarrenen funtsekin	120	-
Bestelakoekin	35	81
Bestelako komisioak	3.700	3.576
	11.525	10.732

49. Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktibo eta pasiboei kontuetan baja emateagatiko irabazi edo (–) galera garbiak, eta Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboen irabazi edo (–) galera garbiak

Galdu-irabazien kontu bateratuko epigrafe horiek banakapen hau dute 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan, osatzen duten partiden jatorria aintzat hartuta:

	2024	2023
Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuetan baja emateagatiko irabazi edo (–) galera garbiak	(77.432)	(118.356)
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	(13.081)	(72.780)
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan	(64.351)	(45.576)
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboen irabazi edo (–) galera garbiak	652	3.735
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak	652	3.735
	(76.780)	(114.621)
Irabaziak	6.097	9.130
Galerak	(82.877)	(123.751)
	(76.780)	(114.621)

Bestalde, hauxe da 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan saldo horiek eman dituzten finantza-tresnen banakapena, horien izaera aintzat hartuta:

	2024	2023
Zorra adierazten duten baloreak	(77.483)	(118.184)
Ondare-tresnak	586	3.563
Deribatuak	-	-
Maileguak eta aurrerakinak	117	-
	(76.780)	(114.621)

50. Negoziatzeko dauden finantza-aktiboen eta -pasiboen irabazi edo (–) galera garbiak

Galdu-irabazien kontu bateratuko epigrafe horrek banakapen hau du 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan, osatzen duten partiden jatorria aintzat hartuta:

	2024	2023
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak	1.395	(1)
	1.395	(1)
Irabaziak	25.577	42.661
Galerak	(24.182)	(42.662)
	1.395	(1)

Bestalde, hauxe da 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan saldo horiek eman dituzten finantza-tresnen banakapena, horien izaera aintzat hartuta:

	2024	2023
Zorra adierazten duten baloreak	350	544
Ondare-tresnak	160	175
Deribatuak	885	(720)
	1.395	(1)

51. Arrazoizko balioan izendatu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktibo eta -pasiboen irabazi edo (–) galera garbiak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2024	2023
Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	-	-
	-	-
Irabaziak	-	-
Galerak	-	-
	-	-

52. Estaldura-kontabilitatearen irabazi edo (–) galera garbiak

Galdu-irabazien kontuko epigrafe horrek banakapen hau du 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan:

	2024	2023
Estaldura-deribatuak	(1.688)	(6.005)
Estalitako partidak	60	6.025
	(1.628)	20
Irabaziak	584	6.432
Galerak	(2.212)	(6.412)
	(1.628)	20

«Estaldura-kontabilitatearen irabaziak edo (–) galerak – Estaldura-deribatuak» epigrafean, Entitateak 2024an eta 2023an zituen arrazoizko balioko estaldura-tresnen balorazio-doikuntzak sartzen dira. Bestalde, «Estaldura-kontabilitatearen irabaziak edo (–) galerak – Estalitako partidak» epigrafean, arrazoizko balioa estaltzeko izendatutako kontratu horiek estali dituzten elementuen balorazio-doikuntzak sartzen dira (ikusi 13.e oharra).

53. Kanbio-diferentzia [irabazi edo (–) galera] garbiak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2024	2023
Irabaziak	1.057.452	1.345.619
Galerak	(1.056.707)	(1.345.290)
	745	329

54. Ustiapeneko bestelako sarrerak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2024	2023
Higiezinetako inbertsioak ustiatzeagatiko sarrerak (30. oharra)	2.826	2.363
Zerbitzuak emateagatiko salmentak eta sarrerak	2.390	2.363
Gainerako ustiapen-produktuak	9.924	12.679
Kostuak konpentsatzeko finantza-komisioak	-	3
Bestelako errentamendu operatiboen sarrerak (garbiak) (30. oharra)	6.355	6.198
Aktibo higiezinengatiko izakinen aldakuntza	-	-
Bestelako produktuak	3.569	6.478
	15.140	15.042

55. Ustiapeneko bestelako gastuak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2024	2023
Gordailuak Bermatzeko Funtserako ekarpena (10. oharra)	91	31.354
Suntsiarazpen Funts Nazionalerako ekarpena (10. oharra)	-	4.339
Gizarte-ekintzako funtsetarako nahitaezko zuzkidura (4. eta 33. oharrak)	19.218	14.297
Aktibo higiezinen erosketak eta gastuak	-	-
Kreditu-erakundeen gordailuen gaineko zerga	6.937	6.747
Bestelako kontzeptuak	3.901	4.037
	30.147	60.774

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietako galdu-irabazi bateratuen kontuetako «Ustiapeneko bestelako gastuak – Gizarte-ekintzako funtsetarako nahitaezko zuzkidura» epigrafean erregistratutako zenbatekoak (19.218 eta 14.297 mila eurokoak, hurrenez hurren) Kooperatiben Legean eta Entitatearen estatutuetan ezarritakoari jarraikiz Heziketako eta Sustapeneko funtsera egin beharreko nahitaezko zuzkidurari dagozkio (4. oharra).

Era berean, «Ustiapeneko bestelako gastuak – Bestelako kontzeptuak» epigrafean, zerga geroratuengatiko aktiboak zerga-administrazioaren aurrean galdagarria den kreditu bihurtzearen ondoriozko ondare-prestazioaren estimazioa, 2024ko abenduaren 31koa, jaso da; 1.044 mila euroko kopurua osatzen du (1.582 eurokoa 2023ko ekitaldian).

56. Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktibo eta pasiboen sarrerak eta gastuak

Galdu-irabazien kontu bateratuko epigrafe horietan, bateratuan integratutako aseguru-erakundeek Taldearen marjina arruntari egindako ekarpenak jaso dira. Xehetasun hauek ditu 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuari egindako ekarpenak:

	2024	2023
Aseguruen sarrerak		
Gertatutako itxarondako ezbeharrak eta aseguru-zerbitzuaren bestelako gastuak	6.634	8.657
Arriskuaren doikuntzako aldaketak arrisku ez-finantzarioan	765	1.057
Emandako zerbitzuengatik kontabilizatutako kontratuzko zerbitzuaren marjina (CSM)	3.430	2.908
Pasiboko aldaketekin lotutako zenbatekoak, PAA bidez baloratutako kontratuen gainerako estalduran	170.637	158.494
BBA edo VFA bidez aseguruak eskuratzeagatiko diru-fluxuak berreskuratzea	4.124	3.989
Aseguruen sarrerak guztira	185.590	175.105
Aseguruen gastuak		
Izandako ezbeharrak eta aseguru-zerbitzuaren bestelako gastuak	105.793	113.320
Asegurua eskuratzeagatiko diru-fluxuak amortizatzea	7.639	(610)
Izandako ezbeharrengatiko pasiboarekin (LICarekin) lotutako betetzetik datozen iraganeko zerbitzuei lotutako aldaketak	17.941	4.538
Kostu bidezko kontratuen galerak eta galera horien itzulerak	272	(136)
Aseguruen gastuak guztira	131.645	117.112

	2024	2023
Berraseguruak berreskuratzeagatiko sarrerak	27.672	29.094
Berraseguratzaileari ordaindutako primak esleitzearen gastuak	(34.814)	(31.799)
Berraseguruaren emaitza garbia guztira	(7.142)	(2.705)

	2024	2023
Aseguru-kontratuen sarrera eta gastu finantzarioak	(4.719)	(3.889)
Berraseguru-kontratuen sarrera eta gastu finantzarioak	181	-
Aseguru-zerbitzuaren finantza-emaitza guztira	(4.538)	(3.889)

Hauxe da 2024ko eta 2023ko ekitaldien itxieran erantsitako galdu-irabazien kontu bateratuan kontratu-zerbitzuaren marjinatik (OMZtik) espero den etorkizuneko kontabilizazioaren analisiaren banakapena:

	2024	2023
Urtebete baino gutxiagokoak	3.197	2.782
1 eta 3 urte bitartekoak	5.350	3.915
3 eta 5 urte bitartekoak	1.204	2.150
5 eta 8 urte bitartekoak	675	853
8 urtetik gorakoak	2.327	2.942
Jaulkitako aseguru-kontratuak guztira	12.753	12.642

57. Administrazio-gastuak

a) Pertsonal-gastuak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2024	2023
Pertsonal aktiboaren soldatak eta eskersariak	152.582	138.240
Gizarte-segurantzaren kuotak	4.372	4.209
Kaleratzeen kalte-ordainak	246	-
Prestakuntza-gastuak	1.468	1.498
Bestelako pertsonal-gastuak	994	1.030
	159.662	144.977

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiaren jarduerari loturiko zerbitzuak ematearen ondoriozko ordainketak daude eta xehetasun hau dute:

	2024			2023		
	Interes hobariduna	Merkatuko interesa	Diferentzia	Interes hobariduna	Merkatuko interesa	Diferentzia
Interes-tasa txikiko maileguak	1.602	2.525	923	1.364	2.794	1.430

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2024KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Ondoren, 2024ko eta 2023ko ekitaldietan zegoen enplegatuen batez besteko kopurua zehaztuko dugu, kategoriaren arabera banatuta:

	2024	2023
Zuzendariak	54	53
Buruak	389	383
Teknikariak	1.240	1.178
Administrariak	661	647
	2.344	2.261

2024ko abenduaren 31n, plantilla osoko 27 lagunek desgaitasun-mailaren bat dute aitortuta (25ek 2023ko abenduaren 31n).

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, hauxe da Taldeko langileen banaketa, generoari begiratuta:

	Langile-kopurua					
	2024			2023		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Zuzendariak	15	37	52	15	41	56
Buruak	148	246	394	148	237	385
Teknikariak	700	576	1276	662	549	1211
Administrariak	443	230	673	425	234	659
	1.306	1.089	2.395	1.250	1.061	2.311
Entitate Nagusia	1.093	998	2.091	1.041	974	2.015
Gainerako erakundeak:						
Mendekoak	213	91	304	209	87	296
	1.306	1.089	2.395	1.250	1.061	2.311

Hona hemen Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektoreak 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n duen banaketa, generoari dagokionez:

	Kide-kopurua					
	2024			2023		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Kontseilu Errektoreko kideak	6	8	14	6	8	14

b) Bestelako administrazio-gastuak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2024	2023
Higiezinak, instalazioak eta materiala:	12.190	12.053
Alokairuak (30. oharra)	582	496
Ibilgetuaren mantentze-lana	7.915	6.901
Argiteria, ura eta berokuntza	2.295	3.240
Inprimakiak eta bulegoko materiala	1.398	1.416
Informatika	16.329	13.344
Komunikazioak	6.451	5.801
Publizitatea eta propaganda	9.875	8.945
Gastu judizialak eta letratuenak	2.489	3.009
Txosten teknikoak	49.319	39.051
Funtsak zaindu eta lekualdatzeko zerbitzuak	2.339	2.261
Aseguru- eta autoaseguru-primak	883	907
Gobernu- eta kontrol-organoak	174	248
Langileek entitatea ordezkatzen eta joan-etorrietan egindako gastuak	2.202	2.021
Elkarteen kuotak	657	648
Azpikontratatutako administrazio-zerbitzuak	13.308	11.508
Kontribuzioak eta zergak	3.104	2.692
Bestelako gastuak	4.456	2.481
	123.776	104.968

Hala, Taldeak «Alokairuak» epigrafean erregistratzen ditu 12 hilabetetik beherako errentamendu-kontratuen gastuak, bai eta errentan hartutako elementua balio txikikoa (emaitza-kontuan nabarmena ez dena) duten kontratuen gastuak ere (13.q oharra).

2024ko ekitaldian, Entitate Nagusiko kontseilari eta zuzendari guztien erantzukizun zibilerako aseguru kolektiboaren prima ordaindu da, kargua betetzean egindako edo ustez egindako egintza okerrek eragin litzaketen balizko kalteak estaltzeko. 41 mila euroko zenbatekoa ordaindu da guztira (84 mila eurokoa 2023ko ekitaldian).

58. Amortizazioa

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2024	2023
Aktibo materiala	27.884	25.671
Ibilgetu ukigarria	27.214	24.949
Erabilera propiokoa	21.485	19.193
Finantza-errentamenduan lagatakoak	5.729	5.756
Higiezinetako inbertsioak	670	722
Aktibo ukiezina	-	-
	27.884	25.671

59. Hornidurak edo (–) horniduren itzulera

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2024	2023
Pentsioetarako hornidurak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak (36. oharra)	6.698	8.867
Konpromisoetarako eta emandako bermeetarako hornidurak (36. oharra)	(3.528)	(3.075)
Ordaintzeko dauden zergen prozesu-gaietarako eta auzietarako hornidurak (36. oharra)	-	-
Gainerako hornidurak (36. oharra)	142.753	30.928
	145.923	36.720

60. Arrazoizko balioan baloratu ez diren, emaitzetan aldaketak eragiten dituzten eta aldaketaren ondorioz galera edo (–) irabazi garbiak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2024	2023
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak (*) (24. oharra)	(463)	(1.321)
Zorra adierazten duten baloreak	(463)	(1.321)
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan (**) (25. oharra)	(13.575)	30.332
Maileguak eta aurrerakinak	(13.575)	30.332
Zorra adierazten duten baloreak	-	-
	(14.038)	29.011

(*) Barne hartzen du 2024ko abenduaren 31ko aktibo kobraezinen berreskurapena; 113 mila eurokoa izan da (2023ko abenduaren 31n 0 mila eurokoa).

(**) Barne hartzen du kaudimengabezien amortizazioa eta aktibo kobraezinen berreskurapena; hurrenez hurren, 1.409 eta 3.467 mila eurokoak izan dira 2024ko ekitaldian (2023koan, 3.225 eta 8.177 mila eurokoak, hurrenez hurren).

61. Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2024	2023
Erakunde elkartuetako partaidetzak (28. oharra)	-	-
Erakunde taldeaniztunetako partaidetzak (28. oharra)	-	-
	-	-

62. Aktibo ez-finantzarioen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2024	2023
Aktibo ukigarriak (30. oharra)	575	1.237
Bestelako aktiboak	(5)	1.131
	570	2.368

63. Aktibo ez finantzarioei kontuetan baja emateagatiko irabazi edo (–) galera garbiak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2024	2023
Aktibo ez-finantzarioak saltzeagatiko irabazi (galera) garbiak	8.527	5.563
Partaidetzak saltzeagatiko irabazi (galera) garbiak	-	-
	8.527	5.563

64. Saltzeko daudenen artean sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen aktibo ez-korronteetatik eta elementu-multzo besterengarrietatik datozen irabaziak edo (–) galerak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2024	2023
Salgai dauden aktibo ez-korronteak saltzeagatiko irabazi (galera) garbiak	14.948	19.299
Salgai dauden aktibo ez-korronteen narriaduragatiko zuzkidura garbiak (34. oharra)	(8.918)	(23.298)
	6.030	(3.999)

65. Erakunde taldeaniztun eta elkartuekin egindako eragiketak

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n Entitate Nagusiaren eta mendeko erakundeen artean dituzten saldo garrantzitsuak eta egun horietan bukatutako ekitaldietan horien artean egindako transakzioen eragina ez dira baterakuntza-prozesuan sartu. Hona hemen erakunde taldeaniztun eta elkartuekin egindako aktiboko eta pasiboko eragiketen 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko saldoen laburpena:

	2024	2023
Saldoak		
Bezeroen gordailuak	442	513
Aktibo ez-korronteak salgai	-	-
Abalak	-	-
Maileguak eta aurrerakinak	580	638

2024ko eta 2023ko ekitaldietan ez da izan transakzio nabarmenik erakunde taldeaniztun eta elkartuekin.

66. Bestelako informazioa

Hona hemen Taldearen balantze bateratutik kanpo dauden bezeroen baliabideen xehetasuna, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n:

	2024	2023
Entitatearen Taldeak gestionatutakoak:	8.066.523	7.042.515
Inbertsio-sozietateak eta -funtsak	5.751.387	4.832.288
Pentsio-funtsak eta BGAEak	2.051.176	1.921.493
Aseguru-kontratuetako aurrezkia	261.744	288.733
Diskrezioz kudeatutako bezero-zorroak	2.216	-
Entitatearen Taldeak komertzializatutakoak baina ez kudeatuak	1.926.697	1.762.146
	9.993.220	8.804.661

2024ko abenduaren 31n, 7.929.505 mila eurokoa da hirugarrenen jabetzako balore-gordailuen saldoa (7.480.743 mila eurokoa 2023ko abenduaren 31n).

Taldeak 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n lagatako «Zorra adierazten duten baloreak» atalaren lagapena 522.988 mila eurokoa eta 870.142 mila eurokoa da, hurrenez hurren. Zor-baloreok hirugarrenei lagatakoak dira, eta balantzeko «Finantza-pasiboak kostu amortizatuan – Bezeroen gordailuak» epigrafean agertzen dira.

67. Hipoteka-merkatuko jaulkitzaileen eta kontabilitate-erregistro bereziaren gaineko informazioa

Txosteneko 35. oharrean adierazi denez, Entitate Nagusiak hipoteka-zedulak jaulki zituen aurreko ekitaldietan, eta 2021eko ekitaldian izan zuten azken mugaeguna. Hori dela eta, 2009ko apirilaren 24ko 716/2009 Errege Dekretuaren 21. artikuluan aipatzen den kontabilitate-erregistro berezian entitate jaulkitzaileari buruz dauden datuak erantsi ditugu jarraian, 7/2010 Zirkularrean ezarritakoari jarraikiz. Zirkular horrek hipoteka-merkatuaren hainbat alderdi garatzen ditu, Espainiako Bankuaren 2011ko azaroaren 30eko 5/2011 Zirkularrean ezarritako banakapen-mailarekin.

Era berean, eta hipoteka-merkatua arautzeko eta hipoteka- eta finantza-sistemako beste arau batzuei buruzko 1981eko martxoaren 25eko 2/1981 Legearen alderdi jakin batzuk garatzen dituen 2009ko apirilaren 24ko 716/2009 Errege Dekretuak zehaztutakoaren arabera, Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektoreak adierazi du 2024ko abenduaren 31n Entitate Nagusiak prozedura- eta politika-sorta bat daukala zehaztuta, hipoteka-merkatua arautzen duen araudia beteko dela bermatzeko, eta bere gain hartzen duela ardura hori.

Politika eta prozedura horietan, gai hauen inguruko irizpideak sartzen dira, besteak beste:

Arriskua emateko irizpideak mailegu-hartzaileen ordaintzeko gaitasunean oinarritzen dira. Gaitasun hori estimatzeko, funtsezkoak dira barne-ereduak (*scoring*ak eta *rating*ak).

Hipoteka-bermea eta abal-emaileak dira onartutako arintzaile nagusiak. Hipoteka-bermean, eragiketen LTV erlazioa (arriskua eta tasazioa) baloratzen da, bereziki.

Eredu horiek gai dira ez ordaintzeko probabilitatea estimatzeko, eta, beraz, eskabidearen lehen kreditu-kalifikazioa esleitzeko, idatzitako datuetan eta aldagai batzuen portaera historikoetan oinarrituta. Eragiketa bakoitza kalifikatzeko, arrisku-mailarik txikienetik handienera doan eskala bat erabiltzen da, eta maila horietako bakoitzaren arabera ez-ordaintzeak izateko probabilitatea esleitzen zaio.

Ereduek aldagai batzuk aztertzen dituzte: errenta- edo sarrera-maila, ondarea edo zorpetzea, ordainketetan izandako portaera, kreditu-hartzailearen atxikimendua eta alderdi pertsonalak eta arrisku-eragiketari lotutako ezaugarri jakin batzuk.

Zehazki, aldagai-mota hauek bereizten dituzte indarrean dauden ereduek: ezaugarri pertsonalak, ez-ordaintzeen historikoa, errentak edo sarrerak lortzeko ahalmena, zorpetzea, ondare garbia, entitatearekiko atxikimendua, eragiketaren ezaugarriak eta kredituaren estaldura (arintzaileak).

Gainera, prozedura batzuk daude, sartutako datuen gainean sisteman jasotako informazioa egiaztatzeko, bereziki gai hauetan: sarrerak, ondarea, hipoteka-bermea (higiezina tasatzearen bidez), finantzaketaren helburua, bezeroaren datu orokorrak eta bezeroaren portaeraren oinarriak.

Tasazioak egiten dira arrisku-eragiketak formalizatzeko hipoteka-berme moduan erabiltzen diren aktibo higiezinen balioa zehazteko, eta baldintza hauek bete behar dituzte:

- Espainiako Bankuaren Tasazio Erregistro Ofizialean erregistratutako tasazio-sozietateek egin behar dituzte.
- ECO/805/2003 Ministerio Agindua, martxoaren 27koa, bete behar dute.

Aktibo horien balioa maiztasun aldakor batekin berrikusten da, horien bidez bermatutako eragiketaren kalifikazioa, zenbatekoa eta LTVa (aktiboaren arriskua/balioa) kontuan hartuta. Eragiketaren kalifikazioaren araberako politikak ezartzen dira, eragiketa arazotsuak (zalantzazkoak edo esleituak), normalak edo jarraipen berezikoak diren.

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n ez dago eragiketa aktibo eta pasiborik, azkenak 2021eko ekitaldian mugaeguneratu baitziren.

68. Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epealdiari buruzko informazioa. Hirugarren Xedapen Gehigarria. 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legearen «Informatzeko beharra»

Jarraian, 2024ko eta 2023ko ekitaldietan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epealdiari buruzko informazioa emango dugu, arau hauek aintzat hartuta: batetik, 31/2014 Legea, abenduaren 3koa, gobernu korporatiboa hobetzeari buruzkoa, 15/2010 Legearen, uztailaren 5ekoaren, Hirugarren Xedapen Gehigarria aldatzen duena —azken Lege horrek 3/2004 Legea aldatu zuen, abenduaren 29koa, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen zituena—, eta, bestetik, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren 2016ko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren Xedapen Bakarra, eskatutako informazio-betebeharra betetzeari buruzkoa.

	Egunak	
	2024	2023
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epealdia	15	18
Ordaindutako eragiketen ratioa	15	18
Ordaintzeko eragiketen ratioa	24	19

	Zenbatekoa (mila eurokotan)	
	2024	2023
Egindako ordainketak guztira	380.803	326.124
Ordaintzekoak guztira	15.455	7.383

Xedapen gehigarriaren 3. apartatuari jarraikiz 2022ko irailaren 29ko 18/2022 Legean ezarritako informatzeko betekizuna aintzat harturik, hauek dira berankortasunaren alorreko araudian ezarrita dauden gehieneko epeaz azpiko ordainketa-epea duten fakturen datuak, 2024ko ekitaldiari dagozkionak:

	Zenbatekoa (mila eurokotan)	
	2024	2023
60 egun baino lehen egiteko ordainketak	367.445	281.107
Faktura guztien gaineko %-a	% 96	% 97

	Faktura-kopurua	
	2024	2023
60 egun baino lehen egiteko ordainketak		
Faktura guztien gaineko %-a	72.023	81.251
Ordaintzekoak guztira	% 96	% 95

69. Erakunde mendeko, taldeaniztun edo elkartuetako negozio-konbinazioak eta partaidetzen eskurapenak

a) Erakunde mendeko, taldeaniztun edo elkartuetako kapitaleko eskurapenei buruzko informazioa

2024ko eta 2023ko ekitaldietan zehar, ez da Taldearentzat garrantzizkoa den eskurapenik gertatu erakunde mendeko, taldeaniztun edo elkartuetako kapitalean.

b) Negozio-konbinazioak

2024ko eta 2023ko ekitaldietan zehar, Taldearentzat ez da garrantzizko negozio-konbinaziorik gertatu.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

TALDEKO ENPRESETAN DITUGUN PARTAIDETZEN ETA BESTE PARTAIDETZA BATZUEN BANAKAKO XEHETASUNA, 2024KO ABENDUAREN 31KOA
(Mila eurokotan adierazita)

			2024								
			Partaidetzaren %-a		Kontabilitate-balioa			Partaidetzapeko erakundearen datuak (*)			
Sozietatea	Helbidea	Jarduera	Zuzena	Zeharkakoa	Gordina	Narriadura	Garbia	Aktiboak	Ondare garbia	Zerbitzuen/ salmenten sarrerak	Emaitza garbia
Mendeko erakundeak											
Seguros Lagun Aro Vida SA	Bilbo	Aseguruak	% 76	% 24	34.508	-	34.508	426.372	81.434	51.922	2.630
Seguros Lagun-Aro SA	Bilbo	Aseguruak	% 49,64	% 50,36	17.649	-	17.649	228.433	64.415	106.581	685
Seguros Lagun-Aro 2003 AIE	Bilbo	Zerbitzuak ematea	-	% 100	-	-	-	3.553	2.792	-	-
Caja Laboral Gestión SGIIC SA	Arrasate	Inbertsio-funtsen gestorea	% 100	-	6.281	-	6.281	36.188	24.541	46.369	12.717
Caja Laboral Pensiones GFP SA	Arrasate	Pentsio-funtsen gestorea	% 100	-	2.500	-	2.500	4.501	3.479	3.883	176
Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU	Arrasate	Partaidetza-edukitzailea	% 100	-	60.773	-	60.773	64.142	64.154	-	(17)
Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU	Bilbo	Banka-aseguruetako operadorea	% 100	-	10	-	10	13.545	6.081	36.065	1.424
ISGA Inmuebles SA	Arrasate	Aktibo higiezinen gestorea	% 100	-	10.127	(8.544)	1.583	12.584	5.241	56.608	14.380
Lamiak SCA, SICAV-RAIF	Luxenburgo	Ondarearen gestioa	% 99	-	31.384	-	31.384	37.818	34.282	3.068	2.754
LagunKlik SL	Bilbo	Zerbitzu-bilaketako bitartekaritza	-	% 100	-	-	-	656	647	11	(143)
					163.232	(8.544)	154.688				

			2024								
			Partaidetzaren %-a		Kontabilitate-balioa			Partaidetzapeko erakundearen datuak (*)			
Sozietatea	Helbidea	Jarduera	Zuzena	Zeharkakoa	Gordina	Narriadura	Garbia	Aktiboak	Ondare garbia	Zerbitzuen/ salmenten sarrerak	Emaitza garbia
Erakunde elkartuak											
Ategi Green Power SL	Arrasate	Energia-ekoizpena (BISG)	% 28,57	-	333	-	333	3.368	1.297	171	(24)
					333	-	333				

(*) Honekin batera doazen ondareari buruzko datuak partaidetzapeko sozietateek 2024ko abenduaren 31n dituzten finantzetako egoera-orri indibidual homogeneizatuei dagozkie.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

TALDEKO ENPRESETAN DITUGUN PARTAIDETZEN ETA BESTE PARTAIDETZA BATZUEN BANAKAKO XEHETASUNA, 2023KO ABENDUAREN 31KOA
(Mila eurokotan adierazita)

			2023								
			Partaidetzaren %-a		Kontabilitate-balioa			Partaidetzapeko erakundearen datuak (*)			
Sozietatea	Helbidea	Jarduera	Zuzena	Zeharkakoa	Gordina	Narriadura	Garbia	Aktiboak	Ondare garbia	Zerbitzuen/ salmenten sarrerak	Emaitza garbia
Mendeko erakundeak											
Seguros Lagun Aro Vida SA	Bilbo	Aseguruak	% 76	% 24	34.508	-	34.508	438.103	70.916	53.642	3.040
Seguros Lagun-Aro SA	Bilbo	Aseguruak	% 49,64	% 50,36	17.649	-	17.649	220.698	61.561	99.693	238
Seguros Lagun-Aro 2003 AIE	Bilbo	Zerbitzuak ematea	-	% 100	-	-	-	3.672	2.792	-	-
Caja Laboral Gestión SGIIC SA	Arrasate	Inbertsio-funtsen gestorea	% 100	-	6.281	-	6.281	26.811	17.253	39.429	9.717
Caja Laboral Pensiones GFP SA	Arrasate	Pentsio-funtsen gestorea	% 100	-	2.500	-	2.500	4.156	3.303	3.507	155
Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU	Arrasate	Partaidetza-edukitzailea	% 100	-	59.673	-	59.673	63.054	63.054	-	(22)
Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU	Bilbo	Banka-aseguruetako operadorea	% 100	-	10	-	10	7.951	4.657	35.260	2.128
ISGA Inmuebles SA	Arrasate	Aktibo higiezinen gestorea	% 100	-	50.354	(22.403)	27.951	45.902	33.305	32.281	7.049
Lamiak SCA, SICAV-RAIF	Luxenburgo	Ondarearen gestioa	% 99	-	11.881	-	11.881	11.895	11.845	140	(185)
LagunKlik SL	Bilbo	Zerbitzu-bilaketako bitartekaritza	-	% 100	-	-	-	283	233	1	(70)
					182.856	(22.403)	160.453				

			2023								
			Partaidetzaren %-a		Kontabilitate-balioa			Partaidetzapeko erakundearen datuak (*)			
Sozietatea	Helbidea	Jarduera	Zuzena	Zeharkakoa	Gordina	Narriadura	Garbia	Aktiboak	Ondare garbia	Zerbitzuen/ salmenten sarrerak	Emaitza garbia
Erakunde elkartuak											
Ategi Green Power SL	Arrasate	Energia-ekoizpena (BISG)	% 28,57	-	333	-	333	3.638	1.332	278	36
					333	-	333				

(*) Honekin batera doazen ondareari buruzko datuak partaidetzapeko sozietateek 2023ko abenduaren 31n dituzten finantzetako egoera-orri indibidual homogeneizatuei dagozkie.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

AGENTZIA-KONTRATUAK, 2024KO ETA 2023KO ABENDUAREN 31KOAK

Izena	Helbidea	Identifikazio-kodea	Ahalmenen egilespen-data	Agintearen amaiera-data	Jarduera-eremu geografikoa	Ordezkapenaren norainokoa
Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU	Diego Lopez de Haro Kale Nagusia 2, Bilbo	B 75060988	2013-01-01	Mugagabea	Estatua	- Kontu korronteko, aurrezki-libretako eta epe finkorako ezarpenetako, inbertsio-funtsetako eta pentsio- eta aurreikuspen-planetako eragiketak tramitatzea, eta horretarako behar diren agiriak sinatzea. - Entitateari kredituen eta beste arrisku-eragiketa batzuen tramiteak egitea. - Entitatearekin posta-harremana eta publikoarekin kontaktua izatea. Berak egokitzat jotzen duen moduan antolatuko du lan-moldea eta ordutegia, Entitateak agintzen dizkion arau eta jarraibideen barruan.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

III. ERANSKINA

URTEKO BANKU-TXOSTENA

LABORAL Kutxa Taldearen 2024ko abenduaren 31ko informazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 10/2014 Legea eta 2013/36/EE Zuzentaraua betetzeko emana

Informazio hau prestatzeko, 2014ko ekainaren 27ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen, kreditu-erakundeen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoaren, 87. artikuluan eta Hamabigarren Xedapen Iragankorrean xedatutakoa bete dugu. Lege horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 2013/36/EB Zuzentarauaren, kreditu-erakundeen jardueran sartzeari eta kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten enpresak zuhurtziaz gainbegiratzeari buruzkoaren, 89. artikulua transposatzen du. Zuzentarau horrek, berriz, 2002/87/EE Zuzentaraua aldatzen du eta 2006/48/EE eta 2006/49/EE —CRD IV izenez ezaguna— Zuzentarauak indargabetzen ditu.

Araudi horri jarraikiz, kreditu-erakundeek Espainiako Bankuari bidali beharko diote, eta urtero argitaratu, ekitaldi bakoitzeko informazio bateratu hau, zer herrialdetan ezarrita dauden adierazita:

a) jardueraren izena, izaera eta kokapen geografikoa
b) negozio-bolumena
c) lanaldi osoko langile-kopurua
d) zerga aurreko emaitza gordina
e) emaitzaren gaineko zerga
f) jasotako dirulaguntzak edo laguntza publikoak

Aurrekoaren ildotik, eskatutako informazio hori zehaztuko dugu ondoren:

- Jardueraren izena, izaera eta kokapen geografikoa

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito (aurrerantzean Entitatea, LABORAL Kutxa edo Caja Laborala), helbide soziala Arrasaten (Gipuzkoan) duen eta 2012ko azaroaren 2an eratu zen kreditu-kooperatiba da. Caja Laboral Popular Coop. de Créditok eta Ipar Kutxa Rural S. Coop. de Créditok bat eginez sortu zuten. Kooperatiba kalifikatuaren izaera du Entitateak.

Entitateko estatutu sozialen arabera, bere jarduera ez dago inolako lurralde-eremutara mugatuta, eta bazkideen eta hirugarrenen finantza-beharrak kreditu-erakundeen berezko jardueren bidez asetzea du helburu. Ondore horretarako, gainerako kreditu-erakundeek egin ditzaketen mota guztietako eragiketa aktibo, pasibo eta zerbitzuzkoak egin ahal izango ditu, bere helburu kooperatiboak sustatzeko eta ahalik eta ondoen betetzeko balio dutenak barne. Arreta berezia eskainiko die bere bazkideen finantza-beharrei, eta hirugarrenekiko eragiketa aktiboetarako legezko mugak errespetatuko ditu.

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko LABORAL Kutxaren urteko kontu bateratu hauen I. eranskinean, jurisdikzio bakoitzean diharduten sozietateak xehatu ditugu, haien izena, kokapena eta jardueraren izaera zehaztuta.

- Negozio-bolumena, lanaldi osoko langile-kopurua, zerga aurreko emaitza gordina eta emaitzaren gaineko zerga

	Negozio-bolumena (mila eurokotan)	Lanaldi osoko langile-kopurua	Zerga aurreko emaitza gordina	Emaitzaren gaineko zerga
Espainia	734.256	2.269	305.036	49.697
GUZTIRA	**734.256**	**2.269**	**305.036**	**49.697**

Informazio honen ondoreetarako, 2024ko abenduko emaitza-kontu bateratuaren marjina gordina hartu dugu negozio-bolumentzat. Lanaldi osoko langile-kopuru baliokideari buruzko datuak sozietate/herrialde bakoitzeko plantillatik hartu ditugu, 2024ko ekitaldiaren itxieran.

Taldeko aktiboen etekinak, hau da, Entitate Nagusiari egotzitako emaitza garbia zati guztira dituen aktiboak, % 0,93 dira, 2024ko abenduaren 31n.

- Jasotako dirulaguntzak edo laguntza publikoak

LABORAL Kutxa Taldeak 2024ko ekitaldian jasotako dirulaguntza edo laguntza publikoen zenbatekoa ez da nabarmena.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

KUDEAKETA-TXOSTENA, 2024KO EKITALDIKOA

Ingurune makroekonomikoak zalantzazkoa izaten jarraitu du; bereziki, nazioartean, indarrean dauden tentsio geopolitikoak direla eta. Euroguneko ekonomia nagusien, bereziki Alemaniaren eta Frantziaren, ahuleziaren eta inflazio txikiagoaren ondorioz, EBZk tasak jaitsi ditu urtean zehar.

Horrek ez du eragotzi EAEko, Nafarroako eta Espainiako BPGd-aren bilakaera positiboa; izan ere, barne-kontsumoari esker, nolabaiteko sendotasunari eutsi diote, bazkide komertzial nagusien ahultasuna gorabehera, zeinak baldintzatu egin baititu ondasunen esportazioa eta ekoizpen industriala. Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) % 2,1 hazi da, Eustaten arabera, Espainiako Estatistika Institutuak (INEk) Estatu osorako zenbatetsi duen datua baino portzentajezko puntu bat gutxiago.

Halere, lan-merkatuak sendo eutsi dio, eta afiliazioak maximo berriak erdietsi ditu: milioi bat afiliatutik gora erregistratu dira urtean, hileko batezbestekoa aintzat hartuta, eta, azken hiru hilabeteetan, ondoz ondoko maximo historikoak lortu ditu. Langabezia % 7 ingurukoa da EAEn eta % 11,5ekoa Estatuan.

Energiaren prezioak baretu izanak inflazio-tasa jaisten lagundu du, eta, EBZren aurreikuspenaren arabera, epe ertainean % 2 ingurukoa izango da. Horren ondorioz, diru-agintaritzak lau aldiz jaitsi du interes-tasa 2024an, eta, beraz, 12 hilabeteko Euriborra murrizten jarraitu du, aurreko urtearen amaieran hasitako ildoari eutsita. Urtean zehar egindako murrizketen ondorioz, abenduan % 2,4an kokatu da indize hori. Horrek etxebizitza-eskaria sendotzea ekarri du, eta amortizazio aurreratuak moteltzea, tasen goranzko aldian bizkortu egin baitziren.

Testuinguru horretan, sektorearen errentagarritasunak hobera egin du, eta, horrekin batera, zalantzagarritasunaren bilakaera onak eta pasiboaren kostuei eusteak finantza-marjinaren bilakaera positiboa ahalbidetu dute. Horrek eraginkortasuna bultzatu du, nahiz eta gastu orokorrak handitu, eta Entitatearen kaudimena hobetu du; Entitateak zor publikoaren zorroen salerosketa-eragiketak egin ditu, etorkizuneko marjinak bermatzeko. Horri esker, aukera dago kapitalaren kudeaketa zuhurra egiteko eta LABORAL Kutxaren MREL eskakizunak betetzeko, eta, aldi berean, errentagarritasunaren hobekuntza baliatuz sektore osoari eragiten dion eraldaketa- eta digitalizazio-prozesuan inbertitzeko, eta zerbitzuaren kalitatea eta aniztasuna hobetzeko.

Tasen testuinguru horretan, bezeroen balantzeko baliabideen (agerikoen eta eperakoen) mixa egonkortu egin da, eta balantzetik kanpoko inbertsio-aukerekiko interesa areagotu; aitzitik, lehia-presio handia ikusten da aktiboan, batez ere hipoteken esparruan. Aseguruen negozioak bete egin ditu produkzio berriaren helburuak, zuzeneko salmentan nahiz salmenta gurutzatuan, bai eta aseguru-berritzeetan ere, bereziki bizitzakoak ez diren aseguruen segmentuan. Negozioaren errentagarritasun teknikoa berreskuratzearren, prezioek gora egin dute, eta, testuinguru orokor horretan, Seguros Lagun Arok auto-aseguruen eta, batez ere, etxe-aseguruen salmenta handitu du.

Ondoren, negozioaren zifrarik garrantzitsuenak jaso ditugu.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

KUDEAKETA-TXOSTENA, 2024KO EKITALDIKOA

Aktibo osoa 27.107 milioi eurora iritsi da, hau da, % 1,95eko igoera izan du aurreko urteko itxierakoaren aldean.

Bezeroen gordailuak 23.292 milioi eurokoak dira, aurreko ekitaldian baino % 3,22 handiagoak. Igoera hori eperako gordailuen saldoetan egindako 2.121 milioi euroko sarrerari zor zaio, ageriko gordailuen figuretako irteerak (1.038 milioi eurokoak) konpentsatu eta gainditu ditu eta.

Maileguak eta bezeroen aurrerakinak 15.124 milioi eurokoak dira 2024ko ekitaldiaren amaieran. Bestelako finantza-aktiboen aldaketaren eragina alde batera utzita, kreditu-inbertsio tradizionala ez da aldatu.

Bezeroei emandako kredituaren zalantzazko arriskuen bolumena % 9,6 txikitu da; ondorioz, «Bestelako sektore egoiliarrak» epigrafeko berankortasun-ratioa % 2,46ra jaitsi da 2024aren amaieran. Datu hori sektoreko batezbestekoa baino zertxobait txikiagoa da, gordailu-erakundeetakoa % 3,26koa baita.

Bestalde, «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» eta «Zorra adierazten duten baloreak kostu amortizatuan» epigrafeek, hurrenez hurren, 1.247 eta 6.764,8 milioi euroko zenbatekoak dituzte. Horrela, kostu amortizatuko zorroak % 24,96ko pisua du balantze osoan.

Efizientziari eta likideziari buruzko adierazleek parametro egokietan jarraitzen dute, bai termino absolutuetan bai erlatiboetan. Efizientzia-indizea, KHSFaren aurreko marjina gordinaren gaineko administrazio-gastu moduan neurtua, % 41,3an kokatu da 2024an. Egiturazko likideziaren ratioa, emandako kredituen gaineko gordailuetan oinarritua, berriz, % 64,2koa izan da.

Kaudimenari dagokienez, Talde bateragarriaren baliabide propio konputagarriak 2.205,3 milioi eurokoak dira, 2024ko abenduaren 31n. CET1 (Common Equity Tier 1) ratioa, sektoreko nabarmenenetako bat, % 24,85ean kokatu da, eta bat dator guztizko kaudimenaren ratioarekin.

Galdu-irabazien kontuan sarrera eta gastuen atal hauek nabarmentzen dira:

Zerga ondorengo emaitza 255,3 milioi eurokoa da 2024an, gizarte-ekintzako zuzkidura egin aurretik 274,5 milioiko irabazia lortuz, eta, beraz, gainditu egin dira Entitatearen Gestio Planeko aurreikuspenak.

Interes-marjina, kreditu-zorroaren ekarpenak eta altxortegiaren beraren handizkako jardueraren ekarpenak bultzatua, 642 milioikoa izan da; hau da, 2023an baino % 14,9 handiagoa.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

KUDEAKETA-TXOSTENA, 2024KO EKITALDIKOA

Dibidenduak, komisio garbiak, finantza-tresnen zorroen errebalorizaziotik eta besterentzetik lortutako irabaziak eta ustiapeneko bestelako emaitzak batuta, 92,3 milioi euro lortu dira 2024an. Horrenbestez, marjina gordina 734,3 milioi eurokoa da.

Kostuen atalean, Taldeak berretsi egin du bere estrategia-agendari eusteko eta etorkizunari aurre egiteko diseinatutako proiektu eraldatzaileei ekiteko erabakia. Horrela, bada, inflazioaren eraginarekin bat, % 13,40 gehiago bideratu da administrazio-gastuetara, 283 milioi euro, alegia.

Horniduretarako, saneamenduetarako eta bestelako narriaduretarako zuzkiduren epigrafeei dagokienez, ekitaldiko emaitza onek aukera eman dute pasibo kontingenteen eta beste aktibo arazotsu batzuen —zalantzazko eragiketak eta esleitutakoak— estaldura sendotzeko.

Taldearen arrisku nagusiei dagokienez, horien xehetasuna 2024ko ekitaldiko urteko kontuetako 15.etik 21.era bitarteko oharretan jaso da.

Aseguruen negozioan, primek % 6 egin dute gora bizitzakoak ez diren aseguruetan, eta % 6 behera bizitzakoetan, aurreko ekitaldiko kopuruekin alderatuta. Ezbehar-tasa handiagoa izan da 2023koa baino. Ondorioz, LABORAL Kutxa Taldeari egindako ekarpena 26 milioi eurokoa izan da emaitza arrunt globaletan.

Bestalde, 2024ko ekitaldian eutsi egin zaio higiezinen sustapenaren eta eraikuntzaren jarduerarekin arrisku-posizioak murrizteko joerari; 46 milioi euro txikitu ostean, 374 milioi euroan kokatu da urte-amaieran.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea 15 egunekoa izan da 2024an, 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legeak, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzekoak, gehienez finkatutako 30 eguneko epea baino laburragoa. Aintzat hartu dira, gainera, 2014ko abenduaren 3ko 31/2014 Legea, gobernu korporatiboa hobetzeko Kapital Sozietateen Legea aldatzen duena, eta Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren 2016ko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren Xedapen Gehigarri Bakarra. Batez besteko ordainketa kalkulatzeko, Lege horretan ezarritakoa hartu da aintzat.

Plangintza estrategikoaren oinarrizko eskema sustatzen jarraitzen du LABORAL Kutxak, eta bi agenda kudeatzen ditu aldi berean: lehiari begirakoa eta eraldaketari begirakoa. Hazkunde errentagarria maximizatu nahi da, eta eredu kooperatiboa, kaudimena, arriskuaren kalitatea eta finantza-oreka zaindu, betiere etorkizuneko transformazio-gaitasuna garatuz. Entitatea eraldatzeko, gehiago inbertitu behar dugu teknologiaren arloan —zibersegurtasuna, data analytics, digitalizazioa, erresilientzia operatiboa—, berrikuntzan, talentuaren kudeaketan eta gaitasun berrien sustapenean.

Bestalde, LABORAL Kutxa Global Alliance for Banking on Values (GABV) erakundean sartu da. Printzipio eta balio sozial eta etikoekin jarduten duten finantza-erakundeen nazioarteko talde nagusia da, eta Estatuan egoitza duen aliantza horretako erakunde bakarra.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

KUDEAKETA-TXOSTENA, 2024KO EKITALDIKOA

2018ko abenduaren 28ko 11/2018 Legeak, informazio ez-finantzarioari eta dibertsitateari buruzkoak, arautzen du bi alderdi horien inguruan eman beharreko informazioa. LABORAL Kutxak, interes publikoko erakundea izanik, Merkataritza Kodeko 44. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz Kudeaketa Txosten Bateratuari atxikitako agiri gehigarri batean argitaratu du LABORAL Kutxa Taldeari buruzko Informazio ez-finantzarioaren egoera-orria eta Jasangarritasunari buruzko informazioa, batetik, aipaturiko araudiak agindutako betebeharrei erantzuteko eta, bestetik, jasangarritasunaren arloko informazio korporatiboari buruzko 2022/2464 EB Zuzentaraua (CSRD) betetzeko, eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan gordailutuko da.

LABORAL KUTXA TALDEAREN 2024KO INFORMAZIO EZ-FINANTZARIOAREN EGOERA-ORRI BATERATUA ETA JASANGARRITASU-NARI BURUZKO INFORMAZIOA

AURKIBIDEA

INFORMAZIO OROKORRA **5**
ESRS 2 INFORMAZIO OROKORRA **5**
[BP-1] Jasangarritasun-adierazpenak egiteko oinarri orokorrak 5
[BP-2] Egoera bereziekin lotutako dibulgazioak 6
[GOV-1] Administrazio-, kudeaketa- eta gainbegiratze-organoen eginkizuna 7
[GOV-2] Administrazio-, kudeaketa- eta ikuskaritza-organoei emandako informazioa eta horietan aztertutako jasangarritasunaren inguruko gaiak 10
[GOV-3] Jasangarritasuna pizgarrien sisteman txertatzea 11
[GOV-4] Arreta egokiari buruzko adierazpena 12
[GOV-5] Arriskuen kudeaketa eta jasangarritasun-txostenen barne-kontrolak 12
[SBM-1] Estrategia, negozio-eredua eta balio-katea 13
1.1. LABORAL KUTXA TALDEAREN JARDUERAK 17
1.2. *ZEHARKAKO BESTE AKTORE BATZUK ETA BAZKIDEAK* 19
[SBM-2] Alderdi interesdunen interesak eta iritziak 21
[SBM-3] Inpaktu materialak, arriskuak eta aukerak, eta negozio-estrategiarekin eta -ereduarekin duen interakzioa 27
[IRO-1] Inpaktu materialak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko prozesuaren deskribapena 30
1. FASEA. TESTUINGURUAREN ANALISIA 30
BALIO-KATEA 31
INTERES-TALDEAK (*STAKEHOLDERS*) 31
INTERES-TALDEAK ZEHAZTEA 31
KANPO-ANALISIA 33
BARNE-ANALISIA 36
2. FASEA. MATERIALAK IZAN DAITEZKEEN GAIEN ETA AZPIGAIEN ATARIKO ZERRENDA 37
3. FASEA. INTERES-TALDEEI EGINDAKO KONTSULTAK 38
4. FASEA. IRO-AK IDENTIFIKATU ETA BALIOZTATZEA 38
5. FASEA. IRO-EN EBALUAZIOA ETA AZKEN MATRIZEA 38
[IRO-2] Jasangarritasun-adierazpenek estaltzen dituzten ESRS araudiko dibulgazio-eskakizunak 50
[MDR-P] Garrantzi erlatiboa duten jasangarritasun-kontuak kudeatzeko erabiltzen diren politikak 53
[MDR-A] Garrantzi erlatiboa duten jasangarritasunaren inguruko gaiekin lotutako jarduketak eta baliabideak 55
[MDR-M] Garrantzizkoak diren jasangarritasunaren inguruko gaiekin lotutako parametroak 58
MDR-T: Politiken eta jarduketen eraginkortasunaren jarraipena helburuen bidez 59
INGURUMEN-INFORMAZIOA **60**
ESRS E1-KLIMA-ALDAKETA **60**
[GOV-3] Jasangarritasuna pizgarrien sisteman txertatzea 60
[E1-1] Klima-aldaketa arintzeko trantsizio-plana 60
[SBM-3] Inpaktu materialak, arriskuak eta aukerak, eta negozio-estrategiarekin eta -ereduarekin duten interakzioa 62
[IRO-1] Klimarekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko prozesuen deskribapena 63
[E1-2] Klima-aldaketa arintzearekin eta horretara egokitzearekin lotutako politikak 63
[E1-3] Klima-aldaketaren politikekin lotutako jarduketak eta baliabideak 65
[E1-4] Klima-aldaketa arintzearekin eta horretara egokitzearekin lotutako jomugak 67
[E1-5] Energiaren kontsumoa eta konbinazioa 69
[E1-6] 1., 2. eta 3. irismeneko eta guztizko BEGen isurtze gordina 70
[E1-7] BEGak ezabatzea eta karbono-kredituen bidez finantzatutako BEGak arintzeko proiektuak 79
[E1-8] Karbonoaren barne-prezioa 79
[E1-9] Arrisku material fisiko eta trantsiziokoetatik eta klimarekin lotutako aukera potentzialetatik aurreikusitako finantza-ondorioak 79
ESRS E2-KUTSADURA **80**
[IRO-1] Klimarekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko prozesuen deskribapena 80
ESRS E3-URA ETA ITSAS BALIABIDEAK **80**
[IRO-1] Urarekin eta itsas baliabideekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatzeko eta ebaluatzeko prozesuen deskribapena 80
ESRS E4-BIODIBERTSITATEA ETA EKOSISTEMAK **80**
[IRO-1] Urarekin eta itsas baliabideekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatzeko eta ebaluatzeko prozesuen deskribapena 80
ESRS E5-BALIABIDEEN ERABILERA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA **80**
[IRO-1] Baliabideen erabilerarekin eta ekonomia zirkularrarekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatzeko eta ebaluatzeko prozesuen deskribapena. 80
Kontsumitutako papera, guztira 81
TAXONOMIAREN ERREGELAMENDUA (EB) **82**
GAR 001a eta 003a 83
GAR 002a 85
GAR 005a 85

NUKLEARRAREN ETA GAS NATURALAREN TXANTILOIAK (NyG) 86
INFORMAZIO SOZIALA 87
ESRS S1-LANGILE PROPIOAK 87
[SBM-2] Alderdi interesdunen interesak eta iritziak 87
[SBM3] Inpaktu materialak, arriskuak eta aukerak, eta negozio-estrategiarekin eta -ereduarekin duten interakzioa 87
[S1-1] [MDR-P] Langile propioekin lotutako politikak 89
[S1-2] Lankidetza-prozesuak langileekin eta langileen ordezkariekin, ondorioei dagokienez 93
[S1-3] Inpaktu negatiboak konpontzeko prozesuak eta langileek beren kezkak azaltzeko bideak 95
[S1-4] [MDR-A] Langile propioei eragiten dieten inpaktu materialen gainean neurriak hartzea, eta arrisku materialak kudeatzeko eta neurri horiekin lotutako aukera materialak eta eraginkortasuna aprobetxatzeko ikuspegiak 97
[S1-5] [MDR-T] Inpaktu material negatiboen kudeaketarekin, inpaktu positiboen sustapenarekin eta arrisku eta aukera materialen kudeaketarekin lotutako helburuak 98
[S1-6] Taldeko langileen ezaugarriak 98
[S1-7] Enpresako plantillan soldatakoak ez diren langileen ezaugarriak 100
[S1-8] Negoziazio kolektiboaren eta elkarrizketa sozialaren estaldura 100
[S1-9] Dibertsitatearen neurketa 101
[S1-10] Soldata egokiak 101
[S1-11] Gizarte-babesa 102
[S1-12] Desgaitasuna duten pertsonak 103
[S1-13] Prestakuntzaren eta gaitasunak garatzearen neurketa 104
[S1-14] Osasunaren eta segurtasunaren neurketa 105
[S1-15] Kontziliazioaren neurketa 106
[S1-16] Ordainsarien neurketa (soldata-desberdintasuna eta guztizko ordainsaria) – orokorra 107
[S1-17] Giza eskubideen alorreko intzidenteak, kexak eta inpaktu larriak – orokorra 107
ESRS S2-BALIO-KATEKO LANGILEAK 108
[SBM-2] Alderdi interesdunen interesak eta iritziak 108
[SBM-3] Inpaktu materialak, arriskuak eta aukerak, eta negozio-estrategiarekin eta -ereduarekin duten interakzioa 108
ESRS S3-UKITUTAKO KOMUNITATEAK 110
[SBM-3] Inpaktu materialak, arriskuak eta aukerak, eta negozio-estrategiarekin eta -ereduarekin duten interakzioa 110
Elkartze- edo babesletza-ekintzak (11/2018 Legea betez) 110
ESRS S4-AZKEN KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEAK 115
[SBM-2] Alderdi interesdunen interesak eta iritziak 115
[SBM-3] Inpaktu materialak, arriskuak eta aukerak, eta negozio-estrategiarekin eta -ereduarekin duten interakzioa 115
[S4-1] [MDR-P] Azken erabiltzaile eta kontsumitzaileekin lotutako politikak 119
[S4-2] Azken erabiltzaile eta kontsumitzaileak inpaktuetan inplikatzeko prozesuak 123
[S4-3] Inpaktu negatiboak konpontzeko prozesuak eta azken kontsumitzaile eta erabiltzaileek beren kezkak azaltzeko bideak 124
[S4-4] [MDR-A] Azken kontsumitzaileekin lotutako ekintzak 127
[S4-5] MDR-T. Azken kontsumitzaileekin lotutako helburuak 130
GOBERNANTZARI BURUZKO INFORMAZIOA 132
ESRS G1-ENPRESA-JOKABIDEA 132
[GOV-1] Administrazio-, zuzendaritza- eta gainbegiratze-organoen eginkizuna 132
[IRO-1] Garrantzi erlatiboa duten intzidentziak, arriskuak eta aukerak zehaztu eta ebaluatzeko prozesuen deskribapena 132
[G1-1] Enpresa-jokabidearen eta kultura korporatiboaren inguruko politikak 132
[G1-2] Hornitzaileekiko harremanen gestioa 134
[G1-3] Ustelkeria edo eroskeria prebenitzea eta antzematea 134
[G1-4] Ustelkeria- eta eroskeria-intzidenteak 135
[G1-5] Eragin politikoa eta presio-taldeen jarduerak 136
[G1-6] Ordainketa-jardunbideak 136
Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa 136
C1-ZIBERSEGURTASUNA ETA DATUEN TRATAMENDUA 138
[SBM-2] Alderdi interesdunen interesak eta iritziak 138
[IRO-1] Garrantzi erlatiboa duten intzidentziak, arriskuak eta aukerak zehaztu eta ebaluatzeko prozesuen deskribapena 138
[SBM-3] Inpaktu materialak, arriskuak eta aukerak, eta negozio-estrategiarekin eta -ereduarekin duten interakzioa 138
[C1-1] [MDR-P] Zibersegurtasunarekin eta informazioa babestearekin lotutako politikak 139
[C1-2] Inpaktu negatiboak konpontzeko prozesuak eta interes-taldeek beren kezkak azaltzeko bideak 140
[C1-3] [MDR-A] Inpaktu materialen gainean neurriak hartzea, eta arrisku materialak kudeatzeko eta aukera materialak aprobetxatzeko ikuspegiak 140
[C1-4] [MDR-T] Inpaktu material negatiboen kudeaketarekin, inpaktu positiboen sustapenarekin eta arrisku eta aukera materialen kudeaketarekin lotutako helburuak 142
11/2018 LEGEAREKIKO ETA TAXONOMIAREN ERREGULAZIOAREKIKO KORRESPONDENTZIA-TAULA 144
BESTE ERREGULAZIO BATZUEI LOTUTAKO EDUKIAREN TAULA 156
ERANSKINA: TAXONOMIAREN ERREGELAMENDUAREN ADIERAZLEAK (EB) 160

GAR NYG 001 160
GAR NYG 002 CAPEX 161
GAR NYG 002 NEGOZIO-BOLUMENA 162
GAR NYG 003 CAPEX 163
GAR NYG 003 NEGOZIO-BOLUMENA 164
GAR NYG 004 CAPEX 165
GAR NYG 004 NEGOZIO-BOLUMENA 166
GAR NYG 005 CAPEX 167
GAR NYG 005 NEGOZIO-BOLUMENA 168
GAR 000 169
GAR 001 CAPEX 170
GAR 001 NEGOZIO-BOLUMENA 171
GAR 001 T-1 CAPEX 172
GAR 001 T-1 NEGOZIO-BOLUMENA 173
GAR 001 FLOW CAPEX 174
GAR 001 FLOW NEGOZIO-BOLUMENA 175
GAR 002 CAPEX 176
GAR 002 NEGOZIO-BOLUMENA 177
GAR 003 CAPEX 178
GAR 003 NEGOZIO-BOLUMENA 179
GAR 003 T-1 CAPEX 180
GAR 003 T-1 NEGOZIO-BOLUMENA 181
GAR 004 CAPEX 182
GAR 004 NEGOZIO-BOLUMENA 183
GAR 005.01 CAPEX 184
GAR 005.01 NEGOZIO-BOLUMENA 185
GAR 005.02 CAPEX 186
GAR 005.02 NEGOZIO-BOLUMENA 187
BANKU-JARDUERA ARDURATSUAREN PRINTZIPIOAK 188

INFORMAZIO OROKORRA
ESRS 2 INFORMAZIO OROKORRA

[BP-1] Jasangarritasun-adierazpenak egiteko oinarri orokorrak

LABORAL Kutxako Jasangarritasunaren Bulegoak (JBak) koordinatu du jarraian azaltzen den LABORAL Kutxa Taldearen —aurrerantzean LKT— Informazio ez-finantzarioaren egoera-orri bateratua eta Jasangarritasunari buruzko informazioa —aurrerantzean Jasangarritasunaren egoera-orria—. Era berean, garrantzi erlatiboa duten gaiak erabakitzeko materialtasun-azterketa egiteaz arduratu da.

Jasangarritasunaren egoera-orria egiteko, finantzetako egoera-orrian erabilitako bateratze-perimetro bera baliatu da, 2013/34/EB Zuzentarauko 19 bis artikuluko 9. apartatuari edo 29 bis artikuluko 8. apartatuari jarraikiz (bestela, berariaz adierazi da dagokion informazioaren banakapenean). Bateratzean sartuta dauden erakunde filial guztiak salbuetsita daude jasangarritasunari buruzko informazio indibidual edo bateratua aurkeztetik. Merkataritza-jarduera guztia Espainian egiten da, bereizitako bi merkatutan. Batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, kooperatibaren jatorrizko erkidegoetan, eta, bestetik, Espainia iparraldeko autonomia-erkidegoetan. Gainera, azken urteotan, presentzia areagotu dugu Madrilen eta Bartzelonan ere. Taldeko Entitate Nagusia Caja Laboral Coop. de Crédito da —helbidea: Jose Maria Arizmendiarrieta pasealekua zk.g., 20500 Arrasate (Gipuzkoa)—. Taldea osatzen duten mendeko erakundeak, berriz, hauek dira:

Mendeko erakundeak	Jarduera	Partaidetzaren %-a	Egoitza
Seguros Lagun Aro Vida SA	Aseguruak	% 100	Basurtoko Kaputxinoen kalea 6, 2.a, 48013 Bilbo (Bizkaia)
Seguros Lagun Aro SA	Aseguruak	% 100	
Seguros Lagun Aro 2003 AIE	Aseguruak	% 100	
Caja Laboral Gestión SGIIC SA	Inbertsio-funtsen gestorea	% 100	Jose Maria Arizmendiarrieta pasealekua 5, 1.a, 20500 Arrasate (Gipuzkoa)
Caja Laboral Pensiones GFP SA	Pentsio-funtsen gestorea	% 100	Jose Maria Arizmendiarrieta pasealekua zk.g., 5. eraikina, 1.a, 20500 Arrasate (Gipuzkoa)
ISGA Inmuebles SA*	Aktibo higiezinen gestorea	% 100	Jose Maria Arizmendiarrieta pasealekua 4, 20500 Arrasate (Gipuzkoa)
Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU	Partaidetza-edukitzailea	% 100	
Caja Laboral Bancaseguros (CLBS) OBSV SLU	Banka-aseguruetako operadorea	% 100	On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia 2, 1.a, 48001 Bilbo (Bizkaia)
LagunKlik SLU	Zerbitzu-bilaketako bitartekaritza	% 100	Basurtoko Kaputxinoen kalea 6, 2.a, 48013 Bilbo (Bizkaia)
Partners Group LAMIAK SCA, SICAV – RAIF	Ondarearen gestioa	% 99	Avenue John F. Kennedy 35 D, L-1855 Luxenburgo

Erakunde elkartuak	Jarduera	Partaidetzaren %-a	Egoitza
ATEGI GREEN POWER SL	Iturri berriztagarrietako energiaren ekoizpena	% 28,57	Goiru kalea (b eraikina) 1, 3.a, 20500 Arrasate (Gipuzkoa)

Erakunde horien artean, honako hauek langile propioak dituzte: Entitate Nagusiak, aseguru-konpainiek (Seguros Lagun Aro Vida SAk, Seguros Lagun Aro SAk eta Seg. Lagun Aro 2003 AIEk) eta Caja Laboral Bancasegurosek.

Egoera-orria egiteko, Entitatearen balio-katearen aurreko eta ondorengo faseak hartu dira kontuan.

Ez da erabili jabetza intelektualari, ezagutza teknikoei edo berrikuntzaren emaitzei buruzko informaziorik ez emateko aukera, zibersegurtasunari eta datuen tratamenduari dagokienez izan ezik, bereziki babestutako informazioa baita. Era berean, ez zaio uko egin berehalako gertakarien edo negoziatzen ari diren gaien berri emateari. Entitateak materialtasun bikoitz erlatiboaren printzipioan oinarrituta emango du jasangarritasun-gaiei buruzko informazioa.

Egoera-orriaren erreferentziazko epealdia 2024-01-01etik 2024-12-31ra artekoa da. Egoera-orria Taldearen Kudeaketa Txostenaren parte da.

[BP-2] Egoera bereziekin lotutako dibulgazioak

Ez da aldi baterako desbideratzerik aurreikusi epe laburrera (urtebeteko epean), ez epe ertainera (1-5 urteko epean), ez eta epe luzera (5 urtetik gorako epean) ere, ESRS1 arauaren 6.4 atalean zehaztutakoekin alderatuta. Jasangarritasunaren egoera-orrian halakorik identifikatzen bada, dagokion informazioaren ondoan zehaztuko da, desbideratzea aipatuz eta justifikatzen duten arrazoiak azalduz.

Oro har, ez da baldintza espezifikorik identifikatu, LKTn eragina izango duenik jasangarritasun-adierazpena prestatzeko orduan.

Aurkakoa adierazten ez bada, IEFE (Informazio ez-finantzarioaren egoera-orri) bateratu honetan azaltzen diren beste dokumentu edo txostenen aipamenak argibide gisa egin dira. Ez da gehitu erreferentziazko informaziorik.

Ez da sartu garrantzi erlatibokotzat jotako balio-kateko aurreko eta ondorengo faseetako daturik, E1 – 6 «1., 2. eta 3. irismeneko eta guztizko BEGen isurtze gordinak» atalean azaldutakoez gain. Era berean, ez da antzeman ziurgabetasun-maila handiarekin lotutako parametro kuantitatiborik, ez diru-zenbatekorik ere; bestela, horren berri eman da.

2024ko ekitaldian ez dago eskuragarri egoera-orri honetan garatzen diren ekintzak —gai materialen ingurukoak— inplementatzeko behar diren CapEx eta OpEx diru-kopuruak adierazteko metodologiarik. 2025eko ekitaldian metodologia hori lantzea aurreikusi da, 2025-2026 ekitaldirako erabilgarri egon dadin.

Jasangarritasunaren egoera-orria CSRD zuzentarauaren arabera plazaratzen den lehenengo ekitaldia denez, ez dago aldaketarik informazioa prestatu eta aurkezteko moduan (aurreko aldiarekin alderatuta), egoera-orrian berariaz adierazita dagoenean izan ezik. Egoera-orri honetan, ESRS arauetan eskatzen denaz bestelako informazioa jaso da, 11/2018 Legea, informazio ez-finantzarioari eta dibertsitateari buruzkoa, betetzeko. Aparteko informazio hori berariaz adierazita dago. 11/2018 Legeari erantzuten dioten puntuetan, aurreko ekitaldiari buruzko informazioa emango da, bi araudiek barne hartzen dituzten ESRSak barne hartuta. Ez da aurreko ekitaldietako akats materialik aurkeztu.

Dokumentu honetan jasota dagoen Informazio ez-finantzarioaren egoera-orri bateratuak eta Jasangarritasunari buruzko informazioak 11/2008 Legea betetzeko xedearekin ematen du informazioa. Zuzentaraua oraindik ez denez Espainiako araudira transposizioz eraman, Lege horretan eskatzen den informazioa aurkeztu da, CSRD zuzentarauan aurreikusita ez dagoena. Txostenean aurkeztutako informazioa CSRD zuzentarau horretan jasota dauden Europako ESRS estandarren arabera egituratu da. Era berean, informazio kualitatiboa eta taulak argitaratu dira, 2020/852 (EB) Erregelamendua (Taxonomiaren Erregelamendua) betetzeko. Jasangarritasun-informazioari buruzko beste legeria, arau eta esparru batzuei dagokienez, eranskin gisa argitaratu da LABORAL Kutxak sinatu dituen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioei erreparatuta egoera zer nolakoa den jakinarazteko txantiloia.

[GOV-1] Administrazio-, kudeaketa- eta gainbegiratze-organoen eginkizuna

Administrazio-, kudeaketa- eta gainbegiratze-organoen osaera:

Kontseilu Errektoreko kideek, orotara, kreditu-erakundeak gobernatzeko moduko ezagutzak, eskuduntzak eta esperientzia dituzte, Entitatearen jarduerak egoki ulertzeko, arrisku nagusiak barne, eta Kontseiluaren gaitasun efektiboa bermatzeko, Entitatearen mesedetan erabakiak independentziaz eta autonomiaz har ditzan.

Kontseilu Errektoreak beharrezko profilak ditu, Izendapenen Batzordeari, Ordainsarien Batzordeari, Arrisku Batzordeari eta Ikuskaritza Batzordeari esleitutako eginkizunak egoki betetzeko.

Urtero, kontseilariak karguan jarduteko egokiak izaten jarraitzen dutela berrikusten da, eta, aldi berean, Kontseiluak eskatzen dituen profil berrien beharrak aztertzen dira. Prestakuntza-ekintza espezifikoak ere egiten dituzte.

Dokumentu hori aztertuta, alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- ✓ Kontseiluko kide guztiek lizentzia-mailako prestakuntza dute, eta gehienek master-edo doktorego-tituluak dituzte enpresa-zuzendaritzan, finantzetan, fiskalitatean edo auditoretzan, besteak beste.

- ✓ Hamalau kontseilarietatik hamaikak bi urte edo gehiagoko esperientzia dute kreditu-erakunde bateko Administrazio Kontseiluko kide gisa.

- ✓ Hamalau kontseilarietatik zortzik enpresa handiren bateko zuzendaritzan jardun dute, eta kideen erdiak baino gehiagok esperientzia dute banku-jarduerako eta/edo finantza-zerbitzuetako arloetan.

- ✓ Kontseiluko kideen % 65ek ezagutzak eta esperientzia ditu kontabilitatean, kontu-auditoretzan edo bietan.

✓ Kontseilu Errektoreko kideetako bat aditua da IKTetan eta beste bat Jasangarritasunean.

✓ Zazpi kontseilarik Sozietateen Gobernu Onaren ziurtagiria dute, IC-A institutuak emandakoa. Ziurtagiririk ez duten kideek esperientzia dute edo gaiaren inguruko prestakuntza jaso dute.

✓ Hiru kidek prestakuntza eta dagokion ziurtagiria jaso dute MiFID zuzentarauaren eta HKKL legearen inguruan.

✓ Kontseiluko hiru partaidek aseguruen negozioari buruzko ezagutzak dituzte.

✓ Kontseilu Errektoreko kideen erdiak aurretiko esperientzia du administrazio-kontseiluetan edo kontseilu errektoreetan.

Izena	Sexua	Independentea	Lanbazkidea	Ez-exekutiboa	Kanpoko beste kontseilari bat	Kontseilu Errektorea	Izendapenen Batzordea	Ordainsarien Batzordea	Ikuskaritzako eta Arauadia Betearazteko Batzordea	Arrisku Batzordea	Eragiketa Batzorde Nagusia
PLAZA IZAGUIRRE, ADOLFO	G		✓			KEP[1]					✓
GIL SAGARDUY, EDORTA	G		✓			KEK[2]		OBK[7]		ABK[11]	
MAULEON SAINZ DE VICUÑA, BEATRIZ	E			✓		KEK[2]		OBK[7]			✓
SORIA ALONSO, AITOR	G			✓		KEK[2]					✓
SAGARNA ARRIZABALAGA, XABIER	G	✓				KEK[2]	IBK[5]		IBK[9]		
LÓPEZ-CANO, IÑIGO	G		✓			KEK[2]	IBK[5]		IBK[9]		
ELGARRESTA IBARRONDO, ITZIAR	E	✓				KEK[2]	IBL[6]				
KORTA ERRAZKIN, ESTHER	E	✓				KEK[2]		OBL[8]			✓
ÁLVAREZ RUBIO, JUAN JOSÉ	G	✓				KEK[2]			IBL[10]		
LARRABEITI LIBANO, NAGORE	E	✓				KEK[2]			IBK[9]	ABK[11]	
MARTEN ULIARTE, IVÁN	G	✓				KEK[2]				ABL[12]	
SANTXA VAZQUEZ, ÁLVARO	G		✓			KEI[3]			IBK[9]		
CORTABARRIA ACHA, MARÍA BELÉN	E	✓				KEL[4]		OBK[7]		ABK[11]	
SAN JOSÉ RUÍZ DE AGUIRRE, LEIRE	E	✓				KEK[2]	IBK[5]			ABK[11]	

[1] Kontseilu Errektoreko presidentea, [2] Kontseilu Errektoreko kidea, [3] Kontseilu Errektoreko idazkaria, [4] Kontseilu Errektoreko presidenteordea, [5] Izendapenen Batzordeko kidea, [6] Izendapenen Batzordeko presidentea, [7] Ordainsarien Batzordeko kidea, [8] Ordainsarien Batzordeko presidentea, [9] Ikuskaritza Batzordeko kidea, [10] Ikuskaritza Batzordeko presidentea, [11] Arrisku Batzordeko kidea, [12] Arrisku Batzordeko presidentea.

14 kide guztira: % 57 gizonak eta % 43 emakumeak.

Independenteen ehunekoa: % 57

ZUZENDARITZA KONTSEILUA	SEXUA	EXEKUTIBOAK
EGIBAR GAINZA, XABIER	G	✓
MEZKORTA ARMAOLEA, URTZI	G	✓
MARURI HERNAEZ, JOSEBA MIKEL	G	✓
ANDRES GORGOJO, SUSANA	E	✓
URGOITI URIOSTE, IBON	G	✓
CORTAJARENA GOÑI, FCO.JAVIER	G	✓
EGUSKIZA SIERRASESUMAGA, OSCAR MARIA	G	✓
AGUIRRE UNZUETA, NURIA	E	✓
GALLASTEGUI MARTINEZ, AINHOA	E	✓
MONGELOS GARCIA, PABLO	G	✓

10 kide guztira: % 70 gizonak eta % 30 emakumeak.

Enpresa-jokabideari (G1) dagokionez, Kontseilu Errektoreak onartua duen Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodeak arautzen ditu langileen —goi-zuzendaritza barne— eta administratzaileen jokabidea gidatu behar duten jarduketa-printzipioak eta portaera-arauak, jokabide profesional gardena eta zintzoa gauzatzeko helburuarekin. Administrazioko, zuzendaritzako eta gainbegiratzeko organoek enpresa-jokabidearen arloan duten esperientziari dagokionez, Kontseilu Errektoreko kideen erdiak Sozietateen Gobernu Onaren ziurtagiria du, Kontseilari eta Administratzaileen Institutuak emandakoa. Gainerako kontseilariek sozietateen gobernu onari buruzko prestakuntza jaso dute.

Ildo beretik, martxan dagoen etengabeko prestakuntza-programan urtero berrikusten dira gobernu onaren alderdiak, bereziki kapitalak zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzearekin (KZ/TFA) eta zibersegurtasunarekin lotura dutenak.

Legeak betetzea jarduketa-printzipio gisa dago jasota Kode Etikoan, eta apartatu espezifiko batean biltzen dira kapitalak zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzearen ingurukoak; izan ere, araudi horri dagokionez, Entitatea subjektu obligazioduna da, eta KZ/TFA eskuliburua du, bai eta Barneko Kontrol Organo bat ere, prebentzioaren arloan funtzio espezifikoak dituena.

Kontseilu Errektoreak Etika Batzordea izendatu du, eta horri dagokio Kode Etikoa betetzen dela zaintzea. Gainera, Zigorra Prebenitzeko Eredua onartua du, Entitatean egon litezkeen jokabide kriminalei aurrea hartzeko eta erantzuteko sistema egituratzeko. Horrez gain, Kontseilu Errektoreak onartua duen Barneko Informazio Sistemaren (Salaketen Kanalaren) bidez, Kode Etikoaren aurka dauden portaerak sala daitezke.

Kode Etikoa Entitatearen intranetean dago argitaratuta, eta kodearen gobernu-ereduari buruzko atala du. Bertan, Kontseilu Errektorearen eta Etika Batzordearen eginkizunak zehazten dira, kodean araututako jokabideari dagokionez.

Araudia Betearazteko Zuzendaritzak hiruhilekoko txostena egiten du Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordearentzat, eta seihilekoko txostena, berriz, Kontseilu Errektorearentzat, Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodearen inguruan Etika Batzordeak duen jarduketaren alderdi nabarmenak azaltzeko. Txostena Zuzendaritza Kontseiluari ere aurkezten zaio.

Zuzendaritza Kontseiluak eskuordetuta, Jasangarritasun Bulegoa arduratzen da jasangarritasunaren arloko inpaktuak, arriskuak eta aukerak monitorizatzeaz. Aldian behin, Bulegoak jasangarritasun-alderdien berri ematen die Kontseilu Errektoreari eta Jasangarritasun Batzordeari (Zuzendaritza Kontseiluari), inpaktuak, arriskuak eta aukerak ere kontuan hartuta, gainbegira ditzaten. Gainbegiratze hori urtean hiru aldiz egiten da, gutxienez. Bai Jasangarritasun Batzordeak eta bai Kontseilu Errektoreak, gai materialak zehazteko prozesua baliozkotu dute. Era berean, hiru hilean behin, finkatuta dauden ESG arrisku-adierazleen jarraipena egiten da Kontseilu Errektoreko Arrisku Batzordean, eta adierazle horien atalaseei eta mugei ere erreparatzen zaie.

[GOV-2] Administrazio-, kudeaketa- eta ikuskaritza-organoei emandako informazioa eta horietan aztertutako jasangarritasunaren inguruko gaiak

Jasangarritasun Bulegoak (JBak) urtean hiru aldiz, gutxienez ematen die, Kontseilu Errektoreari eta Zuzendaritza Kontseiluari, jasangarritasunari buruzko informazioa. Jasangarritasun-politikan ezarrita dagoenez, Kontseilu Errektoreak deskarguak jasoko ditu urtean hiru aldiz, gutxienez, «estrategia, politikak, arauetan eskatutakoa, ikuskapen-aurreikuspenak eta urteko plana betetzen direla bermatzeko».

Kontseilu Errektorearen aurrean azaldu aurretik, Jasangarritasun Batzordeak bilera egiten du Kontseilu Errektorera eramango dituen gaiak aztertzeko. Arriskuarekiko Grinaren Esparruaren adierazleak —ESG arriskuei buruzkoak barne— ere hiru hilean behin aurkezten dira Kontseilu Errektoreko Arrisku Batzordean, jarraipena egiteko. Bilera horiez gain, Batzordea aldian behin biltzen da, aztertu behar dituen gaien arabera. 2024an, Kontseilu Errektorean gai hauek aztertu zituzten:

- 2023ko Jasangarritasun Txostena – IEFEa
- 2023ko materialtasun bikoitzeko analisia
- 2023ko taxonomiari buruzko datuak – GAR
- Klima- eta natura-arriskuei buruzko TCFD-TNFD txostena
- Jasangarritasuneko gestio-planaren itxiera eta 2024ko planaren onespena
- Jasangarritasun-politika eguneratzea, barne-ikuskaritzako prozesua egin eta arreta egokiko politika onartu ondoren, zorroen kudeaketa diskrezionaleko (ZKDko) jasangarritasun-faktoreen gaineko intzidentzia kaltegarri nagusiei (IKNei) dagokienez.

Bestalde, Batzordean beste hainbat gai aztertu dituzte; esaterako:

- Materialtasun bikoitzaren analisiaren lehenengo zirriborroa, CSRD zuzentarauaren araberakoa
- ESG gobernantzari buruzko barne-ikuskaritzaren emaitzak

- Arrisku emergenteei buruzko sektore-proiektuaren emaitzak

- ESG arriskuak kreditu-arriskuan integratzeari buruz Espainiako Bankuak egindako ikuskapena

- Jasangarritasunaren gestio-planaren jarraipena

Bestalde, Arrisku Batzordea, Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordea eta Izendapenen Batzordea hilean behin biltzen dira, udan izan ezik, Kontseilu Errektorearen bileraren aurretik.

[SBM-1] Estrategia, negozio-eredua eta balio-katea atalean zera azaltzen da: administrazio-, kudeaketa- eta ikuskaritza-organoek estrategia, eragiketa garrantzitsuen gaineko erabakiak eta arriskuen gestio-prozesua gainbegiratzen dituztenean nola hartzen dituzten kontuan ondorioak, arriskuak eta aukerak.

[GOV-3] Jasangarritasuna pizgarrien sisteman txertatzea

Kontseilu Errektoreak ez du pizgarririk bere gainbegiratze-eginkizunean.

Zuzendaritza Kontseiluarentzat, pizgarrien sistemak lan-bazkide guztiei aplikatzen zaien bertsio kolektiboa du, eta baita bertsio indibidual bat ere. Pizgarri indibidualen kasuan, ESG aldagaiek % 10eko pisua dute. Identifikaturiko kolektibo gisa, Zuzendaritza Kontseiluaren pizgarri-sistemen baldintzak Ordainsarien Batzordean aztertzen dira, eta horrek txostena egiten du, Kontseilu Errektoreari bidaltzeko, onar dezan.

Bi metrika daude pizgarri indibidualerako:

- bata, ingurumen-jardueraren adierazle sintetiko batekin lotutakoa (karbono-aztarna eta paperaren kontsumoa),

- eta, bestea, deskarbonizazio-plana diseinatzeari buruzkoa.

Karbono-aztarna txikitzearekin lotutako aldagaia erreferentzia-esparruen arabera neurtzen da. Zehazki, karbono-aztarna operazionala (jarduerak berak sortutakoa) % 5 murriztea da xedea. Hori kalkulatzeko, «E1-6 BEGen isurtze gordinak» atalean azaldutako metodologia erabiltzen da.

Kontseilu Errektoreak onartzen du ordainketa aldakor indibiduala, bai eta pizgarri-sistemen baldintza guztiak ere.

[GOV-4] Arreta egokiari buruzko adierazpena

LABORAL Kutxa Taldeak bere jarduerarekin lotutako ingurumenaren eta pertsonen gaineko benetako edo balizko inpaktu negatiboak —giza eskubideak urratzearenak barne— zehaztu, prebenitu, arindu eta jakinarazteko erabiltzen duen prozesua azalduko dugu jarraian:

ARRETA EGOKIAREN ELEMENTU FUNTSEZKOAK	JASANGARRITASUN-ADIERAZPENAREN ATALAK
Arreta egokia gobernantzan, estrategian eta negozio-ereduan txertatzea	ESRS2-GOV2: Enpresaren administrazio-, zuzendaritza- eta gainbegiratze-organoei emandako informazioa eta horiek aztertutako jasangarritasunaren inguruko gaiak. ESRS2-GOV3: Jasangarritasuna pizgarri-sisteman txertatzea. ESRS2-SBM3: Garrantzi erlatiboa duten intzidentziak, arriskuak eta aukerak, eta estrategiarekin eta negozio-ereduarekin duten interakzioa.
Alderdi interesdunen partaidetza arreta egokiaren fase guztietan	ESRS2-SBM2: Alderdi interesdunen interesak eta iritziak. ESRS2-IRO1: Inpaktu materialak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko prozesuaren deskribapena.
Inpaktu kaltegarriak identifikatu eta ebaluatzea	ESRS2-IRO1: Inpaktu materialak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko prozesuaren deskribapena. ESRS2-SBM3: Garrantzi erlatiboa duten intzidentziak, arriskuak eta aukerak, eta estrategiarekin eta negozio-ereduarekin duten interakzioa.
Inpaktu kaltegarri horiei aurre egiteko neurriak hartzea	ESRS2-MDRA: Garrantzi erlatiboa duten jasangarritasunaren inguruko gaiekin lotutako jarduketak eta baliabideak.
Ahalegin horien eraginkortasunaren jarraipena eta komunikazioa	ESRS2-MDRM: Garrantzizkoak diren jasangarritasunaren inguruko gaiekin lotutako parametroak. ESRS2-MDRT: Politiken eta jarduketen eraginkortasunaren jarraipena helburuen bidez.

[GOV-5] Arriskuen kudeaketa eta jasangarritasun-txostenen barne-kontrolak

LABORAL Kutxa Taldeak metodologia jakin bat du ezarrita, jasangarritasunari buruzko informazioa lantzeko.

Informazioa ematen duen talde/pertsona bakoitzak bere gain hartzen du emandako informazio horren kalitatearen gaineko erantzukizuna. Informazioarekin batera, dagokionean, emandako informazioaren iturria, jatorria, irizpideak eta kontrolak azaldu behar ditu.

Informazioa iristen zaionean, Jasangarritasun Bulegoak haren koherentzia eta sendotasuna egiaztatzen ditu.

Era berean, Jasangarritasun Bulegoak berak sortutako informazioa beste pertsona batek berrikusten du, informazioaren egilea ez den batek.

Jasangarritasunaren egoera-orria bukatu ondoren, Zuzendaritza Kontseiluari aurkezten zaio, baliozta dezan; gero, Ikuskaritza Batzordeari bidaltzen zaio, eta Kontseilu Errektoreak gainbegiratzen du.

2023aren bukaeran, jasangarritasunaren jakinarazpen-prozesuari buruzko auditoretza puntuala egin zuen Barne Ikuskaritzako Departamentuak. Auditoretzatik gomendio batzuk ondorioztatu ziren, eta ekintza-planak proposatu; besteak beste, eskuliburu bat edo idatzizko prozedura bat eskuragarri jartzea, informazio hau jasota:

- Jasangarritasun Txostenaren eta IEFEaren edukia lantzeko eta balioztatzeko beharrezkoak diren prozesuen definizioa eta azalpena.

- Jasangarritasun Txostenean eta IEFEan jasotako adierazle nagusietan eta/edo garrantzitsuetan aplikatutako kalkulu-metodologia.

- Jasangarritasun Txostenean eta IEFEan jasotako informazioaren kalitatea ziurtatzeko beharrezkoak diren kontrolak eta gainbegiratze-prozesuak, zehaztuta.

Gomendio horiek kontuan hartu dira Jasangarritasunaren egoera-orri hau egiten hasterako. Ildo beretik, inpaktu, arrisku eta aukera materialen arabera arriskuak lehenesteko sistemaren bidez Jasangarritasunaren egoera-orria egiteko prozedurari buruzko eskuliburua ari gara lantzen. 2025ean egoera-orriari buruzko beste auditoretza bat egitea dago aurreikusita.

Azkenik, LABORAL Kutxak ezarrita duen Informazio finantzarioaren eta ez-finantzarioaren dibulgazio-politikaren helburua da Entitatearen informazioa ezagutzera emateko prozedurak finkatzea, gobernu egokia bermatuko duten rolak eta erantzukizunak zehaztuta. Politika hori 2024an berrikusi zen azkenengoz, eta zabaldu beharreko informazioaren gobernantza ere zehazten du.

[SBM-1] Estrategia, negozio-eredua eta balio-katea

2022an egindako gogoeta estrategikoaren ondorioz, 2023-2024rako Plan Estrategikoa egin genuen. LABORAL Kutxaren gogoeta estrategikoak norabideak finkatzeko prozesuari jarraitzen dio. Merkatuen lehiakortasunaren behaketa sistematizatzea du helburu, eta negozio-ereduak eta ondoren Gestio Plan bakoitzean garatzen diren apustu estrategikoak berrikustea.

Aurreko plangintza estrategikoaren oinarrizko eskemari eutsi genion, asmo hauek kontuan hartuta:

- **Entitatearen negozio nagusietako kuotak handitzea:** Hipotekak, Merkataritza, Aseguruak eta Balantzetik kanpokoak.

- **Entitatearen eraldaketa bultzatzea:** digitalizazioa, teknologia, zibersegurtasuna, data analyticsa, gainbegiratze-eskakizunak eta talentua.

Programek lau atal nagusi dituzte: Barne-gobernua, Core negozioaren hazkunde errentagarria, Negozio-azeleratzaileak eta Gaitasun eraldatzaileak.

2023ko udan, ingurunearen bilakaeraren analisia egin zen, baita Plan Estrategikoaren baliozkotasunarena ere, eta Planaren oinarrizko egiturari eta helburuei eutsi zitzaien.

Plangintzaren berritasunetako bat hauxe da: Gobernantza eta Jasangarritasuna bereiztea, aurreko planean zeharkako programa bakar batean elkartuta baitzeuden. Hauek izan dira Jasangarritasun-programaren jarduketa-ildo nagusiak:

- Jasangarritasun-estrategia Zentzuarekin lerrokatzea.
- Produktuen katalogoa negozio-lerro guztietan egokitzea.
- Ingurumen-arriskuak eta klima-aldaketarenak zeharka integratzea, eta horren inguruko prestakuntza ematea.
- Jardueraren zuzeneko inpaktua murriztea (kontsumoak eta lantokiak, instalazioen irisgarritasuna, karbono-aztarna…).
- Posizionamendua eta produktuaren komunikazioa.
- Jasangarritasunaren aginte-taula: KPIak eta horien jarraipena (RASa barne).
- Etxebizitza efizienteak sustatzea (A eta B).

Erronka nagusiak

Jasangarritasun-estrategia hedatzea, Entitatearen asmoari (Zentzuari) buruzko gogoetaren ondorioak, balio kooperatiboak, Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioen sinatzaile gisa hartutako konpromisoak eta 2030 Agendako GJHak oinarri hartuta. Ekimenak eta proiektuak *greenwashing*aren ikuspegitik monitorizatzea, bigarren eta hirugarren defentsa-lerroak barne direla. Bestalde, Entitatea ESG araudiaren aurreikuspenetara egokitzea, produktu berdeen katalogoa prestatuz, jasangarritasun-printzipioak (irisgarritasuna barne) baliabide eta pertsona guztiei aplikatuz, eta jardueraren zuzeneko inpaktua murriztuz.

Arriskuen gestioa funtsezkoa da finantza-erakunde batentzat. Aldi horretako lorpenetako batzuk:

- Gure finantzaketa-zorroak jasaten dituen ESG arriskuen analisia egin da, berotasun-mapa baten bidez.

- LABORAL Kutxa Talderako ESGaren alorreko finantzaketa-, inbertsio- eta aseguru-politika onartu da. Esklusioak, sentikortzat jotzen diren sektoreak eta eztabaiden kudeaketa argitzen ditu politika horrek.

- Produktu jasangarrien katalogoa garatzen jarraitu dugu.

Jasangarritasunari dagokionez, honako hauek izan ziren 2023ko birbideratzearen ondorioak:

- Reportingaren premiak eta behar dituen baliabideak ugaritu egin dira.

- ESG arriskuak gainerako arriskuekin batera integratzea korapilatsua da.

2024aren bigarren erdian 2025-2027 aldirako Plan Estrategiko berria landu dugu, eta 2025aren hasieran balioztatu eta onartuko dugu. Plan berrian ere, jasangarritasuna izango da Taldearen zeharkako jarduketa-ardatzetako bat, eta beste programa batzuei ere eutsiko zaie, hala nola zibersegurtasuna, bezeroak eta marka, eta talentua eta kultura gaiekin lotura dutenei.

Eskainitako produktu- edo zerbitzu-multzo garrantzitsuei gagozkiolarik, finantza-erakundea izanik, bezeroei emandako finantza-zerbitzuez ari gara LKTren kasuan. Jarduerei, produktuei eta zerbitzuei erreparatuta, multzo nabarmen hauetan sailka daitezke:

- Aurrezkia eta inbertsioa. Bezeroen gordailuak eta balantzetik kanpoko aktiboak (inbertsio-funtsak, BGAEak eta pentsio-planak) hartzen ditu barne.

- Finantzaketa:

    - Sektore publikoa:% 8

    - Etxeko ekonomiak: % 68 (% 66 hipotekak, % 3 kontsumorako finantzaketa)

    - Enpresak/merkataritza: % 19

- Aseguruak:

    - Bizitzakoak: % 30

    - Ez-bizitzakoak: % 70 (% 25 etxeko aseguruak eta % 37 auto-aseguruak)

Finantzaketaren barruan, enpresei emandakoa eta bezero partikularrei bideratutakoa bereizten dira. Sailkapen hori baliagarria da bezero-taldeentzat eta sektore garrantzitsuentzat ere:

- Partikularrentzako finantzaketa: % 72

- Enpresentzako finantzaketa: % 28

2024an ez da aldaketa nabarmenik izan arlo horretan.

Merkatuei dagokienez, LKTk Espainiako merkatuan bakarrik egiten du lan.

2024ko ekitaldiaren amaieran, hauxe zen plantilla, eremu geografikoaren arabera sailkatuta:

Probintziak	Emakumeak	Gizonak	Guztira
	165	**111**	**276**
Araba	**17**	**9**	**26**
Bizkaia	**47**	**22**	**70**
Gipuzkoa	**70**	**57**	**127**
Nafarroa	**13**	**12**	**25**
Gainerako probintziak	**18**	**11**	**29**
Asturias	1	1	2
Bartzelona	1	1	2
Burgos	2		2
Errioxa	2		2
Madril	7	7	14
Salamanca	1	1	2
Valladolid	3		3
Zaragoza	1	1	2
KONTRATU MUGAGABEA	**1.138**	**974**	**2.112**
Araba	**76**	**82**	**158**
Bizkaia	**310**	**244**	**554**
Gipuzkoa	**443**	**328**	**771**
Nafarroa	**101**	**50**	**151**
Gainerako probintziak	**208**	**270**	**478**
Asturias	19	28	47
Bartzelona	6	12	18
Bizkaia	1		1
Burgos	19	16	35
Kantabria	8	11	19
Gipuzkoa	2	5	7
Huesca	2	2	4
Errioxa	18	15	33
León	11	16	27
Madril	28	43	71
Nafarroa		1	1
Palentzia	4	6	10
Salamanca	7	20	27
Valladolid	347	44	81
	1	1	2
Zamora	43	3	6
Zaragoza	42	47	89
Espainian guztira	**1.303**	**1.085**	**2.388**

Jasangarritasunarekin lotutako helburuen alorrean —produktu- eta zerbitzu-multzo garrantzitsuei erreparatuta—, bezeroei eskaintzen dizkien ezaugarri jasangarridun produktuen kopurua handitu nahi du LKTk. Gaur egun, jasangarritasunarekin lotutako hainbat produktu ditugu, EKO maileguak eta DispON ESG, adibidez.

BALIO-KATEA

1.1. LABORAL KUTXA TALDEAREN JARDUERAK

Intsumoetan, LABORAL Kutxa Taldeak 4 jarduera nagusi gauzatzen ditu:

- Maileguak ematea (finantzaketa) (Entitatearen balantzearen % 55 osatzen dute).
- Finantza-inbertsioak (balantzearen % 31 osatzen dute).
- Inbertsio-funtsak, aurreikuspen-planak eta pentsio-planak merkaturatzea (baliabide hartzekodunen % 25 osatzen dute).
- Aseguruak merkaturatzea, batez ere etxe-aseguruak, auto-aseguruak eta bizitza-aseguruak (Taldearen emaitzen % 15 inguru osatzen dute).

Jarraian, Taldearen jarduera bakoitza (*upstream* edo uretan gora eta *downstream* edo uretan behera) egiteko beharrezkoak diren aktoreak azalduko dira.

1.1.1. MAILEGUAK EMATEA

UPSTREAM EDO URETAN GORA

Maileguak emateko jarduera gauzatu ahal izateko, beharrezko funtsak lortu behar ditu LKTk. Gaur-gaurkoz, bezeroen gordailuen bidez bakarrik erosten dira, ez dago handizkako jaulkipenik.

Funtsak enpresetatik eta partikularretatik datoz, eta horiek guztiak oso atomizatuta daude. Gainera, LKTk *Kapitalak zuritzeari aurrea hartzeko politika* du ezarrita, funtsen legezko jatorria ziurtatzeko eta indarreko legeria zorroztasunez betetzeko.

DOWNSTREAM EDO URETAN BEHERA

Maileguak (edo finantzaketa) emateko jarduerarako, bezero partikularrak dira aktorerik garrantzitsuenak, haiek jasotzen baitituzte maileguen % 73. Horietatik, % 95 hipotekak ematera bideratzen dira, eta gainerakoak (% 5) kontsumora. Hipotekak ematea da balio-katearen elementu nagusietakoa, bolumen garrantzitsua baitu.

Jardueraren gainerako % 27a merkataritza-esparruari dagokio: autonomoak, enpresa handiak, enpresa txiki eta ertainak (ETEak) eta sektore publikoa. Horien artean ETEak nabarmentzen dira.

Merkataritza-esparrurako, LKTk ESG arriskuak aztertu ditu, batez ere ingurumeneko eta klima-aldaketako arriskuak kontuan hartuta. Azterketa horri esker, bero-mapa bat egin da, eta jarduera-sektoreak zuzeneko eta trantsizioko arriskuen arabera sailkatu dira. Emaitzak erakutsi duenez, hauek dira ingurumen-arriskurik handiena duten sektoreak: elektrikoa, petrolioa eta gasa, salgaien lurreko garraioa, eta itsasoko eta aireko garraioa. Lau sektore horiek LKTren merkataritza-inbertsioaren % 6,1 besterik ez dute osatzen; baina, kliman eta ingurumenean duten arriskuaren inpaktua dela eta, balio-katearen barruan sartuko ditugu.

Jardueraren finantzaketa jasangarriaren lagungarri, LKTk *ESG Inbertsio, Finantzaketa eta Aseguramendu Politika* du ezarrita. Politika horretan zenbait printzipio eta irizpide ezarri ditu LKTk, bere finantzaketak ekonomia eta gizarte bidezkoago eta jasangarriago baten aldeko jarrerarekin lerrokatzeko. Aldi berean, aipatutako printzipioekin erabat lerrokatuta ez dauden sektore sentikorrak nabarmendu dira, bai eta murriztu edo baztertu ere.

Gainera, bezeroek inbertsio jasangarriak egin ditzaten sustatzeko finantzaketa-produktuen sorta bat du LKTk. Sorta horretakoak dira, adibidez, EKO mailegua, DispON ESG, energia berriztagarriekin lotutako maileguak eta etxebizitzen edo eraikinen birgaitzearekin erlazionatutakoak.

1.1.2. FINANTZA-INBERTSIOAK

***UPSTREAM* EDO URETAN GORA**

Funtsak, maileguak emateko jardueran egiten den modu berean lortzen dira; kasu honetan ere ez da identifikatu balio-katerako bereziki garrantzitsua den aktorerik.

***DOWNSTREAM* EDO URETAN BEHERA**

Maileguak emateko uretan beherako jardueren atalean azaldu denez, LKTk *ESG Inbertsio, Finantzaketa eta Aseguramendu Politika* du ezarrita, eta finantza-inbertsioetan ere aplika daiteke.

Horrez gain, *Altxortegiko eta Kapital-merkatuko ESG Eskuliburua* dugu, berariazko ESG prozesuak ezartzen dituena Altxortegiaren areako finantza-inbertsioen jarduerarako. Azkenik, LKTk inbertsioak eginda dituen erakundeekin hitz egiten du, bere atxikimendu-zerbitzuaren bidez, jasangarritasun-irizpideak kontuan har ditzaten.

Aktoreei dagokienez, balore-zorroaren % 96 errenta finkoan dago inbertituta; horren barruan, % 90etik gora Espainiako zor publikoan. Beraz, Espainiako estatua balio-kateko aktoretzat hartuko da. Gainerako finantza-inbertsioak garrantzi gutxikoak dira, atomizatuta daudelako eta bolumen txikia dutelako.

1.1.3. INBERTSIO-FUNTSAK (IF-AK), AURREIKUSPEN-PLANAK (BGAE-AK) ETA PENTSIO-PLANAK (PP-AK) MERKATURATZEA

***UPSTREAM* EDO URETAN GORA**

Erakunde gestoreak LABORAL Kutxa Taldekoak dira. Produktu horiek LABORAL Kutxaren salmenta-kanalen bidez merkaturatzen dira. IFak, BGAEak eta PPak merkaturatzeko, LKTk bitartekari-lana egiten du, bezeroen dirua finantza-merkatuetan inbertitzeko. Inbertsioak egiteko ere *ESG Inbertsio, Finantzaketa eta Aseguramendu Politika* jarraitzen du LKTk, jasangarritasun-irizpideak kontuan hartzen dituen politika, alegia. Ildo beretik, Jasangarritasun-arriskuak txertatzeko LABORAL Kutxa Taldearen politika ere badu, finantza-inbertsioak egiteko orduan ESG irizpideak kontuan hartzearen gaian gehiago sakontzeko. Horrenbestez, LKTren inbertsio-funtsik gehientsuenak 8. artikulukoak dira NFDR zuzentarauaren arabera; hau da, jasangarritasun-ezaugarriak kontuan hartzeaz gain, ehuneko jakin bat gai jasangarrietan inbertitzen dute. Era berean, finantza-inbertsioetan egiten den moduan, hemen ere atxikimendu-lana egiten da.

DOWNSTREAM EDO URETAN BEHERA

LKTk bere txikizkako bezeroen artean merkaturatzen ditu IFak, BGAEak eta PPak, eta, beraz, bezero-taldea oso atomizatuta dago. Salmentak argitasun- eta gardentasun-mailarik handiena bermatzen duen MiFID araudiaren arabera egiten ditu. Lehenik eta behin, bezeroek MiFID galde-sorta erantzuten dute, eta jasangarritasun-lehentasunak adierazten dituzte bertan. Gero, erantzunen arabera, bezero bakoitzari profil zehatz bat esleitzen zaio eta berarentzat egokiak diren finantza-produktuak eskaintzen zaizkio.

1.1.4. ASEGURUAK MERKATURATZEA

UPSTREAM EDO URETAN GORA

Seguros Lagun Aro aseguru-taldea ere LKTko partaide da. Ezbeharren bat izan edo zerbitzuren baten beharra duten bezeroei zerbitzu emateko, hitzarmenak ditu askotariko konpontzaileekin. Zerbitzurik gehienak automobilarekin (lantegiak, garabiak…) eta etxeko kontuekin (elektrikariak, gremioak, iturginak…) lotutakoak dira, aseguruen artean adar horiek baitute pisurik handiena.

Gainera, berraseguratzaileak ere kontratatzen ditu, bezeroekin bereganatu duen arriskuaren zati bat estaltzeko.

DOWNSTREAM EDO URETAN BEHERA

Asegururen bat —bizitzakoa, etxekoa, autokoa edo beste modalitateren batekoa— kontratatzen duten bezero partikularrez ari gara.

LKTren *ESG Inbertsio, Finantzaketa eta Aseguramendu Politikak* mugatu edo murriztu egiten ditu Taldearen jasangarritasun-irizpideen eta -printzipioen aurkako sektore jakin batzuetako aseguruak.

Bestalde, LKTk ESG irizpideen araberako aseguru-produktuen katalogoa du, jasangarritasunarekin lotutako bezeroen ondasunak aseguratzeko: ibilgailu elektriko edo hibrido entxufagarrien aseguruak, bizikleta edo patinete elektrikoen aseguruak eta talde kalteberentzako etxe-aseguruak.

Azpimarragarria da, halaber, bitartekari-sare baten bidez ere merkaturatzen dituela aseguruak. Kanpoko agenteak dira, eta Lagun Aroren aseguruak banku-kanaletik aparte banatzen dituzte. Lortutako primen % 26 merkataritza-kanal horren bidez eskuratu dira.

1.2. *ZEHARKAKO BESTE AKTORE BATZUK ETA BAZKIDEAK*

LKTren jarduera nagusi bakoitzerako aipatu diren aktoreez gain, badaude zeharkakoak diren beste batzuk ere, jarduera horiek guztiak egiteko nahitaezkoak direnak eta balio-katearen barruan sartu behar direnak.

PLANTILLA

LKTko langileekin Entitateko jarduera guztiak egin daitezke. LKTren kasuan, laneko kreditu-kooperatiba denez, langileen % 80 baino gehiago Entitatearen jabe ere bada. Gainerakoak inoren konturako langileak dira. Osaera juridikotik datorren lan-egitura horren ondorioz, kudeaketan parte hartzeko maila batzuk daude, gardentasuna dago komunikazioan, eta soldaten arteko aldeak oso bestelakoak dira beste erakunde batzuekin alderatuta.

BAZKIDEAK

LABORAL Kutxa kreditu-kooperatiba denez, plantillako kiderik gehienak Entitateko bazkide edo jabe ere badira aldi berean. Gainera, beste bazkide edo jabe batzuk ere baditu: elkartutako kooperatibak, pertsona fisikoak (bezeroak) eta erretiroa hartua duten langileetako batzuk (kolaboratzaileak).

HORNITZAILEAK

LKTk hornitzaileek ematen dizkioten zerbitzuak behar ditu jarduera horiek guztiak aurrera eramateko. Hornitzaileak asko eta askotarikoak dira, baina hiru kategoria nabarmentzen dira: informatika eta teknologia, marketina eta merkatu-analisia, eta aholkularitza. Hiru kategoria horietako hornitzaileez gain, oinarrizko zerbitzuetakoak ere baditugu: elektrizitatea, segurtasuna, garbitasuna… Hirugarrenen gestioaren prozesuaren barruan, azpikontratazio batzuk funtsezkotzat jotzen dira.

Aipagarria da LKTk jasangarritasuna ere hartzen duela kontuan hornitzaileekin dituen harremanetan. Batetik, ezarrita dagoen LABORAL Kutxaren Erosketa Jasangarrien Politikak erosketetan ESG irizpideak erabiltzea bermatzen du. Bestetik, kontratatu aurretik, galde-sorta bidaltzen zaie hornitzaileei, jasangarritasunarekin lotutako galderak erantzun ditzaten.

Azpimarragarria da hornitzaileen % 95 tokikoa dela.

GIZARTEA

Atal honetako interes-taldeen artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Mondragoneko beste kooperatiba batzuk. LKTren kapitalaren zati baten jabeak dira eta balio kooperatiboak eta gizarte-eraldaketaren ingurukoak partekatzen dituzte Taldearekin.

- Tokiko komunitateak. LKTk, kreditu-kooperatiba den aldetik, jarduera gauzatzen duen gizarteetan aurrerapena eta garapena sustatu nahi ditu.

- Arautzaileak. Hain araututa dagoen finantzen sektorean garrantzitsua da arautzaileen ikuspegia, bai Espainiakoena (Espainiako Bankua, CNMV) eta bai Europakoena ere (EBZ, EBA, EFRAG, Europako Legebiltzarra…). Arautzaileen ikuspegia bereziki garrantzitsua da ESG alderdietan.

- Beste finantza-erakunde batzuk. Espainiako finantza-sistemako partaide den aldetik, LKTk harremanak ditu beste finantza-erakunde batzuekin, lankidetzan dihardu haiekin eta jarraipena egiten die. Batez ere geografikoki hurbilen dituen erakundeekin ditu horrelako harremanak.



[SBM-2] Alderdi interesdunen interesak eta iritziak

LABORAL Kutxa lan elkartuko kreditu-kooperatiba da. Beraz, gizarte-ekonomiatik datorren finantza-erakundea da, eta bere kapital soziala Mondragoneko beste kooperatiba batzuen, plantillako kideen (egungoen eta erretiratuen) eta bezeroen esku dago. LABORAL Kutxaren sorrerako helburua ingurunean aberastasuna sortzen laguntzea da, betiere bidezkotasunean oinarrituta.

Kooperatibaren asmoari buruz egindako Zentzua hausnarketa-prozesua 2023an burutu zen, eta kooperatibaren nortasun-ezaugarriak eta legatua eguneratzeko balio izan du. Prozesu horretan adierazpen hau egin zen: Komunitate oparoagoak, berdinzaleagoak eta jasangarriagoak eraikitzen ditugu, kultura kooperatibo solidario eta erantzunkidea zabalduz.

Zentzuaren ondorioz martxan jarritako helburuak eta planak hiru alderdiren ingurukoak dira:

- Pertsonak (plantilla)
- Bezeroak
- Gizartea

Ardatz horiek dira, beharrezkoa den sendotasun finantzarioarekin batera, plan estrategikoaren oinarria, «SBM-1» aurreko ataleko diagraman ikusten denez.

LABORAL Kutxako langileak enpresan erabateko eskubideak eta betebeharrak dituzten bazkideak eta jabeak dira, bai euren lanbide-eginkizunak betetzeari dagokionez, bai enpresaren gestioan zein emaitzetan parte hartzeko eskubideari dagokionez. Beste enpresa batzuekin dugun ezberdintasun hori enpresaren barruko harremanetan ere islatzen da; izan ere, langileek 3 arloetan hartzen dute parte: jabetzan, emaitzetan eta gestio-metodoetan, gestio demokratikoa eta arduratsua egitea baita gure helburua. Hala, erabakirik funtsezkoenak Batzar Nagusian onesten ditugu, eta bazkide guzti-guztiek hartzen dute parte bertan, mozkinak lortzen eta horiek gure gizartean inbertitzen lagunduko digun gestio eraginkorra eta arduratsua bermatzearren.

Bezeroen inguruan LABORAL Kutxaren misioan jasota dagoenez, «LABORAL Kutxaren eta kreditu-kooperatiba osatzen dugunon konpromisoa da gure bezeroei finantza- eta aseguru-zerbitzu hurbila, profesionala eta zintzoa eskaintzea, beren helburuak eta ongizatea lor ditzaten laguntzeko. Horretarako, balioak dituen eta epe luzera lehiakorra, kaudimenduna eta errentagarria izango den banku-jarduera garatuko dugu, hurrengo belaunaldiei legatu hobea uzteko xedearekin».

LABORAL Kutxa Euskal Herrian sortu zen, gizartea zerbitzatzeko konpromiso handia duen enpresa-talde baten (Mondragonen) barruan. Taldearen misioa da partaidetzazko elkarlan kooperatiboa sortzea, sozietateetako zuzeneko partaideentzat nahiz gizartearentzat aberastasuna eta ongizatea lortzeko. LABORAL Kutxak, bere izaera juridikoagatik eta bokazio kooperatiboagatik, kooperatiben mundua sustatzera bideratzen du irabazien zati handi bat. Bestalde, bulegoak dituen lurraldeetako ekimen ugaritara ere zuzentzen ditu atal berezi batzuk.

Garrantzi erlatiboa duten gaiak zehazteko prozesuan, alderdi interesdun horien interesak eta iritziak une askotan hartu dira kontuan:

- Balio-katearen analisiaren barruan.
- Kanpoko analisian, hala nola merkatu-joerak aztertzean edo adituek eta analistek gai batzuei ematen dieten garrantzia baloratzean.
- Barne-analisian: plangintza estrategikoa, Zentzua, hainbat politika…
- Interes-taldeei kontsultatzeko prozesuan. Hiru alderdi interesdunei kontsultatu zaie eta iritzia eman dute.

LKTren alderdi interesdunei buruzko informazio gehiago izateko eta materialtasun bikoitzaren ebaluazio-prozesuan haien interesak nola aztertu diren ikusteko, jo «IRO-1 Interes-taldeak» atalera.

Materialtasun bikoitzeko analisi horren emaitzak 2024an aurkeztu ziren Jasangarritasun Batzordean.

Halaber, «ESRS S-1 Langile propioak» eta «ESRS S-4 Kontsumitzaileak eta azken erabiltzaileak» apartatuetako SBM2 atalean gaiari buruzko informazio gehiago ematen da.

Alderdi interesdunen interesei eta iritziei buruzkoak orokorki azaldu ondoren, zenbait interestalderen interesak eta iritziak zehaztuko ditugu, banaka.

Langile propioak (S1)

LABORAL Kutxaren eta bere langileen arteko zuzeneko jarduerari dagokionez, kooperatibaren forma juridikoa Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala inspiratzen duten printzipioen asmo handiko garapena da; hain zuzen, gizaki guztiak duintasun eta eskubide berak dituztela dioen printzipioarena.

Izan ere, egitura kooperatiboak berekin dakar enpresan lan egiten duten pertsonak bazkideak izatea, eta, beraz, eskubide eta betebehar berak izatea, hierarkian duten egoera edozein izanda ere. Hala, jabe garenez, gure jarduera bikoitza da, profesional gisa eta kooperatibista moduan jarduten baitugu. Izaera bikoitz horren ildotik, profesional gisa zorrotzak izan behar dugu geure buruarekin, egunerokoan hobetzeko gogoz jardun behar dugu, eta guztiz konektatua eta partaidetzakoa den erakunde bati dagozkion harreman-motak eta barne-konexioak izan behar ditugu:

- Lanean, kapitalean, emaitzetan eta gobernantzan hartzen dugu parte.
- Eta parte-hartzeak pertsona gisa hazteko bultzada ematen digu.

Horregatik, gurea lanerako leku egokia izan dadin saiatu behar dugu, lan-ingurune positiboa izan dadin, balioetsiko gaituena, entzuten gaituztela sentiaraziko diguna eta gure lorpenak aintzatetsiko dituena.

Ingurune horrek, halaber, **bizitza pertsonalaren eta profesionalaren arteko oreka** sustatuko du, pertsonen **ongizatea** bilatuko du eta **talde-lana** bultzatuko du. Era berean, **soldatak modu ekitatiboan banatuko** ditu, gizarte bidekoagoa, aberatsagoa eta ahaldunduagoa eraikitze aldera.

Gure garaitik harago doan proiektu kooperatibo batekiko konpromisoa hartzen dugu. Geure gain hartzen dugu ondare hori hobetu eta transmititzeko betebeharra, eta, horren ondorioz, lehentasuna ematen diegu beti interes globalari eta epe luzeko lankidetza-proiektua sendotzeari.

Ildo horretan, erabakiak hartzeko orduan, oso kontuan hartzen ditugu zuhurtasuna eta epe luzea. Zuhurtziaz jarduten dugu arriskuak onartzean, epe luzerako plangintza egiten dugu gure emaitzen iraunkortasuna bermatzeko, hornidurak egiten ditugu eta gure kaudimena zaintzen dugu.

Gurea **banka kooperatiboa** da, enpresa egiteko bestelako eredu bat, eta, lehiatzeaz eta errentagarri izateaz gain, gure printzipioen arabera jarduten dugu. Ondorioz, erakundeko pertsona guztiak harro gaude gure balio kooperatiboez, gure helburuak lortzeko moduaz eta partaide garen gizarteari egiten diogun ekarpenaz.

Pertsonen arloan, giza eskubideak urratzearekin lotutako arriskurik handienak ustelkeriarekin eta laneko jazarpenarekin lotuta daude.

- Ustelkeriaren alorrean, ikusi «G1-3 [G1-3] Ustelkeria edo eroskeria prebenitzea eta antzematea» atala.

- Laneko jazarpenari dagokionez, adierazi behar da arazo horrek eragin kuantitatibo txikia duela, baina eragin handia izan dezakeela horrelako egoera batean egon daitezkeen pertsonengan. Prozeduretan, Laneko jazarpen-egoeretan jarduteko protokolo-multzoa dago:

  - Jazarpen moraleko egoeretan jarduteko protokoloa, 2023-11-03an eguneratua.

  - Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloa, 2023-11-03an eguneratua.

- Erakundean, Etika Batzordea arduratzen da kasuak aztertu eta baloratzeaz.

- Jazarpen-egoerei buruzko jakinarazpenak eta/edo salaketak Entitatearen Salaketen Kanalaren bidez jasotzen dira.

Gure finantza-jarduerak, jardunaren eremu geografikoak eta jabetza-egiturak eragotzi egiten dute Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko hitzarmenetako xedapenak urratzea.

Seguros Lagun Arok ere badu sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako protokoloa. Horrelako egoeretan erreklamazioak eta salaketak ebazteko jarduera-prozedura arautzen du, eta prebentzio-mekanismoak ezartzen ditu, sentsibilizazioaren, prestakuntzaren eta informazioaren bidez. Protokoloa 2023an eguneratu da, indarrean den araudiaren arabera.

Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak (S4)

Entitateak zenbait prozesu erabiltzen ditu azken kontsumitzaile eta erabiltzaileen interesak eta iritziak ezagutzeko eta kontuan hartzeko. Inkestetan oinarritutako lau prozesu dira, zehazki. Inkesten bidez, bezeroen lehentasunei eta Entitateaz duten iritziari buruzko informazioa lortzen da. «[S4-2] Azken erabiltzaile eta kontsumitzaileak inpaktuetan inplikatzeko prozesuak» atalean xehetasun handiagoz azaltzen da Entitateak azken kontsumitzaile eta erabiltzaileekin nola kolaboratzen duen materialtasun bikoitzaren prozesuan antzemandako inpaktu edo intzidentzia materialei dagokienez. Jarraian, prozesu horietako bakoitzari buruzko azalpena emango dugu:

- Bezeroaren gogobetetasunari buruzko inkesta:

  Entitateko bezeroei sei hilean behin egiten zaien inkesta da. Bezeroek Entitatearekiko duten gogobetetasun-maila globala ezagutzea da helburua; era berean, bulegoetan zein kanaletan hainbat profiletako bezeroei —bezero partikular finantzarioei eta merkataritzakoei, aseguruak dituzten bezeroei eta abarri— eskaintzen diegun zerbitzuarekiko eta aholkularitzarekiko gogobetetasunaren berri jaso nahi da. Bezeroen oinarri zabal baten iritzia biltzen da.

2024KO DATUAK

- Kontsultatutako bezeroak: 29.850

- LKrekiko gogobetetasun globala: 80,7/100

- Harreman-uneei buruzko inkesta:

  Inkesta horretan, LABORAL Kutxarekin —bulegoetan edo Online Bankan— hainbat unetan izan dituen harremanen gaineko gogobetetzeari buruz galdetzen zaio bezeroari, hala nola bezero berrien alta kudeatzeko unean, produktuak eskaini eta kontratatzean eta abar.

  Inkestan alderdi hauek jorratzen dira: esperientziari buruzko balorazio orokorra, prozesuaren gaineko balorazioa (erraztasuna, informazioa, aholkularitza…) eta produktua egokia den bezeroak dituen beharretarako.

  2024KO DATUAK

  - Kontsultatutako bezeroak: 18.159

  - LKrekiko gogobetetasun globala: 8,83/10

  - Esperientziaren gaineko balorazioa: 8,91/10.

- Txosten nazionala. Finantza-sektoreko bezeroen gogobetetasunaren *benchmarking*a:

  Kanpoko enpresa baten (Stigarem) ekimenez egindako azterketa; Espainiako merkatuan diharduten finantza-erakundeetako bezeroen gogobetetasun- eta konpromiso-maila alderatzeko erreferentzia-esparrua eskura izatea du xede.

  Lan horretan, bezeroek arreta-kanalekin —bulegoa / Online Banka eta aplikazioa / kutxazainak / Telefono bidezko Banka— duten gogobetetasuna aztertzen da, bai eta erakunde bakoitzaren eskaintzari, informazioari, harremanetarako ukiezinei eta markari buruz egiten duten balorazioa ere.

  2024KO DATUAK

  - Kontsultatutako LABORAL Kutxako bezeroak: 14.400

  - LKrekiko gogobetetasun globala: 7,74/10

- Marka-irudiaren *tracking*a*:*

  Ikerfel enpresak Entitatearentzat egindako azterketa; finantza-erakundeei eta haien jarduerari buruz duten iritzia galdetzen zaie merkatuko kontsumitzaileei (bezero direnei eta ez direnei), bezeroekiko harremanei, balioei, gizartearekiko konpromisoari eta eskaintzari dagokienez, besteak beste.

  Entitatearen jarduera gure marka-balioekin eta asmoarekin zer neurritan datorren bat jakitea da asmoa.

Bezeroen gogobetetasunari buruzko azterketa horiek eta marka-irudiaren *tracking*a urtean behin aurkezten dira Zuzendaritza Kontseiluan eta Kontseilu Errektorean.

Txosten horien emaitzen bidez, bezeroen beharrak eta eskain ditzakegun produktu eta zerbitzu berriak identifikatzen ditugu, eta bulegoetan eta kanaletan ematen dugun zerbitzuan hobetu beharreko alderdiak zehazten ditugu. Bezeroen eskakizun nagusiak urteko Gestio Planeko jardunbideetan jasotzen dira.

Bestalde, azken kontsumitzaile edo erabiltzaileen inklusioari buruzko IRO alderdiari dagokionez, 2023an Ilunionek LABORAL Kutxaren irisgarritasun-diagnostikoa egin zuen. Diagnostikoa integrala izan zen, eta bezeroekiko harreman-kanal guztiak hartu zituen kontuan: kanal fisikoa (bulegoak), telefono bidezkoa, onlinekoa eta kutxazain automatikoak. Era berean, salmenta-prozesu nagusietako bi aztertu ziren; hau da, kontuak irekitzea eta hipotekak kontratatzea. Diagnostikoa egiteko, auditore adituen eta erabiltzaileen balorazioak hartu ziren kontuan. Hauek ziren Ilunionen helburuak:

- Desgaitasuna duten eta/edo adinean gora doazen pertsonen beharren eta eskaeren berri jasotzea, LABORAL Kutxan duten bezero-esperientzia hobetzeko Entitatearen prozesu-mapan: komunikazio-kanalekiko interakzioa (kanal fisikoa, telefono bidezkoa, *back office*a eta onlinekoa kontuan hartuta); zerbitzuak ematea, eta banku-sektoreko profesionalek eskainitako arreta.

- Egungo interakzioko kanaletan txertatu beharreko ezaugarriak eta funtzionalitateak identifikatzea, desgaitasuna (fisikoa, ikusmenekoa edo entzumenekoa) duten eta/edo adinean gora doazen bezeroei baldintza berdinetan zerbitzu emateko.

Horretarako, baliabide hauek erabili ziren:

- Erabiltzaile-testa: erabiltzaileek, banaka, zerbitzuak eta produktuak nola erabiltzen dituzten behatu eta aztertzean oinarritutako erabilgarritasun-probak.

- Erosle misteriotsua (*mystery shopper*ra): bezeroarentzako arreta-zerbitzuen benetako jokabideari buruzko azterketa.

Diagnostikoaren fasearen ondoren txostena eta hobekuntza-plana egin ziren, eta ezartzeko prozesuan daude.

Zibersegurtasuna eta datuen tratamendua (C1)

Banku-sektoreak, egiten dituen eragiketen plangintza eta garapenagatik eta esku artean darabilen informazio sentikorra dela eta, erronka oso espezifikoak ditu zibersegurtasunaren alorrean.

LABORAL Kutxarentzat, zibersegurtasuna eta datuen babesa helburu estrategikoak dira, baliagarriak baitzaizkio erakundearen ospea sendotzeko eta bezeroen konfiantza-maila altuari eusteko. Helburua honela lortzen da:

- **Zibersegurtasunaren kultura** zeharka ezarriz Entitate osoan.

- **Baliabide eta teknologia berrietan inbertituz**, sistemak eta datuak babesteko eta erasoak antzeman eta horien aurrean erantzuteko.

- **Agintariekin eta hirugarrenekin lankidetzan** arituz, sektorean azaltzen diren mehatxu eta arrisku berrien gaineko baterako ezagutza-oinarria sortzeko.

Mehatxu zibernetikoen maiztasuna goraka doala kontuan hartuta, nahitaezkoa da jasangarritasunaren eta zibersegurtasunaren arteko lotura sendotzea, erakundearen eta bertako langileen osasuna, negozioaren etorkizuna eta gure interes-taldeen (bezeroen eta bazkide komertzialen) interesak babesten lagunduko duen ikuspegi integratu gisa.

[SBM-3] Inpaktu materialak, arriskuak eta aukerak, eta negozio-estrategiarekin eta -ereduarekin duen interakzioa

Garrantzi erlatiboari buruzko analisia egin ondoren, inpaktu (I: impact), arrisku (R: risk) eta aukera (O: opportunities) material hauek (IRO materialak) identifikatu dira:

Jasangarritasun-gaiak	Jasangarritasun-azpigaiak	IRO materialak	IROak	Balio-katea	Epemugak
Klima-aldaketa	Klima-aldaketak dakarren egokitzapena	Enpresa batzuek, batez ere enplegua sortzen duten enpresa txiki eta ertainek, arazoak izatea ingurumen-eskakizun berrietara egokitzeko.	Inpaktua	Ondorengo faseak	Epe laburra
		Ekonomia jasangarriagoa sustatzea, produktu eta zerbitzu jasangarriak sortzen dituzten sektoreak/enpresak babestuz.	Inpaktua	Ondorengo faseak	Epe laburra
		Arrisku fisiko eta/edo trantsiziokorik handiena duten partaideak merkatuan pixkanaka baztertuz joatea.	Inpaktua	Ondorengo faseak	Epe laburra
		Enpresak finantzatzea, ingurumenaren aldetik jasangarriagoak diren ereduetarantz trantsizioa egin ahal izateko.	Aukera	Ondorengo faseak	Epe ertaina/luzea
	Klima-aldaketa arintzea	Merkataritza-zorroko maileguak ez itzultzea, mailegua eman zaien enpresek zailtasunak dituztelako trantsizioko klima-arriskuetara egokitzeko (legeetara, teknologietara, bezeroen lehentasunetara eta abar).	Arriskua	Ondorengo faseak	Epe luzea
		Hipoteka-zorroaren balorazioaren beherakada, efizientzia txikiko etxebizitzek merkatuan balioa galtzen dutelako eta birgaitu egin behar direlako saldu edo alokatu ahal izateko.	Arriskua	Ondorengo faseak	Epe luzea
		Bezeroek hipoteka-maileguak itzultzeko zailtasun handiagoak izatea energia-kalifikazio txarrak dituzten etxebizitzen kasuan, gerora etxea freskatu edo berotzeko kostu energetikoak handituko direlako.	Arriskua	Ondorengo faseak	Epe luzea
		Enpresak finantzatzea, ingurumen-inpaktu txikiagoa duten produkzio-ereduetarantz trantsizioa egin ahal izateko.	Aukera	Ondorengo faseak	Epe ertaina/luzea
Langile propioak	Lan-baldintzak	Plantillaren ongizateak okerrera egitea, lan-baldintza desegokien ondorioz.	Inpaktua	Eragiketa propioak	Epe laburra
		Plantillaren ongizateak hobera egitea, lan-baldintza egokien ondorioz.	Inpaktua	Eragiketa propioak	Epe laburra
	Tratu- eta aukera-berdintasuna denontzat	Generoak, jatorriak, arrazak, sexu-orientazioak edo beste alderdiren batek plantilla baldintzatzea.	Inpaktua	Eragiketa propioak	Epe laburra
		Langileen motibazioak eta produktibitateak behera egitea, generoak, jatorriak, arrazak, sexu-orientazioak edo beste alderdiren batek baldintzatzen dituela sentitzen dutelako.	Arriskua	Eragiketa propioak	Epe laburra/ertaina/ luzea
Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak	Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileentzako informazioarekin lotutako gorabeherak	Bezeroei argiak ez diren azalpenak ematea, informazioa ezkutatzea edo haien profilarentzat egokiak ez diren produktuak saltzea.	Inpaktua	Ondorengo faseak	Epe laburra
		Bezeroei azalpen argiak, zehatzak eta gardenak ematea finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz.	Inpaktua	Ondorengo faseak	Epe laburra
		Bezeroak fidelizatzea, azalpen argiak, zehatzak eta gardenak emanez finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz.	Aukera	Ondorengo faseak	Epe laburra/ertaina/ luzea
		Gizartean eta sektorean ospe ona lortzea, bezeroei azalpen argiak, zehatzak eta gardenak emateagatik finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz.	Aukera	Ondorengo faseak	Epe laburra/ertaina/ luzea

Jasangarritasun-gaiak	Jasangarritasun-azpigaiak	IRO materialak	IROak	Balio-katea	Epemugak
		Segurtasun juridikoa, bezeroei azalpen argiak, zehatzak eta gardenak emateagatik finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz.	Aukera	Ondorengo faseak	Epe laburra/ertaina/ luzea
	Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileen gizarte-inklusioa	Bezero-mota guztien beharrei erantzutea, haien generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein direla ere.	Inpaktua	Ondorengo faseak	Epe laburra
		Bezeroak fidelizatu eta sustraitzea, haien beharrei erantzunez, generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein dutela ere.	Aukera	Ondorengo faseak	Epe laburra/ertaina/ luzea
		Bezero-kopuru handiagoa lortzea, haien beharrei erantzunez, generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein dutela ere.	Aukera	Ondorengo faseak	Epe laburra/ertaina/ luzea
Kultura korporatiboa	Ustelkeria eta eroskeria	Ustelkeriako edo kapitalak zuritzeko kasuak gertatzea, LABORAL Kutxaren kanalen edo produktuen bidez.	Aukera	Eragiketa propioak	Epe laburra
		Plantilla trebatzea, ustelkeriako edo kapitalak zuritzeko kasu oro saihesteko.	Inpaktua	Eragiketa propioak	Epe laburra
Zibersegurtasuna eta datuen tratamendua	*Entity specific*	Bezeroen datu pertsonalak edo aurrezkiak lapurtzea, iruzurrezko jardueren, iruzurren edo maulen ondorioz.	Inpaktua	Ondorengo faseak	Epe laburra
		Plantilla trebatzea, zibereraso-saiakerei behar bezala erantzun diezaien, bezeroen datuak eta gordailuak babesteko.	Inpaktua	Eragiketa propioak	Epe laburra
		Entitatearen erresilientzia zibergaizkileen ekintza oldarkorren aurrean.	Inpaktua	Eragiketa propioak	Epe laburra
		Erasoen edo jarduera maltzurren ondorioz LABORAL Kutxak ekonomia- edo eragiketa-galerak izatea.	Arriskua	Eragiketa propioak	Epe laburra/ertaina/ luzea
		Azpiegitura teknologiko propioaren aurkako erasoak, eragiketetan, zerbitzuan edo ekonomian eragina dutenak.	Arriskua	Eragiketa propioak	Epe laburra/ertaina/ luzea
		Bezeroak galtzea, zibererasoen ondorioz datu pertsonalak edo aurrezkiak lapurtu dizkietelako.	Arriskua	Ondorengo faseak	Epe laburra/ertaina/ luzea

Aipatu berri diren arriskuen eta aukeren finantza-ondorioei dagokienez, Entitateak balorazio ekonomikoa egin du, baina bakoitzaren eraginak zehatz-mehatz zehaztu gabe.

SBM 1 ataleko diagraman ikusten denez, LABORAL Kutxak identifikatu ditu ondoriozko azpiazpigaiak, eta sartuta daude plangintza estrategikoan eta negozio-ereduan.

Hasteko, Zentzua proiektua kokatu da Entitatearen estrategiaren ardatz nagusian, eta horrek eragina du pertsonen (langileen), bezeroen eta gizartearen arloetan. Beraz, langile propioen, azken kontsumitzaile eta erabiltzaileen eta kultura korporatiboaren gaietan identifikatutako IRO guztiekin lotuta dago, eta palanka-lana egiten du. Gainera, Zentzua proiektu dinamikoa da eta askotariko inputekin elikatzen da. Hori dela eta, atal horietan identifikatutako IROak baliagarriak izango dira proiektua birmoldatzeko eta, hala, estrategian zuzenean eragiteko; izan ere, Entitatearen erabaki guztiak Zentzuan adierazitakoaren galbahetik pasatzen dira.

Era berean, erronka nagusietako bat jasangarritasunaren estrategia hedatzea da. Bertan, ESG araudiaren aurreikuspenetara egokitzeko alderdiari heltzen zaio, besteak beste. Aurreikuspenik gehienak ingurumenaren gaiarekin lotuta daude, eta klima-aldaketaren gaian identifikatutako IRO guztietan dute eragina.

Azkenik, DORA (Digital Operational Resilience Act) araudia ezarri denez, Entitatea behartuta dago zibersegurtasunarekin eta datuen tratamenduarekin lotutako IROetan lan egitera.

Garrantzi erlatiboa duten intzidentziak

Honako hauek dira pertsonengan edo ingurumenean eragin zuzena izan dezaketen eta garrantzi erlatiboa duten identifikatutako intzidentziak:

- Enpresa batzuek, batez ere enplegua sortzen duten enpresa txiki eta ertainek, arazoak izatea ingurumen-eskakizun berrietara egokitzeko. I

  - Ekonomia jasangarriagoa sustatzea, produktu eta zerbitzu jasangarriak sortzen dituzten sektoreak/enpresak babestuz. I

  - Arrisku fisiko eta/edo trantsiziokorik handiena duten partaideak merkatuan pixkanaka baztertuz joatea. I

- Plantillaren ongizateak okerrera egitea, lan-baldintza desegokien ondorioz.

Kooperatiba-egiturak eta martxan jarritako politikek eta programek arindu egiten dute horrek plantillan izan dezakeen eragina.

- Generoak, jatorriak, arrazak, sexu-orientazioak edo beste alderdiren batek plantilla baldintzatzea.

Kooperatiba-egiturak eta martxan jarritako politikek eta programek arindu egiten dute horrek plantillan izan dezakeen eragina.

- Bezeroei argiak ez diren azalpenak ematea, informazioa ezkutatzea edo haien profilarentzat egokiak ez diren produktuak saltzea.

Horrek eragina du bezeroengan, eta galera ekonomikoak edo nahi ez diren arriskuak onartzea ekar dezake.

- Bezeroei azalpen argiak, zehatzak eta gardenak ematea finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz.

Bezeroengan eragitea haien ondarea egoki gestionatuz eta, ildo horretatik, konfiantza eta epe luzerako harremanak bideratzea.

- Bezero-mota guztien beharrei erantzutea, haien generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein direla ere.

Horrek eragina du bezeroengan eta gizartean, beren eskubideak errespetatzen direla ikusten baitute.

- Ustelkeriako edo kapitalak zuritzeko kasuak gertatzea, LABORAL Kutxaren kanalen edo produktuen bidez.

Gizartean eragina izan dezake.

- Plantilla trebatzea, ustelkeriako edo kapitalak zuritzeko kasu oro saihesteko.

Plantillan eragiten du, eta inpaktu soziala duten eta Taldea zehatzea ekar dezaketen arau-hausteak hobeto kudeatu eta prebenitzea ahalbidetzen du.

- Bezeroen datu pertsonalak edo aurrezkiak lapurtzea, iruzurrezko jardueren, iruzurren edo maulen ondorioz.

Inpaktua bezeroengan, ekonomia- edo pribatutasun-galerak direla eta.

- Plantilla trebatzea, zibereraso-saiakerei behar bezala erantzun diezaien, bezeroen datuak eta gordailuak babesteko.

Plantillan eragiten du, eta inpaktu soziala duten eta Taldeari galerak eta zehapenak ekar diezazkioketen arau-hausteak hobeto kudeatu eta prebenitzea ahalbidetzen du.

- Entitatearen erresilientzia zibergaizkileen ekintza oldarkorren aurrean.

Eragina du pertsonengan eta plantillan, informazioaren eta eragiketen segurtasuna hobetzen baita.

[IRO-1] Inpaktu materialak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko prozesuaren deskribapena

Materialtasun bikoitzaren analisia egiteko eta inpaktu, arrisku eta aukera (aurrerantzean IRO) materialak ebaluatzeko prozesua aldatu egin zen 2024an, CSRD zuzentarauaren eskakizunetara egokitzeko, eta 2025ean berrikusi egingo da.

2024an, Jasangarritasun Bulegoak eta, halaber, Jasangarritasun Batzordeak balidatu zuten materialtasun-analisia; 2025aren hasieran, berriz, Zuzendaritza Kontseiluak balidatu eta Kontseilu Errektoreak onartu zuen.

Inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko LABORAL Kutxak jarraitu duen prozesua jarraian azalduko ditugun bost fasetan gauzatu da.

1. FASEA. TESTUINGURUAREN ANALISIA

Materialtasun bikoitzaren azterketaren barruan, testuinguruaren analisia da eman beharreko lehenengo pausoa. Lau zati ditu:

1. Balio-katea zehaztea

2. Interes-taldeak zehaztea

3. Barne-analisia

4. Kanpo-analisia

Testuinguruaren analisiaren emaitzekin, materialak izan daitezkeen jasangarritasunaren inguruko gaien (ESRS) atariko zerrenda osatu da 2. fasean.

BALIO-KATEA

LABORAL Kutxa Taldearen balio-katea zehaztea da puntu honen helburua. EFRAGen definizioaren arabera, Taldeak erabiltzen dituen jardueren, baliabideen eta harremanen multzoa da balio-katea, horietan oinarritzen baita bere produktu edo zerbitzuak sortzeko, emateko eta kontsumitzeko, haien balio-bizitzaren amaierara arte (ikusi xehetasun gehiago «SBM-1» atalean).

Egindako analisian oinarrituz, gaiak zehaztu eta lehenetsi dira, Entitatearentzat eta sektorearentzat duten garrantziaren arabera (1etik 4ra puntuatuta), LKTren berezitasunak, inpaktuak, arriskuak eta ezaugarri espezifikoak kontuan hartuta.

INTERES-TALDEAK (*STAKEHOLDERS*)

INTERES-TALDEAK ZEHAZTEA

Interes-talde esaten zaie LKTren jardueretan (1.1. apartatuan zehaztuta daudenetan) eragin dezaketen edo jarduera horien eragina izan dezaketen alderdi interesdunei.

LABORAL Kutxak bere Jasangarritasun Politikan zehazten eta azaltzen ditu interes-taldeak, eta Jasangarritasun Txostena eta Informazio ez-finantzarioaren egoera-orrian (IEFEan) ere jaso dira; bera, horietan kontsulta daitezke. Jasangarritasun Txostenean, ingurumena gehitu zaie lau interes-taldeei (plantilla, bezeroak, hornitzaileak eta gizartea). Berez ez da interes-talde bat; baina, dituen ezaugarriak tarteko, arreta merezi duen alderdia da. Interes-talde batzuk azpitaldetan banatu dira, hobeto ulertu eta kudeatze aldera:<0}

PLANTILLA

Plantilla da, bereziki, estrategia betetzeko eragile nagusia eta negozioaren jasangarritasuna bermatzeko giltza. Langileek rol bikoitza dute, langile ez ezik kooperatibako bazkide ere badirelako, eta hori bereizgarria izan da historikoki; izan ere, finantza- eta aseguru-jarduera modu jasangarriagoan garatzea ahalbidetu du.

BEZEROAK

Taldearen helburua da bezeroekin etikan eta konfiantzan oinarritutako epe luzeko harremanak eraikitzea, bezeroen beharretara egokitzea, haien itxaropenak betetzen dituzten eta bidezko garapen jasangarria lortzen laguntzen duten kalitatezko produktuak eta zerbitzuak eskainiz, eta haien gogobetetasun-maila hobetzea, zerbitzuaren kalitatean bikaintasuna lortuz.

Bezeroen beharrak eta aurreikuspenak aldatu egiten direnez, hiru segmentu nagusitan sailkatu dira:

- Loturadun bezero partikularrak
- Bezero enpresak
- Bezero autonomoak eta mikroenpresak

HORNITZAILEAK

Hornitzaileak beharrezkoak eta ezinbestekoak dira LKTk bere zerbitzuak eman ahal ditzan. Era berean, badaki trakzio-gaitasuna duela eta enpresa hornitzaileak bultza ditzakeela gizarte- eta ingurumen-alderdietan gero eta jasangarriagoa den jarduera bat izatera.

Hornitzaileei buruzko informazio gehiago dago 1.2. apartatuan.

GIZARTEA

LKTren negozio-ereduak oso lotura estua du komunitatearekin; hori dela eta, bere jarduera garatzen duen lurraldeetan integratzea du helburu, eta ekitatea eta aurrerapen ekonomiko, sozial eta kulturala sustatzea eta modu proaktiboan bideratzea.

Taldeak komunikazio-kanal ugari ditu, gizartearen beharrak eta aurreikuspenak ezagutzeko. Jasangarritasun Txostenean jaso da kanal horien berri.

Era berean, LKTk gizarteari itzultzen dio urteko irabazi banagarrien ehuneko handi bat, % 25 zehazki, zuzenean edo Mondragonen elkar-lankidetzako mekanismoen bidez.

Halaber, elkarte eta gizarte-ekimen askotan hartzen du parte.

Gizartearen interes-taldea oso heterogeneoa denez, partaide espezifikoetako batzuk azalduko ditugu:

ARAUTZAILEAK, BEREZIKI ESPAINIAKO BANKUA

LKTren finantza- eta banku-jarduera oso araututa dago. LKTren kasuan, Espainiako Bankua arduratzen da erregulazio eta araudiak gainbegiratzeaz. Gainbegiralearekiko elkarrizketa etengabea da, bileren, gutunen eta ikuskapenen bidez. ESG alderdiei dagokienez, zehazki, arriskuen multzoan klima- eta ingurumen-arriskuak sartzera bideratutako arau-aurreikuspenak argitaratu ditu.

Balio-katea deskribatzean azaldu denez, LKTrentzat bete beharrekoa den araudia finkatzen duten arautzaile eta gainbegiratzaile asko dago.

MONDRAGON ETA KOOPERATIBA ELKARTUAK

LKT Mondragon enpresa-talde kooperatiboko kidea da. LKT, beste kooperatiba batzuekin batera, sorreratik da Mondragoneko partaide, eta, gainera, enpresa-taldera bideratzen du irabazien zati garrantzitsu bat. Era berean, Mondragoneko kooperatibek LKTren kapitalean hartzen dute parte, balioak partekatzen dituzte eta LKTren bezero ere badira (kooperatibak eta horietako plantillak).

TOKIKO KOMUNITATEAK, GIZARTE-ERAKUNDEAK, UNIBERTSITATEA…

LKTk harreman estua du gizarteko ordezkari batzuekin. Solaskide horiek aukera ematen diote gizartearen beharren eta horien gaineko aurreikuspenen berri jasotzeko. Batzuek —unibertsitateek, adibidez— ezagutza eskaintzen dute gai berriei, antzemandako arazoei eta abarri buruz. Beste batzuk, gizarte-erakundeak kasu, talde espezifikoen edo egoera ahulean daudenen ordezkari dira.

Sailkapenak ez dira baztertzaileak, baina garrantzitsua da alderdi interesdunen barruan bereizketa egitea:

- Batetik, balio-katean enpresaren jardueren eta zuzeneko edo zeharkako negozio-harremanen eragina —positiboa edo negatiboa— izan dezaketen taldeak. Plantilla, bezeroak, hornitzaileak eta kooperatibak dira horietako batzuk.

- Bestetik, finantza-informazioaren erabiltzaile nagusiak, oro har, eta jasangarritasunaren egoera-orrien beste erabiltzaile batzuk, horien artean bazkide komertzialak, sindikatuak eta gizarte-solaskideak, gizarte zibileko eta gobernuz kanpoko erakundeak, gobernuak, analistak eta bazkide akademikoak. Hau da, arautzaileak, gizarte-erakundeak, unibertsitateak eta abar.

Horrenbestez, 3. fasean kontsultatu beharreko interes-taldeak zehaztu ziren.

KANPO-ANALISIA

LKTren kanpo-ingurunearen egoera eta garrantzitsutzat jotako jasangarritasunaren inguruko gaiak ulertzea da atal honen helburua. Horretarako, sektoreko makro- eta mikro-joera nagusiak aztertu dira, bai eta merkatuko jardunbiderik onenak ere. Kanpoko egoera hobeto ulertzeko, aztergai izan dira egungo araudi-joera eta arautzaileak norantz bideratzen ari diren merkatuak.

3.1. MERKATU-JOERAK

Finantza-sektoreko joera nagusiak aztertu dira. Aintzat hartu da, halaber, LKTren jarduera espezifikoa, Espainiako iparraldean bakarrik —batez ere EAEn eta Nafarroan— diharduela kontuan izanda. Beraz, garrantzitsuagoak dira tokiko joerak globalak baino. Ildo horretan, LKTrentzat garrantzi berezia dute, adibidez, biztanleriaren zahartzeak eta horrek jarduera komertzialean dituen ondorioek, hipoteken merkatuak, talentua erakartzeak eta abarrek.

Merkatuari jasangarritasunaren ikuspegitik begiratuta, argi dago aurrerantzean ere jasangarritasunarekin lotutako alderdiek gero eta garrantzi handiagoa izango dutela.

Azkenik, aipagarria da jasangarritasun-arriskuen ondorio nagusiak politikoak, ekonomikoak, gizarte-mailakoak, teknologikoak, ingurumenekoak, legezkoak eta araudi-mailakoak direla.

Egindako analisian oinarrituz, gaiak zehaztu eta lehenetsi egin dira, Entitatearentzat eta sektorearentzat duten garrantziaren arabera, LKTren berezitasunak, inpaktuak, arriskuak eta ezaugarri espezifikoak kontuan hartuta.

3.2. ARAUDIEN ANALISIA

Araudien analisiak berebiziko garrantzia du kanpo-ingurunea ulertzeko. Sektorean aplikagarriak diren eta indarrean dauden jasangarritasunari buruzko legeez gain, gaur egun onartzeko bidean dauden lege-proiektuak ere aztertu dira.

Lehenago azaldu dugunez, LABORAL Kutxa Taldeak Espainian egiten ditu eragiketa guztiak, eta Espainiako Bankuak gainbegiratzen duen finantza-erakunderik handiena da.

Aldi berean, LKT Europako arau-esparruaren mende dago. Azken urteetan, lege eta arau ugari sortu dira ESG gaien inguruan (Finantza Jasangarrien Ekintza Plana eta Itun Berdea), eta ahalegin handia ari gara egiten horietara egokitzeko.

Ikusten denez, banku-sektorearen betebehar nagusiek alderdi hauek ukitzen dituzte, besteak beste:

- Gardentasuna, eta balantzearen eta finantza-produktuen jasangarritasun-mailari buruzko informazioa ematea.
- Betiko finantza-arriskuei jasangarritasun-arriskuak (klima-aldaketa eta balio-katea) gehitzea.

LKTk Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioetan, TCFDan eta 3. zutabeko estandarretan hartzen du edo hartu du parte.

Egindako araudien analisian oinarrituz zehaztu da gaien garrantzi-maila.

3.3. MERKATUKO BENCHMARKA

*Benchmark*a egin da, sektorearen merkatu-joera materialak ulertzeko.

3.4 ADITUAK ETA ANALISTAK

Kanpo-analisia osatzeko, analistek (jasangarritasuneko nazioarteko estandar nagusiek eta IGG ratingeko agentziek) aurretik identifikatutako gai bakoitzari ematen dioten garrantzia jaso da.

Horretarako, ratingeko hiru agentzien ikuspegiari erreparatu zaio. Horiek, gai garrantzitsu hauek hartu dituzte kontuan banku- eta aseguru-sektorean:

S&P (*banks+insurance* industriak hartu ditu kontuan, eta pisu jakin bat eman die): Weights Overview Corporate Sustainability Assessment (spglobal.com)

- Gobernantza
- Arriskuen gestioa
- Enpresa-etika
- Klima-estrategia

- Giza kapitalaren gestioa
- Finantza jasangarriak
- Deskarbonizazio-estrategia
- Lan-jardunbideak
- Finantza-inklusioa

MSCI (finantzen sektorea hartu du kontuan, eta pisu jakin bat eman die azpi-industriei —*diversified Banks, regional Banks, Comercial $ residential mortgage finance, Multi line insurance*—): ESG Industry Materiality Map - MSCI

- Ingurumen-inpaktua finantzatzea: arriskuak integratzea eta produktuak eta zerbitzuak garatzea
- Klima-aldaketaren aurreko zaurgarritasuna
- Giza kapitalaren garapena
- Datuen pribatutasuna eta segurtasuna
- Kontsumitzailearen babesa
- Finantza-produktuen eskuragarritasuna
- Inbertsio arduratsua
- Gobernantza: enpresa-etika, ordainsariak, fiskalitatea…

SASB (finantzen sektorea hartu du kontuan, *Commercial Banks, Consumer finance, Insurance, Mortgage Finance, Asset managemenet & custody activities* industrien gai garrantzitsuak): Find Industry Topics - SASB (ifrs.org)

- Datuen pribatutasuna eta segurtasuna
- Oinarrizko finantza-zerbitzuen irisgarritasuna
- ESG irizpideak txertatzea produktuetan eta zerbitzuetan
- Enpresa-etika: iruzurra, ustelkeria…
- Arrisku sistemikoak integratzea, ESG arriskuak barne
- Salmenta arduratsua, gardentasuna, *greenwashing*a, diskriminaziorik eza…
- Klima-aldaketaren inpaktu fisikoa
- Giza kapitalaren kudeaketa: aniztasuna, integrazioa…

Materialak izan daitezkeen kanpo-analisiko gaiak eta azpigaiak aztertzeko, lehen aipatutako informazioa eta dokumentazioa aztertu da, eta 1etik 4rainoko eskalan sailkatu (1: inpakturik ez; 4: inpaktu handia).

BARNE-ANALISIA

Testuingurua analizatu da, LKTk gaiei eta azpigaiei dagokienez zer posizionamendu duen ezagutzeko; hau da, jakiteko Entitateak jasangarritasunaren inguruko zer gai eta azpigai jotzen dituen garrantzitsutzat materialtasunaren aurretik. Entitatearen politikarekin eta barne-posizionamenduarekin bat etortzea da fase honen xedea.

Horretarako, jasangarritasunarekin lotura duten LABORAL Kutxa Taldearen barne-dokumentu hauek erabili dira informazio-iturri moduan:

1. Zentzua
2. Jasangarritasunaren alorreko birbideratze estrategikoa (24-06)
3. Jasangarritasuna Kudeatzeko 2024ko Plana
4. 2023ko Jasangarritasun Txostena
5. TCFD/TNFD
6. Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioen (BAPen) txantiloia Inpaktuen analisia (*impact analysis*)
7. Jasangarritasun Politika
8. Ingurumen Politika
9. Erosketa Jasangarrien Politika
10. Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Politika
11. Ospe-arriskua
12. KLAT-ESG Kreditu-zorroaren analisia

Materialak izan daitezkeen barne-analisiko gaiak eta azpigaiak aztertzeko, lehen aipatutako informazioa eta dokumentazioa aztertu da. Jasangarritasunarekin lotutako gaiak dokumentuetan azaltzen diren ala ez kontuan hartuta, puntuazio desberdina aplikatu da:

- Jasangarritasunarekin lotutako gaiak dokumentuetan azaltzen badira, 3 puntu esleitu zaizkie.
- Jasangarritasunarekin lotutako gaiak azaletik bakarrik aipatzen badira, 1 puntu esleitu zaie.
- Jasangarritasunarekin lotutako gaiak ez badira azaltzen edo garrantzitsuak ez direla adierazteko bakarrik aipatzen badira, ez zaie punturik esleitu.

Hala, jasangarritasunarekin lotura duen gaietako bakoitza aipatu ditugun dokumentuak kontuan hartuta berrikusi denez, 36 puntu lortu ahal izango ditu gehienez. Gaiek LKTrentzat duten garrantzia zehazteko eta beste puntuazio batzuekin homogeneizatzeko, balio-tarte hauek ezarri dira:

- 27 puntutik gora: 4
- 19 eta 27 puntu artean: 3
- 10 eta 18 puntu artean: 2
- 10 puntutik behera: 1

2. FASEA. MATERIALAK IZAN DAITEZKEEN GAIEN ETA AZPIGAIEN ATARIKO ZERRENDA

Testuinguruaren analisiaren emaitzekin (1. fasea), materialak izan daitezkeen jasangarritasunaren inguruko gaien (ESRS) atariko zerrenda osatu da 2. fasean.

Aurretiazko emaitza:

Garrantzia adierazten duen batez bestekoaren arabera balio jakin bat eman zaio azpiazpigai bakoitzari (egon badago). 3tik beherako batez bestekoa duten gaiak kontuan ez hartzea erabaki da (4 gehienez). Jarraian azaltzen den atariko zerrenda da emaitza, interes-taldeei egindako kontsultak ere kontuan hartuta:

Esparrua	Gaia	Azpigaia	Azpiazpigaia
INGURUMENA	Klima-aldaketa	Klima-aldaketak dakartzan egokitzapenak	E/A
		Klima-aldaketa arintzea	E/A
GIZARTEA	Langile propioak	Lan-baldintzak	Enplegu segurua
			Lan-denbora
			Soldata egokiak
			Elkarrizketa soziala
			Elkartzeko askatasuna, enpresa-batzordeak egotea, eta langileen informazio-, kontsulta- eta partaidetza-eskubideak
			Negoziazio kolektiboa, hitzarmen kolektiboetan sartzen diren langileen proportzioa barne
			Lan-kontziliazioa
			Osasuna eta segurtasuna
		Aukera-berdintasuna denontzat	Genero-berdintasuna eta ordainsari-berdintasuna balio bereko lana egiteagatik
			Prestakuntza eta gaitasunak garatzea
			Desgaitasunen bat duten langileen enplegua eta gizarteratzea
			Lantokiko indarkeriaren eta jazarpenaren aurkako neurriak
			Aniztasuna
GIZARTEA	Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak	Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileentzako informazioarekin lotutako gorabeherak	Adibideak: Pribatutasuna Adierazpen-askatasuna Informazioa (kalitatezkoa) eskuragarri izatea
		Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileen gizarte-inklusioa	Adibideak: Diskriminaziorik eza Produktuak eta zerbitzuak eskuragarri izatea Marketin-jardunbide arduratsuak
GOBERNANTZA	Enpresa-jokabidea	Kultura korporatiboa	Hauek sartzen dira: Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borroka Prebentzioa eta detektatzea, prestakuntza barne, kasuak Salatzaileen babesa Animalien ongizatea
ZEHARKAKOAK	Sektoreari dagozkionak	Zibersegurtasuna eta datuen tratamendua	E/A
		Finantza jasangarriak	E/A

3. FASEA. INTERES-TALDEEI EGINDAKO KONTSULTAK

1. fasean interes-taldeak zehaztu direnez, 3. fasearen helburua izan da interes-talde horiek ESRSen gaiei eta azpigaiei buruz duten ikuspegia ulertzea, haientzat garrantzitsuak diren gaiak 2. faseko emaitzen matrizean sartzeko. Era berean, kontsulten fase honetan lortutako emaitzak baliagarriak izan dira materialtasun bikoitzeko ebaluazio-tresnan gai bakoitzaren garrantzi-maila sartzeko (prozesuaren 5. fasean).

Aipatzekoa da fase hau aurrekoarekin batera gauzatu dela, eta lortutako emaitzak erabili direla gaien eta azpigaien aurretiazko emaitza eskuratzeko.

Galde-sortaren emaitzak, segmentu bakoitzari dagokionez, 1etik 4ra sailkatu dira (1: lehentasun txikia; 4: lehentasun handia), lortutako batez besteko balorazioaren arabera.

4. FASEA. IRO-AK IDENTIFIKATU ETA BALIOZTATZEA

Fase honetan, ESG eta Entitateari bakarrik dagozkionak (*entity-specific)* gaiekin eta azpigaiekin lotura duten eta materialak izan daitezkeen IROak identifikatu ditu LKTk. IRO horien aurrehautaketa 2. fasean egin da, bai eragiketa propioetan eta bai goranzko eta beheranzko balio-katean. Inpaktuen, arriskuen eta aukeren zerrenda izan da horren emaitza, prozesuaren 5. fasean ebaluatu eta aztertuko dena.

Aipagarria da *entity specific* IROak identifikatu direla; horiek ez daude jasota ESRS arauetan, baina LKTrentzat garrantzitsutzat jo dira zibersegurtasunari eta datu-tratamenduari buruzko analisian.

Identifikatutako IRO bakoitzari buruzko alderdi hauek zehaztu dira:

- Mota: inpaktua, arriskua edo aukera.
- Azpimota: positiboa, negatiboa, ospeari dagokiona…
- Gaur egungoa edo potentziala den.
- Balio-katean duen eragina. *Dowstream, upstream* edo *core*.
- Iturria: barrukoa, kanpokoa edo interes-taldeei egindako kontsultatik datorrena.
- ESRSekin duen harremana.

5. FASEA. IRO-EN EBALUAZIOA ETA AZKEN MATRIZEA

Materialtasun bikoitzaren prozesuaren azken fase honetan, 4. fasean identifikatutako IROen ebaluazioa egin da. Ebaluazio horren bidez IRO materialak zehaztu dira, eta, ondorioz, gai eta azpigai materialak ere bai.

Inpaktu-materialtasuna eta finantza-materialtasuna bereizita aztertu dira.

Inpaktu-materialtasuna

Inpaktu-materialtasunean, jarraian adierazten diren elementuak hartu dira aintzat:

- Inpaktua positiboa edo negatiboa den. Inpaktua negatiboa bada, konpongarritasuna ere neurtu da.

- Inpaktua gaur egungoa edo potentziala den. Inpaktua potentziala bada, probabilitatea ere hartu da kontuan.

- Irismena ere neurtu da.

- Horri guztiari interes-taldeei egindako kontsultetan lortutako balorazioak gehitu zaizkio, eta haztapenak esleitu zaizkie.

- Aurreko ebaluazioekin, inpaktu bakoitzari dagokion puntuazioa lortu da (0 eta 4 artekoa). **Inpaktu materialtzat jo dira 2 puntu baino gehiago lortu dituztenak**.

Finantza-materialtasuna

Finantza-materialtasunean, jarraian adierazten diren elementuak hartu dira kontuan:

- Balorazio ekonomikoa epe ertainean eta luzean.

- Probabilitatea epe labur, ertain eta luzean.

- Inpaktu-materialtasunean bezala, finantzakoan ere kontuan hartu dira interes-taldeen balorazioak, baina bestelako haztapenekin —Jasangarritasun Bulegoaren eta Zuzendaritza Kontseiluko kide den finantza-zuzendariaren arteko saioa ere hartu da aintzat—.

  Saio horretan, ordura arte egindako materialtasun-analisiaren prozesua balioztatzeaz gain, barruko finantza-ikuspegia gehitu zitzaion gaien eta azpigaien ebaluazioari. Balorazio hori finantza-materialtasunaren eskalan sartu zen, aldagai gisa.

- Inpaktuen kasuan bezala, ebaluazio horien bidez puntuazio bat esleitu zaio arrisku eta aukera bakoitzari (0 eta 4 artekoa), eta **materialtzat jo dira 2 puntu baino gehiago lortu dituztenak**.

Esan beharra dago elementu horien balorazioa egiteko informazio kualitatiboa jasotzen duen testua gehitu dela, kasu bakoitzean erabilitako irizpidea azaldu eta justifikatzeko.

Inpaktu, arrisku eta aukera (IRO) guztiak ebaluatu ondoren, inpaktu-materialtasunean eta finantza-materialtasunean 2tik gorako puntuazioa lortu duten guztiak IRO materialtzat jo dira. Era berean, IRO horiei dagozkien azpigaiak ere materialtzat joko dira. Azpigaiak ez dira materialtzat joko haietan ez bada IRO materialik identifikatu; beraz, egoera-orri honetan ez da haiei buruzko informaziorik zabalduko.

Hauek dira materialtasunaren atalasea gainditu duten IROak eta azpiazpigaiak, materialtzat jo direnak eta, beraz, egoera-orri honetan jaso direnak:

Esparru materialak	Gai materialak	Azpigai materialak	IRO materialak	IROen sailkapena
Ingurumena	Klima-aldaketa	Klima-aldaketara egokitzea	Enpresa batzuek, batez ere enplegua sortzen duten enpresa txiki eta ertainek, arazoak izatea ingurumen-eskakizun berrietara egokitzeko.	Inpaktu negatiboa
			Ekonomia jasangarriagoa sustatzea, produktu eta zerbitzu jasangarriak sortzen dituzten sektoreak/enpresak babestuz.	Inpaktu negatiboa
			Arrisku fisiko eta/edo trantsiziokorik handiena duten partaideak merkatuan pixkanaka baztertuz joatea.	Inpaktu positiboa
			Enpresentzako finantzaketa, ingurumenaren aldetik jasangarriagoak diren ereduetarantz trantsizioa egin ahal izateko.	Aukera
		Klima-aldaketa arintzea	Merkataritza-zorroko maileguak ez itzultzea, mailegua eman zaien enpresek zailtasunak dituztelako trantsizioko klima-arriskuetara egokitzeko (legeetara, teknologietara, bezeroen lehentasunetara eta abar).	Arriskua
			Hipoteka-zorroaren balorazioaren beherakada, efizientzia txikiko etxebizitzek merkatuan balioa galtzen dutelako eta birgaitu egin behar direlako saldu edo alokatu ahal izateko.	Arriskua
			Bezeroek hipoteka-maileguak itzultzeko zailtasun handiagoak izatea energia-sailkapen txarrak dituzten etxebizitzen kasuan, etxea freskatu edo berotzeko kostu energetikoak handitu daitezkeelako.	Arriskua
			Enpresak finantzatzea, ingurumen-inpaktu txikiagoa duten produkzio-ereduetarantz trantsizioa egin ahal izateko.	Aukera
Gizartea	Langile propioak	Lan-baldintzak	Plantillaren ongizateak okerrera egitea, lan-baldintza desegokien ondorioz.	Inpaktu negatiboa
			Plantillaren ongizateak hobera egitea, lan-baldintza egokien ondorioz.	Inpaktu positiboa
		Tratu- eta aukera-berdintasuna denontzat	Generoak, jatorriak, arrazak, sexu-orientazioak edo beste alderdiren batek plantilla baldintzatzea.	Inpaktu negatiboa
			Langileen motibazioak eta produktibitateak behera egitea, generoak, jatorriak, arrazak, sexu-orientazioak edo beste alderdiren batek baldintzatzen dituela sentitzen dutelako.	Arriskua
	Azken kontsumitzaileak eta erabiltzaileak	Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileentzako informazioarekin lotutako gorabeherak	Bezeroei argiak ez diren azalpenak ematea, informazioa ezkutatzea edo haien profilarentzat egokiak ez diren produktuak saltzea.	Inpaktu positiboa
			Bezeroei azalpen argiak, zehatzak eta gardenak ematea finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz.	Inpaktu positiboa
			Bezeroak fidelizatzea, azalpen argiak, zehatzak eta gardenak emanez finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz.	Aukera
			Gizartean eta sektorean ospe ona lortzea, bezeroei azalpen argiak, zehatzak eta gardenak emateagatik finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz.	Aukera
			Segurtasun juridikoa, bezeroei azalpen argiak, zehatzak eta gardenak emateagatik finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz.	Aukera
		Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileen gizarte-inklusioa	Bezero-mota guztien beharrei erantzutea, haien generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein direla ere.	Inpaktu positiboa
			Bezeroak fidelizatu eta sustraitzea, haien beharrei erantzunez, generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein dutela ere.	Aukera
			Bezero-kopuru handiagoa lortzea, haien beharrei erantzunez, generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein dutela ere.	Aukera

Hona hemen materialtasun bikoitzaren analisiaren emaitzak grafikoki adierazita:

Materiala	
Ez-materiala	

Jasangarritasunaren inguruko gaiak	Jasangarritasun-azpigaiak	Inpaktu-materialtasuna	Finantza-materialtasuna		Materialtasun bikoitza
		Inpaktua	Arriskua	Aukera	Emaitza
Klima-aldaketa	**Klima-aldaketara egokitzea**				
	Klima-aldaketa arintzea				
	Energia				
Kutsadura	Airearen kutsadura				
	Uraren kutsadura				
	Lurzoruaren kutsadura				
	Organismo bizidunen eta elikadura-baliabideen kutsadura				
	Substantzia kezkagarriak				
	Substantzia oso kezkagarriak				
	Mikroplastikoak				
Ura eta itsas baliabideak	Ura				
	Itsas baliabideak				
Biodibertsitatea eta ekosistemak	Biodibertsitatearen galeran zuzenean eragiten duten faktoreak				
	Espezieen egoeraren inguruko gorabeherak				
	Ekosistemen hedadurari eta egoerari buruzko gorabeherak				
	Zerbitzu ekosistemikoei eta horien mendekotasunei buruzko gorabeherak				
Ekonomia zirkularra	Baliabide-sarrerak, baliabideen erabilera barne				
	Produktuekin eta zerbitzuekin lotutako baliabide-irteerak				
	Hondakinak				
Langile propioak	**Lan-baldintzak**				
	Tratu- eta aukera-berdintasuna denontzat				
	Beste lan-eskubide batzuk				
Balio-kateko langileak	Lan-baldintzak				
	Tratu- eta aukera-berdintasuna denontzat				
	Beste lan-eskubide batzuk				
Ukitutako kolektiboak	Taldeen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak				
	Taldeen eskubide zibil eta politikoak				
	Herri indigenen eskubideak				
Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak	**Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileentzako informazioarekin lotutako gorabeherak**				
	Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileen segurtasun pertsonala				
	Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileen gizarte-inklusioa				
Enpresa-jokabidea	Kultura korporatiboa, salatzaileen babesa, animalien ongizatea, presio-taldeen konpromiso politikoak eta jarduerak, hornitzaileekiko harremanen gestioa, ordainketa-jardunbideak barne				
	Ustelkeria eta eroskeria				
Finantza jasangarriak	*Entity specific*				
Zibersegurtasuna eta datuen tratamendua	***Entity specific***				

IROak identifikatu eta ebaluatzeko prozesu orokorra argitu ondoren, prozesu hori xehetasun handiagoz azalduko dugu jarraian, jasangarritasunarekin lotutako gai bakoitzari erreparatuta.

Klima-aldaketa (E1)

Klimarekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko prozesuak zenbait fase izan ditu.

Lehenengo fasean barne- eta kanpo-azterketa egin da, 2013/34 Zuzentarauan adierazten diren klima-aldaketaren inguruko azpiazpigaien artean LABORAL Kutxa Taldearen barneko eta kanpoko testuinguruan garrantzia dutenak identifikatze aldera. Barne-analisia egiteko, jasangarritasunarekin lotura duten barneko 12 dokumenturi erreparatu zaie. Kanpo-analisia egiteko, berriz, 5 elementu hartu dira kontuan: merkatu-joerak, araudi-azterketa, lehiakideen *benchmark*a, adituak eta analistak, eta inpaktua balio-katean.

Barne-analisian kontuan hartu den dokumentuetako bat Kapitalaren eta Likideziaren Autoebaluazioko Txostena (KLATa) da. Txosten horrek ESG atala du, eta, bertan, klima-aldaketaren ondoriozko arrisku fisikoek eta trantsiziokoek Entitateari nola eragiten dioten ebaluatzen da, besteak beste.

Arrisku fisikoei dagokienez, eragiketa-arriskuaren barruan, Entitateak analisia egin du arrisku fisikoek bere higiezin propioetan duten eragina zehaztu eta ebaluatzeko. Arrisku fisiko hauek aztertu dira: lurrikarak, basamortutzea, ibai-uholdeak, kostaldeko uholdeak, sumendiak eta suteak. Kokapen fisikoaren araberako arriskuak aztertzen dituen Tasazio Sozietatearen informazioa erabili da. Arriskuek higiezin propioetan duten eragina ebaluatzeko orduan, bereizi egin dira, batetik, Arrasateko Zerbitzu Zentraletako eraikinak eta, bestetik, gainerako higiezinak. Izan ere, aintzat hartu da muturreko klima-gertakari batek inpaktu askoz garrantzitsuagoa izango lukeela Zerbitzu Zentraletan gainerako higiezinetan —banku-bulegoetan, nagusiki— baino; horietan hondar-inpaktua izango luke. Emaitzen arabera, Zerbitzu Zentraletan ez dago arrisku fisiko nabarmenik, baina gainerako higiezinen % 5,1en klima-arriskuren bat antzeman da. Laburbilduz, LABORAL Kutxaren higiezinen eta eragiketa propioen —hau da, eragiketa-arriskuaren— gaineko arrisku fisikoek materialtasun txikia dute epe laburrera eta ertainera; epe luzera, berriz, ertain-txikia izan dezakete.

Gai materialak aztertzeko prozesuan ez da identifikatu Taldearen zuzeneko jardueraren ondoriozko inpakturik, arriskurik eta aukerarik.

Era berean, arrisku fisikoek eta trantsiziokoek —berotegi-efektuko gasen (BEG) isurtzeak barne— Entitatearen merkataritza-finantzaketako zorroari nola eragiten dioten ere ebaluatu da KLATaren barruan. Kasu horretan, Entitatearen kaudimenean nola eragin dezaketen aztertu da. Ondorioztatu denez, arrisku horiek materialtasun txikia dute epe laburrera eta ertainera; epe luzera, berriz, ertain-txikia izan dezakete. Aipatzekoa da 2025ean askotariko klima-egoerak hartuko direla kontuan analisi hori egiteko orduan.

Bigarren fasean, 2013/34 Zuzentarauan adierazitako azpiazpigaien inguruan duten iritzia galdetu zaie interes-taldeei. Klima-aldaketaren inguruan, bi konturi buruz galdegin zaie, eta honela parekatu dira azpiazpigaiekin:

- Produktu eta zerbitzu gizartearekiko eta ingurumenarekiko arduratsuak garatzea, ekonomia berde eta jasangarrirako trantsizioa bultatzeko; klima-aldaketara egokitzeko azpiazpigaiarekin lotuta.

- Zuzeneko ingurumen-inpaktuak murriztea: kontsumoak, hondakinak, kutsadura, karbono-aztarna eta biodibertsitatearen babesa; klima-aldaketa arintzea eta energia azpiazpigaiekin lotuta.

Hirugarren fasean, barne- eta kanpo-analisiko balorazioak eta interes-taldeei egindako kontsultak kontuan hartuta, garrantzirik handiena izan duten azpiazpigaien aurre-hautaketa egin da. Klima-aldaketari dagokionez, aldaketa arintzea eta horretara egokitzea izan dira aurrez hautatu diren azpiazpigaiak. Energiaren azpiazpigaia, berriz, baztertu egin da.

Hirugarren fasean aurrez hautatu diren azpiazpigaiak abiapuntutzat hartuta, laugarren fasean bakoitzaren inpaktu, arrisku eta aukerak (IROak) identifikatu dira. Honako hauek izan dira klima-aldaketaren IROak:

Identifikatutako IROak	Inpaktuak	Arriskuak	Aukerak
Klima-aldaketa arintzea	LABORAL Kutxak finantzaketa eman dien enpresek eragindako BEGen isurtzeak edo ingurumen-kalteak gutxitzea. LABORAL Kutxak finantzaketa eman dien enpresek BEGen isurtze handiak edo ingurumen-kalteak eragitea.	Merkataritza-zorroko maileguak ez itzultzea, mailegua eman zaien enpresek zailtasunak dituztelako trantsizioko klima-arriskuetara egokitzeko (legeetara, teknologietara, bezeroen lehentasunetara eta abar). Aseguru-kostu handiagoak, muturreko klima-gertakariek eragindako ezbehar-tasaren gorakada dela eta. Hipoteka-zorroaren balorazioaren beherakada, efizientzia txikiko etxebizitzek merkatuan balioa galtzen dutelako eta birgaitu egin behar direlako saldu edo alokatu ahal izateko. Bezeroek hipoteka-maileguak itzultzeko zailtasun handiagoak izatea energia-kalifikazio txarrak dituzten etxebizitzen kasuan, etxea freskatu edo berotzeko kostu energetikoak handitu daitezkeelako.	Enpresak finantzatzea, ingurumen-inpaktu txikiagoa duten produkzio-ereduetarantz trantsizioa egin ahal izateko. Hipoteka-finantzaketa, bai maila handiko energia-ziurtagiriak dituzten etxebizitzetarako eta bai maila txikiko energia-ziurtagiriak dituzten etxebizitzak birgaitzeko, efizienteagoak izan daitezen. LKrentzat energia-iturri berriztagarriak eta autokontsumokoak erabiltzea.
Klima-aldaketara egokitzea	Ekonomia jasangarriagoa sustatzea, produktu eta zerbitzu jasangarriak sortzen dituzten sektoreak/enpresak babestuz. Arrisku fisiko eta/edo trantsiziokorik handiena duten partaideak merkatuan pixkanaka baztertuz joatea. Enpresa batzuek, batez ere enplegua sortzen duten enpresa txiki eta ertainek, arazoak izatea ingurumen-eskakizun berrietara egokitzeko.	Hipoteka-maileguak ez itzultzea edo hipoteka-zorroaren balorazioak behera egitea, uholdeengatik edo beste arrisku fisiko batzuk direla eta. LABORAL Kutxaren finantzaketa jaso duten enpresek maileguak ez itzultzea, aktibo edo instalazioetan kalte fisikoak (uholdeak, basamortutzea, txingorradak…) pairatzeagatik. Merkataritza-sektoreen bideragarritasun-arazoak, ingurumen-arloko edo merkatuko estandar berrietara egokitzeko araudi zorrotzen mende dauden sektoreetakoak direlako. LABORAL Kutxak negozioarekin aurrera jarraitzeko zailtasunak izatea, instalazioetan edo higiezinetan kalte fisikoak izateagatik.	Enpresak finantzatzea, ingurumenaren aldetik jasangarriagoak diren ereduetarantz trantsizioa egin ahal izateko.

Bosgarren fasean (azkenean), ESRS2-IRO1 dibulgazio-eskakizunean azalduta dagoenez, antzemandako IROak ebaluatu dira, haien irismena, probabilitatea, konpongarritasuna, balorazio ekonomikoa eta interes-taldeen iritzia kontuan hartuta. Ebaluazioa egin ondoren, aurreko atalean aipatutako IRO guztietatik honako hauek jo dira materialtzat:

Identifikatutako IROak	Inpaktuak	Arriskuak	Aukerak
Klima-aldaketa arintzea		Merkataritza-zorroko maileguak ez itzultzea, mailegua eman zaien enpresek zailtasunak dituztelako trantsizioko klima-arriskuetara egokitzeko (legeetara, teknologietara, bezeroen lehentasunetara eta abar). Hipoteka-zorroaren balorazioaren beherakada, efizientzia txikiko etxebizitzek merkatuan balioa galtzen dutelako eta birgaitu egin behar direlako saldu edo alokatu ahal izateko. Bezeroek hipoteka-maileguak itzultzeko zailtasun handiagoak izatea energia-kalifikazio txarrak dituzten etxebizitzen kasuan, etxea freskatu edo berotzeko kostu energetikoak handitu daitezkeelako.	Enpresak finantzatzea, ingurumen-inpaktu txikiagoa duten produkzio-ereduetarantz trantsizioa egin ahal izateko.
Klima-aldaketara egokitzea	Ekonomia jasangarriagoa sustatzea, produktu eta zerbitzu jasangarriak sortzen dituzten sektoreak/enpresak babestuz. Arrisku fisiko eta/edo trantsiziokorik handiena duten partaideak merkatuan pixkanaka baztertuz joatea. Enpresa batzuek, batez ere enplegua sortzen duten enpresa txiki eta ertainek, arazoak izatea ingurumen-eskakizun berrietara egokitzeko.		Enpresak finantzatzea, ingurumenaren aldetik jasangarriagoak diren ereduetarantz trantsizioa egin ahal izateko.

Kutsadura (E2)

Kutsadura azpigaiarekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko prozesua LABORAL Kutxa Taldearen (LKTren) barne- eta kanpo-analisi batean oinarritu da. Bertan, kutsaduraren azpigaia osatzen duten azpiazpigai guztiak aztertu dira: airearen kutsadura, uraren kutsadura, lurzoruaren kutsadura, organismo bizidunen eta elikadura-baliabideen kutsadura, substantzia kezkagarriak, substantzia oso kezkagarriak eta mikroplastikoak. Horretarako, Taldearen berezko prozesuak eta balio-katearenak hartu dira aintzat.

Barne-analisian, jasangarritasunarekin lotura duten LKTren barneko 12 dokumentu ebaluatu dira. Kanpo-analisian, berriz, 5 elementu hartu dira kontuan: merkatu-joerak, araudi-azterketa, lehiakideen *benchmark*a, adituak eta analistak, eta inpaktua balio-katean. Lehenago azaldu dugunez, prozesuaren barruan kontsulta egin zaie interes-taldeei.

Taldearen kokapenei dagozkien inpaktuei, arriskuei eta aukerei erreparatuta, LABORAL Kutxak ISO 14001 ingurumen ziurtagiria du 2001etik Arrasateko Zerbitzu Zentraletako hiru eraikinetan, eta AENORek urtero ikuskatzen du. Urtean behin, ingurumen-alderdien identifikazioa, erregistroa eta ebaluazioa egiten da, bakoitzari lotutako ingurumen-inpaktuak zehaztu eta bizi-zikloaren ikuspegitik duten garrantzia erabakitzeko. Azterketan ez da kutsadurarekin lotutako inpaktu eta arrisku nabarmenik antzeman.

Era berean, urtean behin, testuinguruaren eta alderdi interesdunen analisia egiten da, erakundea eta bere testuingurua ulertzeko eta alderdi interesdunen beharrak eta aurreikuspenak ezagutzeko. Analisi horri esker, alderdi interesdunek ingurumenaren ikuspuntutik dituzten aurreikuspenak eta beharrak zehazten dira, eta antzemandako arrisku eta aukerei erantzuteko ekintzak proposatzen dira. Hori guztia, Ingurumen Batzordeak onartu eta Zuzendaritzak berresten duen urteko Ingurumen Planean jasotzen da.

Ingurumen-ziurtagiriak hiru eraikinetarako bakarrik balio du, baina kontuan hartzekoa da eraikin horiek direla —beren konfigurazioagatik eta instalazioengatik— kutsaduran eraginen bat izan dezaketenak. Gainerako kokapenak sare komertzialekoak edo zerbitzu-bulegoetakoak dira, eta, beraz, ez dute inpaktu, arrisku edo aukera nabarmenik sortzen beren eragiketekin.

Elementu horiek guztiak ebaluatu ondoren, kutsaduraren azpigaiaren barruko azpiazpigaietako bat ere ez da materialtzat jo LKTrentzat.

Ura eta itsas baliabideak (E3)

Ura eta itsas baliabideak azpigaiarekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko prozesua LKTren barne- eta kanpo-analisi batean oinarritu da. Bertan, ura eta itsas baliabideak azpigaia osatzen duten azpiazpigai guztiak aztertu dira: ura eta itsas baliabideak. Horretarako, Taldearen berezko eragiketak eta balio-katearenak hartu dira kontuan.

Barne-analisian, jasangarritasunarekin lotura duten LKTren barneko 12 dokumentu ebaluatu dira. Kanpo-analisian, berriz, 5 elementu hartu dira kontuan: merkatu-joerak, araudi-azterketa, lehiakideen *benchmark*a, adituak eta analistak, eta inpaktua balio-katean.

Taldearen kokapenei dagozkien inpaktuei, arriskuei eta aukerei erreparatuta, LABORAL Kutxak ISO 14001 ingurumen ziurtagiria du 2001etik Arrasateko Zerbitzu Zentraletako hiru eraikinetan, eta AENORek urtero ikuskatzen du. Urtean behin, ingurumen-alderdien identifikazioa, erregistroa eta ebaluazioa egiten da, bakoitzari lotutako ingurumen-inpaktuak zehaztu eta bizi-zikloaren ikuspegitik duten garrantzia erabakitzeko. Azterketan ez da urarekin —isurtzeak barne hartuta— eta itsas baliabideekin lotutako inpaktu eta arrisku nabarmenik antzeman.

Era berean, urtean behin, testuinguruaren eta alderdi interesdunen analisia egiten da, erakundea eta bere testuingurua ulertzeko eta alderdi interesdunen beharrak eta aurreikuspenak ezagutzeko. Analisi horri esker, alderdi interesdunek ingurumenaren ikuspuntutik dituzten aurreikuspenak eta beharrak zehazten dira, eta antzemandako arrisku eta aukerei erantzuteko ekintzak proposatzen dira. Hori guztia, Ingurumen Batzordeak onartu eta Zuzendaritzak berresten duen urteko Ingurumen Planean jasotzen da.

Ingurumen-ziurtagiriak hiru eraikinetarako bakarrik balio du, baina kontuan hartzekoa da eraikin horiek direla —beren konfigurazioagatik eta instalazioengatik— uretan eraginen bat izan dezaketenak (ez itsas baliabideetan). Gainerako kokapenak sare komertzialekoak edo zerbitzu-bulegoetakoak dira, eta, beraz, ez dute inpaktu, arrisku edo aukera nabarmenik sortzen beren eragiketekin.

«ESRS E1-IRO1 Klimarekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko prozesuen deskripzioa» atalean azaltzen denez, LABORAL Kutxak bere kokapen fisikoen ondoriozko eragiketa-arrisku fisikoa aztertu du. Azterketa horrek barne hartzen ditu ibaietako eta itsasoko uholde-arriskuak. Emaitzak erakutsi duenez, ez dago arrisku nabarmenik. Ildo beretik, kokapen fisikoa dela eta, hipoteka-zorroaren ibai-uholdeagatiko arrisku fisikoa aztertu da. Bigarren analisi horren emaitzak erakutsi duenez, egoera larrituko balitz ere, arrisku horrek ez luke inpaktu materialik izango LABORAL Kutxarentzat.

Elementu horiek guztiak ebaluatu ondoren, ura eta itsas kutsadura azpigaiaren barruko azpiazpigaietako bat ere ez da materialtzat jo LKTrentzat.

Biodibertsitatea eta ekosistemak (E4)

Biodibertsitatea eta ekosistemak azpigaiarekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko prozesua LKTren barne- eta kanpo-analisi batean oinarritu da. Bertan, biodibertsitatea eta ekosistemak azpigaia osatzen duten azpiazpigai guztiak aztertu dira: biodibertsitatearen galeran zuzenean eragiten duten faktoreak, espezieen egoeraren inguruko gorabeherak, ekosistemen hedadurari eta egoerari buruzko gorabeherak, eta zerbitzu ekosistemikoei eta horien mendekotasunei buruzko gorabeherak. Horretarako, Taldearen berezko prozesuak eta balio-katearenak hartu dira kontuan.

Barne-analisian, jasangarritasunarekin lotura duten LKTren barneko 12 dokumentu ebaluatu dira. Kanpo-analisian, berriz, 5 elementu hartu dira kontuan: merkatu-joerak, araudi-azterketa, lehiakideen *benchmark*a, adituak eta analistak, eta inpaktua balio-katean.

Taldearen kokapenei dagozkien inpaktuei, arriskuei eta aukerei erreparatuta, LABORAL Kutxak ISO 14001 ingurumen ziurtagiria du 2001etik Arrasateko Zerbitzu Zentraletako hiru eraikinetan, eta AENORek urtero ikuskatzen du. Urtean behin, ingurumen-alderdien identifikazioa, erregistroa eta ebaluazioa egiten da, bakoitzari lotutako ingurumen-inpaktuak zehaztu eta bizi-zikloaren ikuspegitik duten garrantzia erabakitzeko. Azterketan ez da biodibertsitatearekin eta ekosistemekin lotutako inpaktu eta arrisku nabarmenik antzeman.

Era berean, urtean behin, testuinguruaren eta alderdi interesdunen analisia egiten da, erakundea eta bere testuingurua ulertzeko eta alderdi interesdunen beharrak eta aurreikuspenak ezagutzeko. Analisi horri esker, alderdi interesdunek ingurumenaren ikuspuntutik dituzten aurreikuspenak eta beharrak zehazten dira, eta antzemandako arrisku eta aukerei erantzuteko ekintzak proposatzen dira. Hori guztia, Ingurumen Batzordeak onartu eta Zuzendaritzak berresten duen urteko Ingurumen Planean jasotzen da.

Ingurumen-ziurtagiriak hiru eraikinetarako bakarrik balio du, baina kontuan hartzekoa da eraikin horiek direla —beren konfigurazioagatik eta instalazioengatik— biodibertsitatean eraginen bat izan dezaketenak. Gainerako kokapenak sare komertzialekoak edo zerbitzu-bulegoetakoak dira eta hirietan eta herrietan daude; beraz, ez dute inpaktu, arrisku edo aukera nabarmenik sortzen beren eragiketekin.

Elementu horiek guztiak ebaluatu ondoren, biodibertsitatea eta ekosistemak azpigaiaren barruko azpiazpigaietako bat ere ez da materialtzat jo LKTrentzat.

Hiriguneetan kokatuta dagoenez eta egiten duen jarduera dela eta, LKTk ez du identifikatu biodibertsitatearen ikuspuntutik sentikorrak diren guneen barruan edo hurbil egonik horientzat kaltegarria den kokapenik. Era berean, ez da garrantzi erlatiboa duen intzidentzia negatiborik antzeman lurzoruen degradazioaren, basamortutzearen eta lurzorua zigilatzearen alorretan, eta ez da neurririk hartu biodibertsitatea zaindu edo leheneratzeko.

Baliabideen erabilera eta ekonomia zirkularra (E5)

Baliabideen erabilera eta ekonomia zirkularra azpigaiarekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko prozesua LKTren barne- eta kanpo-analisi batean oinarritu da. Bertan, baliabideen erabilera eta ekonomia zirkularra azpigaia osatzen duten azpiazpigai guztiak aztertu dira: baliabide-sarrerak, baliabideen erabilera barne; produktuekin eta zerbitzuekin lotutako baliabide-irteerak, eta hondakinak. Horretarako, Taldearen berezko prozesuak eta balio-katearenak hartu dira kontuan.

Barne-analisian, jasangarritasunarekin lotura duten LKTren barneko 12 dokumentu ebaluatu dira. Kanpo-analisian, berriz, 5 elementu hartu dira kontuan: merkatu-joerak, araudi-azterketa, lehiakideen *benchmark*a, adituak eta analistak, eta inpaktua balio-katean.

Elementu horiek guztiak ebaluatu ondoren, baliabideen erabilera eta ekonomia zirkularra azpigaiaren barruko azpiazpigaietako bat ere ez da materialtzat jo LKTrentzat.

Enpresa-jokabidea (G1)

Enpresa-jokabidearekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko prozesuak zenbait fase izan ditu.

Lehenengo fasean barne- eta kanpo-azterketa egin da, enpresa-jokabidearekin lotutako azpiazpigaien artean LABORAL Kutxa Taldearen barneko eta kanpoko testuinguruan garrantzia dutenak identifikatze aldera. Hala, enpresa-jokabideari dagokionez, azpiazpigai hauek hartu dira kontuan: kultura korporatiboa (ustelkeria, eroskeria, salatzaileen babesa, animalien ongizatea eta abar barne); presio-taldeen konpromiso politikoa eta jarduerak, eta hornitzaileekiko harremanen kudeaketa (ordainketa-jardunbideak barne).

Barne-analisia egiteko, jasangarritasunarekin lotura duten barneko 12 dokumentu hartu dira kontuan. Kanpo-analisian, berriz, 5 elementu hartu dira kontuan: merkatu-joerak, araudi-azterketa, lehiakideen *benchmark*a, adituak eta analistak, eta inpaktua balio-katean. Ebaluazioa egin ostean ondorioztatu denez, presio-taldeen konpromiso politikoaren eta jardueraren kontua ez da garrantzitsua LABORAL Kutxa Taldearentzat; izan ere, ez da halako kontzepturik aurkitu ez barne-dokumentuetan eta ez kanpo-analisian.

Beraz, bigarren faseari begira, kultura korporatiboa eta hornitzaileekiko harremanen kudeaketa (ordainketa-jardunbideak barne) hartu dira kontuan. Gai horien inguruan, kontsulta egin zaie interes-taldeei; zehazki, hauen inguruan:

- Zuzentasuna eta kontrol-neurriak: ustelkeriaren, eroskeriaren eta kapitalak zuritzearen aurkako borroka.
    - Hori kultura korporatiboarekin lotuta dago, ustelkeriarekin eta eroskeriarekin, hain zuzen.
- Hornitzaileen gestio arduratsua: tokiko erosketak lehenestea eta hornitzaile horien jokabidea kontrolatzea (lan-baldintzak, lan-arriskuak, ingurumen-gestioa…).
    - Hori hornitzaileekiko harremanen kudeaketarekin lotuta dago, ordainketa-jardunbideak barne hartuta.

Hirugarren fasean, interes-taldeen balorazioak eta 1. fasean egindako barne- eta kanpo-analisiak batuta, kanpoan utzi da «Hornitzaileen gestio arduratsua: tokiko erosketak lehenestea eta haien jokabidea kontrolatzea (lan-baldintzak, lan-arriskuak, ingurumen-gestioa…)». Enpresa-jokabidea —ustelkeriaren eta eroskeriaren atala—, berriz, azpiazpigai material posible gisa aurre-hautatu da.

Laugarren fasean ustelkeriarekin eta eroskeriarekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak (IROak) identifikatu dira:

Identifikatutako IROak	Inpaktuak	Arriskuak	Aukerak
Ustelkeria eta eroskeria	Plantilla trebatzea, ustelkeriako edo kapitalak zuritzeko kasu oro saihesteko. Ustelkeriako edo kapitalak zuritzeko kasuak gertatzea, LABORAL Kutxaren kanalen edo produktuen bidez.	Zehapenak jasotzea, ustelkeriako edo kapitalak zuritzeko kasuei aurrea ez hartzeagatik. Ospe txarra LABORAL Kutxarentzat, ustelkeriako eta kapitalak zuritzeko kasuen aurrean entitate segurutzat ez jotzeagatik.	LABORAL Kutxaren ospe ona sustatzea, balio etikoak dituen entitatea izateaz gain ustelkeriako edo kapitalak zuritzeko jokabideak desagerraraztearekin sozialki konprometituta dagoela irizteagatik.

Bosgarren fasean (azkenean), ESRS2-IRO1 dibulgazio-eskakizunean azalduta dagoenez, antzemandako IROak ebaluatu dira, haien irismena, probabilitatea, konpongarritasuna, balorazio ekonomikoa eta interes-taldeen iritzia kontuan hartuta. Ebaluazioa egin ondoren, aurreko atalean aipatutako IRO guztietatik bi inpaktu hauek jo dira materialtzat:

- Plantilla trebatzea, ustelkeriako edo kapitalak zuritzeko kasu oro saihesteko.
- Ustelkeriako edo kapitalak zuritzeko kasuak gertatzea, LABORAL Kutxa Taldearen kanalen edo produktuen bidez.

Zibersegurtasuna eta datuen tratamendua (C1)

Zibersegurtasunarekin eta datuen tratamenduarekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko prozesuak zenbait fase izan ditu.

Lehenik eta behin, aipatzekoa da «zibersegurtasuna eta datuen tratamendua» ez dela berez CSRD araudian azaltzen den gaia. Nolanahi ere, finantza-sektorearentzat izan dezakeen garrantzia kontuan hartuta, alderdi hori aintzat hartzea erabaki du LABORAL Kutxa Taldeak.

Lehenengo fasean barne- eta kanpo-azterketa egin da, LABORAL Kutxa Taldearen barneko eta kanpoko testuinguruan zibersegurtasunaren eta datuen tratamenduaren gaia garrantzitsua den identifikatze aldera.

Barne-analisia egiteko, jasangarritasunarekin lotura duten barneko 12 dokumentu hartu dira kontuan. Kanpo-analisian, berriz, 5 elementu hartu dira kontuan: merkatu-joerak, araudi-azterketa, lehiakideen *benchmark*a, adituak eta analistak, eta inpaktua balio-katean. Ebaluazioa egin ostean ondorioztatu denez, zibersegurtasunaren eta datuen tratamenduaren gaia garrantzitsua izan daiteke LABORAL Kutxa Taldearentzat. Horrenbestez, hurrengo faseari ekin zaio.

Bigarren fasean, zibersegurtasunaren eta datuen tratamenduaren gaiari buruz galdegin zaie interes-taldeei. Hain zuzen ere, «pribatutasuna babestea eta datuen eta eragiketen segurtasuna» gaiaren inguruan egin zaie kontsulta.

Hirugarren fasean, interes-taldeen balorazioak eta 1. fasean egindako barne- eta kanpo-analisia kontuan hartuta, zibersegurtasunaren eta datuen tratamenduaren gaia materialtzat jotzeko aurre-hautatu da.

Laugarren fasean, zibersegurtasunarekin eta datuen tratamenduarekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak (IROak) identifikatu dira:

Identifikatutako IROak	Inpaktuak	Arriskuak	Aukerak
Zibersegurtasuna eta datuen tratamendua	Bezeroen datu pertsonalak edo aurrezkiak lapurtzea, iruzurrezko jardueren, iruzurren edo maulen ondorioz. Plantilla trebatzea, zibereraso-saiakerei behar bezala erantzun diezaien, bezeroen datuak eta gordailuak babesteko. Entitatearen erresilientzia zibergaizkileen ekintza oldarkorren aurrean.	Erasoen edo jarduera maltzurren ondorioz LABORAL Kutxak ekonomia- edo eragiketa-galerak izatea. Azpiegitura teknologiko propioaren aurkako erasoak, eragiketetan, zerbitzuan edo ekonomian eragina dutenak. Bezeroak galtzea, zibererasoen ondorioz datu pertsonalak edo aurrezkiak lapurtu dizkietelako. Bezeroen balizko demandak, zibererasoen ondorioz datu pertsonalak edo aurrezkiak lapurtu dizkietelako. Ospe txarra LABORAL Kutxarentzat, zibererasoen aurrean entitate segurutzat hartzen ez delako. Zehapenak, zibersegurtasuna desegoki kudeatzeagatik.	LABORAL Kutxaren ospe ona sustatzea, edozein zibereraso-motari aurre egiteko eta horrelakoak kontrolatzeko gai dela irizteagatik. Bezero berriak erakartzea, haien informazioa eta aurrezkiak segurtasunez blinda ditzakeelako.

Bosgarren fasean (azkenean), ESRS2-IRO1 dibulgazio-eskakizunean azalduta dagoenez, antzemandako IROak ebaluatu dira, haien irismena, probabilitatea, konpongarritasuna, balorazio ekonomikoa eta interes-taldeen iritzia kontuan hartuta. Ebaluazioa egin ondoren, aurreko atalean aipatutako IRO guztietatik inpaktu hauek jo dira materialtzat:

- Bezeroen datu pertsonalak edo aurrezkiak lapurtzea, iruzurrezko jardueren, iruzurren edo maulen ondorioz.
- Plantilla trebatzea, zibereraso-saiakerei behar bezala erantzun diezaien, bezeroen datuak eta gordailuak babesteko.
- Entitatearen erresilientzia zibergaizkileen ekintza oldarkorren aurrean.
- Erasoen edo jarduera maltzurren ondorioz LABORAL Kutxak ekonomia- edo eragiketa-galerak izatea.
- Azpiegitura teknologiko propioaren aurkako erasoak, eragiketetan, zerbitzuan edo ekonomian eragina dutenak.
- Bezeroak galtzea, zibererasoen ondorioz datu pertsonalak edo aurrezkiak lapurtu dizkietelako.

[IRO-2] Jasangarritasun-adierazpenek estaltzen dituzten ESRS araudiko dibulgazio-eskakizunak

Eskakizuna		Zabalkundea	Arrazoia	Apartatua
ESRS2	BP-1	BAI		ESRS2
ESRS2	BP-2	BAI		ESRS2
ESRS2	GOV-1	BAI		ESRS2
ESRS2	GOV-2	BAI		ESRS2
ESRS2	GOV-3	BAI		ESRS2
ESRS2	GOV-4	BAI		ESRS2
ESRS2	GOV-5	BAI		ESRS2
ESRS2	SBM-1	BAI		ESRS2
ESRS2	SBM-2	BAI		ESRS2
ESRS2	SBM-3	BAI		ESRS2
ESRS2	IRO-1	BAI		ESRS2
ESRS2	IRO-2	BAI		ESRS2
ESRS2	MDR-P	BAI		ESRS2
ESRS2	MDR-A	BAI		ESRS2
ESRS2	MDR-M	BAI		ESRS2
ESRS2	MDR-T	BAI	.	E1-Klima-aldaketa S1-Langile propioak S4-Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak C1-Zibersegurtasuna eta datuen tratamendua
E1	GOV-3	BAI		E1-Klima-aldaketa
E1	1	BAI		E1-Klima-aldaketa

Eskakizuna		Zabalkundea	Arrazoia	Apartatua
E1	SBM-3	BAI		E1-Klima-aldaketa
E1	IRO-1	BAI		E1-Klima-aldaketa
E1	2	BAI		E1-Klima-aldaketa
E1	3	BAI		E1-Klima-aldaketa
E1	4	BAI		E1-Klima-aldaketa
E1	5	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E1	6	BAI		E1-Klima-aldaketa
E1	7	EZ	Ez da aplikagarria LKTn	
E1	8	EZ	Ez da aplikagarria LKTn	
E1	9	EZ	Lehen urtean alde batera uzten da	
E2	IRO-1	BAI		E2-Kutsadura
E2	1	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E2	2	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E2	3	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E2	4	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E2	5	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E2	6	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E3	IRO-1	BAI		E3-Ura eta itsas baliabideak
E3	1	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E3	2	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E3	3	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E3	4	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E3	5	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E3	6	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E4	SBM-3	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E4	IRO-1	BAI		E4-Biodibertsitatea eta Ekosistemak
E4	1	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E4	2	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E4	3	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E4	4	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E4	5	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E4	6	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E5	IRO-1	BAI		E5-Baliabideen erabilera eta ekonomia zirkularra
E5	1	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E5	2	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E5	3	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E5	4	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E5	5	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
E5	6	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
S1	SBM-2	BAI		S1-Langile propioak

Eskakizuna		Zabalkundea	Arrazoia	Apartatua
S1	SBM-3	BAI		S1-Langile propioak
S1	1	BAI		S1-Langile propioak
S1	2	BAI		S1-Langile propioak
S1	3	BAI		S1-Langile propioak
S1	4	BAI		S1-Langile propioak
S1	5	BAI		S1-Langile propioak
S1	6	BAI		S1-Langile propioak
S1	7	EZ	Lehenengo ekitaldian alde batera uzten da	
S1	8	BAI		S1-Langile propioak
S1	9	BAI		S1-Langile propioak
S1	10	BAI		S1-Langile propioak
S1	11	BAI		S1-Langile propioak
S1	12	BAI		S1-Langile propioak
S1	13	BAI		S1-Langile propioak
S1	14	BAI		S1-Langile propioak
S1	15	BAI		S1-Langile propioak
S1	16	BAI		S1-Langile propioak
S1	17	BAI		S1-Langile propioak
S2	SBM-2	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	S2-Balio-kateko langileak
S2	SBM-3	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	S2-Balio-kateko langileak
S2	1	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
S2	2	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
S2	3	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
S2	4	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
S2	5	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
S3	SBM-2	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
S3	SBM-3	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	S3-Ukitutako komunitateak
S3	1	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
S3	2	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
S3	3	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
S3	4	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
S3	5	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
S4	SBM-2	BAI		S4-Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak
S4	SBM-3	BAI		S4-Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak
S4	1	BAI		S4-Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak
S4	2	BAI		S4-Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak
S4	3	BAI		S4-Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak
S4	4	BAI		S4-Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak
S4	5	BAI		S4-Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak
G1	GOV-1	BAI		G1-Enpresa-jokabidea
G1	IRO-1	BAI		G1-Enpresa-jokabidea

Eskakizuna		Zabalkundea	Arrazoia	Apartatua
G1	1	BAI		G1-Enpresa-jokabidea
G1	2	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
G1	3	BAI		G1-Enpresa-jokabidea
G1	4	BAI		G1-Enpresa-jokabidea
G1	5	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	G1-Enpresa-jokabidea
G1	6	EZ	Ez du garrantzi erlatiborik	
G1	Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa	BAI		G1-Enpresa-jokabidea
C1	SBM-2	BAI		C1-Zibersegurtasuna eta datuen tratamendua
C1	IRO-1	BAI		C1-Zibersegurtasuna eta datuen tratamendua
C1	SBM-3	BAI		C1-Zibersegurtasuna eta datuen tratamendua
C1	1	BAI		C1-Zibersegurtasuna eta datuen tratamendua
C1	2	BAI		C1-Zibersegurtasuna eta datuen tratamendua
C1	3	BAI		C1-Zibersegurtasuna eta datuen tratamendua
C1	4	BAI		C1-Zibersegurtasuna eta datuen tratamendua

[MDR-P] Garrantzi erlatiboa duten jasangarritasun-kontuak kudeatzeko erabiltzen diren politikak

Jasangarritasun-kontuak kudeatzeko erabiltzen diren politikak txosten honen hainbat ataletan azaltzen dira. Aipagarria da atal batzuetan araudiak, erregelamenduak edo kodeak ere aipatzen direla, politiketatik haratago. Nolanahi ere, horiek guztiak aipatuko ditugu jarraian, ikuspegi orokorra eskaintzeko, bakoitzari dagokion apartatua adierazita.

- Politikak:
  - LABORAL Kutxa Taldearen Jasangarritasun Politika (E1-2 apartatua).
  - ESGaren arloko Inbertsio, Finantzaketa eta Aseguru Politika (E1-2).
  - Pertsonak Kontratatzeko Politika (S1-1).
  - Erakarpen, Hautapen eta Barne-mugikortasuneko Politika (S1-1).
  - Ordainsari eta Balorazio Politikak (S1-1).
  - Bezeroekin edo bezero potentzialekin bizikidetza-erabilerako ondasun higiezinetarako kreditu-kontratuak eman, diseinatu, haiei buruz informatu edo

merkaturatzen dituzten pertsonak prestatu eta akreditatzeko politika eta prozedura (S4-1).

- Bezeroak edo bezerogaiak informatu edo aholkatzen dituzten pertsonak prestatzeko eta ebaluatzeko politika eta prozedura (S4-1).
- IKTen inguruko Arriskuak Gestionatzeko Politika (C1-1).
- IKTen inguruko Intzidenteak Gestionatzeko Politika (C1-1).
- Segurtasun Politika Integrala (SAM) (C1-1).
- Datuaren inguruko Gobernu Politika (C1-1).

- Erregelamenduak / kodeak:
  - Barne Araudia (S1-1).
  - Kode Etikoa eta Enpresa Jokabideari buruzkoa (G1-1).
- Araudiak:
  - 565/2017/EB Errege Dekretuaren 3. artikulua, informazio-horniduran aplikatzekoak diren baldintzei buruzkoa, eta bezeroei emateko informazioarekin lotutako 44-52 artikuluak (S4-1).
  - 6/2023 Legearen 20. artikulua, erakundeek bezeroei informazioa emateko duten betebehar orokorrari buruzkoa (S4-1).
  - 813/2023 Errege Dekretuaren 143. eta 144. artikuluak, informazio-betebehar orokorrari eta formatu elektronikoari buruzkoak (S4-1).
  - 2012ko ekainaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren 4.9 artikulua, IKE-ei buruzkoa (S4-1).
  - 2019/2088 (EB) Erregelamendua, finantza-zerbitzuen sektorean jasangarritasunaren inguruko informazioa zabaltzeari buruzkoa (S4-1).
  - Inbertsio Kolektiboko Erakundeen 35/2003 Legea, azaroaren 4koa, eta hori garatzen duen 816/2023 Errege Dekretua, azaroaren 8koa (S4-1).
  - IKE-en hiruhilekoko, seihilekoko eta urteko txostenei buruzko 4/2008 Zirkularraren 7. araua (S4-1).
  - CNMVren jakinarazpena, 2015eko urtarrilaren 23koa, IKE-en merkaturatzearen inguruko gardentasun-neurriei buruzkoa (S4-1).
  - Kapital Sozietateei buruzko 5/2021 Legea, apirilaren 12koa (S4-1).
  - 7/2011 Zirkularra, abenduaren 12koa, kontratu-tipoen tarifen eta edukiaren gaineko informazio-liburuxkari buruzkoa (S4-1).

- 2010eko ekainaren 11ko EHA/1665/2010 Aginduaren 5., 6. eta 9. artikuluak, inbertsio-zerbitzuetako enpresei tarifen eta kontratu estandarren inguruan dagokien araubide juridikoari buruzkoa (S4-1).

- CNMVren jakinarazpena, kontratu estandarrak 2008ko otsailaren 15eko 217/2008 Errege Dekretuan ezarritakora egokitzeari buruzkoa (S4-1).

- EHA/2899/2011 Agindua, urriaren 28koa, banku-zerbitzuen gardentasunari eta bezeroen babesari buruzkoa (S4-1).

- 19/2017 Errege Lege Dekretua, 2017ko azaroaren 24koa, oinarrizko ordainketa-kontuena, ordainketa-kontuen lekualdatzearena eta komisioen konparagarritasunarena (2017ko azaroaren 25eko BOE) (S4-1).

- Irisgarritasunari buruzko 2019/882 Zuzentaraua, EBn eskaintzen diren produktuak eta zerbitzuak irisgarriagoak izan daitezen desgaitasuna duten pertsonentzat (S4-1).

- 11/2023 Legea, Europar Batasuneko irisgarritasuneko Zuzentarauen transposizioari buruzkoa (S4-1).

- 1/2017 Errege Lege Dekretua, urtarrilaren 20koa, zoru-klausulen alorrean kontsumitzaileak babesteko neurri urgenteei buruzkoa (S4-1).

- Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren EHA/2899/2011 Agindua, urriaren 28koa, banku-zerbitzuen gardentasunari eta bezeroen babesari buruzkoa (2011ko urriaren 29ko BOE) (S4-1).

- 2012ko ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularra, Espainiako Bankuarena, kreditu-erakundeei eta ordainketa-zerbitzuen hornitzaileei zuzendua, banku-zerbitzuen gardentasunari eta maileguak ematean izan beharreko erantzukizunari buruzkoa (S4-1).

[MDR-A] Garrantzi erlatiboa duten jasangarritasunaren inguruko gaiekin lotutako jarduketak eta baliabideak

MDR-P atalean aipatutakoaren ildotik, honako honi dagozkion jarduketak eta neurriak ere txostenaren hainbat apartatutan azaltzen dira. Beraz, atal honetan horiek guztiak aipatuko ditugu, dagozkien esparruak adierazita.

- Jasangarritasun-klausulak txertatzea merkataritza-maileguetan; baldintza ekonomikoak aldatu egin daitezke, jasangarritasunarekin, ingurumenarekin edo karbono-aztarna txikitzearekin zerikusia duten gaietan kontrako alderdien jarduketen arabera (E1-3 apartatua).

- Hipoteken *pricing* berria plazaratzea, energia-kalifikaziorik efizienteenak dituzten etxebizitzei marjina hobea aplikatzeko (E1-3).

- Klima- eta ingurumen-arriskua duten enpresak finantzatzeko mugak ezartzea (E1-3).

- Efizientzia txikiko energia-kalifikazioak dituzten etxebizitzen hipoteka-finantzaketari mugak ezartzea (E1-3).

- Pertsonen gaineko politikak berrikusi eta egokitzea, Asmoa ardatz duten sistemak izan daitezen (S1-4).

- Lidergo kooperatiboa lantzea, lan-ingurune osasuntsuak eta kalitatezkoak garatzeko (S1-4).

- Zainduz programako ekintzak (S1-4).

- Boluntariotza korporatiboko eredua diseinatzea (S1-4).

- Arrisku psikosozialen balorazioa egitea (S1-5).

- Kultura korporatiboaren diagnostikoa egiteko inkesta plazaratzea (S1-5).

- IKLen ehunekoa % 20tik beherakoa LABORAL Kutxan (S1-5).

- Caja Laboral Popular Coop. de Crédito eta bere inbertsio-zerbitzuei buruzko informazio-liburuxkaren bidez, bezeroei jarraian aipatzen den informazioa ematea, gardentasunez eta edozein kontratu egin aurretik (S4-4).

- Informazio hau bezeroen esku jartzea: (S4-4).

    - Tarifei buruzko liburuxkak.

    - Legezko kontratu aurreko informazioa, gomendatu diren eta/edo kontratatuko diren produktuei buruz.

    - Produktuei buruzko kontratu osteko informazioa: kostuak eta gastuak, mugimenduen eta posizioen laburpenak, zerga-informazioa, etekinei buruzko urteko txostena eta abar.

    - Inbertsioen eta merkatuen bilakaerari buruzko aldizkako informazioa.

    - Posizioak, dokumentuak, kontratuak, korrespondentzia eta abar, Online Bankaren bidez, edozein unetan eta doan eskuratzeko moduan.

- Aholkularitza Juridikoko Departamentuak produktuen eta zerbitzuen kontratuak berrikustea (S4-4).

- Araudia Betearazteko Departamentuak kontrolak egitea urtero, prozesuak araudietan ezarritakoaren arabera gauzatzen ari direla egiaztatzeko. Gorabeherak antzemanez gero, neurri zuzentzaileak eskatuko dira. Era berean, kontrol horietan gomendioak egiten dira (S4-4).

- Produktu Batzordeak produktuen merkaturatze egokia zaintzea (xede-taldearentzat merkaturatzen direla egiaztatzea eta balizko arriskuen ebaluazioa egitea, ospe-arriskuak, zibernetikoak, eragiketei dagozkienak eta abar kontuan hartuta) (S4-4).

- Beharrezko MiFID prestakuntza (urtean 30 ordukoa) merkataritza sarearentzat, bere zereginetan egoki jardun dezan (S4-4).

- Autocontrolek merkataritza-jakinarazpen guztiak berrikustea, publizitatea egiazkoa, legezkoa, zintzoa eta leiala izan dadin (S4-4).

- Irisgarritasun Plan integrala (S4-4).

- Oinarrizko ordainketa-kontua eskuragarri izatea (S4-4).

- Edozein kanal fisiko edo digital erabiliz mailegu pertsonala kontratatu duten bezero guztiei jakinaraztea 15 eguneko epea dutela kontratatutako finantzaketan atzera egiteko, inolako penalizaziorik gabe (S4-4).

- Hipoteka-maileguetan, prezio-eskaintzak «Europako Informazio Normalizatuaren Fitxa» izeneko formatuan ematea beti bezeroei (S4-4).

Zibersegurtasuneko eredu operatiboa eguneratu eta handitzea, erakunde osoko alderdi interesdunak kontuan har ditzan, eta, horrela, produktuetan, zerbitzuetan eta prozesu teknologikoetan zibersegurtasuna txertatzeko prozesua hobetzea (C1-3).

- Erakunde osoan zibersegurtasuneko kultura ezartzea, zeharka, non pertsona guztiek funtsezko egitekoa duten aktiboak eta horietan den informazioa babesteko (C1-3).

- Erakundeko pertsona guztientzako prestakuntza-ekintza espezifikoak aurrera eramatea, gai izan daitezen zibereraso-saiakerak edo identitatea ordezteko saioak azkar detektatzeko eta, dagokionean, horiei erantzuteko (C1-3).

- Segurtasun-proiektu teknikoak ezartzea, gero eta zorrotzagoak diren araudi-eskakizunak betetzeko eta, gainera, LABORAL Kutxa segurtasunaren eta konfiantzaren erreferentzia gisa posizionatzeko sektorean (C1-3).

- Zibersegurtasuna Entitatearen proiektu guztietan txertatzea, zutabe estrategiko gisa, datuen babesa, jarraitutasun operatiboa eta mehatxu digitalen aurreko erresilientzia bermatuz (C1-3).

- Agintariekin eta hirugarren alderdi interesdunekin zuzenean eta etengabe lankidetzan jarduteko ildoa ezartzea, ziberintzidenteak azkar gestionatzeko, proaktibotasunez eta konponbiderako neurriak hartzea sustatuz (C1-3).

- Negozioaren jarraitutasunerako sisteman eta prozesuetan aurrera egitea, eta horretarako, segurtasun-plan espezifikoak berrikusi eta hobetzea, ziberariketetan eta kontrolatutako jarraitutasun-probetan ikasitako lezioak oinarritzat hartuta (C1-3).

[MDR-M] Garrantzizkoak diren jasangarritasunaren inguruko gaiekin lotutako parametroak

MDR-P eta MDR-A apartatuetan zehaztu denaren ildotik, atal honetako parametroak, xedeak eta helburuak txostenaren beste apartatu batzuetan ere azaltzen dira. Beraz, atal honetan horiek guztiak aipatuko ditugu, dagozkien esparruak adierazita.

- Karbono-aztarna propioa edo operazionala % 5 txikitzea urtean (2023. urtea oinarritzat hartuta) (E1-4).
- Finantzatutako eta inbertitutako karbono-aztarna murriztea (E1-4).
- Guztizko kreditu-inbertsioaren % 12koa izatea, gehienez, klima- edo ingurumen-arriskua duten enpresen finantzaketa (E1-4).
- Guztizko hipoteka-inbertsioaren % 35ekoa izatea, gehienez, efizientzia txikiko energia-kalifikazioak dituzten etxebizitzen hipoteka-finantzaketa (E1-4).
- Langile propio guztien arrisku psikosozialen balorazioa egitea (S1-5).
- Kultura korporatiboari buruzko diagnostikoa egitea (S1-5).
- IKLen ehunekoa % 20tik beherakoa izatea LABORAL Kutxan (S1-5).
- Inbertsio- eta hipoteka-produktuak merkaturatzen dituzten langile guztiak trebatzea (S4-5).
- Desgaitasuna duten pertsonei gestio-prestakuntza ematea (S4-5).
- Irisgarritasun Plan Integrala eguneratzea (S4-5).
- Bezeroen finantza-informazioaren eta datu pertsonalen konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna bermatzea (C1-4).
- Zibererasoen edo zerbitzu-etenaldien aurrean erresilientzia operatiboa bermatzea (C1-4).
- Finantza-sektoreko araudien eta erregulazioen betetze-maila handiari eustea (C1-4).
- Transakzio eta ordainketa-sistema elektronikoak ziurtatzea (eragiketen segurtasuna) (C1-4).
- Segurtasun-intzidenteen aurrean azkar detektatzeko eta erantzuteko gaitasunak ezartzea (AAn oinarritutako teknologia berriak erabiliz) (C1-4).
- Zibersegurtasunera eta datu sentikorrak babestera bideratutako zeharkako kultura korporatiboa sustatzea (bezeroak eta langileak trebatzea) (C1-4).
- IKT zerbitzuen hornidura- eta hornitzaile-katean segurtasuna ebaluatu eta gestionatzea (C1-4).

- Teknologia berri eta berritzaileak segurtasunez txertatzea (C1-4).
- Bezeroen konfiantza eta markaren ospea sustatzea ekintza argi eta gardenen bidez (C1-4).

MDR-T: Politiken eta jarduketen eraginkortasunaren jarraipena helburuen bidez

Eskakizun horri buruzkoak txosten honetako hainbat apartatutan jaso dira.

INGURUMEN-INFORMAZIOA
ESRS E1-Klima-aldaketa

[GOV-3] Jasangarritasuna pizgarrien sisteman txertatzea

Informazio hori ESRS2-GOV3 apartatuan deskribatuta dago.

[E1-1] Klima-aldaketa arintzeko trantsizio-plana

2024ko ekitaldiaren itxieran, LKTk ez du trantsizio-planik, eta 2025eko ekitaldirako ere ez dago aurreikusita. Entitateak ahalegin handia egin du bere negozio-eredua bateragarria izan dadin ekonomia jasangarrirako trantsizioarekin eta klima-aldaketa arintzearekin. 2001ean, ingurumen-ziurtagiria lortu zuen lehen finantza-erakundea izan zen: ISO 14001 ziurtagiria. Gainera, 10 urte baino gehiago daramatza karbono-aztarna kalkulatzen. Azken urteotan, isurtzeak murrizteko zenbait helburu ezarri dira, eta, E1-GOV3 apartatuan adierazi denez, helburu horiek pertsona guztien ordainketa aldakorrean sartuta daude.

LABORAL Kutxa Taldearen CO_2 isurtzeak kalkulatzerakoan bi alderdi hauek bereizten dira, garatutako finantza- eta aseguru-jarduera kontuan hartuta:

- Karbono-aztarna propioa edo operazionala, taldearen eragiketen emaitza.

- Finantzatutako eta inbertitutako karbono-aztarna, maileguak ematen zaizkien edo finantza-produktuak (bonuak, akzioak eta abar) eskuratzen dituzten bezeroek egindako isurtzeen emaitza.

2022aren bigarren erdian, Entitateak proiektu sektorial batean hartu zuen parte, beste finantza-erakunde batzuekin batera, sortutako CO_2 isurtzeak kalkulatzeko tresna bat diseinatzearren. Proiektuak arestian aipatutako bi alderdiak jasotzen zituen: operazionala eta inbertitu/finantzatua, alegia. Tresna hori *Science Based Targets* (SBT), *Net Zero Banking Alliance*, *Pacta* eta *PCAF* metodologietan oinarrituta dago.

KARBONO-AZTARNA PROPIOA/OPERAZIONALA

2023an eta 2024an, karbono-aztarna urtean % 5 murriztea izan dugu helburu, Parisko Akordioaren xedeekin bat.

Karbono-aztarna murrizteko asmoan aurrera egitearren, Entitateak hainbat neurri ezarri ditu; hauek, besteak beste: kontsumitutako energia guztia iturri berriztagarrietatik erostea, mugikortasun-plana, barruko posta murriztea eta instalazioak eta lantokiak berritzea.

FINANTZATUTAKO ETA INBERTITUTAKO KARBONO-AZTARNA

Aurrekotik eratorritako proiektu sektorial berriaren ondorioz, 2024. urtearen amaieran deskarbonizazio-bideak diseinatu dira inbertitutako eta finantzatutako zorrorako. Horretarako, ingurumenean eraginik handiena duten sektoreak identifikatu dira, eta horietako bakoitzerako deskarbonizazio-bideak ezarri (2023. urtea oinarritzat hartuta). Sektore horiek eta deskarbonizazio-bideak identifikatzeko, zenbait nazioarteko erakunde hartu dira kontuan —adibidez, Energiaren Nazioarteko Agentzia (IEA)—, egoera hau hartuz erreferentzia gisa: 2 ºC-ko tenperatura-igoera, Parisko Akordioaren industriaurreko mailaren gainetik.

Jarraian, deskarbonizatu beharreko sektoreak eta horien abiapuntuak zehaztu dira, eta isurtzeak zenbat murriztu beharko liratekeen, 2030erako eta 2050erako:

Deskarbonizatu beharreko sektoreak	**tCO_2/unitatea (2023)**	**2030**	**2050**
Bizitegitarako hipotekak	24,6 $kgCO_2/m^2$	–% 19,3	–% 69,6
Merkataritzarako hipotekak	98,5 $kgCO_2/m^2$	–% 29,4	–% 29,4
Energia	640 tCO_2/M€	–% 41,3	–% 100
Altzairua	0,96 tCO_2/t-altzairu	–% 12,9	–% 35,6
Abiazioa	1,47 tCO_2/RTK	–% 44,4	–% 80,7
Erregai fosilak	108 tCO_2/M€	–% 16,4	–% 62,4

Sektore horiei, oro har, jarraipena egingo zaie urtero, baita sektore horietako bakoitzeko kontrako alderdirik nabarmenenei ere, ezarritako jarraibideak betetzen ari diren egiaztatzeko. Helburuetan desbideratzerik gertatuz gero, neurri zuzentzaileak proposatuko dira.

Egindako funtsezko jarduketen inguruan, honako hauek aipatu behar dira: kontrako alderdirik esanguratsuenetako batzuekiko *engagement*a edo atxikimendua, hipoteken *pricing*ean kalifikazio energetikoa sartzea eta jasangarritasun-adierazleei lotutako maileguak —horietan interes-tasa aldatu egin daiteke, kontrako alderdiak egindako CO_2 isurtzeen bilakaeraren arabera—.

Esan beharra dago bide horiek ez dagozkiela Entitateak hartu dituen kanpoko konpromisoei edo ziurtagiriei, jarraipenerako barne-helburu orientagarriei baizik.

Finantzatutako eta inbertitutako zorroaren deskarbonizazio-diagnostiko hori 2025. urtearen hasieran onartuko dute Jasangarritasun Batzordeak eta Kontseilu Errektoreak. Behar adina eztabaidatu ondoren, trantsizio-plan bat amaitzeko eta onartzeko aukera aztertuko da.

Ez da hauteman blokeatutako BEGen isurtze esanguratsurik Taldearen funtsezko aktiboetan eta produktuetan.

[SBM-3] Inpaktu materialak, arriskuak eta aukerak, eta negozio-estrategiarekin eta -ereduarekin duten interakzioa

LABORAL Kutxa Taldeak, klima-aldaketarekin lotutako 3 arrisku material identifikatu ditu materialtasun bikoitzaren prozesuan, zehazki klima-aldaketa arintzearen azpiazpigaiarekin lotuta. Arrisku horiek guztiak trantsizioko arriskutzat jo daitezke:

- Merkataritza-zorroko maileguak ez itzultzea, mailegua eman zaien enpresek zailtasunak dituztelako trantsizioko klima-arriskuetara egokitzeko (legeetara, teknologietara, bezeroen lehentasunetara eta abar).

- Hipoteka-zorroaren balorazioaren beherakada, efizientzia txikiko etxebizitzek merkatuan balioa galtzen dutelako eta birgaitu egin behar direlako saldu edo alokatu ahal izateko.

- Bezeroek hipoteka-maileguak itzultzeko zailtasun handiagoak izatea energia-kalifikazio txarrak dituzten etxebizitzen kasuan, etxea freskatu edo berotzeko kostu energetikoak handitu daitezkeelako.

Arrisku horiek kapitalaren eta likideziaren autoebaluazioko urteko txostenaren (KLATen) erresilientzia-analisian kontuan hartu eta ebaluatu dira. 2024ko KLATean zera baloratu da: ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-arriskuek (ESG) nola eragiten dieten Entitatearen arrisku tradizionalei, epe laburrean (3 urte baino gutxiagoan), ertainean (3 eta 5 urte bitartean) eta luzean (5 urte baino gehiagoan).

Aipatu diren garrantzi erlatiboko trantsizioko 3 arrisku horiei dagokienez, kreditu-arriskuan izan dezaketen eragina aztertu da KLATean; hau da, zenbaterainoko eragina izan dezaketen kontrako alderdiek emandako finantzaketa ez ordaintzeko aukeran eta, beraz, Entitatearen kaudimenean. Analisitik ondorioztatu denez, arrisku horrek materialtasun txikia du epe labur eta ertainean; epe luzean, berriz, ertain-txikia izango du.

2025erako, analisi hori osatu egingo da Network for Greening the Financial System (NGFS) sarearen 2 klima-egoera hauek erabiliz: *delayed transition (disorderly)* eta *net zero 2050 (orderly)*. 2024an ez da klima-egoerarik erabili.

Azkenik, 2024an egindako Kapitalaren eta Likideziaren Autoebaluazioko Txostenaren (KLATaren) barruan, eta Europako Banku Zentralaren gomendioei jarraituz —*Good practices for climate-related and environmental risk management*[1] gida, 2022ko azaroan argitaratua—, LABORAL Kutxak ESG arriskuak aztertu ditu, ez arrisku isolatu gisa, baizik eta Entitatearen ohiko arriskuetan eragina duten gertakari-multzo gisa; hau da, *zuhurtziazko arriskuen driver* gisa jokatzen du. Zentzu horretan, LABORAL Kutxak garatu egin ditu bere materialtasun-analisia eta agertoki idiosinkrasikoen konfigurazioa, eta arrisku horiek zuhurtziazko arriskuetan sartzen ahalegindu da, hainbat transmisio-kanal aztertuz.

[1] https://www.bankingsupervision.europa.eu/ecb/pub/pdf/ssm.thematicreviewcercompendiumgoodpractices112022~b474fb8ed0.en.pdf

KLATean aztertzen diren ekitaldien laburpen gisa, taula batean jaso ditugu aztertutako arrisku eta denboraldi bakoitzerako analisien ondorioekin.

	Epe laburra	Epe ertaina	Epe luzea
Kreditu-arriskua	Txikia	Txikia	Ertain-txikia
Merkatu-arriskua	Nulua	Nulua	Nulua
Arrisku subiranoa	Nulua	Nulua	Nulua
Ospe-arriskua	Txikia	Txikia	Ertain-txikia
Eragiketa-arriskua	Txikia	Txikia	Ertain-txikia
Negozio-arriskua eta estrategikoa	Nulua	Txikia	Txikia
Egiturazko arriskuak			
Likidezia-arriskua	Nulua	Txikia	Txikia
Interes-tasaren arriskua	Nulua	Nulua	Nulua

2023ko ekitaldian, Jasangarritasun Batzordeak karbono-aztarna urtean % 5 murrizteko helburua ezarri zuen, 2050ean zero isurtze lortze aldera, Parisko Akordioarekin bat etorriz. Xede hori 2025eko ekitaldian berriz ebaluatzea aurreikusten da.

Zuhurtasun-printzipioari dagokionez, ingurumen-arriskuak eta -aukerak aztertzeko Ingurumena Gestionatzeko Sistema bat du LABORAL Kutxak, lehenago ere azaldu dugunez. Azterketa horretan ez da antzeman produktu edo teknologiarik, jendearen edo ingurumenaren osasunarentzat arriskugarria izan daitekeela susmatzeko modukorik.

[IRO-1] Klimarekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko prozesuen deskribapena

Informazio hori ESRS2-IRO1 apartatuan deskribatuta dago.

[E1-2] Klima-aldaketa arintzearekin eta horretara egokitzearekin lotutako politikak

- LABORAL KUTXA TALDEAREN JASANGARRITASUN POLITIKA.
  - Helburua: LABORAL Kutxa Taldeak jasangarritasunaren arloan jarduteko aintzat hartu behar dituen oinarrizko printzipioak zehaztea eta ezartzea. Jasangarritasun Batzordea arduratzen da horretaz. Zehazki, hauek dira horren helburuak:
    - Ekonomia-eredu jasangarria lortzeko bidean Taldeak gizartearekin eta bere interes-taldeekin duen lankidetza-konpromisoa eta inplikazio-maila nabarmentzea.
    - Jasangarritasun-estrategia arautuko duten printzipioak ezartzea, epe luzeko ikuspegiarekin. Helburua da interes-taldeentzat ahalik eta baliorik handiena sortzea eta ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-arriskuak eta -aukerak eraginkortasunez kudeatzea.

- Ukitutako azpiazpigaiak:
    - Klima-aldaketara egokitzea.
    - Klima-aldaketa arintzea.
- Ukitutako IROak:
    - Enpresa batzuek, batez ere enplegua sortzen duten enpresa txiki eta ertainek, arazoak izatea ingurumen-eskakizun berrietara egokitzeko.
    - Ekonomia jasangarriagoa sustatzea, produktu eta zerbitzu jasangarriak sortzen dituzten sektoreak/enpresak babestuz.
    - Arrisku fisiko eta/edo trantsiziokorik handiena duten partaideak merkatuan pixkanaka baztertuz joatea.
    - Enpresak finantzatzea, ingurumenaren aldetik jasangarriagoak diren ereduetarantz trantsizioa egin ahal izateko.
    - Merkataritza-zorroko maileguak ez itzultzea, mailegua eman zaien enpresek zailtasunak dituztelako trantsizioko klima-arriskuetara egokitzeko (legeetara, teknologietara, bezeroen lehentasunetara eta abar).
    - Hipoteka-zorroaren balorazioaren beherakada, efizientzia txikiko etxebizitzek merkatuan balioa galtzen dutelako eta birgaitu egin behar direlako saldu edo alokatu ahal izateko.
    - Bezeroek hipoteka-maileguak itzultzeko zailtasun handiagoak izatea energia-kalifikazio txarrak dituzten etxebizitzen kasuan, etxea freskatu edo berotzeko kostu energetikoak handitu daitezkeelako.
    - Enpresak finantzatzea, ingurumen-inpaktu txikiagoa duten produkzio-ereduetarantz trantsizioa egin ahal izateko.

- ESG-AREN ARLOKO INBERTSIO, FINANTZAKETA ETA ASEGURU POLITIKA
    - Jasangarritasun Batzordea arduratzen da horretaz. Helburua: LABORAL Kutxa Taldeak esparru guztietan bere ESG helburuak lortzeko beharrezkoak diren ekintzak erabakitzea. Zehazki, xede hauetan zehazten da:
        - Taldeko entitate eta negozio-unitate guztiak jasangarritasun-estrategiarekin lerrokatzea.
        - Interes-taldeei trantsizio jasangarria egiten laguntzea, elkarrizketaren eta konpromisoaren bidez.

        - Lehen babes-oztopoa izatea; hau da, sektore edo jarduera jakin batzuk alde batera uztea —kooperatibaren balioen eta ESG helburuen aurkakoak direlako—, eta beste batzuk sentikortzat eta jarraipen berezikotzat hartzea —agian ESG helburuekin bat ez datozelako—.

        - Finantzaketa-, aseguru- eta inbertsio-arloetan ESG printzipioak eta irizpideak ezartzea Taldean, produktu eta harreman jasangarriagoak izateko.

        - Aurreko helburuak lortzeko beharrezkoak diren printzipioak, prozesuak eta gobernu-esparrua zehaztea.

    - Ukitutako azpiazpigaiak:

        - Klima-aldaketara egokitzea.

        - Klima-aldaketa arintzea.

    - Ukitutako IROak:

        - Ekonomia jasangarriagoa sustatzea, produktu eta zerbitzu jasangarriak sortzen dituzten sektoreak/enpresak babestuz.

        - Arrisku fisiko eta/edo trantsiziokorik handiena duten partaideak merkatuan pixkanaka baztertuz joatea.

        - Enpresak finantzatzea, ingurumenaren aldetik jasangarriagoak diren ereduetarantz trantsizioa egin ahal izateko.

        - Enpresak finantzatzea, ingurumen-inpaktu txikiagoa duten produkzio-ereduetarantz trantsizioa egin ahal izateko.

[E1-3] Klima-aldaketaren politikekin lotutako jarduketak eta baliabideak

Hauek dira azken bi urteotan klima-aldaketaren politikekin lotuta egin diren jarduketa nagusiak:

- Jasangarritasun-klausulak txertatzea merkataritza-maileguetan. Mailegu horien baldintza ekonomikoak aldatu egin daitezke kontrako alderdiek jasangarritasunarekin, ingurumenarekin edo karbono-aztarna murriztearekin lotutako gaietan nola jarduten duten kontuan hartuta.

    - Ukitutako azpiazpigaiak:

        - Klima-aldaketa arintzea.

        - Klima-aldaketara egokitzea.

    - Ukitutako IROak:

        - Enpresak finantzatzea, ingurumenaren aldetik jasangarriagoak diren ereduetarantz trantsizioa egin ahal izateko.

        - Enpresak finantzatzea, ingurumen-inpaktu txikiagoa duten produkzio-ereduetarantz trantsizioa egin ahal izateko.

        - Ekonomia jasangarriagoa sustatzea, produktu eta zerbitzu jasangarriak sortzen dituzten sektoreak/enpresak babestuz.

- Hipoteken *pricing* berria plazaratzea, energia-kalifikaziorik efizienteenak dituzten etxebizitzei marjina hobea aplikatzeko

    - Ukitutako azpiazpigaiak:

        - Klima-aldaketa arintzea.

    - Ukitutako IROak:

        - Hipoteka-zorroaren balorazioaren beherakada, efizientzia txikiko etxebizitzek merkatuan balioa galtzen dutelako eta birgaitu egin behar direlako saldu edo alokatu ahal izateko.

        - Bezeroek hipoteka-maileguak itzultzeko zailtasun handiagoak izatea energia-kalifikazio txikiak dituzten etxebizitzen kasuan, etxea freskatu edo berotzeko kostu energetikoak handitu daitezkeelako.

- Klima- eta ingurumen-arriskua duten enpresak finantzatzeko mugak ezartzea.

    - Ukitutako azpiazpigaiak:

        - Klima-aldaketa arintzea.

    - Ukitutako IROak:

        - Merkataritza-zorroko maileguak ez itzultzea, mailegua eman zaien enpresek zailtasunak dituztelako trantsizioko klima-arriskuetara egokitzeko (legeetara, teknologietara, bezeroen lehentasunetara eta abar).

        - Arrisku fisiko eta/edo trantsiziokorik handiena duten partaideak merkatuan pixkanaka baztertuz joatea.

        - Enpresa batzuek, batez ere enplegua sortzen duten enpresa txiki eta ertainek, arazoak izatea ingurumen-eskakizun berrietara egokitzeko.

- Efizientzia txikiko energia-kalifikazioak dituzten etxebizitzen hipoteka-finantzaketari mugak ezartzea

    - Ukitutako azpiazpigaiak:

        - Klima-aldaketa arintzea.

- Ukitutako IROak:

  - Merkataritza-zorroko maileguak ez itzultzea, mailegua eman zaien enpresek zailtasunak dituztelako trantsizioko klima-arriskuetara egokitzeko (legeetara, teknologietara, bezeroen lehentasunetara eta abar).

  - Arrisku fisiko eta/edo trantsiziokorik handiena duten partaideak merkatuan pixkanaka baztertuz joatea.

  - Enpresa batzuek, batez ere enplegua sortzen duten enpresa txiki eta ertainek, arazoak izatea ingurumen-eskakizun berrietara egokitzeko.

[E1-4] Klima-aldaketa arintzearekin eta horretara egokitzearekin lotutako jomugak

E1-1 apartatuan adierazi denez, Entitatea klimarekin lotutako helburuak ari da planteatzen. Karbono-aztarna operazionala edo propioa murriztearekin lotuta, adibidez, urterako helburu bat du ezarrita; inbertitutako eta finantzatutako aztarnari dagokionez, ostera, aurrerapausoak ari da ematen, hura kalkulatzeko eta ezartzeko.

- Karbono-aztarna propioa edo operazionala urtean % 5 txikitzea (2023. urtea oinarritzat hartuta).

Isurtzeak (tCO_2b)	**2023**	**2024**	**2025**	**2030**	**2035**	**2040**	**2045**	**2050**
Helburua	3.411,1	3.066,8	2.913	2.217	1.365	511	0	0
Benetako isurtzeak (1., 2. eta 3. irismenak)	3.228,2	3.531,15[1]	-	-	-	-	-	-

(1) 2024an ez da lortu eragiketen CO_2 isurtzeak % 5 murrizteko helburua, batez ere handitu egin delako plantillako langileen mugikortasuna. Egoera-orri hau egin den datan, neurri zuzentzaileak aztertzen eta balioztatzen ari dira, hurrengo urtean ezarritako helburua betetzeko.

- Finantzatutako eta inbertitutako karbono-aztarna murriztea (E1-6 apartatuan ere azaldu da).

Deskarbonizatu beharreko sektoreak	**tCO_2/unitatea (2023)**	**2030erako helburua**	**2050erako helburua**
Bizitegitarako hipotekak	24,6 $kgCO_2/m^2$	–% 19,3	–% 69,6
Merkataritzarako hipotekak	98,5 $kgCO_2/m^2$	–% 29,4	–% 29,4
Energia	640 tCO_2/M€	–% 41,3	–% 100
Altzairua	0,96 tCO_2/t-altzairu	–% 12,9	–% 35,6
Abiazioa	1,47 tCO_2/RTK	–% 44,4	–% 80,7
Erregai fosilak	108 tCO_2/M€	–% 16,4	–% 62,4

- Ukitutako azpiazpigaiak:

  - Klima-aldaketa arintzea.

  - Klima-aldaketara egokitzea.

- Ukitutako IROak:

    - Enpresa batzuek, batez ere enplegua sortzen duten enpresa txiki eta ertainek, arazoak izatea ingurumen-eskakizun berrietara egokitzeko.

    - Ekonomia jasangarriagoa sustatzea, produktu eta zerbitzu jasangarriak sortzen dituzten sektoreak/enpresak babestuz.

    - Arrisku fisiko eta/edo trantsiziokorik handiena duten partaideak merkatuan pixkanaka baztertuz joatea.

    - Merkataritza-zorroko maileguak ez itzultzea, mailegua eman zaien enpresek zailtasunak dituztelako trantsizioko klima-arriskuetara egokitzeko (legeetara, teknologietara, bezeroen lehentasunetara eta abar).

    - Hipoteka-zorroaren balorazioaren beherakada, efizientzia txikiko etxebizitzek merkatuan balioa galtzen dutelako eta birgaitu egin behar direlako saldu edo alokatu ahal izateko.

    - Bezeroek hipoteka-maileguak itzultzeko zailtasun handiagoak izatea energia-kalifikazio txarrak dituzten etxebizitzen kasuan, etxea freskatu edo berotzeko kostu energetikoak handitu daitezkeelako.

    - Enpresak finantzatzea, ingurumenaren aldetik jasangarriagoak diren ereduetarantz trantsizioa egin ahal izateko.

    - Enpresak finantzatzea, ingurumen-inpaktu txikiagoa duten produkzio-ereduetarantz trantsizioa egin ahal izateko.

- Guztizko kreditu-inbertsioaren % 12koa izatea, gehienez, klima- edo ingurumen-arriskua duten enpresen finantzaketa

    - Ukitutako azpiazpigaiak:

        - Klima-aldaketa arintzea.

    - Ukitutako IROak:

        - Merkataritza-zorroko maileguak ez itzultzea, mailegua eman zaien enpresek zailtasunak dituztelako trantsizioko klima-arriskuetara egokitzeko (legeetara, teknologietara, bezeroen lehentasunetara eta abar).

        - Arrisku fisiko eta/edo trantsiziokorik handiena duten partaideak merkatuan pixkanaka baztertuz joatea.

        - Enpresa batzuek, batez ere enplegua sortzen duten enpresa txiki eta ertainek, arazoak izatea ingurumen-eskakizun berrietara egokitzeko.

- Guztizko hipoteka-inbertsioaren % 35ekoa izatea, gehienez, efizientzia txikiko energia-kalifikazioak dituzten etxebizitzen hipoteka-finantzaketa

  - Ukitutako azpiazpigaiak:

    - Klima-aldaketa arintzea.

  - Ukitutako IROak:

    - Merkataritza-zorroko maileguak ez itzultzea, mailegua eman zaien enpresek zailtasunak dituztelako trantsizioko klima-arriskuetara egokitzeko (legeetara, teknologietara, bezeroen lehentasunetara eta abar).

    - Arrisku fisiko eta/edo trantsiziokorik handiena duten partaideak merkatuan pixkanaka baztertuz joatea.

    - Enpresa batzuek, batez ere enplegua sortzen duten enpresa txiki eta ertainek, arazoak izatea ingurumen-eskakizun berrietara egokitzeko.

[E1-5] Energiaren kontsumoa eta konbinazioa

Entitateak ez du azpiazpigai honi buruzko informaziorik eman, ez baitu garrantzi erlatiborik (ez da materiala), E1-IRO1 dibulgazio-betekizunean adierazten denez.

11/2018 Legeari jarraikiz, energiaren kontsumoa argitaratu da.

Kontsumo energetikoak:

Energia (Gj-etan) (LABORAL Kutxa osoa eta plantilla)	2024	2023
Elektrizitatea	39.457	38.238
Gasolioa	11	14,4
Propanoa	0,39	0,39
A energia-kontsumoa	**39.468**	**38.252**
Energia-kontsumoa pertsonako	16,53	17,14
Kanpoko B energia-kontsumoa (gasolina desplaz.)	**21.909**	**20.738**
Energia-intentsitatea*	25,7	26,43

*Energia-kontsumo osoa (A barrukoa eta B kanpokoa barne hartuta) zati langileen kopuru osoa.

Azken urteotan, ahalegin handiak egin ditugu energia-efizientzia hobetzeko.

- Geotermia-instalazio bat jarri da, Zerbitzu Zentraletan airea girotzeko.

- Biomasa-instalakuntza bat eraiki da, biomasaren kaloria-beharrak osatzeko. Bi instalazioi esker, guztiz kendu ahal izan da erregai fosilen bidezko klimatizazioa.

- Klimatizazioaren eta argiztapenaren efizientzia handitzeko berrikuntzak egin dira isolamenduetan (behe-emisibitateko beiren bidez), instalazioetan (LED argien bidez) eta makinetan, hala Zerbitzu Zentraletako eraikinetan nola bulego-sarean.

[E1-6] 1., 2. eta 3. irismeneko eta guztizko BEGen isurtze gordina

FINANTZATUTAKO ETA INBERTITUTAKO KARBONO-AZTARNA (15. kategoria. Inbertsioak)

Karbono-aztarna operazionalaz gain, 3. irismeneko 15. kategoriari buruzko informazioa ere zabaldu da, inbertsioei buruzkoa. Finantza-erakundeen duen garrantzia dela eta, datu hori bere aldetik ezagutarazten da.

Inbertsioen kategorian, Entitateak finantzatu eta inbertitutako karbono-aztarna hartuko da kontuan; izan ere, balio-kateko hurrengo faseetako BEG isurtzeei dagozkie. Sei apartatutan banatzen da: mailegu korporatiboak, administrazio publikoentzako maileguak, hipoteka-maileguak, bonu korporatiboak, errenta aldakorra eta zor subiranoa.

tCO_2 informazioaz eta partida bakoitzeko zenbatekoaz gain, horietako bakoitzaren tCO_2/M€ datua ere emango da.

Adierazi behar da partida batzuetan ez dela kontuan hartzen irismenaren % 100a. Horixe bera gertatzen da administrazio publikoentzako maileguen kasuan ere, 100.000 €-tik beherako esposizioa dutenak salbuetsita baitaude, materialtasunik ez dutelako.

Era berean, kontrako alderdien karbono-aztarna ezagutzen ez denean, *proxy* deiturikoak erabiltzen dira, EJSNko datuak oinarritzat hartuta kalkulatzeko.

FINANTZATU ETA INBERTITUTAKO KARBONO-AZTARNA 2024AN	tCO_2	€	tCO_2/M€
Mailegu korporatiboak	1.193.204	3.054.909.766	392
Administrazio publikoei emandako maileguak	205.672	856.255.385	240
Hipoteka-maileguak	103.388	9.872.033.738	10
Errenta aldakorra	16.797	30.077.608	558
Errenta finko pribatua	1.156	128.250.000	9
Errenta finko publikoa	822.305	5.879.184.235	140
GUZTIRA	**2.342.522**	**19.820.710.732**	118

Jarraian, finantzatutako eta inbertitutako 2023. urteko karbono-aztarnaren kalkulua ere erantsi dugu (3. Irismena, 15. kategoria):

FINANTZATU ETA INBERTITUTAKO KARBONO-AZTARNA 2023AN	tCO_2	€	tCO_2/M€
Mailegu korporatiboak	367.170	937.007.513	392
Administrazio publikoei emandako maileguak	231.664	940.294.230	246
Hipoteka-maileguak	105.305	9.901.273.412	11
Errenta aldakorra	43.409	320.462.691	135
Errenta finko pribatua	10.559	99.766.542	106
Errenta finko publikoa	955.816	6.886.845.050	139
GUZTIRA	**1.713.923**	**19.085.649.437**	**90**

Ikus daitekeenez, karbono-aztarna handitu egin da bai tCO_2 eta bai tCO_2/M€ neurrietan. Halere, aipatu behar da 2024an zenbateko handiagoa hartu dela kontuan, 735.061.295 € gehiago alegia, eta, zentzu horretan, mailegu korporatiboekin lotutako partida izan da gehien hazi dena. Izan ere, kontrako alderdien datu eskuragarriak handitu egin dira, eta, horregatik, konparazioak ez dira erabat homogeneoak.

Finantzatutako eta inbertitutako isurtzeetarako, PCAF (*Partnership for Carbon Accounting Financials*) metodologia erabili da. Zehazki, finantzatutako isurtzeak kalkulatzeko, ondo ulertu nahi izan da finantzaketaren eta inbertsioaren aldetik garrantzitsutzat jotzen diren zorroak nola osatuta dauden, aintzat hartuta eskaintzen diren produktuetara egokitu beharra dagoela eta horiekin lotutako isurtzeak ikuspegi sektorialetik ebaluatu behar direla. Horretarako, EJSN kodeen eta sektoreen arteko baliokidetasun-sistema propioa garatu da, uste baita sistema hori dela hedatuena, finantzatutako jarduera ekonomikoak sailkatzeko. Eragozpen bat identifikatu da ISIN kodeak eta sektoreak elkarrekin lotzeko orduan. Beraz, metodologiak ziurtzat jotzen du entitaterik gehienek sistema hori mapatu egin diotela edo egingo diotela EJSNri, beren inbertsioen barne-taxonomia gisa.

ENPRESA			**URTEA**	**URTEA**
LABORAL Kutxa			**2024**	**2023**
BEGen isurtzeen laburpena Irismena	**Id.**	**Jarduera-mota**	**tCO_2b**	**tCO_2b2**
ZUZENEKO ISURTZEAK	A1.1	Iturri finkoak	30,32	30,75
1. irismena	A1.2	Iturri mugikorrak		
	A1.3	Isurtze iheslariak	141,98	86,38
	A1	**1. irismena – Guztira**	**172,30**	**117,13**
ZEHARKAKO ISURTZEAK	A2.1	Elektrizitate-kontsumoa		
	A2	**2. irismena – Guztira**		
ZEHARKAKO ISURTZEAK	A3.1	Eskuratutako ondasunak eta zerbitzuak	395,62	402,37
3. irismena	A3.4	Uretan gorako garraioa eta banaketa	61,74	84,25
	A3.5	Jardueran sortutako hondakinak	0,67	0,77
	A3.6	Negozio-bidaiak	937,16	888,64
	A3.7	Langileen joan-etorriak	1.963,67	1.735,04
	A3	**3. irismena – Guztira**	**3.358,86**	**3.111,07**
		Isurtzeak guztira	**3.531,16**	**3.228,20**

Aztarna operazionala kalkulatzeko erabili den metodologiari dagokionez, arestian esan dugunez, 2022. urtearen amaieran proiektu batean hartu genuen parte, finantza-sektorearen ezaugarrietara egokitutako kalkulu-metodologia eta -tresna egokiak garatzeko. Karbono-aztarna operazionala deiturikoa kalkulatzeko, erreferentzia-esparru hauek erabili ziren:

	Erreferentziazko esparrua
1. irismena	***Greenhouse Gas Protocol Corporate Standard***
2. irismena	***Scope 2 Guidance***
3. irismena (inbertsioa kanpo utzita)	***The Corporate Value Chain (Scope 3) Accounting and Reporting Standard*** **eta** ***Technical Guidance for Calculating Scope 3 Emissions***

Zuzenean edo zeharka jaulkitako berotegi-efektuko gas guztietan oinarritzen da entitate baten karbono-aztarna operazionala.

Antolamendu-mugak

Kalkulurako kontuan hartzen diren instalazioak, erakundeak eta sozietateak dira antolamendu-mugak, horien kontrola dela eta. Finantza-erakundeek instalazio bat baino gehiago izan ditzaketenez, argi eta garbi definitu behar dira antolamendu-mugak, eta horien isurtzeak berotegi-efektuko gasen inbentarioan kontabilizatuko dira. Kasu honetan, LKTren instalazio eta pertsona guztiez ari gara.

Muga operatiboak

Antolamendu-mugak ezarri ondoren, muga operatiboak ezarri behar dira, eta, horretarako, eragiketetan BEGak isurtzen dituzten iturri-motak identifikatu behar dira; horiek ere kalkuluan sartu behar dira. Isurtze horiek zuzeneko eta zeharkako isurtze gisa sailkatu behar dira, hiru irismenetako bakoitzean.

Kalkuluaren aldia eta oinarri-urtea aukeratzea

Finantza-erakundeek argi eta garbi zehaztu behar dute zein urtetako isurtzeak kalkulatuko dituzten, eta horien berri eman behar dute. Gainera, entitateek oinarri-urte bat aukeratu eta jakinarazi behar dute (urte horretako isurtzeen informazio fidagarria izan behar dute). Norberaren datuak alderatzea da helburua, eta isurtzeen denboraldi bateko bilakaera aztertzea. LKTren kasuan, kalkulu-aldia urte naturala da, eta 2022. urtea aukeratu da oinarri-urte gisa.

Jarduera-datuak biltzea eta isurtze-faktoreak bilatzea

Karbono-aztarna kalkulatzeko, bi parametro ezagutu behar dira: jarduera-datua eta isurtze-faktorea.

Jarduera-datua (JDa)	Isurtze-faktorea (IFa)
Jarduera-datua (aurrerantzean, JD) berotegi-efektuko gasak sortzen dituen jarduera baten neurri kuantitatiboa da. Adibidez: kontsumitutako energia-kantitatea (kWh), egindako kilometroak, lehengaien kontsumoa eta abar.	Isurtze-faktorea (aurrerantzean, IF) jarduera-datuaren unitate bakoitzeko isuritako BEGen kantitatea da. Datu horiek aldatu egiten dira jarduera batetik bestera. Adierazten du prozesu edo produktu batek zenbat kutsatzen duen kontsumitutako unitate bakoitzeko.

Erakunde baten BEG isurtzeak kalkulatzeko erabiltzen den formula matematikoa biderketa bat da, JDaren eta IFaren artekoa, hain zuzen.

Mundu mailan, CO_2eq izeneko unitate batean estandarizatu dira BEG guztien isurtzeen emaitzak. Unitate horrek ez ditu CO_2 isurtzeak bakarrik kuantifikatzen; aitzitik, isuritako BEG guztien isurtze guztiak hartzen ditu barne.

Oro har, transformazio kimikoko prozesu bat dagoen isurtzeetan —1. irismeneko errekuntza finkoa eta mugikorra, eta 2. irismeneko isurtzeak—, IFak erabiltzen dira, CO_2eq/ud. unitateetan. Beraz, honela egiten da kalkulua:

Formula

Karbono-aztarna = Jarduera-datua x Isurtze-faktorea

Isurtze-faktorea CO2eq/ud. unitateetan ez dagoenean, BEG/ud. kantitateetan erabili behar dira IFak. Isurtzeak CO_2eq unitateetan lortzeko, emaitza berotze globaleko ahalmenarekin (aurrerantzean, BGA) biderkatu behar da. BEG bakoitzak atmosferaren berokuntzan zer ekarpen egiten duen adierazten du parametro horrek, CO_2 erreferentzia gisa hartuta (horren BGA 1 da).

Hauxe da azken formula:

BEG isutzeak (tCO_2eq) = JD (ud) x IF (tBEG/ud.) x BGA ($tCO^2eq/tBEG$)

Transformazio kimikorik ez dagoen kasuetan (gas hoztaileen isurtze iheslariak), hauxe da kalkulurako metodologia: isurtzeen datua lortzea (ihes egindako gas hoztailearen kantitatea) eta datu hori gas hoztaileari dagokion BGArekin biderkatzea. Honako hau da formula:

BEG isurtzeak (kgCO2eq) = DE (kgBEG) x BGA (kgCO2eq/kgBEG)

Iturri bakoitzeko isurtzeen banakako kalkulua egin ondoren —CO_2eq tona unitatetan—, kategoria bereko isurtze guztiak batuko dira (zuzeneko isurtzeak, energiak eragindako zeharkako isurtzeak eta zeharkako beste isurtze batzuk).

Finantzazkoak ez diren egiaztapen- eta/edo auditoretza-prozesuetan arrakasta bermatze aldera, ziurgabetasunaren kontzeptua definitu behar da. Karbono-aztarna zenbatesteko aintzat hartutako parametroak kalkulatzean sortutako errorea da ziurgabetasuna. Hori kalkulatzeko, aldagaien banaketa estatistiko arrunta hartzen da kontuan.

1. irismena

1. irismenean sartzen dira makinen erregaiak (galdarak, labeak…) erretzean eta erakundeko ibilgailuen flotako erregaiak erretzean sortutako gasak, edo klimatizazio-ekipoetako gas hozgarrien isurtze iheslariak.

Finantza-erakundeek bulegoetan oinarritzen dute beren jarduera nagusia, eta, beraz, zuzeneko isurtze oso gutxi dituzte. Isurtze zuzenak entitateak kontrolatzen dituenak dira batik bat, hozte-ekipoak edo alokairuko ibilgailuak, besteak beste.

1. irismeneko isurtzeak erregai komertzialen —gas naturala, gasolioa, gasolina…— kantitateen arabera kalkulatuko dira, erreferentziazko isurtze-faktoreak erabiliz. Gaur egungo metodologiak MITECOk argitaratutakoak hartzen ditu kontuan, dagozkion kalkuluak egiterakoan.

Lehenengo urrats gisa, erakundeak 1. irismeneko zuzeneko isurtze-iturriak identifikatu behar ditu, eta honela sailkatu: iturri finkoak, iturri mugikorrak edo isurtze iheslariak.

Iturri finkoak

Iturri finkoen ezaugarri nagusia da erregaiak puntu finko batean erretzen direla, instalazio baten barruan (adibidez, galdaretan), kokalekuz aldatu gabe, eta egonkorrak direla. Gasen isurtzeak galdara, labe, sukalde eta abarretan erregaiak erretzearen ondorio izan daitezke.

LKTren kasuan, multzo elektrogenoetarako erabiltzen den gasolioa eta sukaldeko gas propanoa hartzen dira kontuan, biak ere Zerbitzu Zentraletan. ISO 14001 arauarekin ziurtatutako eta AENORek urtero ikuskatutako ingurumen-programaren bidez lortzen dira. MITECOren isurtze-faktoreak eta IPCC 2006 gidak dira isurtze-faktoreen iturria. Ez dago isurtzeko eskubideak salerosteko erregimenen esparruan araututako isurtzerik.

Iturri mugikorrak

Iturri mugikorrek garraiobide eta ibilgailu automotore guztiak hartzen dituzte barne, baita lekuz aldatzen diren aldi baterako iturriak ere. Entitaterik gehienen kasuan, kalkulu horrek ibilgailuen kontsumoei egiten die erreferentzia, ibilgailu horien erregai-gastua bereganatu behar dutenean. Horren barruan sartzen dira norberaren ibilgailuak nahiz *leasing*ean eta *renting*ean hartutakoak.

LKTren kasuan, ez dago iturri mugikorrik, ez baitago ibilgailu-flotarik.

Isurtze iheslariak

Aire girotuko eta hozteko ekipamenduak erabiltzean nahita edo nahi gabe egindako askapenen (adibidez, ekipamenduen paketatzeen) eta hidrofluorokarbono-isurtzeen —aurrerantzean, HFCak— emaitza dira isurtze iheslariak.

Entitateek hozte- eta/edo girotze-ekipamenduak badituzte, ekipamenduok kontsumitzen duten gas hozgarria edo horien nahasketa (prestakin deiturikoa) ezagutu beharko da, eta aztertu den urtean ekipamendu bakoitzean kargatu den gas-kantitatearen erregistroa eduki beharko da (kg-tan, g-tan eta abar). Ekitaldian zehar ihes egindako gas-kantitatea denboraldi horretan kargatutako gas-kantitatearen baliokide izango da.

Gas hoztaileen BGAren balioak IPCCren Laugarren Ebaluazio Txostenean (2007koan) daude jasota, eta Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Esparru Hitzarmenak (UNFCCCk) 2011-12-11n onartu zituen. Balio horiek eskuragarri daude Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren —aurrerantzean, MITECO— karbono-aztarna kalkulatzeko gidaren II. eranskinean.

LKTren kasuan, aire-girotzeko ekipamenduetan egiten diren gas fluordunen kargak erregistratzen dira mantentze-aplikazioan, erabilitako gas-mota bereizita.

2. irismena

2. irismenak BEGen zeharkako isurtzeak hartzen ditu barne, kontsumitutako elektrizitatearen, lurrunaren edo beroaren ondorioz sortutakoak. Kasu honetan, kalkuluari dagokion urtean kontsumitutako kanpo-hornitzaileen elektrizitatea da jarduera-datua. Beraz, kasuan kasuko urteko elektrizitate-fakturetan islatutako kWh-ak dira erabili beharreko datuak.

LKTren kasuan, iturri berriztagarrietatik lortzen da elektrizitate guztia, eta, beraz, 2. irismenean ez da isurtzen berotegi-efektuko gasik.

3. irismena

3. irismeneko isurtzeetan zeharkako isurtzeak sartzen dira, entitatearen jardueraren ondorioz sortu arren haren jabetzakoak ez diren eta hark kontrolatzen ez dituen iturriekin lotzen direnak, hain zuzen.

3. irismeneko isurtzeak barne hartzeak esan nahi du finantza-erakundeen balio-katean eta produktu-zorroan sortutako BEG isurtzeak kontuan hartzen direla, BEGekin lotutako arriskuak eta aukerak erabat kudeatu ahal izateko. Hau da, uretan gorako isurtzeak (ondasunak edo zerbitzuak eskuratzearekin lotutakoak) eta uretan beherako isurtzeak (ondasunak edo zerbitzuak saltzearekin lotuak) hartzen dira aintzat.

3. irismeneko isurtzeak zerbitzu-hornitzaileek emandako datuetatik abiatuta kalkulatzen dira batik bat; datu horiek entitateen balio-kateko jarduera espezifikoekin daude zuzenean lotuta.

Hori izan daiteke 1. kategoriaren kasua (Eskuratutako ondasunak eta zerbitzuak), Entitatearen kontrolerako kontratatutako zerbitzuei dagokienez, edo 5. kategoriaren kasua (Jardueran sortutako hondakinak). Baina datuak barne-inkestetatik ateratzea ere gerta liteke, hala nola enplegatuen mugikortasunari buruzko inkestetatik (Kontsumitutako erregaia eta egindako kilometroak). Hori gertatzen da, esaterako, 7. kategorian (Langileen joan-etorriak). Bestalde, erabilitako isurtze-faktoreak iturri ofizialetatik datoz.

3. irismeneko kategorien artean hautaketa bat egin da, inpaktuaren arabera. Horretarako, entitate parte-hartzaileen *reporting* praktiken analisia sartu da garapen metodologikoaren barruan, baita Estatuan eta nazioartean garrantzitsuak diren entitateena ere.
Honako hauek dira kategoriak:

Kategoria	Xehetasunak	Formula
1. kategoria. Eskuratutako ondasunak eta zerbitzuak	Finantza-erakundeak bere instalazioetako edo bulegoetako eguneroko jarduerarako eskuratu duen materialaren bolumena (m^2/kg/ud.). Baita bere eguneroko jarduerari eusteko Entitateak kontrolatzen ez dituen kanpo-zerbitzuen kontratazioari lotutako energia elektrikoaren kontsumoa ere.	∑ (Bolumena eskuratutako material-motaren arabera x Isurtze-faktorea) + ∑ (Kontratatutako zerbitzuen energia-kontsumoa x Isurtze-faktorea)
4. kategoria. Uretan gorako garraioa eta banaketa	Eguneroko jarduera bermatzeko barruko sistemaren bidez Entitateko instalazio/bulegoen artean egiten den garraioarekin lotutako distantzia (km-ak).	∑ (Egindako distantzia x Isurtze-faktorea)
5. kategoria. Jardueran sortutako hondakinak	Eguneroko jardunean finantza-erakundeko instalazio/bulegoetan sortzen diren hondakinen bolumena (kg-tan).	∑ (Bolumena hondakin-motaren arabera x Isurtze-faktorea)
6. kategoria. Negozio-bidaiak	Negozio-bidaien ondorioz langileek egindako joan-etorrien distantzia (km-ak) eta kontsumitutako erregaia. Baita hoteletan egindako gau-kopurua ere, kasuistika berarekin lotuta.	∑ (Egindako distantzia garraio-motaren arabera x Isurtze-faktorea) + ∑ (Kontsumitutako erregaia erregai-motaren arabera x Isurtze-faktorea) + ∑ (Kanpoan egindako gau-kopurua herrialdearen arabera x Isurtze-faktorea)
7. kategoria. Langileen joan-etorriak	Langileek beren lantokira joateko egin behar duten distantzia (km-tan) eta/edo kontsumitutako erregaia.	∑ (Egindako distantzia garraio-motaren arabera x Isurtze-faktorea) + ∑ (Kontsumitutako erregaia erregai-motaren arabera x Isurtze-faktorea)

1. kategoria. Eskuratutako ondasunak eta zerbitzuak

Kategoria honek finantza-erakundeak erositako ondasun eta zerbitzuetatik datozen isurtzeei egiten die erreferentzia.

Isurtzearen iturria	Deskribapena	Neurketa-unitatea	Jarduera-datuen iturria
Ura	Finantza-erakundeak dituen instalazioetan eta bulegoetan egiten den ur-kontsumoa	m^3-ak	Erosketa-fakturak
Papera	Finantza-erakundearen instalazioetan eta bulegoetan eguneroko jarduna betetzeko beharrezkoa den papera.	kg-ak	
Toner beltza	Finantza-erakundearen instalazioetan eta bulegoetan eguneroko jarduna betetzeko beharrezkoak diren tinta-kartutxoak.	unitateak	
Koloretako tonerra	Finantza-erakundearen instalazioetan eta bulegoetan eguneroko jarduna betetzeko beharrezkoak diren koloretako tinta-kartutxoak.	unitateak	
Entitatea kontrolatzeko kanpo-zerbitzuak	Entitatea kontrolatzeko zerbitzuen kanpo-kontratazioari lotutako energia-kontsumoa (Datuak Prozesatzeko Zentroa, zerbitzariak, hodeia…).	kWh-ak	Zerbitzuaren hornitzaileak

LKTn ingurumen-programako elementu hauek sartu dira:

- Kontsumitutako ura
- Kontsumitutako papera guztira
- Toner beltza

4. kategoria. Uretan gorako garraioa eta banaketa

Kategoria honetan sartzen dira materialak instalazioen eta/edo bulegoen artean barruko mezularitza-sistemaren bidez (posta, mezularitza fisikoko beste sistema batzuk eta abar) garraiatzean eta banatzean sortzen diren isurtzeak. DEFRA da metodologiaren kanpoko datuen iturria (Inputs).

Zerbitzua hornitzen duen kanpoko enpresak eskaintzen digun mezularitza-zerbitzuak guztira egindako kilometroak hartu dira kontuan.

5. kategoria. Jardueran sortutako hondakinak

Apartatu honetako isurtzeak hertsiki lotuta daude entitateen jarduerek sortutako hondakinekin, eta hondakin guztiak sartzen dira: ontziak, papera eta kartoia, beira, lanparak, pilak, hondakin arriskutsuak, eta tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak (aurrerantzean, TEEH).

Metodologiaren kanpoko datuen iturria (Inputs): OCCC eta MITECO.

Bi hondakin-mota erabili dira:

- Ingurumen-programako papera eta kartoia.
- Hondakinak kudeatzen dituzten bi enpresek jakinarazten dizkiguten TEEHen kilogramoak.

6. kategoria. Negozio-bidaiak

Kategoria honetan sartzen dira erakundearen negozio-bidaiei lotutako isurtzeak, zehazki hegazkinez, trenez eta taxiz egindako joan-etorrietan eta ostatu-gauetan sortutakoak. IDAE da metodologiaren kanpoko datuen iturria.

Hiru iturri erabiltzen dira:

- Joan-etorrietarako hitzartuta dauden taxilariek egindako kilometroak.
- Langileek beren jardunean egindako gastuen likidazioetan (dietatan) ordaindutako kilometroak.
- Hitzartutako bidaia-agentzien bidez hegazkinez eta trenez egindako bidaiei dagozkien isurtzeak (bidaia-agentzia horiek isurtzeen ziurtagiri bat aurkezten dute).

7. kategoria: Langileek lanpostura joateko egin behar dituzten joan-etorriak

Kategoria honetako isurtzeak langileek beren etxeetatik lantokira joateko egin behar dituzten joan-etorriekin (barne-garraioarekin edo *in itinere* joan-etorriekin) lotuta daude, eta langileek autoz, garraio kolektiboz, garraio publikoz eta trenez egiten dituzten joan-etorriak sartzen dira. Datu-iturria IDAE da hemen ere.

LKTren kasuan, 2022an langile guztiei egindako mugikortasun-inkesta baten emaitzak erabiltzen dira. Inkestaren emaitzek erabilitako mugikortasun-motei buruzko informazioa ematen dute —banakako autoa, partekatutako autoa, garraio publikoa, motorra, oinez…—, bai eta etxetik lanera joateko batez besteko distantziak ere. Lortutako banaketa hori plantilla osora estrapolatzen da. 2025ean eguneratu egingo da mugikortasun-inkesta.

Finantza- eta aseguru-jardueraren ezaugarriak direla eta, ez da informaziorik eman 2., 3., 8., 9., 10., 11., 12. eta 13. eta 14. kategoriei buruz; izan ere, jarduerok ez dute kategoria horietako isurtzerik sortzen. Ez dago kontrol operatiboa duen entitaterik talde bateratutik kanpo.

2024an, kalkulatutako isurtzeen ehunekoa % 1,17koa izan da —hornitzaileengandik edo balio-kateko beste bazkide batzuengandik lortutako lehen mailako datuak erabili dira—.

Berotegi-efektuko gasen (BEGen) isurtzeen intentsitatea:

BEGen intentsitatea	2024	2023
Isurtze operazionalak	3.531,15	3.228,20
Finantzatutako eta inbertsioetako isurtzeak	2.342.522	1.713.923
Batura	2.346.053,15	1.717.151,20
Aktiboak guztira (m€-kotan)	26.775.875	26.053.051
Intentsitatea	87,6	65,9

Guztizko CO_2 isurtzeak, sarrera garbien arabera (aktibo guztiak).

[E1-7] BEGak ezabatzea eta karbono-kredituen bidez finantzatutako BEGak arintzeko proiektuak

LABORAL Kutxa Taldeari ez dagokio BEGak ezabatzeko eta karbono-kreditu bidez finantzatutako BEGak arintzeko proiekturik.

[E1-8] Karbonoaren barne-prezioa

LABORAL Kutxa Taldeari ez dagokio karbonoaren barne-prezioa finkatzeko sistemarik.

[E1-9] Arrisku material fisiko eta trantsiziokoetatik eta klimarekin lotutako aukera potentzialetatik aurreikusitako finantza-ondorioak

Jasangarritasun-egoera landu den lehen urte honetan Entitateak ez du informaziorik eman arrisku material fisiko eta trantsiziokoetatik eta klimarekin lotutako aukera potentzialetatik aurreikusitako finantza-ondorioei buruz, CSRD[2] araudiko C eranskinaren arabera.

11/2018 Legeari jarraikiz, ingurumen-arriskuen prebentziorako baliabideei eta ingurumen-arriskuetarako hornidura eta bermeei buruzko informazioa argitaratu da.

Ingurumena Gestionatzeko Sistemari egotzitako zuzeneko gastuak	2024	2023
IGSaren mantentzea (1)	1.857	1.089
Hondakinen gestioa (2)	4.496	1.563
Ingurumen-sustapena	5.907	8.724
Neurketak (isurtzea)	-	599
Guztizkoa €-tan	**12.310**	**11.975**

(1) IZAITE eta legezko betekizunak.
(2) Papera eta olioa kentzea eta segurtasun-kontseilaria.

Ingurumen Batzordeak zuzenean gestionatzen ditu gastu horiek; ez dira kontuan hartu, ordea, departamentu zehatzek gestionatutako gastuak eta egindako inbertsioak. **Seguros Lagun Aro**k ez du helburu horretarako kontu-sail berezirik.

Ez da ikusi zuzeneko ingurumen-arriskuetarako hornidurak eta bermeak ezartzeko beharrik.

[2] Enpresak ESRS E1-9 apartatuan agindutako informazioa alde batera utzi ahal izango du bere jasangarritasun-**egoera** lantzen duen lehenengo urtean. Enpresak ESRS E1-9 apartatuan xedatutakoa bete ahal izango du, informazio kualitatiboa bakarrik emanez, bere jasangarritasun-**egoera** egiten duen lehen hiru urteetan, dibulgazio kuantitatiboak prestatzea ezinezkoa bada.

ESRS E2-Kutsadura

[IRO-1] Klimarekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko prozesuen deskribapena

Informazio hori ESRS2-IRO1 apartatuan deskribatuta dago.

ESRS E3-Ura eta itsas baliabideak

[IRO-1] Urarekin eta itsas baliabideekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatzeko eta ebaluatzeko prozesuen deskribapena

Informazio hori ESRS2-IRO1 apartatuan deskribatuta dago.

11/2018 Legearekin bat etorriz, Zerbitzu Zentraletako ur-kontsumoa (ez bulego-sarearena) argitaratzen da.

Egoitza Nagusiko ur-kontsumoa (m^3-tan)	2024	2023
Ur-kontsumoa (1)	7.932	5.850

*Aurreikuspena egitean 4. hiruhilekoko datua eskuragarri ez zegoenez, bolumena kalkulatzeko aurreko urteko azken hiruhilekoko datua erabili da, eta aztertzen ari garen urteko lehen hiru hiruhilekoetako datuak.

ESRS E4-Biodibertsitatea eta ekosistemak

[IRO-1] Urarekin eta itsas baliabideekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatzeko eta ebaluatzeko prozesuen deskribapena

Informazio hori ESRS2-IRO1 apartatuan deskribatuta dago.

ESRS E5-Baliabideen erabilera eta ekonomia zirkularra

[IRO-1] Baliabideen erabilerarekin eta ekonomia zirkularrarekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatzeko eta ebaluatzeko prozesuen deskribapena.

Informazio hori ESRS2-IRO1 apartatuan deskribatuta dago.

11/2018 Legearekin bat etorriz, informazio hau erantsi da:

Hondakinak egoki kudeatzen dira, ingurumen-ziurtapenaren barruan. Orobat, hondakinik garrantzitsuenak (birziklatzeko papera eta tonerra) modu zentralizatuan gestionatzen dira lantoki guztientzat. Segidan, gure jarduerari dagozkion nabarmenenak aipatuko ditugu:

Hondakinak	Unitatea	2024	2023
Kartoia eta papera	**kg-ak**	**103.055**	**79.240**
Txatarra	**kg-ak**	**83.820**	**80.720**

Papera da ingurumen-programan kontuan hartutako baliabide nagusia:

Kilogramoak/Taldea	2024	2023
Publizitaterako papera	54.458	63.832
Bulegoko papera	209.205	205.250
Kontsumitutako papera, guztira	**263.663**	**269.082**

Gure jarduera dela eta, ez da apenas elikagairik alferrik galtzen. Nolanahi ere, 2020an onlineko erreserba-sistema bat ezarri zen Zerbitzu Zentraletako jantokira sartzeko, egunero prestatzen diren janarien kopurua doitzeko.

Taxonomiaren Erregelamendua (EB)

Entitateak taxonomiarekin eta aktibo berdeen ratioarekin —GAR, *green asset ratio*— lotutako informazioa zabaltzen du, 2020/852 Erregelamenduan eta 2021/2178, 2021/2139, 2023/2485, 2023/2486 (EB) Erregelamendu Delegatuetan ondoen ulertzen duen moduan.

Era berean, 2021/2178 Erregelamendu Delegatuaren 10. artikuluari jarraikiz, Entitateak negoziazio-zorroari buruzko informazioa emango du 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera.

2021/2178 Erregelamendu Delegatuak hauxe dio V. eranskinean: «*GAR ratioa esposizioetan eta balantzean oinarrituko da, zuhurtziazko bateratze-eremuaren arabera*…". Hori dela eta, hurrengo tauletan LABORAL Kutxa entitateari buruzko informazioa bakarrik agertuko da.

Erregelamendu horien azken helburua da jakitea finantza-erakundeen aktibo osoaren zer zati har daitekeen ingurumenaren aldetik jasangarritzat, ingurumen-taxonomiaren irizpideen arabera. Horretarako, 28 txantiloi zabaldu dira guztira, eta horietatik lauk aurreko ekitaldiko (T-1) txantiloiei egiten diete erreferentzia. Jarraian, txantiloirik garrantzitsuenen laburpenak azalduko dira lehenengo, dagokien azalpen kualitatiboarekin. Ondoren, I. eranskinean, txantiloi guztiak erakutsiko dira, oso-osorik.

Horietako txantiloirik gehienak *capex* delakoaren eta negozio-bolumenaren arabera zabaldu behar dira. Horietako 15 finantza-erakundeen balantzearen barruan dauden aktiboekin lotuta daude: 4 balantzetik kanpoko aktiboei dagozkie eta 9 energia nuklearrarekin edo gas naturalarekin lotutako jarduerei buruzko informazio espezifikoari.

Txantiloi horiek guztiek informazio ugari dute. Hala ere, arestian esan dugunez, hobeto ulertu ahal izateko, jarraian horietako batzuk erakutsiko ditugu labur-labur, informaziorik garrantzitsuena eta dagozkion azalpen kualitatiboak bakarrik azalduz.

Aipatzekoa da *capex*ari eta negozio-bolumenari buruzko informazioa eman ohi dela txantiloietan, eta laburpen honetan capex-ari buruzko informazioa baino ez dela erakutsiko.

Ingurumen-taxonomiaren helburuei dagokienez, 6 daude:

1. Klima-aldaketa arintzea.
2. Klima-aldaketara egokitzea.
3. Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola.
4. Ekonomia zirkularrerako trantsizioa.
5. Ur eta itsas baliabideen jasangarritasuna eta babesa.
6. Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratzea.

Entitateak adierazi berri den prebalentzia-ordena ezarri du helburu horietarako.

Azkenik, adierazi behar da Entitateak zailtasunak dituela taxonomiarekin lerrokatutako balantzeko aktiboak handitzeko estrategiak ezartzeko. Zailtasun horiek enpresen atalean nabarmentzen dira bati bat; izan ere, zorroan enpresa txiki eta ertain (ETE) asko izanik, horietako gehienak ingurumen-taxonomiaren irizpideetatik urrun daude. Horrenbestez, zaila da Entitateak harremanak ezartzea kontrako alderdi horiekin, edo produktu berriak diseinatzerakoan irizpide horiek kontuan izatea. Bestalde, hipotekei dagokienez, Entitatea aurrerapausoak ari da ematen, taxonomiaren irizpide teknikoen barruan sar litezkeen etxebizitza gehiago finantzatzeko, energia-ziurtagiri hobeak dituzten hipoteken *pricinga* portzentajezko 2 puntu hobetuz, adibidez.

GAR 001a eta 003a

Txantiloi laburtu berean biltzen dira GAR 001 eta 003 ratioak, informazio berari egiten baitiote erreferentzia: ingurumen-taxonomiari dagokionez hautagarriak diren edo lerrokatuta dauden Entitatearen aktiboei. Bien arteko alde bakarra da GAR 001 adierazlea zenbatekoetan ematen dela, eta GAR 003a ehunekoetan.

Milioi eurokotan	GAR001	GAR003
LABORAL Kutxaren aktibo osoa	27.487	
GARerako aktibo konputagarriak	17.769	100
Taxonomiarako aktibo hautagarriak	10.244	% 57,65
Taxonomiaren araberako aktiboak	842	% 4,74

2024-12-31n, Entitateak 27.487 M €-tan baloratutako aktiboak ditu. Hala ere, badira GAR ratioa kalkulatzeko orduan kontuan hartzen ez diren zenbait aktibo: administrazio zentralak eta nazioz gaindiko isurtzeak, banku zentralekiko esposizioa eta negoziazio-zorroa. Partida horiek 9.718 M€-ko zenbatekoa osatzen dute, eta, beraz, GARean sartutako aktiboek 17.769 M€-ko balioa dute.

Aipatu behar da horietatik zenbait aktibo ez direla hautagarriak eta ez daudela taxonomiarekin lerrokatuta, GAR adierazlerako konputagarriak izan arren. Apartatu horretan sartzen dira informazio ez-finantzarioa ematera behartuta ez dauden enpresak (gehienak enpresa txiki eta ertainak, ETEak), EBko kide ez diren herrialdeetan dauden eta, beraz, NFDR Zuzentarauan aurreikusten den informazioa emateko betebeharra ez duten kontrako alderdiak, ageriko banku arteko maileguak, eta efektiboa eta efektiboari lotutako aktiboak.

Entitatearentzat kopuru handia osatzen dute partida horiek guztiek, zehazki 6.534 M€-koa; izan ere, ETE-ek ordezkaritza handia dute Entitatearen balantzean.

Aktibo hautagarrien artean, 10.244 M€ kontabiliza daitezke; gehienak klima-aldaketa arintzeko helburuari atxikita daude, helburu horri eman baitzaio lehentasuna. Zifra horrek GAR adierazlerako konputagarriak diren aktiboen % 57,65 osatzen du.

Aktibo hautagarrien artean, lau partida daude. Partidarik adierazgarriena partikularrena da: 10.037 M€-koa guztira. Zentzu horretan, bizitegitarako ondasun higiezinek bermatutako maileguak dira partidarik garrantzitsuena; hipotekak, alegia. Hala ere, bada automobiletarako maileguei dagokien kopuru txiki bat ere.

Ondoren, enpresa ez-finantzarioak, jabetzaren bidez lortutako berme errealak eta finantza-enpresak daude: 121 M€-koak, 47 M€-koak eta 39 M€-koak, hurrenez hurren.

Azkenik, taxonomiarekin lerrokatutako aktiboak daude, ingurumenaren aldetik benetan jasangarritzat jo daitezkeenak, hautaketa-irizpide teknikoak betetzen dituztelako. Entitatearen kasuan, aktibo horiek 842 M€-koak dira; hau da, % 4,74ko ratioa dute.

Zentzu horretan, azpimarratu behar da Entitateak zailtasunak izan dituela zenbait partidaren lerrokadura ebaluatzeko beharrezkoa den informazioa biltzeko. Automobiletarako maileguen kasua aipa genezake, adibidez; ezin izan da lerrokatutzat jo.

Lerrokatutako aktiboak banakatuz gero, ikus daiteke 770 M€ hipotekei dagozkiela, eta horrek esan nahi du hipoteken % 7,67 lerrokatuta daudela. Lerrokadura hori interpretatzeko orduan, 2021/2139 Erregelamendu Delegatuaren 1. eranskineko 7.7 artikulua izan da kontuan. Era berean, barneko zein kanpoko iturrien informazioa lortu da.

Aldi berean, enpresa ez-finantzarioei dagokien lerrokadura-ratioa % 7,45ekoa da (70 M€-koa); finantza-enpresena, berriz, % 0,94koa (2 M€-koa). Enpresei buruzko informazio hori enpresek emandako informazio publikoa biltzen duen proiektu sektorial batetik atera da.

Datu horiek aurreko urtekoekin (GAR 001 T-1 txantiloietan emandakoekin) alderatuz gero, ikus daiteke hautagarritasuna 10.294 M€-koa dela, eta lerrokadura, berriz, 665 M€-koa. Beraz, hautagarritasuna eta lerrokadura handitu egin dira. Lerrokaduraren kasuan, 177 M€-ko igoera izan da.

GAR 002a

GAR 002ak GAR 001aren partidetako baten banakapenari egiten dio erreferentzia; zehazki, informazio ez-finantzarioa ematera behartuta dauden enpresa ez-finantzarioei, taxonomiarako hautagarriak direnei. GAR 002a enpresa horien banakapena da, beren NACE (*National Classification of Economic Activities*) sailkapenaren arabera. Hauek dira LABORAL Kutxaren datuak:

NACEak (milio eurokotan)	Taxonomia-rako hautagarriak	Taxonomia-rekin lerrokatuak
	1	0
1061 – Errotarako produktuen fabrikazioa	1	0
2540 – Arma eta munizioen fabrikazioa	3	0
2611 – Osagai elektronikoen fabrikazioa	1	0
2815 – Kojineteen, engranajeen eta transmisioko organo mekanikoen fabrikazioa	1	0
2822 – Jasotzeko eta manipulaziorako makineriaren fabrikazioa	1	0
3020 – Tren-makinen eta -materialen fabrikazioa	43	33
4110 – Higiezinen sustapena	10	0
4213 – Zubi eta tunelen eraikuntza	1	0
4222 – Sare elektrikoen eta telekomunikaziokoen eraikuntza	1	0
4621 – Zerealen, tabako-txotxen, hazien eta animalientzako elikagaien handizkako merkataritza	4	0
4711 – Txikizkako merkataritza espezializatu gabeko establezimenduetan, elikagaiena batez ere	16	15
6820 – Ondasun higiezinak norberaren kontura alokatzea	2	0
9999 – Taxonomiatan sartu gabeko NACEak	35	22
GUZTIRA	120	70

Ikus daitekeenez, hauek dira NACErik adierazgarrienak, hautagarritasunerako nahiz lerrokadurarako:

- Tren-makinen eta -materialen fabrikazioa (3020).
- Txikizkako merkataritza espezializatu gabeko establezimenduetan (4711).

Aurreko urtearekin alderatuta, lerrokadurak egonkor jarraitzen du, baina hautagarritasuna 20 M€ jaitsi da. NACErik esanguratsuenei dagokienez, ez dago aldaketarik, aurreko urtean ere 3020a eta 4711 izan baitziren.

GAR 005a

GAR 005 adierazleko txantiloietarako 2 partida hauetako datuak eskatzen dira: finantza-bermeak eta kudeatutako aktiboak.

Kudeatutako aktiboei dagokienez, adierazi behar da 2024an Entitateak zenbait oztopo izan dituela eta, horregatik, ezin izan duela partida horri buruzko informaziorik jaso, 2023an bezala. Horrenbestez, ezin da bi ekitaldien arteko konparazioa egin.

NUKLEARRAREN ETA GAS NATURALAREN TXANTILOIAK (NyG)

Gas naturalarekin eta nuklearrarekin lotutako jarduerei buruzko informazio espezifikoari lotuta (2022/2014 Erregelamendu Delegatuan daude zehaztuta), 9 txantiloi argitaratu dira. Honako hauek dira: GAR NyG 001, GAR NyG 002 Capex/Negozio-bolumena, GAR NyG 003 Capex/Negozio-bolumena, GAR NyG 004 Capex/Negozio-bolumena, GAR NyG 005 Capex/Negozio-bolumena.

Txantiloi horiek erakusten dutenez, Entitateak jarduera nuklearrekin lotutako esposiziorik ez izan arren, gas fosilarekin lotutako 2 jardueraren gaineko esposizioak ditu. Esposizio horien zenbatekoa 625.517 €-koa da, eta erabat hautagarria da, 4.29 eta 4.31 taxonomia-jardueren baitan. Aldi berean, esan behar da zenbateko hori guztia lerrokatu gabekotzat jotzen dela. Informazio guztia proiektu sektorial batetik lortu da.

INFORMAZIO SOZIALA

ESRS S1-Langile propioak

[SBM-2] Alderdi interesdunen interesak eta iritziak

Informazio hori ESRS2-SBM2 apartatuan deskribatuta dago.

[SBM3] Inpaktu materialak, arriskuak eta aukerak, eta negozio-estrategiarekin eta -ereduarekin duten interakzioa

Materialtasun bikoitza edo garrantzi erlatiboa ebaluatzeko prozesuaren ondoren (ESRS 2-IRO 1 apartatuan zehaztu da, langile propioen azpigaian), inpaktu eta arrisku materialak hauteman dira lan-baldintzen eta tratu- eta aukera-berdintasunaren azpiazpigaietan, zehazki honako hauek:

Azpiazpigaia	Inpaktuak	Arriskuak
Lan-baldintzak	Plantillaren ongizateak okerrera egitea, lan-baldintza desegokien ondorioz. Plantillaren ongizateak hobera egitea, lan-baldintza egokien ondorioz.	
Tratu- eta aukera-berdintasuna denontzat	Generoak, jatorriak, arrazak, sexu-orientazioak edo beste alderdiren batek plantilla baldintzatzea.	Langileen motibazioak eta produktibitateak behera egitea, generoak, jatorriak, arrazak, sexu-orientazioak edo beste alderdiren batek baldintzatzen dituela sentitzen dutelako.

IRO horiek Entitatearen negozio-estrategiarekin eta -ereduarekin duten interakzioari dagokionez, honako hau jakinarazi da:

LK bazkide kooperatibistek osatzen dute batik bat, enplegu kooperatiboa sortzeko gure bokazioa dela eta. Salbuespen gisa, inoren konturako eta/edo prestakuntzako beste kontratazio-figura batzuk erabiltzen ditugu, pertsonen egokitzapen- eta ikaskuntza-aldiei erantzuteko, edo lan-kargako egoera koiunturalei erantzuteko; izan ere, gure Estatutu Sozialek ez dute iraupen mugatuko sozietate-figura jasotzen. Lan-bazkideak ez diren figura gehigarri horiek —inoren konturako langileak, adibidez— Entitatearen enplegu osoaren % 10 inguru osatzen dute.

Aurreko apartatuan adierazi denez, kooperatibako bazkideek bi modutara jardun behar dute, profesional gisa eta kooperatibista gisa, eta, horregatik, bi partaidetza-eremu bereizten ditugu:

- Instituzionala edo soziala, boterean parte hartzea. Eremu hori Batzar Nagusiaren, Kontseilu Errektorearen eta Kontseilu Sozialaren bidez egituratzen da.

- Kudeaketan parte hartzea. Honako hauek eskatzen ditu: parte hartzeko mekanismo eta bide egokiak garatzea, informazio-gardentasuna, erabakiak hartzeko kontsulta- eta negoziazio-metodoak gauzatzea, eta prestakuntza-planak sistematikoki aplikatzea.

Gainera, irabazietan edo galeretan parte hartzen dugu. Sortutako aberastasuna banatzeko orduan, langileok gara hartzekodun nagusiak. Erabilgarri dauden enpresa-soberakinen zati bat itzulkin modura banatzen da kooperatibako bazkideen artean, egindako lanaren edo jarduera kooperatibizatuaren ehuneko berean.

Mondragonen Kooperatiba Esperientziak antolamendu demokratikoa onartzea eskatzen du:

- Bazkide guztiek osatutako Batzar Orokorra subiranoa da; bazkide bakoitzak boto bat du.

- Gobernu-organoak demokratikoki hautatzen dira —Kontseilu Errektorea, zehazki, Batzarrak aukeratzen du—, eta Zuzendaritza Nagusia Kontseilu Errektorearen bidez izendatzen da —hori arduratzen da Entitatearen estrategiaz eta kudeaketaz—.

- Zuzendari nagusiari Zuzendaritza Kontseilu batek laguntzen eta aholkatzen dio.

- Kontseilu Soziala aukeratzen da, lan-komunitateak kooperatibaren administrazioan etengabe parte hartzeko organoa; horretarako:

    - Langileei aholkularitza ematen zaie arauei, eta KEren eta gobernu-batzordearen erabakiei buruz.

    - Bazkideei KEaren eta gobernu-batzordearen erabaki garrantzitsuen berri ematen zaie, eta horiei, berriz, bazkideen kezken, iradokizunen eta proposamenen berri.

    - Negoziazioa egiten da, negoziazio kolektiboari buruzko araudian jasotako gaien inguruan.

    - Kontrol Soziala dago, akordioei eta erabakiei dagokienez.

Lanaren ordainsari nahikoa eta solidarioa da oinarrizko printzipio bat. Nahikoa, kooperatibaren benetako aukerekin bat etorriz, eta solidarioa, zentzu honetan:

- Barneko laneko ordainsarien esparru solidario bat dago. Horretarako, ordainsari-tarte bat ezartzen da bazkide bakoitzaren kontsumo-aurrerakinak mugatzeko; tarte hori 1,30etik (gutxieneko ordainsaria) 8,25era (ordainsaririk handiena) bitartean aldatzen da, eta 2,40koa da kooperatibaren batez besteko indizea.

- Barne-ordainsariak sektoreko soldatako langileen ordainsariarekin homologatzeko modukoa izan behar du. Elkartasuna areagotu egiten da zuzendaritza-postuetan (3tik gorako indizeetan); izan ere, pareko erantzukizuna duten beste profesional batzuek jasotzen dituztenak baino ordainsari txikiagoak jasotzen dituzte, eta lanposturik altuenetan % 50eraino irits daiteke aldea.

Berdintasuna bultzatzea sorreratik sustraituta dugun printzipioa da, eta konpromiso-itxura hartzen joan da, 2008tik egin diren berdintasun-planen bidez. 2024an, anbizio handiko diagnostiko-lana egin dugu, bai arlo kuantitatiboan eta bai kualitatiboan, eta diagnostiko-lan hori datozen 4 urteetan garatuko den V. Berdintasun Planean zehaztu dugu.

Horretarako, egitura aktibo eta egonkorra, zuzkidura ekonomiko egokia eta Zuzendaritzaren konpromisoa ditugu.

Aurreko lau planetan zehar, ardura-postuetan emakumeen partaidetza areagotzea izan da helburua, eta, ondorioz, gaur egun erakunde parekidea garela esan dezakegu —% 51 emakumeak dira—. Hala, emakumeen presentzia handituz joan da lanbide-kategoriarik altuenetan, gaur egun Zuzendaritza Kontseiluko kideen % 30, bulego-zuzendaritzetako kideen % 36 eta Kontseilu Errektoreko kideen % 50 izateraino, besteak beste.

Gainera, lidergo-estilo androginoagoa jorratu dugu; emakumeek beren lidergo-gaitasunari buruz duten pertzepzioa hobetzen saiatu gara; aldaketak eragin ditugu emakumeen nortasunetan, sinesmenetan, balioetan eta jarreretan, eta gizonak sentsibilizatu ditugu, ardura-postuetara iristeko emakumeen eta gizonen arteko aukera-desberdintasunaz eta Entitatean kultura-aldaketa horretan emakumeei laguntzeko beharraz jabetzeko.

Abian jartzear dagoen V. Berdintasun Planak erronka eta helburu berriak izango ditu, berdintasunaren arloan Entitate erreferente eta eragile bat izaten jarrai dezagun.

Ez da IRO materialik hauteman haurren lanari eta nahitaezko lanari buruz.

[S1-1] [MDR-P] Langile propioekin lotutako politikak

LABORAL Kutxak hainbat politika ditu langile guztien lan-baldintza egokiak eta tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko. Politika horien bidez, lan-baldintza egokiekin lotutako alderdiak lantzen dira: laneko segurtasuna, lan-denbora, soldata egokiak, elkarrizketa soziala, langileen ordezkarien parte-hartzea, segurtasuna eta osasuna, eta lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko aukera.

Guztiontzako tratu- eta aukera-berdintasunari dagokionez, Entitateak genero-berdintasuna, dibertsitatea, ordainsari-berdintasuna eta langile propioen prestakuntza, garapena eta sustapena bultzatzen ditu, haien generoa, arraza eta ideologia edozein direla ere.

Jarraian deskribatzen diren politikak hertsiki lotuta daude materialtzat jotzen diren bi azpiazpigai hauekin:

- Lan-baldintzak
- Tratu- eta aukera-berdintasuna guztiontzat

Taldearen jarduketa-eremua kontuan hartuta (Espainia), ez dago giza eskubideekin eta langile propioekin lotutako politikarik. Indarrean dagoen legeria dela eta, uste dugu ez dela beharrezkoa, lan elkartuko kooperatibaren forma juridikoak indartu egiten baitu alderdi hori. Arrazoi berberagatik, jarraian zehazten diren politikek ez dituzte kontuan izan Nazio Batuen printzipio zuzentzaileak, eta ez dute nahitaezko edo haurrentzako lana jasotzen.

Beraz, antzemandako IRO guztiei eragiten diete:

- Plantillaren ongizateak okerrera egitea, lan-baldintza desegokien ondorioz. (Inpaktua)
- Plantillaren ongizateak hobera egitea, lan-baldintza egokien ondorioz. (Inpaktua)
- Generoak, jatorriak, arrazak, sexu-orientazioak edo beste alderdiren batek plantilla baldintzatzea. (Inpaktua)
- Langileen motibazioak eta produktibitateak behera egitea, generoak, jatorriak, arrazak, sexu-orientazioak edo beste alderdiren batek baldintzatzen dituela sentitzen dutelako. (Arriskua)

Pertsonak Kontratatzeko Politika

- Hauekin lotuta dago: lan-baldintza egokiekin (enplegu segurua, soldata egokiak…) eta guztiontzako tratu- eta aukera-berdintasunarekin (ordainsari bera balio eta prestakuntza berberak eta gaitasunen garapen bera behar duten lanen truke…).
- Hainbat gai jorratzen ditu, hala nola ordainsarien eskema eta langile berrien prestakuntza- eta lanbide-garapenerako plana.
- Eduki nagusi hauek ditu:
    - Estatuko eta nazioarteko lan-arloko araudia zorrotz errespetatuz garatzen da.
    - Alde batera uzten du diskriminatzeko aukera. Arrisku horiei aurre egiteko, berdintasun-planak daude.
    - Lanean hasteko hainbat ibilbide ezartzen ditu, lanean hasiko den pertsonaren lanbide-profila kontuan hartuta.
    - Langile berriekin kontuan izan beharreko kontratu-irizpideak ezartzen ditu.
    - Langile berriekin kontuan izan beharreko ordainsari-irizpideak ezartzen ditu.
    - Prestakuntzarekin eta garapen profesionalarekin lotutako jarduketa-irizpideak ezartzen ditu lanean hasten diren langile berrientzat.
- Kontseilu Errektoreak onartu zuen, Kontseilu Sozialaren (langileen ordezkariaren) oniritziarekin.
- Kontseilu Sozialaren osoko bilkuraren aktan jasota dago.

Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Politika

- Hauekin lotuta dago: langileen osasuna babestearekin, istripuen prebentzioarekin, langileen osasuna eta ongizatea sustatzearekin eta lan-baldintza egokiekin.

- Segurtasuna eta Osasuna Gestionatzeko Sistemaren parte da. ISO 45001 arauak ziurtatzen du sistema, eta AENORek ikuskatzen du urtero.

- Eduki eta konpromiso nagusi hauek ditu:

    - Lanari lotutako arriskuak identifikatu, ebaluatu eta eraginkortasunez kontrolatzea, batetik langile guztien osasuna, segurtasuna eta ongizatea eta bestetik lantokiaren iraunkortasuna babesteko.

    - Osasuna sustatzen duten jarduerak garatzea, bizimodu osasungarriak ikusarazteko, jarduera fisikoari buruzko kultura sustatzeko eta harreman pertsonalak sustatzeko.

    - Langile guztiei informazioa eta prestakuntza ematea laneko arriskuei eta prebentziorako beharrezko neurriei buruz.

    - Enpresaren jardueran eta haren maila hierarkiko guztietan laneko segurtasun- eta osasun-irizpideak txertatzea, langileen prestakuntzaren eta trebakuntzaren bidez prebentzioaren kultura sustatzeko, eta horiei hobekuntzak identifikatzen parte hartzeko aukera ematea, lanpostuak gero eta seguruagoak eta erosoagoak izan daitezen.

    - Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikagarriak diren lege-betekizunak betetzea.

- Kontseilu Errektoreak onartu zuen, Segurtasun eta Osasun Batzordeak baliozkotu ondoren —bertan parekidea da osaera—.

Erakarpen, Hautapen eta Barne-mugikortasuneko Politika

- Guztiontzako tratu- eta aukera-berdintasunarekin lotuta dago (genero-berdintasuna, gaitasunen sustapena eta garapena…).

- Pertsonak erakartzeko eta atzitzeko jarduketa-irizpideak jorratzen ditu, hautapen-prozesuetarako prozedura eta tresnak ezartzen ditu, eta barne-mugikortasuna sustatzen du, bazkide guztientzako eskaintza publikoen bidez.

- Eduki nagusi hauek ditu:

    - Hautagaiak erakartzearekin, kanpo-hautapenarekin eta barne-mugikortasunarekin lotutako sistemak, prozesuak eta tresnak biltzen ditu: aliantzak unibertsitateekin, lankidetza kanpoko profesionalekin, sarean iragarkiak argitaratzea, hautapen-prozesuen faseak, hautaketa-prozesuetako probak eta abar.

- Berariaz jorratzen du aukera-berdintasuna.
- Esplizituki baztertzen du generoagatiko, arrazagatiko eta ideologiagatiko diskriminazioa.
- Berariaz sustatzen ditu dibertsitatea eta inklusioa.

- Pertsona guztiei eragiten die.
- Giza Baliabideen Batzordeak onartu du.
- Barne-araudia eta kanpoko lan-legeria errespetatzen ditu.

Ordainsari eta Balorazio Politika

- Hauekin dago lotuta: lan-baldintza egokiekin (soldata egokiak, elkarrizketa soziala…) eta tratu-berdintasunarekin (ordainsari bera balio eta prestakuntza berberak eta gaitasunen garapen bera behar duten lanen truke).
- Ordainketa-sistema orokorra jorratzen du, baita egoera espezifikoen tratamendua ere. Era berean, balorazio-prozedura eta balorazio horretan parte hartzen duten organoak ezartzen ditu, eta leku garrantzitsua ematen dio Kontseilu Sozialari (langileen ordezkaritzari).
- Eduki nagusi hauek ditu:
  - Ordainketa-sistemaren oinarriak: kontzeptu orokorrak, hornidura-aurrerakina, kontsumo-aurrerakina, aparteko ordainsariak, antzinatasun-plusa…
  - Egoera espezifikoen tratamendua: aparteko orduak, gaueko orduak, jaiegunetako orduak, lanpostu-aldaketak…
  - Balorazio-prozedurako organoak: Kontseilu Errektorea, zuzendari nagusia, Kontseilu Soziala eta Balorazio Batzordea.
  - Indizeak balioesteko eta esleitzeko prozedura.
- Bazkide guztiei eragiten die.
- Kontseilu Errektoreak onartu du, Kontseilu Sozialaren (langileen ordezkariaren) aldeko txostena jaso ondoren.
- Kooperatibaren Intranetean argitaratuta dago.

Barne Araudia

- Hauekin lotuta dago: lan-baldintza egokiekin (lan-denbora, elkarrizketa soziala, elkartzeko askatasuna, langileen ordezkaritza egotea, negoziazio kolektiboa, laneko kontziliazioa…) eta guztiontzako tratu- eta aukera-berdintasunarekin (ordainsari bera balio eta prestakuntza berberak eta gaitasunen garapen bera behar duten lanen truke).

- Gai hauek jorratzen ditu: langileen ordezkaritzaren (Kontseilu Sozialaren) osaera eta eskumenak, lanaldiak eta lan-ordutegiak, eszedentziak, bazkideen prestakuntza eta sustapena, eta grebaren erregulazioa.

- Eduki nagusi hauek ditu:

  - Kontseilu Sozialaren (langileen ordezkaritzaren) osaera eta eskumenak ezartzen dira.

  - Lanaldiak eta lan-ordutegiak arautzeko esparrua ezartzen da, baita jaiegunak, egun erabilgarriak eta oporrak ere.

  - Ordaindutako eta ordaindu gabeko baimenak ezartzen dira, lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egin ahal izateko.

  - Bazkideek har ditzaketen eszedentzia-motak arautzen dira.

  - Bazkideen prestakuntza eta lanbide-sustapena ahalbidetzeko eskakizunak arautzen dira.

  - Greba arautzen da.

  - Erregelamendua bat dator Estatuko eta nazioarteko legeriarekin.

  - Berariaz jorratzen da dibertsitatearen eta inklusioaren sustapena.

- Bazkide guztiei eragiten die.

- Batzar Nagusian onartzen da.

- Kooperatibaren Intranetean argitaratuta dago.

Alde batera utzi dira S1-1 AR 14 eta AR 17 a), b), c), d), e), f), g) eta h) eskakizunak, boluntarioak direlako CSRDaren arabera.

[S1-2] Lankidetza-prozesuak langileekin eta langileen ordezkariekin, ondorioei dagokienez

S1-1 apartatuan zehaztu denez, jarraian deskribatzen diren prozesuek materialtasun bikoitzeko prozesuan material gisa hautemandako azpiazpigai eta inpaktu guztiak hartzen dituzte barne, hau da:

- Ukitutako azpiazpigaiak:

  - Lan-baldintzak

  - Tratu- eta aukera-berdintasuna guztiontzat

- Ukitutako inpaktuak:

  - Plantillaren ongizateak okerrera egitea, lan-baldintza desegokien ondorioz. (Inpaktua)

- Plantillaren ongizateak hobera egitea, lan-baldintza egokien ondorioz. (Inpaktua)

- Generoak, jatorriak, arrazak, sexu-orientazioak edo beste alderdiren batek plantilla baldintzatzea. (Inpaktua)

- Langileen motibazioak eta produktibitateak behera egitea, generoak, jatorriak, arrazak, sexu-orientazioak edo beste alderdiren batek baldintzatzen dituela sentitzen dutelako. (Arriskua)

Kreditu-kooperatiba izanik, LABORAL Kutxaren jarduera soziala bi eremu osagarritan garatzen da:

⇨ Eremu instituzionala edo borondate soziala adieraztekoa, oinarrizko arauen, Batzar Nagusiaren eta Errekurtso Batzordearen bidez; azken horrek Batzar Nagusiaren ordezko organo gisa jardungo du oinarrizko arauek ezartzen dituzten funtzio batzuetan.

⇨ Gizarte- eta lan-harremanen eremua, edo pertsonak antolatzekoa eta norbanakoen eta taldeen interesak harmonizatzekoa, organo betearazle eta sozialen —Zuzendaritza Kontseilua, Kontseilu Soziala eta Kontseilu Errektorea— baterako jardunaren bidez.

Gizarte- eta lan-harremanen esparruan, beraz, langileek organo sozial bat dute beren esanetara: Kontseilu Soziala. Lan-bazkideek kooperatiban etengabe parte hartzeko organoa da. Lan-bazkideak barne-araubideko organoen aurrean ordezkatzen ditu, eta bazkide horien asmoen bozeramaile bihurtu da. Kontseilu Sozialeko kideak arduratzen dira beren ordezkatuen esparruan sortzen diren kezkak edo iradokizunak jaso, bideratu eta tratatzeaz.

Kezka edo iradokizun horiek langileen aldetik jasotzen dituzte zuzenean, edo aldizkako bileren bidez; horietan kontseilari sozialek jorratutako gaiak gainerako langileei helarazten dizkiete, eta haien beharrak entzuten dituzte.

Honako hauek dira Kontseilu Sozialaren oinarrizko eginkizunak: aholkularitza eta informazioa, negoziazioa eta kontrol soziala. Era berean, eta bere eskumenen esparruan, Kontseilu Sozialak ordezkatuentzat interesgarritzat jotzen dituen gaietan esku hartzen hasteko ahalmena izango du.

Prozesuan parte hartuko duten agenteak —Kontseilu Errektorea, Zuzendaritza Kontseilua eta Kontseilu Soziala— eta horien eginkizunak finkatzen dira, bai eta negoziatuko diren gaiak (ordainsaria, lan-denbora, mugigarritasun funtzionala, mugigarritasun geografikoa, gastuen konpentsazioa, prestakuntzarako laguntzak, laguntza asistentzialak…) eta urtero negoziatzen den prozedura bat ere.

Era berean, akordiorik gabeko egoeretarako jarduketa-mekanismoak ezartzen dira, eta lortutako akordioak betetzen ez direnerako ere bai.

Eta Caja Laboral Bancaseguros SLU (CLBS) sozietateari dagokionez —LABORAL Kutxaren partaidetzapekoa da % 100ean—, bertako langile guzti-guztiak inoren kontura daude kontratatuta, eta 2024an berritu zen hitzarmen kolektiboak eta lan-araudi orokorrak zehazten dituzte lan-baldintzak. Langileei zuzenean eragiten dieten lan- eta -lanbide-gaiak arautzen ditu hitzarmen horrek, eta lotura handia du LABORAL Kutxako lan-araudi eta -prozedurekin.

Ez dira jaso AR 25 eta AR 26 aplikazio-eskakizunak, boluntarioak direlako CSRDaren arabera.

[S1-3] Inpaktu negatiboak konpontzeko prozesuak eta langileek beren kezkak azaltzeko bideak

S1-1 apartatuan zehaztu denez, jarraian deskribatzen diren prozesuek materialtasun bikoitzeko prozesuan material gisa hautemandako azpiazpigai eta inpaktu guztiak hartzen dituzte barne, hau da:

- Ukitutako azpiazpigaiak:
  - Lan-baldintzak
  - Tratu- eta aukera-berdintasuna denontzat
- Ukitutako inpaktuak:
  - Plantillaren ongizateak okerrera egitea, lan-baldintza desegokien ondorioz. (Inpaktua)
  - Plantillaren ongizateak hobera egitea, lan-baldintza egokien ondorioz. (Inpaktua)
  - Generoak, jatorriak, arrazak, sexu-orientazioak edo beste alderdiren batek plantilla baldintzatzea. (Inpaktua)
  - Langileen motibazioak eta produktibitateak behera egitea, generoak, jatorriak, arrazak, sexu-orientazioak edo beste alderdiren batek baldintzatzen dituela sentitzen dutelako. (Arriskua)

Lan-baldintza egokiei eta guztiontzako tratu- eta aukera-berdintasunari dagokienez, Kontseilu Sozialak kontrol sozialaren funtzioa betetzen du; hartutako akordio eta erabaki guztiak kontrolatzen eta betetzen ditu, Zuzendaritzarekin batera akordio horiek ezartzen dituzten jarraipen-batzordeetan parte hartuz, eskuarki.

Zehazki, onartutako politikak eta neurriak betetzen direla zaintzen du, lan-harremanak, partaidetza-sistemak eta gizarte- eta lan-kolektiboari informazio egoki eta nahikoa emateko bideak etengabe hobetzeko helburuarekin.

Horrez gain, Kontseilu Sozialak erabaki hauek har ditzake lan-harreman egokien eta guztiontzako tratu- eta aukera-berdintasunaren esparruan:

- Laneko faltek eragindako diziplina-espedienteen gaineko errekurtsoak ebaztea, kanporatze-kasuetan izan ezik, erruztatutako bazkideak kasuan kasuko errekurtsoa aurkeztu ondoren.

- Betetzeko geratu den zehapenaren zatia edo iraganeko zehapenen idatzoharrak ezereztea, kanporatze-kasuetan izan ezik, interesdunak hala eskatuta, bere ustez dagoeneko birgaituta dauden bazkideen kasuan.

- Lan-bazkideei borondatezko eszedentziak emateko baldintza orokorrak erraztea eta horien inguruan sortzen diren gorabeherak konpontzea.

- Zuzendari nagusiak, Balorazio Batzordeak proposatuta, egiturazko indizeei buruz aurkeztutako balorazioak berrestea.

- Egiturazko balorazioen inguruan ezar litezkeen baliabide pertsonalei buruzko erabakiak hartzea, erabilitako balorazio-irizpideetan oinarrituta.

Azkenik, adierazi behar da LABORAL Kutxaren web korporatiboaren hasierako orrialdean URL esteka bat sartu dela, Salaketen Kanala izenekoa, EQS Integrity Line tresnaren bidez Barneko Informazio Sistemara sartu ahal izateko. Kanal horrek hainbat motatako salaketak aurkezteko aukera ematen du, laneko gorabeheren ondoriozkoak barne, eta datu-base bat sorrarazten du, jasotako salaketa guztiak eta salaketa horien inguruan hartzen diren erabakiak eta/edo ekintzak erregistratzeko. Etika Batzordeak tresna hori erabiliko du bere eginkizunen garapena antolatzeko eta dokumentatzeko.

Era berean, Seguros Lagun Aroren web korporatiboaren hasierako orrialdean ere URL esteka bat jarri da, Salaketen Kanala izenarekin. Esteka horri esker, Barneko Informazio Sistemara sar daiteke, LABORAL Kutxaren tresna beraren bidez, eta kasu honetan ere Aseguru Entitatearen Etika Batzordeak kudeatzen du.

Ez dira jaso AR 29 eta AR 30 aplikazio-eskakizunak, boluntarioak direlako CSRDaren arabera.

[S1-4] [MDR-A] Langile propioei eragiten dieten inpaktu materialen gainean neurriak hartzea, eta arrisku materialak kudeatzeko eta neurri horiekin lotutako aukera materialak eta eraginkortasuna aprobetxatzeko ikuspegiak

Hauek dira langile propioen gaineko inpaktuak, arriskuak eta aukerak:

- Plantillaren ongizateak okerrera egitea, lan-baldintza desegokien ondorioz. (Inpaktua)
- Plantillaren ongizateak hobera egitea, lan-baldintza egokien ondorioz. (Inpaktua)
- Generoak, jatorriak, arrazak, sexu-orientazioak edo beste alderdiren batek plantilla baldintzatzea. (Inpaktua)
- Langileen motibazioak eta produktibitateak behera egitea, generoak, jatorriak, arrazak, sexu-orientazioak edo beste alderdiren batek baldintzatzen dituela sentitzen dutelako. (Arriskua)

Neurri hauek hatu dira:

Arrisku psikosozialak

- Langile propioen arrisku psikosozialen ebaluazioa egin da. Ebaluazioa kanpoko enpresa batek egin zuen, bi fasetan: kuantitatiboa eta kualitatiboa.

Kultura korporatiboari buruzko diagnostikoa

2025ean, kultura korporatiboari buruzko beste inkesta bat egingo da, langileek kulturaren arloko elementuei edo palankei buruz zer iritzi duten jakiteko. Inkesta hori Zentzua asmoari buruzko gogoetarekin lerrokatu da, kooperatiban kultura nagusia zein den eta zein izatea gustatuko litzaigukeen jakiteko, Zentzuaren arabera. Inkestari esker, langileen egoeraren irudi bat lor dezakegu. Datuak aztertu eta ondorioak atera ondoren, 2026ko gestio-planetan beharrezko lan-ildoak sartuko dira, lerrokatu gabe dauden eremuetan.

Inoren konturako langileen ehunekoa % 20tik beherakoa da LABORAL Kutxan

- Neurri honen helburua da inoren konturako langileen ehunekoa legeriak ezartzen duen muga baino nabarmen txikiagoa izatea. Kontratazio-politikan ezarritako helburua da.

[S1-5] [MDR-T] Inpaktu material negatiboen kudeaketarekin, inpaktu positiboen sustapenarekin eta arrisku eta aukera materialen kudeaketarekin lotutako helburuak

Arrisku psikosozialak

- Arrisku psikosozialen prebentzioari buruzko prestakuntza egitea psikologoekin. Horretarako, enpresa osasuntsuaren Zainduz programa erabiliko da.

- Bezeroekiko egoera zailak kudeatzeari buruzko prestakuntza egitea Stimuluseko adituekin.

Kultura korporatiboari buruzko diagnostikoa

- Datuak aztertu ondoren ezarriko dira helburuak.

Inoren konturako langileen ehunekoa % 20tik beherakoa da LABORAL Kutxan

Ehunekoa hilean behin neurtuko da, eta urtero deskargua egingo zaio Kontseilu Sozialari (langileen ordezkariari).

[S1-6] Taldeko langileen ezaugarriak

Hurrengo tauletan, generoa emakumeen eta gizonen artean bakarrik banatzen da. Izan ere, NANeko informazioa bakarrik erregistratu da.

1. taula. Langileak guztira, generoaren arabera 2024-12-31n

Pertsona-kopurua	Emakumeak	Gizonak	Guztira
	1.303	**1.085**	**2.388**

Ez dira herrialdearen arabera banakatu, langile guztiak Espainian daudelako.

2. taula. Langile-mota 2024-12-31n

	2024		
Kontratu-mota	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Langile-kopurua	1.303	1.085	2.388
Langile mugagabeen kopurua	1.138	974	2.112
Iraupen mugatuko langileen kopurua	165	111	276
Bermatu gabeko lanorduak dituzten iraupen mugatuko langileen kopurua	0	0	0
Lanaldi osoko langileen kopurua	1.242	1.076	2.318
Lanaldi partzialeko langileen kopurua	61	9	70

3. taula. Langileen guztizko kopurua eta banaketa, sexuaren, adinaren eta lanbide-sailkapenaren arabera 2024-12-31n

LANGILEAK	2024		2023	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Banaketa sexuaren arabera	**1.303**	**1.085**	**1.245**	**1.064**
Banaketa adinaren arabera	**1.303**	**1.085**	**1.245**	**1.064**
30 urtetik beherakoak	183	154	136	136
30 eta 50 urte artekoak	605	416	634	441
50 urtetik gorakoak	515	515	475	487
Banaketa lanbide-sailkapenaren arabera	**1.303**	**1.085**	**1.245**	**1.064**
Zuzendariak	14	38	14	34
Buruak	147	239	144	247
Teknikariak	779	600	748	577
Administrariak	363	208	339	206
LANGILEAK GUZTIRA	**2.388**		**2.309**	

11/2018 Legea betetzeko eman den informazioa.

4. taula. Lan-kontratuen guztizko kopurua eta motaren araberako banaketa 2024-12-31n

LANGILEAK	2024		2023	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Banaketa lan-kontratuen motaren arabera	**1.303**	**1.085**	**1.245**	**1.064**
Iraupen mugatuko langilea_ Lanaldi osoa	164	109	171	150
Iraupen mugatuko langilea_ Lanaldi partziala	1	2	3	1
Langile mugagabea_ Lanaldi osoa	1063	966	990	905
Langile mugagabea_ Lanaldi partziala	75	8	81	8
LANGILEAK GUZTIRA	**2.388**		**2.309**	

11/2018 Legea betetzeko eman den informazioa.

	2024									
	Emakumeak					Gizonak				
	Iraupen mugatukoak		Mugagabeak		Guzti-ra	Iraupen mugatukoak		Mugagabeak		Guzti-ra
URTEKO BATEZBESTEKOA	Lanaldi osoa	Lanaldi partziala	Lanaldi osoa	Lanaldi partziala		Lanaldi osoa	Lanaldi partziala	Lanaldi osoa	Lanaldi partziala	
Banaketa adinaren arabera	**164**	**1**	**1.063**	**75**	**1.303**	**109**	**2**	**966**	**8**	**1085**
30 urtetik beherakoak	137	1	45	0	183	94	2	58	0	154
30 eta 50 urte artekoak	27	0	515	63	605	15	0	395	6	416
50 urtetik gorakoak	0	0	503	12	515	0	0	513	2	515
Banaketa lanbide-sailkapenaren arabera	**164**	**1**	**1.063**	**75**	**1.303**	**109**	**2**	**966**	**8**	**1085**
Zuzendariak	0	0	14	0	14	0	0	38	0	38
Buruak	0	0	147	0	147	0	0	239	0	239
Teknikariak	48	0	680	51	779	46	1	548	5	600
Administrariak	116	1	222	24	363	63	1	141	3	208

11/2018 Legea betetzeko eman den informazioa.
2024an, plantillak 2.344 langile zituen batez beste (2023an, 2.093). Batezbestekoak ez dira sexuaren, adinaren eta lanbide-sailkapenaren arabera banakatzen, ez baitago langileen gorabehera esanguratsurik ekitaldiaren itxieraren eta urteko batezbestekoaren artean.

5. taula. Langileen errotazio-tasa

	Pertsona-kopurua
Borondatezko baja	21
Borondatezko eszedentzia	1
Erretiroa	29
Guztizko orokorra	**51**

Errotazio-tasa 51/2388 = % 2

Kontuan hartzen ditugu erretiroak (aisialdian zeudenak izan ezik), borondatezko bajak (borondatezko eszedentzian zeudenak izan ezik) eta borondatezko eszedentziak. Ez ditugu kontuan hartzen bestelako eszedentziak, ezta kontratu-amaierak ere.

2023an eta 2024an ez da kaleratzerik izan Taldeko konpainietan.

[S1-7] Enpresako plantillan soldatakoak ez diren langileen ezaugarriak

Entitateak, CSRD araudiaren C[3] eranskinaren arabera, dibulgazio-baldintza honetako datu guztien informazioa gorde du bere jasangarritasunaren egoera-orria egin duen lehenengo urtean.

[S1-8] Negoziazio kolektiboaren eta elkarrizketa sozialaren estaldura

LABORAL Kutxako langile guztien lan-baldintzak Zuzendaritzak eta Langileen Ordezkaritzak hartutako erabakien bidez zehazten dira.

Kooperatiban, S1-2 apartatuan azaldu den negoziazio kolektiborako prozedura erabiltzen da, eta aseguru-konpainietan hitzarmen kolektibo bana dago, Zuzendaritzaren eta dagozkion enpresa-batzordeen artean negoziatu eta adostutakoak.

Negoziazio kolektiboa harreman soziolaboralen esparruan kokatzen da, eta aipatutako hiru organoei dagokie Negoziazio Kolektiboari buruzko Barne Araudian zehaztutako gaiei buruz negoziatzea. Negoziazio Kolektiboaren esparruko jarduna amaitu eta kasuan kasuko interes-gatazka konpondu ez bada, kidego sozialak esparru instituzionalean jardun ahal izango du.

Beraz, aipatutako barne-araudiak arautzen du bazkideen lan-baldintzak ezartzen dituen negoziazio kolektiboaren prozesua, baita baldintza horien aplikazioa bermatzen duten berme sozialak ere.

Aseguru-sozietateei dagokienez, Seguros Lagun Arok harreman ona du langileen legezko ordezkaritzarekin. 2022an, estatutuaren araberako hitzarmen berria negoziatu zen 2022-2025 aldirako.

Taldeak ez du akordiorik bere langileekin Europako Enpresa Batzorde batek ordezkatzeko.

[3] Enpresak dibulgazio-baldintza honetako datu guztien informazioa gorde ahal izango du bere jasangarritasunaren egoera-orria egiten duen lehenengo urtean.

8. taula. Negoziazio kolektiboaren eta elkarrizketa sozialaren estaldura 2024an

Estalduraren ehunekoa	Caja Laboral Coop. de Crédito[1]	Seguros Lagun Aro SA	Caja Laboral Bancaseguros SA
% 0-19			
% 20-39			
% 40-59			
% 60-79			
% 80-100	X	X	X

([1]) Lan-arauak ditu, eta langileen % 90 bazkideak dira.

[S1-9] Dibertsitatearen neurketa

9. taula. Dibertsitatea

Goi-zuzendaritza[1]	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Banaketa kopuruaren arabera	3	7	10
Banaketa ehunekoaren arabera	% 30	% 70	% 0,42

[1] Goi-zuzendaritzan sozietate nagusia bakarrik hartzen da kontuan.

Soldatakoak	Emakumeak	Gizonak	Guztira
< 30 urtekoak	183	154	337
	% 54	% 46	% 14
30 eta 50 urte artekoak	605	416	1.021
	% 59	% 41	% 43
> 50 urtekoak	515	515	1.030
	% 50	% 50	% 43
Guztira	**1.303**	**1.085**	**2.388**
	% 55	**% 45**	**% 100**

[S1-10] Soldata egokiak

Espainian, lanbide arteko gutxieneko soldata hilean 1.134 € gordinetan finkatu zen 2024an, 14 ordainsaritan.

LABORAL Kutxako soldatarik baxuena 1. indizeari dagokio: 1.446,37 € gordin hilean, 14 ordainsaritan.

SLAko soldatarik baxuena 7B-A1 mailari dagokio: 1.570,75 € gordin hilean, 14 ordainsaritan.

CLBSko soldatarik baxuena 1. indizeari dagokio: 1.446,37 € gordin hilean, 14 ordainsaritan.

Hurrengo taulan, Zuzendaritza Kontseiluko eta Kontseilu Errektoreko kideek (presidentea barne) lan-bazkide gisa egiten duten lanagatik jasotzen dituzten ordainsariak ageri dira.

10. taula. Kontseiluko eta goi-zuzendaritzako kideen ordainsariak (11/2018 Legearen eskakizuna)

LK kontzeptua (mila eurokotan)	2023	2024
Lanagatik jasotzen duten ordainsaria (Kontseilu Errektoreko 4 kidek)[1]	535	405
Zuzendaritza Kontseiluko kideen ordainsaria (2024an 10 ziren, eta 2023an 9)	1.497	1.616
Guztira	2.032	2.021
Pertsonako batez besteko ordainsaria (2024an 14 ziren, eta 2023an 13)	156,3	144,4

Ordainsari horrez gain, Kontseilu Errektoreko kideei bertaratzeagatiko dietak ordaintzen zaizkie, presidenteari salbu: 95.000 € 2024ko ekitaldian, eta 93.000 € 2023ko ekitaldian.

Kontseiluko kideek batez beste jasotakoa Sexuaren arabera	2024	2023
Emakumeak	6.495	8.022
Gizonak	5.409	5.216

Kontseiluko kideek dietatan jasotako guztia kalkulatzeko, 2023an eta 2024an Kontseiluko kide izan diren pertsona guztiak hartu dira kontuan.

Zuzendaritza Kontseiluko kideen batez besteko ordainsaria Sexuaren arabera	2024	2023
Emakumeak	147.408,7	128.756
Gizonak	170.544,4	157.753
Guztira	**163.603,7**	**148.088**

Goi-zuzendaritzako kideen batez besteko ordainsaria kalkulatzeko, sozietate nagusia bakarrik hartu da aintzat; LABORAL Kutxa, alegia: 10 pertsona dira guztira, presidentea barne. 2023an 9 pertsona izan ziren.
Entitate Nagusiari buruzko informazioa bakarrik eman da.

11. taula. Langileen ordainsariak (11/2018 Legearen eskakizuna)

Batez besteko ordainsariak Sexuaren arabera	2024	2023
Emakumeak	49.034	46.602
Gizonak	56.238	52.861

	2024		2023	
Adinaren arabera	**Emakumeak**	**Gizonak**	**Emakumeak**	**Gizonak**
< 30 urtekoak	26.498	30.614	23.743	25.051
30 eta 50 urte artekoak	47.216	59.710	46.615	51.936
> 50 urtekoak	53.484	66.789	53.130	61.464
Lanbide-kategoriaren arabera	**Emakumeak**	**Gizonak**	**Emakumeak**	**Gizonak**
Zuzendariak	112.959	102.670	95.266	104.986
Buruak	72.466	73.451	65.779	67.754
Teknikariak	48.382	53.992	47.158	49.878
Administrariak	30.400	48.552	35.221	34.754

[S1-11] Gizarte-babesa

LABORAL Kutxako langile guztiek gizarte-babesa dute, Gizarte Segurantzaren bidez. Lanbazkideek Langile Autonomoen Araubidean kotizatzen dute, eta Inoren Konturako Langileek, berriz, Araubide Orokorrean.

Hori dela eta, langileak babestuta daude bizitzako gertakari garrantzitsuen aurrean: gaixotasuna, langabezia, lan-istripuak eta baliaezintasuna, adibidez. Era berean, langile propio guztiek guraso-baimenak eta erretiro-pentsioa jasotzeko eskubidea dute.

Lan-denboraren antolaketari dagokionez:

Kontziliazio-neurriak

Barne-araudiak familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurriak ditu jasota. Horri esker, langileek familiarekiko ezinbesteko betebeharrak bete ahal izango dituzte, berariazko baimen edo lizentzien bidez. Zenbait alderdi jasotzen dituzte: lan-ordutegia, lan ez-presentziala, ordaindutako eta ordaindu gabeko baimenak, Zerbitzu Zentraletako ordutegi-malgutasuna eta ordaindutako eta ordaindu gabeko baimenak hartzeko aukerak handitzea.

Lanaldi malgua

Zerbitzu Zentraletan (Egoitza Nagusian eta Lurralde Zuzendaritzetan) lan egiten duten pertsonak ordutegi malguko sistemara bil daitezke. 2019tik, kontziliazioa errazteko eta gurasotasun erantzunkidea sustatzeko, plantilla horrek ordutegi-malgutasuna du. Hala, hileko lanorduak zenbatzen dira, eguneko gutxienekoa 5,15 orduan finkatuta dago eta sarrera- eta irteera-ordutegia malgua da. Orobat, 12 urtez beherako seme-alabak edo mendeko pertsonak (adinagatik edo gaixotasunagatik) dituzten bazkideak beranduago sartu ahal izango dira lanera; beranduenez, 09:30ean. Horretarako, baina, eskaera egin beharko dute aldez aurretik, eta onartu egin beharko zaie.

Bestalde, 2022an lan malguari buruzko akordio berria jarri zen martxan. Horren arabera, Zerbitzu Zentraletako eta Lurralde Zuzendaritzetako plantillak lan malguko egun bat edo bi izango dituzte, haien bizilekuaren distantziaren arabera: egun bat, lantokitik 25 kilometro baino gutxiagora bizi badira, eta bi egun, lantokitik 25 kilometro baino gehiagora bizi badira. Sukurtsaletan, berriz, urtean 10 egunetan lan malgua egin ahal izango dute.

Bestalde, gaur egun ez dago lan-deskonexioari buruzko politikarik abian.

[S1-12] Desgaitasuna duten pertsonak

12. taula. Desgaitasuna duten pertsonak

Taldean 2024-12-31n desgaitasuna duten pertsonen kopurua da

Desgaitasuna duten pertsonen kopurua	Emakumeak	Gizonak	Guztira 2024
% 33 eta % 65 arteko mailakoa, laguntzekin		1	1
% 33 eta % 65 arteko mailakoa	9	15	24
% 65eko edo hortik gorako mailakoa		2	2
Guztira	**9**	**18**	**27**

2024an, plantillaren % 1,1 dira desgaitasuna dutenak.

2023an, 26 izan ziren, plantillaren % 1,1.

[S1-13] Prestakuntzaren eta gaitasunak garatzearen neurketa

Pertsonen prestakuntza, trebakuntza eta gaitasunen garapena oinarri estrategiko bat dira Entitatearentzat. 2024rako Prestakuntza Planak prestakuntzarako gidalerro eta programa nagusiak jasotzen ditu.

Prestakuntza Planaren helburu nagusia da pertsonak beharrezko ezagutza eta trebetasunetan gaitzen jarraitzea, negozioaren *core* arrakasta bermatzeko, ariketa hauen bidez:

- Trebakuntza-programa estrategikoak: aseguruak, merkataritza, balantzetik kanpoko negozioa, merkataritza-trebetasunak.
- Prestakuntza espezializatuko programak negozioaren eremu guztietan eta arau-eskakizunetan.
- Arauei buruzko prestakuntza: egiaztapenak eta eguneratzeko etengabeko prestakuntza.
- Prestakuntza eta hezkuntza kooperatiborako programak.

Eta Entitatea eraldatzea ahalbidetuko duten prestakuntza-ekimenekin jarraitzea, gero eta digitalagoa eta aldakorragoa den ingurune honetan etorkizunerako beharrezko gaitasunak garatuz: trebetasun digitalak, *data analytics*, segurtasun digitala, adimen artifiziala (AA), metodologia arinak…

Hori guztia erakundearen ikaskuntza-eredu arin eta dinamikoago baterantz aurrera eginez; izan ere, pertsonok gai izan behar dugu une bakoitzean eskatzen zaizkigun gaitasun berrietara egokitzeko, eta ikasitako guztia gure lan-jarduerara eta negoziora transferitu ahal izateko.

Bestalde, Plana talde-ikuspegiarekin jorratu da, eta, beraz, Seguros Lagun Aroko langileak txertatu dira zeharkako ekintzetan, elkarrekin egindako prestakuntza-beharren diagnostikoaren arabera.

2024ko Prestakuntza Planean jasotakoari jarraituz, eta urtean zehar jasotako prestakuntza-eskaerak gehituz, honako hauek dira prestakuntza-orduei buruzko datuak, soldatako bakoitzaren eta generoaren arabera:

13. taula. Prestakuntza

Prestakuntza-orduak, batez beste, generoaren arabera	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Batez besteko orduak*	47,89	38,62	86,51

**Batez besteko orduak kalkulatzeko, langileen batez besteko plantillak 2024an egindako ordu guztiak hartu dira kontuan, sexuaren arabera banatuta.*

Prestakuntza-orduak, lan-kategoriaren eta generoaren arabera	2024			2023		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Zuzendariak	3.168	1.363	4.531	2.243	594	2.837
Buruak	19.660	12.232	31.892	17.320	10.458	27.778
Teknikariak	51.481	68.958	120.440	47.602	62.758	110.361
Administrariak	20.888	35.496	56.385	20.039	27.796	47.834
Guztira	**95.197**	**118.050**	**213.247**	**87.204**	**101.606**	**188.810**

11/2018 Legea betetzeko eman den informazioa.

Garapen profesional eta pertsonalari dagokionez, LABORAL Kutxak ONENAK BIDEAN izeneko sistema du, LABORAL Kutxako merkataritza-sare osoari zuzendua.

Sistema horrek nabarmen errazten du sarea osatzen duten pertsonen lan-jardunaren bilakaera, homogeneotasunez eta bikaintasun komertzialaren ereduaren esparruan sustatu nahi diren merkataritza- eta zuzendaritza-rolekin eta dinamikekin bat etorriz.

2024an, hauek izan dira Onenak Bidean sisteman parte hartu duten pertsonak:

Jarduna ebaluatzeko prozesu osoa **1.320** langilek egin dute; hau da, langile guztien **% 55,3**k (lan-jardunaren ebaluazioak merkataritza-sareak egiten ditu).

[S1-14] Osasunaren eta segurtasunaren neurketa

LABORAL Kutxak laneko segurtasuna eta osasuna (LSO) gestionatzeko sistema bat du; ISO 45001 araua betetzen du eta AENORek egiaztatu du. LABORAL Kutxa Osarten Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuko kidea da. 2024an, hurrengo hiru urteetarako berritu da ziurtagiri hori. Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Politikak jasotako helburuak lortzeko, LSOko Gestio Planaren jarduerak planifikatzen dira urtero. Gestio Sistemaren barruan, prozedura hauek daude, besteak beste: arriskubideak identifikatu eta arriskuak ebaluatzekoak, istripuak ikertzekoak eta osasuna zaintzekoak.

Segurtasun eta Osasun Batzordea parekidea da, eta Pertsona eta Baliabideen Areako zuzendariak eta enpresako medikuak ere hartzen dute parte. Batzordeburua langileen ordezkarietako bat da (prebentzio-ordezkaria). Batzordeak 3 hiletik behin egiten du gutxienez bilera, eta bertan jorratutako guztia aktetan jasotzen da, geroago Giltzaneten (intranetean) pertsona guztien eskura jartzeko. Pertsona guztiak daude Batzorde horren jardueraren eraginpean.

Pertsonak hartzeko prozesuaren barruan, laneko segurtasunaren eta osasunaren alorreko prestakuntza-modulu bat dago. Sistemaren antolamendua azaltzen da bertan, bai eta arrisku nagusiak eta prebenitzeko portaerak ere.

2024. urtean, 2 orduko nahitaezko prestakuntza bat ezarri zen, Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko langile guztientzat. Oinarrizko prestakuntza-modulu hori partaide berrientzako hasierako prestakuntzan sartu da harrezkero. Era berean, aldian behingo arriskuen ebaluazioan eta mediku-azterketetan, prestakuntza ematen da ergonomiaz, arrisku orokor zein berariazkoez eta ebakuazio-planez.

Lagun Arok bere Gestio Sistema du, hain zuzen ere arriskuak identifikatu eta ebaluatzeko, istripuak ikertzeko eta osasuna zaintzeko LABORAL Kutxaren antzeko prozedurekin. Sistemak plantilla osoa estaltzen du, langileen ordezkariak biltzen dituen Segurtasuneko eta Osasuneko Batzorde Parekidearen bidez.

Lan-istripuei buruzko datuak generoaren arabera[1]	2024			2023		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Langile propioen lan-istripu erregistragarriak	18	15	33	16	18	34
Maiztasun-indizea[2]	5,869	1,173	3,976	1,019	1,019	2,038
Larritasun-indizea[3-4]	0,218	0,049	0,141	0,194	0,838	0,491

[1] 11/2018 Legearen eskakizun esplizituak betetzeko emandako informazioa.
*[2] Maiztasun-indizea: (baja eragin duten istripuen kopurua / lan egindako orduen kopurua)*10[6]*
Lan egindako orduen kopurua: langile-kopurua 1.700 ordu.*
*[3] Larritasun-indizea: (galdutako lanaldi-kopurua * 100) / lan egindako orduen kopurua.*
[4] Galdutako lanaldi-kopurua 2023rako zenbatetsi da, eta kalkulua egin ahal izateko estimazio hau egin da: absentismo-orduak guztira / 8 ordu.

Segurtasunaren eta osasunaren neurketa	Emakumeak	Gizonak
Legezko betekizunetan eta (edo) aitortutako arau edo gidalerroetan oinarrituko osasuna eta segurtasuna gestionatzeko sistema batek estalitako langile propioen ehunekoa	% 100	
Lanarekin lotutako lesio eta gaixotasunen ondorioz plantillan hildakoen kopurua	0	
Entitatearen instalazioetan lan egiten duten beste langile batzuen lanarekin lotutako lesioen eta gaixotasunen ondorioz hildakoen kopurua	0	
Langile propioen lan-istripu erregistragarrien kopurua	18	15
Langile propioen lan-istripu erregistragarrien indizea Maiztasun-indizea	5,803	1,173
Larritasun-indizea	0,277	0,051
Laneko osasun txarreko kasu erregistragarrien kopurua langileen artean	0	
Lanarekin lotutako lesioengatik eta lan-istripuen ondoriozko heriotzengatik, lanarekin lotutako gaixotasunengatik eta langileekin lotutako gaixotasunen ondoriozko heriotzengatik galdutako egunen kopurua	540	83
Legezko betekizunetan eta (edo) aitortutako arau edo gidalerroetan oinarrituko osasuna eta segurtasuna gestionatzeko sistema batek estalitako langile propioen ehunekoa, barnean ikuskatu dena eta (edo) kanpoko alderdi batek ikuskatu edo ziurtatu duena	% 100	
Langile propio ohien artean hautemandako lan-osasun txarreko kasu erregistragarrien kopurua	0	
Absentismo-orduen kopurua	150.950	67.636

[S1-15] Kontziliazioaren neurketa

LABORAL Kutxako langile guztiek eskubidea dute familia-arrazoiengatiko eszedentzia eta familia-arrazoiengatiko baimenak hartzeko.

Jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimenak (2024an aitatasun- eta amatasun-baimena jaso duten pertsonak):

Jaiotzagatiko eta adingabeak zaintzeagatiko baimenak	Pertsona-kopurua	Pertsonen ehunekoa
Emakumeak	22	% 1,7
Gizonak	27	% 2,5

[S1-16] Ordainsarien neurketa (soldata-desberdintasuna eta guztizko ordainsaria) – orokorra

Gizon eta emakumeen arteko soldata-desberdintasunak; soldata-arrakala.

	2024	2023
Urteko arrakala*	% 12,89	% 11,84

(*) Urteko soldata-arrakala kalkulatzeko, gizonen ordainsariaren batezbestekoari emakumeena kentzen zaio, eta gizonen ordainsariarekin zatitu. Asmoa ez da soldatakoen orduko batez besteko soldata kalkulatzea, CSRDk adierazten duen bezala; izan ere, lan egindako orduak ez dira balioesten lanaldi-motaren arabera.

Soldatarik handiena duen pertsonaren urteko ordainsari osoaren eta soldatako guztien urteko batez besteko ordainsari osoaren arteko erlazioa (ordainsaririk handiena duen pertsona kenduta).

Urteko ordainsarien guztizkoa (%-a)	4,39

Metodologia: batezbestekoa kalkulatzeko, pertsona bakoitzak urtean zehar jasotako guztizko ordainsaria hartu da kontuan, lan egindako urteko egun guztien kopurua edo lanaldiaren ehunekoa kontuan hartu gabe.

[S1-17] Giza eskubideen alorreko intzidenteak, kexak eta inpaktu larriak – orokorra

SBM-2 eta S1-3 sistemetan, gaur egun ditugun salaketa-kanalak deskribatu dira. 2023an eta 2024an 13 jakinarazpen jaso ziren; horietatik 3 bakarrik onartu ziren izapidetzeko, eta zehapenik gabe ebatzi ziren. 2023an eta 2024an ez da salaketarik edo kontsultarik jaso Lagun Aroren kanalean.

Gainera, 2023an eta 2024an langileen artean ez da hauteman laneko intzidente edo erreklamaziorik, ezta giza eskubideekin lotutako gorabehera larririk edo garrantzi erlatiboko isun, zehapen edo konpentsaziorik ere.

ESRS S2-Balio-kateko langileak

[SBM-2] Alderdi interesdunen interesak eta iritziak

Informazio hori ESRS2-SBM2 apartatuan deskribatuta dago.

[SBM-3] Inpaktu materialak, arriskuak eta aukerak, eta negozio-estrategiarekin eta -ereduarekin duten interakzioa

Balio-kateko langileen azpigaiarekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko prozesua LABORAL Kutxa Taldearen (LKTren) barne- eta kanpo-analisi batean oinarritu da. Bertan, balio-kateko langileen azpigaia osatzen duten azpiazpigaiak aztertu dira: lan-baldintzak, guztiontzako tratu- eta aukera-berdintasuna eta laneko beste eskubide batzuk. Horretarako,Taldearen berezko eragiketak eta balio-katearenak hartu dira kontuan.

Barne-analisian, jasangarritasunarekin lotura duten LKTren barneko 12 dokumentu ebaluatu dira. Kanpo-analisian, berriz, 5 elementu hartu dira kontuan: merkatu-joerak, araudi-azterketa, lehiakideen *benchmark*a, adituak eta analistak, eta inpaktua balio-katean. Lehenago azaldu dugunez, prozesuaren barruan kontsulta egin zaie interes-taldeei.

Elementu horiek guztiak ebaluatu ondoren, balio-kateko langileak azpigaiaren barruko azpiazpigaietako bat ere ez da materialtzat jo LKTrentzat.

11/2018 Legearen arabera eskatutako informazioa

LABORAL Kutxak jakin badaki hornidura-katearen gestioa kontu garrantzitsua dela jasangarritasunaren alorrean. Horregatik, aurrera egin du arlo horretan aplikagarri zaion araudia egokitzen; besteak beste, hornitzaileekin lan egiteak eta zerbitzuak kanporatzeak ekar dezaketen arriskuak gestionatzeko helburua du. 2021ean, Zerbitzuak Eskuordetzeko Politika eguneratzea onartu zen (kanporatze-politika ere deitua). Gainera, sekzio-mailako antolakuntza-unitate bat eratu zen, Hirugarrenen Gestioa izenekoa, eta hornitzaileen gestioa zentralizatzeaz eta gauzatzeaz arduratzen da, politika hori ezarri ahal izateko. Politika hori 2024an eguneratu eta onartu da berriro.

2023an, LABORAL Kutxa Taldearen Erosketa Jasangarrien Politika berria onartu zuen Kontseilu Errektoreak. Besteak beste, politika horrek erosketa-prozesua etengabe hobetzeko dinamika bat ezarri nahi du, jasangarritasun-printzipioetan oinarrituta, eta ESG irizpideak txertatu gure hornitzaileak hautatzeko erabakiak hartzerakoan.

2024an, Zerbitzuak Eskuordetzeko Politika eguneratzeaz gain, Hirugarrenen Gestioa sekzioak gero eta enpresa hornitzaile gehiago aztertzen jarraitu du, aipatutako politiketan ezarritakoari jarraituz. Ildo horretan, hornitzaileekin harremanetan jartzeko erabilitako ereduak eta eskura dauden tresnak eguneratu ditu. Erabilitako ereduen artean, honako hauek daude:

- LABORAL Kutxaren Kode Etikoa. Hornitzaileek sinatu behar dute. Baten batek ez badu sinatzen, haren kode etikoa eskatuko zaio, LABORAL Kutxak bere estandarrekin bat egiten duela egiazta dezan.

- Hornitzaileari informazioa eskatzea. Hornitzaileak homologatzeko tresna bat da. Jasangarritasunari buruzko hiru atal espezifiko ditu.

- Zerbitzuaren ezaugarriak. Egin beharreko kontratazioarekin lotutako azpikontratazioak edo arriskuak —adibidez, nondik ematen den zerbitzua— identifikatzera bideratuta dago.

Hiru elementu horien bidez identifikatzen eta gestionatzen dira hornitzaileen ondoriozko arriskuak. Izan ere, behin erantzuna jaso ondoren, identifikatutako arriskuen ardura duten departamentuek dokumentu horiek aztertzen dituzte, eta, behar izanez gero, arriskuak arintzeko ekintzak ezartzen dituzte, kontratazioa onartu ahal izateko.

Galde-sorta horiek guztiak hornitzaile bakoitzari bidaltzen zaizkio zerbitzu berri bat kontratatu edo lehengo bat berritzen den bakoitzean. Hornitzaile zaharrei ere bidaltzen zaizkie, zerbitzua berritzen ez bada ere, hornitzaile guztiei buruzko ahalik eta informazio gehien lortze aldera.

Enpresa hornitzaileak kudeatzeko proiektuan, kanal bat (helbide elektroniko bat) gaitu da, enpresa hornitzaileek aukera izan dezaten gurekin harremanetan jarri eta zalantzak argitu edo salaketa nahiz kezka guztiak helarazteko.

2024an zehar hornitzaile batzuen berrebaluazioa egin dugu, arauzko eskakizun berrietara egokitzeko.

Gure jarduera finantzarioa denez eta oso lurralde-eremu zehatzean dugunez presentzia, azpikontratak eta hornitzaileak gestionatzearen arriskuek ez dute garrantzi erlatiborik. 2023an eta 2024an ez zaie auditoretzarik egin hornitzaileei.

ESRS S3-Ukitutako komunitateak

[SBM-3] Inpaktu materialak, arriskuak eta aukerak, eta negozio-estrategiarekin eta -ereduarekin duten interakzioa

LABORAL Kutxaren finantza- eta aseguru-jarduerak gizartean eragina badu ere, ukitutako kolektiboen azpigaian jorratutako azpiazpigaiak ez direla garrantzitsuak ondorioztatzen da ESRS2 apartatuan gai materialak eta horien inpaktuak, arriskuak eta aukerak aztertzeko egindako eta zehatz-mehatz azaldutako prozesutik.

Eragindako komunitateen azpigaiarekin lotutako inpaktuak, arriskuak eta aukerak identifikatu eta ebaluatzeko prozesua LKTren barne- eta kanpo-analisi batean oinarritu da. Bertan, eragindako komunitateen azpigaia osatzen duten azpiazpigaiak aztertu dira: kolektiboen eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak; kolektiboen eskubide zibil eta politikoak, eta herri indigenen eskubideak. Horretarako, Taldearen berezko eragiketak eta balio-katearenak hartu dira kontuan.

Barne-analisian, jasangarritasunarekin lotura duten LKTren barneko 12 dokumentu ebaluatu dira. Kanpo-analisian, berriz, 5 elementu hartu dira kontuan: merkatu-joerak, araudi-azterketa, lehiakideen benchmarka, adituak eta analistak, eta inpaktua balio-katean. Lehenago azaldu dugunez, prozesuaren barruan kontsulta egin zaie interes-taldeei.

Elementu horiek guztiak ebaluatu ondoren, ukitutako kolektiboak azpigaiaren barruko azpiazpigaietako bat ere ez da materialtzat jo LKTrentzat.

Elkartze- edo babesletza-ekintzak (11/2018 Legea betez)

LABORAL Kutxa Euskal Herrian sortu zen, gizartea zerbitzatzeko konpromiso handia duen enpresa-talde baten barruan. Taldearen misioa da partaidetzazko elkarlan kooperatiboa sortzea, sozietateetako zuzeneko partaideentzat nahiz gizartearentzat aberastasuna eta ongizatea lortzeko. Hori dela eta, ugariak dira LKTren jarduerak lurraldean eta herrietan dituen inpaktuak. Horietako nagusia irabazien zati bat gizartera itzultzea da, eta beste bat, finantza-jarduera bera.

Gizarte-laguntzak emateko irizpide eta mekanismoek berezitasun batzuk dituzte:

- LABORAL Kutxak, bere izaera juridikoagatik eta bokazio kooperatiboagatik, kooperatiben mundua sustatzera bideratzen du ekarpen solidarioen zati handi bat.

- Kooperatibaren organo instituzionalen ardura dira Heziketako eta Sustapeneko Funtsaren ataletako baten (Banaketa Orokorraren) kargura banatzen diren dirulaguntzak. Alabaina, Kontseilu Sozialak (hau da, Entitateko langileak ordezkatzen dituen organoak) ere hartzen du parte.

- Gainera, atal zehatz bat tokiko beharretarako (tokiko banaketarako) gordetzen du, eta bulegoen bitartez egiten du esleipena. Bulego horiek inguruko jardueretara (auzo-elkarteetara, inguruko ikastetxeetara, gizarte-ekintzako taldeetara, etorkinei laguntzeko zentroetara…) bideratzen dituzte laguntzak.



Heziketako eta Sustapeneko Funtsak (HSFak) helburu hauek ditu:

- Plantilla kooperatibismoaren printzipio eta balioetan trebatu eta heztea.
- Kooperatibismoa hedatzea eta kooperatiben arteko harremanak sustatzea.
- Gizartean kultura, lana eta laguntzak bultzatzea, bizi-kalitatea hobetzea eta gizarte-garapena eta ingurumena babesteko ekintzak sustatzea.

Kooperatiba arteko Funts Sozialak (KFSak) helburu hauek ditu, Mondragon Fundazioaren bidez:

- Enpresa-proiektuak eta kooperatiben hedapena bultzatzea.

- Besteak beste, zailtasunetan dauden MONDRAGONeko kooperatibei laguntzea eta I+G+b-ko edo prestakuntzako proiektuak sustatzea.

Kontzeptua (mila eurokotan)	2023
Enpresa kooperatiboak abian jartzeko eta finkatzeko elkartasunezko ekarpena (MONDRAGONen bidez)	21.446
Kooperatiba arteko Funts Soziala – KFS (emaitza banagarrien % 15)	**21.446**
Kooperatiben sustapena, MONDRAGONen bidez (HSFaren % 68)	7.785
Beste ekimen kooperatibo eta balio sozial batzuk	140
Ekintzailetza eta Enpresa- eta lan-prestakuntza (Gaztenpresa Fundazioa)	435
Kultura-jarduerak, oro har, eta bestelakoak	551
Euskararen eta euskal kulturaren sustapena	709
Laguntza-erakundeak eta garatzeko bidean dauden herrialdeetakoak	607
Nekazaritzako elikagaien sektorea	85
Kirol-jarduerak	643
Genero-berdintasuna eta Ahalduntzea	134
Ingurumena	122
Heziketako eta Sustapeneko Funtsa – HSF (emaitza banagarrien % 10)	**11.213**
KFS + HSF	**32.659**

Ekarpenen kontzeptuak aldatu egin dira 2024an, Mondragonek kooperatiben ekarpenen estandarizazioa hobetzeko abian jarritako proiektu baten ondorioz. Orain, Mondragon Fundaziora ez ezik, kontzeptu hauetara ere bideratzen dira, babesletzak barne hartuta:

- Komunitate jasangarriak
  - Euskara
  - Osasuna, ongizatea eta kirola
  - Kultura
  - Klima eta biodibertsitatea
  - Generoa eta dibertsitatea
  - Pobrezia eta inklusioa
- Hezkuntza eta prestakuntza
  - Kooperatiben prestakuntza
  - Ikastetxeak
  - Unibertsitatea
- Berrikuntza eta jarduera berriak
  - Berrikuntza
  - Ekintzailetza
  - Jarduera berriak

- Kooperatibismoaren sustapena
  - Kooperatiben sustapena
  - Mondragoneko erakundeak
  - Erakunde kooperatiboak
  - Nazioartekotzea
  - Dimentsionamendua eta dibertsifikazioa
  - Kooperatiben elkartasuna

Kontzeptua (mila eurokotan)	2024
Enpresa kooperatiboak abian jartzeko eta finkatzeko elkartasunezko ekarpena (MONDRAGONen bidez)	21.446
Kooperatiba arteko Funts Soziala – KFS (emaitza banagarrien % 15)	**21.446**
Kooperatiben sustapena, MONDRAGONen bidez (HSFaren % 68)	9.175
Komunitate jasangarriak	3.518
Hezkuntza eta prestakuntza	137
Berrikuntza eta jarduera berriak	439
Kooperatibismoaren sustapena	216
Heziketako eta Sustapeneko Funtsa – HSF (emaitza banagarrien % 10)	**14.297**
KFS + HSF	**35.743**

	2024	2023
Funtsetarako (HSF eta KFS) ekarpenak (m€-kotan)	35.743	32.659

Ekarpen, babesletza eta lankidetza horiek guztiek indartu egiten dituzte tokiko komunitateetako eragileekiko harremanak eta elkarrizketa.

Sozietatearen jarduerak enpleguan eta tokiko garapenean duen inpaktuari dagokionez, azpimarratzekoa da Gaztenpresa Fundazioaren jarduera. Gaztenpresa Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da. LABORAL Kutxaren gizarte-jardunean dago sartuta, eta gure inguruan ekin nahi duten pertsonei laguntzea du helburu, ahalik eta arrakasta-aukerarik handienak izan eta enpleguaren sorreraren bidez aberastasuna sor dezaten.

LABORAL Kutxak eta Mondragon korporazioak, batetik, eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Lan Sailak —Lanbideren bidez—, bestetik, finantzatzen dute Gaztenpresa Fundazioa.

	2024	2023
Gaztenpresaren laguntzaz sortutako enpleguak	696	634
Gaztenpresaren laguntzaz sortutako enpresak	348	320

Informazio fiskala

Informazio hori 11/018 Legearen aginduz banakatzen da (ESRS arauek ez dute barne hartzen).

LABORAL Kutxak jarduera gauzatzen duen lurraldeetan betetzen ditu zerga-obligazioak; lau foru-lurraldeetan eta lurralde erkidean, zehazki. Horrela, zerbitzu publikoei eusten eta gizartea garatzen laguntzen du.

Lortutako irabaziak, herrialdearen arabera.

	2023	2024
Luxenburgo (Lamiak)	–338.814,09	1.270.080,92
Espainia	208.443.969,66	254.056.283,70
Emaitza bateratua	**208.782.783,75**	**255.326.364,62**

Ordaindutako mozkinen gaineko zergak (sortzapen-irizpidea, guztiak Espainian).

	2023	2024
LABORAL Kutxa	25.948.260,27 €	43.004.934,42 €
Seguros Lagun Aro Vida SA	2.885.626,26 €	1.138.017,22 €
Seguros Lagun Aro SA	1.686.236,31 €	345.957,40 €
Caja Laboral Gestión SGIIC SA	3.068.454,48 €	4.015.923,38 €
Caja Laboral Pensiones GFP SA	49.067,43 €	55.518,96 €
Isga Inmuebles SA	238.074,97 €	687.596,38 €
Caja Laboral BancaSeguros (CLBS) OBSV SLU	662.530,57 €	448.801,76 €
GUZTIRA	**34.538.250,29 €**	**49.696.749,52 €**

Jasotako dirulaguntza publikoak.

	2023	2024
LABORAL Kutxa	275.000	63.171,83
Lagun Aro	-	75.833,54
LagunKlik	-	21.554,99

ESRS S4-Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak

[SBM-2] Alderdi interesdunen interesak eta iritziak

Informazio hori ESRS2-SBM2 apartatuan deskribatuta dago.

[SBM-3] Inpaktu materialak, arriskuak eta aukerak, eta negozio-estrategiarekin eta -ereduarekin duten interakzioa

Dibulgazio-betekizun horretan, alde batetik, materialtasun bikoitzeko ebaluazio-prozesuan azken kontsumitzaile eta erabiltzaileekin lotuta antzemandako inpaktuak, arriskuak eta aukerak (IROak) adieraziko dira, eta, bestetik, erantzun espezifikoa emango zaie araudian planteatutako gaiei.

IROei dagokienez, azken kontsumitzaile eta erabiltzaileen azpigaia osatzen duten hiru azpiazpigaietatik bitan detektatu dira inpaktuak eta aukerak: azken kontsumitzaile edo erabiltzaileentzako informazioarekin lotutako gorabeheretan eta azken kontsumitzaile edo erabiltzaileen gizarte-inklusioan. Hauek dira, zehazki:

Azpiazpigaia	Inpaktua	Aukera
Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileentzako informazioarekin lotutako gorabeherak.	Bezeroei argiak ez diren azalpenak ematea, informazioa ezkutatzea edo haien profilarentzat egokiak ez diren produktuak saltzea. Bezeroei azalpen argiak, zehatzak eta gardenak ematea finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz.	Bezeroak fidelizatzea, azalpen argiak, zehatzak eta gardenak emanez finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz. Gizartean eta sektorean ospe ona lortzea, bezeroei azalpen argiak, zehatzak eta gardenak emateagatik finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz. Segurtasun juridikoa, bezeroei azalpen argiak, zehatzak eta gardenak emateagatik finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz.
Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileen gizarte-inklusioa.	Bezero-mota guztien beharrei erantzutea, haien generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein direla ere.	Bezeroak fidelizatu eta sustraitzea, haien beharrei erantzunez, generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein dutela ere. Bezero-kopuru handiagoa lortzea, haien beharrei erantzunez, generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein dutela ere.

Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileekin lotutako inpaktuak eta aukerak aipatu ondoren, haiekiko estrategiaren eta negozio-ereduaren alderdiak nabarmenduko ditugu jarraian, hain zuzen ere haiengan eragina izan dezaketenak.

Horretarako, ezinbestekoa da Zentzua proiektua aipatzea. Proiektu hori 2022tik 2023ra bitartean egindako gogoeta estrategikoa da, eta helburu hau du: Entitatearen asmoa eta legatua, misioa eta balioak birdefinitzea; hau da, Entitatearen estrategia eta negozio-eredua datozen urteetan arautzeko zutabe nagusiak finkatzea. Estrategia horren barruan, presentzia zabala du azken kontsumitzaile eta erabiltzaileen —«bezeroen»— apartatuak.

Misioari dagokionez, hauxe zehazten da: *«LABORAL Kutxaren eta kreditu-kooperatiba osatzen dugunon konpromisoa da gure bezeroei finantza- eta aseguru-zerbitzu hurbila, profesionala eta zintzoa eskaintzea, beren helburuak eta ongizatea lor ditzaten laguntzeko».*

Balioei dagokienez, horietako batzuk aipatzen dira bezeroei buruzko apartatuan:

- Zintzotasuna

  Besteekiko errespetuz jokatzen dugu gure barne-harremanetan, bezeroekin eta gure ingurunearekin; pertsonen arteko harremanak sortzen ditugu, hauek oinarri hartuta:

  - Gardentasuna
  - Konfiantza
  - Elkarrekiko errespetua
  - Zuzentasuna
  - Jokabide etiko eta koherenteak

- Hurbiltasuna

  Sinetsi egiten dugu hurbiltasunak harreman sendo, adeitsu eta iraunkorrak eraikitzeko oinarri gisa duen garrantzian.

  - Barruan, konektatuta egotea ahalbidetzen digu.
  - Bezeroekin banku-jarduera gertukoa egin nahi dugu.
  - Lurraldean errotuta gaude, eta konprometituta.

- Profesionaltasuna

  Hezkuntzan sinesten dugu, biderik egokiena iruditzen baitzaigu, pertsonak prestatzeko, erronka pertsonal, enpresako eta gizartekoei positiboki aurre egiteko gai izan daitezen, eta hauek lortzeko:<0}

  - Profesional eraginkorrak eta etengabe garatzen ari direnak.
  - Konfiantza eta sinesgarritasuna.

- Jabekidetzan erantzukizunez jokatzea.

- Bezeroak profesionaltasunez aholkatzea, erabakiak kontzienteki har ditzaten.

Halaber, Zentzuak 3 atal hauek ditu: pertsonak, bezeroak eta gizartea. Bezeroenean, puntu hauek aipatzen dira:

- Gure finantza- eta aseguru-zerbitzuen eredua gizarte osora hedatu nahi dugu.

  Gizarteari irekita dagoen Entitatea da gurea. Gure finantza- eta aseguru-zerbitzuak presentzia dugun komunitateetan beharra duten pertsona, negozio eta enpresa guztietara zabaldu nahi ditugu. Gure bezero-oinarria zabaltzen ahalegintzen gara, uste baitugu merkatuari balio berezia eman diezaiokegula gure produktuekin, zerbitzuekin eta profesionaltasunarekin, bai eta bezeroekin harremanetan jartzeko orduan ditugun balioekin ere.

- Epe luzeko harreman hurbila, profesionala eta zintzoa sustatzen dugu.

  Horiek dira gure harremanetan sustatuko ditugun portaerak, eta horien arabera lagundu nahi diegu gure bezero partikularrei eta enpresei bizitza osoan, beren helburuak lor ditzaten. Pedagogiaz aholkatuko ditugu, irizpide zuzenak izan ditzaten beren finantzen eta bizitza- zein ondasun-aseguruen plangintza egokia egiteko.

- Erabateko eskuragarritasuna eta irisgarritasuna.

  Gure bezeroek gu beti hurbil sentitzea helburu duen zerbitzua eskainiko dugu. Horretarako:

  - Bulego-sare eta merkataritza-ordutegi egokiak jarriko dizkiegu eskura, zerbitzu profesional eta pertsonalizatua eman ahal izateko.

  - Gure bezeroen beharrei erantzuteko konpromisoa hartzen dugu, eta, horretarako, kanal fisiko eta digitalak eta zerbitzu automatizatu eta pertsonalizatuak konbinatuko ditugu, kontuan hartuta bezeroek noiznahi eta edonon eska ditzaketela gure zerbitzuak.

  - Egonkortasuna sustatuko dugu gure gestoreek bezeroekin dituzten harremanetan.

  - Bezeroak ezergatik ere ez ditugu diskriminatuko gure zerbitzu-ereduan.

  - Irisgarritasun integraleko politika izango dugu, desgaitutzat eta ahultzat hartzen diren kolektiboei arreta berezia eskaintzeko.

  - Gure zerbitzua bezeroak aukeratzen duen hizkuntzan emateko politikak eta baliabideak erabiliko ditugu, eta bereziki euskara sustatuko dugu gure harremanetan.

- Pertsonak ardatz dituen harremana bultzatuko dugu, eta kalitaterik handieneko zerbitzu hibridoa eskainiko.

  Digitalizazioa tratu profesionalarekin eta pertsonalarekin konbinatzeko asmoa dugu, betiere bigarrena lehenetsiz, baita digitalizatutako inguruneetan ere. Horrela, gure balio-proposamen digitalaren bidez, arintasuna, lehiakortasuna eta erraztasun operatiboa eskaini nahi dizkiegu bezeroei, eta, gure bulegoetako profesionalen bidez, berriz, hurbiltasun fisiko eta emozionala, zerbitzuaren pertsonalizazio handiagoa eta banku-zerbitzurako irisgarritasuna gaitasun digitalik txikiena duten kolektiboei.

  Merkatuko liderrak izaten jarraitu nahi dugu, aurrez aurreko zerbitzuaren nahiz zerbitzu digitalaren kalitateari dagokionez.

- Bezeroentzako produktu eta prezio egokiak eskainiko ditugu.

  Produktu eta zerbitzuen eskaintza lehiakorra garatuko dugu, eta bezero-ikuspegiarekin berrituko, betiere bezero bakoitzaren profilari, beharrei eta aurreikuspenei egokitzen zaizkien produktu eta zerbitzuak merkaturatzeko helburuarekin.

  Produktuen prezioak eta negozio-mozkinen irizpideak finkatzeko ditugun politikek arrazoizko oreka izango dute balio-ekarpenaren, arriskuaren eta errentagarritasunaren artean.

Azkenik, Zentzua proiektuaren barruan, abian jarri beharreko ekintzak ere zehazten dira. Hala, bezeroen atalean, hau nabarmentzen da: *«Bezeroekiko jokabide nagusien dekalogo edo antzeko bat garatzea, baita hari jarraipena egiteko sistema bat ere, bezeroen balorazioak jasotzeko»*.

Ikus daitekeenez, aipatutako zehaztapen horiek zerikusia dute materialtasun bikoitzeko prozesuan antzemandako inpaktu eta intzidentzia negatiboak konpontzearekin eta inpaktu positiboak eta aukerak indartzearekin.

IROak eta horiek erakundearen estrategiarekin eta negozio-ereduarekin duten lotura deskribatu ondoren, araudiak eskatzen dituen gainerako gaiei erantzungo zaie.

Materialtasun bikoitzeko prozesuan, Entitateak kontuan hartu ditu enpresaren eragina jaso dezaketen kontsumitzaile eta erabiltzaile guztiak. Hala ere, interes-taldeei egindako kontsultetan, loturarik handiena dutenak bakarrik hartu dira aintzat.

Araudian zehazten diren aukeren artean, Entitatearen ustez honako hauekin daude lotuta garrantzi erlatiboko intzidentziak:

- Zerbitzuen azken kontsumitzaile edo erabiltzaileekin, baldin eta zerbitzuok eragin negatiboa izan badezakete haien intimitaterako, datu pertsonalen babeserako, adierazpen-askatasunerako eta diskriminatuak ez izateko eskubideetan.

- Produktu edo zerbitzuei lotutako informazio zehatz eta eskuragarriaren mende dauden azken kontsumitzaile edo erabiltzaileekin; adibidez, produktu edo zerbitzuen erabilera potentzialki kaltegarria saihesteko eskuliburu eta etiketen mende.

Era berean, intzidentzia negatiboei dagokienez, intzidentzia orokorrak izan daitezkeela uste du Entitateak.

Intzidentzia positiboak eragiten dituzten jarduerak S4-4 azpiapartatuan deskribatzen dira jarraian.

Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileen gizarte-inklusioaren azpigaian eragindako azken kontsumitzaile- edo erabiltzaile-mota nagusietan, bi bezero-mota zehaztu ziren, batez ere, Ilunionekin egindako diagnostikoan. Alde batetik, desgaitasun fisiko edo kognitiboren bat duten bezeroak, LABORAL Kutxarekin harreman egokia izateko arazoak izan ditzaketenak, edozein dela ere erabiltzen duten kanal fisikoa (bulegoa edo kutxazainak) edo digitala (webgunea edo aplikazioa). Bestetik, adineko pertsonak, askotan desgaitasunen bat dutenen antzeko zailtasunak izan ditzaketenak. Horiek ere kontuan hartu ziren eta diagnostikoan hartu zuten parte.

[S4-1] [MDR-P] Azken erabiltzaile eta kontsumitzaileekin lotutako politikak

Duen jarduera (finantza- eta aseguru-zerbitzuak) eta jarduera-eremua (Espainia) direla eta, LKTk ez du giza eskubideen arloko konpromisorik hartu azken kontsumitzaile edo erabiltzaileei begira. Arrazoi berberengatik, ez du aintzakotzat hartzen azken kontsumitzaile edo erabiltzaileen giza eskubideekin lotutako balizko intzidentziarik. Era berean, materialtasun-analisian ez da inpaktu edo arrisku esanguratsurik identifikatu arlo horretan. Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileekin lankidetzan aritzeko eskuragarri dauden mekanismoak azaltzen dira S4-3 apartatuan (Inpaktu negatiboak konpontzeko prozesuak eta azken kontsumitzaile eta erabiltzaileek beren kezkak azaltzeko bideak). Mekanismo horien artean, giza eskubideei buruzko intzidentziak —halakorik badago— konpontzea eskaintzeko edo ahalbidetzeko neurriak jasotzen dira. Ez da ez-betetzerik antzeman Nazio Batuek enpresei eta giza eskubideei buruz dituzten printzipio gidariak, LANEren laneko oinarrizko eskubideei eta printzipioei buruzko adierazpena edo ELGAk azken kontsumitzaile edo erabiltzaileak inplikatzen dituzten enpresa multinazionalentzat emandako gidalerroak direla eta.

Apartatu honetan, azken kontsumitzaile eta erabiltzaileen bi azpiazpigaiekin lotuta Entitatean dauden politikak aipatuko dira, hain zuzen ere materialtasun bikoitzeko analisian materialak izan direnak. Era berean, Entitateak horri buruz betetzen dituen arauak ere aipatuko dira, politiken zeregina bete baitezakete.

Azpiazpigaia: Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileentzako informazioarekin lotutako gorabeherak.

- Ukitutako IROak:
    - Bezeroei argiak ez diren azalpenak ematea, informazioa ezkutatzea edo haien profilarentzat egokiak ez diren produktuak saltzea. (Inpaktu positiboa)
    - Bezeroei azalpen argiak, zehatzak eta gardenak ematea finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz. (Inpaktu negatiboa)

- Bezeroak fidelizatzea, azalpen argiak, zehatzak eta gardenak emanez finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz. (Aukera)

- Gizartean eta sektorean ospe ona lortzea, bezeroei azalpen argiak, zehatzak eta gardenak emateagatik finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz. (Aukera)

- Segurtasun juridikoa, bezeroei azalpen argiak, zehatzak eta gardenak emateagatik finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz. (Aukera)

- Politikak:

  - Bezeroekin edo bezero potentzialekin bizikidetza-erabilerako ondasun higiezinetarako kreditu-kontratuak eman, diseinatu, haiei buruz informatu edo merkaturatzen dituzten pertsonak prestatu eta akreditatzeko politika eta prozedura

    - Politika horren helburua hauxe da: bezeroei edo bezerogaiei (aurrerantzean, «ukitutako langile» ere deituko zaie) zuzendutako higiezinen mailegu-kontratuak diseinatu, merkaturatu, eman, kudeatu eta betearaztearekin loturaren bat duten langileek eduki behar dituzten ezagutzen eta konpetentzien inguruko irizpideak ezartzea, eta ikustea ea nola ebaluatu eta egiaztatu behar diren ezagutza eta konpetentzia horiek, 2019ko apirilaren 29ko BOEn argitaratutako 309/2019 Errege Dekretuan eta Ekonomia Ministerioaren ECE/482/2019 Aginduan xedatutakoa betetzeko.

  - Bezeroak edo bezerogaiak informatu edo aholkatzen dituzten pertsonak prestatzeko eta ebaluatzeko politika eta prozedura

    - Politika horren helburua hauxe da: Entitatearen kontura bezeroei eta bezerogaiei informazioa eta/edo aholkularitza ematen dizkieten langileek (aurrerantzean, «**langile garrantzitsu**» ere deituko zaie) eduki behar dituzten ezagutzen eta konpetentzien inguruko irizpideak ezartzea, eta ikustea ea nola ebaluatu eta egiaztatu behar diren ezagutza eta konpetentzia horiek, CNMVren 4/2027 Gida Teknikoan xedatutakoa betetzeko. Ez dago giza eskubideen arloko konpromisorik azken kontsumitzaile edo erabiltzaileekin.

Politika horrek, halaber, irizpideak finkatuko ditu, arlo hauetan produktuak sortzeko, dokumentuak egiteko edo aurreko paragrafoan adierazitako pertsonei aholkularitza emateko funtzioak betetzen dituzten pertsonen ezagutzei eta gaitasunei buruz, nahiz eta pertsona horiek merkaturatzeko zuzeneko funtziorik ez bete eta/edo bezeroei inbertsioen arloko aholkularitzarik ez eman: Negozio Garapenaren Area, Finantzen Area, Baliabideen Area, Arriskuen Area eta Gestio Sozialeko Departamentua (aurrerantzean, «**bestelako langile**» ere deituko zaie).

- Araudiak:

  - 565/2017/EB Errege Dekretuaren 3. artikulua, informazio-horniduran aplikatzekoak diren baldintzei buruzkoa, eta bezeroei emateko informazioarekin lotutako 44-52 artikuluak

  - 6/2023 Legearen 200. artikulua, erakundeek bezeroei informazioa emateko duten betebehar orokorrari buruzkoa

  - 813/2023 Errege Dekretuaren 143. eta 144. artikuluak, informazio-betebehar orokorrari eta formatu elektronikoari buruzkoak

  - 2012ko ekainaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren 4.9 artikulua, IKE-ei buruzkoa

  - 2019/2088 (EB) Erregelamendua, finantza-zerbitzuen sektorean jasangarritasunaren inguruko informazioa zabaltzeari buruzkoa

  - Inbertsio Kolektiboko Erakundeen 35/2003 Legea, azaroaren 4koa, eta hori garatzen duen 816/2023 Errege Dekretua, azaroaren 8koa

  - IKE-en hiruhilekoko, seihilekoko eta urteko txostenei buruzko 4/2008 Zirkularraren 7. araua

  - CNMVren jakinarazpena, 2015eko urtarrilaren 23koa, IKE-en merkaturatzearen inguruko gardentasun-neurriei buruzkoa

  - Kapital Sozietateei buruzko 5/2021 Legea, apirilaren 12koa

  - 7/2011 Zirkularra, abenduaren 12koa, kontratu-tipoen tarifen eta edukiaren gaineko informazio-liburuxkari buruzkoa

  - 2010eko ekainaren 11ko EHA/1665/2010 Aginduaren 5., 6. eta 9. artikuluak, inbertsio-zerbitzuetako enpresei tarifen eta kontratu estandarren inguruan dagokien araubide juridikoari buruzkoa

  - CNMVren jakinarazpena, kontratu estandarrak 2008ko otsailaren 15eko 217/2008 Errege Dekretuan ezarritakora egokitzeari buruzkoa

  - EHA/2899/2011 Agindua, urriaren 28koa, banku-zerbitzuen gardentasunari eta bezeroen babesari buruzkoa

- 19/2017 Errege Lege Dekretua, 2017ko azaroaren 24koa, ordainketa-kontuak, ordainketa-kontuen lekualdatzea eta komisioen alderagarritasuna arautzen dituena (2017ko azaroaren 25eko BOE)

- 1/2017 Errege Lege Dekretua, urtarrilaren 20koa, zoru-klausulen alorrean kontsumitzaileak babesteko neurri urgenteei buruzkoa

- Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren EHA/2899/2011 Agindua, urriaren 28koa, banku-zerbitzuen gardentasunari eta bezeroen babesari buruzkoa (2011ko urriaren 29ko BOE)

- 2012ko ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularra, Espainiako Bankuarena, kreditu-erakundeei eta ordainketa-zerbitzuen hornitzaileei zuzendua, banku-zerbitzuen gardentasunari eta maileguak ematean izan beharreko erantzukizunari buruzkoa

Azpiazpigaia: Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileen gizarte-inklusioa.

- Ukitutako IROak:

  - Bezero-mota guztien beharrei erantzutea, haien generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein direla ere. (Inpaktu positiboa)

  - Bezeroak fidelizatu eta sustraitzea, haien beharrei erantzunez, generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein dutela ere. (Aukera)

  - Bezero-kopuru handiagoa lortzea, haien beharrei erantzunez, generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein dutela ere. (Aukera)

- Politikak:

  - Ez dago azpiazpigai honetarako politika espezifikotik.

- Araudiak:

  - Irisgarritasunari buruzko 2019/882 Zuzentaraua, EBn eskaintzen diren produktuak eta zerbitzuak irisgarriagoak izan daitezen desgaitasuna duten pertsonentzat

  - 11/2023 Legea, Europar Batasuneko irisgarritasuneko Zuzentarauen transposizioari buruzkoa

  - 19/2017 Errege Lege Dekretua, 2017ko azaroaren 24koa, oinarrizko ordainketa-kontuena, ordainketa-kontuen lekualdatzearena eta komisioen konparagarritasunarena (2017ko azaroaren 25eko BOE)

[S4-2] Azken erabiltzaile eta kontsumitzaileak inpaktuetan inplikatzeko prozesuak

Jarraian, zehatz-mehatz jakinaraziko dugu nola laguntzen dien Entitateak azken kontsumitzaile eta erabiltzaileei, materialtasun bikoitzeko prozesuan antzemandako inpaktu edo intzidentzia materialei dagokienez.

Materialtasun bikoitzeko prozesuan antzemandako bi inpaktuetako bakoitza abiapuntu hartuta, Entitateak inpaktu horiei nola erantzuten dien azalduko dugu.

Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileentzako informazioarekin lotutako gorabeherak

Entitateak bezeroei entzuteko prozesu bat dauka zehaztuta (SBM2 atalean azaldu da), baina ez bezeroak eta erabiltzaileak inplikatzeko prozesurik. Negozio Garapenaren Areako plangintzako, merkataritza-ikerketako eta gobernantzako ataleko burua da entzuteko prozesuaren arduraduna.

Bezero-mota guztien beharrei erantzutea, haien generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein direla ere. (Inpaktu positiboa)

S4 SBM2 atalean, 2023an irisgarritasun integralaren diagnostikoa egiteko burututako prozesua azaltzen da. Diagnostikoa egiteko, kontuan hartu ziren desgaitasunen bat (ikusmenekoa, fisikoa edo entzumenekoa) duten pertsonen eta adinekoen iritzia eta balorazioa. Haien iritzia eta balorazioa, aholkulari adituen irizpidearekin batera, oinarrizkoak izan ziren hobekuntza-arloak detektatzeko eta konponbideak proposatzeko. Plangintza Departamentuko jasangarritasun-koordinatzailea da proiektu horren arduraduna.

Hauxe zen proposatutako ekintzen asmoa: elkarrekin konektatutako kanal-sare bat ziurtatzea, dibertsitatea estaliko duena eta informazio irisgarri, pertsonalizatu eta optimizatua eskuragarri izatea bermatuko duena, betiere lehentasunak eta beharrak oinarri hartuta. Horrek guztiak prozesu irisgarri, efiziente eta eraginkorrak ekarri behar ditu, erabiltzaile eta/edo bezeroek beren helburuak lor ditzaten, Entitatearekin harremanetan dauden eta harekiko esperientzia definitzen den bitartean.

Ukitutako LABORAL Kutxako departamentuek aztertu egin zituzten Ilunionek proposatutako ekintzak, eta garrantziaren eta egingarritasunaren arabera lehenetsi.

[S4-3] Inpaktu negatiboak konpontzeko prozesuak eta azken kontsumitzaile eta erabiltzaileek beren kezkak azaltzeko bideak

LABORAL Kutxak Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua du, 2002ko azaroaren 22ko 44/2002 Legeak, Finantza Sistema Eraldatzeko Neurriei buruzkoak, aginduta; zehazki artikulu honek:

29. artikulua. Bezeroarentzako Arreta Saila eta Bezeroaren Defendatzailea. Lehena. Kreditu-erakundeak, aseguru-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetako enpresak behartuta daude finantza-zerbitzuen erabiltzaileek beren interes eta eskubide legalekin lotuta aurkezten dituzten kexei eta erreklamazioei erantzutera eta ebazpena ematera. Horretarako, erakundeek bezeroaren arretarako sail edo zerbitzu bat izan beharko dute, kexak eta erreklamazioak artatzeko eta ebazteko ardurarekin. Erakunde horiek, banaka edo jarduera-adarren, hurbiltasun geografikoaren, negozio-bolumenaren edo beste edozein irizpideren arabera multzokatuta, bezeroaren defendatzaile bat izendatu ahal izango dute. Defendatzaile horrek ospe handiko erakunde edo aditu independente bat izan beharko du, eta berari egokituko zaio bere funtzionamendu-erregelamenduak xedatzen duenaren esparruan bere erabakipean jartzen diren erreklamazioei erantzutea eta ebazpena ematea, bai eta gardentasunari eta bezeroen babesari buruzko araudia eta jardunbide eta finantza-erabilera egokiak betetzen direla sustatzea ere. Bigarrena. Bezeroaren defendatzaileak erreklamazioaren alde hartzen duen erabakia loteslea izango da erakundearentzat. Lotura hori ez da oztopo izango babes judizial osoa izateko, gatazkak konpontzeko beste mekanismo batzuetara jotzeko eta administrazioaren babesa izateko.

Aipatutako lege-agindua garatzeko, Bezeroa Babesteko Erregelamendua onartu zuen Kontseilu Errektoreak. Araudi hori webgunean argitaratu zen, publiko orokorraren eskura dago eta zuzeneko sarbidea du webgunearen orri nagusiko Bezeroarentzako Arreta ataletik.

Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileak hainbat kanal ditu eskura Zerbitzura sartzeko:

- Helbide elektroniko bat: servicio.de.atencion.al.cliente@laboralkutxa.com
- Bere banka elektronikoan bertan aurkez dezake kexa edo erreklamazioa, eta posta elektronikoko postontzian jasoko da.
- Sare komertzialeko bulego guztiak; inprimakiak daude eskuragarri.
- Ohiko posta.

Nahiz eta eginkizun nagusia Entitatearekin harremanetan jartzen diren bezeroek eta bezero ez diren erabiltzaileek aurkezten dituzten kexa eta erreklamazioak ebaztea den, bankuen gardentasunari eta jardunbide egokiei buruzko araudia oinarri hartuta eta «Espainiako Bankuak gainbegiratutako erakundeen bezeroen arretarako zerbitzuen antolamendu- eta funtzionamendu-irizpideei buruzko gidaliburuan» ezarritakoa beteta, kexen eta erreklamazioen jarraipenari dagokionez eta bigarren defentsa- eta arrisku-lerroaren ikuspegiarekin:

(…) 6.4. Kexa eta erreklamazioen jarraipena eta kontrola

6.4.1. Kexak eta erreklamazioak ebaluatzeko prozesuaren eremuak erakundearen barruan tramitatutako guztiak jaso behar ditu, ebatzi dituen instantzia edozein dela ere.

6.4.2. Bestalde, komenigarria da, azterketaren emaitza gisa, zuzenean eragindako erakundearen prozedurak zuzentzea, antzemandako intzidentziak berriro gerta ez daitezen, eta, horrez gain, ikertzea ea jatorrizko kausa horiek beste prozesu edo produktu batzuei ere eragin diezaieketen, zuzeneko kexa edo erreklamaziorik jaso ez dutenak barne.(…)

Azterketa horren ondorioz, dagokionean, komunikazio bat hasten da Zerbitzutik Entitatearen arlo eta departamentuetara, gomendio bat emateko edo balizko intzidentzia baten berri emateko.

Prozedura ez-formala zuzeneko komunikazioarekin hasten da, Araudia Betearazteko Departamentua edo, dagokionean, Auditoretza Departamentua eta Aholkularitza Juridikoaren Departamentua barne hartuta.

Eta, kontrol-prozedura hasi ondoren, jarraipen-lan gisa, betetze-kontrola egiteko gomendioa ematen da, komunikatzeko erabilitako modu berean:

Eta bezeroak azkenean Bezeroaren Arreta Zerbitzura jo eta bere kexa edo erreklamazioa jakinarazi ahal izateko mekanismo gisa, jarraibide zuzenak daude bezeroak Entitatearekin harremanetan jartzeko dituen beste atal batzuetarako, hala nola «Jarri harremanetan» atalerako eta TELEBANKArako, atal horietan jakinarazten den edozein intzidentzia gure Zerbitzura irits dadin, eta erantzun gabe gera ez dadin edo bezeroari itzul ez dakion berriro aurkezteko.

Bezeroen datuen babesa Entitatearen Datuak Babesteko Politikak bermatzen du, eta bezeroari horren berri ematen zaio Zerbitzura sartzeko inprimakietan.

Bezeroarentzako arreta (11/2018 Legearen eskakizuna):

Zerbitzu honek Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren, Caja Laboral Gestión SGIIC SAren eta Caja Laboral Pensiones GFP SAren bezeroen kontsulta, kexa eta erreklamazioei erantzutea du helburu; horretarako, hainbat bide dituzte bezeroek.

Idazkia jasotzen denetik 2 hilabeteko epe ofiziala dago erantzuteko (hilabetekoa, erreklamatzailea kontsumitzailea bada), baldin eta ordainketa-zerbitzuei buruzko erreklamazioak ez badira, horiek gehienez ere 15 egun baliodunetan ebatzi behar dira eta. Dena den, Entitateak ahalik eta bizkorren erantzuteko konpromisoa du hartuta; hau da, aipatutako epeak iragan baino lehen.

2024an zehar, 52.241 espediente ireki dira guztira (2023an 24.167). Horietatik, 47.400 tramitatu eta erantzun dira (2023an 22.658). 4.511 espediente tramitatu gabe geratu dira (2023an 1.509), aurkeztutako kexak eta erreklamazioak baztertzeko Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren erregelamenduan jasota dauden zenbait arrazoi tarteko. 2024ko abenduaren 31n, 330 espediente geratu dira onartzeko.

	2024	2023
Irekitako espediente-kopurua		
- Idatziak: liburuxka/gutuna	44.347	18.978
- Internet bidezkoak	7.226	4.476
- Telefono bidezkoak	0	1
- Erakunde publikoak: KIUB/gobernu autonomikoak	668	712
	52.241	**24.167**
Tramitatutako espediente-kopurua	**47.400**	**22.658**
Espedienteen izaera		
- Kexak	2.133*	3.328
- Erreklamazioak	49.646	20.722
- Kontsultak	79	11
- Iradokizunak	42	1
- Zorionak edo eskerrak emateko gutunak	6	4
- Hainbat eskaera	335	100
- Bestelakoak	0	1
	52.241	**24.167**

- Kexen hasierako erregistroari iragazki batzuk aplikatzen zaizkio, mota horretako espedienteen azken kopurua zehazteko. Izan ere, erreklamazio batzuk —hipoteka-klausulen arlokoak, batez ere— kexa gisa erregistratzen dira, aplikazioak eskatzen dizkigun nahitaezko eremuetan sartzeko informaziorik ez dagoelako eta, datu nagusiekin, kexa gisa erregistratzeko aukera ematen duelako.
- Horren arrazoia da erreklamazio batzuk IPAR KUTXA desagertutako entitatearen maileguei buruzkoak direla. Izan ere, entitate horren kodifikazio-datuak ezezagunak dira edo ez daude LABORAL Kutxaren datu-baseetan.
- Eman beharreko informazioa gestionatzeko, aplikazioaren datuak Excel formatuan eskuratzen dira, kexaren kodifikazioa kontuan hartuta. Horrela, benetako izaeraren arabera konputa dezakegu erreklamazioa, eta benetako kexen kopurua 4.336tik 2.133ra murriztu da.

	2024	2023
Erreklamatutako kopuruak		
- Entitatearen alde ebatzitako espedienteen zenbatekoak	1.239	2.935
- Bezeroaren alde ebatzitako espedienteen zenbatekoak:	21.370	5.374
. Entitateak kalte-ordainetan emandako kopuruak	21.370	5.374
	22.609	**8.309**

Lagun Aro	2023	2024
Irekitako espedienteak (erreklamazioak eta kexak)	941	1.140
Onartutako edo partzialki onartutako espedienteak	403	490
CLBS	**2023**	**2024**
Irekitako espedienteak (erreklamazioak eta kexak)	1	4
Onartutako edo partzialki onartutako espedienteak	1	0

[S4-4] [MDR-A] Azken kontsumitzaileekin lotutako ekintzak

Apartatu honetan, azken kontsumitzaile eta erabiltzaileekin lotutako bi azpiazpigaietan gauzatzen ari diren neurriak aipatuko dira, hain zuzen ere materialtasun bikoitzeko analisian materialak izan direnetan. Ez da azken kontsumitzaile edo erabiltzaileekin lotutako giza eskubideen arloko arazo edo kasu larrien berririk eman. Erakundeak askotariko eremuak ditu garrantzi erlatiboa duten bi azpiazpigai horiek gestionatzeko ekintzak abian jartzeko. Hori dela eta, ez dago horiei heltzeko esleitutako baliabideen kuantifikaziorik (*capex*a eta *opex*a), ezta emaitzen azterketarik ere.

Azpiazpigaia: Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileentzako informazioarekin lotutako gorabeherak

- Ukitutako IROak:
  - Bezeroei argiak ez diren azalpenak ematea, informazioa ezkutatzea edo haien profilarentzat egokiak ez diren produktuak saltzea. (Inpaktu positiboa)
  - Bezeroei azalpen argiak, zehatzak eta gardenak ematea finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz. (Inpaktu negatiboa)
  - Bezeroak fidelizatzea, azalpen argiak, zehatzak eta gardenak emanez finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz. (Aukera)
  - Gizartean eta sektorean ospe ona lortzea, bezeroei azalpen argiak, zehatzak eta gardenak emateagatik finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz. (Aukera)
  - Segurtasun juridikoa, bezeroei azalpen argiak, zehatzak eta gardenak emateagatik finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz. (Aukera)

Hauek dira hartutako neurriak, guztiak ere behin betikoak:

- Caja Laboral Popular Coop. de Crédito eta bere inbertsio-zerbitzuei buruzko informazio-liburuxkaren bidez, bezeroei jarraian aipatzen den informazioa ematea, gardentasunez eta edozein kontratu egin aurretik:
  - Entitateari buruzko informazio orokorra

- Inbertsio-zerbitzuak edo zerbitzu osagarriak
- Bezeroaren MiFID ebaluazioa (komenentzia eta egokitasuna)
- Inbertsio-zerbitzuei lotutako politikak:
  - Jasangarritasun Arriskuak Txertatzeko Politika
  - LABORAL Kutxaren Aginduak Betearazi eta Gestionatzeko Politika
  - LABORAL Kutxaren Aktiboak Babesteko Politika
  - LABORAL Kutxaren Interes Gatazken alorreko Politika
  - LABORAL Kutxaren Pizgarri Politika
  - Bezeroekiko Komunikazioak eta Elkarrizketak Erregistratzeko Politika
  - Tarifen liburuxka
  - LABORAL Kutxaren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua, zeinaren aurrean bezeroek kexak eta erreklamazioak aurkez ditzaketen
  - Gordailuak Bermatzeko Funtsa

- Bezeroei informazio hauek eskaintzea:
  - Tarifei buruzko liburuxkak.
  - Legezko kontratu aurreko informazioa, gomendatu diren eta/edo kontratatuko diren produktuei buruz.
  - Produktuei buruzko kontratu osteko informazioa: kostuak eta gastuak, mugimenduen eta posizioen laburpenak, informazio fiskala, etekinen urteko txostena eta abar.
  - Inbertsioen eta merkatuen bilakaerari buruzko aldizkako informazioa.
  - Posizioak, dokumentuak, kontratuak, korrespondentzia eta abar, Online Bankaren bidez, edozein unetan eta doan eskuratzeko moduan.
- Aholkularitza Juridikoko Departamentuak produktuen eta zerbitzuen kontratuak berrikustea.
- Araudia Betearazteko Departamentuak kontrolak egitea urtero, prozesuak araudietan ezarritakoaren arabera gauzatzen ari direla egiaztatzeko. Gorabeherak antzemanez gero, neurri zuzentzaileak eskatuko dira. Era berean, kontrol horietan gomendioak egiten dira.
- Produktu Batzordeak produktuen merkaturatze egokia zaintzea (xede-taldearentzat merkaturatzen direla egiaztatzea eta balizko arriskuen ebaluazioa egitea, ospe-arriskuak, zibernetikoak, eragiketei dagozkienak eta abar kontuan hartuta).

- Beharrezko MiFID prestakuntza (urtean 30 ordukoa) merkataritza sarearentzat, bere zereginetan egoki jardun dezan.

- Autocontrolek merkataritza-jakinarazpen guztiak berrikustea, publizitatea egiazkoa, legezkoa, zintzoa eta leiala izan dadin.

- Edozein kanal fisiko edo digital erabiliz mailegu pertsonala kontratatu duten bezero guztiei jakinaraztea 15 eguneko epea dutela kontratatutako finantzaketan atzera egiteko, inolako penalizaziorik gabe.

- Hipoteka-maileguetan, prezio-eskaintzak «Europako Informazio Normalizatuaren Fitxa» izeneko formatuan ematea beti bezeroei. Ohiko jardunbidea, ordea, informazio hori «simulazioko» edo «publizitateko» formatuan ematea da. Horrela, ezin da entitateen eskaintzen arteko konparazio homogeneorik egin.

Azpiazpigaia: Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileen gizarte-inklusioa.

- Ukitutako IROak:

  - Bezero-mota guztien beharrei erantzutea, haien generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein direla ere. (Inpaktu positiboa)

  - Bezeroak fidelizatu eta sustraitzea, haien beharrei erantzunez, generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein dutela ere. (Aukera)

  - Bezero-kopuru handiagoa lortzea, haien beharrei erantzunez, generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein dutela ere. (Aukera)

- Irisgarritasun Integraleko Plana; honako hauek hartzen ditu barne:

  - Irisgarritasunaren arloko prestakuntza, irisgarritasun-neurriak ezartzeko ardura duten Zerbitzu Zentraletako taldeetako pertsonentzat.

  - Webguneen irisgarritasuna balidatzeko tresna informatikoa instalatzea.

  - Kutxazain automatikoetan irisgarritasuna errazteko funtzionalitate berriak eranstea.

  - Bulego-eredu fisiko berriari gomendatutako hobekuntzak eranstea, hala nola begizta magnetikoa erakusmahaian, atseden hartzeko altzari irisgarriak edo beirak seinaleztatzea.

- Finantza-zerbitzuetara jotzeko zailtasunak dituzten pertsonei oinarrizko ordainketa-kontu bat eskura jartzea.

[S4-5] MDR-T. Azken kontsumitzaileekin lotutako helburuak

LABORAL Kutxak helburu hauek ditu ezarrita azken erabiltzaile eta kontsumitzaileekin lotuta —2. eta 3. helburuetarako Ilunionekin elkarlanean aritu gara, azken erabiltzaileen ordezkari gisa—:

1. helburua

- Inbertsio- eta hipoteka-produktuak merkaturatzen dituzten langile guztiak trebatzea. Prestakuntza tekniko, legal eta komertziala lagungarria da bezeroen profilerako desegokiak diren produktuen inguruko aholkularitzaren edo merkaturatzearen arriskuak ahalik eta txikienak izan daitezen.

- Inpaktu, arrisku eta aukerekiko identifikazioa: bezeroei azalpen argiak, zehatzak eta gardenak ematea finantza-produktuei, horien baldintzei eta dakarten gastuei buruz.

- Azken kontsumitzaile edo erabiltzaileentzako informazioarekin lotutako intzidentziei buruzko jasangarritasun-gaiak identifikatu eta jorratzen dira.

- Inpaktu, arrisku eta aukera horien gaineko politikarik ez dagoenez, ez dago loturarik.

- Helburu erlatiboa da (prestakuntza osatua eta eguneratua duen plantilla merkaturatzailearen ehunekoa).

- MiFIF eta HKKL araudiek exijitutako helburua da.

- Helburua da inbertsioetan aholkatzen duen eta hipotekak merkaturatzen dituen plantillak oinarrizko prestakuntza eguneratua izatea urtero, hain zuzen ere HKL eta MiFID araudiek zehaztutakoa. Horrela, produktuen, arriskuen eta legezko betebeharren ezagutza-maila handia bermatzen da.

- Urtero, abenduaren 31n, nahitaezko prestakuntza egina eta eguneratua duen plantilla ukituaren ehunekoa hartzen da kontuan.

- Bi arauek finkatzen dituzte urteko gutxieneko prestakuntza-orduen kopurua eta edukia.

- Hona hemen 2024ko abenduaren 31ko emaitzak:

    - MiFID: % 97

    - HKKL: % 98

Emaitza ontzat ematen da; izan ere, nahiz eta helburua plantillaren % 100ek prestakuntza egitea izan, arrazoizkoa da eskakizuna bete ez duten pertsonen kopurua, egoera pertsonalak kontuan hartuta (sartu berriak, lanpostu-aldaketak eta abar).

2. helburua

- Sare komertzialeko plantillari desgaitasunen bat duten pertsonen gestioari buruzko prestakuntza ematea.

- Helburua da bezero-mota guztien beharrei erantzutea, haien generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein direla ere.

- Irisgarritasun Integraleko Planarekin lotuta dago.

- Ez dago irisgarritasun-politikarik.

- Prestakuntzaren helburua da bulego-sareko langileei tresnak eta baliabideak ematea, desgaitasunen bat duten pertsonei edo adinekoei arreta emateko, horien premiak eta berezitasunak kontuan hartuta.

- Helburu absolutua da 2025ean plazaratzea sare komertzialeko plantilla osoak egin beharreko prestakuntza.

- Ilunionek diseinatutako prestakuntza da. ONCE Taldeko kontsultorea da Ilunion, eta desgaitasuna duten pertsonek osatzen dute.

3. helburua

- Irisgarritasun Integraleko Plana eguneratzea.

- Helburua da bezero-mota guztien beharrei erantzutea, haien generoa, jatorria, arraza, adina, sexu-orientazioa eta abar edozein direla ere. Bereziki bideratuta dago LABORAL Kutxak gizartearekin, desgaitasunen bat duten bezeroekin eta adineko pertsonekin dituen komunikazio-kanal guztietarako irisgarritasuna erraztera.

- Irisgarritasun Integraleko Planarekin lotuta dago.

- Ez dago irisgarritasun-politikarik.

- Hasierako diagnostikoa egin eta hobekuntza-ekintzak abian jarri zirenetik ia hiru urte igaro ondoren, helburu bikoitza lortu nahi dugu:

    - Egindako aurrerapenak berrikustea eta 2023ko lehen diagnostikoarekin alderatuta lortutako garapen-maila aztertzea.

    - Balizko jardunbide berriak proposatzea.

- Hasierako diagnostikoa bezala, eguneratzea ere Ilunionek egingo du. Ilunion irisgarritasunari buruzko kontsultorea da, ONCE Taldekoa, eta desgaitasuna duten pertsonek osatzen dute bereziki.

GOBERNANTZARI BURUZKO INFORMAZIOA

ESRS G1-Enpresa-jokabidea

[GOV-1] Administrazio-, zuzendaritza- eta gainbegiratze-organoen eginkizuna

Informazio hori ESRS2-GOV1 apartatuan deskribatuta dago.

[IRO-1] Garrantzi erlatiboa duten intzidentziak, arriskuak eta aukerak zehaztu eta ebaluatzeko prozesuen deskribapena

Informazio hori ESRS2-IRO1 apartatuan deskribatuta dago.

[G1-1] Enpresa-jokabidearen eta kultura korporatiboaren inguruko politikak

- ETIKAREN ETA ENPRESA-JOKABIDEAREN KODEA (aurrerantzean, Kode Etikoa).

  - Entitateak bere Taldea osatzen duten erakundeetan jokabide profesional, garden, zintzo eta osoa izateko konpromisoari erantzuten dio. Hori dela eta, langileen —goi-zuzendaritzakoak barne hartuta— eta administratzaileen konpromisoa gidatu behar duten jarduketa-printzipioak eta jokabide-arauak adierazten ditu, interes-taldeekin (bezeroak, hornitzaileak eta gizartea) harreman egokiak izatearren.

    Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodearen aplikazio-eremua langile eta administratzaileengana zabaltzen da. Era berean, LABORAL Kutxa Taldea osatzen duten erakundeekin harremana duten hirugarrenek ere kode horren berri izatea sustatzen da, haien jokabidea jarduketa-printzipio eta jokabide-arau berberekin bat etor dadin. Horrela, Kode Etikoan jasotako balioekiko koherentzia bermatzen da.

    Kodearen balioak eta jarduketa-printzipioak LABORAL Kutxa Taldearen hornitzaileei helarazten zaizkie, errespetatu behar dituzten eta betetzeko konpromisoa hartzen duten funtsezko portaerak eta printzipioak zehazten dituen Jokabide Kodearen bidez.

    LABORAL Kutxaren Kontseilu Errektorea da, azken batean, Kode Etikoa betetzen dela bermatzeko arduraduna, eta Etika Batzorde bat izendatu du, Kodean jasotako balioak, jarduketa-printzipioak eta jokabide-arauak aplikatzen direla zaintzeko.

    Entitatearen Intranetean argitaratuta dago Kode Etikoa, eta informazio-abisuak ematen dira edukian aldaketa garrantzitsuak egiten direnean. Halaber, urteko prestakuntza ematen da, edukiari edo Entitatearen erantzukizun penalaren prebentzioari buruz.

Identifikatzeko eta jakinarazteko mekanismoa Salaketen Kanala da, batez ere. Webgune korporatiboan eskuragarri dagoen esteka bat da, edozein pertsonari irekita dagoena (zuzenean interesatua izan ala ez), eta aurkeztutako jakinarazpen guztien konfidentzialtasuna eta anonimotasuna bermatzen ditu. Etika Batzordeak gestionatzen du kanala.

Identifikatzeko eta jakinarazteko mekanismo osagarri gisa —anonimotasuna erabat bermatzen ez duena—, helbide elektroniko bat dago, Etika Batzordearekin zuzenean harremanetan jartzeko, eta, azken batean, Batzorde horretako edozein kiderekin harremanetan jartzeko.

Legez kontrako edo Kode Etikoaren aurkako portaerei buruzko kezkak identifikatzeko, jakinarazteko eta ikertzeko mekanismoei dagokienez:

1. Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kode bat dago, langileek eta administratzaileek bete beharreko jarduketa-printzipioak eta jokabide-arauak ezartzen dituena.

2. Antolamendu- eta gestio-eredu bat dago, delituzko jokabideak prebenitzeko prozedurak, neurriak eta kontrolak arautzen dituena.

3. Legez kontrako edo Jokabide Kodearen aurkako balizko jokabideei buruzko komunikazioak identifikatzeko eta jakinarazteko mekanismo bat dago, konfidentziala eta anonimoa dena eta jakinarazpenak idatziz zein ahoz aurkezteko aukera ematen duena.

4. Kontrol-organo bat dago, delituzko portaerak edo Kode Etikoaren aurkakoak prebenitzeko antolamendu- eta gestio-eredua ikuskatzen duena.

5. Antolamendu- eta gestio-ereduak idatzizko prozedura bat biltzen du, zeinaren bidez zehazten diren delituzko edo Kode Etikoaren aurkako portaera bati buruzko jakinarazpena jasoz gero jarraitu beharreko tramiteak.

Ikertzeko mekanismoa Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburuan dago araututa, hain zuzen ere BHIa eta hori garatzeko prozedura erregulatzen dituen politikan. Hauek dira ikerketaren faseak:

a) Jakinarazpena jaso izanaren baieztapena bidaltzea.

b) Hasierako ebaluazio-txostena egitea, tramitatzeko onartu ala ez proposatuko duena.

c) Tramitatzeko onartu den ala ez dioen jakinarazpena bidaltzea.

d) Ikerketaren eta ondorioen txostena, diziplina-espedientea ireki ala ez eta/edo neurri gehigarriak hartu ala ez proposatuko duena.

e) Zuzendaritza Nagusiari proposamenaren berri ematea.

f) Jakinarazpenaren tramitazioa amaitu izanaren baieztapena bidaltzea.

Webgune korporatiboaren orri nagusian URL esteka bat dago, «Salaketen Kanala» izenekoa, EQS Integrity Line tresnaren bidez eskura daitekeena. Tresna hori software moduan eskaintzen du zerbitzu gisa (SaaS) EQS GROUP REGTECH SLU zerbitzu espezializatuen hornitzaileak (IFK: B02662096; helbidea: Villanueva kalea 31, 28001 Madril).

Etika Batzordeak arrisku penalen prebentzioari buruzko prestakuntza-jarduerak eransten ditu urteko Ekintza Planean, eta Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodeari buruzko aldian behingo prestakuntza dago jarduera horien artean.

Enpresaren barruan ez daude identifikatuta ustelkeria- eta eroskeria-arriskurik handiena duten karguak.

- Ukitutako azpiazpigaiak:
  - Ustelkeria eta eroskeria
- Ukitutako IROak:
  - Plantilla trebatzea, ustelkeriako edo kapitalak zuritzeko kasu oro saihesteko. (Inpaktu positiboa)
  - Ustelkeriako edo kapitalak zuritzeko kasuak gertatzea, Entitatearen kanalen edo produktuen bidez. (Inpaktu negatiboa)
  - Zehapenak jasotzea, ustelkeriako edo kapitalak zuritzeko kasuei aurrea ez hartzeagatik. (Arriskua)
  - Ospe txarra LABORAL Kutxarentzat, ustelkeriako eta kapitalak zuritzeko kasuen aurrean entitate segurutzat ez jotzeagatik. (Arriskua)
  - LABORAL Kutxaren ospe ona sustatzea, balio etikoak dituen entitatea izateaz gain ustelkeriako edo kapitalak zuritzeko jokabideak desagerraraztearekin sozialki konprometituta dagoela irizteagatik. (Aukera)

[G1-2] Hornitzaileekiko harremanen gestioa

Entitateak ez du azpiazpigai honi buruzko informaziorik eman, ez baitu garrantzi erlatiborik, G1-IRO1 informazioa zabaltzeko betekizunean adierazten denez.

[G1-3] Ustelkeria edo eroskeria prebenitzea eta antzematea

Entitateak Intranetean argitaratuta ditu delituen aurreko prebentzio- eta erantzun-sistema osatzen duten politikak eta prozedurak, eta informazio-abisuak ematen ditu horien edukian aldaketa garrantzitsuak egiten direnean. Negozioetako ustelkeria, funtzionario-eroskeria eta eragimen-trafikoa dira, besteak beste, aintzat hartzen diren delituak.

Halaber, Etika Batzordeak arrisku penalen prebentzioari buruzko prestakuntza-jarduerak eransten ditu urteko Ekintza Planean.

Ustelkeria- eta eroskeria-salaketak edo -intzidenteak prebenitzeko, detektatzeko eta tratatzeko ezarritako prozedurei dagokienez:

1. Prebentzio-mekanismo gisa, Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodea eta Zigor Kodea Betetzeari buruzko Politika ditugu, erakundetik espero daitekeen portaera arautzen dutenak —Kode Etikoak ustelkeriaren aurkako berariazko apartatua du, eta Zigor Kodea Betetzeari buruzko Politikak, berriz, negozioetako ustelkeriaren, funtzionario-eroskeriaren eta eragimen-trafikoaren aurkakoa—), bai eta eduki horiek transmititzen dituen komunikazio- eta prestakuntza-plan bat ere.

2. Detekzio-mekanismo nagusi gisa, Salaketen Kanala dugu.

3. Ikerketa-mekanismo gisa, Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburua dugu, zeinak Etika Batzordeak jasotako edozein jakinarazpen ikertzeko jarraitu beharreko urratsak eta tramiteak arautzen dituen.

Etika Batzordeak Araudia Betearazteko Departamentuaren laguntzarekin egiten du ikerketa, tramitazioan independentzia eta objektibotasuna ziurtatzeko, eta ebaluazio-txostenean jasotzen du ea interes-gatazkarik detektatu duen gaian inplikatutako eremuaren eta ikerketan parte hartzen duen norbaiten artean.

Etika Batzordeko presidenteak ikerketa-txostenaren ondorioak jakinarazten dizkio Zuzendaritza Nagusiari, eta Araudia Betearazteko Zuzendaritzak Etika Batzordearen jardunaren alderdirik garrantzitsuenak adierazten dizkio Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordeari, hiru hilean behingo txostenean, eta Kontseilu Errektoreari, sei hilean behingoan.

2024an, Salaketen Kanalari buruzko prestakuntza bat antolatu da, ustelkeria- eta eroskeria-kasuei buruzko jakinarazpenak barne dituena. Langile guztiek (plantillaren % 100ek) jaso dute prestakuntza horretarako deialdia. Prestakuntzak ez du maiztasunik finkatuta; Etika Batzordeak beharrezkotzat jotzen duenean egiten da. Prestakuntza-mota: onlineko ikastaroa, eta amaieran azterketa. Guztira 2.065 lagunek egin dute prestakuntza (% 86,5ek).

Aurreko apartatuan aipatutako 2024ko prestakuntzak barne hartzen zituen Arriskuen Gestioa, Araudia Betearaztea eta Barne Ikuskaritza funtzioak.

Horrez gain, Zuzendaritza Kontseilua ere sartuta zegoen aurreko apartatuan aipatu den prestakuntzan.

[G1-4] Ustelkeria- eta eroskeria-intzidenteak

2023an eta 2024an ez da halako intzidenterik, isunik edo zigorrik izan, ustelkeria eta eroskeria direla eta.

Bazkide komertzialei dagokienez, ez da egiaztatutako intzidenterik erregistratu ustelkeriarekin edo eroskeriarekin lotutako urraketen ondorioz amaitu ziren edo berritu ez diren kontratuak tarteko.

2023an eta 2024an, 13 jakinarazpen jaso ziren Salaketen Kanalaren bidez; horietatik, 3 soilik onartu ziren tramitatzeko, eta zehapenik gabe ebatzi ziren. Jarraian, tramitatzeko onartutako salaketa-mota bakoitzaren kopuruak eta ebazpenak zehazten dira, kanalaren arabera.

Jasotako salaketen eta ebazpenen taula

Salaketen Kanala	Salaketa-mota	Kopurua	Ebazpena
Webguneko Salaketen Kanala	Jazarpena	-	-
	Giza eskubideak	3	3
	Ustelkeria	-	-
	Bestelakoak	-	-
Webguneko Salaketen Kanala (Seguros Lagun Aro)	Jazarpena	-	-
	Giza eskubideak	-	-
	Ustelkeria	-	-
	Bestelakoak	-	-

Egiaztatutako intzidenteei buruzko bestelako informazioa

Aurretik esan bezala, 2023an eta 2024an ez da intzidenterik, isunik edo ustelkeria- edo eroskeria- kondenarik izan. Beraz, ustelkeriarekin edo eroskeriarekin lotutako intzidenteei dagokienez, azken bi urteetan:

- Langile bat ere ez da kaleratu edo zigortu ustelkeriarekin edo eroskeriarekin lotutako intzidenteengatik.
- Bazkide komertzialekin egindako kontratu bat ere ez da amaitu edo berritu gabe geratu ustelkeriarekin edo eroskeriarekin lotutako urraketengatik.

[G1-5] Eragin politikoa eta presio-taldeen jarduerak

Entitateak ez du azpiazpigai honi buruzko informaziorik eman, «eragin politikoa eta presio-taldeen jarduerak» gaiak ez baitu garrantzi erlatiborik, G1-IRO1 informazioa zabaltzeko betekizunean adierazten denez.

[G1-6] Ordainketa-jardunbideak

Entitateak ez du azpiazpigai honi buruzko informaziorik eman, «hornitzaileekiko harremanen gestioa, ordainketa-jardunbideak barne» gaiak ez baitu garrantzi erlatiborik, G1-IRO1 informazioa zabaltzeko betekizunean adierazten denez.

Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa

Fundazioei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei egindako ekarpenak (11/2018 Legeari erantzuteko)

S3 «Elkartze- edo babesletza-ekintzak» apartatuan azaldu dugunez, LABORAL Kutxak irabazi banagarrien % 25 itzultzen dio gizarteari. Banaketa horretatik, gehiena (% 21,8) Mondragon Fundaziora bideratzen da.

MONDRAGON FUNDAZIOA funtsak gestionatzen dituen erakundea da, eta jarduera hauek egiten ditu funts horiekin: hezkuntza eman, berrikuntzaren aldeko elkar-lankidetza sustatu eta beste ekimen batzuekin lankidetzan aritu, jarduera berriak sustatu, negozioei lagundu eta proiektuak sendotzen lagundu. Fundazioaren eginkizuna da Mondragon Korporazioko kooperatibek hainbat funtsen bidez egindako ekarpenak bideratzea, eta, jasotako baliabideekin, dirulaguntzak ematea.

Gainerako % 3,2a (5 milioi euro baino gehiago 2024an eta 3,4 milioi euro 2023an) fundazioei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei egindako ekarpenen bidez banatzen da. Hona hemen helburuen sailkapena: kooperatibismoa sustatzea, komunitate jasangarriak, hezkuntza eta prestakuntza, eta berrikuntza eta jarduera berriak.

Kapitalak zuritzearen kontrako neurriak (11/2018 Legeari erantzuteko)

LABORAL Kutxako gestio-politiketan, kapitalak zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa dira iruzurraren eta sekretuak ezagutaraztearen esparruetako arriskurik handienak. Ildo horretan, Entitateak konpromisoa hartu du indarrean dagoen araudiaren eta nazioarteko estandarren arabera beharrezkoak diren organoak eta prozedurak ezartzeko. Xede horrekin:

- Entitatearen erakunde-egituran, Barneko Kontrol Organoa (BKOa) sortu da Taldean. Funtzio espezifikoak izango ditu prebentzioaren arloan.

- Gainera, arau eta prozedura zehatzak finkatu dira eta Kapitalak zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzeko eskuliburua izeneko txostenean jaso (2023-01-04an onartu zen azken bertsioa).

Kapitalak zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzeko politika korporatiboak LABORAL Kutxa Talde osoan du eragina, sozietate filialak barne.

Hauek dira nahitaez bete beharreko arau eta prozedura horien xedeak:

- Une bakoitzean indarrean dagoen araudia eta nazioko nahiz nazioarteko erakunde eta agintariek emandako gomendioak zorroztasun osoz betetzea.

- Jokabide-arau eta kontrol- eta komunikazio-sistema egokiak ezartzea, delituzko jatorria duten funtsak LABORAL Kutxa Taldearen bitartez bidera ez daitezen eta zenbait pertsonari sarbidea eragozteko.

- Bezeroak onartzeari buruzko politikak finkatzea.

- Laneko bazkideek eta gainerako langileek bezeroa ezagutzeko politikaren alorreko prozedurak betetzen dituztela bermatzea.

Prebentzioa da, batez ere, politika eta prozedura horien burubidea. Gainera, kanpoko aditu batek urtero ebaluatzen ditu barne-kontroleko prozedurak, kapitalak zuritzeko eta terrorismoa finantzatzeko arrisku horiekiko esposizioa murrizteko prozesuetan etengabeko hobekuntzaren logika aplikatzeko.

C1-Zibersegurtasuna eta datuen tratamendua

[SBM-2] Alderdi interesdunen interesak eta iritziak

Informazio hori ESRS2-SBM2 apartatuan deskribatuta dago.

[IRO-1] Garrantzi erlatiboa duten intzidentziak, arriskuak eta aukerak zehaztu eta ebaluatzeko prozesuen deskribapena

Informazio hori ESRS2-IRO1 apartatuan deskribatuta dago.

[SBM-3] Inpaktu materialak, arriskuak eta aukerak, eta negozio-estrategiarekin eta -ereduarekin duten interakzioa

Eraldaketa digitalak finantza-sektorea irauli du azken urteotan, eta teknologia eta negozio-eredu berriak sortu ditu, berariazko inpaktu, arrisku eta aukerak ekarri dituztenak. Horiek benetako erronkak dira ingurumenaren, gizartearen eta gobernuaren aldetik.

LABORAL Kutxak inpaktu, arrisku eta aukera hauek aintzat hartu eta gestionatzen ditu, bai eta haien epemugak ere (epe laburra, ertaina eta luzea), ESRS2 SBM-3 apartatuan deskribatutako eta materialtasun-azterlanean garrantzi erlatibokotzat hartutakoez gain:

Funtsezko inpaktuak

- **Efizientzia operatiboa handitzea**, produktuen automatizazioaren, kostuak murriztearen eta efizientzia handitzearen bidez (epe laburra).

- **Negozio-eredu berriak agertzea**, hala nola enpresentzako banka, online banka edo banka mugikorra, gero eta gehiago erabiltzen direnak eta zerbitzu-eskaintza zabaltzeko eta merkatu-segmentu berriak irekitzeko balio dutenak (epe laburra).

- **Bezeroaren esperientzia hobetzea**, tratu pertsonalizatuaren bidez. Inpaktu horrek bezeroekin zuzenean komunikatzeko kanalak sortzea eragin du, zerbitzu arinagoak eta egokiagoak eskaintzeko (epe ertaina).

- **Lehiakideen indarra areagotzea**; gero eta irtenbide aurreratuagoak ematen dituztenez, gainerako entitateek (tartean LABORAL Kutxak) etengabe eboluzionatu behar dute haiei aurre egiteko (epe luzea).

Arrisku nagusiak

- **Finantza-iruzurren** saiakerak ugaritzea, hala nola *phishing*a, *smishing*a eta identitate-lapurreta (epe luzea).

- LABORAL Kutxaren **ospeari kalte** nabarmena egitea, informazioaren, azpiegituraren edo webgune korporatiboen aurkako zibererasoen sofistikazioa handitzeak eragindakoa. Zibererasoo horiek bezeroen konfiantza higatzen dute (epe ertain eta luzea).

- Entitateak bete behar dituen **legeak eta arauak ez betetzeagatiko zehapenekiko** esposizioa (epe ertain eta luzea).

Aukerak

- **Berrikuntzan** inbertitzea, LABORAL Kutxako zibersegurtasuna elementu bereizgarria eta lehiakorra izan dadin eta, horrela, sektorean zerbitzu seguruagoak eta fidagarriagoak eskaintzeko (epe ertaina).

- **Funtzionalitate berriak** ezartzea edo **produktu eta zerbitzu** berriak sortzea, segurtasun biometrikoko aurrerapen teknologikoekin lerrokatuta edo adimen artifizialaren bidezko portaeretan oinarrituta (epe ertaina).

- **Erabakiak hobeto hartzea**, segurtasun-txostenek emandako datuak aztertuta (epe ertaina).

- **Bezeroen eta bezerogaien konfiantza** sustatzea, LABORAL Kutxa zibererasoo baten arriskuei aurre egiteko eta horiek arintzeko gai den entitatetzat har dezaten (epe luzea).

LABORAL Kutxa zibersegurtasun-arriskuak proaktibotasunez kudeatzeko ari da lanean, eta teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak baliatzen ditu, bezeroen eskura jarritako kanal ez-presentzialetan erabiltzaile-esperientzia hobetzeko eta konpainia lehiakortasun handia duen eta etengabeko eboluzioan dagoen ingurune batean kokatzeko.

Hori lortzeko, arrisku zibernetikoak gestionatzeko eredu operatibo bat ezarri du, industriaren jardunbiderik onenetan oinarritua. Eredu horrek aukera ematen du informazioaren segurtasunaren aurkako mehatxuak proaktibotasunez identifikatu, ebaluatu eta arintzeko, eta horrela, bereziki babestutako datuen, bezeroen informazioaren eta eskainitako zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, benetakotasuna, erabilgarritasuna eta trazabilitatea bermatzeko. Ariketa horren emaitza aldizka eguneratzen da, edo LABORAL Kutxaren sistemei eragiten dieten aldaketa esanguratsuak gertatzen direnean, betiere Entitatearen arriskua kontrolatuz, arriskuaren gainean ezarritako grina, tolerantzia eta mugak bete daitezen.

[C1-1] [MDR-P] Zibersegurtasunarekin eta informazioa babestearekin lotutako politikak

LABORAL Kutxa jakitun da gobernantza ona eta zibersegurtasunaren arloan bizi dugun ingurune aldakorrera egokitzea funtsezkoak direla negozioaren jarraipena eta interes-taldeen konfiantza ziurtatzeko, horrela nabarmen murrizten baitira zibererasoen ondoriozko galera ekonomikoen arriskua eta ospearen inguruko kalteak.

Horrela, bada, zibersegurtasunaren eta funtzioak bereiztearen arloko gobernantza-eredu bat ari da jorratzen LABORAL Kutxa. Horretarako, diziplina anitzeko batzordeak eratu ditu, Erabateko Segurtasunerako Plan Zuzentzailean (aurrerantzean, ESPZ) jasotzen diren ekimen eta proiektuen jarraipena egiteko eta erabaki estrategikoak hartzeko.

ESPZren ondorioz, Kontseilu Errektoreak hainbat politika onartu ditu, azken urteetan, zibersegurtasunarekin eta informazioa babestearekin lotutako inpaktu, arrisku eta aukerei aurre egiteko. Politika horien sentikortasuna dela eta, ez dugu xehetasunik emango, haien eraginkortasuna babeste aldera. Hona hemen politika horietako batzuk:

- IKTen inguruko Arriskuak Gestionatzeko Politika
- IKTen inguruko Gorabeherak Gestionatzeko Politika
- Segurtasun Politika Integrala (SAM)
- Datuaren inguruko Gobernu Politika

Entitateak Informazioaren Segurtasuna Gestionatzeko Sistema (ISGS) bat du, dagokion xehetasun-mailaren arabera egituratua, informazio-sistema korporatiboaren babesa bermatzeko eta arlo horretan eskumena duten agintarien konpromiso arautzaileak eta eskakizunak betetzeko. Sistema horretan, informazioaren teknologien aktiboak eta baliabideak behar bezala gestionatzeko nahitaezko bideak, arauak eta jarraibideak zehazten dituzten segurtasun-politikak eta -prozedurak definitu eta eguneratu dira aldian behin.

Gainera, LABORAL Kutxak aldian-aldian berrikusten du bere gobernu-esparrua, aplikatzekoak diren jardunbiderik onenekin, araudiekin eta erregelamenduekin bat datorrela bermatzeko eta Entitatea sektorean sortzen ari diren mehatxu berrien aurrean eguneratuta mantentzea ahalbidetzeko.

[C1-2] Inpaktu negatiboak konpontzeko prozesuak eta interes-taldeek beren kezkak azaltzeko bideak

ESRS S4-3 apartatuan (Inpaktu negatiboak konpontzeko prozesuak eta interes-taldeek beren kezkak azaltzeko bideak) azaltzen denez, zibersegurtasunari eta datuen segurtasunari dagokienez ere badira kontsumitzaile edo erabiltzaileek beren kezkak helarazteko mekanismoak —Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua—.

[C1-3] [MDR-A] Inpaktu materialen gainean neurriak hartzea, eta arrisku materialak kudeatzeko eta aukera materialak aprobetxatzeko ikuspegiak

LABORAL Kutxak, indarrean dagoen ESPZ (2023-2025) abian jarri zuenetik, neurriak hartzen jarraitzen du, Entitateak eta bere interes-taldeei eragiten dieten arriskuen inpaktua arintzeko.

2025eko ekitaldian, berrikusi eta birdefinitu egingo dugu ESPZ, LABORAL Kutxak zibersegurtasunarekin duen epe luzerako konpromisoa erakusten jarraitzeko. Helburu horrekin, bat egingo dugu joera berriekin eta erakundearen helburu estrategikoekin.

Ildo estrategiko horri dagokionez, LABORAL Kutxak hainbat ekimen bultzatu ditu urte hauetan, zenbait jarduera-ildoren barruan. Zibersegurtasunari buruzko informazioaren sentikortasuna dela eta, oro har azalduko ditugu, xehetasun handirik eman gabe:

Gobernantza

Zibersegurtasuneko eredu operatiboa eguneratu eta handitu egin dugu, erakunde osoko alderdi interesdunak kontuan har ditzan, eta, horrela, produktuetan, zerbitzuetan eta prozesu teknologikoetan zibersegurtasuna txertatzeko prozesua hobetzeko.

LABORAL Kutxarentzat hil ala bizikoa da segurtasunaren arloan hartutako estrategiarekin lerrokatuta jarraitzea, bere negozio-lerro guztietan segurtasun-maila handitzeko duen autoexijentzia eta konpromisoa direla eta.

Kontzientziazioa eta trebakuntza

Konfiantza funtsezko zutabea da LABORAL Kutxaren eta bere bezeroen arteko harremanetan. Konfiantza hori gauza dadin, LABORAL Kutxak zeharkako zibersegurtasun-kultura ezarri nahi du erakunde osoan, bertako pertsona guztiek funtsezko zeregina baitute informazioa eta informaziodun aktiboak babesteko.

Identifikatutako ahuleziak abiapuntu hartuta ekintzak diseinatzera eta garatzera bideratutako etengabeko trebakuntza-programen bidez, zibersegurtasun-arriskuei buruzko sentsibilizazio globala sustatzen da, baita arrisku horiek prebenitzeko edo arintzeko jardunbiderik egokienak ere.

Horrez gain, erakundeko pertsona guztiei zuzendutako prestakuntza-ekintza espezifikoak egin dira, gai izan daitezen zibereraso-saiakerak edo identitatea ordezteko saiakerak azkar detektatzeko eta, dagokionean, erantzuna emateko.

Babes-neurriak

Babes-neurrien aplikazioari dagokionez, LABORAL Kutxak segurtasun-proiektu teknikoak ezartzeko helburuari eutsi dio. Horiek, gero eta zorrotzagoak diren araudi-eskakizunak betetzeko ez ezik, LABORAL Kutxa segurtasunaren eta konfiantzaren erreferentzia gisa kokatzeko ere balio dute.

Bestalde, zibersegurtasuna zutabe estrategiko gisa txertatu da Entitatearen proiektu guztietan, datuen babesa, jarraitutasun operatiboa eta mehatxu digitalen aurreko erresilientzia bermatzeko. Ikuspegi horrek berekin ekarri du proiektuen diseinutik bertatik segurtasun-jardunbideak hartzea, areen arteko lankidetzari esker. Hala, proiektuen hasierako etapetatik arrisku zibernetikoaren ebaluazioak txertatzen dituzten prozesuak ezarri dira, baita arriskuak arintzeko kontrol aurreratuak ere.

Zaintza eta monitorizazioa

Kontingentzia-egoera bat eragin dezakeen edozein intzidenteri aurrea hartzeko xedez, LABORAL Kutxak agintariekin eta hirugarren alderdi interesdunekin lankidetza zuzen eta iraunkorreko lerro bat ezartzeko asmoa du, ziberintzidenteak lehenbailehen kudeatzeko, proaktibitatez jokatuz eta intzidente horiek ebaztea erraztuko duten neurrietan elkarri laguntzeko.

Helburu hori lortzeko, zenbait tresna sortu dira, LABORAL Kutxako segurtasun-taldeek aukera izan dezaten segurtasun-tresna independenteak integratu eta koordinatzeko, zereginak automatizatzeko eta intzidenteei erantzuteko lan-fluxuak arintzeko. Halaber, prozesu operatiboak egokitu dira, honako hauek oinarri hartuta: kontrolatutako ariketak egin ondoren lortutako emaitzak, ikasitako lezioak eta LABORAL Kutxari sektorean sortzen ari diren mehatxuen ezagutzan eta/edo tratamenduan abangoardian egoteko aukera ematen dioten foro eta espazioetako partaidetza.

Erresilientzia operatiboa

Aurtengo ekitaldian, LABORAL Kutxak negozioaren jarraitutasunerako sisteman eta prozesuetan urratsak egitean oinarritu du erresilientzia operatiboaren arloko ahalegina. Horretarako, segurtasun-plan espezifikoak berrikusi eta hobetu ditu, ziberariketetan eta kontrolatutako jarraitutasun-probetan ikasitako lezioak oinarritzat hartuta.

Hobekuntza horren ondorioz, LABORAL Kutxak hobetu eta automatizatu egin ditu bere zerbitzuen erabilgarritasunean eragin dezaketen eta konpainiari kalte ekonomikoak eta ospearen arlokoak ekar diezazkiokeen zibererasoak edo hondamendiak detektatzeko eta gainditzeko gaitasunak.

[C1-4] [MDR-T] Inpaktu material negatiboen kudeaketarekin, inpaktu positiboen sustapenarekin eta arrisku eta aukera materialen kudeaketarekin lotutako helburuak

Segurtasun-arriskuak eta -intzidenteak behar bezala kudeatzea funtsezkoa da LABORAL Kutxari zibersegurtasunaren abangoardian egoteko aukera emango dioten helburu eta estrategia berriak zehazteko. Gero eta konplexuagoa den eta etengabe aldatzen ari den ingurune honetan, arriskuak identifikatu, ebaluatu eta arintzeko gaitasunak, balizko mehatxuen aurrean babesteko ez ezik, eboluzionatzeko eta erronka berrietara egokitzeko aukera ere eskaintzen du.

Segurtasun-intzidenteak behar bezala maneiatzeak lezioak ikastea ahalbidetzen du, eta hori funtsezkoa da LABORAL Kutxaren sistemak eta prozesuak hobetzeko. Intzidenteen sustraiko arrazoiak aztertzea lagungarria da helburu berriak definitzeko, hala nola sortzen ari diren mehatxuen aurreko defentsak indartzea, langileen prestakuntza hobetzea edo teknologia berritzaile berrietan inbertitzea. Era berean, arriskuak eraginkortasunez kudeatzeak eta intzidenteen aurrean erantzuteak aukera ematen dute ahuleziak ustiatuak izan aurretik identifikatzeko, eta horrek erraztu egiten ditu balizko erasoei aurrea hartzea eta estrategia sendoagoak diseinatzea.

Ildo horretan, LABORAL Kutxak ikuspegi proaktiboa du, eta erakunde-kultura erresilientea sustatzen du, aldaketetara egokitzeko gai dena. Horri esker, erakundeak bere aktiboak babesteko aukera du, baita irtenbide teknologikoetan eta prozesuetan berritzekoa ere, eta horrela, konfiantza sustatzen du bezeroen, bazkideen eta beste alderdi interesdun batzuen artean.

Ondorioz, LABORAL Kutxak helburu handiguratsuak baina errealistak proposatzen ditu, Entitatearentzat zibersegurtasunak balio bereizgarria izaten jarrai dezan; horien artean, nabarmentzekoak dira:

- Bezeroen finantza-informazioaren eta datu pertsonalen konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna bermatzea.
- Zibererasoen edo zerbitzu-etenaldien aurrean erresilientzia operatiboa bermatzea.
- Finantza-sektoreko araudien eta erregulazioen betetze-maila handiari eustea.
- Transakzio eta ordainketa-sistema elektronikoak ziurtatzea (eragiketen segurtasuna).
- Segurtasun-gorabeheren aurrean azkar detektatzeko eta erantzuteko gaitasunak ezartzea (AAn oinarritutako teknologia berriak erabiliz).
- Zibersegurtasunera eta datu sentikorrak babestera bideratutako zeharkako kultura korporatiboa sustatzea (bezeroak eta langileak trebatzea).
- IKT zerbitzuen hornidura- eta hornitzaile-katean segurtasuna ebaluatu eta gestionatzea.
- Teknologia berri eta berritzaileak segurtasunez txertatzea.
- Bezeroen konfiantza eta markaren ospea sustatzea ekintza argi eta gardenen bidez.

Zibersegurtasun-arriskuei aurre egiteko ekintzak oso sentikorrak direnez, ez dugu helburuen inguruko xehetasun handirik emango.

11/2018 Legearekiko eta Taxonomiaren Erregulazioarekiko korrespondentzia-taula

Ondoko taulan, informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen arloan 2018ko abenduaren 28ko 11/2018 Legearen arabera eskatzen den informazioaren indizea zehazten da, erreferentziatzat hartutako jakinarazpen-esparruarekin batera.

11/2018 Legearen betekizunak		Jakinarazpen-esparrua	Apartatua
Gai orokorrak			
Negozio-eredua	Negozio-ereduaren deskribapena	ESRS 2-SBM-1	ESRS 2 – Informazio orokorra – [SBM-1]
	Enpresa-ingurunea	ESRS 2-SBM-2	ESRS 2 – Informazio orokorra – [SBM-2]
	Antolamendua eta egitura	ESRS 2-GOV-1	ESRS 2 – Informazio orokorra – [GOV-1]
	Zer merkatutan jarduten duen	ESRS 2-SBM-1	ESRS 2 – Informazio orokorra – [SBM-1]
	Helburuak eta estrategiak	ESRS 2-SBM-1 MDR-T	ESRS 2 – Informazio orokorra – [SBM-1] ESRS 1 – Klima-aldaketa – [E1-4] ESRS S1 – Langile propioak – [S1-5] ESRS S4 – Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak – [S4-5] C1 – Zibersegurtasuna eta datuen tratamendua – [C1-4]
	Etorkizuneko bilakaeran eragin dezaketen faktore eta joera nagusiak	ESRS 2-SBM-1	ESRS 2 – Informazio orokorra – [SBM-1]
Orokorra	Jakinarazpen-esparrua	ESRS 2-BP-2	ESRS 2 – Informazio orokorra – [BP-2]
	Materialtasun-analisia	ESRS 2-IRO-1	ESRS 2 – Informazio orokorra – [IRO-1]

11/2018 Legearen betekizunak		Jakinarazpen-esparrua	Apartatua
Gai orokorrak			
Gestio-ikuspegia	Aplikatzekoak diren politiken deskribapena	ESRS 2-MDR-P	ESRS 2 – Informazio orokorra – [MDR-P]
		ESRS E1-E1-2	ESRS E1 – Klima-aldaketa – [E1-2]
		ESRS S1-S1-1	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-1]
		ESRS S4-S4-1	ESRS S4 – Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak – [S4-1]
		ESRS G1-G1-1	C1 – Zibersegurtasuna eta datuen tratamendua – [C1-1]
	Politika horien emaitzak	ESRS 2-SBM-1	ESRS 2 – Informazio orokorra – [SBM-1]
		ESRS E1	ESRS E1 – Klima-aldaketa
		ESRS S1	ESRS S1 – Langile propioak
		ESRS S4	ESRS S4 – Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak
		ESRS G1	C1 – Zibersegurtasuna eta datuen tratamendua
			ESRS S2 – Balio-kateko langileak
			ESRS S3 – Ukitutako komunitateak
	Taldearen jarduerekin zerikusia duten gai horiekin lotutako arrisku nagusiak	ESRS 2-SBM-3	ESRS 2 – Informazio orokorra – [SBM-3]
		ESRS 2-IRO-1	ESRS 2 – Informazio orokorra – [IRO-1]
Ingurumen-gaiak			
Ingurumenaren gestioa	Enpresaren jarduerek ingurumenean eta, dagokionean, osasunean eta segurtasunean egun dituzten eta izan ditzaketen efektuei buruzko informazio zehatza		
		ESRS 2-SBM-3	ESRS 2 – Informazio orokorra – [SBM-3]
		ESRS E1-SBM-3	ESRS E1 – Klima-aldaketa – [SBM-3]
		ESRS E1-E1-1	ESRS E1 – Klima-aldaketa – [E1-1]
		ESRS E1-E1-6	ESRS E1 – Klima-aldaketa – [E1-6]

11/2018 Legearen betekizunak		Jakinarazpen-esparrua	Apartatua
Ingurumen-gaiak			
Ingurumenaren gestioa	Ingurumen-ebaluaziorako edo -ziurtapenerako prozedurak	ESRS 2-IRO-1	ESRS 2 – Informazio orokorra – [IRO-1]
		ESRS E1-IRO-1	ESRS E1 – Klima-aldaketa – [IRO-1]
		ESRS E1-E1-1	ESRS E1 – Klima-aldaketa – [E1-1]
	Ingurumen-arriskuak prebenitzeko baliabideak	ESRS 2-SBM-1	ESRS 2 – Informazio orokorra – [SBM-1]
		ESRS 2-MDR-A	ESRS 2 – Informazio orokorra – [MDR-A]
			ESRS E1 – Klima-aldaketa – [E1-9]
	Zuhurtasun-printzipioaren aplikazioa	ESRS 2-MDR-P	ESRS E1 – Klima-aldaketa – [SMB-3]
		ESRS 2-MDR-A	
		ESRS 2-MDR-M	
	Ingurumen-arriskuetarako horniduren eta bermeen kopurua	ESRS 2-MDR-A	ESRS E1 – Klima-aldaketa – [E1-9]
Kutsadura	Ingurumenean kalte larriak eragiten dituzten isurtzeak prebenitzeko, murrizteko edo konpontzeko neurriak, jarduera baten atmosfera-kutsadura espezifiko oro kontuan hartuta, baita zarata eta argi-kutsadura ere	ESRS 2-MDR-A	ESRS 2 – Informazio orokorra – [IRO-1]
		ESRS E2-IRO-1	
Ekonomia zirkularra eta hondakinen prebentzioa eta gestioa	Prebentzio-, birziklatze- eta berrerabiltze-neurriak; hondakinak berreskuratzeko eta ezabatzeko beste modu batzuk	ESRS 2-MDR-A ESRS E5-IRO-1	ESRS E5 – Baliabideen erabilera eta ekonomia zirkularra
	Elikagaiak alferrik galtzea saihesteko ekintzak	-	Ez-materiala

11/2018 Legearen betekizunak		Jakinarazpen-esparrua	Apartatua
Ingurumen-gaiak			
Baliabideen erabilera jasangarria	Ur-kontsumoa eta -hornidura, tokiko mugekin bat	ESRS 2-MDR-A	ESRS E3 – Ura eta itsas baliabideak
		ESRS 2-MDR-M	
		ESRS E3-IRO-1	
	Lehengaien kontsumoa eta haien erabileraren eraginkortasuna hobetzeko hartutako neurriak	ESRS 2-MDR-A	ESRS E5 – Baliabideen erabilera eta ekonomia zirkularra
		ESRS 2-MDR-M	
		ESRS E5-IRO-1	
	Energia-kontsumoa, zuzenekoa eta zeharkakoa	ESRS E1-E1-5	ESRS E1 – Klima-aldaketa – [E1-5]
	Energia-efizientzia hobetzeko hartutako neurriak	ESRS 2-MDR-A	ESRS E1 – Klima-aldaketa – [E1-1]
		ESRS E1-E1-3	
	Energia berriztagarrien erabilera	ESRS E1-E1-5	ESRS E1 – Klima-aldaketa – [E1-1]
Klima-aldaketa	Enpresaren jardueren ondorioz sortutako berotegi-efektuko gasen isurtzeak, sortzen dituen ondasun eta zerbitzuen erabilera barne	ESRS E1-E1-4	ESRS E1 – Klima-aldaketa – [E1-1]
		ESRS E1-E1-6	ESRS E1 – Klima-aldaketa – [E1-6]
		ESRS 2-MDR-M	
	Klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko hartutako neurriak	ESRS 2-SBM-3	ESRS E1 – Klima-aldaketa – [E1-3]
		ESRS 2-MDR-A	ESRS E1 – Klima-aldaketa – [SMB-3]
		ESRS E1-E1-3	
	Berotegi-efektuko gasen isurtzeak murrizteko epe ertainera eta luzera ezarritako borondatezko murrizketa-helburuak eta horretarako ezarritako bitartekoak	ESRS 2-MDR-T	ESRS E1 – Klima-aldaketa – [E1-4]
		ESRS E1-E1-4	

11/2018 Legearen betekizunak		Jakinarazpen-esparrua	Apartatua
Ingurumen-gaiak			
Biodibertsitatearen babesa	Biodibertsitatea zaintzeko edo leheneratzeko hartutako neurriak	-	Ez-materiala
	Eremu babestuetako jarduerek edo eragiketek izandako inpaktuak	-	Ez-materiala
Gai sozialak eta langileei buruzkoak			
Enplegua	Langileen guztizko kopurua eta banaketa, herrialdearen, sexuaren, adinaren eta lanbide-kategoriaren arabera	ESRS 2-SBM-1	ESRS 2 – Informazio orokorra – [SBM-1]
		ESRS 2-MDR-M	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-6]
		ESRS S1-S1-6	
	Lan-kontratuen kopuru osoa eta modalitateen banaketa	ESRS-MDR-M	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-6]
		ESRS S1-S1-6	
	Urteko batezbestekoa kontratu-modalitatearen arabera (mugagabeak, aldi baterakoak eta lanaldi partzialekoak), sexuaren, adinaren eta sailkapen profesionalaren arabera	ESRS-2-MDR-M	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-6]
		ESRS S1-S1-6	
	Kaleratze-kopurua, sexuaren, adinaren eta lanbide-kategoriaren arabera	ESRS-2-MDR-M	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-6]
		ESRS S1-S1-6	
	Batez besteko ordainsariak eta haien bilakaera, sexuaren, adinaren, lanbide-sailkapenaren edo antzeko balioaren arabera	ESRS-2-MDR-M	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-10]

11/2018 Legearen betekizunak		Jakinarazpen-esparrua	Apartatua
Gai sozialak eta langileei buruzkoak			
Enplegua	Kontseilarien eta zuzendarien batez besteko ordainsaria (ordainsari aldakorra, dietak, kalte-ordainak, epe luzeko aurrezkia aurreikusteko sistemei egindako ordainketa eta bereizitako beste edozein pertzepzio barne hartuta) sexuaren arabera	ESRS-2-MDR-M	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-10]
		ESRS 2-GOV-3	
		ESRS E1-GOV-3	
	Soldata-arrakala	-	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-16]
	Lan-deskonexiorako politikak ezartzea	ESRS 2-MDR-P	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-11]
		ESRS S1-S1-1	
	Desgaitasuna duten langileak	ESRS S1-S1-12	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-12]
Lanaren antolakuntza	Lan-denboraren antolaketa	ESRS 2-MDR-A	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-11]
		ESRS 2-MDR-P	
		ESRS 2-MDR-T	
		ESRS S1-S1-1	
		ESRS S1-S1-4	
		ESRS S1-S1-5	
	Absentismo-orduen kopurua	ESRS 2-MDR-M	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-14]
		ESRS S1-S1-14	
	Kontziliazioa ahalbidetzeko eta gurasoen kontziliazio erantzunkidea sustatzeko neurriak	EIS 2-MDR-A	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-15]
		ESRS S1-S1-4	
		ESRS S1-S1-15	

11/2018 Legearen betekizunak		Jakinarazpen-esparrua	Apartatua
Gai sozialak eta langileei buruzkoak			
Osasuna eta	Laneko osasun- eta segurtasun-baldintzak	ESRS 2-MDR-A	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-14]
segurtasuna		ESRS S1-S1-4	
		ESRS S1-S1-14	
	Lan-istripuen eta lan-gaixotasunen kopurua, generoaren, maiztasun-tasaren eta larritasunaren arabera	ESRS S1-S1-14	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-14]
Harreman sozialak	Elkarrizketa sozialaren antolaketa (langileei informazioa emateko, kontsulta egiteko eta haiekin negoziatzeko prozedurak barne)	ESRS S1-S1-2	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-8]
		ESRS S1-S1-8	
	Enpresak dituen mekanismoak eta prozedurak, langileak konpainiaren gestioan inplikatzea sustatzeko, informazioari, kontsultari eta parte-hartzeari dagokienez	ESRS S1-SBM-2	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-2]
		ESRS S1-S1-2	
		ESRS S1-S1-3	
		ESRS S1-S1-8	
	Lan-hitzarmen kolektiboen bidez estalitako enplegatuen ehunekoa, herrialdearen arabera	ESRS S1-S1-8	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-8]
	Hitzarmen kolektiboen balantzea, bereziki laneko osasunaren eta segurtasunaren arloan	ESRS S1-S1-8	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-8]

11/2018 Legearen betekizunak		Jakinarazpen-esparrua	Apartatua
Gai sozialak eta langileei buruzkoak			
Prestakuntza	Prestakuntzaren arloan martxan jarritako politikak	ESRS 2-MDR-P	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-13]
		ESRS S1-S1-1	
		ESRS S1-S1-13	
		ESRS G1-G1-1	
	Prestakuntza-orduen guztizko kopurua, lanbide-kategorien arabera	ESRS 2-MDR-M	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-13]
		ESRS S1-S1-13	
Irisgarritasuna	Desgaitasuna duten pertsonen integrazioa eta irisgarritasun unibertsala	ESRS 2-MDR-A	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-12]
		ESRS S1-S1-4	
		ESRS S1-S1-12	
Berdintasuna	Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko neurriak	ESRS 2-MDR-A	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-1]
		ESRS S1-S1-1	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-9]
		ESRS S1-S1-4	
	Berdintasun-planak (2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoaren, III. kapitulua)	ESRS 2-MDR-A	ESRS S1 – Langile propioak – [SBM-3]
		ESRS S1-S1-1	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-1]
		ESRS S1-S1-4	
	Enplegua sustatzeko hartutako neurriak, sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako protokoloak	ESRS 2-MDR-P	ESRS S1 – Langile propioak – [SBM-2]
		ESRS 2-MDR-A	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-17]
		ESRS S1-S1-1	
		ESRS S1-S1-4	
	Diskriminazio-mota guztien aurkako politika, eta, dagokionean, dibertsitatea gestionatzekoa	ESRS 2-MDR-P	ESRS S1 – Langile propioak – [SBM-2]
		ESRS S1-S1-1	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-1]

11/2018 Legearen betekizunak		Jakinarazpen-esparrua	Apartatua
Giza eskubideekiko errespetuari buruzko informazioa			
Giza eskubideak	Giza eskubideen arloan arreta egokiko prozedurak aplikatzea, giza eskubideak urratzeko arriskuak prebenitzea eta, dagokionean, egindako abusuak arintzeko, gestionatzeko eta konpontzeko neurriak	ESRS 2-GOV-4	ESRS 2 – Informazio orokorra – [GOV-4]
		ESRS 2-MDR-P	
		ESRS 2-MDR-A	
	Giza eskubideen urraketen salaketak	ESRS S1-S1-17	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-17]
	Lanaren Nazioarteko Erakundeak elkartzeko askatasunaren eta negoziazio kolektiborako eskubidearen errespetuarekin, enpleguan eta okupazioan diskriminazioa ezabatzearekin, nahitaezko lana ezabatzearekin eta haurren lana benetan deuseztatzearekin lotuta dituen oinarrizko hitzarmenetako xedapenak sustatu eta betetzea	ESRS 2-MDR-P	ESRS S1 – Langile propioak – [SBM-2]
		ESRS S1-S1-1	ESRS S1 – Langile propioak – [S1-1]

11/2018 Legearen betekizunak		Jakinarazpen-esparrua	Apartatua
Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa			
Ustelkeria eta eroskeria	Ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko neurriak	ESRS MDR-P	ESRS 2 – Informazio orokorra – [SBM-1]
		ESRS MDR-A	ESRS G1 – Enpresa-jokabidea [G1-3]
		ESRS MDR-M	
		ESRS MDR-T	
		ESRS G1-G1-1	
		ESRS G1-G1-3	
	Kapitalak zuritzearen kontrako neurriak	ESRS MDR-P	ESRS G1 – Enpresa-jokabidea – Kapitalak zuritzearen kontrako neurriak
		ESRS MDR-A	
		ESRS MDR-M	
		ESRS MDR-T	
		ESRS G1-G1-1	
		ESRS G1-G1-3	
	Fundazioei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei egindako ekarpenak	-	ESRS G1 – Enpresa-jokabidea – Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa
Sozietateari buruzko informazioa			
Enpresak garapen jasangarriarekin duen konpromisoa	Sozietatearen jardueraren inpaktua tokiko enpleguan eta garapenean	ESRS S1-SBM-3	ESRS S3 – Tokiko komunitateak – Elkartze- edo babesletza-ekintzak
		ESRS S4-SBM-3	
		ESRS S1-S1-4	
		ESRS S4-S4-4	

11/2018 Legearen betekizunak		Jakinarazpen-esparrua	Apartatua
Gizarteari buruzko informazioa			
Enpresak garapen jasangarriarekin duen konpromisoa	Sozietatearen jardueraren inpaktua tokiko biztanleengan eta lurraldean	ESRS S1-SBM-3	ESRS S3 – Tokiko komunitateak – Elkartze- edo babesletza-ekintzak
		ESRS S4-SBM-3	
		ESRS S1-S1-4	
		ESRS S4-S4-4	
	Tokiko komunitateetako eragileekiko harremanak, eta haiekin ditugun elkarrizketa-modalitateak	ESRS 2-SBM-1	ESRS S3 – Tokiko komunitateak – Elkartze- edo babesletza-ekintzak
		ESRS S1-SBM-2	
		ESRS S4-SBM-2	
		ESRS S1-S1-2	
		ESRS S4-S4-2	
	Elkartze- edo babesletza-ekintzak	-	ESRS S3 – Tokiko komunitateak – Elkartze- edo babesletza-ekintzak
Azpikontratazioa eta hornitzaileak	Erosketa-politikan gai sozialak, genero-berdintasunekoak eta ingurumenekoak sartzea	ESRS 2 MDR-P	ESRS S2 – Balio-kateko langileak
		ESRS 2 MDR-A	
		ESRS 2 MDR-M	
	Hornitzaileekin eta azpikontratistekin ditugun harremanetan haien gizarte- eta ingurumen-erantzukizuna aintzat hartzea	ESRS 2 MDR-P	ESRS S2 – Balio-kateko langileak
		ESRS 2 MDR-A	
		ESRS 2 MDR-M	
	Gainbegiratze- eta auditoretza-sistemak, eta horien emaitzak	ESRS 2 MDR-P	ESRS S2 – Balio-kateko langileak
		ESRS 2 MDR-A	
		ESRS 2 MDR-M	

11/2018 Legearen betekizunak		Jakinarazpen-esparrua	Apartatua
Gizarteari buruzko informazioa			
Kontsumitzaileak	Kontsumitzaileen osasuna eta segurtasuna sustatzeko neurriak	ESRS 2-MDR-A	ESRS S4 – Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak – [S4-4]
		ESRS S4-S4-4	
	Erreklamazio eta kexak egiteko sistemak, eta horien ebazpena	ESRS S4-S4-3	ESRS S4 – Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak – [S4-3]
Informazio fiskala	Lortutako irabaziak, herrialdearen arabera	-	ESRS S3 – Tokiko komunitateak – Informazio fiskala
	Lortutako irabazien gainean ordainduko zergak	-	ESRS S3 – Tokiko komunitateak – Informazio fiskala
	Jasotako dirulaguntza publikoak	-	ESRS S3 – Tokiko komunitateak – Informazio fiskala
2020/852 (EB) Erregelamendua (Taxonomiarena)			
2020/852 (EB) Erregelamendua (Taxonomiarena)		2023/2486 (EB) ERREGELAMENDU DELEGATUA, jarduera ekonomiko horiei buruzko informazio publiko espezifikoa zabaltzeari dagokionez	ESRS E1 – Klima-aldaketa – Taxonomiaren Erregelamendua (EB) Eranskina: Taxonomiaren Erregelamenduaren adierazleak (EB)
		2022/1214 (EB) ERREGELAMENDU DELEGATUA, jarduera ekonomiko horiei buruzko informazio publiko espezifikoa zabaltzeari dagokionez	

Beste erregulazio batzuei lotutako edukiaren taula

CSRD eta ESRS ez bezalako EBko legeriatik datozen eta zeharkako arauetan eta arau tematikoetan sartuta dauden datu-puntuen zerrenda.

Dibulgazio-betekizuna eta datu-puntua	Deskribapena	Apartatua	SFDR	3. zutabea	Erreferentzia Indizeen Erregelamendua	Klimari buruzko Europako legeria
ESRS 2 GOV-1	Administrazio Kontseiluko genero-dibertsitatea, 21. apartatua, d) letra	GOV-1: Administrazio-, kudeaketa- eta ikuskaritza-organoen eginkizuna	X		X	
ESRS 2 GOV-1	Kontseiluko kide independenteen ehunekoa, 21. e) paragrafoa	GOV-1: Administrazio-, kudeaketa- eta ikuskaritza-organoen eginkizuna			X	
ESRS 2 GOV-4	Arreta egokiari buruzko deklarazioa, 30. apartatua	GOV-4: Arreta egokiari buruzko deklarazioa	X			
ESRS 2 SBM-1	Erregai fosilekin lotutako jardueretan parte hartzea, 40. apartatua, d) letra, i) tartekia	SBM-1: Estrategia, negozio-eredua eta balio-katea	X	X	X	
ESRS 2 SBM-1	Gai kimikoen ekoizpenarekin lotutako jardueretan parte hartzea, 40. apartatua, d) letra, ii) tartekia	SBM-1: Estrategia, negozio-eredua eta balio-katea	X		X	
ESRS 2 SBM-1	Arma eztabaidagarriekin lotutako jardueretan parte hartzea, 40. apartatua, d) letra, iii) tartekia	SBM-1: Estrategia, negozio-eredua eta balio-katea	X		X	
ESRS 2 SBM-1	Tabakoaren laborantzarekin eta ekoizpenarekin lotutako jardueretan parte hartzea, 40. apartatua, d) letra, iv) tartekia	SBM-1: Estrategia, negozio-eredua eta balio-katea			X	
ESRS E1-1	2050erako neutraltasun klimatikoa lortzeko trantsizio-plana, 14. apartatua	E1-1: Klima-aldaketa arintzeko trantsizio-plana				X
ESRS E1-1	Parisko Akordioarekin harmonizatutako erreferentzia-indizeetatik kanpo dauden enpresak, 16. apartatua, g) letra	E1-1: Klima-aldaketa arintzeko trantsizio-plana		X	X	
ESRS E1-4	BEGen isurtzeak murrizteko helburuak, 34. apartatua	E1-4: Klima-aldaketa arintzearekin eta horretara egokitzearekin lotutako helburuak	X	X	X	
ESRS E1-5	Energia-kontsumoa, berriztagarriak ez diren erregai fosiletatik abiatuta eta iturrien arabera bereizita (inpaktu klimatiko handia duten sektoreak soilik), 38. apartatua	E1-5: Energia-kontsumoa eta -konbinazioa	X			
ESRS E1-5	Energia-kontsumoa eta -konbinazioa, 37. apartatua	E1-5: Energia-kontsumoa eta -konbinazioa	X			
ESRS E1-5	Energia-intentsitatea, inpaktu klimatiko handia duten sektoreetako jarduerekin lotutakoa, 40-43 apartatuak	E1-5: Energia-kontsumoa eta -konbinazioa	X			
ESRS E1-6	1., 2. eta 3. irismeneko BEGen isurtze gordinak eta BEGen guztizko isurtzeak, 44. apartatua	E1-6: 1., 2. eta 3. irismeneko BEGen isurtze gordinak eta BEGen guztizko isurtzeak	X	X	X	
ESRS E1-6	BEGen isurtze gordinen intentsitatea, 53-55 apartatuak	E1-6: 1., 2. eta 3. irismeneko BEGen isurtze gordinak eta BEGen guztizko isurtzeak	X	X	X	
ESRS E1-7	BEGen xurgapenak eta karbono-kredituak, 56. apartatua	E1-7: BEGen xurgapenak eta BEGak arintzeko karbono-kredituen bidez finantzatutako proiektuak				X
ESRS E1-9	Erreferentzia-indizeen zorroak klimarekin lotutako arrisku fisikoekiko duen esposizioa 66. apartatua	2024ko ekitaldirako eskatu ez den informazioa			X	
ESRS E1-9	Arrisku fisiko akutu eta kronikoen ondoriozko diru-zenbatekoen desagregazioa, 66. apartatua, a) letra Arrisku fisiko esanguratsuekiko esposizioa duten	2024ko ekitaldirako eskatu ez den informazioa		X		

Dibulgazio-betekizuna eta datu-puntua	Deskribapena	Apartatua	SFDR	3. zutabea	Erreferentzia Indizeen Erregelamendua	Klimari buruzko Europako legeria
	aktibo garrantzitsuen kokapena, 66. apartatua, c) letra					
ESRS E1-9	Aktibo higiezinen kontabilitate-balioaren banakapena energia-efizientziaren arabera, 67. apartatua, c) letra	2024ko ekitaldirako eskatu ez den informazioa		X		
ESRS E1-9	Zorroak klimarekin lotutako aukerekiko duen esposizio-maila, 69. apartatua	2024ko ekitaldirako eskatu ez den informazioa			X	
ESRS E2-4	Europako PRTR Erregelamenduaren II. eranskinean (Emisio eta Transferentzia Kutsatzaileen Europako Erregistroa) zerrendatutako kutsatzaileetatik airera, uretara eta lurzorura isuritako bakoitzaren kopurua, 28. apartatua	Ez da materiala	X			
ESRS E3-1	Ur- eta itsas baliabideak, 9. apartatua	Ez da materiala	X			
ESRS E3-1	Politika espezifikoak, 13. apartatua	Ez da materiala	X			
ESRS E3-1	Ozeano eta itsasoen gestio jasangarria, 14. apartatua	Ez da materiala	X			
ESRS E3-4	Ur birziklatua eta berrerabilia guztira, 28. apartatua, c) letra	Ez da materiala	X			
ESRS E3-4	Guztizko ur-kontsumoa (m^3-tan) eragiketa propioen sarrera garbiengatik, 29. apartatua	Ez da materiala	X			
ESRS 2 - IRO-1 - E4	16. apartatua, a) letra, i) tartekia	Ez da materiala	X			
ESRS 2 - IRO-1 - E4	16. apartatua, b) letra	Ez da materiala	X			
ESRS 2 - IRO-1 - E4	16. apartatua, c) letra	Ez da materiala	X			
ESRS E4-2	Nekazaritzako edo lurra erabiltzeko jardunbide edo politika jasangarriak, 24. apartatua, b) letra	Ez da materiala	X			
ESRS E4-2	Nekazaritzako edo lurra erabiltzeko jardunbide edo politika jasangarriak, 24. apartatua, b) letra	Ez da materiala	X			
ESRS E4-2	Baso-soiltzeari aurre egiteko politikak, 24. apartatua, d) letra	Ez da materiala	X			
ESRS E5-5	Birziklatu gabeko hondakinak, 37. apartatua, d) letra	Ez da materiala	X			
ESRS E5-5	Hondakin arriskutsuak eta hondakin erradioaktiboak, 39. apartatua	Ez da materiala	X			
ESRS 2 - SBM3 - S1	Lan behartuaren kasuen arriskua, 14. apartatua	ESRS 2 SBM-3: Inpaktu, arrisku eta aukera materialak, eta horien interakzioa estrategiarekin eta negozio-ereduarekin	X			
ESRS 2 - SBM3 - S1	Haurren lanaren kasuen arriskua, 14. apartatua, g) letra	ESRS 2 SBM-3: Inpaktu, arrisku eta aukera materialak, eta estrategiarekin eta negozio-ereduarekin duten interakzioa	X			
ESRS S1-1	Giza eskubideen arloko konpromiso politikoak, 20. apartatua	S1-1: Langile propioekin lotutako politikak	X			
ESRS S1-1	Arreta egokia emateko politikak, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko hitzarmenetan (1-8) aipatzen diren gaiei dagokienez, 21. apartatua	S1-1: Langile propioekin lotutako politikak	X		X	
ESRS S1-1	Gizakien salerosketa prebenitzeko prozesuak eta neurriak, 22. apartatua	S1-1: Langile propioekin lotutako politikak	X			
ESRS S1-1	Lantokiko istripuak prebenitzeko politikak edo gestionatzeko sistemak, 23. apartatua	S1-1: Langile propioekin lotutako politikak	X			
ESRS S1-3	Erreklamazioak edo kexak gestionatzeko mekanismoak, 32. apartatua, c) letra	S1-3: Inpaktu negatiboak konpontzeko prozesuak eta langile propioen kezkak azaltzeko bideak	X			

Dibulgazio-betekizuna eta datu-puntua	Deskribapena	Apartatua	SFDR	3. zutabea	Erreferentzia Indizeen Erregelamendua	Klimari buruzko Europako legeria
ESRS S1-14	Hildakoen kopurua eta lan-istripuen kopurua eta tasa, 88. apartatua, b) eta c) letrak	S1-14: Osasun- eta segurtasun-parametroak	X		X	
ESRS S1-14	Lesioak, istripuak, heriotzak edo gaixotasunak direla eta galdutako lanegunen kopurua, 88. apartatua, e) letra	S1-14: Osasun- eta segurtasun-parametroak	X			
ESRS S1-16	Gizon eta emakumeen arteko soldata-arrakala, doitu gabe, 97. apartatua, a) letra	S1-16: Ordainsari-parametroak (soldata-arrakala eta guztizko ordainsaria)	X		X	
ESRS S1-16	Zuzendari exekutiboaren eta langileen arteko gehiegizko soldata-arrakala, 97. apartatua, b) letra	S1-16: Ordainsari-parametroak (soldata-arrakala eta guztizko ordainsaria)	X			
ESRS S1-17	Diskriminazio-kasuak, 103. apartatua, a) letra	S1-17: Giza eskubideekin lotutako intzidenteak, erreklamazioak eta inpaktu larriak	X			
